

Genero, nazio eta nazio hezkuntza: ikastoletako irakasleria

Egilea: **MILA AMURRIO VELEZ**

Urtea: 2001

ZuzendariaK: JESÚS ARPAL POBLADOR, KEPA FERNÁNDEZ DE LARRINOA

Unibertsitatea: UPV/EHU

ISBN: 978-84-8438-113-6

Hitzaurrea

Edozein ikerketaren abiaburuan ez baitasuna aurkitzen da. Esku artean duzuen ikerketaren kasuan ere bai. Nire ustea errealitatean ezereztatua ikusi nuen. Uste hori beste batzuek ere partekatzea ene baitasunaren oinarria zen, sen komunak eskaintzen duena, alegia. Horrela, nire aburuz, andereñoak euskaraz hezkuntza ekimen baten orokortze prozesuan subjektuak ziren eta, beraz, euskal identitatearen igortze eta zabaltze prozesuan eragileak ere bai. Haatik, Teresa del Valle antropologo feministaren esanetan, euskal nazionalismoak emakumeei esleitu dien ardura geroko abertzaleen heziketa da, bai; baina, ardura hori amaren rolaren ondorio baino ez da. Hortaz, funtzio horrek familia egitura indartzea du helburu, ez, ordea, gizarte eta kontzientzia etnikoaren garapenean funtsezkoa den gizarteratze prozesua burutzea. Kritika feminista horren ildotik andereñoak subjektuak barik objektuak lirake, hau da, euskal nazionalismoak objektuak egingo lituzke.

Masa hezkuntzaren sorrera eta garapen prozesua nazio eraikuntzari loturik agertzen da, bai XIX. mendeko Europar nazio-estatuak bideratutakoak, bai Estatu Batuetako gizarteak sortua. Masa hezkuntzaren garapena, hortaz, naziotasunari zein hiritartasunari loturik ageri da.

Komunitate politikorik ez duten nazioen nazionalismoek ere alfabetatze unibertsalaren garrantziaz jabetu ziren nazio sentimendua piztu eta igorri ahal izateko, nazio bera bizirik irauteko, hau da, komunitate politikoa lortu ahal izateko. Euskal nazionalismoa ez da salbuespena. Horren kultur iratzartze urrats desberdinez, euskaraz eskolatzeko eta alfabetatze unibertsalarekiko kezka gauzapez eta gauzapez horretan euskal emakumeak subjektu izan zirela, lan honen tesi nagusia da. Ikerketa lan hau defendatu nuenetik sei urte pasa direla goian aipatutako tesiak indar berarekin defendatzen segitzen dut. Orain, ikerketa lan hau irakurtzera animatzen direnei dagokie esatea nire tesi hori partekatzen duten ala ez.

***Genero, nazio eta nazio hezkuntza:
ikastoletako irakasleria***

Doktoregaia: Milagros Amurrio Velez

Tesi zuzendariak: Jesus Arpal Poblador eta Kepa Fdz de Larrinoa

Leioa, 2000ko Abendua

Euskal Herriko Unibertsitatea

Soziologia saila

AURKIBIDEA

	Orr.
ESKERRONAK	V
SARRERA	VII
<i>Lehen zatia: Genero Soziologiaren ildotik</i>	17
1.atala: Feminismoak Soziologiari egindako ekarpenak	19
1.1.-Feminismoaren hastapenak Soziologian: Aitzindariak	20
1.2.-1960ko hamarkadatik aurrera ikertzaile feministek eginiko kritikak, berrikuntzak eta ekarpenak	27
1.2.1.-Teoria ezberdinen kritika eta topiko berrien aurkikuntza	29
1.2.2.-Eta Metodologiaz zer?	33
1.2.2.1.-Hiru abiapuntu metodologiko	39
1.2.2.2.-Metodologia feministaren komuneko ezaugarriak	43
1.3.- Berrikuntza edo iraultza feminista Soziologian?	47
1.4.- Teoria feministez	62
2.atala: Egiturazko Genero Teoria eraikiz	79
2.1.-Osotasun sozialaren bereizketa: Ekoizpena eta ugalketaren inguruko eztabaidak	83
2.2.- Generoari buruzko egiturazko teoria baten bila	105
2.3.- Soziologian generoari dagokion tokia: sexu roletatik, instituzio generizatueta	121
3. atala: Generoa Soziologi Teoria Klasikoan: Generoa eta Komunitatea	127
3.1.-Rousseauren komunitate morala eta honen baitako genero antolakuntzari buruzko irakurketa desberdinak	134
3.2.- Comteren gizarte positiboa eta hark emakumezkoei esleituriko funtzio sozialaren izaera patriarkala	149
3.3.- Tocquevilleren gizarte demokratikoan emakumeei ematen zaien gehiagotasuna	166

<i>Bigarren zatia: Generoa eta Nazioa</i>	181
4. atala: Nazioaz eta nazionalismoaz zenbait ideia	183
4.1.- Nazioa egiten duten osagaien jorraketa arin bat	185
4.2.- Nazioa eta estatuaren arteko erlazioaz	198
4.2.1.- Nazio kulturala, nazio politikoa eta Estatua	198
4.2.2.- Nazioa eta Estatuaren arteko batasun ezari eman ohi diren irtenbideak.	205
4.3.- Nazionalismoaren helburuak eta ekite moduak	217
4.3.1.-Estatua daukan nazioaren nazionalismoa	221
4.3.2.-Estaturik gabeko nazioaren nazionalismoa	223
4.3.3.-Naziorik gabeko Estatuaren nazionalismoa	224
4.3.4.-Nazionalismo, hizkuntza eta hezkuntza	229
5. atala: Nazioen eraikitze prozesu generizatuak	239
5.1.-Nazioaren auzia feminismoaren eskutik: generoa erdigunean	243
5.1.1.-Generoa eta nazioaren arteko erlazioa ulertzeko lehenengo saio teorikoak.	244
5.2.-Generoaren teoria eta Nazioaren teoria uztartuz	252
5.2.1.-Emakumeak eta nazioaren birsorkuntza biologikoa	264
5.2.2.-Kulturaren birsorkuntza eta genero harremanak	268
5.2.3.- Herritartasuna eta desberdintasuna	275
5.3.-Estaturik gabeko nazionalismoetan emakumeen askapenaren bideragarritasunaz	279
 <i>Hirugarren zatia: Euskal nazioa eraikitze prozesu generizatua</i>	 289
6. atala: Estatu integrazioari jarkiz	291
7 atala: Foruzaletasunetik nazionalismora	313
7.1.- Sabin Aranaren volknation eta genero diskursoa	315
7.2.- Kultura-eta politika-arloen antolaketa generizatua	325
8. atala: Nazionalismo berriaren ekarpenak	351
8.1.-Kulturnation eta genero diskursoa	358

8.2.-Emakumeek nazio-komunitatea sortzen: ikastoletako andereñoak	376
<i>Laugarren zatia: Generoa eta Euskal Hezkuntza</i>	405
9.atala: Euskal nazioaren erakitze prozesua	
transizioaldian	407
9.1.-Euskal nazionalismoaren gorabeherak Hego Euskal Herrian	414
9.2.-Genero diskurso berrien agerpena euskal nazionalismoan	421
9.3.-Hizkuntza, Hezkuntza eta Generoa	429
10. atala: Ikastoletako Irakasleria	451
10.1.-Andereñoak ala irakasleak?	452
10.2.-1990eko ikastoletako andereñoen kolektiboa Euskal Autonomia	
Erkidegoan	489
10.2.1.- Ezaugarri soziodemografikoak	497
10.2.2.- Euskaldunok eraikitako eskola eredu batean irakastea	504
10.2.2.1.-Adina aldagi independentearen garrantziaz	516
10.2.2.2.-Antzinakotasuna	527
10.2.2.3.- Aukera politikoa	535
10.2.2.4.-Euskarazaletasuna	544
10.2.2.5.-Ikastola utzi?	557
10.2.3.- Genero eta irakaskuntza	564
10.2.3.1.-Genero diskursoak	585
10.2.3.2.-Genero diskursoak eta ikastolan irakastea	596
ONDORIOAK	611
BIBLIOGRAFIA	631

ESKERRONAK

Lana amaitu eta ostean, urte hauetan lagundu didaten pertsona guztiei zein instituzio ezberdinei eskerrak eman gurako nizkieke.

Batetik, esan behar dut ikerketa honen landa lana burutu ahal izan dudala, lehenik, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak emandako doktoreareko bekari esker eta, bigarrenik, ikastola askotako zuzendarien eta irakasleen partaidetza zabalari esker. Haiei guztiei mila esker.

Bestetik, urte hauetan zehar, une eta modu desberdinetan asko izan badira ere lagundu didatenak, horien guztien artean bereziki eskerrak eman gura dizkiet: Juanan Barrenetxeari, hari zor baitiot lan honetan lantzen diren zenbait gairekiko jakinmina nigan piztu izana. Baita Karmele Vazquezi ere, feminismoaz eta genero soziologiaz berak egindako hausnarketak eta lanak nirekin partekatzeagatik. Paulo Iztuetari tesia euskaraz idaztera animatzeagatik. Txoli Mateoseri, tesiaren idazketari eta edukiei eskainitako arreta, pazientzia eta egindako iradokizunengatik.

Ane Larrinagari, eta Santi Urrutiari *ozeano zeharkatu ostean* eskua luzatu didatelako, hainbat aldiz, ez nadin ito.

Azkenik, tesi zuzendari biri, Jesus Arpali eta Kepa Fdz de Larrinoari, eskainitako arreta eta denboragatik.

Guztioi, bihotz-bihotzez, eskerrik asko.

Amaiari,

Inoiz ulertuko dauelakoan

amak zertan ematen eban hainbeste denbora.

SARRERA

Generoa eta nazioa, feminismoa eta nazionalismoa, gizarte zientzietako literaturara heldu berri diren gaiak dira, jakina, ez banan-banan elkar erlazionaturik baino. Hala ere, azken hamarkadan zehar aztergairik handienetako bat bihurtu dira, berauen inguruan produzitutako idazlanen hazkunde ikaragarriak erakusten duen bezala. Lanen oparotasunak, alta, ez du jakin-mina asetzeko beste aberastasun teorikorik ekarri. Eta zergatik diogu hori? Batetik, generoa eta nazioa, biak, identitate kolektiboaren iturri gisa ikusiak badira ere, nazionalismoari buruzko ia lan guztietan nazioa delako gorengo identitate eta leialtasun iturria, beste identitate kolektiboen iturriak bere baitan bilduz. Eta, bestetik, ikerlari feministek gaiari heldu diotela, edozein nazio proiektu aztertzerakoan identitateen arteko gatazka atzeman eta agerian utzi baino ez baitute egin. Horrela, ikerlari feminista horien lan handiari esker, jakin badakigu, nazionalismoek nola bihurtzen dituzten emakumeak *objektu* (sinbolo, tradizio, bortizkeria eta abarren bitartez); baina, oraindik, nazio eraikitze prozesuetan emakumeek berauen partaidetzaz, *subjektu* gisa, diotenari buruz oso-oso gutxi dakigu. Lan handi horrek, hortaz, argitu beharreko auzia, alegia, nazio eraikitze prozesuetan zenbateraino bideragarria den emakumeen askapena, erantzunik gabe utzi du.

Euskal Herrira etorrita, klasiko bihurtu diren lanek erakusten duten bezala¹, hizpide dugun gaiaren inguruko ikerkuntza ere egoera bertsuan aurkitzen da. Tesi honek nolabait aipatu hutsune hori betetzea du helburu, hau da, euskal nazioaren eraikuntzan emakumeek izandako partaidetzaren nolakotasuna ezagutzea eta ulertzea, edozein nazionalismorentzat nazio identitatea igortzeko eta zabaltzeko funtsezkoa den eremu batean: hezkuntzan.

Hasieran esaten genuen gai hauek heldu berriak zirela gizarte zientzietara; ez dira, ordea, bat ere berriak banan-banan hartuak. Aitzitik, horietako bat tradizio handiko ikertze lerroa dugu: nazioa eta nazionalismoa. Bestea, generoa eta feminismoa, aldiz, ailegatu berri-berria ez bada ere, bada ikertze tradizio

VI Genero, nazio eta nazio hezkuntza: ikastoletako irakasleria

gutxiagokoa, batik bat, gure diziplinan, soziologian. Ondoren ikusiko dugun bezala, bata tradizio handikoa eta bestea tradizio gutxiago ikertze gaia izateak, zenbait buruhauste ekarri digu: feminismoen kontzeptuen inguruko eztabaida amaiezinak lan honetan zehar erabili beharreko funtsezko kontzeptua lantzeraino behartuz eta, era berean nazioa eta nazionalismoaren inguruko literaturaren ugaritasunak gure gogoetak zailduz. Oztupoak oztopo, azkenik, tesia lau zatitan antolatu dugu:

Lehenengoan, *genero soziologiaren ildotik* izenpean, lan honetan erabili dugun generoaren kontzeptua landu dugu, batik bat, hasierako bi ataletan. Horrela, kategoria horren sortzaile den mugimenduaren historia laburra egin dugu, soziologiaren ikuspegitik begiratuta. Azalpen horretan ez gara arduratu feminismoaren historiaren mugimendu politiko gisa, soziologian esanguratsuen diren ekarpenak egin dituzten feminismoen historiaren baina. Ondoren, teoria feministek sortu duen ezagutza soziologikoak egindako kritikak eta ekarpenak azaldu ditugu. Ekarpen horiek azaltzean kontzeptu egiturari buruzko eztabaidak mahaigaineratu ditugu, *genero* kontzeptuaren agerpena eta berorren inguruan mamitutako azken proposamenak ulergarri eginez. Azkenik, gure proposamen teorikoa egitera ausartu gara, alegia, genero kategoria onartu eta teoria baten baitan integratua aurkeztera. Gure proposamen teoriko horren osagaiak honakoak dira: sexu bakoitzari datxekion osagai soziokulturalak adierazteko, genero hitza erabili eta haren konplexutasuna, gure aburuz, ondoen islatzen duen definizioa gureganatu. Generoa harreman sozialen osagai eta botere-harreman esanguratsuen modu primario bat izatean, haren azterketak historikoa eta deseraikitzailea izan behar du; baina, kontuan harturik generoak dituen elkarrerlazioen lau osagaiak, kulturaren bitartez eskuragarriak diren sinboloak, sinbolo horien esanguraren interpretazioak, instituzioekiko erreferentziak zein ideia politikoak eta, identitate subjektiboak². Horrela, generoa osotasun sozialaren printzipio antolatzaile bat den legez, instituzio eta

¹ Valle, T.,(1985). *Mujer vasca, imagen y realidad*. Bartzelona: Anthropos, eta Ugalde, M.,(1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza 1906-1936*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

prozesu generizatuez hitz egiten dugu, azterketa maila guztiak aintzat hartuz. Hortaz, arraza, gizarte klasea, etnia, nazioa eta beste mendetasun eta desberdintasun mugek eraikitzen dituzten lehenengo prozesu generizatuak dauzkagu, makromailan aztertu beharrekoak. Bigarren prozesu generizatuak instituzioak legitimatu, azaldu eta justifikatzen dituzten irudi, sinbolo eta ideologiaren eraikuntza dugu; prozesu horren azterketari ekiteko ertain mailari ekinez. Hurrengo prozesuak elkarrekintzetakoak dira, beraz, mikromailan kokaturiko azterketaz ari gara. Azkenik, barne prozesuak ditugu, alegia, gizarteratze prozesuak; prozesu hauen azterketan, berriro ere mikromailan arituz.

Hari eroalea argitzen goazela zenbait irakurleri harrigarria suerta dakiokkeen atal batekin egiten dugu topo: *generoa soziologi teoria klasikoan: generoa eta komunitatea*. Feminismoen ekarpenez baliatuz proposamen teorikoa egin ostean, zertara dator ekarpen horiekin bat ez datozen gogoetak hona ekartzea? Zergatik Rousseau, Comte eta Tocquevilleren planteamenduak eta ez Condorcet edo J. S. Millenak? Komunitatea ikuskerari eusten dioten klasikoak direlako. Komunitatea kontzeptu hori problematikoa da, eta ez soziologian soilik, zientzia politikoan ere bai. Eta problematikoa da, historian zehar eta egun ere, errealitate gatazkatsu askoren oinarrian baitago, bai komunitatearen izenaren pean, bai antzetsu den identitate kolektiboaren edo nazio izenaren pean; halaber, subiranotasuna, estatua eta demokrazia bezalako kontzeptuen inguruko hausnarketa eta teorizazioaren oinarrian ere. Guk lan honetan horrelako errealitate gatazkatsu bat dugu aztergai: euskal nazio eraikitze prozesu generizatuak. Aipatu autore horien lanek prozesu horretan emakumeen partaidetzaren nolakotasuna zein emakumeek berauen partaidetzaz egiten duten interpretazioa ulertzen lagunduko digutelakoan gaude. Aldiz, feminismoen ekarpenek komunitatea atzerakoitzat jotzeaz gain, ikuskera horrek emakumeak objektu bihurtzen dituela diote, harago joan barik.

² Scott, J.W., El género: una categoría útil para el análisis histórico., in Historia y Género: las mujeres en la Europa Moderna y Contemporánea, Amelang, J.S./Nash, M., Editor. 1990, Alfons el Magnanim argitaletxea: Valencia.

VIII Genero, nazio eta nazio hezkuntza: ikastoletako irakasleria

Bigarren zatiaren laugarren eta bosgarren atalak, *generoa eta nazioa* izenburupean bildu ditugu. Lehenik, laugarren atalean, nazioa eta nazionalismoaren zenbait ezaugarritara egindako hurbilketa teoriko apal bat aurkezten dugu. Esan bezala, tradizio handiko ikertze lerroa denez gero, bereziki zaila da ezer berririk esatea. Horrela, lan honen helburuek behartuta, gaien zein idazleen hautaketa mugatu bat burutu dugu. Hurbilketa teoriko horretan, nazio egiten dituen osagaien berri eman eta, ostean, nazio politikoa, nazio kulturala eta estatua bereiztu ditugu, erakutsi guran nazio bat gizarte mota bat dela eta, beraz, prozesu bat; horrela, nazioa eratzen duen osagaien multzoa sortze egoeran egon daiteke, finkatze-integratze egoeran, desintegratze-desegite egoeran, berrosatze-berrintegratze egoeran, ala, beste nazio batek irentsi eta desagertzeko egoeran. Ondoren, nazionalismoaren definizio zabal batetik abiatuz, bere helmugez eta ekite moduez aritu gara, aintzat hartuz nazionalismoaren egoera desberdinak, hala nola, estatua daukan nazio baten nazionalismoa, estaturik gabeko nazioarena eta naziorik gabeko estatuarena. Horrez gain, arreta berezia eskaini diogu nazioa komunitate moral gisa berreraiki nahi izan duten nazionalismoen ekimenari, ekimen horren zutabeak hizkuntza eta hezkuntza izanik. Bosgarren atalean, nazio eraikitze prozesuez ari garela, feminismoa eta nazionalismoaren arteko tirabiraren muina azaldu eta gai horri emandako erantzun teorikoak ezagutarazi ditugu. Saio teoriko horietako batzuk oso-oso baliotsutzat hartu arren, esan bezala, mugatutzat ere jotzen ditugu identitate nazionala eta identitate feministaren arteko gatazka iraunkorra egiten baitute; estatuarekiko nazioen egoera kontuan izateak, aldiz, nazionalismo desberdin horien baitako genero harremanak aldatze bidea urratzen lagunduko digulakoan gaude, atal horren amaieran azalduko adibideek erakusten duten bezala.

Euskal nazioaren eraikitze prozesu generizatua, duzue hirugarren zatia. Zati horren abiapuntua honakoa da: euskal nazionalismoa, estaturik gabeko nazioaren nazionalismo bezala ezaugarritzea, europar herriek nazio politikokoaren estatusera heltzeko segitu dituzten bi bideetatik, estatuek jorratutakoa ala mugimendu nazionalistek urratutako bideetatik, alegia, bigarrena egokitu zaiola euskal nazionalismoari erakusten dugularik. Horrela,

euskal nazioa eraikitzeke euskal nazionalismoak bere sorreratik buruturiko ekimenetan zenbateraino nazioa komunitate moral gisa eraikitzeari ekin dion aztertu dugu. Hori dela eta, euskal nazionalismoaren bilakaera historikoan hizkuntzari eta hezkuntzari egotzitako garrantzia zein, aipatu eremu horietan, generoak egituratu dituen diskurtso eta praktika desberdinak izan ditugu aztergai. Burutu dugun begiratu berri horretan, une historiko desberdinetan hezkuntza eremuan bultzaturiko ekimen batean, ikastolan, emakumezkoen partaidetza esanguratsua aztertu ondoren honako ondorioa plazaratu dugu: euskal nazionalismoak euskal emakumeak *objektu* eta *subjektu abertzale* egin dituela.

Generoa eta euskal hezkuntza duzue lan honen azken zatia. Zergatik ari gara orain euskal hezkuntzaz eta ez nazio hezkuntzaz? Hona hemen erantzuna: Euskal nazioaren eraikitze prozesuan eraginik handien izan duen aldaketa politikoa Euskal Herriko hegoaldean gauzatzen da diktadorearen heriotzak zabalitzen duen trantsizio politikoarekin. 1978ko Konstituzioak Autonomien Estatua izenez ezagutzen den Estatu deszentralizatua definitu zuen. Euskal Autonomia Erkidegoa horietakoa bat da, 1979an eratua, baina, hegoaldeko hiru herrialdez soilik osatua. Autonomia Estatutua indarrean jarri eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sistema eraldatu zuen nagusitasun politikoa zeukan alderdiak: Euzko Alderdi Jeltzaleak. Batetik, 1983an elebitasuna ezarri zen oinarrizko hezkuntzan: euskara eta gaztelania derrigorrezko irakasgai bihurtu ziren unibertsitatez besteko hezkuntza maila guztietan, eta irakaskuntza elebiduna, A, B eta D ereduaren arabera sailkatu zen. Bestetik, ikastolari marko juridikoa eskaintzeko proposamenak plazaratu ziren, 1993an amaituko zen ikastolen publikazio prozesuari hasiera emanez. Eztabaida sutsuez josiriko prozesua dugu hori, urte horietan abertzaleen arteko eztabaidan bilduriko gaien ugaritasunean biziki nabarmendu zen ikastolari eta eskolari ematen zitzaien izaera: biak euskararen gordailu, baina, askoren ustez, ez modu berean. Batetik, eskola publikoa, euskaldun, herritar guztientzat zabalik, Euskal Autonomia Erkidegoan eskola populazio gehien euskalduntzeko lanabes gisa aurkeztua zena. Beraz, naziogintzak behar duen masa eskolatzera gehien urreratzen gintuena. Eta, bestetik, ikastola, Espainiako Estatuari irabazitako eremua,

X *Genero, nazio eta nazio hezkuntza: ikastoletako irakasleria*

Euskal Herriaren lurralde osoan errotua eta euskara irakasten eta zabaltzen aitzindari zena, nazio proiektuaren aitzindaritza ere jasotzen zuena. Egun oraindik eztabaidak itxi barik dirauenez, ikastetxe biek komuna duten ezaugarritik abiaturik *euskal hezkuntzaz* aritu izan gara hemen, aipatu eztabaida saihestuz. Testuinguru gatazkatsu horretan burutu genuen ikerketa honen landa lana, ez zailtasunik gabe asma dezakezuen, gaiztoturiko giroa zela eta informazio iturri asko mesfidati agertu baitziren. Landa lan horren berri hamargarren atalean ematen da eta berau abian jarri zuen hipotesia honako modu honetan labur daiteke:

Euskararen ezagutza berreskuratze eta zabaltzearen alde egindako lan handia zela eta, euskal nazionalismo osoak subjektu abertzaleetat hartu zituen garai bateko andereñoak, beste eremuetan objektu izaten segitzen zuten bitartean. Horrela, euskal nazionalismoak sorturiko andereñoen irudi hori iragan hurbileko oroimen historikoaren osagai bihurturik aurkitzen dugu. Baina, irudi hori, genero asimetriaren emaitza izanik, tradiziozko genero diskurtso bati loturik ageri da. Halere, baliteke garai horretako andereño batzuek, genero antolaketa zalantzan jarri barik, alegia, subjektu feminista izan barik, euren jarduna subjektu gisa interpretatzea. Halaber, baliteke euren artean feminista izanda, soilik subjektu abertzale gisa aritu izanak ere egotea. Egun, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastoletan ari diren andereñoek ez daukate zerikusirik irudi militante eta generizatu horrekin. Batetik, orain ikastoletan andereño lanean ari direnen asko ez daudelako hor lehen bezala, euskara berreskuratze eta orokortze asmoarekin ez besterik; bestetik, genero diskurtso desberdinak egon daudelako, euskal nazionalismoak ere bereganatu dituenak.

Beraz, hipotesi horretatik bi helburu ondorioztatzen dira, lehenengoa, epe desberdinetako andereñoek (1960ko, 1970eko eta 1980ko hamarkadakoak) edota andereño ohiek euren jardunaz egiten duten interpretazioa ezagutzea. Eta, bigarrena, 1990ean ikastoletan ari direnen andereñoen iritzi eta jarrerak ezagutzea.

Lan honen bigarren atalean eskaintzen dugun eredu teorikoari segituz, euskal nazioaren eraikitze prozesu generizatua deskribatu eta, ostean, elkarrekintzen

eta barne prozesuen azterketari ekin diegu lanaren azken atal honetan. Mikromailako azterketari honi ekiteko ikerketa teknika kualitatibo bat, elkarrizketa egituratua, eta kuantitatibo bat, galdekizuna, erabili ditugu metodoen triangelaketa³ burutuz.

Landa lanaren lehenengo urrats batean ikerketa kualitatiboa bideratu genuen, esan bezala, epe desberdinetan ikastoletan aritutako andereñoak elkarrizketatuz, eginiko lanari buruzko euren diskurtsoak ezagutu guran. Diskurtso horien analisiak honakoa ekarri zigun: batetik, elkarrizketak egituratzen zituen gaiekiko desberdintasun nabarmenak epe desberdinetako andereñoen esanetan, bestalde ulergarriak egin zitzaizkigunak aurreko ataletan landutako ikastolen historiaren argipean; eta, bestetik, guretzako korapilatsua izan zen kontzeptu bati, *euskaltzaletasunari*⁴ buruzko andereñoen esanak; azken horiek bigarren pausorako behar-beharrezko zen kontzeptuaren operazionalizaziorako guztiz lagungarriak suertatu zitzaizkigun. Beraz, andereñoei egindako galdekizunean *euskaltzaletasunaren* inguruan aurkituko dituzuen adierazleak diskurtso horietan oinarriturik daude. Azkenik, lan honen azken azpiatalean, galdekizunaren bidez eginiko ikerketaren berri duzue, alegia, 1990ean ikastoletako andereñoek euren lanaz diotena.

³ Bericat Alastuey, E.,(1998) La integración de los métodos cuantitativos y cualitativos en la investigación social. Bartzelona: Ariel.: 129 orr. eta Cea D'Ancona, M.A.,(1996) Metodología cuantitativa.Estrategias y técnicas de investigación social. Madril: Síntesis.: 47-62 orr.

⁴ Euskaltzaletasunaren esangura Sarasolaren hiztegian honakoa da: euskaltzalearen nolakotasuna, euskararekiko atxikimendu eta zaletasuna. Hori dela eta, lan honen zehar aipatu berbaz gain euskarazaleatasun berba ere erabili da. Sarasola, I. (1996). Euskal Hiztegia. Donostia: Kutxa Gizarte-Kultur Fundazioa.

Lehen zatia: Genero Soziologiaren ildotik

El mundo social funciona (según unos grados diferentes de acuerdo con los ámbitos) como un mercado de los bienes simbólicos dominados por la visión simbólica. Ser, cuando se trata de las mujeres, es, ..., ser percibido, y percibido por la mirada masculina o por una mirada habitada por las categorías masculinas, aquellas que se ponen en práctica, sin necesidad de enunciarlas explícitamente... (Pierre Bourdieu, 1999:123 orr.)

1. atala: Feminismoak Soziologiari egindako ekarpenak

Azken hogei urte hauetan, *genero* hitza, Gizarte Zientzietako terminologiaren ohiko elementu bat gertatu da. Gertakizun horren atzean, emakumeen menpekotasun egoera sistematiko eta unibertsala uler dezagun, mugimendu feministak bultzaturiko gogoetak aurkitzen ditugu. Baina nahiz eta hitza oso zabaldua eta erabilia izan, bere esanguraz ez dago ulerkuntza komunik, ezta ikertzaile feministen artean ere.

Tresneria teorikoa eraikitzean oso argi izan behar dugu zertarako nahi ditugun bitarteko horiek. Lan anitzetan aipatua izaten da helburu hori, nik arestian egin dudan bezalaxe, baina baita ahaztua ere kontzeptu teorikoak ikerketetan erabiltzerakoan. Orain arte lortu dugun gauza bakarra emakumeen menpekotasun egoera unibertsala deskribatzea eta egiaztatzea genuke, aurrerapen gutxi lortu delarik ezberdintasun eta menpekotasun horren sorreraren ulerkuntzan.

Hala ere, ez da lan makala, kontuan hartzen baldin badugu duela hogeitamar urte, lehenengo Estatu Batuetan, eta askoz beranduago beste lekuetan, hasi zela arlo honen jorraketa teorikoa; mundu akademikoan, ordurarte, emakumeak eta hauen arazoak ikustezinak ziren-eta.

Genero mailaketaren inguruko hausnarketaren historia hurbila gogora ekartzeak lagun diezaiguke egun daukagun egoera nahasgarria argitzen. Argitze lan honen ondorioz, *genero* kontzeptua nola izan den erabilia eta, gure aburuz, nola izan behar duen erabilia azalduko dugu, hitz egiten ari garen arazo soziologiko honen ulerkuntzan aurreratzeko. Baliteke ulerkuntza berri eta oso horretan oinarriturik gizarte aldatzeko teoria bat urratzen hastea ere.

1.1.- Feminismoaren hastapenak Soziologian : Aitzindariak.

1960ko hamarkadan emakumeen mugimenduak bi aldaketa nagusi ekarri zituen, arestian esan dugunez, amerikar soziologiara. Nabarmenena,

mugimendu sozial baten azterketa izan zen, zeinetan aditzera ematen baitzen, nola, une historiko zehatz batean, arazo pribatuak protesta kolektibo bilakatu ziren. Guri, ordea, gehiago interesatzen zaigu, mugimendu sozial horrek soziologiaren soziologiara egindako ekarpena zein den jakitea.

Ikertzaile feministek, desabantailak dituen talde bat ordezkatzuz, gizartea, ikuspegi berri batetik arakatzeari aldarrikatzen zuten. Baina zein da ikuspegi berri horren eragina soziologian? Feminismoak soziologiaren korrante nagusiari egindako kritikak ez du soilik agerian utzi gure ezagutzan dagoen hutsune izugarria, baita fenomeno sozialen interpretazio erratuak ere; kritika hau egungo soziologian dauden kokapen epistemologiko batzuetara ere hedatu da.

Feministek 1960. urtea baino lehenago soziologiaren korrante nagusian ikustezina zen arazo sozial bat agerian utzi zuten. Horrek ez du esan nahi aitzindari historiko batzuk ahaztu ditugunik; 1930-1960 urte bitartean egindako lan bakarren komentarioari aurrerago ekingo diogu, ostera.

Baina, zoritxarrez, onartu beharra dago epealdi horretako soziologiako testu-liburuetan, non familia bezalako gaiak jorratuak baitziren, emakumeen arazoei buruzko aipamenek ez zutela tokirik.

M. Komarowsky-ren¹ iritziz, garai hartako soziologoek, zientzilari gisa, huts egin zuten, Mertonek² definituriko 'ezkutuko arazo sozialak' ez identifikatzearen. Hemen, arazo soziala desantolaketa sozialari dagokio, hots, gure gizarte-balioen disfunczioei loturik doa. Arazo hau ez dagokie lege isolatu batzuei edota emakumeek jasaten dituzten bestelako ezberdintasunei, genero mailaketa sozial osoari baizik. Gizon eta emakumeen arteko rol sozialen bereizketaren iraupenak, gizonei etekin, autoritate, botere eta prestijio gehiago ematen dizkie emakumeei baino. Idazlearen iritziz, egungo gizarteetan, genero mailaketa hori, zeinek ideal demokratikoak bortxatzen dituen, ezin da denbora gehiagorik defendagarria izan.

Hala ere, soziologoak genero mailaketa arazo sozial legez kontsideratu ez arren, emakumeek pairaturiko zenbait desabantailaz jabetu ziren. Hala ere, hori ez zen

1Komarowsky, M.(1991) Some Reflections on the Feminist Scholarship in Sociology. *Annu. Rev. Sociol.*17: 1-25 orr.

2 Merton, R. K. (1964). *Teoría y estructuras sociales*. Mexico: Fondo de Cultura Económica.

nahikoa desabantailak esparru pribatura mugatzen diren ala giza izaeraren ezaugarri bat diren argitzeko.

Kritika feministak, generoa **arazo sozial** moduan ikusteko soziologiak duen ezintasuna agerian uzteaz gain, generoarekiko **arazo soziologiko**³ bezala zeukan itsukeria azalarazi zuen.

Baina, gorago esan dugunez, salbuespenak badira ere, eta nahitaezko erreferentziak ditugu, esaterako, Margaret Mead, Viola Klein, Mirra Komarowsky eta Alva Myrdal idazleak, 1930-60 urte bitartean feminismo berriaren⁴ ikertzaile aitzindari gisa ikusiak. Haiek egindako lanak eta ekarpenak honako hauek dira:

- *Sex and Temperament in Three Primitive Societies* (1935), Margaret Meadek idatzia. Franz Boasen,(antropologoa), eta William F. Ogburnen (soziologoa) ikasle dugu Mead. Ikerlari horiek determinismo biologikoaren aurka borrokatu zuten eta arraza eta klase arteko ezberdintasunak aztertzerakoan, haien analisiak kulturaren esparruan kokatu zituzten. Maisuen irakasgaiei segituz, Meadek obra honetan, hiru gizarte motari buruzko deskribapenean, sexu psikologikoen ezberdintasunak ulertzeko, kultur azalpenaren tesia dramatizatu zuen. Aurreko planteamenduak arazo berri batzuen analisiaren beharra eskatzen du. Galderak hauek dira: emakumetasun, gizontasun eta sexu rolen definizioen arteko ezberdintasunak nola aztertu behar dira gizarte eta une historiko ezberdinetan zehar? Emakumeek eta gizonek aldez aurretiko definituriko arauak onar ditzaten, nola izan dira gizarteratuak? Desbideratzaileentzat, zein lirateke proposamen sozialak -egotekotan-? Are gehiago, zein dira gizarte eta gizabanakoentzat harreman hauen kostuak eta etekinak?

M. Meadek, beste lan batean- *Male and Female* (1949)- gai honetaz zeukan ikuskera aldatu egin zuen. Bere hitzekin esanda determinismo kultural batetik, nor berari berea -*to both their own*- iradokitzen zuen ildora. Idazlan honek teoria psikoanalisten eragina erakusten du; egilea, une honetan, zalantzez beterik dagoela dirudi. Alde batetik, emakumeak lege, gobernu, erlijio, arte eta

3 Berger, P.L.(1993) Soziologiarako gonbitea. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

4 Komarovsky, M.(1991) Some Reflections on the Feminist Scholarship in Sociology. Annu. Rev. Sociol.17: 1-25 orr.

zientzia bezalako funtsezko egituretatik baztertuta daudela onartzen du; eta beste aldetik, "*bringing women into fields that have been defined as male...(because) this frightens the men, unsexes the women*", esanez, dauden 'arriskuaz' ohartarazten digu.⁵

Viola Kleinek- *The Feminine Character: History of an Ideology* (1946)- beste urrats bat dakar. Idazlan horrek, zortzi 'adituk' emakumezko nortasunari buruz garatu dituzten ikuskerak aztertzen ditu, Havelock Ellis eta Otto Weininger idazleekin hasi eta, Margaret Mead eta W.I. Thomasekin amaituz. Ikerlari honen ondorioa zera da: emakumearen nortasun tipikoaz buru hainbat aburu daudela. Ikertzaileak ahalegin oso handia egiten du idazle bakoitzak emakumetasunaz daukan ikuskera bere garaiko testuinguru sozialean eta bere bizitzan kokatzen. Kleinek, emakumetasun izaeraren deskribapenaz gain, gai epistemologiko zabalagoak ondorioztatu zituen, esaterako: objektibotasunari buruz ari dela, frogatzen du, gizarte zientzietan, ezagutza soziologiaren tradizioan, ikertzailearen ikuskera partzialetik (kontziente ala ez) libre den azterketarik ezin dela egin; ikertzailearen bizitza pertsonalaren esperientziak ezezik, gizarte zehatz batean adituak daukan kokapenak, gaiaren hautaketan, arazoaren formulaketan, kontzeptuek -hauen arabera mamitzen baita esperientzia- badute eraginik. Beste ondorioetariko bat zera litzateke: sexu estereotipo bipolaritasun nagusitik urrun gelditzen den aniztasunerantz doan aldaketaren errekonozimendua. Hau da, gizartearen ezberdintasun zabalak, sexua ezezik, nortasunean, gizarte-klasea, erlijioa, adina, arraza, famili harremanak, hots, eragin anitzen errekonozimendua ere bideratzen du.

Bestalde, sexuen ezberdintasunaren azalpen biologikoaz, Kleinek ez du errealitate hori ukatzen, baina bere proposamena bestelakoa da. Haren aburuz, soziologiak hasitako bideari, hau da, sexu ezberdintasun psikosozilogikoen azterketari segitu behar dio; baldintza biologikoak kondar ezberdintasunak gisa ikusiak izango baitira, eta, beraz, soziologiak ez dauka zertan kontuan hartu.

Age and Sex in the Social Structure, (1942) idazlanaren egilea, alegia, Talcott Parsons, ezin dugu ikertzaile feministen aitzindaritzat jo. Baina, kontuan hartzen badugu 60 eta 70eko hamarkadetan ikertzaile feministen kritikaren

⁵ Komarovsky, M.(1991) Some Reflections on the Feminist Scholarship in Sociology. Annu. Rev.

erdigune nagusia izan dela, aipatzearen arrazoia argitua gelditzen da. Haren tesia zera da: sexu rolen ezberdintasuna gure sistema sozialaren 'betebehar aurreko funtzionalekin' bat datorrela, nahiz eta onartu badirela emakumeek bizituriko 'tentsioak'. Ez dugu uste azaldu beharra dagoenik zergatik, 60ko hamarkadan, bai lana eta bai idazlea feminismoen kritika gai nagusi bilakatuko ziren.

Mirra Komarovskiyren *Women in the Modern World: Their Education and Dilemmas* (1953) liburua, II. Mundu Gerratearen ondoren, Estatu Batuetan sortutako uhin antifeministaren aurka idatzitakoa dugu. Uhin antifeminista horren adibideak dira, besteak beste, Helene Deutsch, zeinak, 1949an, "anatomia patua da" tesi freudiarra garatu baitzuen bi liburukitan. Marynia Farnham psikiatrak, bestalde, 1947an, emakumeen egoera izugarritzko'emozio katastrofe' legez deskribatu ostean, egoera tamalgarri horren erruduntzat jo zuen mugimendu feminista.

Komarovskiyren liburua jarrera horiei erasotzeko idatzia izan zen, idazle beraren esanetan. Jorratzen zituen gaien artean, honako hauek aurki ditzakegu: sexu rolen tentsioak, hezkuntzarekiko ezadostasuna, ordutegi osoko etxeakoandreak, eta gure gizartean familia bizitza eta lanbide karrera elkartzearen kostuak.

Aitzindarien lanen artean, Alva Myrdalen eta Viola Kleinen, *Women's Two Roles: Home and Work*, (1956) dugu lehen lana. Idazlan horretan 1950eko hamarkadako emakume-statusen arteko alderaketa eskaintzen da, lau gizarte industrialotan burutua: Estatu Batuetan, Frantzia, Suedian eta Britania Handian (Ingalaterran eta Galesen). Lan horrek bilduriko datu demografiko eta ekonomikoak egungo historiagileentzat baliagarriak dira oraindik ere. Ekarpenerik esanguratsuena emakumeen statusen arteko berdintasun eta ezberdintasunei buruzko azterketa da. Gizarte bakoitzean emakumeak lan indarraren heren bat dira gutxi gorabehera. Honen ondorioz, arazo soziala honela ikusten zuten,

Under present conditions, with an average family of only slightly more than two children...an average housewife can be considered to be employed full-time on

tasks which are necessary for homemaking during only one quarter to one third of her normal adult life. ⁶

Idazle horien proposamena honako hau da: lanegun erdiko jardueraren behin-behinekotasuna, haurrak hazi arte, eta gero lanegun osoko jarduerara itzultzea. Hauxe da egun, Ongizateko Estatuak legeriek onartzen dutena, nahiz eta hori praktikan bermatzen zaila izan; are gehiago egun bizitzen ari garen egoera ekonomikoa kontuan hartzen badugu.

Ikerlari hauen lanetan, geroko hausnarketarako giltzarri izango diren hainbat kontzeptu, aztergai eta kritika epistemologiko aurki ditzakegu. Labur bilduz, honako hauek:

- Sexu ezberdintasunak azaltzeko determinismo biologikoaren aurrean, Margaret Meaden azalpen kulturala, geroago Komarowskyk dioskunez, haren jarrera oso argia ez izan arren. Proposamen teoriko honen ondorioz, ikergai berriak agertu ziren: emakumetasun, gizontasun eta sexu rolei buruzko definizioen azterketa espazioan eta denboran, hots, gizarte eta une historiko desberdinetan; gizarteratze prozesuen azterketa; genero-harreman hauen kostuak eta etekinak gizartearentzat eta gizakientzat.
- Viola Kleinek, bere lehenengo lanean, emakumearen nortasuna aztertzerakoan, sexuaz gain, eragipen anitzen existentzia, (esaterako, gizarte klasea, erlijioa, adina, arraza, familia harremanak...eta abar), onartzean, egungo planteamendu teorikoekin bat egiten du, aurki ikusiko dugun legez. Erabat gaurkoturik dagoen beste planteamendu bat dugu, oraingo honetan maila epistemologikoan egina, alegia, zalantzan jartzea ikertzaileen ustezko objektibotasuna.
- Kontuan hartzekoak halaber, Myrdalek eta Kleinek jorraturikoak, emakume-statusen konparaketa, bi lan esparruak kontuan harturik: ordaindugabeko lana, etxekoa eta ordaindutakoa, eta etxetik at egindako lana. Egungo teoria feministetan, dauden *publiko/pribatu*; *ekoizpen/ugalketa* dikotomien aurrekari dugu Myrdalen eta Kleinen planteamendua.

⁶ Myrdal, A. eta Klein, V. (1956), Women's Two Roles: Home and Work, honako artikulua honetatik harturiko aipua: Komarovsky, M.(1991) Some Reflections on the Feminist Scholarship in Sociology. *Annu. Rev. Sociol.*17: 1-25 orr.

1.2.- 1960ko hamarkadatik aurrera ikertzaile feministek eginiko kritikak, berrikuntzak eta ekarpenak.

Hamarkada honetan hasi eta egun arte, literatura feminista oso ugaria izan da; era berean, azterketa gaiak biderkatu egin dira: emakumearen egoera, instituzio ekonomikoetan, familiarretan, legetan, politikoetan, akademikoetan eta erlijiosoetan; sexualitatea; amatasuna; etxeko-lana; alarguntsa; dibortzioa; emakumeen bizitza-zikloko urratsak; emakumeen aurkako bortizkeria; emakumeen bizitzei buruzko ikerketa historiko eta konparatiboak ..., eta abar.

Horretaz gain, literatura feministak epistemologia eta metodologiako gaiak jorratzen ditu, gehien bat, biak soziologi korrante nagusiari egindako kritika barne hartuz eta ikuspegi filosofiko eta metodologiko alternatiboak planteatuz.

Oraingo honetan, batez ere, izkribu horien guztien artean, soziologi korrante nagusian zenbait akats identifikatu dituzten idazkiez arduratuko gara. Kasu batzuetan, ikertzaile feministek arlo teoriko esanguratsuak azalarazi dituzte, eta lehenago soziologian ikustezinak ziren gaiak harrotu. Horietako bat da, adibidez, generoaren mailaketa-sistema mantentzen eta birsortzen duen mekanismo sozialen sare konplexua. Orain, ordea, gauza onartua da mekanismo horiek aurki ditzakegula, bai sexuen arteko elkarrekintza sozialen arauetan, bai kontrol instituzionaletan eta baita azkenekoz, bortizkerian bertan ere.

Era berean, urriak ziren gizarte-klaseen edo beste ezberdintasunen edo nazioen arteko ikerketa konparatiboak, hauek ere genero-mailaketan oinarrituriko ezberdintasunen berri eman baitezekate.

Soziologi korrante nagusiari zegozkion beste akats batzuk ez zetozen gai zehatz batzuk ez ezagutzeagatik, kritikarik egin gabe beste batzuk onartzeagatik baizik. Emakumezko eta gizonezko nortasunen estereotipo tradizionalak zalantzagabeko legez ikusiak izan ziren denbora luzez. Horrela, giza portaeran zeuden sexu ezberdintasunak estereotipo horiekin bat zetozenez, soziologoek jakinmina ez zen iratzartzen.

Ikerketa feminista batzuek, ordea, azalpenak bilatzeko asmotan, gizarte-egituraren ezberdintasunetara zuzentzen zituzten beren ahalegin teorikoak, emaitza hobeak lortuz.

1.2.1.- Teoria ezberdinen kritika eta topiko berrien aurkikuntza.

Hasierako gaiak, honako arlo orokor honetara urreratu ziren: emakumeak lan-merkatuan, zehatzago esanda, aldaketen mugetara. Emakumeek gizonen menperatzen dituzten lanbideetan sartzeko aurkitzen zituzten eragozpenak aztertzen ziren. Esparru honetan, ikertzaile feministek lan-merkatuan genero-ezberdintasunak mantentzen dituzten indarren azterketan dihardute, ekarpen handiak eginez.

Lehenengo uneetan, soziologia eta ekonomian nagusitzen ziren hainbat teoria kritikatzeari ekin zioten, teoria horiek, lan-merkatuan zeuden genero-ezberdintasunak azaltzean, ez baitzuten diskriminazio arazorik antzematen.

Teoria horietako bat, 'giza kapitalari' buruzko ekonomi teoria neoliberalak da. Teoria horren arabera, emakumeek eta gizonen euren gehienezko erabilgarritasuna lortzeko hautaketa ekonomiko arrazionalak egiten dituzte; horrela, emakumeek, etxeoandreen rolak atxikiturik izatean, trebetasun edo mugikortasun gutxiko lanpostuen aukera egitea arrazionala gisa aurkeztua da.

Beste azalpen batek sexuen arteko nortasun desberdintasunak azpimarratzen ditu. Desberdintasun hauen oinarriak batzuentzat biologikoak dira, eta beste batzuentzat psikologikoak; hots, sexuen gizarteratze ezberdin baten emaitza. Azken interpretazio horren arabera, lan merkatuan dauden genero desberdintasunak eta diskriminazioak, emakumeen eta gizonen ustezko ezaugarri batzuen emaitza izango lirakeke.

'Giza kapitalaren' eta 'gizarteratzearen' teoriak ezarritako sistema soziala emana gisa ikusten dute. Haien planteatzen duten galdera hertsia da: gure gizarteko lanbide-mailaketan gauzatzen den emakumeen aurkako diskriminazioa genero arazoiek soilik azal ditzakete?

Galderaren estutasunak teoria hauen irekitasuna mugatzen du. Aitzitik, ikertzaile feministek muga horiek gainditu egin dituzte, harago joanez. Ikerketa mikrosoziologikoek, lanbideen zapalkuntza eta, orokorrago, genero-mailaketa mantendu (edo aldatu) egiten dituzten giza mekanismoak eta estrategiak agertarazi dituzte. Nazioarteko konparaketa makrosoziologikoek emakumeen estatusan egiturazko eta kulturazko faktoreek duten eragina ikertu dute.

Ikertzaile feminista batzuek lortu dute teoria estandarrei atxikituriko susmo hertsia aldaraztea ere. Ekarpene horien artean dauzkagu 'lan kontzeptuaren' inguruan egindako nabardurak. Lana ordaindua den lanarekin identifikatua dago, eta, honen ondorioz, emakumeek egiten duten lan gehiena baztertua da. Ikerlari horien esanetan, lan kontzeptuaren baitan sartuko bagenu egun baztertuak diren lan-motak- etxeoandreen lana eta borondatezkoa- sexu biei aplikagarriak zaizkien galdera teoriko berriak egin ahal izango lirateke.

1970. urtera arte, ikerketa feministek gizarteratze ezberdinak gizon eta emakume helduen nortasunean duen eragina azpimarratzen zuten. Lan hauen arabera, gizarteratze-prozesuaren desberdintzapenak sexu-rolen estereotipo tradizionalak berrindartzen zituen. Gizarteratze desberdinarekiko kezka honek agerian uzten zuen ikertzaile feministek plazaratu nahi zuten mezu politikoa: *ez dago gure genetan*.

Denboraren poderioz, haurtzaroko eta nerabezaroko gizarteratzeari buruzko erreferentziak gutxiagotu egin ziren, beste gai berri baten agerpenarekin batera. Mezu berriak zera zioen: lehen sozializazioak nortasuna eragiten du, baina, aldi berean, gizatiar nortasunak malgutasun handia dauka; hau da, aldagarria da. Historia eta soziologiari buruzko izkribu feminista askotan, gai honen aipua aurki dezakegu. Hauen xede zabala, emakumezko ekimeneen ikusezintasuna zuzentzea eta zapalduak egon arren, beren bizitzan eta historiaren aurrean ekintzaileak izan zirela argitzea izango litzateke.

Epealdi honetan, idazleak emakumeen menpeko estatusa legeztatzeke erabiltzen ziren emakume-estereotipo tradizionalen aurka aritu baziren ere, handik aurrera estrategia defensibo hori baztertua izango da. Talde meneratzailaren balio-sistema aldatu egiten da, balioak birdefinitu egiten dira, emakumezkoen ezaugarri bereizgarri batzuk gorai patzen direlarik.

Nancy Chodorow⁷, Jessie Bernard⁸, Carol Gilligan⁹ eta Arlie Russell Hochschild¹⁰ idazleen lanek arestian esandakoa baieztatzen dute.

7 Chodorow, N. (1999) *The Reproduction of Mothering*. Berkeley, University of California Press

8 Bernard, J. (1981) *The Female World*. New York, Free Press

9 Gilligan, C. (1982) *In a Different Voice*. Cambridge MA, Harvard University Press.

10 Hochschild. (1983) *The Managed Heart*. Berkeley, University of California Press.

Labur bilduz esan daiteke, epealdi honetan ikustezinak ziren gaiak, genero-mailaketaren sistema mantentzen eta birsortzen duen mekanismo sozialen sare konplexua bezalako gaiak agertarazi zituztela; egun, sare konplexu horretan elkarrekintza sozialak, kontrol instituzionalak eta bortizkeria bera daudela denok jakitun gara.

Genero-desberdintasunekin zerikusia zeukaten gizarte klaseak, beste desberdintasunezko kategoriak edota nazioen arteko ikerketa konparatiboak bezalako gaiei buruz egon den interesik eza salatu izan dute, ikerketa gurutzatu hauen urritasuna agerian utziz.

Ikerketa feministak kritikatu izan du, halaber, emakumezko eta gizonezkoen nortasun estereotipo tradizionalen eta, hauekin batera, sexu desberdintasunen onarpena eta honen iraupen luzeegia akademiaren baitan. Horrela, kritikatu izan dituzte gizarteratze prozesuari buruzko teoriak, eta giza kapitalaren ekonomi teoria neoliberala, honako proposamen berri hauek zabalduz: lan kontzeptuari buruzko definizio berria; gizatiar nortasuna aldagarritzat jotzea, eta talde meneratzaileen balio-sistema aldatu beharra.

Ekarpen hauek guztiek, akademiak dituen mundu-ikuskerak,- hau da, teoriak,- poliki poliki eraldatzen lagundu izan dute. Azkenik, teoriak munduari zentzua emateko ditugun mundu ikuskerak baizik ez dira. Teoria horien arabera gure jakinmina bideratzen dugu; teoriak esaten digute zer den garrantzitsuena eta nola interpretatu behar diren egin beharreko jarduerak. Baina, mundua ulertzeko, ordea, datuak biltzea ere beharrezkoa da.

1.2.2.- Eta Metodologiaz zer?

Ikerketa metodoak, soziologok gizarteari buruz informazioa eskuratzeko erabiltzen ditugun tresnak dira. Soziologian erabiltzen diren metodoen artean bereizten ditugu, alde batetik, metodo *kuantitatiboak* -batez ere galdekizuna, eta bigarren mailako datuen azterketa estatistikoa-; eta, bestetik, *etnografikoak* edo *kualitatiboak*, -behaketa partehartzailea, sakoneko elkarrizketa eta bigarren mailako datuen azterketa kualitatiboa-.

Batek ikerketa-metodo bat ere ez dela ezplizitoki feminista edo antifeminista esan dezake; ikertze-modua eta ikerketa kokaturik dagoeneko teoria, zeinaren arabera interpretatuko baitira emaitzak, hauek bai izan daitezke irizpide erabakiorrak ikerketa hori feministatzat edo antifeministatzat jotzeko orduan.

Feminista askok, alabaina, datuen bilketa eta hauen interpretazioa bideratzeko erabiltzen diren metodo kuantitatiboak gaitzetsi egiten dituzte. Gaitzespen horren oinarrian dagoen azalpena da metodo horiek zientifikotasun izaeraren onartzen dutela eta, beren iritziz, soziologiak ez lukeela horrelakorik egin behar. Hau da, haiek dioskunez, gizakiak objektu gisa tratatuak direla, natur ikertzailek harriak edo kimika-gaiak ikertzen dituzten moduan, gizaki gisa tratatu beharrean.

Ikerketa feministak Soziologiaren ikuspegi positibista horretatik aldentzeko saioak egin ditu, ikerketak emakumearen askapenarekin nolabaiteko lotura edo kezka izan behar duela esanez. Horrela, ikerketaren abiapuntua objektibitatea izan beharrean subjektibitatea izango litzateke. Horren ondorioz, feminista batzuek uste dute emakumeek, emakumeentzat eta emakumeekin izan behar dutela ikerketa feministan arituko direnak; beste batzuen aburuz, aldiz, ikerketa feministak gizonak eta emakumeak, biak izan behar ditu kontuan ikerketa-subjektu gisa; esplizituki errekonozituz eta aztertuz existitzen den sexu/genero sistema ikertua den gizartean.

Harding¹¹ idazlearen iritziz, gizonezko ikerketa korrontetik ikerketa feminista desberdintzen duena ez da ikerketa-metodoa beste faktoreak baizik, esaterako:

- Arazoen jatorri alternatiboa, bistaraziz emakumeei, gizoneei baino gehiago axola zaizkien arazo eta gaiak.
- Garatutako azalpen-hipotesi alternatiboak eta erabilitako datuak.
- Ikerketaren helburuak: emakumeen mundu-ikuskeren ulerkuntza erraztea eta emakumeen askapenean zeregina izatea.
- Ikertzailearen eta ikertua denaren arteko harremanen izaera.

Horretaz gain, ikertzaile honek, metodoa, metodologia eta epistemologia desberdindu beharra azpimarratzen du. *Metodoak*, datuak biltzeko teknikak

11 Harding, S. (1987b). "Introduction: is there a feminist method?", ondorengo liburutik harturiko aipua: Abbot, P. eta C. Wallace.(1990) An introduction to Sociology. Feminist perspectives. London: Routledge.

dira; *metodologiak*, ikerketa prozesuak nolakoak izan behar duenari buruzko teoriak dira; *epistemologiek*, teoria bat egokitzen jotzeko irizpideak definitzen dituzte eta ikerketen emaitzak nola izan behar duten interpretatuak zehazten; hau da, jakintza arlo berberen, epistemologiak erabakitzen du ikerketa baten emaitzak beste batenak baino egokiagoak direla. Ikerketa feminista beste ikerketetatik desberdintzen duena, beraz, bere oinarrian dauden metodologia eta epistemologia izango dira.

Hala eta guztiz ere, auzi honen inguruan, feministen artean ez dago erabateko adostasunik; ikerketa feminista nolakoaz teoria eta argumentu ugari daude lehian. Gizonezkoen ikerketa korrantea gaitzestean adostasun gehiago lortu dute, gai komunak hauek izanik:

- Zientziaren izenean, gizonezkoen ikerketa korranteko soziologoen, emakumeen zapalkuntzari eusten dion ideologia mantentzen lagundu dute.
- Emakumeak eta emakumeen kezka ez dira ikerketa proiektuaren gai nagusi gisa ikusiak izan. "Emakumeak", ikerketetan kontuan izanez gero, modu marjinal batean eta gizonen irizpideen arabera aztertutako izaten dira.
- Ikertutako izaten direnak, lan egiteko objektu gisa tratatutako izaten dira.

Feministak emakumeak kontuan izaten dituzten ikerketak garatzeaz arduratu dira, eta, hortaz, haiei buruzko trataera goiko lerrootan aipatutako bezalakoa ez dadila izan dute helburu.

Kezka hauek bideratzeko, modu ezberdinak izan ditugu. Hasieran, ikertzaile eta ikerketa feminista asko *deseraikitzaileak* izan dira; hau da, zegoen ikerketa soziologikoen izaera androzentrikoa azalarazten saiatu dira, azpimarratuz horiek, emakumeen esperientzia eta ikuskerak kontuan hartzen ez zituztenez gero, ideologikoak zirela.

Beste urrats batean, emakumeek emakumeei buruz ikertu dute. Ikerkuntza honek galdera berriak planteatu ditu, eta, emakumeen ikuskeratik begiratuta, ezagutzaren ekoizpenaz arduraturik egon da. Emakumeen esperientziak ulertu ahal izateko, teoriak garatu beharra onartu izan da. Feminista askok- batez ere, feminista erradikalek- azken ideia hori ikerketa feministaren benetako helburutzat jo dute.

Hirugarren urratsean, argumentu berri bat hedatu da: feministak, gizonak eta emakumeak ikertzean, soziologia feminista gara dezaketen bakarrak dira; zeren

eta, ikerketa hori emakumeen ikuskeratik egitean, ezagutza osoago eta egokiagoa ekoizten baita.

Badirudi ikerketari buruzko jarrera feministak metodo zehatz baten erabilera eskatzen duela; hori dela eta, feminista askok, Soziologian, ikertzaile feministek metodo kualitatiboak erabili beharra errebeindikatu dute, ikerketa-subjektu diren emakumeak (zein gizonak) entzunak izan daitezen, ikerketa subjektuaren kokapenetik mundua ikusiz eta ulertuz, horrela. Horretaz gain, ikertzaile feministen objektibotasuna ukatzen dute, objektibotasunaz konpromisorik gabeko ikertzailea ulertzen delarik; haien ustez, ikertzaileak ikertzen ari direnaren zati bat baitira. Beraz, konpromisoa beharrezko eta ekidiezin gisa ikusten da. Horrek esanahi du hausnarketa funtsezkoa dela ikerketa-prozesuan.

Praktikan, soziologo feministek arestian aipaturiko ikerketa-prozesuan aritzeko zailtasun handiak aurkitu dituzte. Zailtasun hauen oinarrian dauden arazoaren artean jasotzen dugun prestakuntza bera dago.

Ikertzaile bezala trebatzeko ikasi duguna gizonezkoen ikerketa korronteak esandako guztia da; horretaz gain, ikerketa-prozesu guztietan inplikaturik dagoen eta ekidiezina den botere-harreman baten existentzia onartu behar dugu. Ildo honetatik, gogarazi behar dugu ikerkuntzaz hausnartu zuten aitzindarien esanak, alegia, okerra dela pentsatzea abiapuntu neutral bati euts dakiokela.

Horrela, emakumeei buruz ikertzean, emakumeek dituzten interesen gaineko galderak egitean eta metodo kualitatiboak erabiltzean, ikertzailea, ikerketa prozesuaren partaide eta emakume gisa bere konpromiso esplizitua izan beharrean, ikerketa subjektutik aldentzen saiatu beharko da.

Zientzilari neutral gisa agertzeak bestelako arriskurik ere badu. Esaterako, ikertzaileek ezin dute gainbegiratu beste ikertzaileek lorturiko emaitzez egiten dituzten interpretazioak eta erabilerak. Hori dela eta, feminismoaren aurkako interpretazioek ikerketaren emaitzak desitxura ditzakete.

Hala ere, beste jarreraren bat hartzeak ez du esan nahi arazorik ez dakarrenik. Ikerketa feminista subjektibotzat jotzeak askotan ikerketa baliogabetu egiten du. Subjektibo legez ikustean, nola frogatu feministek lorturiko emaitzak beste edozeinek lorturikoak baino hobeak direla? Zergatik dira ikerketa feministak lorturiko aurkikuntzak gizonezko ikerketa ildoak lorturikoak baino hobeak?

Aurreko galdera horien inguruan emandako erantzunetan, hiru argumentu nagusi aurkitzen ditugu feminismoaren baitan, hiru abiapuntu epistemologiko feminista: feminismo enpirista, ikuspuntu feminista eta feminismo erlatibista.¹²

1.2.2.1.- Hiru abiapuntu metodologiko:

- Feminismo enpirista

Ikuspegi epistemologiko honen xedea ikerketa ez-sexista baten garapena litzateke. Horrelako ikerketa bat bideratzeko, Eichlerrek¹³ ondorengo puntuak proposatzen ditu:

- 1.- Sexismoa ekiditea izenburuetan, sexua esplizitatuz.
- 2.- Sexismoa hizkuntzan alboratzea: hizkuntzaren erabileran argi gelditu beharko du gizonezkoen edo emakumezkoen edo biei buruz ari garen.
- 3.- Kontzeptu sexistak baztertzea; esaterako, gizarte-klasea definitzea, bakarrrik etxeko buruaren lanbidea kontuan hartuz.
- 4.- Ikerketetan sexismoa gainditzea; beraz, bai emakumezkoak bai gizonezkoak ikerketaren barne egongo dira.
- 5.- Metodoetan eta datuen interpretazioan sexismoa alboratu behar da.
- 6.- Politika-ebaluaketan ere, sexismoa alboratu behar da. Horrela, politika sozial horiek bai gizonezkoen bai emakumezkoen premiei erantzun behar diete.

Feminista gehienek bat datoz Eichlerrekin, baina oraindik ez dela nahikoa diote. Gehiengo horrek ikerketa positibista gaitzesten du, esanez gizartean dauden botere-harremanak direla eta, ikerketa-praktika horien ondorioz gizonezkoen segituko luketela menperatzen; beraz, gizonen premiak emakumeenak baino gehiago agertuko lirateke.

Gainera, Eichlerrek proposaturiko ikerketak ez ditu kontuan hartzen esperientzia, kontzientzia eta teoriaren arteko harremanak. Ikertzailea objektibo,

12 Abbot, P. eta C. Wallace.(1990) An introduction to Sociology. Feminist perspectives. London: Routledge. 208 orr.

13 Eichler, M. (1988). Non-Sexist Research Methods, London: Allen & Unwin, honako liburu honetatik harturiko aipua Abbot, P. eta C. Wallace.(1990) An introduction to Sociology. Feminist perspectives. London: Routledge.

neutral eta baliogabeko teknikari gisa aurkezten du. Zentzu honetan, feminista askorentzat ikerketa horrek ez luke ezagutza feministarik ekoiztuko.

- Ikuspuntu feminista

Epistemologia hau aldeztu dutenek, egokia eta nahiko ona den funtsezko ezagutza ekoiztera bideratzen dituzte beren ahaleginak; hau da, haiek lorturiko emaitzak, gizonezkoen ikerketa ildoak edo beste feministek lortzen dituzten emaitzak baino hobek eta egokiagoak direla justifikatzen saiatzen dira. Lorturiko emaitzek emakumeentzat baliagarriak eta erabilgarriak izan behar dute. Abiapuntu hau hartzen duten ikertzaileek helburu bat daukate: euren lana akademiak onartzea, soziologi ezagutzara ekarpenak egitea eta, aldi berean, emakumeentzat mesedegarri izatea.

Ikertzaile horien aburuz, ezagutzaren ekoizpena ekintza politiko konprometitu bat da. Ezagutza oro baliagarria dela dioen ikuspegiak (erlatibismoa) ez dute onartzen eta, halaber, zalantzan jartzen dute ikerketa-emaitza eta azalpen teoriko zehatz batzuk beste batzuk baino hobek eta egokiagoak direla frogatzea zerbait dela dioen tesia.

Azken hau posible ez bada, zaila izango da ikustea ikerketa eta azalpen feministek zergatik izan beharko duten beste batzuk baino hobek. Errealitate soziala ulertzeko, proposamen batzuk beste batzuk baino hobek direla erakustea edo frogatzea behar-beharrezkoa da, beren sahiestezineko partzialtasuna onartzen duten bitartean. Ikertzaileek ezin dute partzialtasun hori sahiestu iker-gaia hautatzean edo interpretatzean, eta funtsezkoa da alde aurretik jarrera hori aitortzea. Ezagutza guztia esperientzian oinarriturik dago eta, ikuspegi feministaren teorilariak aldarrikatzen dutenez, beren ikerketa zientifikoki hobea da esperientzia horretan oinarritzen delako, osoago eta desitxuratugabekoa den esperientzian frogatzen baitute. Gizon eta emakumeek modu ezberdinetan egituratzen dute errealitatea, azkenak zapalduak baitira. Zentzu honetan, teorilari hauen ustez, gizonezkoen ikerketa-ildoaren ezagutza ezin da izan inoiz oso-oso.

Ikuspuntu feministaren baitan, argumentatzen da, mundu soziala azaltzean, gizonezkoek egindako ikerketen aldean partzialtasun eta desitxuraketa

gutxiagoarekin aritzen direla. Bada mundu erreal bat, baina mundu hori azaltzeko ahaleginek beti izango dute sahiestezineko partzialtasuna; feministen partzialtasuna, aldiz, gizonezkoen ikerketa-ildoarena baino txikiagoa da.

- Feminismo erlatibista

Feminista batzuek "ikuspegi feminista"ren epistemologia gaitzesten dute, zientzia feministarik ez dela esanez; jarrera epistemologiko horren aldekoak, 'egia' berri baten bila ari direla dirudi; jarrera erlatibistaren aldekoak, ordea, ezagutza unibertsal horren lorpenari buruz eskeptikoak dira errotik. Azken horien iritziz, ez dago mundurik ez egitura sozialik 'hor kanpoan' aztertu eta nork ezagutu zain legokeenik, baizik eta esperientzia subjektibo anitz soilik.

Jarrera epistemologiko hau partekatzen duten feministak oso kritikoak dira gizonezkoek egindako ikerketekin. Objektibitatea, ezagutarazitako egia eta ikertzaileak ikerketa-prozesutik erakutsi behar duen distantzia dira, ostera ere, gaitzesteko zioak. Beraz, ikerketa feministak hartu behar duen bidea ulerkorra eta hausnarkorra da. Bide horretatik lorturiko ezagutzak emakume gisa gure egoera hobeto ulertzeko ahalmena eta gure burua askatzeko baliabideak ematen dizkigun heinean, egokitzat jo dezakegu. Jarrera honen arazo handienetariko bat, ordea, bere erlatibismoa da, zeren emakume guztien kontakizunek baliagarritasun bera izan dezaketela sinestea zail samarra suertatzen baita.

Arestian esaten den legez, ikerketa feminista beste ikerketetatik desberdintzen dutenak oinarrian dauden metodologia eta epistemologia dira. Dagoeneko, feminismoak auzi horri emandako erantzun ezberdinak ikusi ditugu, hau da, metodologia feministaren jarduera egokiaz hausnartzen duten hiru korrante epistemologikoak.

Ezberdintasunak ikusi ondoren, begira diezagun komunean dituzten ezaugarriei, horiek baitira metodologia feministaren berezitasuna osatzen dutenak, azken finean.

1.2.2.2.- Metodologia feministaren komuneko ezaugarriak.

Eztabaida askotan, lau dira berezitasun horren funtsezko osagaitzat hartzen direnak: generoaren esangura nonahi eta genero-asimetria; esperientziaren baliagarritasuna versus metodoa; ikerketa-prozesuan izaten diren harremanen hierarkizazioaren aurkako jarrera(ikertzailearen eta ikertuaren arteko harremanak); ikerketa helburua eta, baliotasun-irizpide gisa emakumeen askapena.

- Generoaren esangura nonahi eta genero asimetria.

Ez da harritzekoa metodologia feministaren kezka nagusia generoa izatea. Honen esanahia zera da: gizon eta emakumeen kokapen sozialetan gertatzen diren ezberdintasunek mota guztietako giza harreman sozialak egituratzen dituztela, eta botere ezberdintasun garrantzitsuak direla. Hizpide dugun ezaugarri honen arabera, bizitza sozialaren esparru guztietan generoa, funtsezko gaia izateaz gain, edozein azterketatan kontuan hartu beharreko osagaia da. Are gehiago, aintzat harturik genero ezberdintasunek esperientzia eta sinesmen pertsonalak egituratzen dituztela, gizartean gizonen nagusitasuna eztabaidaezina dela, gizarte-zientzia tradizionala, gizonen esperientziaren adierazpen bat dela esaten da askotan, baina esperientzia hori gizaki orori dagokion bezala aurkezten zaigu. Ideia horretatik datozkigu honako agindu metodologiko hauek: emakumeen esperientzia, genero ezberdintasunak eta harremanak aztertzea eta, gizarte zientzia tradizionala kritikatzeko, hau gizonezkoen ikuspegipean eraturik baitago.

- Esperientziaren baliagarritasuna versus metodoa

Literatura feministan, metodoaren aurkako jarrerak esperientzia zuzenaren baliagarritasuna baieztatzeko itxura hartzen du askotan. Ikuspegi honetan, ikerketa feministaren gai garrantzitsuenetariko bat zera litzateke: emakumeen esperientzia aztertzea, hori bere horretan baliagarria bailitzan jorraturik izatea:

Feminist insisted that personal experiences couldn't be invalidated or rejected, because if something was felt then it was, and if it was felt it was absolutely real for the woman feeling and experiencing it. ¹⁴

Horretaz gain, emakumeen esperientziaren bitartez, mundu sozialari buruzko 'egiak' lor ditzakegulakoan daude, gizonei halako lorpenik ezinezkoa zaielarik. Iritzi horren oinarrian, nagusiki bi zio aurki ditzakegu: Batak zanpatzaile eta zanpatuaren arteko harremanaren izaera aipatzen du, eta besteak emakumeen kontzientzia bikoitza, alegia, kultura meneratzaileaz duten ezagutza eta beraien kultura desbideratzaileaz dutena.

Batzuetan, ideia hauen arabera, esaten da emakumeak lirakeela ikerketa feminista egin dezaketen bakarrak; eta, soilik emakumeak, emakumeak eta beraien esperientziaz benetako ulerkuntza batetara hel daitezkeela. Emakumeen esperientziez jabetzeko ere, data-bilketa eta metodo egituratuak desagokizat jotzen dituzten bitartean, desagituratuen edo kualitatiboen erabileraren beharra aldarrikatzen dute. Era berean, metodo egituratuak kritikatzeko dira, ikerketa-prozesuaren izaera sozial eta pertsonala ukatzen baitituzte, konpromisorik gabeko ikertzaile neutralaren aldetik objektibotasun-araua mantenduz.

- Ikerketa prozesuan izaten diren harremanen hierarkizazioaren aurkako jarrera (ikertzailearen eta ikertuaren arteko harremanak)

Feministek ikertzaile eta ikertuaren arteko harremanak elkarrekikoak izan behar dutela diote, hau da, haien aburuz, harreman horien desberdintasun hierarkikoak hautsi beharra dagoela. Ikerketa-prozesuan, hierarkizazio horren aurrean, ikertua den jendearen partaidetza berdina izan dadila proposatzen dute. Horrela, Reinharzek¹⁵ dioskunez, ikerketa-subjektuek parte hartu beharko dute datuen azterketan ere.

Hierarkia hori gaitzesteko beste arrazoi bat da ikertzailearen ikerketa ikuspegiaren barne egon behar duela. Horrek esan nahi du, ikerketak

14 Stanley, L. and Wise, S. 1983 b. Breaking out: feminist consciousness and feminist research. London: Routledge and Kegan Paul, honako artikulua harturiko aipua: Hammersley, M.. (1992) On Feminist Methodology. Sociology, 26- 2zka: 187-206 orr.

15 Hammersley, M.. (1992) On Feminist Methodology. Sociology, 26- 2zka: 187-206 orr.

ikertzailearen esperientziaren baitan egon beharko lukeela. Badirudi, beraz, hierarkiaren aurkako jarrera horren azpian hiru argudio daudela:

- Lehenengoa, etikoa: emakumeen artean harreman ez-hierarkikoak dira legezkoak diren bakarrak.
- Bigarrena, metodologikoa: 'egia' benetako harremanen bitartez soilik lor daiteke, hierarkiak datuen desitxuraketa baitakar.
- Azkenik, onartu beharra dago ikerketa kontzientzia handitzeko egoera batean izaten bada, ondoren ikusiko duguna, ikertua ikerketa-prozesuan inplikaturik egotea beharrezkoa dela.

- *Ikerketa helburua eta emakumeen askapena baliotasun-irizpide gisa*

Feminista askok, beraien ikerketen helburutzat ezagutza baliagarriaren ekoizpena hartu beharrean, emakumeen askapena hartzen dute. Askotan, jarrera horrekin batera, emakumeen zapalkuntzaren aurkako borroka 'egia' aurkitzeko bide bakarra dela pentsatzen da.

According to (the historical, dialectical and materialist theory of knowledge) the 'truth' of a theory is not dependent on the application of certain methodological principles and rules, but on its potential to orient the processes of praxis towards progressive emancipation and humanization. ¹⁶

Ikuspegi honen arabera, ikerketa feminista, ikertzaile eta ikertua denarentzat, bientzat, kontzientzia hartze prozesu bat da nahitaez; are gehiago, ikerketa feminista prozesu horren arrakastaren arabera epaitua izango da. Hori dela eta, egunerokotasunaren harian emakumeen zapalkuntzaren aurka borrokatzen ez dutenek ezin izango dute edozein subjekturi buruz, giza ikerkuntza zientifikorik ekoiztu, sexismoak eta androzentrismoak egiten duten guztia desitxuratua izaten baita¹⁷.

16 Mies, M. (1983). Towards a methodology for feminist research in Bowles and Duelli Klein(eds.), ondorengo artikulutik harturiko aipua: Hammersley, M.. (1992)On Feminist Methodology. Sociology, 26-2zka: 187-206 orr.

17 Gain honen inguruan ikus: Ramazanoglu, C.((1996) On Feminist methodology: male reason versus female empowerment. Sociology, 1992 .26- 2. zka: 207-212 orr. eta Gelsthorpe, L. Response To Martyn Hammersley´s paper ' on feminist methodology. Sociology, 1992. 26-2zk.a: 213-218 orr.

1.3.- Berrikuntza edo iraultza feminista Soziologian?

Honaino ikusitakoaren arabera, feminismoak Soziologiari garrantzi handiko ekarpenak egin dizkiola esatea zuzena bada ere, onartu beharra dago gure diziplinaren oinarritzko kontzeptuen gorputza eraldatzea ez duela lortu oraindik. Atal honen hasieran aipatu dugun legez, zeuden hutsuneak bete dira, sexismoa zuzenduz eta emakumeen esperientziei buruz gai berriak sortuz. Baina 'hutsuneak' egoteak arazo bat dauka: emakumeen esperientzia ezagutu ez duten paradigmak badirela.

Feministek, lehenengo epealdi batean, ezagutza soziologikoan hutsuneak beteaz egindako lana oso garrantzitsua izan bada ere, diziplinaren oinarritzko paradigmak birdefinitzeko egin diren ahaleginak ez dira hain arrakastatsuak izan.

Paradigmen aldaketa-prozesu horrek berarekin dakartza ondorengo dimentsioak; hots, dagoen kontzeptuen gorputza-aldaketa eta diziplinako kideek aldaketa horiek onartzea. Dimentsio bi horietan, diziplinen artean arrakasta gehien lortu duena antropologia feminista dugu; eta beste muturrean, soziologia feminista legoke. Teoriaz arduratzen diren aldizkari feministetan ere (*Feminist Studies eta Signs*), oso gutxitan agertu izan dira lan soziologikoak.

Nolakoak izan dira, bada, ezagutzari buruzko eraldaketa feministak? Soziologia feminista nolakoa izan da? Izatekotan, iraultza feminista izan da ala ez; eta ez bada izan, zein dira iraultza eza horren azpian dauden faktoreak?

Aurreko auzi horri heltzeko, J. Stacey eta B. Thornek, beren "The Missing Feminist Revolution in Sociology" artikuluan¹⁸ jorraturiko ildoan interesgarrienetariko bat legez ikusten dugu. Autore hauek, ezagutzaren erdian emakumeak jarri dituzten diziplinen arteko konparaketa bat egitetik abiatzen dira, geroago soziologiaren baitan feminismoak duen eustarriaz aritzeko.

18 Stacey, J. eta Thorne, B.(1985) The Missing Feminist Revolution in Sociology. Social Problems, 32, 4.zka Apirila.

Ezagutzaren eraldaketa feminista erraztua edo oztopatua izan daiteke faktore batzuen arabera, diziplinen arteko konparaketak erakusten digunez. Faktore horiek ondorengoak dira:

- Ikerkuntza arlo zehatz batean dagoen funtsezko arazoa.
- Giltzarri diren epistemologiak.
- Diziplina bakoitzaren baitan, teoriak duen izaera eta estatusa.
- Pentsamendu feministaren baitan, teoriak duen izaera eta estatusa.

Ikus dezagun autore horiek jorraturiko diziplinen arteko konparaketa hori.

Arestian esan dugun legez, ikertzaile feministek, ezagutzari ekiteko orduan, emakumeak ezagutzaren erdigunean jarri zituzten, ikerketa objektu gisa. Oinarrizko estrategia feminista honek arrakasta nahikoa lortu zuen: Historian, Literaturan eta Antropologian.

Historian, emakumeak ezagutzaren ardatz izatean, eguneroko bizitzari eta esparru pribatuari zegozkien arloak, behar-beharrezkotzat jotzeaz gain, diziplinaren baitan giza historiaren aurrerakadaren oinarri izan ziren. Izan ere, diziplina horren betiko gaien artean, esaterako, politika eta esparru publikoa aurkitzen dira, eta horiek, historian hala suertatu izanaren ondorio izan beharrean, gizonek historian duten zentraltasunaren ondorio izango lirateke. Historiagile feministak gizarte-klase eta politikari buruzko oinarrizko ezaupideak birplanteatzen hasi dira, barneratua izan den bizitza publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketa zalantzan jarritz.

Antropologian, paradigma-aldaketari dagokionez, feminismoaren lorpenak itzelezkoak izan dira, bi dimentsiotan bederen. Staceyk eta Thorne-k uste dute diziplina honetan nagusi izan den kontzeptu multzoaren eraldaketa beste diziplinetan izandakoa baino erradikalagoa dela, eta kontzeptu eraldaketa horrek, diziplinaren maila goreneko kide gehien artean onarpen zabala lortu duela. Diziplina honek, hasiera-hasierako garaietatik, bere oinarrizko planteamenduetan emakumezko kutsu adierazgarri bat izan du, eta horrek aipaturiko eraldaketak gorpuzten lagundu izan du.

Zentzu horretan eta Carol McCormackek¹⁹ dioen legez, antropologiak ikertzaile feministei heredentzia bikoitza utzi die:

Lehenengoa da, hasiera hasieratik, maila goreneko antropologoen artean beste gizarte zientzietan baino askoz emakume gehiago aurkitzen dela.

Eta bigarrena, antropologiaren ikerketa-objektua bera da; modernitate aurreko gizarte txiki eta sinpleak arakatzean, gizarte-bizitza osorako funtsezkoa den zerbait ukitzen baitu: ahaidetasuna. Ikerketa-objektu honek bultzatu zituen antropologoak legez, erlijioaz, politikaz eta ekonomiaz arduratzeaz gain, lan-banaketa sexualaz eta genero- harremanen dimentsio sinbolikoez eta egiturazkoez kezkatzeraz.

Beste hitzetan esanda, antropologian ahaidetasunak duen zentraltasunak bidea ireki dio diziplinaren bihotzean bertan genero-berrazterketa feministari. Horrela, genero kontuan hartzen duen ezagutza horrek eraldaketa sakonak sortarazi ditu paradigma nagusian, hala nola, etxe-bizitzaren eta bizitza publikoaren arteko bereizketa, eta Estatu aurreko gizarteak sailkatzeko metodo tradizionalak zalantzan jartzea.

Antropologia dugu adibiderik onena iraultza feministak dakartzan emaitzen aberastasuna ikusteko, eta errealitate oso baten ulerkuntzan aurrera egiteko. Antropologo feministek, emakumeak ezagutzaren ardatz bihurtaraztean, bizitza sozial eta kultural osoaren oinarri generizatuak iragarri dituzte eta, aldi berean, emakume eta gizonen bizitzaren itxuraketan, bai eta instituzio guztietan genero-harremanetan oinarritutako antolaketa duen esangura ere azalarazi dute.

Soziologian, emakumeak ezagutzaren erdigunean jartzeko erabili den estrategia feminista, kontraesankorra eta arrakasta kaxkarrekoa izan da, ordea. Egia da arlo zehatz batzuk eraldatu direla eta topiko berri batzuk gehitu, baina kontzeptu-egitura oinarrien berreraikuntza askoz apalagoa izan da. Egitate horrek dauzkan arazoaren artean honako hauek dira aipagarrienak:

19 McCormack, C. (1981). Men's Studies Modified, honako artikulo honetatik harturiko aipua: Stacey, J. eta Thorne, B. (1985) The Missing Feminist Revolution in Sociology. *Social Problems*, 32, 4. zka Apirila.

- Soziologia, gizarte-zientzia gisa, ez zen antolatu definizio zehatz eta hertsiki batzuen gainean, talde batzuk, oso-osorik, kanpoan geratu zirelako, Literaturaren eta Historiaren kasuetan gertatu zen bezala.

- Soziologia tradizionalan, lan-banaketa sexualarekin eta generoarekin erlazionaturik dauden gaiak, batez ere, familia, populazioa eta komunitate-ikasketen esparruetan jorratuak izan ziren; arlo horietan, jakina, emakumeen presentzia ezin zen ahantzia izan. Hala ere, lanbideari, politikari, legeari, erlijioari, erakunde formalei, edozein gizarte-egiturari eta gizarte-mugimenduei zegozkien gaiak lantzen zituzten soziologoek enoratu egin dituzte emakumeak. Soziologo horiek, esplizituki, gizonezkoen esperientzia barneratu zuten, generoa azterketa-kategoria bat zela, kontuan izan barik.

Esparru zehatz batzuetan generoa esplizituki egoteak, (modu erratu eta androzentriko batean egon arren), feminismoa soziologi esparru zehatz horietan muga lezake.

1970eko hamarkadan zehar generoari eta bizitza sozialari buruz egin ziren ekarpen feminista freskagarriak modu anitzetan izan ziren bereganatuak. Bereganatze-era ezberdin horiek deskribatzea nahikoa konplexua da, batez ere soziologiaz, diziplina gisa, hitz egiten denean. Soziologia, diziplina gisa, oso zabala eta zatitua da; 1960an funtzionalismoak paradigma nagusia izateari utzi zion; geroztik, soziologia erdigunerik gabeko arlo bat bihurtu zen. Zatiketa horrek iraultza feminista batu baten posibilitatea gutxiagotzea ekarri du; hau da, feministek espero zuten era askotako kontzeptuen eraldaketak izateko gero eta probabilitate gutxiago dago.

Soziologiaren paradigmaren eraldaketa feministak mugatu edo gelditu dituzten arrazoi garrantzitsuenak, ondorengoak dira:

-Generoari buruz funtzionalismoak dituen kontzeptualizazio mugatuak.

-Generoa funtsezkoa den kontzeptu teorikotzat hartu beharrean, aldagai soiltzat hartzea.

-Ikerketa feministak baztertzea edo ghetto baten sartzea, batez ere, Soziologia marxistan.

-Soziologian nagusi izatea *ezagutza positiboaren* tradizioa.

- Teoria feministaren jarduna bera.

a) Generoari buruzko jorraketa funtzionalista.

Familiari buruzko soziologia funtzionalistan, Parsonsek, familia nuklear tradizionalaren baitan, honako genero-banaketa hau ezarri zuen: 'rol adierazkorrak' (emakumezkoei dagozkienak) eta 'rol instrumentalak' (gizonezkoei dagozkienak). Parsonsek, familiari eta generoari buruz egindako azterketan, gizarteratze-funtzioa azpimarratzen zuen, ordena sozialaren funtzionamendu armoniosurako funtsezkotzat jotz. Arazo hori lantzeko era horrek genero-soziologian eragin handia izan du, oinarritzko kontzeptu batzuen garapena bultzatuz, (esaterako, sexu rolen hizkera), sinesmenak sortuz, (generoa familiarekiko beste instituzioekiko baino askoz garrantzitsuago dela), eta generoari buruzko gaiak ugalketa eta iraupen sozialarekin harremanetan daudela baieztatuz.

Egungo ikertzaile feministak laster ohartu dira generoa ulertzeko funtzionalismoak dituen eraginez eta mugez. Lan askok Parsonsen lana kritikatu zuten (horien artean, 1963an, Betty Friedan²⁰, *The functionalist freeze*. Honek Parsonsi emakumeen zapalkuntza legitimatzea eta emakumea familiaren baitan egotera kondentatzea leporatzen dio). Hala ere, soziologia feminista askok rolen hizkera hartzen du (sexu rolak, 'gizonezkoen rola', 'emakumezkoen rola'), eta sexu-rolen gizarteratze-prozesua azpimarratzen du. Generoaren azterketarako hurbilketa horren azpian, sustrai funtzionalistak daude: kontsentsua, egonkortasuna eta jarraipena.

Horretaz gain, 'rol' kontzeptuak, egitura sozialean baino gehiago gizabanakoengan jartzen du arreta, horrela, emakumezkoen eta gizonezkoen rolak osagarriak bailiran ikusiz; eta, aldi berean, despolitizatu egiten dira. 'Rol' kontzeptuak bereizi egiten du esperientzia bere testuinguru historiko eta politikotik; ukatu egiten ditu botere eta gatazkari buruzko kontuak. Soziologoen, 'klase rolaz' edo 'arraza rolaz' ez dute hitz egiten. Eta, zer esanik ez, oso esanguratsua da jarrera hori.

Sinesmen funtzionalista hauek soziologiaren oinarritzko sinesmenak eraldatzeko egin diren saio feministak eragotzi dituzte.

b) Generoa aldagai gisa.

Azken urte hauetan, biderkatu egin dira generoa kontuan hartzen duten lan soziologiko enpirikoak. Baina literatura horretan gehienek ez dute generoa kategoria sozialtzat jotzen, gizabanakoaren ezaugarritzat baizik. Antolakuntza sozialaren printzipio gisa baino gehiago, sexu desberdintasunak adierazteko erabili da. Bizitza soziala aldagai neurgarri batzuetara murriztean, gutxiagotu egiten da osotasunaren zentzua, zeina harreman sozialen-generoa barne-ulerkuntza teorikorako funtsezkoa baita. Generoa erabiltzen da aldagai gisa eta ez oinarrizko kategoria teoriko gisa, hain zuzen, ikuspegi feministen irenasketaren adibiderik argiena.

c) Feminismoaren bazterketa soziologia marxistan.

Soziologian generoaren erabilera desegokia izatea ez da izan soziologia feministaren garapena geldiarazi duen arrazoi bakarra. Soziologiaren tradizio nagusien baitan egon den baztertze joerak badu beste arrazoi bat ere. Azken hau,-bereziki mingotsa eta, aldi berean, harrigarria- soziologia marxistaren baitan gertatukoari dagokio. Bertan teorizazio feminista loratu den arren, korrante nagusitik aparte eta harengan inolako eraginik sortu gabe.

Marxismoaren eta feminismoaren arteko harremanak, feminismoak beste paradigma soziologikoekin izan dituen harremanak baino konplexuagoak eta kontraesankorragoak dira.

Alde batetik, marxismoaren baitan, teoria feministak 'emakumearen arazoaren' estatus tradizionalarekin segitzen du. Beste alde batetik, feministek teoria marxista-feminista baten corpusa sortu dute, zeinak diskurtso marxista nagusitik at dihardun gizarte zientzietan. Oro har, esan dezakegu pentsamendu feministak eragin gutxiago izan duela soziologia marxistan teoria soziologikoaren ildo nagusian baino. Ekoizpen-prozesuan kokaturiko oinarrizko kategoria marxistak; hots, lana eta gizarte-klasea(lan eta ekoizpenarekin gizonek dituzten harremanen arabera definituta), 'rolak' edo 'sistema sozial' kontzeptuak baino androzentrikoagoak dira.

Posible da, kategoria marxistak erabiliz, 'emakumeak aztertzea', hau da, ikergai gisa emakumeak hartzea. Adibide bat hartuta 'etxeko lanari' buruzko eztabaida

20 Friedan, B. (1963), The Funtcionalist freeze. honako artikulua honetatik harturiko aipamena: Stacey, J. eta Thorne, B.(1985) The Missing Feminist Revolution in Sociology. Social Problems, 32, 4.zka Apirila.

eta literatura ikus daiteke (J. Smith, 1982; Sokoloff, 1980; Vogel, 1984). Baina, azterketa horiek gizon-emakumeek elkarrekin dituzten harremanen ikuspegi partzial bat eskaintzen dute, eta pentsamendu marxistaren oinarritzko kontzeptuak edo epistemologia aldarazteko eragin gutxi dute.

Dena dela, alde baikor bat ere badago. Marxismoa, bere osotasunean hartuta, analisi kritiko baten subjektua izan da ikertzaile feminista batzuen aldetik. Feminista horiek paradigma teoriko marxista-feminista garatzeko saio bat egin dute, ikuspegi bien eraginkortasuna gehitu nahian, baina, bata bestearen menpean jarri gabe (Einsestein, 1979; Hartmann, 1981; Kunh eta Wolp, 1978).

Marxismoak berak paradigma kritiko gisa bere kontzeptu-egiturari buruz hausnarketa kritikoa egiteko gonbitea luzatzen duenez gero, arestian aipaturiko saioak egitea errazten du. Baina garrantzitsuena zera litzateke: marxismo-feminismoa ahalegin teorikoa bultzatzen zuen testuinguru politikoan sortu zela. Feminista sozialistek emakumeen mugimendu autonomo baten garapenean parte hartzen zuten. Ekintza politikorako ardatz gisa funtzionatu eta, aldi berean, gorputz teoriko erlatiboki autonomo garatu behar zuten.

Tamalez, rolen mugimendu honek 'emakumeen arazoa' baztertzeko joera luzatzea ekarri du, orain 'hyphen-literature'ren²¹ itxurapean, hots, marxismo-feminismoa izendapean. Feminista-marxistek emakumezkoen instituzio, hitzaldi eta argitalpenen garapenean nahikoa arrakasta lortu dute; baina, marxista askok, gero eta handiago den literatura feminista bereganatzera erakutsi duten erresistentziak garaiko beste pentsamendu marxista eraldatu gabe utzi du. Jarrera horren adibide argia dugu Inmanuel Wallersteinen, *The Capitalist World Economy* ²² (1979), non idazleak ez duen kontuan hartu sexuen arteko lan-banaketa.

d) Ezagutza 'ulerkorra' versus ezagutza 'positiboa'.

Pentsamendu feminista gehiago aurreratu da, 'ezagutza ulerkorraren' tradizio indartsua duten arloetan (antropologian, literaturan, historian), epistemologia

21 Marradun literatura: Marxismo- Feminismoa.

22 Wallerstein, I. (1979), *The Capitalist World Economy*, ondorengo artikulua honetatik harturiko aipua: Stacey, J. eta Thorne, B. (1985) *The Missing Feminist Revolution in Sociology*. *Social Problems*, 32, 4.zka Apirila.

positibistetan oinarritzen diren arloetan baino (soziologian²³, psikologian, zientzia politikoan eta ekonomian). Zergatik izan du pentsamendu feminista horrek arrakasta gehiago ulerkorrak diren esparruetan positiboak diren baino? Hurbilketa ulerkorrak ezagutza garatzen den testuinguruari buruz hausnarkorrak direlako. Hurbilketa honen inguruan egin ohi diren galderak, honakoak dira:

- Zeintzuk dira ezagutza sortua eta jaso den testuinguru sozialaren eta politikoaren eraginak?

Feministek, testuingurua zehaztuz, galdera hau egiten dute:

- Zeintzuk dira ikertzailearen generoaren eraginak, edo bere iker-gaiaren eraginak?

Arestian esan dugun legez, ezagutza positibistak, hitz abstraktu eta unibertsalak idazten ditu; bere izaera 'objektiboa' da, eta edozein jarrera partikularretik edo sexutik, abiapuntu edo iturri gisa, independente izatea aldarrikatzen du. Baina gauza jakina da balioak eta interesak existitzen direla eta, lan kritiko askok erakutsi duten legez, ezagutza positibistan eraginik izan dute.

Max Weberrek azterketa-ildo bat hasi zuen, zeini Jürgen Habermas bezalako idazle kritikoek segitu zioten. Idazle kritiko hauek zientzia positiboa arrazionalizatzeko-prozesuarekin eta gizarte industrialaren kontrolarekin erlazionatzen dute. Are zehatzago, Habermasek (1971), gizarte zientzia positiboaren oinarrian dagoen arrazionaltasun teknikoaren eta instrumentalaren jarrera talde meneratzaileek menperatzeko eta kontrolatzeko agertzen duten interesen alde dagoela argudiatzen du.

Feministek, kritika hori kontuan hartuz, zera diote: ezagutza positiboa ez dela soilik klase menperatzaileen interesen aldekoa, baizik eta baita gizonen interesen edo genero meneratzailearen aldekoa ere. Evelyn Fox Kellerrek, Dorothy Smithek eta Nancy Hartsockek²⁴ ezagutzaren egituraren eta

23 Soziologiaren barne, positibismoaren nagusitasuna, aldizkarien izenburuetan islatzen da. Teoria edo kualitatibo dena azpimarratzen dutenak izen esplizitoak hartzen dituzte (Theory & Society; Qualitative Sociology); baina ikuspegi kuantitatibo eta metodologikoa dituzten aldizkariak izen orokorrak hartzen dituzte, esaterako American Sociological Review.

24 Fox Keller, E.(1991) Reflexiones sobre Género y Ciencia. Valencia: Alfons el Magnànim.

gizonezkoen interes eta ikuspegiaren arteko erlazioa azpimarratzen duten teoriak lantzen dituzte. Sexuen arteko lan banaketak eta gizonezkoen menerapenak gizon eta emakumeen esperientzian eta bizitzan oinarritako desberdintasunak sortzen dituztela eta desberdintasun horiek ezagutzan garrantzizko ondorioak dakartzatela baieztatzen dute.

Ezagutzaren teorian psikoanalisten jorraketa feministak erabiliz, Fox Keller eta Harstock, sentimenduaren eta arrazionaltasunaren arteko bereizketa zein subjektuaren (*Knower*) eta objektuaren (*Known*) arteko banaketa hertsia (gizarte-zientzia positiboaren oinarritako objektibazio printzipioa) generoaren antolakuntzaren gainean eraikitako proposamenak izan daitezkeelakoan daude.

Fox Keller urrunago doa galdetzean ea subjektuaren eta objektuaren arteko banaketak kontrola eta boterea inplikatzeari ote dakarren.

Beste teorien artean, teoria feministak subjektu eta objektuaren arteko harremana aztertzen ari dira, subjektuak, ekintzaile eta esperientzia baten jabe legez, mantentzen duen ikerketa-metodo bat garatzeko asmotan. Hurbilketa honek, Dorothy Smithek²⁵ landu duen legez, 'emakumeen abiapuntua' hartzen du kontuan. Abiapuntu hau ekoizpenean eta eguneroko bizitzako jarduerak mantentzean sustraiturik dago. Nancy Harstockek²⁶, bere aldetik, feminista den abiapuntu bat garatzea proposatzen du, jarduera horiei buruz lorpen eta ikuspegi kritiko bat agertzen duelarik.

e) Teoria feministaz

Berreraikitze feministaren aurkako eragozpen guztiak ez daude diziplinen baitan. Baliteke teoria feministak heldutasun handiagoa behar izatea ere, egingo duen mugagabeko lan intelektuala Soziologiak bereganatu aurretik. Ez da harrigarria, baina bai, neurri batean, ironikoa, teoria feministak lorturiko

25 Smith, D.(1979) A sociology for women, in *The Prism of Sex: Essays in the Sociology of Knowledge*, Sherman J. A. eta Beck E. T. ed. University of Wisconsin Press: Madison

26 Harstock, N.(1983). *The feminist standpoint: developing the ground for a specifically feminist historical materialism*, in *Discovering Reality*, Harding, S. Eta Hintikka, M. B. ed. Reidel Publishing Co: Amsterdam. 283- 310orr.

emaitza garrantzitsuenak, familia, haziera eta etxeko harremanen azterketan lortzea.

Ikertzaile feministek legitimatu egin dituzte, "urrunekeo mundu pribatuak" bizitza sozialaren beste esparruetan dituen ondorio teorikoak. Baina, harreman politikoak edo ekonomikoak, Estatuaren izaera, iraultza, gizarte-klaseak edo boterea, tradizionalki definitutako gaiok, birkontzeptualizatzen hasi baino ez dute egin. Teoria feministaren azpigarapen honek, soziologian beste jakintza arloetan baino, -non pentsamendu feministak bere aurrerapen erradikalenak lortu izan dituen-, ondorio latzagoak ditu.

Teoria soziologikoak duen estatus paradoxikoak ere, areagotu egiten du egoera hori. Lan soziologiko meneratzaile gehiena *ateorikoa* da. Teoria garatzeko ezinikusia, soziologo askorengan presente dagoena, arazoaren zati bat da benetan. Generoa aldagai edo ikertze topikoen iturri gisa onartua izan daitekeen arren, hori ez da nahikoa berreraikitze teorikoaren aurrerapenerako.

Ikerketa soziologiko gehienen gaiak ikuspegi teoriko baten, bereziki garrantzitsua, egokiera eraman dezake. Egungo gizartearen konplexotasuna ezin da ikertu bere osotasunean. Agian, galdetzen bada zergatik lortu duen antropologiak horrelako arrakasta, arrazoien artean, hau genuke bat: antropologiaren ikerketa-objektua, gizarte txikiak izatean, osotasunaren zentzuaz jabetzea eta, esaterako, eremu publiko-pribatuaren arteko dikotomizazioa birkontzeptualizatzea errazagoa da. Izan ere, antropologoen, gizartearen ikuspegi holistikoagoa dute eta osotasunezko onarpen arazoetarako (bizitza publiko eta pribatua) soziologoen baino kokapen hobea ere bai²⁷.

Soziologoen, oraindik, publiko eta pribatuaren arteko banaketa erabat problematizatua daukate. Banaketa honek bereizi egiten du familiaren azterketa, lanbide, lan-indar eta politikaren azterketetatik. Soziologoen, eskuharki, atal bat soilik aztertzen dute eta, sarritan, mundu horren zati txiki bat. Horrek guztiak, atala osotasunean kokatzen lagunduko digun teoria baten beharra uzten du agerian. Feministen lanabesek ezagutza teorikoaren gorputzak berreraikitze

27 Rosaldo, M.Z.(1979). Mujer, cultura y sociedad: una visión teórica, in Antropología y feminismo, Anagrama ed. Bartzelona: Anagrama

baino gehiago kritikatzeko egin dute lan. Bada garaia antropologian gure kideek urraturiko bideari soziologian ere ekiteko.

Soziologo feministek, funtsezko zeregina jokatu behar dute proiektu honetan, teoria soziologikoak, gure diziplinak baino harago garrantzi handia baitu. Beste arlo askok-komunikazioak, kriminologiak, hezkuntza-irakaskuntzak eta lan sozialak-paradigma soziologikoen beharra daukate; eta beste diziplinetako feministek-literaturan, historian, filosofian eta beste batzuetan- soziologiari eta antropologiari begiratzen diote haien datuak eta ideia abstraktuak kokatzeko orduan.

Atal honetan, soziologian teoria feministak izandako azpigarapenaren oinarrian dauden edo egon daitezkeen faktore batzuk aipatu ditugu. Baina, aipaturikoen artean badago bat jorraketa sakonago bat beharko lukeena, eta zera da: teoria feministak duen heldutasunaren beharra. Auzi horri ezin diogu heldu, ez baditugu bereizten feminismoaren baitan -mugimendu zabala den neurrian- dauden feminismo desberdinak.

1.4.-Teoria feministez

Aipatu berri dugu teoria feministak duen heldutasun eza. Arazo horri aurre egiteko, azpimarratu da onartu beharra dagoela feminismoaren baitan dauden feminismo ezberdinen existentzia. Baina ez dugu zehaztu zer esan nahi dugun heldutasunaz ala heldutasun ezaz mintzo garela.

Gure aburuz, bai soziologiako klasikoek²⁸ bai idazle feminista batzuek(esaterako J.Staceyk eta B.Thornerrek²⁹) buruturiko idazlan teorikoetan somatu ditugun ezaugarri komunek,-alegia, jakintza historikoak, osotasun soziala kontuan hartzen duen teoria bat eraiki beharrak³⁰ eta, haien jarduera

28 " ...Hay, en esta visión de los clásicos, una exhortación a seguir una 'llamada' sociológica, cuyos ingredientes incluyen la erudición histórica, la globalidad macroscópica y la inspiración ética." Smelser, N.J eta Warner, R.S. (1990). Teoría sociológica: análisis histórico y formal. Madril, Espasa universitaria."27 orr.

29Stacey, J.eta Thorne, B.(1985).The Missing Feminist Revolution in Sociology. Social Problems, 32- 4. zka Apiril.a

30 Honek ez du esan nahi bizitza sozialaren ezaugarri bakoitza eta guztiak aldi berean azaltzen dituen Teoria bat eraiki behar denik; baizik eta bizitza sozial horren aztertzen dugun fenomeno ezin dugula beste fenomenoetatik eta bere prozesu hitorikotik isolatu, aldendu.

soziologikoaren osagai horiekin batera, guztiek zeukaten/daukaten joera ekintzaileak-, heldutasun hori eratzen dute.

Baina, feminismoa bezalako mugimendu zabala aztertzeke unean, eta aurreko argitze-lana lagungarria izan arren, azterketa horri ekiteko oraindik gelditzen diren zailtasun guztiak ez dira erraztasunez gainditzen, ondoren ikusten denez:

Feminism is not a unified movement. While all feminist agreed that women are subordinated and that it is necessary to develop strategies to liberate them, there are fundamental disagreements about the causes of that oppression and the achieving liberation. There are a large number of feminisms... we have decided to order the material by reference to four major perspectives: liberal/reformist, Marxist, radical/revolutionary, and socialist feminism. We have chosen these because we feel that, to date, these are the major perspectives that have produced knowledge that is of relevance to sociology.³¹

Pamela Abbottek eta Claire Wallacek idatzitako "An Introduction to Sociology. Feminist Perspectives" liburuan, zeukaten arazo bera daukagu guk geuk ere. Zein dira guretzat garrantzitsuen diren feminismoaren ildoak? Zein irizpideren arabera ezarriko dugu ildo horien garrantzia?

Idazle horiek emandako irizpidea guretzat ere baliagarria izan daiteke, hau da, soziologiari garrantzi handiko ekarpenak egin dizkioten feminismoaren ildoak soilik kontuan hartzea, beraz: liberal/berritzailea, marxista, erradikal/iraultzailea eta feminismo sozialista. Gainera, teoria horiek guztiak gorago aipatzen genuen joera ekintzaile horren ordezkatzailak dira.

Lau ildo zabal horien baitan ez dago mugimendu feminista osoa. Gure asmoa ez da ildo hauek teoria feminista ezberdinen ordezkatzaila legez aurkeztea. Hauen hautaketa, baliabide metodologiko bat baino ez da izan, hau da, dagoen teorizazio feminista ugari sailkatzeko, azterketa eta azalpenak ahalbideratzeko modu bat.

31 Abbot, P. and eta Wallace, C. (1990). An introduction to Sociology. Feminist perspectives. London: Routledge. 212 orr. Azpimarraturiko esaldiak geuk aukeraturikoak dira.

a) Feminismo liberal/berritzailea.

Historikoki, feminismo liberala emakumeentzat eskubide berdinak aldarrikatzeaz arduratu da. Eskubide berdinen aldeko feministek eskubideak, soilik, gizonei ematen zizkien lege eta praktiken aurka borrokatu dute. Berdintasun formala ez dela nahikoa esanez, legeen jatorria azalaraziz emakumeen aurkako diskriminazioa salatu dute, eta lantokietan, amatasun baimena eta soldata bezalako eskubideak emakumeei ematea aldarrikatu dute.

Emakumeak gizaki dira eta gizonek dituzten berezko eskubide alienaezinezko berberak dituzte. Emakumearen sexuak ez du zerikusirik haren eskubideekin. Emakumeak erabat arrazionalak dira eta, beraz, giza eskubide guztien jabeduna. Hala eta guztiz ere, emakumeak Mendebaldeko gizarte industrialetan diskriminatuak izaten dira, eta diskriminazio hori sexuan oinarritua dago.

Soziologian, feminista liberal/berritzaileak, sexuen arteko ezberdintasun behagarria jaiotzetikoa ez, baizik eta 'sexu-rol egokitze' eta gizarteratzearen emaitza dela frogatzeaz arduratu dira. Baina jarrera berritzaileak garatu duen ikerketa soziologikoak ez ditu emakumeen esperientziak aztertu, ezta kontzeptuen erabilpena eta gizonen ikuspegiak gizartea aztertzeke sortu duen tresneria aldatu ere.

Alabaina, ikuspegi honen ikerketak, emakumeen aurkako diskriminazioa gauzatzen den modua eta emakumeei aukera berdinak ukatzen dieten bidea agerian utzi ditu; horretaz gain, sexuen arteko lan banaketa ulertzeko, sexu- ezberdintasun biologikoetan oinarrituriko azalpenen egokitasunaren ikuskera aldatu du.

b) Feminismo marxista

Feminismo marxistak onartzen du, marxismoak, ezin duela azaldu zergatik dauden emakumeak esparru publikotik at eta zergatik diren etxeko esparruan ordaindugabeko langileak. Marxismoari kritika eginez, sostengatzen dute, halaber, emakumeen menpekotasuna ez zela gauzatu kapitalismoaren ezarrerarekin batera, baizik eta ordurako, emakumeak zapalduak zeudela eta, beraz, ekoizpen-modu kapitalistaren suntsipenarekin ez datorkeela emakumeen askapena. Hori dela eta, marxismoaren garapenaren beharra aldarrikatu dute.

Baina, sexuen arteko borroka gizarte-klaseen arteko borrokara murriztu ezina dela onartu arren, azken horri lehentasuna ematen diote. Feminismo marxistaren baitan, egungo gizartearen funtsezko egitura kapitalista da, eta bertan emakumeek zapalkuntza berezi bat pairatzen dute. Zapalkuntza horren ondorioz, ordaindua den lanetik kanpo gelditzen dira eta, etxeko esparruan, ekoizpen-harremanen ugalketa da egokitzen zaien rola. Kapitalismoa da etekin gehien ateratzen duena emakumeen ordaindu gabeko lanetik, nahiz eta gizonek ere zenbait etekin atera.

Feminismo-marxistak duen arazo handiena, zera da: Marx bera ez zela arduratu emakumeek gizarte kapitalistan duten kokapenaz. Marxek erabiltzen zituen kontzeptuak neutralak bailiran agertzen dira, baina egitatez sexistak dira. Berak ez zuen ikusten, gizarte kapitalistetan emakumeek jasaten duten zapalkuntza-modu berezia, eta ez zituen aztertu genero ezberdintasunak eta genero ideologiak. "Lan-indarra" bezalako kategoria abstraktuak erabili arren, bere analisiak erakusten du "ordaindua den gizonezkoen lan-indarraz" ari zela. Familiari dagokionez, hurbilketa naturalista egin zuen.

Are gehiago, azterketa horrek ez du kontuan hartzen emakumeek etxeko biziraupen ekonomikoari egiten dioten ekarpena; ez du ikusten ordaindua den lan beragatik gizonek emakumeek baino diru gehiago irabazten dutela.

Feminismo-marxistak, marxismoak gizarte kapitalistaz egiten duen azterketa gorde nahi du, horri emakumeen-menpekotasun egoerari buruzko azalpena gehituz. Teoria feminista marxista egoki baten garapenerako abiapuntu gisa, Engelsen lana aukeratu dute. Engels, familiaren jatorria eta kapitalismoaren garapenaren arteko harremanak aztertzean, honako ondorio honetara heldu zen: sistema kapitalistaren premiak familia nuklear burgesaren sorreraren oinarrian zeuden, bereziki, gizonek beren legezko oinordekoei utzi egin nahi zien beren jabetza. Engelsen arabera, gizonek ezkontzaren bidez kontrolatu nahi dituzte emakumeak, horrela beren oinordekoak zein diren jakinen dutelako. Emakumeen menpeko egoera kapitalismoaren onerako den zapalkuntza-modu bat zen/da. Emakume oro, bai burges bai proletario den gizonarekin ezkonduz gero, zapaldua da.

Feminismo marxistak, emakumeen menpekotasun-egoera zein klasearteko zapalkuntza moduak kontuan hartzen dituen teoria bat garatzeko orduan, arestian aipaturiko ildo teorikoa bereganatu du. Honen helburua emakumeen menpekotasuna eta antolaketa kapitalistaren gainerako ezaugarrien arteko harremanak aztertzea litzateke.

Alabaina, feminismo honen arazo handienetarikoen artean, honako hauek leudeke:

- Gizonek emakumeak zapaltzen dituzte eta beraien ordaindugabeko etxeko lanetik etekinak ateratzeko moduei ez die garrantzi gehiegirik ematen.
- Patriarkatu-harremanek duten garrantzia eta honek kapitalismoarekin dituen harremanak onartu arren, aldaezintzat dauzkate eta ez dute onartzen, kapitalismoaren interes eta patriarkatuaren interesen artean, ez dela zertan adostasunik eman.
- Kontuan harturik kapitalismoaren xedea etekin gehien ateratzea dela, azterketa batzuek ez dute azaltzen zergatik lan merkatutik at gelditzen den emakumezko lan indar merkea.
- Marxismo tradizionalaren kategoriak erabiltzean, ez ditu aztertzen patriarkatu-harremanak kapitalista ez diren gizarteetan; ez du hirugarren munduko emakumeen egoera aztertzen.

c) Feminismo erradikal/iraultzailea.

Lerro honen ardatz nagusia zera da: genero-desberdintasunak, patriarkatu-sistema autonomoak direla.

Feminista hauen ustetan, sexuarteko lan banaketa betidanik existitu da, gizonezkoen manupeko sistema bati eutsiz eta hura berrindartuz. Patriarkatua sistema unibertsal bat da, zeinetan gizonek emakumeak menperatzen baitituzte. Erradikala eta iraultzailea den feminismoa ez dago baturik. Haren baitan funtsezkoak diren hiru arazo bereiz ditzakegu:

- Feminismo politikoaren eta gizabanakoaren portaera sexualaren arteko harremana; hots, ea emakumeek gizonekin bizitzen segi dezaketen edo behar-beharrezkoa den bereizketa.
- Ea sexu-ezberdintasunak biologikoki ala sozialki eraikiak diren.

- Ea zein den hartu beharko litzatekeen estrategia politikoa: atzera egin ala iraultza.

Shulamith Fireston, bere "*The Dialectic of Sex: the case for feminist revolution*"³² liburuan, feminismo erradikalaren lehenengo azalpen sistematikoa egin zuen. Lan honen hasierako hitzak, honako hauek ziren: '*Sexu-klase denaren sakontasunak ikustezina egiten du*'

Beraz, bere lanaren helburua sexu-klasea agerikoa egitea zen. Idazle horren aburuz, emakumeen menpekotasuna ez da legerian edo ordainduriko lanean soilik gauzatzen, bai eta harreman pertsonaletan ere. Generoarteko ezberdintasunek bizitza osoa egituratzen dute -emakumeak gizonengandik ezberdintzen dira eta, horretaz gain, beraien menpe daude-. Gizona da etsaia. Ahalegin teorikoek sexu-genero sistema ulertaraztera bideratuak egon behar dute, eta ahalegin politikoez sistema hori ezabatzen.

Shulamith Firestonek uste du gizon eta emakumeen arteko banaketak oinarri biologikoa daukala; emakumeak gizonak baino ahulagoak dira, beren ugaltze fisiologia dela-eta. Egin berri diren ekarpenen artean, ordea, badira argumentu biologikoa ukatzen dutenak; ekarpen hauek Christine Delphy eta Monique Wittig frantses feminista erradikalek garatu dituzte.

Azken horien iritziz, umeak izatea ez da prozesu biologiko bat, naturak emana, 'ekoizpen derrigortuaren' eraikuntza soziohistoriko bat baino. Hau da, umeak izatea planifikatua dago, eta emakumeak gizarteratuta daude umeak izateko. Emakumeak, natural bezala ikusiak diren portaera batzuk izatera derrigortuak daude eta, honen ondorioz sortzen da bi sexu biologikoren bereizketa. Baina bereizketa horrek, giza aldakortasunaren errealitatea –sexu ezaugarrien ugaritasuna– faltsutu egiten du, generizatuegia den gizarte bat garatzen ari delako. Gizartea aurkakoak diren bi sexu-gizonezkoarena eta emakumezkoarena daudela sinisten duen pentsakeraren arabera egituratua dago.

32 Firestone, S. (1974) *The Dialectic of Sex: the case for Feminist Revolution*. New York: Morrow.

Sexu-ezberdintasunaz diharduten teoria biologikoak eraikuntza sozialak dira, eta hauek, aipaturiko idazleen iritziz, sozialki meneratzaile den taldearen interesen onerako baliagarriak dira. Emakumeak klase bat dira eta 'emakume' kategoria bat da; azken hori politikoa eta ekonomikoa den aldetik, ez da betirako den kategoria bat, ezta biologikoa ere. Beraz, behar-beharrezkoa da sexu bereizketa bera ezabatzea, Wittigek esaten duen bezala:

Our fight aims to surppress men as a class not through a genocidal but a political struggle. Once the class "men" disappears, women as a class will disappear as well, for there are no slaves without masters ³³

Feminista erradikalentzat, kezka nagusia emakumeen menpekotasuna da; haien teoriak menpekotasuna argitzera eta ezabatzea bideraturik daude. Gizona emakumeen meneratzaile gisa ikusten da, eta hori bizitzaren esparru guztietan. Gizon eta emakumeen arteko harremanak, botere-harreman instituzionalizatuak dira eta, beraz, azterketa politikoaren objektu ditugu. Horrela, feminista erradikalen lanek xedetzat dute aztertzea gizonezkoen boterea nola den erabilia eta indartua bizitza sozial osoan, hemen sartzen direlarik funtzio hauek: haurrak zaintzea, etxekolanak egitea, ezkontza, eta sexu-praktikak (honen baitan, bortxaketa, prostituzioa, eraso sexualak, eta abarrekoak ere ikertzen dituzte).

Emakumeen menpekotasuna, ikerlari hauen ustez, egitate unibertsala eta primarioa da; ez du aldaketarik izan ez denboran ez espazioan zehar. Feminista erradikalek diote gizonek emakumeen kultura, emakumeen ezagutza eta emakumeen ulerkuntza subjektiboa ukatu egin dituztela. Areago, uste dute gizonek definitu izan dutela egiazat hartzen dena. Gizonezkoen zientzia emakumea behe-mailako izaki legez definitzen duten ideologiak legitimatzeko erabilia izan da.

Soziologia gizonek definituriko ezagutza horren atal gisa ikusi da. Hori dela eta, teorilari hauek soziologian eskuhartzeak helburu argi bat dauka: ezagutza ekoiztua den modua aldaraztea, emakumeen ulerkuntza subjektiboa birbaloratua izan dadin.

³³Abbot, P. and eta Wallace, C. (1990). An introduction to Sociology. Feminist perspectives. London: Routledge. 72 orr.

Feminismo erradikalaren ikerketa gehienak gizonen emakumeenganako bortizkeria aztertzeaz arduratu dira, agerian jarritz nola ezkututzen eta baztertzen duten giza zientzietan gizonezkoen balio patriarkalek bortizkeria hori edo nola leporatzen dioten emakumeei. Horrela, ikertzaile hauek emakumeei beren historia eta heredentzia kulturala berreskuratzen diete, historian eta beste gizartetan dagokien lekua ematen eta, azkenik, emakumeen ezagutza azpibalaratua izan den moduak agerian uzten dituzte. Era berean, agerian utzi dute harreman pertsonalak politikoak direla, hau da, botere-harremanak. Zentzu horretan, harreman patriarkalen unibertsaltasuna erakusten duen dokumentazio ugari bildu izan dute.

Dena dela, gizonek emakumeak meneratzen eta ustiatzen dituzten moduei buruz ez dute azalpen egokirik lortu. Horretaz gain, harreman patriarkalek gizarte ezberdinetan hartzen dituzten modu ezberdinak ez dituzte kontuan hartu. Klase ezberdinetako emakumeen esperientzia ezberdinei garrantzi gehiegirik ez emateko joera ere izan dute. Haiek jorraturiko azalpen biologikoak gizonezkoen teoriak garaturikoen aldean oso ezberdinak izan arren, azken hauek diren bezain urriak dira eta ez dituzte ideologia eta kultura kontuan hartu; are gehiago, teoria soziobiologikoak feministen artean zabaltzeko bidea erraztu dute.

Hala ere, feminista erradikal guztiek ez dituzte teoria biologikoak onartzen, uste baitute teoria horien garapenak emakumeen menpekotasuna zuritzen duela, eta biologikoki determinaturik dauden bi sexuen existentziaren aldeko argumentua aldatu beharra dagoela.

d) Feminismo Sozialista

Ikuskera hau “dualista” gisa ezagutua da ere, garatu nahi duen teoriak bi sistema, ekonomikoa eta sexu-generoarena, onartzen baititu.

Eskuharki, patriarkatua, 'historia-haraindiko' gisa ulertzen da. Uste horren arabera pentsatzen da gizonek gizarte guztietan praktikatzen dutela boterea emakumeen gainean. Feminismo sozialistaren arabera, ordea, teoria feminista egoki batek onartu behar du patriarkatuak modu espezifiko bat hartzen duela gizarte kapitalistetan.

Kapitalismoa eta patriarkatua bi sistema bereizi dira. Ikertzaile hauen helburua kapitalismo-patriarkalaren teoria bat garatzea da, gizonezkoen menerapenak sistema kapitalista egituratzen duen modu ezberdinak uler ditzagun.

Egungo gizartetan, gizaki guztiok gizarte-klase baten eta genero espezifiko baten baitan gaude kokaturik. Feminista sozialisten aburuz, generoak, klaseak, arrazak, adinak eta nazionalitateak emakumeen menpekotasun-egoera ezkutatzen dute, baina horien artean ez dago garrantziaren araberrako hierarkiarik.

Emakumeek, gizarte kapitalistetan jasandako menpekotasunaren modu espezifikoek, sistema sozioekonomiko horrekin badute loturarik. Emakumeen askatasun eza, etxeko esparruan eta esparru publikoan jasaten duten zapalkuntzaren ondorioa da; beren askapenerako, esparru sozial guztietan sexuen arteko lan banaketa desegitea behar-beharrezkotzat jotzen da, hau da, gizakiak, langile eta kapitalista, emakume eta gizon gisa eraikitzen dituzten harreman sozialak desagertaraztea planteatzen da.

Teoria marxistak proletario-kokapenen arabera aurkezten du mundua; feminista sozialisten iritziz, ordea, emakume-kokapenen araberrako mundu-ikuskerara bat garatu beharra dago. Izan ere, teoria marxista tradizionalak, emakumeek merkatutik at egiten duten lana ez du kontuan hartu, ezta merkatuaren baitan emakumeen lanaren izaera generizatua ere; beraz, gizonek emakumeei ezartzen dieten menerapen sistematikoa ezkutatu egin da.

Ikertzaile hauen ondoriotariko bat zera da: emakumeen menpekotasun osoa uler dezagun, behar-beharrezkoa da sexuen arteko lan banaketa, bai etxeko esparruan bai lan merkatuan aztertzea, eta baita bien arteko harremana ere.

Emakumeen ugaltze-lanak ordaindua den lan bat izateko posibilitateak mugatzen ditu baina, lan-merkatuaren 'aukera mugatuak'/urritasunak, aldi berean, ezkontzara bideratzen ditu emakumeak. Ezkontza eta amatasun ideologiak, zeinak emakumeen funtsezko rolak horiek direla esaten baitu, benetako errealitatea ezkutatu egiten du. Esparru publiko eta pribatuaren arteko bereizketa ez da bakarrik kapitalismoaren onerako, baita gizonen probetxurako ere.

Sylvia Walby³⁴ analisi dual baten beharra aldarrikatzen du; berarentzat patriarkatua ez da inoiz ekoizpen-modu bakarra, beste ekoizpen-modu bati loturik agertzen baita beti. Horretaz gain, patriarkatu-era ezberdinak aztertu beharra ere ikusten du. Haren aburuz, gizarte kapitalistetan, giltzarri diren harreman patriarkalak, etxeko lanean, ordaindua den lanean, estatuan, gizonezkoen bortizkerian, sexualitatean eta kultur instituzioetan, alegia, erlijioan, komunikabideetan eta hezkuntzan aurki ditzakegu.

Etxeko lanean gorpuzten diren harreman sozialek patriarkatuaren ekoizpen-modua osatzen dute; eta honek genero-harremanetan izugarritzko eragina du. Hala ere, patriarkatua kapitalismoarekin bateraturik dagoenean, ordaindua den lanean ematen diren harreman patriarkalak sistemaren iraupenerako funtsezkotzat jotzen dira. Patriarkatuak kapitalismoaren menpean hartzen duen itxura beste sistema sozio-ekonomikoetan hartzen duena baino askoz desberdinagoa da. Patriarkatua kapitalismoa baino lehenagokoa da, baina garapen kapitalistarekin modu berriak hartzen ditu. Ingalaterraren kasuan, esaterako, kapitalismoaren hazkuntzarekin batera, patriarkatu pribatua patriarkatu publiko izatera igaro zen ere, biok izanik kapitalismoaren lan-eskaera eta feminismo-ekintza politikoaren ondorio.

Alabaina, patriarkatuaren eta kapitalismoaren interesak ez dira beti berdinak izaten; bien arteko tirabira garrantzitsua aurki dezakegu emakumeen lanaren ustiakuntzan. Kapitalaren interesa da emakumeen lan-indar merkea kontratatzea eta ustiatzea, ahaztu gabe lan hori merkea dela patriarkatu egiturei esker. Patriarkatua, ordea, horren aurka agertzen da, emakumeen ustiakuntza etxean mantendu nahi duelako.

XIX. mendean gizonek emakumeak lan merkatutik botatzeko borrokatu zuten. Lehenengo Mundu-Gerran, enpresariei emakumeak kontratatzea interesatu zitzaielarik, klaseen arteko aliantza hura ahuldu egin zen, kapitalismo eta patriarkatuaren arteko istiluak sortu zirelarik. Kontraesan hori gainditzearen, kapitalaren estrategia alternatiboa izan zen: emakumeak kontratatzea bai, baina, 'emakumeen lanak' alde aurretiko legez definituriko baldintzetan emakumeen

34 Walby, S.(1989) *Theorising Patriarchy*. *Sociology*, 23 2.zka : 213-234 orri.

lanbideek gizonenak baino soldata apalagoa eta estatus baxuagoa zeukaten. Kasu hauetan, patriarkatuak nahi duena d, emakumeak soilik emakume-lanerako kontratatuak izatea. Hori da borroka.

Horrela, Walbyren aburuz, epe luzera, kapitalaren botereak lortzen du emakumea lanetik baztertzeko estrategia hori gainditzea; eta, ondorioz, diskriminazioa alternatiba legez garatzea, eta hori, neurri handi batean, mugimendu feministak sorturiko ekintzengatik. Kapitala behartua aurkitzen da emakumeek ordaindua den lan bat izateko eskubide dutela defendatzera. Horrela, Ingalaterran, patriarkatu pribatutik, non emakumeak etxean gelditzen ziren, modu publikora, non gizonak emakumeak esparru guztietan kontrolatzen zituzten, mugimendu bat gauzatu zen.

Baliteke, baten batek, teoria feminista hauen jorraketa irakurtzean, zerbaiten falta somatzea ere. Baina jorraketa honek, teoria hauen aurkezpen bat egitea zuen helburu, eta ez lanketa sakon bat. Seguru gaude azken honek askoz orrialde gehiago eskatuko lituzkeela, baina diogun berriro, ez da hori atal honen xedea.

Aurkezpen honekin teoria hauen amaigabeko izaera agerian uzten saiatu gara. Teoria hauetan aurkitu dugu, oro har, joera ekintzailea nagusitzen dela, osotasun sozialaren erreferentzia ia erabat galdu egiten dela kasu batzuetan, feminismo sozialistaren kasuan izan ezik. Gure ideia honekin badirudi J. Saltzman bat datorrela, honela dioelarik:

...descubrí un gran número de teorías muy distintas que abordan la cuestión de cómo se mantienen y reproducen los sistemas de los sexos, pero casi ninguna que se ocupara de cómo cambian o podrían cambiarse dichos sistemas. Esta es una extraña omisión teniendo en cuenta el hecho de que, por definición, las feministas están dedicadas por completo a cambiar los sistemas de los sexos que implican desigualdades para las mujeres. Lo que es más, estas teorías se prestaban unas a otras una atención apenas superficial en su gran mayoría. Aunque la mayor parte parecían plausibles, todas ellas parecían sustancialmente incompletas. La necesidad de integrar de forma sistemática esta variedad de perspectivas se convirtió a mis ojos en algo evidente.,³⁵

³⁵Saltzman, J.(1992). Equidad y Género. Una teoría integrada de estabilidad y cambio. Madrid, Ediciones Cátedra.: 9 orr.

2. atala: Egiturazko Genero Teoria eraikiz

Aurreko orrialdeetan ikusi dugunez, feminismoak, dauden azterketa-era soziologiko ezberdinekin izan dituen eztabaidetan, ikerketa-arlo berriak urratu, topiko eta ikerketa objektu berriak sortu eta arazo eta kontzeptu berriak aurkitu ditu. Horren guztiaren berri dagoeneko badaukagu, baina ezer gutxi dakigu eztabaida horietaz. Eztabaida horiek ezagutzea sexu banaketaren prozesua ulertzeko egiten ari garen ahaleginerako lagungarria izango delakoan gaudenez gero, eztabaida horiek gertatu diren ikuskeretan edo, H. Bradleyen¹ ildoari segituz, 'ideia-multzo'-etan, kokatuko ditugu. Zentzu horretan, genero-desberdintasunaren gainean azterketa orokor bat garatzeko xedearekin egindako saioak hiru ikuskera edo 'ideia-multzotara' mugatzen dira:

a) Lehenengoa *ekoizpenaren ikuskera* izenarekin ezagutzen duguna da. Lerro horretan, genero-desberdintasunak beste gizarte-desberdintasunak ikertzeko existitzen diren azterketa-moduen arabera ikertzen dira; sexuen arteko lan-banaketa hau lan banaketa sozialaren baitan sartuz. Hurbilketa honetan marxismoa eta Weberren eskolakoak ere aurki ditzakegu. Azterketa hau lan edo ekoizpenaren arloan zentratu dago, eta generoaren azterketa ekoizpenaren arloari gehitzen diote; emakumeen kokapena azaltzeko existitzen diren kontzeptu ekonomikoak moldatu baino ez dituzte egiten. Orokorrean, genero-banaketa izaera espezifikoak ez dute kontuan hartzen.

b) Bigarrenak, edo *ugalketaren ikuskerak*, lehentasunen ordena aldatu egiten du. Kasu honetan, genero-banaketa arazoa *etxeko esparruan* kokatzen dute. Kontzeptu giltzarriak honako hauek dira: kultura, ideologia eta ugalketa. Ikuskera honen baitan teoria ugari aurkitzen dugu, besteak beste hauek:

- Soziologia korrante konbentzionala, bereziki amerikar funtzionalismoa, gizarteratze-prozesua eta rol sexualak azpimarratzen dituena. Parsons eta Murdock bezalako soziologoek lanetatik, zenbait ikertzaile feministarentzat

onartezina den determinismo biologiko bat ondorioztatzen da. Ikertzaile hauen artean, A. Oakley eta J. Stacey eta B. Thorne aurkitzen ditugu.

- Bestelako teoriatik ondorio bera atera genezake; feminismo erradikalari buruz ari gara, zeinek ugaltze-harremanak edo sexualitatearen eraikuntzak sexu-banaketan eta gizonezko boterearen erroak direla esaten baitu (Firestone, 1974; De Beauvoir, 1970).
- Determinismo biologiko hori saihesteko asmotan, antropologo feministek kultura eta naturaren arteko aurkakotasun sinbolikoan oinarritu izan dituzte beren azalpenak. Gertakizun unibertsal gisa ulertuta, emakume eta naturaren arteko lotura modua, bere ekarpen ekonomikoa mesprezatzeko erabil daiteke (Rosaldo, 1979; Ortner, 1979; Ardener, 1975).
- Ikuskera honen baitan, marxismoa ere aurkitzen dugu. Zenbait marxista feministak, *ekoizpen-modu* batetik bereiztua dagoen *ugaltze-modu* baten existentzia sostengatzen dute, lehenengoarekin elkarerlazio naturik dagoena (Mitchell, 1974; Mackintosh, 1977).
- Beste batzuek (Dalla Costa and James, 1972; Delphy, 1982) *etxeko lana* berez, ekoizpen-modu desberdin bat legez ikusi izan dute, hau delarik sexu-desberdintasunak sortzen dituen.

Hurbilketa horiei datzekien arazo handienetako bat, hain zuzen, lehenengo ikuskerak daukanaren justu alderantzizkoa da; hots, maila ekonomikoan agertzen diren desberdintasunak, familian edo etxeko esparruan ekoizten diren desberdintasunen, edo gizarteratze-prozesuaren bidez ikasitako jarrera sozialek edo patriarkatuaren ideologiak eta kulturak ekoizten dituzten desberdintasunen isla gisa onartzen dira.

Lehenengo ikuskeran alderantziz zen; hau da, genero-banaketan izaera espezifikoa ez zen kontuan hartzen, beste gizarte-banaketa orokorren barruan kokatzen baitzen.

c) Hirugarren ikuskerak, *ikuskerak batua* deituak, azpimarratzen du esparru biak batu beharra. Sexu-banaketei buruzko ikuskerak, kanpoko lana eta etxekoa,

ekoizpena eta ugalketa, biak hartu beharko lituzke kontuan. Honek esan nahi du soziologia marxistak, estrukturalistak, funtzionalistak eta kultur ikerketak sorturiko kontzeptuak ez direla nahikoak ulerkuntza bidea urratzeko eta, beraz, genero-banaketan espezifikotasunean oinarrituriko kontzeptu berriak eraiki behar ditugula. Hurbilketa honetan, kontzeptu oinarritzkoak *patriarkatua* eta *gizonezko menerapena* ditugu. Esan behar da, hala ere, *ikuskeratu* honetan gainditu gabeko arazo ugari gelditzen direla.

Beraz, orain arte esandakoaren arabera, genero desberdintasunari buruzko azterketa orokorrak bideratzeko unean, bi saio izan dira osotasun soziala erdibitu izan dutenak, arlo zehatz bati lehentasuna ematen zaiolarik. Lehenengoa, *ekoizpenaren ikuskera* eta bigarrena, berriz, *ugalketaren ikuskera*; bai Bradleyrentzat, bai guretzat ere, bide egokiena hirugarrenak jorraturikoa litzateke, hau da, *ikuskeratuak* dakarrena. Eta ikuskera honekiko gure zaletasuna ez da doakoa.

Aurreko atalean kezkatu agertu gara teoria feministak edo feministek erakusten izan duten heldutasun ezaz, uste baitugu arrazoi horrengatik ez duela lortu gure jakintza espezifikoa lortu behar zuen eraldaketa edo 'iraultza'. Azaldu dugu heldutasunaz zer ulertzen dugun, eta azalpen horretan izugarritzko garrantzia ematen izan diogu osotasun sozialaren erreferentziari eusteari. Teoriak eraikitzean, ikuspegi hau gogoan hartzen bada, ez da zaila ulertzea zergatik den gure begikoa *Ikuskera batu* hori .

Dena dela, bide luzea gelditzen da oraindik egiteko; eta kontuan izan behar ditugu, Bradleyk egiten duen moduan, oraindik gainditzeke gelditzen diren arazoak. Gainera, ez daukagu zertan estuki jarraitu ikerlari horrek ezarritako ikuskeren sailkapen honi, zeren, hainbat kasutan, ikertzaile batzuen lana ikuskera batean edo bestean sartzea ez baita batere erraza izaten. Esaterako, guk aipaturiko idazleen artean, hortxe daukagu Mitchell eta Mackintoshen kasua. Ekoizpen-modua eta ugaltze-moduaren artean korrelazio bat dagoela onartzen duten neurrian, zergatik ez gehitu teorilari hauen izenak *ikuskeratu batuko* izen

zerrendan? Sailkapenekin malgutasunaz jokatu behar dugu, azken finean, baliabide metodologiko bat baino ez dira-eta.

Idea-multzoak edo ildoak aurkeztu ondoren, ekin diezaiogun eztabaiden azterketari. Eztabaida hauen izaera oso zabala denez gero, askotan ildoen sailkapen hori gaindituta gelditzen da. Zentzu horretan, ikuskera ezberdinetan erabilitako kontzeptuak eztabaida-muinetan aurkitzen dira.

2.1.-Osotasun sozialaren bereizketa: ekoizpena eta ugalketaren inguruko eztabaidak

a) Patriarkatua

Patriarkatuari buruzko eztabaida teorikoan, bi ildo desberdin bereiz ditzakegu²: alde batetik, patriarkatuaren oinarrien kokapenari buruzko eztabaida izango genuke, non, ekoizpena eta ugalketa kontzeptuak, arestian ikusi izan dugun legez, batzuetan bereizirik eta bestetan elkar erlazionaturik azaltzen baitira; eta bestetik, *ikuskerak deseraikitzaile* baten arabera, generoen arteko kritikan oinarritzen den eztabaida, patriarkatu berba bera zalantzan jarritz.

Patriarkatuaz idazle ezberdinek eginiko definizioetan, ezaugarri komun bat aurki dezakegu, alegia, *gizonek emakumeak meneratzeak izaera unibertsala duela*, ondorengo aipu hauetan ikus daitekeen bezala:

...our society, like all other historical civilisations, is a patriarchy...The military, industry, technology, universities, science, political office, finances in short, every avenue of power within the society, including the coercive force of the police, is entirely in male hands ³.

The characteristic relation of human reproduction is patriarchy, that is control of women, especially of their sexuality and fertility, by men ⁴.

La base material sobre la que se asienta el patriarcado estriba fundamentalmente en el control del hombre sobre la fuerza de trabajo de la mujer ⁵.

2 Vazquez, K. Las categorías de sexo género y sexualidad: La construcción de las mujeres como sujetos políticos., in Teoría Feminista: identidad, género y política. 1993, EHU: Donostia: 69 orr. Eta, Bradley, H. (1989) Men's Work, Women's Work. Oxford: Blackwell publishers.: 50-56 orrialdeak.

3 Millet, K.,(1977) Sexual Politics. London: Virago Press.: 25 orrialdean.

4 Honako liburu honetatik harturiko aipua: Bradley, H.(1989) Men's Work, Women's Work. Oxford: Blackwell publishers.: 51 orrialdean.

Dударik ez da, patriarkatua kritika feministan oinarritzko kontzeptua dela, baina haren ulerkuntzari dagokionez, aipaturiko maila orokor horretan dagoen adostasuna salbu, desadostasuna da nagusi. Are gehiago, feminista batzuek, kontzeptu horren erabilgarritasuna zalantzan jartzen dute. Hau dela eta, K. Vazquezek eta H. Bradleyek egiten duten moduan, patriarkatuari buruzko eztabaidan bi azterketa-ildo irekitzea ulergarri egiten zaigu.

Patriarkatua defintzeko orduan, behin eta berriro zailtasun berarekin egiten dugu topo, eta zera da: ez dakigula menerapen-modu honen jatorria non kokatu, ekoizpen harremanetan, familian, diskurtso ideologikoan, egitura psikikoetan...zailtasun hori ez gainditzeak ez du esan nahi kontzeptuaren erabilpena baztertzen denik, kontzeptua barra-barra erabiltzen baita; gertatzen dena da askotan modu ilun eta unibertsal batean erabiltzen dela, gizonezkoen edozein menerapen-mota izendatzeko. Horrela, historiako edozein unetan, gizon eta emakumeen arteko edozein ezaugarri desberdin azaltzeko erabilia izan daiteke.

Konparatzen baldin badugu patriarkatua kapitalismoaren kontzeptu marxiarrarekin, zeinak garapen ekonomikoaren urrats zehatz baten barruan, gizarteko harreman mota bati dagokion modu logiko, ulerkor eta zehatz batez azaltzen baita, lehenengoa zehaztugabekotzat eta deskribatzailetzat jo genezake.

Egia bada ere edozein denboratako gizarte oro patriarkalak izan direla, edota gizonek emakumeak beti zapaldu dituztela, egiaztapen horiek ezer gutxi esaten digute garai historiko eta gizarte ezberdinetan gizon eta emakumeen arteko botere-harremanen izaera zehatzaz. Gizarte oro patriarkal gisa deskribatzeak ez du gehiegirik laguntzen, ez bagara ahalegintzen gizarte bakoitzean patriarkatua mantentzen duten mekanismoak deskribatzen. Hona hemen ikertzaile feministentzako erronka. Izan ere, ez da batere erraza izan pauso hori ematea, lehen esan bezala, oinarritzkoa den patriarkatu kontzeptuaren inguruan desadostasun zabala ematen baita.

5 Hartmann, I.H.(1980) Un matrimonio mal avenido: hacia una unión más progresiva entre marxismo y feminismo. Zona Abierta, 24: 95 orrialdean.

Beechey, Hartmann eta Delphy feminista marxistak, patriarkatuari, ekoizpen edota ugalketa-sistemaren atal gisa, *oinarri materiala* ematen saiatu izan dira. Engelsek *The Origin of the family, Private Property and the State* idazlanean jorraturiko oinarri materialaren izaera bikoitza bereganatu zuten: hau da, batetik *ekoizpenaren* eta *ugalketaren* elkarreragina, existentziarako beharrezkoak diren *gauzak*; bestetik, ezpeziearen ugalketa, *lagunak edo pertsonak*.

Feminista erradikalek, teoria psikoanalitikoaren eraginpean, gaitzetsi egiten dute ekoizpenean oinarrituriko ikuskera; batzuek, (esaterako, Firestone 1974) patriarkatu biologian eta familian sustraiturik ikusi dute; beste batzuek, berriz, haurren hazierari loturiko egitura psikologikoetan, edo diskurtso, sinbolo eta ideologiaren egituran, oinarriturik (Mitchell 1974, eta Harding 1981).

Badira, azkenik, patriarkatua gizartearen osagai guztietan, nola materialetan hala familiar, ideologiko eta psikologikoetan sarturik eta erroturik dagoela diotenak ere (Barrett 1980, eta Walby 1986).

Patriarkatua erabiltzeko beste moduek berba beraren jatorrizko testuinguru soziologikoa izan dute kontuan; hots, Weberren patriarkatua edo patriarkalismoari dagokiona; jakina denez, azken modu horrek gizarte aurremodernoei loturiko autoritate harreman-mota espezifikoa adierazten du. Zentzu honetan, patriarkatua iraganeko zerbait bailitzan ikusia da.

Arazo horien aurrean, beste autore batzuek, Rowbothamek⁶ bezala, errefusatu egiten dute berba bere osotasunean, bere ordeztu, *gizonezko menerapen* esamoldea erabiliz. Hala ere, azken kontzeptu honek ez ditu unibertsaltasun eta zehaztugabetasun arazoak gainditzen.

Barrettek (1980), patriarkatua kontzeptua, transhistorizitate eta joera unibertsalak gainditzeko dauzkan zailtasunak direla eta, problematiko bezala ikusten du, eta ez du egokitzat jotzen gizarte kapitalista patriarkal legezt deskribatua izatea, nahiz eta bere baitan patriarkatuaren hainbat osagai oraindik bizirik iraun. Azken egitate honen adibide gisa idazle honek gizon eta

emakumeentzat rol sozial ezberdinak identifikatzen dituen ideologia patriarkal baten iraupena aipatzen du. Ez du kontzeptua bere osotasunean gaitzesten eta, ildo horretan, *aitaren araua* nabarmenki funtsezkoa den egoeretan bakarrik erabiltzea gomendatzen du. Beraz, harentzat, patriarkatua gizonezkoen menerapen-mota historiko bat da, zeinak itxura ezberdin eta anitzak har baititzake.

Ehrenreichek eta Englishek (1979), patriarkatua iraganeko zerbait bailitzan ikusten dute. Hauen ustez, industria aurreko gizartearen *ordena zaharra* patriarkala zen. Nahiz eta, etxe barruan, den-dena antolaturik egon emakumeen abilezia, ezagutza eta ekintzen inguruan, autoritatea gizonen eskuetan zegoen. Egungo gizarteak, haien ustez hobeto deskriba daitezke *gizonezko gizarte* gisa.

Generoen ikuskera deseraikitzaile baten arabera eztabaida, batez ere, antropologo feministek sortarazi zuten. S. de Beauviorek eta K. Milletek, egindako ekarpenak hartuz, M. Z. Rosaldok (1979) *Gizarte Zientzietan* instituzionalizaturiko publiko eta pribatuaren arteko dikotomiaren kritikari eman zion hasiera⁷. *Etxeko esparruaren eta publikoaren* arteko aurkakotasunak badu zerikusirik unibertsalak diren emakume eta gizonen jarduera errealekin eta iritzi kulturelekin. Beraz, asimetria sexuala ez da gizartearen osagai bat, aldagarria den ekoizpen kultural bat baizik; are gehiago, asimetria sexualak toki ezberdinetan esangura ezberdinak ditu. Azterketa horri aurre egiteko, beste tresneria teoriko baten erabilpena proposatzen du, sexuaren kontzeptua birdefinituz. Horrela, *sexua*, *sexu* eta *genero* kontzeptuetan zatitzen du. Lehenengoak ar eta emeen arteko ezberdintasun biologikoak adieraziko ditu, horrela *sexuak* izaera dikotomikoa izango duelarik; besteak, aldiz, *sexu* bakoitzari *gizarteak* eransten dizkion *gizonezko*, *emakumezko* edo beste

6 Honako idazlan honetan harturikoa : Bradley, H.(1989) *Men's Work, Women's Work*. Oxford: Blackwell publishers, 53 orrialdean.

7 Vazquez, K.(1993) *Las categorías de sexo género y sexualidad: La construcción de las mujeres como sujetos políticos.*, in *Teoría Feminista: identidad, género y política*. EHU: Donostia.

batzuen sailkapen sozialak adieraziko ditu; horrela generoak, dikotomikoa izan beharrean, ugaritasun handiagoa eskaintzen du.

Zentzu honetan, M. Izquierdok⁸ dioskunez, emakumea eta gizona, zein sexua, biologikoa dena baino harago doazen kontzeptuak dira; kontzeptu horien bidez, hiru mailatan ordenatzen den errealitate bat ulertzen baitugu: sexua (ar edo emea), genero psikologiko eta soziala (gizonezkoa eta emakumezkoa) eta identitate psikosexuala (heterosexual, bisexual edo homosexuala). Zatiketa horrekin, Rosaldok desberdintasun soziala adierazten duten desberdintasun sexualen ondorio sozialak analitikoki bereiztea errazten du⁹.

S. Ortner¹⁰, Rosaldoren ekarpenak bereganatuz, Gizarte-Zientzietan ere barneraturiko *natura/kultura* oposizioa deseraikitzen arituko da. Zientziak inplizituki daukan soslaia agerian uzten du, emakumeak, beren gorputza eta ugaltze-funtzioak direla eta, naturatik hurbilagoak agerrarazten dituztelako, nahiz eta prozesu kulturaletan parte hartu. Horrela, emakumeak, naturalki familiaren testuinguruari loturik aurkezten dituzte. Bitartean, gizona, garrantzitsuak eta iraunkorrak diren sinboloen sortzaile, kulturaren ekarle gisa ikusten dute kultura naturarekiko ezberdina eta gorengo mailakoa delarik.

G. Rubinek¹¹ kontuan ditu aurreko jorrraketak *sexu-genero sistema* kontzeptua eraikitzen duenean. *Sexu-genero sistema* kontzeptua gizartearen printzipio antolatzaileei dagokiena da, eta honekin izugarritzko jauzi teorikoa ematen da. *Sexu-genero sistema*, haren esanetan, zera da: gizarte batek sexualitate biologikoa gizatiar jardueraren ekoizpen bihurtzeko dituen baliabideen multzoa. Sistema honetan, bi osagai bereizten dira: sexuen arteko lan banaketa eta

8 Izquierdo, M.J. (1984) Bases materiales del sistema sexo-género. *Langaiak*, 6.

9 Izquierdo, M.J.(1989) ¿ Son las mujeres objeto de estudio para las ciencias sociales? *Papers: Revista de Sociología*: 51-65 orr.

10 Ortner, S.(1979)¿ Es la mujer con respecto al hombre lo que la naturaleza con respecto a la cultura?, in *Antropología y Feminismo*, Anagrama, ed. Bartzelona, Anagrama.

11 Rubin, G.(1975) The traffic in women: Notes on the political economy of sex. in *Toward an Anthropology of women*. R.R. Reitter, ed. New York.

generoentzat definizio sozialak; halaber, definizio sozial horiek generoak antolatzen dituen mundu sozialak eraginduz. Horrela, teorikoki, *sexu-genero sistema* gizonezkoa, emakumezkoa edo berdintasunezkoa izan daiteke. Geroago, Rubinek berak, lehenengo planteamenduaren aurrean, generoa eta sexualitatearen arteko bereizketa analitikoaren beharra azpimarratuko du, existentzia sozial ezberdinak dituztelakoan baitago. Biak daude botere sistemetan antolaturik eta, gizabanako eta portaera batzuk bultzatu eta saritu egiten dituzten, eta beste batzuk, berriz, zigortu.

Azken ekarpen horrek beste ikusmolde kritiko bat eskaintzen du. Horren arabera, gizarte-zientzietan egitura, prozesu eta subjektuaren genero-azterketaz gain, sexualitatearen erreferentia ere kontuan hartzen da.

Idazle horren ekarpenaren oinarria *ugalketa-modu* eta *patriarkatu* kontzeptuei egiten dien kritikan aurki dezakegu. Alde batetik, uste du ugalketa-modu kontzeptuak ekonomiaren (ekoizpena) eta sistema sexualaren (ugalketa) arteko bereizketa baten existentzia azpimarratzen duela, errealitatean biak prozesu bat-beraren osagaiak direnean. Eta, beste aldetik, patriarkatua kontzeptuari dagokionez, mugatutzat jotzen du, zeren, sexismoa mantentzen duten indarrak beste indar batzuetatik bereizten lagundu arren, genero-sistema sexuala teorikoki berdintasunezkoa, beraz, ez patriarkala izan daitekeenik ez baitu onartzen.

Horren aurrean, *sexu-genero sistema* esamoldeak, bai sexuen arteko berdintasunezko harremanen existentziari, bai emakumeen menerapen-possibilitateari, zirrikitu bat irekia uztearen abantaila dauka. Horrela, gizonezkoen menerapenaren onarpen unibertsala eta unibertsaltasun hori ezaugarri biologikoetan azaltzeko joera alboratu egiten ditu. Are gehiago, planteamendu hau abiapuntutzat hartuz, sexu-generoaren sistema batzuk egitatez patriarkalak direla posible da esatea, hitzaren zentzu hertsian.

Patriarkatuari buruz aurkeztu ditugun bi eztabaida-lerro hauen artean ez da oraindik aukerarik egin baten edo bestearen kalterako. Egia bada ere *genero*

berba gero eta maizago aurkitzen dugula gizarte-zientzietako, eskuliburutan eta ikerketetan eta, nolabaiteko nagusitasuna lortu duela, hitz horren erabilera askotan oso nahasgarri suertatzen da; eta, nahasgarritasun horren aurrean, ikertzaile feminista asko dira beste kontzeptu batzuen erabilera, eta ez soilki patriarkatuarena, aldarrikatzen dutenak.

Nahasgarritasun horren zioak bilatzeko, baliagarria suerta liteke berba horren erabileraren historia laburraz zer bait jakitea. Hasierako erabileran, *genero* hitza, *sexua* edota *emakumea* hitzaren sinonimo legez ulertu zen; *generoaren* ikerketa, emakume, rol sexual edota bien ikerketa zen. *Generoa*, une hartan (eta orain ere bai hainbat ikertzaileentzat), arlo edo esparru bat baino ez zen, soziologiaren kezka nagusietatik oso urrun zegoena.

Oraingo erabilera berrian, *generoa kultur interpretazio eta giza egituraren oinarrizko printzipio bat bezala teorizatzen da*. Jakintza-arlo onartu baten barruan berezitasun bat izan beharrean, *genero*, menerapen eta ezberdintasunaren araua da, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunetan zehazten dena, azken hauek giza prozesu anitzetan barne daudelarik.

Horrela, 80ko hamarkadan, *generoa* hiztegi zientifikora moldatzen da, kontzeptuak bi esangura hauek dituelarik: bata, gertaera horren ondorio zuzena, gaia feminismoen ekintza politikotik aldentzea, eta bestea *emakumeak* kategoria bezala sartzea, hauek izendatu gabe eta mehatxuak planteatzeke Gizarte Zientzietan. *Generoaren* erabilpena ikertzaile feministek lorturiko legitimitate akademikoaren adierazle dugu, legitimitate horrek dakartzan arazoan artean honako hau funtsezkoa izanik: *generoa*, *emakumeak* hitzaren ordeztzeak, emakumeen informazioaz gain, gizonena ere kontuan izatea errazten du, eta horrela, osotasun sozialaren zati bat aztertu beharrean osotasun sozial horri eutsi ahal izatea. Natalie Daviesek honela dio:

Me parece que deberíamos interesarnos tanto en la historia de las mujeres como de los hombres, que no deberíamos trabajar solamente sobre el sexo oprimido, del mismo modo que un historiador de las clases sociales no puede centrarse por entero en los campesinos. Nuestro propósito es comprender el

significado de los sexos, de los grupos de género, en el pasado histórico. Nuestro propósito es descubrir el alcance de los roles sexuales y del simbolismo sexual en las diferentes sociedades y períodos, para encontrar qué significado tuvieron y cómo funcionarosn para mantener el orden social o para promover su cambio... ¹²

Baina, historia labur honen ustezko lorpenak ez dira modu berean baloratuak izan. Ikertzaile batzuek ez dute bat ere baikortzat jo, ekintza politikotik 'lorturiko' aldentze hori, ezta kontzeptuaren esangura ezberdinak mantentzeak dakartzan bi azterketa-mailari eustea ere.

H. Bradleyek¹³ berak, *patriarkatu* kontzeptuari erratua iruditu arren, – unibertsalismo ahistoriko edo murrizte marxistan ez jaustea zaila iruditzen baitzaio–, *patriarkatu* kontzeptua erabili beharrekoa dela uste du, Emakumeen Historia eta Soziologia berrian kontzeptu giltza bihurtu baita. Egitatez, nahitaezkoa bilakatu da; 60ko feminismoarekin duen loturak botere sinboliko eta politikoa atxikitzen dio, beste kontzeptuek -kasu, sexu-generoaren sistemak- ez daukana. J. Acker iritzi berakoa da:

...However, there is a danger in abandoning the project of patriarchy. In the move to gender, the connections between urgent political issues and theoretical analysis, which made the development of feminist though possible, may be weakened. Gender lacks the critical-political sharpness of patriarchy and may be more easily assimilated and coopted than patriarchy ¹⁴.

Beraz, eta zailtasunak egon arren, segitu beharra dago patriarkatuaren azterketa lantzen, genero-harremanei buruz ulerkuntza handiago bat lortuko den esperoan. Haren aburuz, dagoeneko, bide horretan, H. Hartmanek eta S. Walbyk egindako bi ekarpen interesgarri daude kokaturik. Lehenengoak honako modu honetan definitu zuen patriarkatua:

Podemos definir el patriarcado como un conjunto de relaciones sociales entre los hombres que tiene una base material y que, si bien son jerárquicas, establecen o crean una interdependencia y solidaridad entre los hombres que les permite dominar a las mujeres...La base material sobre la que se asienta el

12 Honako idazlan honetan harturiko aipua: Scott, J.W.(1990) El género: una categoría útil para el análisis histórico. in Historia y Género: las mujeres en la Europa Moderna y Contemporánea, J Amelang, J.S. eta Nash, M., ed. Valentzia, Alfons el Magnanim argitaletxea: 24orr.

13 Bradley, H.,(1989). Men's Work, Women's Work.Oxford, Blackwell publishers.: 56 orr.

14 Acker, J.,(1989).The Problem with Patriarchy. Sociology, 23, 2.zka 239-240 orr.

*patriarcado estriba fundamentalmente en el control del hombre sobre la fuerza de trabajo de la mujer. El hombre mantiene este control excluyendo a la mujer del acceso a algunos recursos productivos esenciales y restringiendo la sexualidad de la mujer*¹⁵.

Hartmannen definizio horretan, Weberrek eta beste batzuek berba hori erabili zuten modu bera onartzen da, ikuskera marxistari erantsiz. Gainera, azken ikerlari horrek, bai klase eta etnia hierarkiak, bai genero hierarkia kontuan izaten ditu. Horrela, gizonek emakumeen lanean ezartzen dituzten kontrolak epe edo une historiko ezberdinetan har ditzakeen modu ezberdinak deskribatzea errazten du:

*...Al estudiar el patriarcado aprendemos porqué y cómo es la mujer dominada. Aunque creemos que la mayoría de las sociedades conocidas han sido patriarcales, no consideramos el patriarcado como un fenómeno universal e invariable. Creemos más bien que el patriarcado, como conjunto de relaciones entre los hombres que les permiten dominar a las mujeres, ha cambiado de forma e intensidad a lo largo del tiempo...No hay duda de que aquí entran en juego la clase, la raza, la nacionalidad e incluso el estado civil y la orientación sexual, así como la edad. Y las mujeres de diferentes clases, razas, nacionalidades estados civiles y orientaciones sexuales están sometidas a diferentes grados de poder patriarcal...*¹⁶.

Beraz, Hartmannek onartzen du patriarkatuaren izaera historikoa dela eta ez unibertsala eta, G. Rubinen *sexu-genero sistema* kontzeptuaz baliatuz historia epekatzeko orduan, patriarkatua une historiko zehatz batean kokatzen du:

*...Rubin señala que teóricamente un sistema de género/sexo podría ser de predominio masculino, de predominio femenino o igualitario, pero renuncia a calificar a los diversos sistemas de género/sexo conocidos o a periodizar la historia de acuerdo con ellos. Nosotras optamos por calificar a nuestro actual sistema de género/sexo de patriarcado, porque éste término conlleva las nociones de jerarquía y predominio masculino que consideramos centrales en el actual sistema*¹⁷.

Hala ere, idazle honen ekarpen honetan, beste ikertzaile batzuek zenbait arazo identifikatu dute; esaterako, patriarkatua gizonen arteko harreman multzo bat legez definitzean eta, bidenabar, gizon eta emakumeen arteko harremanak

15 Hartmann, I.H.(1980). Un matrimonio mal avenido: hacia una unión más progresiva entre marxismo y feminismo. Zona Abierta, 24: 94-95 orrialdeak.

16 Hartmann, H.(1980) Op .Cit.: 97 orrialdea.

17 Rubin, G. (1975). Op. Cit.: 96 orrialdea.

bigarren maila batean uztean, definizio horrek izaera sexista ez ote duen galdetzen dute. Modu berean, patriarkatuaren oinarri materiala 'lanaren boterearen' azterketan kokatzeak lehentasuna ematen dio ekoizpen teorizazioari, gizon eta emakumeen arteko harremanen beste ezaugarri batzuk (familia, sexualitatea...) ahaztuz. Hartmannen definizioak menerapen ekonomikoaren azterketa industria esparrutik familia esparrura hedatzen du. Zentzu honetan, genero-menerapena, berriro ere, klasearteko harremanen ekoizpen bat izatera murriztua gelditzen da.

S. Walby, bere saiakeran, genero-harremanak klasearteko harremanen ezaugarriira murrizteko joera hori saihesten saiatzen da:

*... I define patriarchy as a system of interrelated structures through which men exploit women... The model I shall construct here will be composed of a limited number of relatively autonomous structures with the relative importance of each specified. The key sets of patriarchal relations are to be found in domestic work, paid work, the state, male violence and sexuality; while other practices in civil society have a limited significance.*¹⁸

Patriarkatua ekoizpen-modu ezberdin bat bezala ikusia izan behar duela argumentatzen du, eta etxeko lanean oinarrituta dagoela dio. Gizarte kapitalistetan, ordea, ordaindua den lanean dauden patriarkatu-egiturak oso garrantzitsuak dira, eta aipaturiko beste arlo batzuetan ere badu eraginik.

Walbyk eginiko lanaren ekarpen handienetarikoa bat zera litzateke: ordaindua den lanean,- eta, bereziki gerraondoko kapitalismo garaian-, patriarkatuak duen garrantzia modu egokian azpimarratzen duela eta, horretaz gain, ez dituela emakume guztiak etxekoandre moduan ikusten, beste azterketa batzuek ikusten duten moduan (esaterako, Delphyk egiten duen antzera).

Baina patriarkatuari buruz duen ikuspegia- zeina, aldi berean, etxeko ekoizpen modu bat eta ekoizpen horrekiko arrotzak diren egituren multzo bat baita-, teorikoki zalantzarria agertzen da zenbait idazlerentzat. Walbyren

¹⁸ Walby, S. (1989) Theorising Patriarchy. Sociology, 23-24:213-234 orr.

hurbilketak, gizonezkoen menerapena adierazpen guztiak definizioan sartzen dituenz gero, Hartmannek lorturiko ikuskera argian galdu egiten du nabari den zorrozatasuna, eta horrek lehengo zehaztugabetasunera garamatza. Azken finean, bere definizioa K. Milleten antzerakoa da. Azterketa historiko sistematikorako ez du eskaintzen Hartmannenak eskaintzen zuena, Walbyren definizioari segitzen dion eztabaida deskribatzailea baita.

b) Kapitalismoa versus patriarkatua

Sexu-banaketa azaltzeko kapitalismoak eta patriarkatuak daukaten ahalmenaz eta bi sistema horien arteko loturaren izaera zehatzaz egon diren eztabaidak ez dira gelditu 70eko hamarkadan hasi eta egun arte, eta horren adierazle da idatziriko liburu andana. Gure asmoa, atal honetan, ez da literatura ugari horren jorraketa sakon eta sistematikorik egitea, hori orrialde gutxitan modu egokian burutzea ezinezkoa baita. Horren ordeztu, ikuskera batzuen laburpen bat eskainiko dugu.

Marxismo tradizionalan, genero banaketa klase teoriaren baitan argi eta azal daiteke. Alegia, Engels emakumeen mendetasun soziala jabetza pribatuaren instituzioarekin batera agertu zelakoan zegoen; gizonek emakumeengan ezartzen duten kontrola, haien soberakinaren kontrola ziurtatzeko atal bat da, hori oinordekoei utzi nahi dietelako. Horren ondorioz, klasegabeko gizarte batean, genero-banaketa desagertu egingo litzateke, emakumeak menerapen kapitalista gainditzeko borroka komunean parte hartzera bultzatuak sentituko lirateke-eta..

Horrela, marxistak, kapitalismoarekin daukaten harremana oinarritzat hartuz, egungo gizarteetan emakumeen kokapena azaltzen saiatu dira, emakume eta gizonen arteko harremanen teoria bereizi baten beharrik ikusi gabe. Proposamen hau azken muturreraino eramanez gero, kapitalismoak genero-desberdintasuna sortu zuela esatera helduko ginbateke.

Jakina, oso feminista gutxi agertzen dira horren alde; are gehiago, feminista marxista gehienek kategoria marxistak sexuari buruz itsuak direla uste dute; Hartmannek berak dioskunez:

...las categorías de análisis marxista, tales como 'clase', 'ejército de reserva del trabajo', 'trabajo asalariado', no explican por qué determinadas personas ocupan determinados puestos. No dan ninguna pista sobre porqué la mujer está subordinada al hombre dentro y fuera de la familia y porqué no es al revés. Las categorías marxistas, como el propio capital, son ciegas al sexo. Las categorías del marxismo no pueden decirnos quién ocupará los 'puestos vacantes' ¹⁹.

Hori dela eta, beharrezkoa izan zen azterketa tradizionalari generoa gehitzea. Batzuen ustez, klase teoriaren baitan generoaren azterketa posible zen eta, horrela, emakumeen kokapena aztertzen hasi ziren, honako kategoria marxiarrak erabiliz: 'lan indarra', 'erreserba armada', eta abar. Horren adierazle dugu "etxeko lanaren inguruko eztabaidak" deituriko idazki multzoa, non, etxekoandreen ordaindugabeko lana kapitalaren onerako dela argitzean, emakumeen mendetasuna azaldu nahi baitzuten. Horrelako hurbilketek kapitalaren premien arabera ikusten zuten emakumeen kokapena. Hortaz, hurbilketa horiek mahaigaineratu zuten nola gizonezkoak ez ziren talde sozial gisa ikusiak izaten, ezta emakumeak beheko kokapenetan egoteak edota etxeko lanen ardura izateak zekarzkien etekinak ere.

Beste muturrean, feminista erradikalak zeuden. Hauek patriarkatuaren azterketan soilki interesaturik zeudenez gero, generoa desberdintasun sozialaren lehenengo modu gisa ikusten zuten. Ikuskera honetan, gizarte guztien ezaugarria dugu gizonezkoen menerapena, familiaren eta emakumeen ugaltze-zereginean erroturik dagoena. Egungo gizarteetan, ezkontza monogamoak eta heterosexualitateak, sexu desberdintasunari buruzko ideologiek, eta familia barruan haurren hezkuntzak sorturiko desberdintasun psikologikoek iraunarazi egiten dituzte sexuen arteko desberdintasunak.

Feminista erradikal batzuek, batez ere Amerikan, teoria marxiarraren aurrean, freudear teoria edo beste psikoanalisi modu batzuk erabili dituzte alternatiba legez. Ildo teoriko hauetan ere, zenbait proposamen berregin eta eraldatu beharra onartzen da, alegia, "Elektra konplexuaren" ondorio sexistak. Ahalegin honetan eragin handiko lana N. Chodorowek²⁰ eginikoa -*The reproduction of mothering* izenekoa-, zeinetan ama eta haurren arteko harremanak jorratzen baititu. Baina, patriarkatuaren inguruan egindako hurbilketa honek ez du unibertsalismoa eta ahistorizismoa gainditzen, emakume haurduna gizonen menpean egotera kondenaturik dago. Azterketa psikoanalitikoak, bestalde, joera determinista erakusten du: emakumeak eta gizonak, beren amengandik datozen subjektibitateak diren aldetik, emakumeen pasibotasuna eta gizonen meneratze-joera beren buruak desberdintzen dituzten moduen saihestezineko emaitza dira. Horretaz gain, hurbilketa horrek ukatu egiten ditu generoarekin erlazionaturiko beste banaketa edo desberdintasun iturriak,(klase, arraza, adina...). Generoa soilki aztertzen denez, ezin ditugu azaldu familian edo lan esperientzian dauden desberdintasunak, ezta gizarte-klase edo etnia ezberdineko emakumeen esperientzia ere. Horrela, sexu-zapalkuntza primario legez ikustea gizarte-klase zapalkuntza primario gisa ikustea bezain mugatua da.

Egun, feminista gutxi dira bi muturreko ikuskera hauen alde agertzen direnak; gehienek aintzat hartzen dituzte biek eginiko ekarpenak, baina, sexu-banaketa azaltzean ez dute egokitzen jotzen patriarkatua bakarrik kontuan hartzen duen ikuskera, edota kapitalismoarena kontuan hartzen duen ikuskera; aitzitik, generoa eta klasea, biak kontuan hartzen dituen hurbilketa beharrezkotzat jotzen dute. Hirugarren talde honen baitan, beste bi bereiz ditzakegu:

- Talde batean, teoria batu baten aldeko ikertzaileak aurkitzen ditugu, Patriarkatu Kapitalistaren Teorian, non generoaren eta klasearen azterketa integratzen baita.

19 Hartmann, I.H.(1980)Un matrimonio mal avenida: hacia una unión más progresiva entre marxismo y feminismo. Zona Abierta, 24: ,24 orrialdea.

- Bestean, azterketek bereziak izan behar dutela diotenak daude; hemen patriarkatu eta kapitalismo bereziak bai baina elkarrerlazioaturiko sistemak bailiran ulertzen dira. (Hartmann, 1980)

Lehenengo taldean, marxismotik eta feminismitik harago heltzea dute xedetzat. Esaterako, Vogel²¹ eta Hicks ikertzaileek uste dute gizartearen dimentsio politiko, kultural eta ideologikoak kontuan hartzen dituen marxismo mota batek genero desberdintasunak modu egoki batez azalduko lituzkeela; aldiz, beste batzuek marxismoa ez dute gai ikusten ekonomikoak ez diren harremanez arduratzeko. Horrela, klaseari buruzko ezagutza sakon hori kontzeptu psikoanalitikoetan oinarrituriko patriarkatuaren teorian integratzeko premia azpimarratzen dute. Bi adibide hauek batasunaren bilaketak dauzkan arazoak bistarazi baino ez dute egiten. Horrelako hurbilketetan, azken batean, generoa klasera murrizten da, eta klasea generora.

Aipatu dugun beste hurbilketa, "sistema dualista" izenarekin ezagutzen dena da, eta jadanik aurkeztu dugu lan honen beste atal batean. Hurbilketa honen ikertzaileak, arestian aipatua gerta ez dadin- hau da, generoa klasera murriztea edota alderantziz-, saiatu dira. Hauen aburuz, sistema bakoitzak bereizi teorizatu behar du, nahiz eta une historiko zehatz batzuetan harremanetan egon edota beste dinamika batzuekin,-esaterako arrazarekin-, elkarrekintzak izan. Mota honetako teoriak, bide batez, beste bi taldetan bana daitezke :

Batean, klase-harremanak eta genero-harremanak, osotasun sozialaren esparru ezberdinetan kokaturik baleude aztertzen dira; alegia, klasea ekonomian eta patriarkatua etxeko esparruan. Beste proposamen batzuek, berriz, ekoizpen eta ugalketaren arteko bereizketa marxiarra erabiltzen dute. Bestean, biak, genero eta klase sistemak, gizarteko maila guztien eragile gisa ikusten dituzte. Honelakoak dira Hartmannek eta Walbyk eginiko hurbilketak.

20 Chodorow, N.(1999). The reproduction of mothering: psychoanalysis and the sociology and gender. Berkeley: University of California Press.

21 Vogel, L.(1979)Marxismo y Feminismo. Monthly Review, 31 2.zka: 43-69orri.

c) *Kapitalismo versus patriarkatua baino harago: Korronte alternatiboa eta ertaineko teoriak*

Soziologo askok, sexu-desberdintasunak azaltzerakoan, egokitzen joan diren 'ertaineko hurbilketa' bat lantzea, horretarako kontzeptu soziologiko espezifikoak erabiliz, hala nola, *gizarteratze-prozesua*, *lan banaketa*, edo *segmentaturiko lan merkatua*, baina egiturazko edo osotasunezko ikuskera baten testuinguruan kokatu barik, lan honen hasieran ikusi bezala. Horretaz gain, badaude ortodoxia menertzaileei egindako aldaketa teorikoak ere, soziologian 'korronte alternatibo' gisa tipifikatu direnak. Azken horien artean, bi ditugu oso interesgarriak: bata, hurbilketa etnometodologikoa, Stanleyren eta Wiseen²² eskutik etorria. Bi idazle hauek oso kritiko agertzen dira marxismoak feminismoan ezarri duen menertpenarekin, errealitatearen azterketan azalduriko ikuspegi positibistarekin eta, azkenik, gizon-emakumeek, gizabanako gisa, bizi duten esperientzietatik aldenduriko ikuspegia eskaintzen duten egiturazko eta kausazko azterketa-moduekin. Hauen iritziz, feminismoak serio hartu beharko luke *pertsonala dena politikoa delako* proposamena, eta emakumeen kontzientzian eta eguneroko esperientzian oinarrituriko feminismo mota berri baten alde lan egin beharko luke. Sexismoak, egiturazko azalpen kausaletan oinarrituriko iturri gisa hartu beharrean, teoria feministaren gai izan beharko luke. Ikertzaile hauek, euren eguneroko esperientzian aztertu beharko lukete sexismoa, praxian ikusi zein modutan interpreta eta jorra litekeen. Prozedura horrek emakumeek mundua era ezberdinez ikus dezaten lagunduko lukeelakoan daude Wise eta Stanley. Era berean, sexuen arteko botere-harremanen konplexutasunak ikustarazteko ere balio zezakeen, 'zapaltzaile' eta 'zapalduaren' arteko ikuspegi dikotomiko sinplea errefusatuz. Idazle horiek jorraketa teorikoa praktika feminista gisa ikusten dute, horixe baita, izan ere, euren lehenetariko xedea.

22 Stanley, L. eta Wise, S.. *Breaking Out*. London, Routledge eta Kegan Paul.

Elshtainek²³, eskaintzen digun bigarren hurbilketa erabat desberdina da. Ikertzaile honek emakumeei buruzko azterketa akademikoari kendu nahi dio 'erretorika feminista' oztopatu baino ez baitu egiten. Soziologia objektiboago baten aldeko dei honek bi iturri teoriko ditu: alde batetik, pluralismo liberala eta, bestetik, teoria postmodernista eta biek gizabanako eta taldeen esperientzia anitzek zatituriko errealtate legez ikusten dute gizartea. Aurreko idazleen antzera deitoratu egiten du, generoari buruzko eztabaidan, marxismoaren eta egiturazko azterketen partehartzea. Ikuskera hauen ekarpenek, bere aburuz, 'onarpen' faltsu eta teleologikoetan oinarrituriko erretorika eskaintzen dute. Horrelakoak dira ondorengo bi hauek:

- 'Sexuen neutraltasunaren diskurtsoa'(marxiarra, batez ere), zeina, jatorrizko berdintasunean sinestean baitatza. Horren arabera, gizakiak klase eta genero zapalkuntza sortu ditu. "Zapalkuntzazko egiturei" egindako kritika baten bidez, historia berdintasuna berrezarria izango den azken urrats baterantz doa.

- 'Sexuen arteko polartetasunaren erretorika'(feminismo erradikala), zeinak, gizon eta emakumeen arteko desberdintasun biologikoak azpimarratuz, betirako banatuak eta bereziak ikusten baititu.

Proposamen horien ordez, Elshtainek "sexuen arteko osagarritasunaren" (ezberdina baina berdina?)²⁴ ikuspegia eskaintzen digu. Proposamen honek genero-harremanen ugaritasuna eta konplexutasuna lantzen ditu, bermaezinak diren onarpenik gabe. Hau guztia, aurrerapenean emaniko amaiera batera doan eboluzio historiko baten interpretazioari buruzko zein ekintza edo esperientziaren edozein ikuskera unibertsalistari buruzko errefusapenari lotuta dator. Elshtainek gizon eta emakumeen arteko botere-harremanen aldakortasunari irekia den ekarpen bat egin nahi du.

23 Elshtain, J.B.(1987)Feminist Political Rhetoric and Women's Studies, in The Rhetoric of the Human Sciences, Megill, J. eta Mclosky, D.,ed. Wisconsin, University Press.

24 "Ezberdina baina ez zapaldua", izan daiteke esamolde horren esangura.

Aipaturiko bi hurbilketa horietan, aldakortasunari eta konplexutasunari emandako garrantzia, batzuetan, egiturazko teorien orokortasun sinpleegiak zuzentzeko erabilgarria da, baina, biek egiturazko teorien aurka dauden beste teorien arazo berberak dituzte. Batetik, boluntarismo liberal batean jausteko arriskua egoten da, zeinetan, nahiz eta frogatua egon, ukatu egiten baita genero banaketan eta desberdintasunen existentzia sistematikoa. Bestetik, emakume bakar batzuen lorpenak gizartearen gorengo mailara iristearren burutuak, goraipatzeko eta eredu gisa hartzeko arriskua dago, (Tatcherren eredu, berriro). Are gehiago, egiturazko azterketa gaitzetsia bada, idazle horiek egindako lana zilegizkoa eta interesgarria izan arren, oso mugatua da; hau da, sexismoa *nola* mantentzen den ezagutu gura dugu, baita horren *zergatia* ere. Horrela, egiturazkoak ez diren teorizazioetan, askotan ezkutaturik, egiturazko ekarpenak aurkitzen ditugu. Esaterako, *gizonak zapaltzaile gisa* ideia, berez, egituratuta dagoen gertakizuna da. Egitatez, ordea, sexu-desberdintasun eta banaketan froga sistematikoak daude, eta hauek, oraindik argitzeke segitzen dute. Horretaz gain, ez gatoz bat Elshtainekin, hark esaten duenean egiturazko ekarpenak teleologikoak direla, baina, ordea, uste dugu horiek, kezka moral bati loturik daudela. Azken horrek eramaten gaitu geure buruari galdetzera: Nola jokatu beharko ote luke generoari buruzko egiturazko teoria batek unibertsaltasunean edo klase azterketara murrizteko joeran berriro eror ez dadin.

2.2.- Generoari buruzko Egiturazko Teoria baten bila

Aurreko galderari erantzuteko saio desberdinak aurkitu ditugu. Ikerlarion begikoenak honako idazle hauek egindakoak dira: V. Beechey²⁵, H. Bradley²⁶, J. Saltzman²⁷ eta J. Acker²⁸.

25 Beechey, V.,(1994). Género y trabajo: replanteamiento de la definición de trabajo, in Las mujeres y el trabajo. Bartzelona, Icaria.

26 Bradley, H.(1989) Men's Work, Women's Work. Oxford, Blackwell publishers.

27 Saltzman, J.(1992) Equidad y Género. Una teoría integrada de estabilidad y cambio.Madril, Ediciones Cátedra.

28 Acker, J.(1992) Gendered Institutions. A journal of reviews: Contemporary Sociology, 21: 565-568 orri.

Veronica Beecheyek ekoizpen arloan generoak duen eragina egiaztatu ondoren, ondorengo galdera hau planteatzen du: generoaren garrantzia erakutsi ondoren, *nola aztertu behar da generoa?* Izan ere, generoaren kategoria oso gutxitan agertzen da ondo landua den teoria baten baitan integraturik. Orduan, nola hasi garatzen generoaren azterketa teoriko egoki bat? Hark proposaturiko bidea honako hau litzateke: generoaren teoriak kontuan izan beharko luke funtsezko arazoak identifikatzea. Egin berri diren hainbat lan enpirikotan oinarriturik, honako hauek dira berak identifikaturikoak, segidan, galdera gisa, zerrendaturik doazenak:

- Zertan oinarritzen da esparru publiko eta pribatuaren arteko bereizketa? Nolako ondorioak ditu bai emakumeentzat eta bai gizonentzat?
- Zeintzuk dira lanpostuetan ematen den bereizkeriaren arazoak? Nola ulertzen da gertakizun beraren existentzia gizarte desberdin askotan?
- Nola eragiten ditu lantokiko kulturak? Zenbateraino laguntzen du horrek gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak mantentzen ?
- Zer-nolako lotura dute esparru publiko eta pribatuaren arteko zatiketak, edota lantokian dauden genero-harremanek eta nortasun pertsonalaren artean? Nola eraikitzen dira lantokietan subjektibitateak?
- Nolako eragina dute lan antolaketaren eta lanpostuen definizio sexualen aldaketek lanari buruzko errepresentazioen eboluzioan?
- Nola artikulatzen da genero-banaketa, beste banaketa batzuekin, esaterako arraza, etnia eta, klase banaketekin?

Gai horiek identifikatzean, V. Beechey, inplizituki egin arren, generoaren esangura nonahi eta ez ekoizpen esparruan soilki, onartzen ari da. Horren frogara, J. Scott eta S. Harding idazleei buruz egiten duen balorapen baikorra da. Bi idazle horiek, azterketetan helburu desberdinak izan arren, badituzte zenbait antzekotasun ere:

J. Scottek²⁹ generoaren azterketa historikoa eta deseraikitzailea izan behar duela defendatzen du. Are gehiago, generoa harreman sozialen osagai eta botere-harreman esanguratsuen era primario bat gisa ulertzen du. Horretaz gain, generoak elkarrerlazioaturiko lau osagaiak ditu:

- Kulturalki eskuragarriak diren sinboloak(esaterako Mendebaldeko kristau tradizioan Eva eta Maria emakumeak)
- Kontzeptu arautuak, hots, sinboloen esanahien interpretazioak (adibidez, aipatutako sinboloen interpretazioak kontzeptu erlijiosoen bidez eginak izaten dira).
- Giza erakunde eta instituzioekiko erreferentziak eta ideia politikoak (hezkuntza sistema, familia, lan-merkatua...).
- Identitate subjektiboa.

S. Hardingek³⁰, Scottek egiten duen moduan, generoa nonahi aurki dezakegula eta bere azterketak deseraikitzailea izan behar duela defendatzen du. Haren aburuz, generoak hiru maila ditu:

- Generoaren sinbolismoa.
- Lan banaketa
- Generoak determinaturiko identitateak eta asmoak.

Ikuskera honen arabera, generoa, indibiduala, egiturazkoa, sinbolikoa eta beti-beti asimetrikoa da. Hurbilketa horretan, generoa prozesu bat da, ez gizabanakoen ezaugarri bat, nahiz eta, jakina, gizabanakoak genero kategoriak eraikitze prozesu horren ardatza izan. Generoa ez da existitzen harreman sare baten baitan, non beste harreman-motak ez baitira kontuan hartzen,-esaterako, arraza klase etnia, nazioa-. Generoa, ordea, arraza eta klasea (etnia, nazioa, eta beste mendetasun eta desberdintasun mugak) eraikitzen dituzten prozesuen atal gisa ikusten da. Sexualitatea eta sexu esanahien sorkuntza prozesu horietan erabat inplikaturik daude.

29 Scott, J.W.(1990) El género: una categoría útil para el análisis histórico., in Historia y Género: las mujeres en la Europa Moderna y Contemporánea, Amelang J. S. Eta Nash, M ed. Valentzia, Alfons el Magnanim argitaletxea.

30 Honako lan honetatik harturiko erreferentzia: Beechey, V.(1994) Género y trabajo: replanteamiento de la definición de trabajo, in Las mujeres y el trabajo. Bartzelona, Icaria.

Ondorio berberera heltzen da H. Bradley³¹, eztabaida historiko eta soziologikoak jorratu ondoren, (horietako batzuk lan honen lehenengo atalean jorratu ditugu), ikus dezagun zein den berak proposatzen digun irtenbidea.

Aipatu ikerlariarentzat, irtenbidearen jatorria, *sistema* kontzeptu soziologikoa arazoaren erroa ikustean datza; *Egiturazko teoria modu bat* hartzea iradokitzen du, zeinetan sistema kontzeptu hori baztertzen edo behintzat beste era batera ulertzen baita. Bide hori urratzeko, bere aburuz, egitura soziala elkarloturiko harreman 'sistema munduak' bezala (klase, genero, etnizitatea, politika, kultura) ulertu beharko genuke eta, ulertu, gainera beraien garapen historikoaren testuinguruan. Harreman-talde bakoitza bakarka teorizatua izan daiteke, nahiz eta bakoitzaren ulerkuntza osorik ezin lortu kontuan hartzen ez bada besteekin duten elkarrekintza/elkarharremana, jakina, beraien testuinguru historikoan kokatuz. Horrek esan nahi du gure azalpenak mugatu eta zatituak direla; horrelakoak izan arren, oinarri sendoak dira, izan ere, gizartea nola aldatu pentsatzen hasteko.

J. Ackerrek³² beste pauso bat ematen du Bradleyek aipaturiko gizarte aldatze horri ekiteko bidean. Pauso horren adierazle "instituzio generizatuen" kontzeptuaren proposamena dugu.

"Instituzio generizatu" terminoaren esanahia honako modu honetan azal genezake: generoa, bizitza sozialean gertatzen diren prozesu, ekite, irudi, ideologia eta botere banaketen baitan dago. Azken finean, gure idazleak kezkatzen duen galdera hau da: nola ikertu generoaren indarra osotasun sozialean? Horretarako, instituzio sozialen azterketari ekiten dio. Errealitate bat egiaztatetik abiatzen da; alegia, instituzioen definizioak emakumeen presentziarik eza erakusten du. Instituzio bakar bat dago non emakumeak paper garrantzitsua nahiz menpekoa, jokatzen baitu, oso definitua. Instituzio hori

31 Bradley, H.(1989) Men's Work, Women's Work. Oxford, Blackwell publishers.

32 Acker, J.(1992) Gendered Institutions. A journal of reviews: Contemporary Sociology, 21: 565-568 orr.

familia da. Nahiz eta emakumeek bultzaturiko aldaketa ugari gorpuztu hainbat instituzioetan, gizonek segitzen dute giltzarri diren instituzioak menperatzen.

Ackerren aburuz, oinarrizko sailkapen hori *ekoizpen* eta *ugalketaren* arteko ezberdintasuna gisa izan daiteke kontzeptualizatua, eta hori genero-antolaketari dagokio. Idazleak hitz hauek erabiltzen ditu, lagunen eguneroko eta belaunaldien arteko ugalketaren eta ondasun-ekoizpenaren arteko banaketa gizarte kapitalistetan nola gauzatzen den adierazteko. Industria gizarte kapitalistetan ekoizpena ugalketaren gaineratik dago. Finantzak funtsezko industriak ongizate iturri gisa ikusten dira; aldiz, haurrak, agureak eta atsoak zaintzea eta hezkuntza bigarren mailakotzat jotzen dira. Nahiz eta familia idealizatua izan, ugalketa emakumeen ardurapeko manupea ikusi ere ez da egiten; azpibalaratua izaten da gaizki ibiltzen hasi arte. Ezin ahanzi, ugalketa funtsezkoa dela beste instituzio guztiek funtziona dezaten.

Ackerren ildoan, ugalketa eta ekoizpenaren arteko banaketak gizarteazpiegitura generizatua osatzen du. Eta azpiegitura generizatu horren sorkuntza eta birsorkuntza ikertzeko, antolakuntza jardueri heldu behar diegu.

Mota askotako jarduera eta prozesuak analitikoki bereiz daitezke, bizitza sozialean elkarloturiko osagaiak izan arren. Batzuk nabari eta irekiak dira; beste batzuk, ordea, sakonki elkarloturik daudenak eta ikusezinak dira.

1.-Prozesu generizatuen zerrenda batean, lehenengoak arraza eta klasea (etnia eta beste mendetasun eta desberdintasun-mugak) eraikitzen dituzten prozesuak agertzen dira.

2.-Instituzioak legitimatu, azaldu eta justifikatzen dituzten irudi, sinbolo eta ideologiak eraikuntza genduz bigarren prozesu generizatua.

3.-Hirugarrenik, ikuspegi analitikoa elkarrekintzen prozesuetan oinarriturik dago; instituzioak funtziona dezan gizabanakoen eta taldeen arteko elkarrekintza baita modu bakarra. Hemen, jendeak generoa birsortzen du: generoa egin egiten du instituzioaren lan arrunta aurrera eramanez.

4.- Azkenik, barne-prozesuak, hots, gizarteratze prozesuak agertzen dira; zeinetan gizakien eraikuntzan gizabanakoak aritzen baitira instituzioak generizatuz.

Teoria mailan proposaturiko "instituzio generizatuarena" izeneko tresna hau ez da aurkitzen modu esplizitu eta sistematiko batean Bradleyek egindako planteamendu teorikoan, baina bai, ordea, bere kanpo-lanean. Horrela, lan-munduan genero-bereizkeria azaltzeko egiten duen saioan azpimarratzen du behar-beharrezkoa dela hurbilketa erradikalago bat egitea, zeinetan onartzen baita historikoki eta hasiera-hasieratik lantokiak generizatuak izan direla. Idazle honen iritziz, gai honi buruz azalpen osoago bat lortzea posible da, onartzen baldin bada garapen industrialaren hasieratik lan prozesua ez dela izan soilik kapitalista, bai eta generizatu ere. Ekoizpen-prozesuan teknika berriak sartu eta berrantolatu zituzten kapitalistek berek gizonen eta emakumeen lanbideak sortu zituzten eta, hura sozialki gizon eta emakumeei, langile bezala, atxikitzen zaizkien ezaugarriak erabiliz: gizonei atxikitzen zaizkie 'trebetasunak' eta 'teknologian adituak izatea'; emakumeei, berriz 'merkeak ' eta 'moldagarriak' izatea. Beraz, Ackerrek urraturiko bidetik doa Bradleyen lana, dioelarik instituzio ekonomikoen izaera hasiera-hasieratik dagoela generizatuak.

Instituzioak generizatuak bezala ulertzeak ikuskera kritikoa ematen digu soziologian jarduteko. Hemen funtsezko arazoa da jakitea ez zergatik diren emakumeak baztertuak, baizik eta zenbateraino osatzen duen generoak instituzio-egitura osoa eta instituzio esparru bakoitzaren izaera. Izan ote zitekeen status quo militar bat, Estatu bat guk geuk ezagutzen dugun moduan, edota ekonomia kapitalista bat, baldin generoa ez balitz antolakuntza printzipio bat?

Azken ekarpen hauekin batera, J. Saltzmanek egindakoa ikusi behar da, ikertzaile honek beste pauso bat eman baitu. Arestian aipaturiko idazleak saiatu izan dira generoari buruzko egiturazko teoria eraikitzen uler dezagun nola eragiten duen generoak osotasun sozialean. Ezin dugu ahaztu, beraiantzat, ulerkuntza horren xedea gizarte aldaketaren teoria baten lehenengo urratsa ezartzea dela. Zentzu horretan, Saltzmanek, helburu horrekin ados, 'sexuen arteko desberdintasunaren mailaz aldaketaren teoria' garatu du ("Equidad y Género"³³ liburuan).

Lan horren abiapuntua zera da: nola azaldu emakumeentzat desabantailen sistema (sexuen arteko mailaketa bat) bat egonik sistema horren iraupena eta birsorkuntza? Nola azal genezake sexuen arteko desberdintasunen mailan eman den aldaketa? Idazle honek, doluz konstatatzen du, sexuen mailaketaren mailan egon den aldaketa sorrarazi duten baldintzei buruzko osotasunezko azalpen baten eza. Horrela bere buruari ematen dion eginkizuna, 'teoria orokor' bat garatzea da,- egonkortasunaren teoria bat bere hitzetan-, aldaketa soziala ulertzeko asmotan. Lan horri ekiteko, gain honen inguruan egin diren teoria garrantzitsuak jorratu eta gero, gehienak partzialak direla ondorioztatzen du; hau da, azterketa maila bakar batean oinarritzen direla, beste azterketa-mailak ahaztuz. Haren ustez, osotasuneko teoria batek gainerako azterketa-maila guztiak hartu behar ditu kontuan:

Junto con la edad, el sexo es, y probablemente haya sido siempre, el marcador más destacado de los seres humanos en prácticamente todas las sociedades. El sexo parece impregnar todos los aspectos de la vida tanto sociocultural como individual e intrapsíquica. En resumen, el sexo da forma a procesos y estructuras y es modelado por ellos en los tres niveles de análisis. Teniendo esto en cuenta, junto con la interacción fundamental de los niveles mismos, cualquier teoría que intente explicar la estabilidad o el cambio en los sistemas de la estratificación de los sexos, debe incorporar e integrar estructuras y procesos de todos los niveles. Una meta principal de la teoría de los sexos en sociología debería ser la explicación sistemática de cómo exactamente se vinculan los procesos micro y macro y estructuras sociales para producir los sistemas de sexos...

33 Saltzman, J. Equidad y Género. Una teoría integrada de estabilidad y cambio. 1992, Madrid: Ediciones Caátedra.

...La teoría que incorpora explícitamente procesos de todos los niveles alerta a los investigadores de la necesidad de reunir datos a todos los niveles.³⁴

Ekite horren bigarren emaitza teoria partzial horien sailkapen bat egitea da, guk aurreko orrialdeetan eskainitakoarekin konparatuz, zenbait desberdintasun eskaintzen dituen. Horrela, hark honako hauek bereizten ditu: alde batetik, sexu sistemetan ezaugarri koertzitiboak azpimarratzen dituzten teoriak daude. Jakina, ezaugarri koertzitibo horiek batez ere emakumeei ezartzen zaizkie. Teoria koertzitiboa horiek azterketa makroak eta ertainekoak egiteko joera dute eta, horrela, batez ere, egiturazko aldagaiak azpimarratzen dituzte. Beste alde batetik, sexu sistemetan borondatezko ezaugarriak azpimarratzen dituzten teoriak dauzkagu. Borondatezko teoria hauek, mikromailakoak dira eta azpimarratzen dute nola barneratzen dituzten gizon eta emakumeek sexuen arteko arauak diren portaera moduak eta izaerak. Saltzmanek, teoria koertzitiboen artean, teoria marxista-feministak aipatzen ditu, eta Borondatezko Teorien artean, teoria feminista neofreudiarra, gizarteratze teoriak eta eguneroko bizitzaren teoriak.

Teoriak sailkatzeaz gain, teoria horiek garatu dituzten kontzeptu teorikoez ere arduratu da. Horien kritika egin ondoren, berea proposatzen du: *sexua eta sexu sistema*; azken honen barnean honako azpikategoria hauek egonik: sexuen mailaketa, sexuen arteko lan banaketa, boterea eta autoritatea, sexuen definizio sozialak, non ideologia sexuala, arau sexualak eta estereotipo sexualak aurkitzen ditugun.

Sexuaz ulertzen du sexu bakoitzari atxikitzen zaizkion sozialki eraikitako osagaiak, (guk, errealitate bera adierazteko, genero berba darabilgu). Beraz, berarentzat biologia ez da funtsezko aldagai bat. Sexu biologikoaren definizio soziokulturalak dira gehienbat interesatzen zaizkionak.

Sexu sistema sexuarekin erlazionaturiko sistema egonkorren *status quo* soziokulturalari dagokio. Gorago esan dugun bezala, horren barne daude

sexuen mailaketa eta desberdintasun-sistemak, lan banaketa sexuala, sexuen definizio sozialak eta sexuen arteko botere-desoreka.

Proposamen horrek, G. Rubinek proposaturiko *sexu-generoaren sistema* kontzeptuarekin antzekotasun handia dauka, nahiz eta Saltzmanek ikertzaile honen aipurik ez duen egiten. Biak gizarte-printzipio antolatzaileei dagozkie eta, horretaz gain, Rubinek, bere sistemaren baitan, sexuen arteko lan banaketa eta generoen definizio sozialak ere bereizten ditu.

Kontzeptu teorikoen lanketa honek helburu argi bat dauka; hots, aldaketarako kontzeptu egokiena identifikatzea. Zer da lehenengoz aldatu behar dena aldaketa hori sistema osora hedada dadin? Beraz, sisteman aldaketa handi bat sortarazteko eragile gisa, J. Saltzmanek *Lan banaketa sexuala* aukeratzen du. Haren aburuz, emakumeek, beren estatusa igo dezaten gizonekiko erreferentzian, aukera kolektiboak, baliabideak sor ditzakeen lan bat lortu behar dute. Horrek, *Lan Banaketa sexualaren* egitura birdefinitzea eskatzen du, hiru elementuz osaturiko fenomeno gisa, alegia:

- Sexuen arteko berdintasunerako, beharrezkoa da emakumeek eta gizonek etxeko lanaren eta familiaren ardurak modu berdinean partekatzea.
- Etxetik at betetzen dituzten rolek berdinak izan behar dute, sortzen dituzten ondasun material eta ez-materialei dagokienez.
- Emakumeek eta gizonek, elitea osatzen den partaideen artean, kopuru berdinez ordezkatuak izan behar dute.

Idazle horren iritziz, *Lan banaketa sexualaren* aldaketa hiru proposamen hauetara hurbildu ahala, sexuen definizio sexualak desegingo dira. Baina, arazoa da nola piztuko den norabide hirukoitz horretara joan beharko lukeen sexuen arteko lan-banaketaren aldaketa.

Sexuen arteko lan-banaketaren aldaketa-prozesuan, autore honek izaera ezberdinetako prozesuak identifikatu ditu. Alde batetik, nahita eraginak izan direnak eta, beste aldetik, nahita ez eragindakoak. Azken hauen artean, teknologiaren aurrerapena, industrializazioa, herritartze-prozesua, kapitalismoaren hedakuntza, gerra eta gatazka politikoa, aldaketa demografikoa eta prozesu hauen guztien arteko harremana azpimarratzen du. Nahita eragindako prozesuetan bi abiapuntu ezberdin aurkitu ditu: "goitik" eragindako prozesuak, eliteak eragile izanik, eta sustraietatik eragindakoak, eta hauetan mugimendu feministak jotzen ditu protagonistatzat. Beraz, prozesu horren konplexutasuna kontuan harturik eta gizarte industrial aurreratueta eta, batez ere, Estatu Batuetako errealitatean oinarriturik, aurreko galderari erantzun bat ematen saiatzen da edo, hobeto esanda, etorkizunak ekar dezakeenaz bi aurreikuspen alternatibo eskaintzen dizkigu:

Berak 'baikorra' deituriko aurreikuspenaren arabera, onartu egiten du, krisialdi ekonomikoak epeka gertatuko direla, luzeran eta sakontasunean moderatuak izango direnak; ez du aurreikusten iraunkorra eta sakona izango den aldaketa ekonomikorik. Automatizazioa eta beste egiturazko arazoak direla medio, ondo ordainduak eta sindikatuko bigarren sektoreko gizonezkoen lan tradizionalak, ordaindua den lan-indarraren portzentajearekiko gutxitzen jarraituko dute. 2000 urtera arte, eskaeraren mailak langile gazteen,(1964-1980 urte bitartean jaiotakoak), eskaintza gaitutuko du, "gutxitze demografikoko" taldekoen partaide direlako. Hirugarren sektoreko lanak hedatu egingo dira eta, hedapen hori aurreko urteetako bezain azkarra ez bada ere, taldea txikia izanik, emakume gazteentzako aukera zabalak egon beharko dute. 2010-2020 urte bitartean, "boom demografikoko" taldekideak erretiroa hartzen hasiko dira; azken horien irteerak lan merkatutik lan-indarraren eskaera maila altuetan mantentzen eta hurrengo adin taldearen mugikortasun profesionala azkartzen lagunduko du. Azken talde honek erlatiboki txikia izan beharko luke, aurreko taldeko emakumeek, lan-aukerak zabalak izanik, haien emankortasuna murriztu

izan badute. Ondorioz, emakumeek hurrengo mendeko lehenengo hiru hamarkadetan ere, lan-aukera zabalak izango dituzte.

Hirugarren sektoreko lanetan, soldata, prestigioa eta kualifikazioa maila guztiak aurkitu ditzakegu. Emakumeak sektore honetako lanbideetan nagusitu egingo dira, eta beste askotan sartuko dira, lan eskaerak gizonen kopurua gainditu egingo baitu. Prozesu honek, definizio sozio-sexualak, sexu ezberdintasuna desegiteko joerak indartuko ditu eta sexuen arteko mailaketa ahultzen lagunduko du. "Gutxitze demografikoko" taldearen tamaina txikia kontuan harturik, ikasketak dituzten emakumeak izan daitezke elitean sartzea protagonizatzen duten lehenengo emakumeen taldea. Elitean sartze orokor hori, haien bizitzaren erdialdean gerta daiteke, 2010-2015 urte bitartean. Elitean sartuko direnak asko izango ez direnez gero, feminismo ekintzaile berri baten funtsezko eragile bihurtu daitezke.

Beste aurreikuspena, 'ezkorra' dugu. Honetan, epe luzera arazo ekonomiko larriak aurreikusten dira. Horrela, lan-eskaera orokorra murriztu egingo da eta murrizketa hori ez da behin-behinekoa izango. Aurreikuspen honetan, gizonen, langabezia edota lan-baldintza eskasetan egonik, emakumeek menperatzen dituzten hirugarren sektoreko lanbideak 'inbaditu' egingo dituzte; aldi berean, eragotzi egingo dute menperatzen dituzten sektoreetan emakumeak sartzea. Emakumeak, etxetik kanpo lan egiteko aukerarik ezean, baliabiderik gabe geldituko dira eta sexuen arteko mailaketa handituko da euren kalterako, betiko legez. Iraganera itzuliko ginateke.

J. Saltzmanen ekarpenak baditu zenbait ezaugarri gureganatu nahiko genituzkeenak. Lehenik eta behin, aipatu ditugun gainerako idazleek ahaztutakoa, alegia, osotasunezko teoria bat urratzeko bidean, azterketa-maila guztiak kontuan hartu behar direla. Bigarrenik, hark proposaturiko kontzeptu edo egitura teorikoek, beste idazleek proposaturikoekin konparatuz, gure uste apalean, zenbait kasutan antzekotasun handia daukate eta, horrela ez den kasuetan, kontrajarriak izan beharrean osagarri legez ikusten ditugu. Esaterako,

sexuari ematen dion zentzuak ezaugarri biologikoak baztertzeko dituzte, soziokulturalak azpimarratuz. Lan honetan aztertutako autore gehienak,-eta azken atal honetan, guztiek darabilte kontzeptualizazio bera-, *sexu* hitza erabili beharrean, *genero* hitza erabiltzen dute ezberdintasun hori hobeto adierazteko asmoz. Guk idazlan honen izendapenarekin erakusten dugun moduan, bat gatoz autore hauekin guztiekin. Saltzmanek azpimarraturiko kontzeptualizazio horren ezaugarriak, beste autoreengan ere aurki ditzakegu, modu esplizitu zein inplizitu batez.

Beecheyen, J. Scotten eta S. Hardingen ekarpenak bereganatuz, generoaren azterketa historiko deseraikitzailea izan behar duela esaten du, eta, halaber, harreman sozialen osagaia, botere-harreman primarioa, lan banaketa sexuala eta generoak definitutako identitateak genero-sistemaren osagaiak direla baieztatzen du. Bradleyek, ildo beretik, generoa "mundu-sistemen" sistemaren osagai bat dela dio, testuinguru historikoan aztertu beharrekoa. Eta J. Ackerrek, "instituzio generizatuaz" hitz egiten du; beraz, generoa harreman sozialen osagai bat izateaz gain, printzipio antolatzaile bat dugu, Rubinen eta J. Saltzmanen planteamenduetan agertzen den moduan. Azken honek, aldaketa teoria bat urratu nahian emandako urratsa sekulako saioa da. Sistemaren, "mundu sistemen sistema, Bradleyen ekarpena gureganatuz-, aldaketa handi bat sortarazteko eragile moduan, lan-banaketa sexualaren egitura giltzarritzat hartuz, orain arte sexuen arteko mailaketa gradu emaniko zenbait aldaketa argitu du. Eta argibide horietan oinarriturik, soziologoek eginkizunari ekin dio geroaren aurreikuspen bat plazaratzeari, beti ere soziologo klasikoek eskutik.

Hala ere, Saltzmanek proposaturiko aurreikuspen "baikor" horretan, zenbait arrisku egon badaude, hala nola:

- Estatu Batuetako errealitatean oinarrituriko azterketa unibertsalizatzeko joera.
- Jakirik zer-nolako garrantzia daukaten "nahita ez diren prozesuek" (teknologiaren aurrerapena, industrializazioa, herritartze-prozesua, kapitalismoaren hedakuntza, gerra eta gatazka politikoa, aldaketa demografikoa...) ikerlari horrek hainbeste konfiantza izatea elite-kideak izango

diren emakumeengan, -Margaret Thatcherren adibideak ez digu itzaropenerako betarik ematen-.

- Hirugarren sektoreko lanetan, egia da, berak dioskun bezala, soldata, prestigioa eta kualifikazio-maila guztiak aurki ditzakegula; baina, emakumeak lortuko dugun edo dagoeneko lortu dugun nagusitasuna, nola neurtzen da? Emakumearen kopuruaren arabera? Lorturiko estatus-mailaren arabera? Azken hau zeren arabera neurtzen da? Ikerketa batzuen emaitzek erakusten dute, adibidez, emakumeen nagusitasunak, hirugarren sektoreko lanetan, "diskriminazio horizontala" ez egotearekin zerikusia handia daukala, baina oraindik nabarmena dela "diskriminazio bertikalaren" existentzia,-esaterako irakaskuntzan-; horrela, emaitza horien arabera, emakumeen eskuartzea elitean-edo, hobeto esanda, botere guneetan-, ez da bermaturik gelditzen esparru horren nagusitasun kuantitatiboa lortzea arren.³⁵

Dena dela, eta aurreikuspen 'baikor' honetan, hainbeste arrisku ikusi arren, ez dugu aurreikuspen 'ezkorra' gureganatu nahi,-honen ezaugarri batzuk gure errealitatean nabarmenak badira ere, besteak beste, gizonek, langabezia edota lan baldintza eskasetan, emakumeek menperatzen dituzten hirugarren sektoreko lanbideak 'inbaditzea' eta, aldi berean, beraiek menperatzen dituzten sektoreetan emakumeen sarrera eragozteak-.

Baikortasunaren bideari eutsi nahi diogunez gero, hurrengo atalean azalduko dugu erabiliko dugun tresneria teorikoa, aurreko ataletan zehar ikusitako ekarpenen eta klasikoen jokabideen laguntzaz.

2.3.- Soziologian generoari dagokion tokia: sexu roletatik, instituzio generizatuetera

Jorratu ditugun ekarpen feministek, 60ko hamarkadakoak baino lehenagokoak barne direlarik, agerian utzi zuten soziologian ikusezina zen arazo soziologiko

35 Bradley, H., *Men's Work, Women's Work*. 1989, Oxford: Blackwell publishers, 173-242 orrialdeak.

bat: generoaren araberako osotasun sozialaren antolaketari buruzkoa. Azken honek ez du esan nahi soziologian emakumeak ikusezinak zirenik, beste jakintza-arloetan gertatzen zen bezala; aitzitik, lan-banaketa sexualarekin eta generoarekin erlazionaturik dauden gaiak aztertuak izan dira, familia, populazioa eta komunitate-ikasketen esparruetan.

Horren adibide dugu T. Parsonsena, "Age and Sex in the Social Structure" deitua, garai bateko Soziologiaren korrante nagusia ordezkatzeko zuena. Nabaria da lantze-modu horik, genero soziologian eragin handia izan duela, adibidez: oinarriko kontzeptu batzuen garapena bultzatuz, esaterako, 'sexu rolen hizkerarena'; sinesmenak sortuz, esate baterako, generoa familiarekiko beste instituzioekiko baino askoz garrantzitsuago dela; generoaren gaiak ugalketa eta iraupen sozialarekin elkarloturik daudela baieztatuz. Baina hurbilketa horrek, osotasunezko teoria bat eraikitzen lagundu beharrean, oztopatu baino ez zuen egin ekimen hura, geroago ikertzaile feministak konturatuko ziren moduan. Hala ere, oraindik egun, genero soziologia askok rolen hizkera hori bereganatu du.

Soziologian genero teoria bat eraikitzeko zeuden beste oztopo batzuk ere aztertu ditugu. Horien artean aipa daitezke honakoak generoa funtsezkoa den kontzeptu teoriko bat gisa hartu beharrean, beste aldagai bat gisa hartzea; ikerketa feministak baztertzea edo ghetto baten sartzea. Horiek guztiak badute zerikusia soziologia diziplinaren joera zehatz batzuekin, hau da, lan soziologiko gehiena ateorikoa izatearekin eta metodologia positibista nagusitzarekin.

Oztopo horiei aurre egiteko, teoria feministek eginiko saioak aztertu ondoren, haien partzialtasunaz edo heldutasun ezaz jabetu gara. Soziologo klasikoengandik ikasitakoaren arabera, teoria bat sortzean, hiru dira funtsezko zutabeak: ezagutza historikoa, osotasun soziala kontuan izatea eta joera etikoa. Azken hori, teoria feminista gehienek osagai komuna dugu, aurreko biak ahaztu edo galtzen diren bitartean, salbuespenak salbuespen. Horrela, oso gutxitan agertzen da genero kategoria landua den teoria baten baitan integraturik.

Erronka horri aurre egiten saiatu diren gure begiko proposamen batzuk ikusi, aztertu eta kritikatu ditugu, teoria batek kontuan hartu beharko litzukeen irizpideei eutsi eta gure tresneria teorikoa sortu nahian. Jarduera horren ondorioz, honako hauek lirateke 'gure teoriaren' osagaiak:

Sexu bakoitzari datxekion osagai sozio-kulturalak adierazteko, genero hitza erabiliko dugu; eta honen konplexutasunaz emandako definiziorik onena gisa Joan Scottek proposaturikoa kontsideratuko dugu³⁶.

Aurrekoari Joan Ackerrek eginiko ekarpena gehituko diogu; hau da, generoa osotasun sozialaren printzipio antolatzaile bat den legez, instituzio generizatuaz hasiko gara hitz egiten, ahantzi gabe azterketa maila guztiak kontuan hartu behar direla, J. Saltzmanek dioskun bezala. Baita J. Ackerrek berak kontuan izaten dituenak ere, modu esplizituan esan ez arren. Horrela, beherago ikusiko dugunez erraz suertatzen da, aztertu beharreko prozesu bakoitzari azterketa-maila bat egokitzea:

1.- Lehenengo, esan bezala, arraza, gizarte-klasea, etnia eta beste mendetasun eta desberdintasun mugek eraikitzen dituzten prozesu generizatuak dauzkagu. Makromailan egin beharreko azterketa horrek erantzuten die V. Beecheyek planteatutako galdera hauei: zertan oinarritzen da esparru publiko eta pribatuaren arteko bereizketa? Nola artikulatzen da genero-banaketa, gainerako banaketa batzuekin, esaterako arraza, etnia eta klase-banaketekin?. Are gehiago, lan-banaketa sexualari buruzko arazoak, desberdintasuna muga hauen guztien elkarrerlazioan aurki ditzakegulakoan gaude.

2.- Beste prozesu generizatuak instituzioak legitimatu, azaldu eta justifikatzen dituzten irudi, sinbolo eta ideologiaren eraikuntza litzateke. Prozesu generizatu honetan, V. Beecheyek planteaturiko beste galdera batzuk hauek dira: nola eragiten ditu generoak lan-tokiaren kulturak? Zenbateraino laguntzen du gizon

eta emakumeen arteko desberdintasunak mantentzen? Azterketa horri ekiteko maila ertainari ekin beharko genioke.

3.- Ikuspegi analitikoa elkarrekintzen prozesuetan oinarriturik dago, instituzioak egokiro jardun dezan gizabanakoen eta taldeen arteko elkarrekintza baita beharrezkoa. Elkarrekintzetan jendeak birsortu egiten du generoa instituzioaren lan arrunta aurrera eramanez. Horrelako prozesuetan, zentzua duten galderak honako hauek lirateke: zer-nolako loturak daude publiko eta pribatuaren arteko zatiketan, edota lantokian dauden genero-harremanak eta identitate pertsonalaren artean? Nola eraikitzen dira subjektibitateak lantokietan? Elkarrekintzez ari garenez, nabaria da mikromailan kokaturiko azterketaz ari garela.

4.- Azkenik, barne-prozesuak ditugu, hau da, gizarteratze prozesuak. Horietan gizabanakoek dihardute gizakien eraikuntzan, instituzioak generizatuz. Berriro ere, mikromailan aritu beharrean aurkitzen gara.

5.- Prozesu horien guztien azterketari ekiteko, azterketa-maila ezberdinei heldu beharko diegunez, erabili beharreko metodologiak, "ustezko metodologia feminista" baten premia zalantzan jartzen du. Hortaz, metodologia horrek ezagutza 'ulerkorra' eta ezagutza 'positiboa' kontrajarriak ikusi barik, osagarri legez kontsideratuko ditu, eta, beraz, ikerketa-teknikak kuantitatiboak zein kualitatiboak batera erabiltzeko aukera ematen digu.

Proposamen horren bitartez saiatuko gara, funtzionalismoak eta marxismoak ezarritako oztopoak erabat gainditzen eta, halaber, "instituzio generizatuaren" egitura kontzeptualarentzat eta etorkizunean sor daitezkeen beste batzuentzat ere soziologian dagokien tokia bereganatzen.

Idazlan honetan zehar, teoria hau gure errealitate sozialera ekartzeko saioa duzue: euskal nazioaren eraikuntza prozesuan giltzarri izan den eta izango den instituzio bat aukeratu dugu, hots, hezkuntza edo, are zehatzago, hezkuntza ekimen baten protagonistak. Horrenbestez, ikastoletan ari diren andereñoengana eta maisuengana hurbildu gara; irakasleengana, hain zuzen. Gure azterketaren abiapuntu historikoa trantsizioaldi politikoaren osteko garaia da, 90eko hamarkada zehazki.

Saiatuko gara euskal nazioaren eraikuntza prozesuaren izaera generizatua eta prozesu honetan zehar gauzatzen den lan banaketa sexuala ezagutzen. Aukeratu dugun hezkuntza fenomeno honetan eta honen aitzindariengan generoaren araberako antolaketa, eta hori legitimatzen duten sinbolo eta irudiak aztertuko dira. Azkenik, epealdi ezberdinetako irakasleak, bai andereñoak bai maisuak baina batez ere andereñoak, lan-jarduera honetara nola ailegatu ziren ezagutzeko, haiek bizi izandako gizarteratze-prozesuez eta, egun haien lanean generoa birsortzen duten elkarrekintzez jabetuko gara.

Baina, azterketa horrekin hasi baino lehenago, egon badaude beste kontzeptu batzuk argitu beharrekoak, eta argitze-jarduera horri ekingo diogu hurrengo ataletan.

3. Atala: Generoa Soziologi Teoria Klasikoan: generoa eta komunitatea

Aurreko atalean esan dugun legez, soziologiaren zenbait arlotan, alegia, Komunitatean, familian eta populazioan, modu 'androzentrikoa edo erratua' izan bada ere, emakumeei buruzko errealitate batzuk, ezkutaezinak diren neurrian, landuak izan dira. Horrelako hurbilketak soziologi teorian aurki ditzakegu ere.

Hurbilketa horiei ekiteko R. Nisbetek¹ egin duen ideia soziologikoen jorraketa aukeratu dugu, onenatarikoa delakoan gaude-eta. Autore honek dioskunez, *Komunitatea, Autoritatea, Estatusa, Sakratua dena eta Alienazioa*, soziologia tradizioari bere iraupena eta koherentzia eman zioten ideiak ditugu; haien inguruan eztabaida handienak sortu baitziren. Baina, ideia horien artean, garrantzi gehien lortu duena, *komunitatearena* da.

Komunitate ideiak, "Arrazoiaren Aroan", *Itun* ideiak izan zuen garrantzi bera izango du XIX. mendeko pentsamendu sozialean. Filosofoek, giza harremani legitimitatea emateko, itun ideia arrazionala erabili zuten. Itunak gizartearen ona eta defendagarria zen guztiaren eredia eskaintzen zuen; aldiz, XIX. mendean, Komunitatearen sinbolismoaren aurrean ituna desegin egiten da. Komunitatearen lokarriek-errealak edo asmatuak, tradizionalak edo ezarriak-pentsamendu arlo askotan, gizarte onaren irudia eratu zuten.

Soziologian komunitateari buruzko interesa ikuskera bat da, metodologia bat, zeinak erlijioa, autoritatea, legea, eta nortasunaren azterketa argitu eta antolaketa eta desantolaketaren auziari beste irtenbide batzuk eskaintzen baitzkie. Soziologiak *sozial* kontzeptuari lehentasuna eman dio, eta *sozialari* dagokiona *komunitatea* da.

¹ Nisbet, R. (1969). La formación del pensamiento sociológico. Buenos Aires, Amorrortu editores.

Tradizio komunitario horren baitan, emakumeei buruz egindako lanketa teorikoak ia beti paradigma ilustratutik baloratuak edo epaituak izan dira, kritika gehienak, guztiak ez esatearren, feminismoak eginak izan baitira, eta hau azken finean ilustrazioaren emaitza da.²

Kritika horien ondorio garrantzitsuen artean, aurreko atalean ikusi izan dugunez, atal honen hasieran azalduz geratu da; hau da, emakumeei buruz egiten diren azterketa guztiak *androzentrikoak* edo *erratuak* direla. Badirudi azken baieztapen honek, emakumeen esperientziak ulertzeko, ezagutza feminista agertu baino lehenagoko ahalegin teorikoak ez dituela onartzen. Ildo beretik, emakumeen esperientzia azaldu eta uler dezakeen ezagutza bakarra teoria feminista izango litzateke.

Halarik ere, feminismoak sorturiko tresneria teorikoarekin, batzutan, ez da bat ere erraza zenbait fenomeno ulertzea; esaterako, nazionalismoek emakumeei esleituriko funtzio sozialaren aurrean horiek izaten dituzten sentimenduak eta jarrerak, edo islameko integrismoari emakumeek ematen dioten laguntza³ :

*...comprender porqué las mujeres dan su apoyo al integrismo islamico, igualmente amenazante para su posición. A nuestros ojos, no tienen nada que ganar con el hecho de ponerse un velo. Sin embargo, es evidente que eso da a las mujeres un sentimiento de pertenencia y a nosotras una oportunidad para considerar porqué necesitan ese sentimiento.*⁴

Selma Leydesdorffekin bat gatoz esaten duelarik, "talde baten partaide izatearen sentimendua" edota "oroimen kolektibo" bezalako kontzeptuak beharrezkoak direla, arestian aipaturiko errealitateak ulergarriak egiteko. Hau dela eta, tradizio komunitario horren baitan eginiko hurbilketa teorikoak ezagutzeari eta beraien ulerkuntzan sakontzeari oso interesgarria deritzogu; are gehiago, funtsezkoa da argi izpiak bilatze jarduera honetan.

2 Molina Petit, C. (1994). Dialéctica feminista de la ilustración. Barcelona, Anthropos.
Amorós, C. Hitzaurrea.

3Leydesdorff, S. (1994). La memoria colectiva y el papel de los relatos que las madres cuentan a sus hijas: revisión de la historia europea de postguerra. Arenal 1.zka: 39-48.

4 Azpimarraturikoa guk egina da.

Komunitatearen esangura, ideia soziologiko gisa, hustu nahian gabiltzala, gorago esan dugun legez, R. Nisbetek egindako jorrocketan oinarrituko gara. Horrela, idazle honek honako modu honetan ari da, '*Benetako komunitatea*'z hitz egiterakoan⁵: *komunitateak* harreman modu oro darama bere baitan; harreman hauek, barrukotasun handiko izaera, sentiberazko sakontasuna, konpromiso morala, giza kohesioa eta denboran iraupena izaki. *Komunitatea* gizakiarengan, bere osotasunean ulertua, oinarritzen da; gizakiak ordena sozial batean izan dezakeen rol batean edo bestean baino. *Komunitateak duen* indar psikologikoa, interes hutsetik hartu beharrea, beste motibazio maila sakonagotik hartzen du, eta gauzatzen da gizabanakoen borondateen mendetasunari esker, bestalde, interes edo onarpen arrazionalaren araberrako elkartean ezinezkoa den mendetasuna. *Komunitatea*, sentimendu eta pentsamendu, tradizioa eta konpromisoa, egokitasun eta borondatearen arteko urte bat da, herrian, erlijioan, nazioan, arrazan, lanbidean, ..., edozein kausa kolektibotan aurkituz edo horien adierazpen sinbolikoa izanaz. Bestela esanda, *komunitate* hitzak gizabanakoen talde batean elkartasunezko lokarri baten existentzia adierazten du; lokarri hori, zerbait partekatua -hizkuntza, erlijioa, botere, idealak...- denaz antzetsua den balorazio batean oinarritua, zeinak barrura begira parte izatearen sentimendu eta talde horretatik kanporantz desberdintasunezko sentimendu bat sortzen baitu: Gu-Haiek (besteak).

Komunitateaz ari dela Max Weberrek honela diosku:

Llamamos comunidad a una relación social cuando y en la medida en que la actitud en la acción social - en el caso particular, por término medio o en el tipo puro- se inspira en el sentimiento subjetivo (afectivo o tradicional) de los participantes de constituir un todo. ⁶

Baina, agian, Tönnies eta Durkheim izan dira gizabanakoen arteko lokarri desberdinak edo elkartasun motak- zeintzuek gizarte bizitza bideragarria egiten baitute-, ezberdintzen eta azaltzen gehien ahalegindu direnak.

5 Nisbet, R. (1969). La formación del pensamiento sociológico. Buenos Aires, Amorrortu editores.

6 Weber, M. (1969). Economía y Sociedad. México: Fondo de Cultura Económica. 33 orr.

Tönniesek bi erlazio mota desberdintzen ditu, alde batetik, komunitarioa edo *gemeinschaft*; bestetik, elkarte erlazioa edo *gesellschaft*. Erlazio komunitarioa lokarri afektiboetan, sentimenduetan oinarritzen da, hitzarmen espliziturik gabe; baina, batik bat, batasuna eraiki eta iraunarazteko ardura du:

... el sentimiento recíproco, obligatorio, como voluntad peculiar de una comunidad, recibirá el nombre de consenso(Verständis). Representa la particular fuerza y propensión social que mantiene unidos a los seres humanos como miembros de una totalidad. ⁷

Bestetik, elkarte erlazioa dugu. Honen artificio izaera azpimarratzen du Tönniesek, hitzarmen batek sortzen dituen erlazioekin parekatuz. Hortaz, elkarte lokarriak instituzioen beharra dauka existitzeko zein iraunarazteko.

Durkheimen obran, elkartasun mekaniko eta organiko kontzeptuen erabilera aurkitzen dugu gizarte bizitzan gizabanakoen arteko lokarri desberdinez ari delarik:

...estas dos sociedades no forman más que una. Son dos fases de una sola y única realidad, pero a pesar de eso no deben dejar de distinguirse. ⁸

Durkheimentzat, elkartasun mekanikoa, ia berez, gizakia taldeari lotzen diona litzateke; berez diogula, testuinguru batean sozializazioaren bidez sorturiko loturaz ari baikara. Berriz, elkartasun organikoa lan banaketaren emaitza litzateke, horrela gizakiek funtzio desberdinezko sistema batean dituzten erlazioen bidez adierazten dute euren elkartasuna. Elkartasun mota biak - Tönniesen elkarte-eta komunitate-lokarriekin nolabait parekagarriak- gizarte orotan presente daude, une desberdinetan eta zio desberdinek bata ala bestea bultzatzen dute. Mirandak ideia honekin loturik honakoa diosku:

Quizás habría que añadir que los lazos "asociativos" u "orgánicos", si no entran en contradicción con los "comunitarios" o "mecánicos" de los grupos que los integran, (cuando abarcan a un colectivo más amplio), pueden con el paso del tiempo, es decir de la historia en común, y la participación conjunta en momentos clave, junto con la participación en instituciones comunes,

⁷ Tönnies, F. (1979). Comunidad y Sociedad. Barcelona: Península.45 orr.

⁸ Durkheim, E. (1973). De la división del trabajo social. Buenos Aires: Schapire.113orr.

transformarse a veces en "comunitarios"; es el caso o el ejemplo de el Estado que crea la Nación a lo largo del tiempo y sobre todo del olvido. ⁹

Durkheimek, bere obran zehar, *komunitatea* sortzen eta *komunitatetik* ondorioztatzen diren mekanismoak azaltzen ditu; halaber, organikoa izaki hasten den elkartasunaren bilakaera mekanikoa izateraino, eskuharki, berak baieztatzen duenez gizarte bizitzak orden moral bat sortzen du-eta: "*Todo lo que es fuente de solidaridad, es moral*" ¹⁰

Argi dago idazle bien lanetan -Tönnies eta Durkheim- lokarri komunitario edo mekanikoa batasunaren mitoa dela, "osotasun" batean partaidetzaren mitoa, bere existentzia sinboloetan gomutatua, hau da, bere errepresentazio ikusgarrietan. Komunitate kontzeptu hau problematikoa da eta ez soziologian soilik, era berean, zientzia politikoan ere bai. Eta problematikoa da, historiaren zehar eta egun ere, errealitate gatazkatsu askoren oinarrian baitago, bai komunitatearen izenaren pean bai antzetsu den identitate kolektiboaren edo nazio izenaren pean, eta, halaber, subiranotasuna, estatua eta demokrazia bezalako kontzeptuen inguruko hausnarketa eta teorizazioaren oinarrian ere. Georges Burdeauk, zientzia politikoaren teorilari garrantzitsuenetariko batek, komunitatea definitzerakoan honela dio: "*La sociedad se vive, la comunidad se siente.*" ¹¹

Hona hemen, behin eta berriro errepikatu eta giltzarri dugun ñabardura komunitateaz ari garela: *sentimendua*. Hain zuzen ere, ñabardura horri helduta ekingo diogu atal honi izena ematen dion gaiari: komunitate eta generoaren arteko erlazioari. Eta horretarako, komunitate ikuskerari eutsi dioten zenbait klasikoren lanez baliatuko gara. Horietariko bat soziologiaren aitzindari dugu, J.J. Rousseau, ilustrazioaren garaikide, eta haren lehenengo kritikaria izateaz gain, demokrazia nazionalaren lehenengo teorilaria ere bada. Beste bat, soziologiaren aita bezala ezagutua, A. Comte, positibismoaren aita bezala ere

⁹Miranda, B. (1987). La Lengua. Representación y práctica. Doktore Tesia: Universidad Complutense de Madrid.(argitaratu gabea)

¹⁰ Op. Cit. 338 orr.

¹¹Burdeau, G.(1980). Traite de Science Politique. Paris: TomeX Librairie Générale de Droit et de Juresprudence, aipatua in: Miranda, B (1987). Op. Cit. 148 orr.

ikusia, filosofia hori azken muturreraino eramate nahiagatik bere utopia positibista erakusten duenez. Eta, azkenik, A. Toqueville, gure mendebaldeko gizarte demokratikoen eredua iragartzera gehien hurbildu dena gizarte demokratikoaren tipo idealaren bitartez.

3.1- Rousseuren komunitate morala eta honen baitako genero antolakuntzari buruzko irakurketa desberdinak.

Rousseauk aurrerakuntza ideia ilustratuaren aurrean hasiera eman zion geroztik ahaztu ezinezkoa den diskurtso bati, zeinak, aurrerakuntza moral eta aurrerakuntza materialaren artean erabateko bereizketa ezartzen baitzuen.

Bereizketa horrek, gizarteratzeak dakartzan galerez ohartarazten digu eta, oharpenak izaera moral bat izateaz gain, giza espezie eta gizartearen eratze eboluzioaren inguruan azterketa sistematiko bat eskaintzen digu. Azterketa horretan gaur egungo gizartearen sorrera eta egitura ezkutua argitu eta, behin betiko, gaitz sozialak espazio sekularatuan kokatzen ditu aldagarriak bihurtuz, gizartea gizakiek eraikitakoa baita. Aldaketa sozialerako bidea ere urratu zuen 'borondate orokorrean' oinarrituriko hitzarmen sozial berri bat proposatzean.

Hitzarmen horren 'borondate orokorra', taldeari dagokion NI komun batean islatzen da, gizaki bakoitzaren borondateetik desberdinduz. Hau da, guztien borondateetik, borondate indibidualen gehiketa bezala ulerturik, desberdinduz. Ez da borondate kuantitatibo huts bat, horren sorkuntzarako kualifikazio moral espezifikoa beharrezkoa dugu, ordea. Borondate orokor hori eratuz gero, horren aginteak helburu duen interes kolektiboa interes indibidualekin bat dator; horrexegatik, herritarren bat erresistitzen saiatzen bada, osotasun sozialak obedientziara derrigortuko du. Borondate orokorrak, gizakion ondasun komunak, morala ematen dio gorputz politikoari. Gizaki bakoitzak, komunitateari, osotasun bat bezala, eskubide guztiak ematean inori ez dizkio ematen bere buruari baino. Nahimen orokorrari obeditzea askatasun ekintza bat da. Beraz, nahimen orokor horren emaitza, NI komun hori, komunitate morala litzateke. Horrez gain, eta Lloberak dioskunez, J.J. Rousseauk nazioa nahimen

orokorrekkin parekatzen du, nazio-estatuaren izaera morala eta arrazionala ezarriz:

..presentaré a Rousseau como el fundador del nacionalismo político ya que se considera que equiparó totalmente el carácter de nación con la expresión de la voluntad popular...De acuerdo con esta opinión, lo importante para Rousseau era la creación, el mantenimiento y el volver a despertar de la nación como una comunidad política de un estado. Y, con todo, Rousseau no concebía el estado sin la nación; de hecho, consideró a la nación en el sentido cultural del término, como la previa condición lógica e histórica del estado.Si queremos determinar la verdadera fundación de la sociedad y cómo se convierte ésta en una nación política, dice Rousseau, hay que examinar como un pueblo se convierte en un pueblo....en este contexto el concepto de voluntad general de Rousseau parece ser relevante. ¹²

Beraz, nahimen orokorrak sortzen duen komunitate moralaz ari garela, nazioaz ari gara. Batzutan historiaren emaitza izaten ez dena, eta horrela delarik nazioa sortua izan behar du. Egoera honen aurrean Rousseuren proposamenak ditugu: alde batetik, legegile bat, gizon aparta, herri baten sortzailea; eta, bestetik, nazio hezkuntza proiektu bat, Espartako eredutik hartuta, zeinetan garrantzitsuena ezagutza baino herritar abertzaleen prestakuntza baita. Estatuaren kontrol zorrotzpean eraturiko hezkuntza batek nazio izaera indartsua sortu nahi du. Halako sistema batean, hezkuntza helburu bat lortzeko bitarteko bat da, alegia, gizakiei nazio identitate sentimendu indartsu bat ematea.

J.J. Rousseuren obran aldaketa soziala eta, hortaz, komunitate morala bideratzeko hezkuntzak daukan garrantziaz ari garelarik, *Emilio* esparru akademikoan eta batik bat pedagogia arloan gehien nagusitu den lana aipatu beharra dago. *Emilio o de La Educación*, gizakien hezkuntza pribatu eta idealista baten proiektua da. Nazio hezkuntza eta gizabanakoaren hezkuntza gauza desberdinak dira. Bien artean aukeratu beharraren arazoaz, kontziente

12Llobera, J. R. (1996). El dios de la modernidad. El desarrollo del nacionalismo en Europa occidental. Barcelona: Anagrama. 211orr. Aipua bere osotasunean honakoa dugu: "Populu batek, dio Grotiusek, bere burua errege bati eskain diezaioke. Grotiusentzat, beraz, populu bat populu da jada errege bati bere burua eman aitzin. Emaitza hori bera akta ikertu baino lehenago, populu bat populu egiten duen aktaren ikertzea. Zeren bigarren akta hau, nahitaez, bestea baino aitzinagokoa izanik, gizartearen egiazko oinarria baita." Rousseau, J.J. (1993). *Gizarte-Hitzarmena*. Bilbo, Klasikoak, S. A. : 43 orr. Demokraziaren eraikuntzak, beraz, bigarren akta hori behar du, zeinaren bitartez herri bat herri bat baita.

zen Rousseau eta bere azken idazkien arabera (*Korsikarako konstituzio proiektua* eta *Poloniako gobernuari buruzko gogoetak*) badirudi lehenengoari garrantzi gehiago eman ziola. Dena dela, *Emilio o de La Educación* idazlana, geroko pentsamenduan eragin handikoa izateaz gain, Rousseuren pentsamendua ulertzeko funtsezkotzat hartua izan da ere. Horrela, genero-hermeneutikatik R. Cobok¹³Rousseuren pentsamenduaz egindako jorrraketan, esplizituki *Emilio*ren V. atala aipatzen da haren tesiaren euskarri gisa.

Ez da kasualitatea R. Coboren lana hona ekartzea. Dagoeneko, atal honen sarreran esan dugun bezala, komunitateari buruzko ekarpen teorikoetan dauden genero-antolakuntzak ezagutu nahian gabiltza, eta horixe da, hain zuzen ere, ginebrarraren pentsamendua hustutzean Cobok egin duena.

R. Coboren tesia da, Rousseauk generoen arabera bi esparru desberdinetan banaturiko gizarte zibil patriarkalaren oinarriak ezarri zituela:

Los grandes conceptos políticos y éticos de la Ilustración- universalidad, razón, derecho natural, contrato social-y la reelaboración de los mismos por parte de Rousseau investigados desde la hermenéutica de género, muestran: 1) que los derechos establecidos por la Ilustración no incluyen a las mujeres; 2) esos conceptos políticos y éticos surgen de una estructura social dividida por género-sexo. Una gran parte del pensamiento ilustrado, cuyo representante más sólido es Rousseau, argumenta la necesidad de la exclusión de las mujeres de la vida pública, poniendo así las bases del patriarcado moderno. ..Si el estudio de la Ilustración es clave para el feminismo, puesto que ahí germina el discurso de la igualdad, no lo es menos el estudio de Rousseau, ya que es el principal teórico ilustrado del moderno concepto de feminidad. ¹⁴

Rousseuren pentsamenduaren ezagutza sakon baten gainean eraikita dagoen proposamen honek baditu, hala ere, zenbait irakurketa bat ere argi gelditzen ez zaizkigunak.

Ikus ditzagun banan-banan zeintzuk diren:

- R. Cobok dionaren arabera, demokrazia zuzenaren printzipio politiko eta moralak praktikara eramateak arazo handiak sortarazten ditu, eta arazo horien

13 Cobo, R. (1995). *Fundamentos del Patriarcado Moderno*. Madrid, Catedra, S.A. 25orr.

14 Cobo, R. (1995). Op. Cit: 24-25 orrialdeak.

artean bi dira bereziki larriak: alde batetik, emakumeak espazio publikotik jaurtikitzea; eta bestetik, subjektu politikoa Estatuaren boterean desagertzea.

En un modelo político de este tipo, en el que la unidad social se extrae del propio Estado, la supervivencia del sistema político depende, en última instancia, de la vigilancia constante del propio poder. Una unidad política tan precaria, cuya supervivencia dependa del poder del Estado, debe prevenir represivamente cualquier posible intento de ruptura de esa unidad política. Si un componente de la fraternidad puede convertirse en traidor, las mujeres que se sitúan fuera de la fraternidad aparecen como un lugar simbólico de proyección de la traición. ¹⁵

Totalitarismoaren kritika hori, bestalde, Terroraldi adibide historikoaren emaitza, oso kritika hedatua da pentsamendu adituen artean. Baina, batzuek totalitarismoa ikusten duten tokian beste batzuek osotasuna ikusten dute. Esaterako, A. Bloomen¹⁶ ustez, politika zentzu modernoan Estatuari dagokio, eta hori gizakien arteko harreman arauetz arduratzen da, ez gizakiaren poztasunaz. Aldiz, kulturaren baitan gizakia osotasun bat bezala bizi da; kulturak bizimodu posibleak egituratu eta eratu egiten dituzenez poztasuna

15 Cobo, R. (1995).Op. Cit.:200 orrialdea

16 Hausnarketa honen inguruan honela dio Bloomek: "...pero ¿Qué relación existe entre el uso que Kant daba a la palabra cultura y el nuestro? Parece que hay dos usos diferentes que, aunque distintos, están unidos. Primero, cultura, es casi idéntica a pueblo o nación, como cuando se habla de cultura francesa, cultura alemana, cultura persa, etc. Cultura hace referencia a arte, música, literatura, televisión, educativa...en suma, todo lo que es elevado y edificante, en cuanto opuesto a lo meramente comercial. El lazo de unión es esa cultura que posibilita, a un alto nivel, la rica vida social que constituye un pueblo, sus costumbres, estilos, gustos, fiestas, rituales, dioses..., todo lo que hace que los individuos queden ligados entre sí y formen un grupo dotado de raíces comunes, una comunidad en la que piensan y quieren generalmente, constituyendo el pueblo una unidad moral y estando el individuo unido a ella...La cultura fundamenta la dignidad del hombre, como forma de comunidad, es el tejido de relaciones en el que el yo encuentra su diversa y elaborada expresión...Es más profundo que el Estado moderno, que se ocupa solamente de las necesidades corporales del hombre y tiende a degenerar en economía...Rousseau, que señala la ruptura con la primitiva concepción moderna del arte de gobernar y fue decisivo en el desarrollo de la idea de la cultura. En su capítulo sobre el legislador en El contrato social, Rousseau dirigía la atención de los hombres hacia la antigua polis, a manera de correctivo de la enseñanza política de la Ilustración. A diferencia de muchos de los que llegaron después de él, era firmemente político y consideraba los actos de los estadistas fundamentales en la vida de un pueblo. Y es precisamente de haber entendido erróneamente o de haber ignorado las condiciones mismas para la existencia de un pueblo, de lo que Rousseau acusa a sus predecesores inmediatos...El fundador de un régimen debe, ante todo, crear un pueblo al cual pertenecerá el régimen. Un pueblo no será el resultado automático de la ilustración de los hombres individuales acerca de su interés propio. Se necesita una acción política...Rousseau recalca el carácter corporativo de la comunidad y de lo que necesita para lograrla, frente al individualismo abstracto popularizado por la Ilustración...Este complejo sistema nervioso construido por el legislador es exactamente lo que llamamos cultura. O mejor dicho, la cultura es el efecto de la legislación sin el legislador, sin la intención política.

La franqueza, o rudeza, teórica de Rousseau sobre la legislación ahuyentó a sucesivas generaciones de pensadores, que no obstante, deseaban los resultados de esa rudeza, esto es, la comunidad. O más probablemente, la rudeza práctica de Robespierre y el fracaso de su intento en la legislación, provocaron

ahalbidetzen du. Horrela, Roussearentzat kultura eta politika batera doaz, ez dira bereizgarriak.

Bloomek egindako iruzkinak erakusten digunez, politika ulertzeko modu desberdinak daude. Batzuentzat-eta hauen artean R. Cobo legoke-politika osotasun sozialetik bereiziriko esparru bat litzateke, boterearen esparrua, hau da, estatuarena; beste batzuentzat, ordea, politika esparru zabalagoa litzateke, osotasun sozialetik bereiziezina, eta, Bloomen iritziz, bederen, Rousseau azken hauen artean legoke.

Politika ulertzeko modu bakar bat ez dagoen bezala, gizartea ulertu nahian gabiltzala egoera bertsuarekin egiten dugu topo. Batzuentzat, gizaki elkarte erabilgarri huts bat den bitartean, beste batzuentzat komunitate moral bat da edo, bederen, gauza biak. Gizarteari lehenengo esangura ematen diotenek bereizketa bat ezartzen dute haren baitan: esparru publikoa; eta, esparru pribatua -R. Cobok eta idazle feminista askok egiten duten moduan-osotasunezko ikuspegia galduz. Lehenengoan ekoizpena, botere materiala, Estatua eta honi dagokion herritartasuna kokatzen dituzte, arrazoiaren erresuma bailitzan aurkeztu guran. Bestean, ordea, ugalketa eta botere morala (kultura), hau da, sentimenduaren eremua. Bien artean, nabaria denez, hierarkia bat ere ezartzen da; arrazoa hierarkia horren tontorra litzateke, sentimendua eta berarekin doan guztia tontorrera ezin ailegaturik geldituz. Hona hemen, R. Coboren iritziz, Rousseauk emakumeei utzitako oinordetza: tontor azpian zapalduak betiko gelditzea.

Gizarteari komunitate esanahia emanaz gero, ez da hain erraza suertatzen halako bereizketarik egitea, nahiz eta, honek ez duen esan nahi egiten ez denik. Gogorarazi beharra dago, guk geuk atal honen hasieran Rousseauen ekarpen gisa aurkeztu dugula aurrerakuntza material eta aurrerakuntza moralaren arteko bereizketa hau. Baina, ez dugu esan Rousseauk esparru bien arteko

mailaketarik ezarri zuenik; alderantziz, hark garaikideei, ilustratuei, aurrerakuntza materialaz soilik arduratzea leporatu zien; eta, hortaz, morala, eta, era berean, gizakion kualitatea den gizatasuna ahantzi zutela. Bloomek dioskunez, Roussearentzat politika eta kultura ez dira bereizgarriak, bata ez dago bestearen zerbitzuan, biak bateragarriak dira eta bateratu behar dira hitzarmen soziala gauzatzeko. Biak daude osotasun sozialaren zerbitzura, herriaren zerbitzura.

Azken ildo horri jarraituz, Rousseuren utopian nazio estatuari arrazoia eta morala dagozkio, eta, beraz, ez du indarraren beharrik. Izan baditu beste baliabide batzuk, arestian aipatu ditugunak, esaterako: legegilea, autoritate berezi baten (erlijio zibila) jabea, herri baten sortzailea, nazio hezkuntza bideratu behar duena, eta, hortaz, Rousseuren pentsamenduan kokapen berezia daukatenak. Hala ere, aipatu idazle feministaren lanean ez dugu horren guztiaren inguruan erreferentziarik aurkitu. Gure iritziz, funtsezkoa den gai hau soziologiako aitzindari honen pentsamenduan aintzat ez hartzeak eramaten du R. Cobo pentsamendu horren beste planteamendu batzuk ez ulertzera. Horren adierazle dugu honako pasarte hau:

Otro aspecto importante ... atañe a la articulación entre la parte política y la parte pedagógica de la obra de Rousseau. Ambos modelos tienen un objetivo: la renaturalización, pero el político y el educativo tienen direcciones diferentes. El primero tiene como objeto la sociedad y el segundo el individuo. Uno se dirige hacia lo público y el otro hacia lo privado. Ahora bien; ¿son modelos opuestos? ¿son complementarios?, ¿están pensados para situaciones sociales distintas?, ¿cada uno de ambos modelos, por separado, significa el fracaso del otro? o quizá, ¿forman parte los dos del mismo proceso en momentos distintos? ¹⁷

Nabaria denez, autore hau hezkuntza proiektuaz ari dela, Emilio idazlanaz mintzo da. Hezkuntza publikoa emakumeek, emazte eta, batez ere, ama bezala egin behar dutena osatzera dator:

La función de las mujeres como transmisoras de los valores políticos y morales es un rasgo fundamental de este ideal familiar patriarcal. La asignación a las

*mujeres de la tarea de educar a los hijos para ejercer en el futuro la ciudadanía reposa en la idea de que la mujer es la portadora de la piedad. Las mujeres, a través del ejercicio de la maternidad hacen posible que los niños recuperen ese sentimiento del estado de naturaleza. Una vez interiorizada, la piedad será transportada al espacio público cuando los hijos de la familia patriarcal se conviertan en ciudadanos. La educación pública completará la tarea de la madre.*¹⁸

Bistan da R. Cobok ez duela bi hezkuntza proiekturik ikusten, eta, hortaz, euren artean aukeratu beharrik ere ez; guk, ordea, Lloberarekin bat etorritz, horren beharraz kontziente aurkezten dugu Rousseau. Horrela, nazio hezkuntzari nagusitasuna emanez, haren proiektu politiko eta hezkuntza proiektuaren artean ez dugu aurkakotasunezko erlaziorik ikusten, osagarritasunezkoa baino.

Laburbilduz Rousseauk emakumetasunezkoaz egiten duen diskurtsoa sexistatzat jotzearekin bat etorri arren¹⁹, haren pentsamenduari egiten dion kritikan hutsune nabariak aurkitzen ditugu; gure aburuz, politika eta gizartea ulertzeko moduen ondorio izan daitezkeenak, hau da, osotasunezko ikuspegia galtzearen ondorio. Ikuspegi hori mantenduz gero, Rousseauen pentsamenduan dagoen genero-antolakuntzaren inguruan bestelako irakurketarik egin daitekeelakoan gaude, T. Akkermanek,²⁰egiten duen bezala. Adibidez, idazle horrek "bertute abertzalearen" gizonezko izaeraz gain, emakumezko izaera ere izan dezakeela baieztatzen du. Ideia hori argumentatzeko Rousseauen pentsamendua landu du eta, batez ere, gutxitan aipatua den lan bat "*Julia edo Heloisa berria*".

T. Akkermanentzat Rousseauk, "*nahimen orokorra*" kontzeptua asmatzean, "*herritar subiranotasuna*" ideari eta, beraz, nazionalismoaren forma

18 Cobo, R. (1995).Op. Cit. 250 orrialdea

19 " Al descubrir Emilio a su Sofía en el campo, Rousseau aprovecha la ocasión para desarrollar su discurso sobre la diferencia de los sexos y sus propias relaciones. Ningún fragmento del Emilio es más pertinente que éste, ni más susceptible de despertar indignación, pues Rousseau es un "sexista". La particular fuerza del argumento de Rousseau está en el hecho de que el autor comienza partiendo de premisas enteramente modernas -no derivadas del pensamiento bíblico o griego_ y llega a conclusiones diametralmente opuestas a las del feminismo." Bloom , A. (1990). Gigantes y Enanos: interpretaciones sobre la historia sociopolítica de occidente. Barcelona, Gedisa: 97orr.

20 Akkerman, T. (1992). Nationalism and Feminism: The unknown soldier and the new Heloise. History of European Ideas 15: 649-654.

modernoari hasiera eman zion, hau da, nazionalismoa masan fenomeno bezala ulertuta. Izan ere, "*nahimen orokorra*" kontzeptu politikoa aurretiaz existitzen den kultura nazional batean oinarritzen da.

Haren aburuz, nazionalismoaren forma modernoaren sinboloen artean adierazkorrenetarikoa, alegia, "*soldadu ezezagunaren hilobia*", politika nazionalistaren gizonezko izaera birbaieztatzeraz letorke. Halarik ere, berriki, nazionalismoaren izaera hori zalantzan jartzen duen ekarpen bat zabaltzen ari da tradizio nazional-errepublikanoan. Ekarpene horren arabera, emakumeek, 'rol publiko' garrantzitsua jokatuko lukete ama bezala. Ama-Errepublika herritar subiranotasunarekin eta nazio kulturarekin harremanetan dagoenez gero, emakumeek 'rol mesianikoa' beteko lukete nazionalismoan estatu modernoaren erlijio zibil gisa ulertuta. Hori dela eta, Ama-Errepublikak gizakia herritarrarekin bat egitea lortzen du. T. Akkermanek, "*Julia edo Heloisa berria*" idazlana jorratzean, 'rol mesianiko' hori sakontzeari ekiten dio, horretarako lan aproposena delakoan baitago.

Rousseaurengan emakumeei buruzko diskurtso ezkorren ondoan baikor bat ere badagoela diosku idazleak, eta horren adierazle gisa 'bertudun amak' aurkezten dizkigu. Azkenaldi honetan, 'bertudun ama' etxeko esparruan/esparru pribatuan kokatu beharrean, errepublikar testuinguru politikoan kokatua da. Alta, arazo bat legoke: nola egin bateragarriak kontraesankorrak diren bi interpretazio horiek?

*...Women however should never subordinate the care for the family to the love for the country. Yet, women may have a public role and become citizens in a kind of society in which the conflict between family and state no longer exists. The kind of state Rousseau envisions, in which patriotism may be softened by motherlove, I will call the **maternal state**. I will argue that it is the kind of state in which popular sovereignty expressed by the general will may be realised.*

Ikusten denez, arazoari irtenbidea ematen dio Rousseauren osotasunezko ikusmoldean erreparatuz. Bestela esanda, familia eta estatuaren arteko istilurik

ez dagoen gizarte batean, emakumeen rol publikoa eta, hortaz, herritartasuna gauza daiteke. Dirudienez, Rousseau estatua amarekin konparatzen ari da, eta, horrexegatik, T. Akkermanek Rousseuren estatuari "*estatu amatiar*" deritzo.

Aurreko erabakiaren oinarrian, berriro, Rousseuren pentsamenduaren bestelako irakurketa bat aurkitzen dugu, hala nola, Rousseauk patriarkatu teoria gaitzetsi egin zuela, XVII. mendeko zuzenbide naturalaren tradizioari segituz. Jakinaenez, tradizio horrek autoritate politikoa erlazio patriarkalen gainean eraikitzeari uko egiten zion, aitatasunezko autoritateak ezin baitio legitimitaterik eskaini. Beraz, hark, estatua eta familiaren arteko kidetasuna ezartzean, patriarkatua errefusatzeko lehenengo pausoa ematen du. Eta lehenengo pausoa diogu, Akkermanen ustez, bigarren bat ere eman baitzuen beste kidetasun berri bat ezartzean, alegia, amatasunezko botereak aitatasunezko boterea ordezkatzean. Horren adibide argia hezkuntza publikoaren defentsa egiterakoan agertzen da:

...la educación de los hijos no se debe confiar sólo a los padres por cuanto ésta interesa, más que a los padres, al propio estado...la educación pública según reglas dictadas por el gobierno ...constituye, pues, una de las principales máximas del gobierno fundamental (popular) o legítimo. Si los niños son educados en común según el principio de la igualdad, se les inculca las leyes del estado y las máximas de la voluntad general, se les instruye para que las respeten por encima de todo, se ven rodeados de ejemplos y objetos que les hablen sin cesar de la tierra (tierna) madre que los alimenta, del amor que ella les dispensa, de los inestimables bienes que de ella recibe y de la compensación que le deben, sin duda se amarán mutuamente como hermanos, jamás desearán otra cosa que lo que la sociedad dese...

Nada diré acerca de los magistrados destinados a presidir esta educación que constituye sin duda el asunto más importante del estado.²¹

Horrela, autoritate politikoaren ezarpen naturala gaitzetsi eta hitzarmenetan oinarritu beharra baieztatzen du. Dena dela, ez du autoritate horren sorkuntzarako hitzarmen hutsik proposatzen, baizik eta, herriari atxikitzen dio subiranotasuna eta azken horren legitimitatea amaren autoritate naturalari

21 Rousseau, J. J. (1985). Contribución a la crítica de la Economía Política. Madrid, Tecnos.

legokioke. Legeak, nahimen orokorraren adierazpen gisa, gizabanakoen nahimenen gaineko erabateko autoritatea dauka. Proposamen horren aurrean, gorago ikusi dugunez, ugari izan dira totalitarismoan erortzeko arriskuari egindako kritikak, baina, berriro Akkermanekin bat eginez, estatuaren osotasunezko izaera azpimarratu beharrean gaude, baita *nahimen orokorra* kontzeptua gizabanako eta herritarren arteko hutsunea betetzeko 'zubia' dela ere. Pentsalari horren iritziz, estatu amatiarrak gizabanakoaren nahimena eta ondasun komuna batu egiten ditu.

Nazio ideala, non gizabanakoaren askatasuna komunitate osoaren ongiarekin harmonian baitago, bizitasun handiz deskribatzen da "*Julia edo Heloisa berria*" nobelan. Eleberri honetan, komunitate idealaren ezaugarri orokorrak aurkitzeaz gain, haren eraikuntzaren historia ere aurkitzen dugu. Rousseauk idatzi nahi zuen historia publiko bezala ikus daiteke nobela, egitate garrantzitsuen ezkutuko arrazoiak azalertzeko helburuarekin idatzita, alegia, emakumeen bertute zibil eta moralak. Moral publikoa berri nahi badugu etxeko moralarekin hasi behar dugu. Antza denez, moral publikoaren galbideraketa emakumeen erantzukizuna da, baina, batzutan emakumezkoen sexualitatearen bizioa bertute bihurtu daiteke, eta, hain zuzen ere, azken ideia hau da nobelaren ardatza.

Juliaren istorioa lehenengo zatian alaba batena da eta, bigarrenan ama batena. Julia bere tutorearekin maitemintzen da, eta aitak euren arteko amodioa debekatzen du. Julia nekazal komunitate txiki baten buru, ama nagusia eman ondoren, Akkermanek bere tesiaren euskarria den Juliaren rol mesianikoa azaltzen digu.

Estatuaren arrazoiak, Juliaren senarrarengan islatuak, herritarren bihotzeraino heldu behar du. Juliaren bitartez, legea herritarren bihotzetan inskribaturik gelditzen da, eta modu horretan, Juliak, bere senarraren autoritatea ezkututzen du. Jada, komunitateak ez du aginduen beharrik; zerbitzariak eta langileak

borondatez obeditzen dute, Juliarekiko sentitzen duten maitasuna dela eta. Guztion ama izaten, Juliak, arrazionalki gobernaturiko ekonomia domestiko hori familia/komunitate bilakatzen du. Haren rol mesianikoa argiago ikusten da hasierako amodio-istorioa familia-amodio bihurtzean. Maitasun erromantikoa, herritar bizimodu modernoaren anonimotasun aurkako antidoto indibidualizatzaile ona da. Baina, nor beraren aberriarekiko maitasunarekin alderatuz gero, bigarren onena baino ez da. Komunitate berri baten sintesia emakumeen bitartekaritzari esker lortzen da, Akkermanen iritziz.

Nahimen orokor baten sorkuntzan, barne bizitza baten sormena lehenengo pausoa da²². Hurrengoa eta azkena da gizabanakoen borondateak batu ditzan estatu amatiar bat sortzea, estatuaren arrazoiari eutsiz. Amaren bitartekaritzak nazio modernoaren anonimotasuna eta hutsa komunitate bihurtarazten du, eta bertan gizabanakoa eta familia batu egiten dira.

Istorio literario honen amaiera politikoari erreparatuz, "soldadu ezezagunaren hilobiaren" kasuan legez, funtziorik betetzen du bete ere, hots, nazionalismoari eta, beraz, bertute abertzaleari emakumezko izaera ere ematea. Hona hemen Akkermanen ekarpena: emakumeen partaidetza politikoa, herritartasuna, ahalbidetzea.

Ikusi dugunez, T. Akkermanek, Rousseuren emakumezkotasunari buruzko diskurtso sexista ukatu gabe, haren pentsamenduaren baitan dagoen genero-antolakuntzaz egiten duen irakurketa, R. Cobok egiten duenarekin alderatuz, oso bestelakoa da.

Zergatik dira hain desberdinak? Gure iritziz abiapuntu teoriko desberdinetatik burutzen dituztelako irakurketak. Batak, Rousseuren hitzarmen sozialaren emaitza den komunitate moralak, nazioak estatuari arrazoi eta morala ematen

²² Akkermanek barne bizitzaz ari dela Emilioren irakatsiez ari da, gizabanakoaren hezkuntza eta nazio hezkuntza osagarriak eginez; hau da, gizabanakoaren nahimena eta nahimen orokorra batuz.

diona, ikusten duen bitartean; besteak, estatu arrazional hutsa ikusten du, eta, hortaz, Coborentzat gizartea elkarte erabilgarri bat baino ez da. Elkarte erabilgarri horren baitan bi esparru bereizten dira, publikoa eta pribatua, esparru hierarkizatuak; hau da, bata bestearen zerbitzurako eratuta. Bestearentzat, ordea, komunitate moralaren baitan bereizketa hori onartu arren, esparruak malguagoak dira, eta biak daude osotasunaren zerbitzura, hots, nazioaren zerbitzura. Era berean, herritartasunaz hitz egiterakoan, bata esparru publikoari dagokion herritartasunaz ari da, eta bestea, aldiz, osotasunari, nazioari dagokion herritartasunaz.

Alderaketa honen bitartez, ez diogu ikerlari bietako zeinek duen Rousseuren pentsamenduaren "benetako giltza". Pentsalari klasiko honen pentsamenduaren ezaugarri nabariena, -eta, segur aski, honetan mundu guztia badator-, aberastasuna da eta. Aberastasun horrek, hain zuzen ere, mila gai desberdinei buruzko beste horrenbeste iruzkin egin ahal izatea dakar. Beraz, gu ez gara Rousseuren "benetako ideien" bila ari, iruzkin desberdin arteko ondorioak landu nahian gabiltza, ordea. Eta gure helburua da iruzkin horiek, beste pentsamendu ildoetan eta, agian, praktika sozialetan izan dezaketen oihartzuna behatzea eta interpretatzea.

Jorraketa honen helburua argitu ondoren, hona hemen ateratzen dugun ondorioa: pentsamendu rousseuniarraren atzean genero-diskurtso sexista dagoela onartuz, posible da diskurtso horretatik kontrajarriak diren bi ondoriotara ailegatzea, alegia, emakumezkoen partaidetza politikoa ukatzea alde batetik, eta, bestetik, ahalbidetzea.

Aurrera eginez, ikus dezagun beste pentsalari klasiko baten ekarpena gai honen inguruan.

3.2. Comteren gizarte positibista eta hark emakumezkoei esleituriko funtzio sozialaren izaera patriarkala.

Auguste Comte giza historia, giza eta gizarte batasunaren soziologoa da R. Aronen esanetan.²³ Soziologiaren aitak *Filosofia Positiboaren Ikastaroan* izeneko idazlanean, zientzia berria, soziologia, aurkezten digu. Osotasunak osagaiaren gainean eta sintesiak analisiaren gainean daukaten nagusitasuna dela-eta, soziologiak gizateriaren historia hartzen du aztergaitzat.

Beraz, giza historiaren batasuna haren obraren hariari heltzeko ezinbesteko ideia dugu. Hariari heltzeko ahalegin horri ekinez, hiru gai nagusi bereiz ditzakegu :

- 1.- Gizarte industrial, mendebaldeko europar gizartea, bestalde, ereduzko izaera daukana, eta, beraz, gizateriaren gizartea bilakatuko dena.
- 2.- Pentsamendu zientifikoaren unibertsaltasuna.
- 3.- Gizarteen funtsezko egitura, hau da, gizarte positibista, giza historiaren batasunaren ideia justifikatzera datorrena.

Gai horiei buruz plazaraturiko hainbat ideia, egungo gizarte industrialaren inguruan hausnartzeko, gaurkotasun handiko ideiak ditugu, hala nola, lan askea, zientziaren erabilera industrian edota antolakuntzaren lehentasuna. Alta, eragin gutxikoak izan dira, eta, horren ondorioz, sarritan A. Comteren lana ospe gutxikoa da, eta, sarritan, ahaztu ere egin da. Ahanzte hori ulertu nahian, Aronen gogoetaz baliatuko gara gurera ekarriz:

*..si las ideas del positivismo son profundas, la descripción detallada que Comte ofrece de la sociedad industrial, sobre todo en el *Système de politique positive* se presta a menudo a la ironía fácil. Comte quiso explicar detalladamente cómo e organizaría la jerarquía temporal, cual sería el lugar exacto de los jefes temporales, los industriales y los banqueros. Quiso demostrar porqué los que ejercen las funciones más generales tendrían más autoridad y ocuparían un lugar más elevado en la jerarquía. Quiso determinar el número de habitantes de cada ciudad, así como el número de patricios. Pretendió explicar*

23 Aron, R. (1987). Las etapas del pensamiento sociológico. Buenos Aires, Ediciones siglo veinte. Autore honen iritziz, batasunaren ideia hau azken muturreraino eramatean kontrako zailtasunarekin topo egin zuela: aniztasuna azaltzea eta berreskuratzea.

*cómo se transmitirían las riquezas. En una palabra, trazó un plan exacto de sus sueños, o los sueños a los cuales cada uno de nosotros puede entregarse cuando se cree Dios.*²⁴

*...Ridiculizar a Augusto Comte es fácil; pero es más importante comprender lo que es profundo en sus ingenuidades...*²⁵

Era hartara, askotan, A. Comteren obra irri-mirriaz ikusi ohi da. Ez da bat ere arraroa soziologi teoriari buruzko eskuliburuetan, haren teoriak dihardutelarik, honako iritzi hauek aurkitzea: taxugabeko ideiez beterik dagoela, irakaspen baikor gutxiko ekarpen teorikoa dela, eta abar.²⁶

Hala ere, guk, Aronek bezalaxe, inuxentekerien atzean dauden ideiez jabetzea interesgarriztat jotzen dugu, zeren eta bere utopia positibista horren oinarrian komunitate soziologikoa aurkitzen dugu, Nisbetek dioen moduan:

*...Sin embargo, no haríamos justicia a una de las mentes más ilustradas e imaginativas del siglo, si limitáramos el interés de Comte por la comunidad al nivel de la utopía. En la política positiva (y también en algunos capítulos de la Filosofía positiva, anterior a aquella, y en sus primeros ensayos) hay un concepto de comunidad y de sus propiedades que es sociológico, en el sentido que Durkheim daría a esa palabra....*²⁷

R. Nisbetek eta P. Clavalek²⁸, positibismoaren aitak komunitatearen inguruan zeukan kezka emandako argibideak landu ditugu, arestian, aipaturiko helburua asetzeko asmoz.

Horrela, bizitza kolektiboa behienen errealitatea delako baiespenarekin egin dugu topo. Gizabanakoa baino lehenago gizartea dugu, hau da, gizabanakoa inguruaren sortzailea baino, horren emaitza da. Comteren iritziz, gizabanakoa ez da izaki isolatu, egonkor eta autonomo bat, gauzak eta gizakiak ikusteko modu zehatz baten eta gizarte zehatz baten emaitza baizik. Gizabanakoarentzat bizitzarako premiazkoak diren jarrera, ezagutza eta hausnarketa multzoa

24 Aron, R. (1987). Op. Cit: 109 orr.

25 Aron, R. (1987). Op. Cit.: 153 orr.

26 Ritzer, G. (1995). Teoría sociológica clásica. Madrid, McGraw- Hill.

27 Nisbet, R. (1969). La formación del pensamiento sociológico. Buenos Aires, Amorrortu editores. 86 orr.

28 Claval, P. (1991). Els mites fundadors de les ciències socials. Barcelona, Herder. 134 orr.

gizabanakoa jaio den munduaren emaitza dira. Gizarte egitateen zehaztasunik eta autonomiarik gabe, gizakia ez litzateke existituko; ezta poztasuna ere, sinesmena, maitasuna eta grinaren esperientzia gizakien arteko harremanetan bizi baitira. Gizabanakoak ezin du hunkiberazko bizitza zokoratu, ezin baitu bereak diren lokarrietatik bere burua askatu, bestalde, bere inguruaren preso egiten dute. Horrela, errealitate sozialak eta horren eboluzioaren baldintzek denbora luzez gizakiak "egia positiboaz" ez jabetzea azaltzen dute.

Beraz, Comteren sistema epistemologikoak antropologia filosofiko jakin bat adierazten du, egileak erabat azaltzen ez duen arren. Honako modu honetan labur genezake: gizakiak premia materialak ez ezik, izpiritualak ere baditu; azken premia horiek, asetzeaz arduratu da betidanik, eta horrexegatik, behar zuen oreka morala bilatzeko lehenengo, erlijioa eta, geroago, metafisika asmatu zituen.

Horrela, jakintza, erlijioa eta gizateriaren ekite praktikoaren historia elkarrekin doaz, paraleloak dira, haien artean barne logikaren bidez erlazonaturik daude. Hori da, azken finean, Comtek "Hiru Egoeren Legearekin" frogatu nahi duena.

Lege gisa izendatzen duena, P. Clavalen iritziz²⁹, "egituratze erlazio bat", edo "mito sortzaile bat" da, batez ere. Mito edo erlazio horren arabera, gizarteak hiru urratsetatik igarotzen dira euren garapenean: erlijio arotik metafisikora, eta azken honetatik aro positibora. Bilakaera horretan zehar aldatzen ez diren ezaugarri batzuk ere badaude; gizatiar gaitasunak eta premiak beti antzetsuak baitira. Gizakia bizi deneko taldearen menpe dago, hura barik ezin du ez orekarik ez hazkunderik izan. Gizakiaren makaltasun afektiboa gainditzeko, maitasunaren beharra eta maitatua sentitzearen premia asetzeko, daukan baliabide bakarra haren taldea da. Aro historiko batetik bestera aldatzen den zerbait zera da, orden soziala legitimatzeko, eta gizarte harremanak zein gizabanakoen ekiteak ahalbidetzen dituen lege morala ezartzeko, gizakiak erabiltzen duen goreneko printzipioa.

29 Claval, P. (1991). *Els mites fundadors de les ciències socials*. Barcelona, Herder

Aro positibora heltzean, ezagutza zientifikoa posible delarik, hasiera ematen zaio arrazoiaren aroari. Orain, gizakiak ingurunea meneratzean, haren erabilpena errazagoa suertatzen da. Ingurune hau ez da materiala soilik, soziala ere bada. Bizitza kolektiboa ez da borondate subiranoen joko hutsaren emaitza, gizarte hitzarmenaren teorilariak baieztatzen duten bezala; bizitza kolektiboa sakoneko indarrez eta ezkutuko bidez beterik dago, ordea. Arrazoa barruraino sar daiteke, baina horretarako, mundu fisikoarekiko daukan jarrera bera hartu beharko du. Gizakiak kanpotik, soilik, instituzio eta portaeren ulerkuntzaren bidez, gizartearen konplexutasuna neurtuko du; ezaugarritzen duten maiztasunez kontzientzia hartuko du; eta haren logika azalduko du.

Comteren sistema teorikoan, gizarte zientziek 'estatus' berri bat daukate: natur zientzien eremuan kokatzen dira. Aro positiboak, soziologiaren sorkuntza eskatzen du, ezinbesteko baldintza bezala; gizakien beldurrei eta kezkei erantzuten dien ezagutza bakarra, gizakiak zoriontsuak izan daitezen beharrezkoaz jabetzeko gai den bakarra. Bizitza soziala ezin da erabilgarritasun hutsera murriztu, Ingalaterrako teorilari erradikalek eta ekonomilariak nahi duten moduan, gizateriak premia afektiboak ere baditu eta. Hortaz, soziologiak batasun kolektiboak iraunarazteko ezinbestekoa den fede ararrazionala sortu beharko du.

Positibismoak gizartearekiko jarreraren sakoneko aldaketa dakar, hortik aurrera, haren adierazpenen bitartez kanpotik aztertua izango da. Positibismoak aurreko aroaren arrazionalismoarekin osagai asko dauzka komunean, eta gizarte hitzarmenaren lehenengo hausnarketan eremu berean kokatzen da. Comteren aburuz, gizakiak den-dena bakarrik egiteko ezintasunak beharrezkoa egiten du gizartea. Gizartea ez da arriskua, ez tentazioa, ezta gaitz guztien iturria ere, gizabanakoak daukan baliabide gorenarekin baino. Beste bizitzarik, salbamenerik, betikotasunik ez dagoela pentsatuz gero, bizitza horren esangura patu kolektiboan bilatu behar da derrigorrean. Haren baitan eta harentzat bizi gara, eskuragarria den bakarra baita.

Laburbilduz, positibismoaren aitzindariarentzat, gizartea lehenengo eta benetako komunitatea da, gizakiaren izaera logikoa eta psikologikoa baino aurretiagoa eta, gainera, gizakia moldatzen duena. Gizakia, ezagutzen dugun bezala, gizartean dituen roletatik at ez litzateke ulergarria ere izango. Gizartea bere izate partekatzen duten osagaietan soilik murriztu daiteke, esaterako, gizarte taldeetan eta komunitateetan; eta horietako funtsezkoena, espero zitekeenez, familia da.

Komunitate soziologiko hori, Comteren utopia soziopolitikoaren ardatza da, alegia, gizarte positibistarena. Azken hori bere filosofiaren helburu nagusia asetzerara letorke, hau da, *denborazko antolakuntzaren berrikuntza botere izpiritualaren bidez*.³⁰

Berotasun filosofikoak bultzaturik, Comtek gizartea kultu positibistaren "izaki gorena" bihurtzen du. Halarik ere, erlijiotasun horren azpitik nortasun, hizkuntza, moralitate, lege eta erlijioaren iturri sozialei buruzko ikusmolde zorrotza dago.

Comterentzat komunitatearen berrezarrera larrialdi moral baten auzia da. Idazle honek aurkezten digun etorkizuneko gizarte positibista horren ordenak ez du haren garaiko inguru demokratiko-industrialarekin zerikusirik; bai, aitzitik, horren aurreko sistema kristau-feudalarekin, Aronek dioskun legez:

*La sociedad soñada por el positivismo no está definida tanto por el doble rechazo del liberalismo y el socialismo, como por la creación de un poder espiritual que sería, en la época positiva, lo mismo que fueron los sacerdotes y las iglesias en las épocas teológicas del pasado.*³¹

Gizarte positibistan, merkatarien klaseak lurjabeen aristokrazia, zientziak erlijioa, modu errepublikanoek monarkikoak ordezkatzeko dituzte; aurrekoa behin lorturik, gure begietarako daukan itxurak zerikusi handiagoa dauka erdi aroko kategoria izpiritual eta sozialekin erreforma protestante osteko edozein

30Aron, R. (1987). Las etapas del pensamiento sociológico. Buenos Aires, Ediciones siglo veinte. 114 orr.

31 Aron, R. (1987). Op. Cit.: 115 orr.

gauzarekin baino. Gutxitan aurkeztu da utopia hainbeste atxikimendurekin hierarkiarekiko, eginbeharrarekiko, korporatibismoarekiko, liturgiarekiko, erritualarekiko. Are gehiago, soziologoek janzkera apaizgoan dihardutelarik, aldarearen izaera, jai egutegi berri bat eta kultu modu anitzak iradokitzen edo xedatzen da Comte. Gauza bera gertatzen da familia, eliza, hiria, ermandade eta klase positibistei esleitzen dizkien ezaugarriekin. Denetan, biziki ageri da, komunitate moralaz duen grina eta hori piramide sozialaren maila guztietan islatzen da.

Arestian esan dugu gizarte positibista giza historiaren batasunaren ideia justifikatzera zetorrela, eta halaxe da; baina, horrez gain, Comtek proposatzen digun bilakaera historikoaren azken urratsa ere bada. Eboluzio horretan zehar aldagarriak eta aldaezinak diren osagaiez hitz egin dugu ere, nabarmenduz azken horiek funtsezkoak direla komunitatearen bermale gisa. Aurrekoaren ildotik, haren pentsamenduan sentimenduak daukan garrantziaz jabetzen gara.

Sentimenduak daukan garrantzia ohartu da R. Manieri³²ere, Comtek emakumezkoen esleituriko funtzio soziala ulertu nahian dabilelarik. R. Manierik, pentsamendu comtiarraren ardatzak zehaztean, honako modu honetan izendatzen du bere idazlanaren lehenengo atala: *sentimendua batasun indar gisa eboluzio modernoan*.

Idazle feminista horrek, positibismoa jorratzean, emakumeen inguruko hausnarketaren garrantziaz ohartarazten digu, sentimendua jarraitu beharreko aztarna dela esanez. Gizakiek naturaren ustiakuntzari ekinez antolakuntza material, teorikoa eta praktikoa eman diote gizarteari. Orain, gizakiak burges erresuma eraiki dezan antolakuntza izpiritual batek lagundu behar dio.

Aitorturiko ortzemuga horretan zentzua dauka, eboluzio historikoaren azken eta behinbetiko amaiera bezala onartua, Comtek bere filosofiari ematen dion helburu sozialak. Beste hitzetan esanda, Manieriren iritziz, Comtek buruan

32 Manieri, R. (1978). *Mujer y Capital*. Tribuna Feminista. Madrid, Debate.

zeukan azken kezka ondorengo litzateke: arrazoi modernoak sorturiko ordenaren barnerapena; eta, hori arrazoi burgesa bada, arazoa litzateke munduaren egitura burgesaren barnerapena. Zein da munduaren egitura burgesaren barnerapen horren gizatiar eragile nagusia? Galdera horri erantzuteko, Comteren esanak erabiltzen ditu idazle feministak:

*...koordinazio positiboak, teorikoa eta praktikoa izateari utzi gabe, morala ere izan behar du eta bere benetako unibertsalitate printzipioa sentimenduan lortu...*³³

Ordena burgesak ez du erabat suntsituko ordena teologikoa, ezta gorpuzketa erreal eta iraunkor bat inoiz izango ere, gizakien bihotzean eta sentimenduan bere erroak sakontzen ez baditu. Modu berean, positibismoak ezin izango du teologismoa ordezkatu gizateriaren gobernu izpiritualetan.

Horrela, sentimenduak, gizartearen osagai heterogeneo eta partikularren batasun indar bezala ikusia, funtsezko papera jokatzen du filosofia eta politika positiboan. Hori dela eta, Comtek positibismoari ematen dizkion premiaren eta funtzioaren baitan, garrantzi handia hartzen du emakumeari, bizitza afektiboaren protagonista nagusiari, esleitzen zaizkion paper publiko eta pribatuaren inguruko hausnarketak.

R. Manierik, emakumezkoei buruzko hausnarketa horren garrantzia erakustean eta azpimarratzeaz gain, haren jorraketa ere eskaintzen digu bi gai ardatzatzat hartuz, alde batetik, emakumetasunaren oinarri biologikoa; eta, bestetik, emakumeek gatazkak biguntzeko duten gaitasuna. Lehenengo gaiari buruz ari delarik, zera diosku: Rousseauren kasuan bezala, positibismoaren aitarentzat ere, naturaren ulerkuntzan oinarriturik dago emakumeen patu publiko eta pribatua; Comterentzat ere, makaltasuna emakumetasunaren ezaugarri esentziala da, indarra gizonezkotasunarena den bitartean. Beraz, emakumea eta gizona ez dira berdinak. Prozesu historikoan, gizona natura ekintzaile eta eraikitzaile bezala agertzen da, emakumea, aldiz natura afektibo eta begirale bezala. Lehenengoa botere materialean jardutera zuzendua dago, bigarrena

33 R. Manierik egindako aipua.(1978)

botere izpiritualan. Comtek botereen banaketa hori³⁴ ezartzeko klasearen araberako bereizkeria batetik abiatzeaz gain, sexuaren araberako bereizkeria batetik ere abiatzen da. Denborazko boterea ekoizpenaren zuzendariei, hau da, beren eskuetan baliabideak izanik, garapen produktiboa zuzentzen eta administratzen dutenei dagokie; besteek, baliabide horiek ez daukatenek, ez dute gidaritzazko funtzio sozialik, eta ez dute buruzagien klasea ordezkatzeko, boterean euren existentziaren dimentsio izpiritualan soilik har dezakete parte. Bestalde, dimentsio horretan boterea beti mugitzen da aholku, pertsuasio, kontsulta itxurapean, sekula ez autoritate legez. Izan ere, botere izpiritualaren oinarri irmoena oinarrizko hezkuntza orokortua da, hezkuntza morala dena, besteentzat bizitzea irakasten duena gizartepean inteligentzia ezarriaz.

Emakumeak, langileriak bezalaxe, ez du funtzio sozial hegemonikorik, denborazko boteretik kanpo gelditzen dira-eta. Baina, haien natura dela eta, langileria baino askoz aproposagoak dira botere izpiritualaren osagai gisa. Izan ere, azken hori, esan bezala, sentimendu, moral eta hezkuntzaren bidez bermatzen da; botere materialak, ordea, ekoizpen, lana eta kapitalaren esparruaren zehar meneratzen du.

Emakumea denborazko boteretik kanporatua da, eta ez betiko paper sozialetan soilik, hots, ama eta etxeakoandre bezala aritzeagatik, emakume bezala baizik. Beraz, haren izaeraren definizioan baldintzapen "natural" edo "biologiko" bat agertzen da, bestalde, klase bereizkerian agertzen ez dena. Kasta bezala definituriko egoera da, saihestezina, baldintza biologikoari ihes egitea ezinezkoa baita. Comterentzat emakumezkoak ez dira emakumetzen, aitzitik, emakume jaiotzen dira.

Aurreko lerrootan esandakoaren ondorioz, Manierirentzat, Comte emakumeen menpeko kokapenaren aldeko teorilari zurrun bihurtzen da, natura arrazoiak erabiltzean.

Halarik ere, idazle honek, Comteri onartzen dio, harreman pribatuek erlazio sozialen osotasunean jokatzeko duten funtsezko papera ulertu izana, esparru pribatua egokitze-gune gisa identifikatu izana eta emakumea azken horren suntsipenaren giltza gisa kokatu izana. Eremu pribatuko papera, emakume-ama irudian islatua, haren gizarteratze modu afektibo eta sentikorretan, emakumeak errealitateari buruz daukan ikuskera moralarekin bat dator. Comteren esanetan, emakumeak, gizarte garapenaren baldintza objektibo eta partikularren gainetik, harreman sozialen elkarren arteko, izpirituzko eta kontzientziatzko dimentsioa baino ez du ulertzen.

Naturaz, emakumeak arazo sozialen ezaugarri gizatiarrak, sentikorrak eta moralak gizarte klaseei erakusteko gaitasuna dauka. Arazo sozialaren irtenbidea gizabanakoaren ikuskeraren gainetik "senidetasun unibertsalarena" ezartzea da. Hartara, emakumeak gizarte klase guztiek ezartzen zaizkien betebeharrak bereziak onar ditzaten funtsezkoak dira, horrela, bakea eta gizarte batasuna bermatuz. Hori dela eta, botere moderatzaileak aliatu onenak aurkitzen ditu emakumeengan, eta, ondorioz, sistema positibistak "ohorezko funtzio soziala" ematen die, aldi berean publikoa eta pribatua, euren naturarekin bat datorrena. Zein da, bada, emakumezkoaren benetako funtzioa? Familiatik irten gabe, filosofoekin eta langileekin batera botere moderatzailean parte hartu behar du, bere erara, buruzagitzako botere guztiari, etxeoari barne, uko eginez. Hitz batez, gizateriaren sazerdotesak dira.

Hortaz, emakumeen egoera langileen egoeraren antzekoa da, gizarte garapenaren baldintza objektiboek botere ekonomiko eta politikotik kanporatzen dituztelako. Comteren planteamenduari jarraituz, emakumeek eta

34 R. Manieri-ren iruzkina: "...que Comte saca de la Edad Media, en la que junto al poder temporal, ejercido por la clase feudal, existia la presencia activa de un poder espiritual, ejercido por el clero."(1978). Op. Cit.

langileek gobernu politikoan daukaten partaidetza murrizta dela eta, gobernu moralaren premia eta baldintzak sentitzeko proposenak dira; azken horren helburua, batez ere, emakumeak eta langileak denborazko zapalkuntzaz babestea da. Comteren aburuz, sistema industrial modernoa giza hobekuntzaren arrazoi nagusia bada ere, bere egitez, ez du mugarik ez kontraesanik falta eta horiei aurre egiteko botere izpiritualaren ekintza ezinbestekotzat jotzen du

Comtek zibilizazio modernoaren egonezinari irtenbidea ematen dio botere izpiritualak betebeharrak betearazteko ezar dezakeen kontrola proposatuz. Ekintza izpiritual horren tresna gisa, positibismoaren aitak emakumea bideratzen du funtzio moderatzaile eta,aldi berean, moralizatzaile eraginkorra garatzera. Aipatutako funtzio hori betetzen du beharrezkoa den ordena sozialera gizarte osagai guztiei deituz; filosofo positiboek arrazoi ilustratuaren bidez egiten dutena euren eragin afektiboaren bidez egin behar dute emakumeek, alegia, agindu moralen nagusitasuna ordenamendu politikoaren gainetik ezarriz.

Testuinguru honetan, emakumea esparru pribatura zokoratzea eta, horrela, despolitizatzea era positiboan ikus daiteke, are gehiago, balio sozial eta kultural gisa legitimatua izan daiteke ere; baina, Manieriren aburuz:

*...en realidad, es perfectamente funcional hacia una esfera pública, la burguesa.*³⁵

Halaxe izan da bai; baina, hori zen Comtek buruan zeukana? ezezkoan gaude. Gure iritziz, Manierik, ez du lortzen, erabilitako kategorია marxistak eta feministak direla eta, positibismoaren aitak funtsean proposatzen zuena ulertzea. Ikus ditzagun banan-banan bai espen horren oinarrian dauden argudioak:

1-Hasiera batean, badirudi positibismoaren izaeraz jabetu dela, baina, haren azkeneko helburua azaltzen duelarik, hots, arrazoi modernoak sorturiko orden

35 Manieri, R. (1978). Op. Cit.: 59 orr.

sozialaren barnerapena, hasierako baiespena zalantzan jarri beharrean gaude. Arestian esan dugunez, Aronen³⁶ eta Nisbeten³⁷ esanak segituz, Positibismoaren aitaren azken kezka berrikuntza moralak da; horrela, proposatzen duen gizarte positibistak antolakuntza material-industrial baldin badauka, horri dagozkion kategoria politiko-sozialek ez daukate zer ikusirik orden sozial burgesak dauzkanekin, gizarte kristau-feudalak zeuzkanekin baino. Beraz, sentimenduari eta emakumeari atxikituriko paper publiko eta pribatuaren inguruko hausnarketari emandako garrantzia ulertu beharra dago, ez munduaren egitura burgesaren barnerapenaren ildotik, baizik eta berrikuntza moralaren gauzatzearen ildotik.

2- Emakumeari esleituriko funtzio sozialaren azterketari ekiten diola, idazle feministak baldintzapean "naturala" edo "biologikoa" azpimarratzen du, emakumearen egoerak "kastak" duen izaera bera duela esanez. Horren ondorio gisa, Comteren jokabide sexista nabaria agerian uzten du, gu geu ere bat gatoz iritzi horrekin. Alabaina, jokabide sexista horren arabera emakumeari emandako kokapen sozialaren balorapena, ez da zertan bakarria izan, Manierik proposatzen diguna. Manierik botereen banaketaren iturri feudalaz kontziente egiten gaitu, baina, banaketa horren testuinguruaz ahanzten du eta, feminismoaren tresneria teorikoak lagunduta, bien arteko bestelako hierarkizazioa ezartzen du. Alde batetik, denborazko botereak ekoizpen, lana eta kapitalaren esparruan zehar meneratzen du, feminismoaren esanetan, esparru publikoaren bitartez; bestetik, botere izpirituala sentimendu, moral eta hezkuntzaren bidez bermatzen da, hau da, esparru pribatuaren bitartez. Feminismoarentzat, azken hau lehenengoaren menpe eta haren zerbitzurako antolatua dago; baina, hala da Comterentzat ere? Ez da hori gure ustea. Ikus dezagun, bestenez ere, Aronek³⁸ gai honen inguruan dioskuna:

...Los llamados patricios , los jefes temporales, los industriales, los banqueros, deben concebir su papel como una función social. La propiedad privada es necesaria, inevitable e indispensable; pero puede tolerársela únicamente

36 Aron, R. (1987). Las etapas del pensamiento sociológico. Buenos Aires, Ediciones siglo veinte

37 Nisbet, R. (1969). La formación del pensamiento sociológico. Buenos Aires, Amorrortu editores.

38 Aron, R. (1987). Las etapas del pensamiento sociológico. Buenos Aires, Ediciones siglo veinte. 105-108 orr.

cuando se la concibe, ya no como el derecho de usar y abusar, sino como el ejercicio de una función colectiva, a cargo de los hombres designados por la suerte y el mérito...A. Comte.. agrega otra idea, la idea del carácter secundario de la jerarquía temporal...fuera del orden temporal que impone la ley del poder, hay un orden espiritual, que es el de los méritos morales. El obrero que se encuentra en la base de la jerarquía temporal puede ocupar un rango superior en la jerarquía espiritual si sus méritos y su devoción a la colectividad son mayores que esas mismas cualidades en sus jefes jerárquicos...El objetivo supremo de cada uno debe ser ocupar el primer lugar, no en el orden del poder, sino en el orden de los méritos...En Augusto Comte hallamos estos dos aspectos: la aceptación de un orden temporal autoritario y jerárquico, y la imposición de un orden espiritual a la jerarquía temporal.

Beraz, gizarte positibistan esparru pribatua publikoaren gainetik legoke eta, era berean, emakumeek jokatu beharreko papera funtsezkoa litzateke.

Neurri batean, uste dugu, azken baiespen horrekin Manieri ados dagoela; edo, behintzat, gure interpretazio horretatik hurbil dabilela; hau da, Comterik onartzen diolarik erlazio pribatuek erlazio publikoen osotasunean daukaten garrantziaz jabetzea. Are gehiago, azken planteamendu hori argudiatu nahian, aurreko ondorioekin kontraesankorrak diren azalpenak eskaintzen dizkigu. Adibidez, emakumeek senidetan unibertsalaren izenean bakea eta gizarte batasuna bermatzen dutela eta horixe dela gizarte positibistak esleitzen dien 'ohorezko funtzio soziala'; hots, aldi berean publikoa eta pribatua. Halaber, zibilizazio modernoaren egonezinari Comtek ematen dion irtenbidea, hau da, botere izpiritualaren/moralaren kontrol funtzioa denborazko boterearen gainean, emakumeek bete beharrekoa euren eragin afektiboa dela eta.

Beraz, badirudi Comtek esparru pribatuaren nagusitasuna proposatzen ari delarik, Manieri ere kontziente dela; bestela, nola ulertu emakumeek esparru pribatura zokoratzeak izan dezakeen balorapen baikorraz hitz egitea?

Alta, partaidetza politikoari buruz duen ulerkera zurrinak ez dio ikusten utzi Comtek esparru pribatutik partaidetza politikoa ondorioztatzen duela. Manierik despolitizazioa ikusten duenean, partaidetza politiko instituzionala baino ez du ulertzen, baina positibismoaren aitak bestelako partaidetza, bestelako

herritartasuna ahalbidetzen du. Are gehiago, Comterentzat hori garrantzitsuena litzateke eta proposatzen duen utopia sozio-politikoan posible den bakarra.

Hortaz, ondorio gisa, esan genezake feminismoak egiten duen irakurketa, hau da, funtzio sozial horren atzean diskurtso sexista eta patriarkala dagoela, ez dela zertan bakarra izan. Egia da ekarpen teoriko horren atzean sexismoa dagoela, baina, 'senidetasun unibertsal' horren oinarrian komunitate soziologikoa egoteak ahalbidetzen du esparru publiko/pribatuaren arteko bereizketa, partaidetza politiko eta herritartasun kontzeptuak beste modu batera ulertzea.

3.3.- Tocquevilleren gizarte demokratikoan emakumeei ematen zaien gehiagotasuna

Klasiko honen obraren muina lantzeko, batez ere, W. Hennisek³⁹, M. Zetterbaumek⁴⁰ eta A. Salomonek⁴¹ eginiko idazlanez baliatuko gara. Autore hauen artean egon badago aipatu beharreko desberdintasun teorikorik. Azken biek Alexis de Tocqueville soziologo gisa ikusten duten bitartean, W. Hennisentzat *mendebaldeko azken pentsalari politikoa* da. Hala ere, azken honek Tocquevilleren benetako kezkari buruz eginiko hausnarketari oso-oso baliotsua deritzogu, eta baliotsua izateaz gain, jabetu gara, hark plazaraturiko tesia bat datorrela beste bi idazlek burutu dutenarekin. Hori dela bide, erabaki dugu tesi hori abiapuntutzat hartzea jorraketa honetarako, gure helburua lortzeko bide zuzenean jarriko gaituelakoan. Gogora dezagun, bada, Hennisek dioskuna:

(...)tenemos que salvar (...) la tendencia a inmovilizar a Tocqueville en un problema que no era el suyo, esto es, la tensión entre libertad e igualdad que

39 Hennis, W. (1981). La nueva ciencia política de Tocqueville. Revista de estudios políticos(nueva época), 22, 7-38.

40 Zetterbaum, M. (1987). Alexis de Tocqueville. in Historia de la Filosofía Política Mexico: Fondo de Cultura Económica.

41 Salomon, A. (1935). Tocqueville, moralist and sociologist. Social Research, 2, 405-438.

supuestamente, constituye el meollo de su obra. El verdadero problema de Tocqueville era el de la libertad, y la solidaridad, la individualidad y la sociabilidad. ⁴²

Maquiavelli eta Rousseuren tradizioaren baitan, Tocquevillek pribatu eta publikoaren arteko bereizketaren aurkako borrokari ekiten dio. Gizakia eta herritarraren arteko errotiko bereizketa saihesteko ahalegina dugu haren lan osoa, alegia, gizakiaren askatasunari eusteko saioa. Tocquevilleren aburuz, berdinen gizartea errepublika igualitario librea ala despotismo igualitarioa hautatu beharrean aurkitzen da. Hautabide horrek, gizabanakoarentzat herritar ala morroi izatea dakar berarekin. Tocqueville, Rousseau bezalaxe, kezkatu agertzen da berdintasunaren eraginez menpetasunezko eta elkartasunezko lokarriak hautsi direneko gizartean sortzen diren arazo moralez. Gizarte demokratikoa ezaugarritzen duena atomismoa da. Halako gizartea osatzen duten gizabanakoek, herritar bezala, ez daukate euren arteko lokarri naturalik; norbera besteak bezain berdina denez gero, inor ez dago bestea obeditzeko derrigorturik. Hortaz, arazo latzena da nola ezarri gizakiei elkartasunezko kateak; edo nola eraiki berriro kate hauek modu legitimo batez. Tocquevilleren obran, maiz agertzen den berba *lokarriak (liens)* da. Haren nahia ez da gizakiaren indibidualtasuna ezabatzea, ezta gutxiago ere; baina, moralitasunaren onerako beharrezkoa da, lokarri gabeko eta anomikoa den gizarte demokratikoan, indibidualismoak mehatxaturiko gizakia bersartua izan dadila elkartasunezko lokarrien baitan, edozein modutan izanda ere. Lokarri hori ziurtatzea, uneoro indartzea, da, ordena politikoak soilki egin dezakeen zerbait; ordena politikoa baita gizabanakoa bere buruarengandik aldentzeko gai den bakarra. Hortaz, estatuari dagokio eginbehar horri ekitea. Alta, hori ez da posible euskarri historiko zehatz baten gainean baino eta, ondorioz, beti ustekabe eta gertagarri izaerako euskarria izango da.

Tocqueville ez zen liberala, sekula ez zitzaion estatu ordena interesatu gizabanakoaren askatasuna ziurtatzea arren. Egia da gizabanakoak askatasuna eta askatasun horren ziurtasuna ere behar duela; baina, askatasun hori askatasun

42 Salomon, A. (1935). Op. Cit.: 9 orr. Azpimarraturikoa guk egina da.

aktiboa da, gizarte -eta politika- ordenean eragile, eta ordena horrek behar duena; askatasun hori *citoyenaren* askatasuna da, ez *bourgeoisarena*. Askatasun horrek gizakiak batzen ditu, ez baita esparru pribatura bere burua baztertzen duen gizabanakoarena.

Hortaz, gizarte moderno demokratikoaren eginbehar itzela Erdi Aroko lokarriak ordezkatu dituzten lokarri artifizialak eraikitzea da. Hau da, indibidualismoaren joerek, ongizate eta erosotasun materialekiko grinak, ongizate pribatuarekiko grinak, dakarten despotismoa saihestea:

*(...) En America, la democracia más completa, ve Tocqueville que es posible, cuando menos, que era posible combatir el aislamiento democrático que conduce a una rigidez sentimental desde el punto de vista moral, y al despotismo desde el punto de vista político (...)*⁴³

Egin behar itzel horri ekiteko, beharrezkoa da demokrazia barruan toki bat bilatzea askatasunari bertute publikoari, azken finean, komunitate moralari toki bat bilatzea. Toki hori bilatzeko ahalegin horretan hainbat argibide ematen dizkigu Tocquevillek, hiru kategoriatan edo mailatan sailka ditzakegunak:

- Lehenengo maila eta garrantzitsuena, nazioaren eduki intelektual, moral eta izpiritual sortzen dituzten baldintzez osaturik dago, bestalde, instituzio politiko eta gizarte bizitzari izaera, erritmo eta itxura eman diezaieketen bakarrak.⁴⁴

*Estoy convencido (...), de que las sociedades políticas no son el producto de sus leyes, sino que están determinadas desde el principio por los sentimientos, las creencias, las ideas y la constitución espiritual y sentimental de los seres humanos que en ellas viven, y que todo esto puede configurarse de modo natural o a través de la educación.*⁴⁵

43Salomon, A. (1935). Op. Cit.: 28-29 orr.

44 Salomon, A. (1935). Tocqueville, moralist and sociologist. *Social Research*, 2, 405-438. Bestalde Tocqueville-k berak diosku: "Amerikarren legeen iraupenerako haien esperientzia praktikoari, azturei, iritziei-hitz batean, haien ohiturei/moreei- ematen diezadan garrantzia irakurleari obra honetan zehar sentiaraztea ez badut lortu, huts egin dut hau idazteko izan dudana helburu nagusian." ALEXIS DE TOCQUEVILLE: Amerikako Demokrazia I (Iñaki Mendiguren Bereziartu-k itzulita) Bilbo, klasikoak, S. A. 1995.351 orr.(Iizatia; IX.atala: Estatu Batuetan errepublika demokratikoari irauten laguntzen dioten kausa nagusiak)

- Bigarren maila batean, legeak daude. Lege batzuen atzean boterearen zentralizazioaren ondorioak ahultzeko ahalmenaz arduraturik, Tocquevillek hiru lege mota bereizten ditu:

1- Lehenik, konstituzio federala dago, zeinak estatu bakoitzaren eta gobernu federalaren artean banatzen baitu legeak emateko ardura.

2- Bigarrenik, konderrietako eta udalerrietako gobernuen eraketa demokratikoari dagokiona dugu. Udalerri eta komunitate mailan askatasunak duen balioa azpimarratzen du Tocquevillek. Esparru txiki horren baitan, herritar bakoitzak askatasunaren erabilerari buruzko hasierako prestakuntza jasotzen du. Udalerria, interes berekoia abertzaletasun bilakatzeko esparrua da.

By virtue of their participation in and responsibility for the government of their immediate communities the citizens are educated in politics and political obligations and in the defence of political liberty. ⁴⁶

3- Hirugarrenik, epaimahaia federala eta, batez ere, gorengo auzitegia legoke. Epaimahaia sistemak ere, udalerriko askatasunak bezalaxe, bestean beharraren kontzientzia ezartzen die herritarrei. Tocquevillek, askoren mainak eta grinak moteltzeko eta hezteko baliabideen bila ari delarik, epaimahaia sistema aurkitzen du. Legelariak jasotzen duten prestakuntzak ordenarekiko, lege-eta politika-moduekiko eta ideiekin loturarekiko maitasuna ematen die. Jendetzarengandik bereizten dituzten mainek eta euren pentsamenduei eta lehentasunei kutsu aristokratiko bat ematen die. Euren izpiritua kontserbakorra eta antidemokratikoa izaten da; gizartean funtsezko papera betetzera heltzen diren neurrian (eta, goiz ala berandu, auzi politiko oro epai-auzi bilakatzen den legez, horrelaxe izaten da) gehiengoaren bulkadak moteltzeari ekingo diote. Legelariak dituzten maina eta ekandu aristokratikoek ezaugarritu arren, herriarekin funtsezko lokarriari eusten diotela dio Tocquevillek, euren jatorria eta interesak direla eta. Ez dute, beraz, klaserik osatzen.

4- Laugarrenik, elkartze harremana dugu. Tocquevillek, aurreko garaiko nobleziaren ordezkari artifizial bezala ulertzen ditu elkarteak; alegia, herriaren

45 ALEXIS DE TOCQUEVILLE: *Über die Demokratie in Amerika* (traducción de Hans Zbinden), Stuttgart, 1959 y 1962; aipua jasoa in HENNIS (1981).Op. Cit.:24 orr.

46 Salomon, A. (1935). Tocqueville, moralist and sociologist. *Social Research*, 2, 413 orr.

askatasun subiranoak eskusartzearen aurkako gotorleku. Modu berean, demokrazia batean, gehiengoaren tiraniaren aurka gutxiengoaren eskubideak babesten dituzte elkarteek. Demokrazian, norbera independentea da, baina, aldi berean ezindua, beste batzuekin soilik elkartuz ahal izango baitu iritzia gehiengoaren iritzien kontra jarri. Eginkizun hori, elkartze eskubidearen eginkizun politikoa da eta eskubide honek naturan du jatorria. Autore frantziarrak gizarte demokratikoaren ongizaterako funtsezkotzat jotzen zituen elkarteak. Gizartearen batasuna suntsitu beharrean, demokraziaren sakabanatze joerak gainditzen dituzte elkarteek. Elkarte baten antolakuntzari loturik doazen ekintzetan, gizabanakoek helburu komun batera egokitze-arteak ikasten dute. Elkartzen ikastea, hortaz, ezinbesteko baldintza da zibilizazioaren beraren biziraupenerako.

Baliabide demokratiko horien erabileraren bitartez, Tocquevilleren aburuz, gizabanakoak herritar moralki kontziente bilakatu behar dira.

- Hirugarren maila batean, ondo ulerturiko interes propio delakoaren *printzipioa* aurkitzen dugu.

Tocquevilleren obra osoaren gaia dugu aro demokratikoak ezaugarritzen duen muturreko individualismo izpiritu batetik abiatuak moral publikoaren zentzu bat garatzea. Haren iritziz, ezinbestekoa da elkarrekiko laguntza eta menpeko egoera batean elkar bizitza bultzatu ahal izateko, behar den guztia egitea.

Autore honek berdintasunaren baldintza berriei aurre egiteko *zientzia politikoa berri bat* aldarrikatzen du, zeinak *interes propio delako printzipioa* oinarri sendo baten gainean ezarriko bailuke. Jakina, zientzia berriaren printzipioak "txiroari" irakatsi behar zaizkio, hura baita, gehiengoaren kide gisa, gizarte berria gobernatuko duena. Arrazoi beragatik, zientzia berriaren printzipioek haren ulermen-mailara egokitu behar dute. Tocquevilleren zientzia politikoa legegileari, gizartearen gidariari, argitu behar dio ikuspegi egokiena. Horren zeregina gizarte lokarri bakoitzaren kontaktu guneak aprobetxatzea, bultzatzea edo sortzea da, hots, gizakien arteko lokarriak bultzatzea. Zer da gizakiak batu

edo bereizten dituen? Erantzun modernoa, ordurako Ilustrazioak eta Hobbeseke ere emanda, argi eta garbi da: interesa.

Berdintasun baldintzen egoera batean, norberaren interesa gizarte ekintzaren funtsezko eragile -bakarra ez bada- bilakatzen da. Gizabanakoa ondasun publikoaz arduratzen hasten da halaberharrez, eta azkenik konbentzimenduz egiten du. Kalkulu zena bulkada bihurtzen da, eta herritarren ongizatearen alde jarraipenezko lanaren bidez, besteekiko onuragarri izateko jite eta ohitura hartzera heltzen da. Jite hori zabaltzeko bide egokiena elkarteak dira, bai helburu politikoak dituztenak bai, eta batez ere, bizitza zibilean sortzen direnak eta xede politikorik ez dituztenak.

Halarik ere, lotura iraunkorrak gizakiak batzen gaituzten ideia, grina eta sentimenduen gainean baino ezin dira errotu, gorroto sentimendurik izan arren. Ez dago gizarterik partekaturiko sinesmenik gabe. Sinesmen horiek gabe ez dago ekintza komunik, eta ekintza komunik gabe gizakiak egon daitezke, baina ez gizarte gorputzik.

Tocquevilleren benetako obra teorikoaren gai iraunkorra, hau da, II. liburukian garatzen duena, ez dira interesak baizik eta gizarte mastika sortzen duten sentimenduak eta ikuskerak; gizarte mastikarik gabe ezingo baikenuke lokarrien haustura eta bakardadea saihestu. II. liburuki horren III. zatian, Demokraziak ohituretan duen eraginari buruzkoa, Tocquevillek Rousseauk arazo politikoari buruz zeuzkan hezkuntza- eta pedagogi-ikuskerak partekatzen dituela islatzen da, Hennisen ustez.

El Emilio es una obra que Tocqueville tienen que haber conocido muy bien puesto que los paralelismos con su segundo volumen sobre la democracia son particularmente evidentes ⁴⁷

47 Hennis, W. (1981). La nueva ciencia política de Tocqueville. Revista de estudios políticos(nueva época), 22, 7-38. Hennis-ek pasarte horri honako iruzkin hau egiten dio: Esto es válido, especilmente, para la tercera parte del segundo tomo, que trata de la "influencia de la democracia en las costumbres propiamente dichas".(43 orrioinan). 22orr.

Hortaz, gizarte demokratiko modernoak daukan eginbehar itzela gidatu guran dabil Tocqueville, eta harentzat funtsezkoa den gai hori lantzean, genero harremani buruzko diskurtso esplizitu bat ere lantzen du. Ikus ditzagun diskurtso horren ideia nagusiak.

Tocquevilleren ustez, baldintza-berdintasunezko gizarte mugimenduak emakumea goratu egiten du eta gizonaren maila berekoago egingo du gero eta gehiago. Baina, gai honen inguruan ari delarik, gure idazleak ongi ulertua izateko premia sentitzen du. Horrela, bere esanetan, sexuen atributu ezberdinak nahastuz, emakumea eta gizona, berdina ez ezik antzeko ere egin nahi dituenen kontra dihardu, honako argudio hauek erabiliz: emakumeari zein gizonari eginkizun berberak emanez, eginbehar berberak ezarriz eta eskubide berberak onartuz, naturaren obra hankaz gora jartzen da. Nahasmendu zabar horretatik sekula ez dira irtengo gizon ahulak eta emakume lizunak baizik. Beraz, naturak ezartzen dituen ezberdintasunetan oinarrituz, gizartearen onerako, lan-banaketa sexualaren premia aldarrikatzen du Tocquevillek.

... Amerikarrek(...) Naturak gizonaren eta emakumearen eraketa fisiko eta moralaren artean hain alde handia ezarri duenez, bere helburua, argi eta garbi adierazia, horien ahalmen ezberdinei erabilera ezberdina ematea zela pentsatu dute; eta iruditu zaie aurrerapena ez zela gutxi gorabehera gauza beretsuak eragitea izaki desberdinei, bakoitzak bere zeregina ahalik eta ongien bete dezan lortzea baizik(...) Arretaz banatu dituzte gizonaren eta emakumearen egitekoak, gizarte-lan handia hobeto agin ahal izateko. ⁴⁸

Hori dela bide, emakumeak etxeko zereginen esparruan ikusten ditu. Halaber, Tocquevillek ez du imajinatzen printzipio demokratikoen oinarria senarraren boterea iraultzea eta familian aginte-nahasmena sartzea denik. Uste du elkarte orok, eraginkor izateko, buru bakarra izan behar duela, eta ezkon-elkartearen berezko burua gizona dela. Beraz, ez dio horri ukatzen emaztea gidatzeko eskubidea, are gehiago, haren iritziz, senarraren eta emaztearen gizarte txikian, gizarte politikoan bezalaxe, demokraziaren helburua beharrezko botereak

48 Tocqueville, A. (1995). Amerikako Demokrazia. Bilbo: Klasikoak, S. A. 199 orr. Azpimarraturikoa guk egina da.

arautu eta legitimatzea da, eta ez botere oro suntsitzea. Iritzi hori ez dagokio sexu bati bereziki, eta ez dio besteak ere erasotzen.

Horrez gain, idazleari iruditzen zaio emakume amerikarrentzat nolabaiteko aintza dela beren borondatea aske entregatzea, eta handitasuna bere kasa uztarpean jartzea, eta ez horri ihes egitea.

(neska gazte amerikarrak) ...Esan daiteke independentziaren erabileratik ateratzen duela borrokarik gabe eta marmarririk gabe sakrifizioa jasateko adorea, sakrifizioa onartu beharreko momentua iristen zaionean.

Amerikarra, bestalde, sekula ez da ezkontzaren lokarrietan jausten bere xalotasun eta ezjakintasunaren ezarritako lakioan bezala. Aurrez erakutsi zaio zer espero zen beragandik, eta bere kabuz eta askatasunez jartzen da uztarpean. Adoretu jasaten du egoera berria, berak aukeratu baitu.⁴⁹

Bestalde, emakumeekiko jarreraz ere ari zaigu Tocqueville gizon europarraren jarrera amerikarrenarekin alderatuz, eta honela diosku: lehenengoak sekula ez du emakumea benetan bere parekidetzat hartzen, are gehiago, askotan bere esklabo bihurtzen du. Estatu Batuetan nekez goraiatzen dira emakumeak, baina egunero agertzen zaie estimatuak direla. Konfiantza osoa erakusten dute emaztearen arrazoian, eta begirune sakona haren askatasunarekiko. Haren izpiritua gizonarena bezain gai daukate egia hutsa aurkitzeko, eta haren bihotza aski sendotzat egia horri jarraitzeko. Aldiz, European, ukatu egiten zaizkie giza espeziearen atributurik handienetarikoz batzuk, eta izaki seduzitzaile eta osagabetzat hartzen dira.

Horrela, amerikarrek ez dute uste gizonak eta emakumeak gauza berberak egiteko ez obligaziorik, ez eskubiderik dutenik, baina estima bera agertzen dute bakoitzaren eginkizunarekiko eta balio berdineko izakitzat hartzen dituzte, nahiz eta destinoa ezberdina duten. Emakumearen kuraiari ez diote ematen gizonarenari ematen dioten ez forma, ez erabilera berbera; baina sekula ez dute zalantzarik kuraia horretaz; eta pentsatu arren gizonak eta emazteak ez dituztela adimena eta arrazoia beti era berean erabili behar, bataren arrazoia bestearena bezain ziurra dela uste dute gutxienez, eta adimena ere harena bezain argia honena.

49 Tocqueville, A. (1995). Op. Cit.:190 orr.

Amerikarrek, emakumearen gutxiagotasunari gizartean irauten utzi diotenen, beren ahalmen guztiz *gizonaren mailara jaso dute adimenaren eta moralaren arloan*; eta horretan, Tocquevilleren iritziz, miresgarriri ulertu dute aurrerapen demokratikoaren benetako nozioa.

Beraz, Estatu Batuetan emakumea ia etxeko esparrutik irteten ez den arren, eta gauza batzuetan mendetasun handia izan bertan, bere posizioa inon ez zaio iruditzen Tocquevilleri han bezain goratua; are gehiago, herri horren oparotasun berezia eta gero eta handiago duen indarra, emakumeei ematen zaien gehiagotasunari egotzi behar zaiola diosku idazle honek.⁵⁰

Tocquevillerentzat, emakumeak desberdinak baina balio berdineko izakiak dira; kuraia, adimena eta arrazoia onartzen dizkie, baina naturak gizonaren eta emakumearen eraketa fisiko eta moralaren artean hain alde handia ezarri duenez, zeren ezaugarri hauei ez baitie gizonenei ematen dien forma bera, destinoa bera. Biek pauso berdinez aurrera egin ahal izango dute, baina bi bide ezberdinetatik.

Planteamendu horretan, naturak ezartzen duen desberdintasunei eutsiz bi bide ezberdin horiek balio bera izateak ez al digu desberdintasunezko feminismoa gogora ekartzen? Ildo berari jarraituz, emakumearen gutxiagotasuna gizartean, adimenaren eta moralaren arloan izan ezik, zapalkuntzatzat jo beharko genuke bere zentzu gordinean? Emakumeei atxikitzen zaien funtzio sozialak gizonari esleitzen zaienak du balio bera? ala handiagoa? Nola ulertu diskurtso berberean emakumeen gutxiagotasunaz eta gehiagotasunaz hitz egitea? Gure aburuz, galdera hauen erantzuna Tocquevillek berak eskaintzen digu atal bereko IX. liburuaren sarreran:

*Sekula ez da gizarte askerik izan moraltasunik gabe, eta, obra honen lehen zatian esan dudan bezala, emakumea da morala eratzen duena. Beraz, emakumearen egoeran, beraren aztura eta iritzietan eragiten duen guztiak interes politiko handia du nire ikuspegitik.*⁵¹

50 Tocqueville, A. (1995). Op. Cit.: 199-202 orr.

51 Tocqueville, A. (1995). Op. Cit.:187 orr.

Tocquevilleren kezka nagusia demokraziaren barruan askatasunari toki bat bilatzean datza. Horra hor, emakumeen zeregina: askatasuna ahalbidetuko eta iraunaraziko duten moreak sortzea; idazle frantziarrarentzat balio gehien duen zeregina. Horrela ulertzen du berak emakumeen gehiagotasuna.

Beraz, esparru pribatuan egin beharreko zeregin hori demokrazia iraunarazteko funtsezkoa bada, esparru pribatu berak berebiziko garrantzia eskuratzen du.

Hiru autore hauek emakumeei esleituriko esparru eta funtzio soziala beraien pentsamenduaren muinarekin erlazionatuz, kritika feminista gehienak plazaraturiko irakurketaz gain bestelako irakurketak ere egin daitezkeela erakusten saiatu gara. Bestelako irakurketa horien ekarpenen artean, gure aburuz, hiru dira bereziki interesgarriak teoria feminista berarentzat:

1-Emakumeen partaidetzak komunitatean duen garrantzian oinarriturik liberalismoak sorturiko kategoria dikotomikoen ahultasuna agerian uztea: Estatua/familia; pribatua/publikoa.⁵²

2-Arazo sozio-politikoari, hau da, gizakia eta herritarra bat egiteari irtenbidea, familian, etxeko esparruan/ esparru pribatuan⁵³ gauzatzea, emakumea izanik gauzapen horren arduraduna. Beraz, familia ikusiezina⁵⁴ izan beharrean, planteamendu teoriko hauetan, funtsezko esparrua da bizitza politikoa eta soziala ahalbidetzeko⁵⁵. Egia da emakumeak etxeko esparruan ere ez duela autoritaterik, baina botere ezaz ere ezin dugu berbarik egin.

52 Egia da, publiko/pribatu dikotomiaren inguruan eztabaida aspaldi sortua dela; ildo horri jarraituz, gure autoreak eztabaida horren aitzindariak gisa aurkeztu ditzakegu ere. Gai honeninguruan ikus: Kymlicka, W. (1995). *Filosofia Política Contemporánea*. Bartzelona: Ariel s. A. 270 eta hur.

53 Autore hauentzat pribatua ez da pribazitatearen parekoa, etxekoa/familiaren esparrua baino. Murillo, S. (1996). *El mito de la vida privada*. Madril: Siglo XXI. XIX orr.

54 Saraceno, C. (1988). *La estructura del género en la ciudadanía*. In E. H. Unibertsitatea (Eds.), *Mujer y Realidad Social*. Bilbo: 134 orr.; Murillo, S. (1996). *El mito de la vida privada*. Madril: Siglo XXI. 6 orr.

55 Kymlickak dioen bezala, filosofo politiko asko izan dira familia moraltasun eskola gisa, herritarren lehenengo sozializatzaile gisa ikusi izan dutenak, baina familiaren baitako lan banaketa sexualaren bidez kotasunaz ez dute kezka gehiegi erakutsi. Gai honen inguruan ikus: Kymlicka (1995). *Filosofia política contemporánea*. Bartzelona, Ariel: 292 orria.

3-Edozein errealitate sozialetan, non komunitatearen ikuskerari eutsi behar baitiogu, emakume batzuek hartzen dituzten jarrerak edota izaten dituzten portaerak argitzeko oso-oso tresna teorikoa baliotsuak izan daitezke diskurtso horiek.

Gure iritziz ere, diskurtso hauen sexismoa ere nabarmena da, eta zentzu horretan gainditu edo eraldatu beharrekoa, baina gai horren inguruko hausnarketari gerora ekingo diogu. Momentuz, erabil dezagun diskurtso horien irakaspena nazio arazoak ezaugarritzen dituen errealitateak aztertzeko eta ahal den neurrian ulergarri egiteko.

Bigarren zatia: Generoa eta Nazioa

¿Cuáles son los sentimientos y aspiraciones soterradas que suscitan la ideología nacionalista y el lenguaje nacionalista? Se relacionan...con tres referentes: el territorio, la historia y la comunidad (...) los sentimientos más fundamentales...los familiares...la metáfora de la familia es indispensable para el nacionalismo, porque se describe a la nación como una gran familia, en la que sus componentes son hermanos y hermanas de la madre patria o de la patria que utilizan su lengua materna.(Smith, A. D. 1977: 71-72 orr.)

4. atala: Nazioaz eta nazionalismoaz zenbait ideia

Nazioaz eta nazionalismoaz ari garelarik, Smithen esanak hona ekarriz, komunitate ikuskerari eustearen premia agerian utzi, eta aurreko atalean zenbait klasikoren ekarpenak, -non komunitatea hari gidaria baita-, azaltzearen xedea, nolabait zubi gisa, argitu dugu ere. Ekarpen horietan, komunitatearen ikuskerari eutsiz, idazleek agerturiko generoaren araberako proposamenek -sexismo argi batetik abiatuak badira ere-, emakumeei "funtsezko zeregina" ematen diotela nabarmendu dugu.

Hurrengo orrialdeetan ikusiko dugun legez, nazionalismoek ere, bai Nazio-Estatuen nazionalismoak, bai Estaturik gabeko nazioen nazionalismoak, komunitate moral bat sortu gura izaten dute; teorilariek, nazionalismo desberdinen komunitate moral sortzeari ekite moduez ari direla, eskuharki, burokrazia edota *intelligentsia* identifikatzera jotzen dituzte prozesu horren eragile bakarrak bailiran. Hala ere, eta kontuan harturik, prozesu hori kultur esparruan bideratu ohi dela, beste eragileen existentzia begi bistan da. Horrez gain, diskurtso nazionalistetan komunitate moral horren sorkuntzarekin zerikusia daukaten zereginak, emakumeei esleitzen zaizkie modu esplizitu batez. Beraz, prozesu horietan funtsezkotzat jo genitzakeen jardueretan emakumeak ageri-agerian daude, eta halarik ere, ahantziak izaten dira nazionalismoei buruzko jorraketa teorikoetan.

Denbora gutxi da, feminismo hasia dela genero eta nazioaren arteko erlazioaz interesatzen. Idazle feministek eginiko lanetan nazionalismoak,-batik bat, nazio-estatuaren nazionalismoaz aritu baitira-, emakumeei atxikitutako zereginak *zapaltzaileentzat* ikusi izan dituzte, salbuespenak salbuespen. Baina, zeregin horiek ez dira beti zapaltzaileak bezala sentituak izan. Are gehiago, hurrengo atalean ikusiko dugunez euskal nazionalismoa aztertzerakoan, une historiko

zehatzetan zeregin horiek ahalbidetu dituzte emakume nazionalisten partaidetza, balizko 'esparru publikoetan': ekitaldi politikoetan zein kulturaletan.

Dena dela, aurreko lerrootan aipatutakoak ez du esan nahi zeregin horiek aldagarriak ez direnik; ezta emakume nazionalistek aldatu gura ez dituztenik ere.

Euskal nazioaz eta euskal nazionalismoaz aritu aurretik nahitaezkotzat jotzen dugu nazioa eta nazionalismoari buruzko literaturari begiratu bat ematea. Jakina denez, gai honek literatura ugari sortu eta oraindik ere sortzen du; hortaz, hurrengo orrialdeetan ez dugu ekarpen berririk ezta aditu guztien aipurik ere egingo. Soilki, gairen zenbait ezaugarritara hurbilketa bat goian aipaturiko begiratu hori gidatuko dutenak. Ikus ditzagun, bada, zeintzuk dira gure hari eroaleari eutsiko dioten ezaugarriak.

4.1.- Nazio egiten duten osagaien jorraketa arin bat.

Zergatik aritu behar gara nazioari buruz zer ulertzen dugun argitzen? Akzinen esanak hona ekarriz: nazioaren papera politikan eztabaida-gai baita. Idazle horrek, gizarte fenomeno biren, Estatuaren fenomeno politikoa eta nazioaren fenomeno "etnikoa", azterketari ekiten dio. Historian zehar gizatiar auzien erdian sarri aurkitzen baitira biak, eta gure egunetara hurbildu ahala maizago. Estatua, politika arloan, aho batez onartutako funtsezko osagaia da; aldiz, nazioa, nazionalistentzat historia politikoaren faktore erabakigarria den bitartean, aurkakoentzat, arrotza eta arriskutsua. Hortaz, bai nazionalisteentzat bai besteentzat argitu beharrekoa. Horrez gain, termino bat ere ez denez ulertzen modu uniforme batez gaia gehiago korapilatzen da.

Korapilo horren emaitzetako bat nazioa estatuarekin identifikatzeko joera izan da, bestalde esplizituki Smithen deitoratzen duena, eta inplizituki Akzinek ere bai.

Iritzi berakoa da Llobera, esaten duelarik:

El mito sociológico del estado-nación, esto es, la creencia de que debido a que el estado-nación es la ideología principal del estado moderno debe corresponder a una realidad sociológica, es un obstáculo epistemológico serio para la explicación del nacionalismo.

J.Mirak, LLoberarekin bat etorriz, nazioa eta estatuaren arteko nahasgarritasunaren agerpena, XIX. mendean kokatzen du, Europa erdiko nazionalismo politikoen sorrerarekin. Hau dela bide, idazle askok, eta azken hauek bereziki, estatua eta nazioa kontzeptu-kategoria desberdinak legez ikusteko beharraz ohartarazten digute, euren jorrocketan horrela eginik.

Aipaturiko nahasgarritasun horri aurre egiteko, kontzeptuen desberdintzeaz gain, beste joera bat sumatu dugu ere, batik bat nazioa zer den argitzera zuzenduriko idazlanetan, eta zera da: *etnia* kontzeptuaren erabilera.

(L' ETNICITAT) Jo no gosaria dir tant, però n'hi ha que diuen que sí, que aquest és el gran fenomen del nostre temps.(...) I que és un fenomen universal,(...) Fins i tot li han trobat un nom: etnicitat.(...)d'una perspectiva americana-EUA: allà, l'adjectiu ethnic està de moda des de fa alguns anys, i la metàfora del melting pot, de l'amalgama de fosa on les característiques de tots els components desapareixen, ha deixat pas a la del pot-au-feu, l'olla barejada on cada ingredient conserva el seu sabor i forma, tot aportant-lo a la menja comuna resultant.

Arestion esandakoaren adibide modura, bat aipatzearen, A. Smithen ekarpena, klasikotzat jo dezakeguna, ekarriko dugu hona. Teorilari honek, nazioaren definizioari ekiten diolarik, bi bide bereizten ditu: alde batetik, berak deituriko *estatisten* bidea, non nazioa lurralde bati atxikituriko batasun politiko bat bailitzateke. Eta, bestetik, *etnizisten* bidea. Hauek, nazioa, kultura batek eta ustezko leinu komunak definituriko talde etniko handi eta politizatu bat bezala ikusten dute.

A. Smithek bere burua azken ildo honetan kokatzen du, eta Akzinen ekarpena ere, bestelakoa izan arren azken honen arrazoia *etnia* kontzeptua erabiltzeko.

Halarik ere, egon badaude hainbat autore *etnia* kontzeptua erabiltzearekin bat ez datozenak:

(...) Els europeus, intellectuals i polítics, parlen, o parlaven, de pàtries, de pobles o de nacions, no parlaven d'ètnies: "ètnia" era cosa d'etnologia, de gent de fora d'Europa, primitiva, als països civilitzats no n'hi havia, d'aixó. A Europa, se suposa que només hi ha nacions (i en tot cas "nacionalitats" i minories nacionals), regions i províncies o equivalent. Ara, però, els conflictes nacionals i "regionals" d'Europa també són considerats "ètnics": (...) terminologia que ha sedüit veloçment els col·legues europeus, espanyols, bascos i catalans inclosos; els quals, sospitosament, ja comencen a parlar del nacionalisme en termes "ètnics", pensant que així s'entén més bé"

Kontzeptu horren erabilerari ikusten dion arazoa azaltzeko J. Mirá abiatzen da Barthekek talde etnikoaz proposaturiko definiziotik, alegia, gizakia bere jatorriak eta leinuak determinaturiko oinarritzko eta orokorragoa den identitatearen arabera sailkatzen duen atxikipen taldea dela. Hau da, desberdintasun kulturalak -tradizioa, izaera, joko-arauak edo morala...- erreala ala ez, baina beti halako desberdintasun bezala sumatua, gehi leinuzko identitateak talde etnikoa osatuko lukete.

Barietate handia sartuko litzateke definizio horren barnean, handiegia, eta hemen dago gakoa, zeren eta, lurraldeari identitatea lotzen dioten taldeak zein lotzen ez diotenak ere sartuko bailira. Eta, hau da, hain zuzen ere, ikerlari horren kezka. Lurraldetasuna identitate iturri gisa funtsezkoa da harentzat, hortaz, ezin du onartu talde mota biak termino berdinean sartzea. Are gehiago, lurraldea taldearen aberria bezala ikusia bada eta autonomia politiko formala edota autonomia eskuratzeko asmoa izanez gero, haren aburuz ez du zentzurik etnizitateaz hitz egitea, nazionalitateaz edo, indar gutxiagoko gradutan, erregioaz baino.

Talde etniko batek, gizarte konplexu baten barnean, giza eskubideak, kultur-
aukera, lanbide-aukera berdinak eta abar eskuratzea nahi du; atxikipen etnikoak
determinaturiko kideen gutxiagotasun egoera gainditu, eta aldi berean, atxikipen
eta izaera hori mantendu nahi du; eta, azkenik, halako talde bezala eragina izateko
asmoa agertzen du zati deneko gizarte globalean. Etnizitateak, orduan, ez du
separatismo esangura, baizik eta, guztiz kontrakoa: gizarte osoaren/globalaren
baitan, eta ez kanpoan, errekonozimenduzko eta berdintasunezko arazoak,
desberdin izateko eskubideak, talde etnikoaren eraginezko arazoak planteatzen
dituen egoera batena.

Edozelan ere, etnizitate-eta nazionalitate-auziei buruzko azterketetan euren
dimentsio politikoa ez bada aintzat hartzen, hutsal bihur daitezke. Autore honek,
interesgarritzat jotzen du ere, auzia beti arazo edo gatazka egoera batetik abiatzea.
Eta, arazoa, manupe egoera bat delarik, meneratzaile/meneratua erlazioa
gutxiagotasun zibilak sortua, zein desberdintasunezko irensketa-suntsiketa
terminoetan sortua. Halaber, edozein identitate taldek -etnikoa, nazionala edo
erregionala- zuzenbide moduren bat edo botere propioaren bat, autonomia *stricto*
sensu edo erabakitze gaitasunaren bat dauka edo izan dezake/aldarrikatzen du
edo aldarrika dezake. Eta nabaria denez, aldarrikapen horrek ezin du izaera bera
izan lurralde bati atxikituriko talde eskubide eta

botere terminoetan planteatuta edo talde eskubideak, taldea gizakien talde gisa
ulertua planteatuta dagoelarik.

Lurraldetasunaren indarra ikaragarria dela mundu osoan zehar adierazitako
fenomenoa da. Orokorrean, *identitateak edo kontzientziak* dagokion lurralde
politikoa betetzera jotzen du. Mirak *lurralde politikoa* esaten duelarik, ez da
espazio administratiboaz ari, ekintza politikarako lurraldeaz baino. Horren adibide

gisa, estatuen sorkuntza eta hazkuntza epeetan boterearen hedakuntza lurralde osoan dugu; boterearen taldea, edo hobeto esanda, boterea daukan taldeak, eta bere burua nazionaltzat hartzen badu gehiago, kontrolatzen duen lurralde osoa berea egiten du. Horrela, muga oro sakratua bihurtzen da, bere barnean bizi den populazioa baino sakratuagoa, lurraldea, nazioa osatzen duten lagunak baino *nazio-ondasun* handiago da-eta.

Baina, *zerbait garela*, antza, oro har, onartua da. Hau da, talde-gizarte, talde-komunitate bat, zeinak oinarrizko identitate bat eskaintzen baitigu, egon badagoela. Badirudi ere, egitate hau, zabala bezain zehaztugabekoa, printzipio unibertsala eta ahistorikoa dela. Dena den, esan beharra dago, egitate hau ez dela objektiboa, baizik eta, batez ere, kontzientziatzko egitate eraginda: berehalakoa eta zuzena gizarte sinpleen kasuetan; bideratua, "hezitua" eta ideologizatua gizarte zabaletan eta konplexuetan. Auzi guztietan gertatzen den legez, hemen ere salbuespenak badira, batik bat, bi kasuetan: Lehenengoa, gizarteak muturreko desintegrazio egoeretan baldin badaude, esaterako, populazio mugimenduak direla eta, izenen eta sinboloen gainezarpina eta abar. Kasu horietan jendeak, azkenik, ez daki zer den ere ez, edo "hemengoak direla" baino ez daki esaten. Bigarrena, terminologia, erremediorik gabe nahasmen eta anbiguotasunaren artean mugitzen delarik. Hau da, *zerbait gara baina zer?* gure identitate-taldeari ezar diezaiokegu, zehazpen gehiagorik gabe, "talde etniko" edo "etniaren" izena? Egoera honen aurrean, Miraren proposamena, lurraldetasunari buruzko ñabardura egin ostean, honako hau da: lurralde bati atxikituriko gizarte konplexuak *nazioak* izendatzea; lurralde bati atxikituriko gizarte ez konplexuak edo aurremodernoak, estaturik gabekoak eta aurreurbanoak, *etniak*; eta, azkenik, lurralderik gabeko kultur, jatorri edota kontzientzia desberdineko taldeentzat, *talde etnikoaren* kategoria uztea.

Dena dela, eta idazle horren proposamena gurea egin arren, hark dioen bezala terminologia hori oso-oso hedatua dago nazioaz eta nazionalismoaz hausnartzen dutenen artean. Beraz, guk ere, autore horien jorrocketak lantzen ditugun neurrian, etnia, talde etnikoa eta halako berbak erabili beharrean aurkitzen gara. Segi dezagun, bada, atal honen hasieran esandakoari helduz, alegia, nazioari buruz zer ulertzen dugun argitzeari.

Egun onartua da nazio berbari ez dagokiola kontzeptu bakar bat, eta berba erabilia izan den kasu guztietan ez duela gauza bera adierazi. Horren adierazle ditugu nazioaren berbaz eginiko hainbat erabilera eta definizio. Den-denak hona ezin ekarri-eta, erabilera eta definizio horiek komunean dituzten gaiak *-leinu eta jatorria, volk, kultura, kontzientzia eta borondatea, patu komuna, boterea eta estatua, nazio-merkatua-* gaitetik bada ere, begiratu bat emango diegu.

1- Leinua eta jatorria

Erromatarrek oso modu argian bereizi zituzten, alde batetik, *populus, civitas eta res publica* -estatua gutxi gorabehera-; bestetik, *gens* eta *natio*. *Gens* berbaren esangurak belaunaldi, jatorri eta leinuarekin zerikusia dauka; eta, *natio* jaiotza ideiarekin. Inperioa indartu eta erromatar hiritartasuna hedatu ahala, *natione* berbak jatorri edo jaiotze lekuaren zentzua hartzen du. Azken zentzu horrekin berbaren erabilera orokortzen da Erdi Aroan XVI. eta XVIII. mende bitartean lurralde eta herriarekin, eta ohitura, izaera eta hizkuntzarekin erlazionaturiko esangurarekin erabiltzen hasten da.

2- Populus, peuple, Volk.

Berrero ere, erromatarrengana joz gero, herri kontzeptua, alegia, *populus* kontzeptu juridikoa da eta ez etnikoa ez nazionala. Horrela, herria, komuneko

erabilgarritasunak eta zuzenbideak eraginiko gizakien elkarketa da. Preseski, hiritarren multzoa, egun ere, "herri" hitzak dituen esanguratako bat da. Baina, XVI. eta XVII. mendeetan "herria" *gens* eta *natio* antzerako esangurarekin erabiltzen hasia da. Esaterako, Montesquieurentzat eta Voltaireentzat, herria eta nazioa elkartrukagarriak dira. Jakina, garai horretan ez dela desagertzen esangura juridiko-politiko erromatarra, baina, herria "nazio komunitatearen" sinonimotzat hartua eta azken hau estatuarekin parekatua, epe horretako berrikuntza da: herri bat, muga batzuk, estatu bat. Rousseauren teorian, Frantses Iraultzak gutxi gorabehera ezarria, identitatea argia da, egun arte irauten duena: estatua osatzen duen gizabanakoen taldeak eraturiko pertsona juridikoa da nazioa. Horrela, *asamblea* ez da "herritarra" edo "herriarena", baizik eta bere sinonimo korporatiboa: nazionala. Hortaz, herria-nazioa gizaki kolektibo bezala ikusia izango da, bai kolektiboa bai pertsonala izango den kontzientziarekin. NI bat borondate propioarekin: batasun nazionalaren borondate batekin. Hau da, "gizarte hitzarmen askearen" bide frantsesa, banaezina eta bat den errepublikaren muga sakratuak.

Bide alemaniarra bestelakoa da, termino eta erabileren historia desberdin batekin: XVI. eta XVII. mendeetan *natio* kontzeptu latinoan alemanera itzulia da, lurra, ohiturak eta jatorriari dagozkie terminoetan. Hala nola, *Landart*, "*herrialde baten ohiturak*"; *Landvolk*, "*herrialde baten populazioa*"; *Volck das in einem Land gebohren ist*, "*herrialde edo lur batean sorturiko populazioa*." Beraz, nazioaren ideia herria eta lurrari -eta ez komunitate politikoari- loturik agertzen da, eta hemen ere, zehaztugabeko herria eta nazioaren artean parekidetasuna ezartzea ohikoa da. Baina, ez nazioa eta estatuaren artean. Bestalde, guztiz logikoa, garai horretan ez Alemaniako Herriak ez Alemaniako Nazioak ez zuten Alemaniako Estaturik osatzen.

3- Kultura.

Carlton Hayes, nazionalismoaren teoriarrien artean klasikotako bat, hipotesi guztiak aztertu ondoren, honako ondorio honetara ailegatzen da: nazionalitatea kultur funtsetan oinarritzen da, nazionalitate bat, hizkuntz komun bat hitz egiten duen, tradizio historiko komunak izaten duen eta gizarte kultural desberdin bat osatzen duela pentsatzen duen edozein gizaki talde da. Nazioaren oinarri kulturalen ideia modu zabalean onartua da, eta ez *politizistenenak*, ez *naturalistenenak* ere ez dira kultura aipatu gabe gelditzen. Herder bezalako ilustratuak, Otto Bauerrek bezalako marxistak eta Stalinek berak, nazioa definitzerakoan, lehenengo faktoretzat jotzen dute kultura, izen berarekin "kultura" edota "ohiturak", "izaera" edo antzerakoa den beste berbarekin. Are gehiago, "kultur komunitate" hau, iraganean oinarri bat daukala, oso aspaldikoa, eta oinarri horrek egun arte irauten duela pentsatu ohi da.

4- Kontzientzia eta borondatea.

Nazioa beste gauzarik baino gehiago kontzientzia eta borondatea da. Batez ere, "estatuko nazionalistentzat". Lehen esan bezala, kontzientzia oro eragina eta hezkuntzaren emaitza da. Ernest Renanek, 1882an *Zer da nazio bat?* hitzaldi ospetsua eman zuelarik, oso argi zeukan,(hasiera-hasieratik, teoriaren azken helburua Alsazia eta Lorena Frantziako, eta ez Alemaniako, zatiak zirela erakustea baitzen): nazio bat ez da faktore etnikorik, ez hizkuntzarik, ez erlijiorik definitzen duten zerbaite; nazio bat "arima bat, printzipio izpiritual bat" da, "elkarrekin bizi eta geroko patu komun bat partekatu nahi duten gizakiez osaturikoa"; nazioa, oso ospetsua egin den esaldi batean adierazia, "eguneroko erreferendum bat da".

Nabaria da, "izpiritu edo arima" hori gorpuzteko, beste neurrien artean historiak erakusten duenez, hezkuntza nazionala oso eraginkorra izan dela.

5- Misioa eta proiektua.

Renanen ekarpena, ostera ere, hona ekarriz: nazioa "iraganean gauza handiak egin izana eta geroan, berriro, egitea" da; edo, Mazziniren esanetan, "Aberria misioa da, eginbehar komun bat". Alemaniako "naturalistak" zein Frantziako "politizistak", Israelgo herria eta Estatu Batuak "probidentziako patuaren" jabeak dira. Ikusten denez, patua, borondate kolektiboa eta proiektu komuna, erabilera arrunteko mistika izan dira.

6- Boterea eta estatua.

XIX. mende amaieran eta XX. mendearen hasieran "Nazionalitateen printzipioa" delakoa zabaldu egin zen. Printzipio horren arabera, nazio bakoitzak bere estatua osatzeko eskubide eta benetako aukera izan behar zuen, gutxi gorabehera. Horrez gain, zentzu horretan aukeraren bat ematen zuen beste teoria bat ere hedatu zen: "herrien autodeterminatzeko eskubidea" deiturikoa. Halarik ere, jakina denez, eskubide eta printzipio hauek aplikatu eta eraginkorrak dira boterea daukatenek erabakitzen dutelarik. Dena den, bitxiena da, eskubide eta printzipio haiek ez zirela XIX. mendeko europar nazionalismoek sortuak, ezta XX. mendeko "antiimperalismo" desberdinen emaitzarik ere. J. Stuart Millen esanak dira honakoak: "gobernu aske baten nahitaezko baldintza Estatuaren mugak nazionalitatearen mugekin bat egitea

da." Honekin guztiarekin ere, harrigarria da nola irauten duten aipaturiko printzipioen kontrako ideiek, hala nola:

- 1) Nazioak, orokorrean, estatua sortzen duela pentsatzea, K. W. Deutscherk pentsatzen duen bezala, eta ez da bakarra.
- 2) "Nazioak" bezala ikusi eta izendatu estatu subirano oro, eta sarritan soilki estatu subiranoak.

Lehenengo nahasmenari dagokionez, kasu batzuetan bai,(esaterako Alemaniakoa), gehienetan ez. Are gehiago, orokorrean kontrakoa gertatzen da. Estatuak nazioak

egiten dituzte, euren lurraldeko populazioa "nazionalizatzen", hau da, naziotasuna definitzen duen guztia irakatsiz. Beste autore batzuek botereari heltzen diote "talde nazional" eta "nazionalitate" kategoriak desberdintzeko. Snyderentzat esaterako, bi kategoria horien arteko desberdintasuna, botere propioa mantentzeko edo eskuratzeko borondate izatean ala ez izatean datza. Berriz, K. Minogueren iritziz: nazio bat (...) auzi nazionala partekatzen dutela konbentzituriko gizakiek osatzen dute. Eta "auzia" boteregabezia sumatzean datza. Botere eza beste baten kontra, nazionalismo defentsibo eta aldarrikatzailearen kasuan; botererik ez beste batengan, nazionalismo hedakor eta meneratzailearen kasuan.

Horrela, boterea eta estatuari dagokionez bi muturreko jarrera aurki ditzakegu: alde batetik, minimoena dei dezakeguna, alegia, nazioaz hitz egin arren nazio horrek ez du zertan, nazio gisa irauteko nahiko botere politikorik izan edo ez du zertan gura izan. Baiespen hau oinarrizkoa bezain anbigua da, baina badu erabilpen baikor bat kontrakoa argumentatzeko: nazio batek, zeinak beste baten menerapena onartzen baitu ezin du bere burua babestu.

Beste aldetik, maximoen jarrera genuke, nabaria eta oso-oso sinplea, W. Sulzbachen eskutik: nazio bat, beste herrien artean subiranoa izan nahi duen eta, hortaz estatu propioa desiratzen duen gizaki-talde bat bezala defini daiteke. Hizkuntza, kultura, izaera, historia eta bestelako faktoreak ahantziz

independentea den edo independentzia nahi duen jende multzoak nazio bat osatzen dute; ordea, independentziarik ez duena nahi, ez.

Dirudienez, botere nazionalaren erreferentzia saihestezina da. Arazoa da, nazioaren kategorian sartzeko zenbat botere? eta nazioa izateko, Estatu propioa herri osoak aldarrikatu edo desiratu behar du, herriaren gehiengoak edo herriaren abangoardia nazionalistak soilik.

7- Espazio ekonomikoa eta merkatua.

Gai honen inguruan esan ohi da XIX. mendeko nazionalismo aldarrikatzailak, merkatu propio bat ziurtatzeko asmoz, burgeseria nazionalak sortuak direla. Gure aburuz, halako baieztapenak erabiltzea nazionalismoaren sorrera azaltzen dabiltzalarik lar sinpleak dira. Egitura ekonomikoaz ari garela, bestelako eta funtsezko azalpena deritzogu honako hau: prozesu ekonomikoen ezaugarriek egitura nazionalen oinarriak osatzen dituztela. Jakina denez, prozesu ekonomikoak egitura posible ororen oinarria osatzen ditu, beraz, egitura nazionalen oinarriak ere.

Honaino esandakoak, lagun gaitzake nazioa zer den argitzen, alegia, aipatutakoen artean edozein gai edo gai batzuen konbinaketa baliagarria izan daiteke nazioa ikustarazteko, *leinua eta jatorria, herria eta Volk, kultura eta izaera, kontzientzia eta borondatea, misio eta proiekturen bat, botere eta Estatua lortu ahal bada, historia ekonomikoan, ekoizteko eta antolatze moduetan dinamika propio bat*, ikustarazpen hori osoago eta sendoago agertuz, osagaien konbinaketak guztiak bilduz gero.

4.2.- Nazioa eta estatuaren arteko erlazioaz

Atal honen hasieran genionez, historian zehar eta egunetara hurbildu ahala askoz gehiago, nazioa eta estatua, gizatiar auzien erdi-erdian aurkitzen dira. Batzutan bat eginik, bestetan elkarren aurka. Egoera horiek, aztertuko ditugu, gaineratik bada ere, azterketa horrek gure egungo errealitatea aditzen lagunduko digulakoan gaude-eta. Baina, jarduera horri ekin baino lehenago, aurreko atalean nahita aipatu gabe gelditu den funtsezko gai bati heldu nahi diogu hurrengo lerrootan.

4.2.1.- Nazio kulturala, nazio politikoa eta Estatua

Nazioa definitu guran dihardutenen artean antropologo asko aurkitzen ditugu ere. Horien artean, Bronislaw Malinowski, gizarte antropologia modernoaren sortzailetariko bat. Antropologo honek, gizarte guztien oinarrian, eta kulturen analisisien oinarrian ere, dauden oinarrizko instituzioak identifikatu ditu: familia eta senideen antolakuntza; udaltasuna, hau da, tokian tokiko taldeak, bandak, Ergoien, herria eta hiria; *tribu* lurraldetasun-printzipioan oinarrituriko instituzio politikoa bezala: estatu aurreko tribua, polis, estatua, nazio-estatua, inperioa...; *tribu* kulturak integraturiko batasun gisa: tribu-etnia, nazio-herria...; adin taldeak; borondatezko elkarteak; zereginetako taldeak; estatus taldeak. Instituzio horietatik guri gehien interesatzen zaiguna *tribu politikoa* eta *tribu kulturala* dira eta, batik bat, euren arteko desberdintasuna, oinarri-oinarrizkoa eta, aldi berean, nahitaezkoa nazioaren gaiari heldu guran gabiltzala.

Hortaz, eta lehen esan bezala, "gizaki guztiok tribu daukagu", alegia, oinarrizko identitate talde bat. Muturreko kasuetan, identitatea, murriztuko lukete honako instituzio unibertsalek: udaltasunak, leinuak, edo elkarteak edo estatuseko motaren batek erlijio, kasta, eta abar bezalakoak. Ikuspegi horren arabera, *Estatua tribu politikoaren* modu garatuena eta konplexuena litzateke, eta *nazioa tribu kulturalarena*. Planteamendu hau onargarria litzateke, ez balitz historiak ekoizturiko beste fenomeno batengatik: *nazio politikoa*, analisisirako parekagarria ez dena estatuarekin, ezta nazio-kulturarekin ere. Horrez gain, esan beharra dago, "tribuen" existentzia, Malinowskik emandako zentzuan, orokorra dela; Estatu eta nazioen existentzia, ordea, ez. Hortaz, kontzeptu horien inguruan, zer ulertzen dugu argitu beharrean gaude.

Estatua, lurraldezko antolakuntza politiko mota bat da. Hasieran, gizarte historiko zehatz batzuetara mugatua eta, berriki orokortua, alegia, XX. mendean zehar munduko herri guztiak Estatu batena izaten amaitu dira, den-denak(nahiz eta

batzuek, Afrikako edo Amerikako talde isolaturik jakin ez). Estatua, boterezko egitate bat da dagokion lurralde mugatuan, gutxi gorabehera, subiranoa eta independentea, eta botere hori, gizarte konplexu eta urbano batean ezartzen delarik gehien ezaugarritzen duen itxurapean ageriz.

Nazio kulturala, herri baten existentziaren emaitza da-ethnos, etnia, Volk *tribu kultural* zentzuan- portaera eta adierazpen moduetan, ideologia eta baloreetan objektiboak eta behagarriak diren ezaugarri komunekin; jatorrizko komunitate gisa desberdina, ezaugarri bereizgarrien sortze epea komunikaziozko espazio propio batean gauzatu deneko zentzuan; eta gizarte konplexu eta urbano gisa garatua, azken honen esangura izanik, hizkuntza idatziaren hedakuntza eta "kultura kultura" ekoizten duen elite baten existentzia.

Nazio politikoa, eraginiko kontzientziatzko egitate bat da, eta leialtasunezkoa ere bai. Azken hau, borondatez, gutxi gorabehera barneratua. Fenomeno hau, populazio kopuru bat, gizarte konplexu eta urbano itxurapean, botere/estatu autonomo eta komuna duena -edo izan nahi duena- berea bezala ikusiriko lurralde batean, eta bere burua bere lurraldearekin identitate/aurkakotasuna erreferentzia handiena bezala sumatzen duelarik, existitzen da.

Hiru mailako fenomeno hauek bereiztu guran emandako definizioak lagungarriak izateko honakoa ñabartu behar da:

a) Hiru definizioetan, eta hau bereziki garrantzitsua da fenomeno nazionala mugatzeko, gizarte konplexu eta urbanoei buruz hitz egiten da. Hortaz, *nazio* hitza esangura espezifikoa izatea nahi baldin badugu, ez dugu edozein herri edo tribu izendatzeko erabili behar, ez dugu herria edo etniaren kontzeptu orokorretara murriztu behar; gorde behar dugu, barne konplexutasunean eta lan-banaketa

orokorrean garatu diren gizarteentzat, hirien inguruko lurraldeko espazio soziala antolatzeko beste garatuak. Honek, ez du esan nahi gizarte sinplenek euren kultura propiorik eta talde identitaterik ez daukatenik. Jakina daukatela, baina beste motatakoa, ez nazionala. Ez dugu esan gura ere, gizarte konplexuen nekazal esparrua, historikoki gehiengoa izan dena, urbanoa ez izatearren ez dela nazionala: nekazal gizartea, globalki antolaturiko esparru batean bizi da, hiriek kontrolaturikoa eta eraginikoa, hiriak zuzentzen duen gizarte osoaren zati bat da. Izan ere, baserritar giroa zibilizatua izan daiteke.

b) Antropologoek, tribu motatako gizarte bat edo oraindik sinpleagoa den gizarte bat aztertzen dutelarik, halako talde bat, kultura bereizi bat legez, osotasun bat legez definitzen duen ezaugarri multzo bat ezartzera hel daiteke. Gizarte konplexuetan eta urbanoetan gauza bera egitea askoz zailagoa da. Baina, ez da ezinezkoa. Batez ere, "osotasun edo batasun" hori, kultura edo gizarte baten ezaugarritzat hartu barik, ezaugarri batu hori zatien arteko esanguratsuak diren erlazioen emaitzat hartuz. Beste hitzetan esanda, lehenengo aztertzen dugu eta gero osotasuna emaitza legez eraikitzen dugu.

c) *Nazio politikoa*, *nazio kulturala* eta *estatuaren* arteko bereizketa behin ezarrita, honakoa esan daiteke: fenomeno edo gizarte egitate desberdinak diren neurrian, bereiziak agertu daitezke, hau da, agertu daiteke bat bestea agertu barik. Are gehiago, historian bat eginik agertutako kasuak oso-oso urriak dira. Halarik ere, fenomeno desberdinak izan eta bereiziak agertu arren, ez dira fenomeno estatikoak, edo euren garapenetan elkarri eraginik eta erreferentzirik gabekoak. *Estatua* nazioari dagokionez ez da zentzu bakarreko eta geldia den kategoria bat. *Nazio kultural* eta *nazio politikoa* kategorien kasuetan, are gutxiago: ezaugarri kulturalen homogeneitatea ala desberdintasuna, identitatea ala aurkakotasunaren kontzientzia handitu eta txikitu daitezke, gizartearen alde desberdinek gradu

desberdinetan partekatu ditzateke eta abar. Askotan, oinarrizko ezaugarri kulturalen homogeneitatea ala desberdintasuna txikitu ahala, identitatea ala aurkakotasunaren kontzientziaren hedakuntza handitu egiten da. Bestalde, egitate hori ez da kontraesankorra ez paradoxikoa izan behar, orokorrean, kontzientzia handitze mugimendu honen helburua, bestearen

gutxitzeari amaiera ematea baita. Europako nazionalismo askoren historian behatu daitekeen fenomeno da hau: *kultur integrazioa* makal dagoelarik nazionalismo politikoak sortzea.

d) Bi bide dira, Europar herriek segitu dituztenak *nazio politikoa* estatusera ailegatzeko, alde batetik, Estatuak urratua; bestetik, mugimendu nazionalistek eragina. Prozesu horrek indar gehien lortzen du Estatu bera nazionalista bihurtzen delarik, alegia, euren lurraldeetako populazioak *nazionalizatzean*. Bestalde, estatu guztiak, berriak ala zaharrak, *nazionalista* bilakatzen dira: den-denek gorengo identitate kontzientzia bat zabaltzera eta inposatzera jotzen dute, Estatuaren esparru berarekin bat datorren identitate kontzientzia bat. Estatuak, ekinaren ekinez, hiritarrak *nazio* eta *benetako aberri* bat baino ez dela, lurralde subiranoak definiturikoa, sinestarazten ditu. Eta, jokabide hau izaten du bai Estatu nazio kulturalarekin bat datorrela bai batzuk biltzen baditu ere. Azken kasu horretan, nazio kulturalak, errekonozituak badira, *nazionalitate* estatusera baztertuak izango dira; eta errekonozituak ez badira *erregioak* baino ez dira izango. Edozelan ere, Estatuarentzat, ez dago beste aberririk, ez dago beste nazio politikorik, berau baino, berau baita aberri bakarra.

Azpiatal honen hasieran esan dugun lez, mugimendu nazionalistek ere lor dezakete herriek *nazio politikoaren* estatusera ailegatzea. Mugimendu horien ekimenak, alegia, dotrina, ideologia eta informazioa hedatzeak, ezaugarri komunak eta

bereizgarriak egitate kontziente bihurtzea lor dezake halako kontzientziarik ez dagoen gizarte batean. Hemendik abiatuz, identitate eta desberdintasunezko zentzu berri bat erdiets daiteke, gehiago ala gutxiago orokortua. Horren ostean, autogobernu komunezko moduren baten aldarrikapena dator. Prozesu horrekin, nazio kulturalen oinarriturik nazio politikoa osatzea lortzen da, baina oraindik nazio politiko horrek ez du estaturik: XIX. mendeak holako adibide askok eskaintzen dizkigu, hala nola, Finlandia, Errumania, Polonia eta beste.

Orain, zer gertatzen da, nazio kultural bat edo gehiago, beste nazio batek definituriko eta kontrolaturiko Estatu baten menpe-azken hau kultural eta politikoa-gelditzen eta irauten dela/direla? Denbora luzez mantendu ezinezko egoera bat da. Historiak bi joera erakusten digu, alde batetik, irenste/asimilazio politikoa, poliki-poliki, irenste kulturala ere bihurtzen da. Horrela, politikoki integraturiko nazio kulturala, kulturalki ere integratua izango da, nazio politikoa-estatuarekin bat eginez eta, beraz, desagertu egingo da. Ala, bestetik, nazio kultural horretan/horietan identitate/Estatu propio aldarrikatzen duen mugimendu bat agertuko da, hau da, botere propio izateko nahi bat, nazio politiko bilakatzeko joera bat. Ondorioa honakoa litzateke: ezin da mugarik gabe nazio kulturala irauarazi nazio politiko bihurtzen ez bada, botere nazional bat izateko nahirik ez bada.

Esandako guztiarekin, erakutsi nahi izan dugu, beti ezin dugula esan lurraldean oinarrituriko gizarte bat nazio bat den, ala, ez. Nazio bat gizarte mota bat da-gizabanakoentzat gizartean bizitzeko modu bat da-eta, beraz, *prozesu bat*. Ildo horri jarraituz, nazioa eratzen duen osagaien multzoa sortze egoeran egon daiteke, ala, finkatze-integratze egoeran, ala, desintegratze-desegite egoeran, ala, berrosatze-berrintegratze egoeran, ala, beste batek irenste eta desagertze egoeran. Nazioa existi daiteke, bete-betean nazioa izan, baina, izaten hasia egon daiteke ere, izateari uzten, ala, izatera bueltatzen. Eta azken horrek, balio gehiago dauka nazio politikoarentzat, nazio kulturalentzat baino, zeren eta, *kontzientziak* azkarrago

bizitzen baitu berau determinatzen duen faktoreen eragina.

Honaino esandakoaren arabera, nazioaz eta nazionalismoaz hitz egiten segitzeko oinarritzkoa den irizpide bat aintzat hartu beharrean aurkitzen gara, hala nola, mendetasuna/mendetasun eza. Edozein *nazio politiko*, bereizia dago, ala, bereiztu nahi da; du ala izan nahi du mendetasunik gabeko botere nahikoa. Bereizketa nahikoa bere burua osotasun bat bezala ikusteko, ez zati bat bezala. "Bereizketa", ez halabeharrez, independentzia politiko osoa eskatzen duen mugimendu batena; bere burua osotasun bereizia bezala antzemateko eta antzematua izatearen zentzuan: oinarritzko identitate propioa definitzeko kanpoko identitate esparruari segitu barik. Mendetasun eza, egitatez, autorreferentziak definituriko gizarte marko bat osatzea da; ez barnean hartzen duen beste bati erreferituta.

4.2.2.- Nazioa eta Estatuaren arteko batasun ezari eman ohi diren irtenbideak.

Nazio kultural bat edo gehiago, beste nazio batek definituriko eta kontrolaturiko Estatu baten menpe gelditzea, mantendu ezinezko egoeratzat hartu dugu aurreko orrialdeetan. Eta, hala da historiak erakutsi egin digulako eta erakusten ari delako. Mendebaldeko historia modernoaren protagonistatzat hartuak izan dira nazio-estatuak, naziobakarrekoak bailiran. Baina, bestelakoa da errealitatea, W. Connorek ohartarazten digun legez:

*... un hecho primordial relativo al mundo es que **no** está compuesto en su mayor parte por Estados-nación...*

.

Horrela, 1971 urtean Estatuak bezala ikusiriko 132 entitateei buruzko ikerketa batean honako sailkapen hau aurkitu zuen:

1. Nazio-Estatu izena soilik merezi dute hamabik (%9,1).
2. Hogeita bost Estatuk (%18,9), nazio bat biltzen dute, edo Estatuko

populazioaren %90 biltzen duen nazio potentzial bat biltzen dute; baina, aldi berean, gutxiengo garrantzitsu bat biltzen dute.

3. Beste hogeita bost Estatuk (%18,9), nazio bat biltzen dute, edo Estatuko populazioaren %75-%89 bitartean biltzen duen nazio potentzial bat biltzen dute.

4. Hogeita hamaika Estatutan (%23,5), gehiengo etnikoak populazioaren erdia edo hiru laurdenak osatzen du.

5. Hogeita hemeretzi Estatutan (%29,5), nazioak edo nazio handienak populazioaren erdia baino gutxiago biltzen du.

W. Connor baino lehenago, Benjamin Akzin, errealitate horretaz ohartu zen ere:

En las condiciones modernas, El Estado puramente monoétnico se ha convertido en un anacronismo, anacronismo que ha desaparecido casi inmediatamente. La transposición de las fronteras que sigue a los meandros de la historia política, por una parte, y la mayor movilidad de la humanidad debida al desarrollo del comercio y las comunicaciones por otra parte, han transformado prácticamente a todo Estado del globo en un Estado poliétnico.

Autore honen aburuz, egoera horrek, Estatuaren integrazioaren ikuspuntutik, ez du beti gatazka maila berdina ekartzen:

(...) en otros estados, la polietnicidad es un problema central más que lateral.

Estatuarentzat, etnianizduna izatea, arazo latza bihurtzearen zioak dira, besteak beste, populazioaren zati handienak amaitu ez izana integrazioa prozesua; populazio osoarekiko meneratzaileak ez diren talde etnikoak kopuru handiagoa osatzea; meneratzaile ez den talde etniko bat Estatuko lurraldearen zati batean kokatzea, eta bereziki, muga ondoan izatean. Etnianiztasunak sorturiko arazoak iraunkorrak dira, eta Estatuaren egiturari, giro sozialean eragina izateaz gain, muturreko kasuetan, bere lurraldearen osotasuna edo Estatuaren existentzia bera zalantzan jarria izan daiteke ere.

Etnianizdun Estatu hauetan, arazoa bereziki larria da, talde etnikoen artean batek edo gehiagok Estatuaren antolaketa egiturari dagozkion aldarrikapen politikoak aurkezten baldin baditu/badituzte. Kasu honetan, autore honen iritziz, etniaz hitz egin beharrean nazionalitateaz hitz egin behar da. Are gehiago, meneratzaile ez den talde etniko baten agerpenak, nazionalitate aktibo gisa-talde meneratzailea ez ezik - Estatua bihurtzen du ez soilki etnianizdun baizik eta nazioanizdun ere.

Orain, aurkako nagusien arteko borroka agerian gelditzen da. Alde batetik, nazionalitate meneratzailea, halaber, Estatuaren bozemaile eta honen funtsezko tresneriaren jabe. Honek, aldi berean, Estatuaren osotasunaren eta bere kokapena indartzearen eta mantentzearen alde borrokatzen du. Borroka hori, batzuetan bideratzen da, "integrazioa" etnikoa bultzatuz edo nazionalitate meneratzaileak ez meneratzaileak irentsiz edo asimilatuz. Beste batzuetan, Estatuaren osotasuna mantendu guran, nazionalitateen artean marra argi bat ezartzen da, meneratzailearen rola Estatuan bati emanez, eta, jakina, besteei meneratuena utziz. Kasu honetan, eredia ez da integrazioarena, desberdintasunean oinarrituriko pluralismoarena baino. *Integrazioaren eredia* segitzen dela, Estatuarekiko atxikimenduak- abertzaletasuna-gidatzen du prozesua, nazionalitate meneratzailearen atxikimendua-nazionalismoa- bigarren maila batean gelditzen den bitartean. Aldiz, *desberdintasunean oinarrituriko pluralismoaren eredia* agertzen delarik, nazionalitate meneratzailearen nazionalismoak daroa gidaritzat, Estatua nazioaren zerbitzurako tresna bezala agertuz.

Barrikadaren beste aldean, Estatuan meneratzaileak ez diren beste nazionalitateak daude; hauek, nazionalismoak bultzaturik, *status quo* aldatzen ahalegintzen dira. Mota honetako nazionalismoari hemendik aurrera Estaturik gabeko nazionalismoa deituko diogu. Baina, mota honetako nazionalismoaz eta nazionalismoaz zentzu orokorrago batez, aurrerago arduratuko gara; lehenago, Estatuaren osotasuna

mantentzearen aldeko ekimenak, integrazioa, desberdintasunean oinarrituriko pluralismoa eta berdintasunean oinarrituriko pluralismoa, aztertuko ditugu. Azken finean, ondoko galderari erantzuteko modu desberdinak dira-eta:

¿Cómo habrán de formarse las relaciones entre los dos fenómenos sociales_ el Estado y el grupo étnico- especialmente cuando este último ha alcanzado esa etapa de autoconciencia, autoafirmación y una dimensión mayor a la local que designamos con el nombre de nación-en condiciones de no congruencia_?

4.2.2.1. Integrazioaren eredua

Arestion, aipaturiko inguruabarretan, arazoi helduko diogu Estatuaz arduraturik daudenen ikuspuntutik. Estatu eta nazioaren artean batasun ezean, Estatuak ezin du leialtasun politikoan eta nazio kontzientzian, abertzaletasunean eta nazionalismoan konfiantza izan bere kohesiorako. Estatuko populazioaren kohesioa, bi zutabe izan barik batekin konformatu behar da: leialtasun politikoarena, abertzaletasunarena. Beste faktoreak -etnikoak- meneratzaileak ez diren talde etnikoei dagokienez, gatazka osagaiaren papera beteko du eta bereizgarritasuna etniko berak, bereziki nazio kontzientzia mailara ailegatzen bada, estatuko egiturarekin duen identifikazioa murriztera joko du. Horrela, meneratzaileak ez diren taldeen artean nazionalismoa estatuarekiko abertzaletasuna baino indartsuagoa delarik, estatuaren egitura hausteko arriskua agertzen da.

Halako egoera baten aurrean, Estatuaren osotasuna mantentzearen aldeko indarrek, euren helburua lortzeko bitartekoak asmatuko dituzte. Nabaria da, gorengo indar armatuaren monopolioa estatuaren eskuetan izatea oso tresna baliotsua da, eta aldekoak diren zirkunstantziak egonez gero, epe luzez, argudio etnikoek sortzen duten hunkiberatasunaren gabezia gaintitzea ahalbidetzen du. Are gehiago, erregimen politikoaren egonkortasunarekiko eta Estatuaren

osotasunarekiko mehatxurik ez badago kanpotik, atzerritik. Alta, epe luzez, Estatuak populazioaren edozein zatiren gainean haren aurretikotasuna mantentzeaz arduratzen da, ez soilki, indarraren bidez, baizik eta, hurarekiko leialtasuna indartuz ere. Izan ere, leialtasun hori gero eta indartsuagoa delarik,

Estatuak gero eta gutxiago erabiliko du indarra eta berarekiko atxikimenduaz seguruagoa sentituko da, krisi larri bat edota atzerriko mehatxuaren aurrean egon arren. Aurrekoa lortzeko gehien erabili den bitartekoa populazioaren integrazio etnikoa bultzatzea izan da. Arrakastatsua izanez gero, Estatuaren mugen barnean komunitate politikoak eta etnikoak bat eginik -berriz edo lehenengoz- etnia bakarreko Estatuak izango genuke. Baina, prozesu hau ez bada posible, Estatu buruek komunitate etniko desberdinak elkarrekin bizi ahal izateko irtenbide bat bilatuko dute, labur bilduz, pluralismoaren bideari ekingo diote.

Baina, zer ulertzen da pluralismoaz? teoria honen arabera, identitate desberdinen multzoak sorturiko aurkakotasunezko interesek edozein interes zehatzaren bereizteko joera geldiaraztera joko dute, horrela, Estatuaren bidegarritasuna bermatuz.

Orain, Connorrek dioskunez, iragarpen horrek ez du aintzat hartzen nazio identitatearen iturriak, erlijioarekin, gizarte klasearekin eta abarrekin erlazonaturikoak baino sakonagoak direla, mugimendu separatista etnonazionalak erakutsi duten legez; hortaz, ezaugarri komun batzuen presentzia, agian, ez da nahikoa Estatuak gordetzeko. Ukaezinezkoa da, gizabanakoak talde identitate batzuetan parte hartzen duela, baina identitate horiek mota berekoak ez direla, R. Emersonnek argi adierazi zuen ideia dugu. Ideia hori, idazle horrek, *nazioaz* ondo asmatutako definizioaren oinarria da-eta:

La comunidad de mayor tamaño que, a la hora de la verdad, domina eficazmente las lealtades humanas, imponiéndose tanto sobre las exigencias de otras comunidades menores contenidas en ella, como las de otras que se solapan con ella o la engloban potencialmente en el seno de una sociedad aún mayor.

W. Connorrek eginiko kritikarekin bat etorri arren, pluralismoaren ereduaren gaineko ideia batzuk plazaratzea interesgarritzat jotzen dugu, gure errealitatea eta historia hurbila argitzen lagunduko digulakoan baikaude.

4.2.2.2 Desberdintasunean oinarrituriko pluralismoa

Politikoki eraturiko gizarte bat, zeinak ez baitu integrazio etnikorik lortu, beti agertzen da etnianoizdun edo nazioanoizdun gizarte bat bezala. Irtenbide pluralistak agertzen diren testuinguru historikoak eta sozialak era askotakoak dira, eta aniztasun hau irtenbide pluralistek harturiko ezaugarrien nabarduretan adierazten da. Kontuan hartuz, meneratzailea den nazionalitatearen ekimenak gidaturiko irtenbide pluralista, *desberdintasunaren oinarrituriko pluralismo batekin* egingo genuke topo. Kasu horretan, meneratzailea den nazionalitatearen barruan, talde etniko desberdinen artean bereizketa mantendu nahi izaten da, beraientzat eta bere elitearentzat pribilegio multzo bat lortzeko asmotan. Nazio meneratzailearen kideentzat gorengo estatusa eskuratzeko bitarteko orokortuena diskriminazioa izaki, formala edo ez formala, beste nazionalitateen kideengan ezarria.

Oro har, diskriminazioa integrazioa bultzatzeko zein eragozteko erabili da, desberdintasunaren oinarri baten gainean etnianoiztasuna bermatzeko zein osagai heteroetnikoak hondatzeko. Hori dela eta, sarritan, diskriminazioak, beste nazionalitateen integrazioa bultzatu barik, beraiengan sentimendu nazionalista indartsuak sortarazten ditu. Sentimendu hauen nagusitasuna, Estatua eta nazionalitate meneratzailearen aurrean, aurkakoak diren indarren botere desberdinek zein kanpoko faktoreek erabakiko dute.

Akzinen iritziz, giza esperientziak erakutsi du, berdintasuna, desberdintasuna baino identitate etnikoen salbatzaile hobe dela; eta, azken hau, bere gizatasun eza baztertuz, bai integratzaileko bai talde etniko baten gehiagotasuna beste batengan mantentzeko ere ez dela benetako bidea.

4.2.2.3. Berdintasunean oinarrituriko pluralismoa

Meneratzaile ez den nazionalitate baten kideek euren mito, balore eta talde banakotasunarekiko dute atxikimendua, askotan, oso-oso indartsua da,

integratzailearen proposamen igualitarioek eragin dezaten. Hala da, diskriminazioak "gogor" jokatu arren; diskriminazioaren gogortasun horrek Estatuaren lurraldeko nazionalitate sekundarioak akabatzea ekar dezake, baina, horrela ez delarik, emaitza guztiz kontrakoa da: bizibaldintza modernoetan eta gizabanako asko nazionalitate meneratzailearen kide bilakatu arren, diskriminaturik den taldearen autokontzientzia indartzen da. Eta, bere barnean taldearen estatus aldaketa baten eskaera bat agertzen da. Eskaera horiek bi moduren artean bat hartzen dute. Estatuaren egiturak talde horren kideei berdintasuna ukatzen badie, bai integratzaile bultzatzeko bai gutxiagotasun egoeran iraunarazteko, taldekideek, batez ere, berdintasuna eskatuko dute, talde identitate galtzeko asmorik erakutsi gabe. Berriz, Estatuak integratzailearen lortzeko asmotan eman badie berdintasun indibiduala, taldekideek taldearekiko leialtasuna aldarrikatzen dute, jakina, lorturiko berdintasun indibiduala utzi gabe. Taldea, kasu bietan, politikoki aktibo agertzen denez gero, esan daiteke berdintasunean oinarrituriko pluralismo politiko baten alde ekiten duela. Estatuaren beste indarrek onartzen badute planteamendua, pluralismo mota hori Estatuaren ezaugarri bihurtzen da. Baina, bada beste faktore bat kontuan hartu beharrekia pluralismo mota honen azalpenarekin segitu ahal izateko, eta zera da: nazionalitate ez meneratzaileen populazio kopurua. Horren

arabera, bi kasuen aurrean aurkitzen gara, alde batetik, nazionalitate bat esparru politikoan eta populazio kopuruan nagusi delarik eta, beraz, osagai heteroetnikoa sartzen dituzten talde ez meneratzaileak minoritarioak direlarik; bestetik, Estatuan nazionalitate bi edo gehiago euren artean orekatuak agertzen direlarik. Oreka hori argitzeko, neurri kuantitatiboari edo eragin politikoari eustea nahasgarri suertatu daitekeelakoan, nazionalitate horiekiko Estatuko instituzioek zer-nolako orientabide ideologikoa erakusten duten, agian, irizpide egokiago da. Ildo honetan, Estatu politikan, Estatu nazionalitate baten kultura eta baloreekin identifikatu beharrean, nazionalitate birekin edo gehiagorekin erlazionaturik agertzen dela, nazio biko edo nazioanizdun Estatu bat izango genuke. Hortaz, pluralismoa modu desberdinetan adieraziko da. Ikus dezagun, adibide gisa, pluralismoa nola adierazten den hizkuntz arazoan kasu baten eta bestean.

Nazioanizdun Estatu batean, nazionalitateek hizkuntza desberdinak dituztela, Estatuak elebitasunaren edo eleaniztasunaren ondorio guztiak onartzen ditu. Hau da, hizkuntza horiek, egitatez zein eskubidez, berdintasun maila batean ezartzea, bereziki, hezkuntza zerbitzu eta zerbitzu zibilaren betekizunei dagokienez.

Talde ez meneratzaileak minoritarioak direlarik, bestelakoa da egoera. Dakigunez, nazionalitate batean, non gizarte komunikazio biziak *more* komunitate bat sortu duen, hizkuntza komunak, komunikaziozko funtsezko tresna gisa, rol nagusia betetzen du. Hau dela bide, meneratzaileak ez diren nazionalitateek Estatuko autoritateei euren hizkuntzetarako izaera ofiziala eskatzeko joera erakusten dute. Ostera ere, hizkuntzen izaera ofizialaren auzia mahaigaineratzen da hezkuntza esparruan, kultura eta informaziozko bideetan; esparru horietan mahaigaineratzearen arrazoiak dugu: akulturaziorako eskaintzen dituzten aukera anitzak direla eta, integrazioarako oso tresna baliotsuak izatea.

Hortaz, prozesu horien emaitza zehatz batean interesaturik dauden indar guztiek

esparru hori kontrolatzera beraien ahalegin guztiak bideratuko dituzte. Are gehiago, pluralismo etnikoaz arduratutako talde ez meneratzaileek, eskola publikoen, antzerkien eta kultur instalakuntzen sare paraleloak, non taldearen/taldeen hizkuntza nagusia izango den, fondo publikoek ordainduak, eskatuko dituzte. Ezin ahantzi, Estatu modernoetan, eskola eta kultur instituzio publikoak, populazioaren kohesiora eta leialtasuna bultzatzeko funtsezko tresna bezala ikusiak direla, beraz:

(...) donde un grupo étnico ha logrado obtener el consentimiento del Estado para tales arreglos, este simple hecho indica un grado tan alto de esfuerzo e influencia políticos del grupo, que este solo hecho convierte al grupo en cuestión en una nacionalidad propiamente dicha.

Aro aurremodernoetan, demokrazia eta nazionalismoaren etorrerak kohesio eta integrazio etnikoari buruz sorturiko kezka egon barik, bestelakoak ziren politikarien kalkuluak, Estatuak populazio eleanitza zuela, eta bereziki, talde linguistiko desberdinak, bakoitza zonalde batean kontzentratuak, egunerokotasunean eta elkartrukaketa ofizialean erabiltzeko erraztasun handiak eskaintzen ziren. Integrazioa, integrazio erlijiosoak salbu, Estatuak antolaturiko zerbait izan beharrean, antolaturiko gabeko indarren eskuetan uzten zen.

Hortaz, Ilustrazioa, demokrazia eta nazionalismoaren etorrera baino lehenago, Estatuak, soilik, bilatzen zuten integrazio erlijiosoak; harrezkero, integrazio etnikoa bilatzen dute: edozein denboratako Estatu buruak, arau politikoaren legitimazio nagusia eratzen duen balore sistemaren laguntza morala eskuratzen ahalegindu dira. Botereak oinarri erlijiosoak zuela, Estatuaren egonkortasunerako arrisku itzela ordezkatzeko heterodoxia erlijiosoak. Arau politikoaren legitimazio iturria herriaren onarpena delarik, Estatuaren osotasuna arriskuan ezartzen duena herriaren osaketa hetero-etnikoa da.

4.3. Nazionalismoaren helburuak eta ekite moduak

Teorilari guztiok bat datoz nazionalismoaren protagonismoaz, aro modernoan zein gaur egun eta etorkizunean ere, hitz egiterakoan. Protagonismo hori dela eta, nazionalismoa azaltzeari ekin diote bide desberdinak urratuz: batzuek nazionalismoak sortzen eta garatzen dituzten baldintza sozialak eta politikoak aztergaitzat hartzen dituzten bitartean, beste batzuek eraikuntza kultural gisa ikusten dute; argibideak bilatze jarduera honetan, askok tipologiak eraikitzeari ere ekin diote. Eta, jakina, ia lan guztiak nazionalismoa zer den eta zer nahi duen zehazten ahalegindu dira. Ekarpen eta gai guztiak hona ezin ekarri-eta, plazaraturiko makina definizio horietatik gure intereseko batzuk aukeratu eta landu ditugu.

Oso hausnarturiko definizioa dugu honako hau:

El nacionalismo es la solidaridad activa de una colectividad humana que comparte una cultura común, o un fondo común de experiencias e intereses significativos, se define como una nación, y aspira a la unidad política y al autogobierno

Definizio horren helburuak lirateke, lehenik, nazionalismoa gizarte mugimendu gisa ikustea, hau da, gizarte ekintza sistema gisa; non, taldearen kontzientziak eta antolakuntzak elkarrelerlazonaturiko oinarrizko osagai multzoa eratzen baitute. Planteamendu hau egokia da, gure aburuz, sentimenduen gainean, ideologiarik eta antolakuntzarik gabe ezer eraikitzea oso-oso zaila delako. Bigarrenik, halako gizarte mugimendu batek zein motatako gizatiar taldean eragiten duen gal dezakegu. Eta, hemen argi dagoena zera da, kolektibitate honek nazio bat dela pentsatu behar duela; alta, zerbait argitu barik gelditzen da: kolektibitate osoak edo soilki, mugimenduan parte hartzen dutenek pentsatu behar dute nazio bat direla?

Hirugarrenik, ekintza sistema horren helburuak zehaztea: batasun politikoa eta gobernu. Badirudi, azken ezaugarri hau sartzean nazionalismoa Estaturik ezean soilik existitzea planteatzen dela. Behin batasuna eta independentzia lortuz gero ez balego nazionalismorik! Baina, preseski, kolektibitate nazionalaren elkartasun aktiboa mantentzeaz gain, hazi eta indartu daiteke, batez ere, gobernu nazional batek bultzatzen duelarik.

Horrez gain, nazionalismoa gizarte mugimendu gisa ikusteak -eta ez nazioari datzekion indar gisa- alderatze orokorra, eta mugimendu orori datzekion urratsak dituzten prozesu terminoetan,(hasiera urratsa, antolatze urratsa, zabaltze urratsa, egonkortasun urratsa, arrakasta edo porrot egoera eta abar...)

behatzea ahalbidetzen du. Beste gauza batzuen artean, eta beste gizarte mugimenduekin alderatuz, nazionalismoa izaera errepikaria edo kronikoa delako. Garatu behar den baldintzetara, taktikaz eta ideologiaz egokitzen da, itxuraz eta berehalako helburuez aldatzen da, baina, suntsigaitza da. Behinik behin, bere existentziaren oinarritzko baldintzak irauten dituzten bitartean: oinarritzko identitate taldea nazio bezala ikustea eta nazio honen funtsezko eskubideren baten gabezia sumatzea.

Beste definizio interesgarri dugu, Fishmanek proposatzen diguna:
Aquella organització més general i comprensiva, i les creences, valors i comportaments específics, que les nacionalitats desenvolupen en benefici del seu propi i definit interès etnocultural.

Autore honentzat, nazionalitate bat talde etniko baino garatuago, zabalago eta konplexuago den *batasun soziokultural* bat da; batasun horrek, mugimendu *nazionisten* bitartez, orokorrean, nazio-estatu estatua garatze, mantentze edo lortzeko asmoa du. Horrela, Fishmanentzat, *nazionismo* nazionalismo espezifikoki

politikoa litzateke, eta nazionalismoa zentzu zabalean *interes etnokulturalekin*" erlazionaturik legoke, adierazpen politikoarekin ala adierazpen politikorik gabe. Eta, zeintzuk dira funtsezko interes etnokultural horiek? Fishmanentzat: batasuna eta benetakotasuna. Dakigunez, nazionalisten ahaleginek bi norabide hartzen dituzte: alde batetik, populazioaren gehiengo batek ezaugarri propio eta desberdinak dituen talde baten - nazioa edo nazionala bezala definiturikoa- partaide direlako kontzientzia izan dezan eta, nazioaren partaide izatearen garrantziaz ere jabetzea lortu nahi da. Hau da, posible den batasun indartsuenera eta zabalenera ailegatzea, ez soilik lurraldeari dagokionez, baizik eta, sozialari eta moralari dagokienez ere. Bestetik, talde horren identitatea, denboran zehar, babestua izan dadin. Hortaz, tradizioa babestea funtsezkoa da: *desberdintasunezko egitate* bat irauraztea igorpenaren bidez. Horrela, identitateak eta tradizioak, gauza bera eta bakar baten bi dimentsio adierazten dituzte, ezaugarri "objektiboa" eta ezaugarri "historikoa". Beraz, *zen bezala* -kanpoko eraginik aldatu gabe-, iraun duenaren berreskurapenak eta erabilerak berebiziko garrantzia du. Helburua da, orainak iragan propioaren jarraipen egoki eta barneratu bati jarrai diezaion. Beste gauza batzuen artean, historia *komuna* egungo nazioaren oinarria da, halako historia komun gisa onartua eta interpretatua den neurrian. Nazionalistek, orduan, naziotasuna eta euren identitate desberdina bultzatzea, ziurtatzea, berrindartzea helburutzat dute, besteok ekin eta antola daitezen.

Aurreko lerrootan esandakoaren arabera, zentzu orokorrean esan dezakegu, nazionalismoa nazioa edo nazional gisa izendaturiko talde beraren batasuna, benetakotasuna eta autogobernua helburutzat hartzen dituen gizarte mugimendu bat dela. Baina, egitatez, ikusi behar non eta zein egoeratan dauden nazionalismoak, ezen, horren arabera helburu desberdinak eta ekiteko modu desberdinak erakusten baitituzte. Egoera horiek ahalik eta gehien sinplifikatuz, ondorengoak izan daitezke:

- Estatua daukan nazio bat.

- Estaturik gabeko nazio bat.

- Naziorik gabeko estatu bat.

Ikus ditzagun, gainera bada ere, kasu bakoitzean nazionalismoak bideratzen dituen ekite moduak eta hauen helburuak.

4.3.1.- Estatua daukan nazioaren nazionalismoa

Nazio batek, Estatu zabalago bat meneratzen duelarik, sortzen duen nazionalismoak ezaugarri bereizgarriak eta nazio meneratzailearen esparrua Estatuaren mugekin bat etortzea helburu iraunkortzat hartzen du. Nazionalismo meneratzailea Estatu osoa nazio politiko bakarra bihurtzen ahalegintzen da. Helburu honekin, Estatuaren tresneria beraien barruan kokaturik, eraginkorrenak diren bitarteko hertsatzaileak eta eragileak, -sinbolikoak- erabiltzen ditu. Holako nazionalismoaren adibide paradigmaticoa dugu frantziar nazionalismoa, Carlton Hayesek, oroigarri den liburu batean: *France. A Nation of Patriots*, ondo ederto islatu duena. Adibide horretan, Estatuaren ekintza osoa *mugimendu nazionalista* bilakatzen da. Instituzio ofizial eta publiko ororen ekintza *frantziar kontzienteki nazionalak* sortzera zuzendurik dago. Hezkuntza, armada, erritual publikoak, monumentuak, mota guztietako alderdi politikoak, funtzionarioak, udalak, ..., denak nazionalizazio sistematikoaren bitarteko gisa erabiliak dira.

Alabaina, nazionalismo mota honek ez du soilik Estatuaren mugak nazio politiko bakar batekin identifikatu gura, baizik eta nazio kultural bakar bat ere gura du; eliteen *komunitate moral* bakar bat, kultura sortzeko eta komunikazio esparru bakar bat, eta posible bada, hizkuntza kultu bakar batekin edo gutxienez, hizkuntza kultu meneratzaile batekin: Estatua daukan nazioarena, jakina. Irensketa-desagerketa prozesu honek arrakastarik ez badu, gutxienezko

irtenbide gisa, *funtsezko batasuna* mantenduz gero, *kultur aniztasuna* onartzea izango da.

b) Nazio eta Estatuaren mugak bat datozelarik -kasu hau nazio eratze prozesuetan oso-oso urria izan da-, eta nazioa (kulturala eta politikoa) ez meneratzailea ez meneratua ez delarik, bere batasun-benetakotasuna ziurtatzeko Estatu nahikoa daukalarik, nazionalismoa mugimendu erreala eta aktiboa baino potentziala izango da: alde batetik, abertzaletasuna lasai eta sinple bat egongo da eta identitatea iraunarazteko ekintzak arautuak; bestetik, identitatea edo independentzia mehatxatuta egonez gero, erreakzionatzeko gaitasuna.

4.3.2.-Estaturik gabeko nazioaren nazionalismoa

a) Nazioa Estatu batzuen artean banaturik dagoela, nazionalismoaren funtsezko helburua batasuna da: batasuna (ber)eraiki nazio kultural gisa, kultura sortzeko, eliteen komunitate, komunikazio esparru bakar bat gisa, literaturan eta hezkuntzan hizkuntz bakar bat, eta abar...(Ber)eraiki nazio politiko bakar bat haren kide guztientzat leialtasun eta xede gorengo esparru gisa. Begi-bistakoa da, batasunaren oinarria helburu gisa, bere aurreko existentzia batasun etniko, kultural historiko-politiko gisa sumatzean datza. Aldez aurretiko batasun hau -etnikoa, historikoa, politikoa- nazionalistek erreala eta garrantzi handikoa, erabakigarria dela diote, nahiz eta, barreiatu dagoen populazioa halako batasunaren kontzientziarik ez izan edo garrantzi gutxikoa iruditu.

b) Nazioa, beste nazio batek meneratzen duen Estatuaren zati bat delarik, sortzen duen nazionalismoa aurreko orrialdean jorraturiko lehenengo nazionalismoaren aurkakoa da. Begi-bistakoa da, nazio meneratzailearekiko desberdintasuna, identitate desberdina, azpimarratzea eta indartzea dela bere asmoa. Identitate-leialtasuna esparru propioak, beste nazio batek definituriko esparruari ez diezaion

jarrai. Hau da, zati bat ez dadila izan, hark definituriko osotasun bat baino: nazio-estatua identifikazio ahaleginetik, nazio bat bezala Estatuak egiten duen definizio ahaleginetik haren burua baztertzea. Hortaz, herria bera *beste* herri bat dela, bere kultura *beste* kultura bat dela sinistu eta erakutsi behar da. *Nazionalismo* batek onartzen badu mendetasun egoera bere talde nazionalarentzat, behin betiko egoera bezala, ez da halako nazionalismorik.

4.3.3.-Naziorik gabeko Estatuaren nazionalismoa

a) Estatua, lurralde kolonial homogeneo baten independentziaren emaitza delarik, nazionalismoaren helburua batasuna mantentzea eta indartzeaz gain, batez ere, partaide izatearen sentimendua, nazio politikoaren eraketa metropoliarekiko benetako kultur identitate berri bat komuna eta desberdina, sortzea da. Horrela, XIX. mendeko Europan gertaturikoaren kontra, estatu berri hauetan, nazionalismo politikoa kulturala baino lehenago agertzen da.

b) Estatua lurralde kolonial heterogeneo baten independentziaren emaitza dela, nazionalismoaren helburuak aurrekoaren berdinak izan beharko lituzkete. Desberdintasuna da eskuraezina dena.

Arestion esandakoaren arabera, zera azpimarra daiteke: mugimendu nazionalistetan, oinarrizko identitate esparrua eta kultur identitate esparruaren arteko erlazioa, nazio politikoa, nazio kulturala eta Estatuaren arteko erlazioak eragiten duela.

Nazionalismoen ekite moduez ari garelarik, espazio eta sasoi bereko nazionalismo kasuak alderatuz gero, prozesu horietan, Europako nazionalismo klasiko guztietan, erregularitasun komun batzuk,-neurri desberdinetan, jakina-, sumatu daitezke. Hala

nola:

- Europako mugimendu nazionalista oro herri osoaren edo masen ekintza aldarrikatzaileen emaitza barik, elite urbanoaren ekite eta zabaltze ideologikoaren emaitza dira.
- Guztiak, zati edo gizarte klase baten interes materialen adierazpen bezala agertu baino, herri-nazio osoaren interes eta premia moralen adierazpen bezala agertzen dira.
- Guztiak nazio kultural baten (ber)eraikitze proiektu-egoera batetik abiatzen dira, nazio politikoaren egoerara ailegatu eta, azkenik, bere Estatu independente edo elkartu bat eratze proiektuarekin amaitzen dira.

Nazionalismoa, XIX. mendeko langileen mugimenduarekin alderatuz, ez da aldarrikapen zehatzen inguruko mobilizazioekin hasten den mugimendu bat. Ideiak lantze eta zabaltzearekin hasten da. Beste zioen artean, gizakien gehiengo batek ez baitu zapalkuntza nazionala esperimentatzen ustiakuntza ekonomikoa bizitzen duten modu berean,-lehenengoa, askatasun demokratikoen gabezia bezala, eguneroko bizitzarekin eta bizi baldintza materialekin ez baita nahasten; hau dela eta, ez askapen nazionalik ez inongo diktadura suntsitzerik ez dira herri matxinada espontaneo baten emaitzarik izan; halako matxinada suertatu denean, alde zuzeneko propaganda eta antolaketa egon delako izan da-. Ezin ahantzi, Europako nazionalismo guztiak intelektualen guneetan sortuak direla: idazleak, irakasleak, pentsamendu eta lumaren esparruan. Salbuespenik gabe.

Baina, nori zuzendua dago intelektualen lehenengo ekintza ideologikoa hau? Hasieran klase ertainari eta batez ere, klase ertain urbanoari baldin badago. Gai eta une horretan hasten dira desberdintasunak. Europako nazionalismoen historian, klase ertaina -urbanoa edo hiriekin erlazionaturikoa- indartsu eta zabal baten existentziak, aldarrikapen, kontzientzia eta premia kulturalen zabaltze eta orokortze

arina ekarri du, eta mugimendua berehala iragatea esparru politikora. Halako klaserik ez egoteak ekarri du, mugimendua hasierako esparru kulturean gelditzea inolako eragin sozialik ez politikorik izan gabe; beraz, baldintza historiko sozialak aldatzeko ahalmenik gabe.

Nazionalismo batzuen historian -txekiarra, poloniarra, finlandiarra, serbiarra, eslovakiarra, errumaniarra edo kroaziarra- sumatu daiteke ere beste

erregulartasun bat, urrats batzuk eta antzekoa den emaitza: *nazioa komunitate moral gisa berreraikitzea*. Ikus ditzagun zeintzuk dira pauso horiek:

- Ilustrazioak eta Erromantizismoak gutxiengo kultuengan, euren iraganaz, herritar kulturaren ondarearen benekotasunaz, euren hizkuntza antzinaz, eta abar... interesa piztu zuten. Zer esanik ez, interes horrek aipatutako helburu horretara dedikaturiko elkarteak sortu zituen.

- Hizkuntzaren irakaskuntzari buruzko aldarrikapenek, legeak baimentzen duena baino harago, bigarren urratsa ezaugarritzen dute: hezkuntza sisteman ez bada agertzen, irakasgai bezala irakatsia izatea eskatzen da; oinarrizko hezkuntzan badago, bigarren hezkuntzan ere ezartzea eskatzen da eta abar...Nazio eskola sistema osoaren proiektua agertzen da, unibertsitateak burutua, hizkuntza, balore eta eduki propioekin, berehalako edo urrutiko helburu gisa. Aldi berean, herritar izaerako elkarte kulturaletan oinarrituta eta instituzio ofizialetatik at, hizkuntzaren irakaskuntza antolatzen da, populazio osoari hizkuntza kultura eta mezu nazionala zabaltzeko asmoarekin. Hedaketa handitze egoera honetan, nazio hizkuntza idatziaren zabaltzeak, kultura nazional baten (ber)eraikuntzarako oinarriak ezartzen ditu.

Hemendik abiaturik -saioa ez bada geldiarazia- norabide bikoitzean aurrerapen erabakigarri bat gauzatzen da:

Prozesua "independentzia kulturalarekin" burutzen da; hau da, kultura sortzeko eta zabaltzeko barne esparru bat eratzen da bat eginik, ez Estatuaren esparruarekin ezta nazio meneratzailearen esparruarekin ere, baizik eta, hizkuntza propioarekin, dagoeneko, nazional gisa definiturik. Lehenengo idazleek, geroago historialariek, gizarte ikertzaileek, unibertsitatekoek, artistek, aktoreek, musikariek eta abar...poliki-poliki, esparru hau ikusten dute, euren funtsezko erlazio-eta jarduera-esparru bezala, (beste gauza bat da, nabaria denez, nazioarteko korrante kultural eta ideologikoak barneratzea bizkortasun gehiago edo gutxiagorekin, eta euren lanak kanpoan oihartzunik izatea gura). *Kultura sortzaileen* gehiengo batek, esplizituki ala inplizituki, esparru hau erabiltzen duela, euren funtsezko lan-eta zabaltze-esparru bezala, *nazio kulturaren gizarte bat* eratua da.

Komunikazio eta kultura sortze esparru honen eraikuntza(edo berreraikuntza)barruko eta menpeko ez den esparru bezala, beti,-nazionalismo klasiko guztietan-, gero eta izaera politikoago izan duen aldarrikapenen mugimendu batek lagunduta egon da. Mugimendu horrek, kultur identitatea, legalki, bermatzera jo du -hizkuntzaren ofizialtasuna, hezkuntzaren *nazionalizazioa* eta beste...-; Estatuan nazio meneratzaileak ezartzen duen kontrola murriztera, edo Estatuaren egitura bera aldatzera, nazio espazio propioa botere politikoa izateko eta erabiltzeko espazioa izan dadin ere. Edozelan ere, honek esan gura du nazio kulturala ekintza politikorako esparru bihurtzen dela. Eta joera hau erakunde eta ekintza politiko orokorrean sartzen delarik, populazioaren gehiengo batengana ailegatzeko delarik, esan daiteke nazio politikoa (ber)eraikia dagoela: honen esparruak, berak, oinarrizko identitate-eta leialtasun-taldea ezartzen du, eta ez

Estatuak definituriko esparruak. Nazioa *komunitate moral* gisa prozesu horren guztiaren emaitza da.

Aurreko prozesuan hizkuntzari zein hezkuntzari emandako garrantzia ikusirik, ez genuke atal hau amaitutzat eman nahi nazioa, hizkuntza eta hezkuntzaren arteko erlazioez ezer esan gabe. Goazen, bada, erlazio horien sakoneko argibideen bila.

4.3.4.- *Nazionalismo, hizkuntza eta hezkuntza*

Edozein kolektibitatek, berau osatzen dutenen artean elkartasunezko lokarriak sortzen ditu-edo sortu nahi ditu-. Hizkuntza lokarri komunitariorik garrantzitsuena dugu: mugak definitzen, komunikazioa ahalbidetzen, historia komun bat ikusgarria egiten eta azken honen ondorioz oroimen kolektibo baten objektibazioa ahalbidetzen; berau, oroimen kolektibo horren adierazpena izaki, hau da, sinbolo. Horrela, hizkuntzak komunitatea ikusgarria egiten du hizkuntz komunitatetik at mugak sortuz eta lokarriak eraikiz beraren baitan.

Edozein sinbolok argitze funtzio bat betetzen du. Era berean, hizkuntzak, komunitate sinbolo gisa, *gu* delako hori azaldu, ordenatu eta zentzuz betetzen du eta *gu* horren barruko kide banari ere bai. Sinboloek gizatiar existentziaren galdera esentzialak azaltzen dizkigute: nortzuk gara? nondik gatoz, zein da gure jatorria? nora goaz? Edozein komunitatek bere historiari buruzko azalpen hauek partekatzean bere kohesioa eskuratzen du, Durkheimen esanetan: *es comunidad ante todo por la idea que se hace de sí misma*

Hizkuntzak bere kategoriez baliatuz mundua ordenatzen digu, baina, aldi berean,

hark, sinbolo gisa, komunitatearen historia argitzen du; *gu* delako hori, gure hizkuntza mintzo ez direnen aurrean. Sinbolo gisa, gainera mitoak bere mobilizatzeko indarra ematen dio. Hizkuntzak sinbolizatzen duen taldearen indarra dauka, botere bat jasotzen du eta, hortaz, eraginkortasun sinboliko bat, zeinak, jarrera eta ekite modu zehatzak lortzen baititu:

La lengua no es simplemente un medio de comunicación y de influencia personal(...) La misma lengua es contenido, un referente de lealtades y animosidades(...) puesto que simboliza a la comunidad integrada a su través. La lealtad a la lengua es lealtad al grupo, y la defensa y movilización por la lengua, lo es por aquél.

Nazionalismoa ezaugarritzen genbiltzalarik, honako helburu hauek esleitzen genizkion, taldearen batasuna, benekotasuna eta burujabetza eskuratzea. Duda izpirik ere ez zaigu gelditzen, goian esanak argituta, edozein nazionalismok hizkuntza ezinbesteko osagai duela, behinik behin, lehenengo bi helburuak erdiets ditzan. Dena dela, ez nahikoa.

La lengua junto con la religión y la representación, -participación /legitimación-política continuada y común, son los elementos repetidos históricamente como base de las identidades colectivas o comunitarias. Comunidades lingüísticas, religiosas y/o políticas. Todos ellos simbolizan, fundan la comunidad; cada uno de ellos por separado, o todos a la vez: la comunidad ideal.(...) Pero es sobre todo la comunidad política la fuerza de la identificación, sistema simbólico común, más importante, porque su "poder de determinar procesos decisivos de socialización y, por tanto el poder de producir la realidad" es infinitamente superior a cualquier otro.

Batik bat, komunitate politikoak, Estatuak, sozializatzeko prozesurik erabakigarrienak gauzatzeko botere gehien daukana dela diosku Mirandak. Eta botere horren adierazletako bat nazio hizkuntza sistemaren eraketa eta garapena dugu. Azken honek Estatuak definituriko herriaren homogeneousun kulturala bilatuko du, hizkuntzaren baterakuntza, nazio hizkuntza gisa definituz, funtsezko tresna izaki;Ezin ahantzi, alfabetatze unibertsalaren bitartez, lurraldean eta hizkuntzan oinarrituriko nazio sentimendua pizten dela.

Hala ere, nazio hezkuntza sistemaren sorrera eta garapenari buruzko literaturari so eginez, berehala, ohartuko gara prozesu honek bizituriko ibilbide historiko desberdinen existentziaz eta, halaber, mendebaldeko gizarteetako

estatuen inplikazio maila desberdinaz. Gure aburuz, lehen esana argien utzi dutenak *Hedapen ideologikoaren teorilariak* delako ikertze lerroko kideak izan dira.

Egile hauen arabera, Hezkuntza Sistemaren sorrera, euren hitzetan masa hezkuntzaren sorrera eta garapena, prozesu integratzaileekin ipini behar dira harremanetan; eta, beraz, legitimazio bilaketarekin. F. O. Ramirezek eta J. Bolik Europako masa hezkuntzaren eraikuntza politikoa azaltzen doazelarik, honako prozedura hau segitzen dute:

a) Lehenik, Europan, hau osotasun bezala harturik *-European model of a National Society-* instituzionalizaturiko bost mito legitimatzaile aztertuz: gizabanakoaren mitoa, nazioa gizabanakoen batura gisa, nazioa zein banakoaren garapenaren mitoa, sozializazioa eta bizitza-zikloaren jarraipenaren mitoa eta estatuaren mitoa nazioaren babestzailearen gisa. Mito hauek, autore horien iritziz, berebiziko garrantzia dute estatuaren babespean sorturiko eta garaturiko masa hezkuntzan.

b) Bigarrenik, Europan gizarte egitura eta kulturaren hiru eraldaketa nagusik, Reforma eta Kontrarreforma, nazio-estatua eta estatuen arteko sistemaren sorrera eta merkatu ekonomiaren finkapena, gizarte nazionalaren eredu Europarra moldatu zutelakoan daude.

Goian esanda kontuan harturik, ikerlari hauek honako hau argumentatzen dute:

Europar estatuak, estatu hezkuntza sistema hartu behar izan zuten, lehia ari zireneko giroak inposaturiko nazio eraikitze prozesuaren parte bezala. Estatu hezkuntza sistema, gizarte nazionalaren eredu nagusiak emandako legitimitate zabala zela-eta, zentzuzko eta aldi berean derrigorrezko zeregin antolatzaile bihurtu baitzen. Agian, *Europar gizarte nazionalaren eredu* horren azalpen sakonago baten bidez, ulergarriago egingo zaigu aurreko lerrootan esana.

Dagoeneko, XIX. mendean, gizabanakoa gizarte egintzaren oinarritzko entitate bihurtzen da eta gorengo balio iturri ere bai. Antzinako entitate korporatiboagoak, familia, klana, erlijioa eta beste -bestalde, garrantzi handikoak zirenak- baztertuak geldituz. Aldaketa honekin estuki erlazionaturik nazioaren definizio instituzionalizatua zabaltzen da: nazioa gizabanakoen batura gisa. Garapen nazionala gizabanakoaren garapenean oinarritzen da eta, beraz, nazioa berrindartzeak gizabanako berrindartzea ere eskatzen du. Modu berean, norbanakoaren garapenerako haurtzaroaren esperientzia funtsezkoa zen. Honek guztiak, haurren garapena nazioaren interesekin lotzen zuen:

The emerging systems of mass schooling were expected...to create the new national society , that is, to make progress possible. The latter was expected to be accomplished via the production of the new man.(...) the emerging systems of mass schooling were designed to achieve unity and progress .

Umeen ongizatea nazioaren interesekin lotua zegoela uste zenez, Europar gizarte nazionalaren ereduak estatuari esleitu zitzaion haurren sozializazioaren ardura. Nazioaren ardura estatuari esleitzean, estatu eta eskolen arteko batuketa nagusi bihurtu zen nazio suspertzearen mugimenduan. Horrela, masa eskolatze estatu sistema, nazio eraikuntza prozesuan, hiritartasunaren hedapenean eta masen homogeneotzean hobetsitako estrategia bilakatu zen.

Beyond defining and extending national culture, mass education defines almost the entire population as possessing this culture, as imbued with its meanings, and as having the rights implied by it. Mass education defines and builds the nation

(Marshall 1948; Bendix 1964). It allocates persons to citizenship establishing their membership in the nation over and above various subgroups. And it directly expands the definition of what citizenship and the nation mean and what obligations and rights are involved.(...) Individuals come to be defined as possessing the competencies and the moral orientations to participate in an expanded collective life

Masa eskolatze nazio eskolatze bihurtu eta estatuaren autoritatea, nazio hezkuntzaren gainean, arau bilakatu zen. Egitate honen aldekoa, ikerlari hauen

iritziz, suertatu ziren Europako gizarte egitura eta kulturaren hiru eraldaketa nagusi: Reforma eta Kontrarreforma, nazio-estatua eta estatuen arteko sistemaren sorrera eta merkatu ekonomiaren finkapena. Reforma eta Kontrarreforma mugimenduen esperientziek norbanakoaren lehentasuna, haurtzaroa eta bere sozializazioaren esangura eta estatuaren autoritatea legitimatzen zituzten mitoak sortzean; estatuen arteko sistema jainkoaren eskubidean oinarrituriko zentralizazio handiko monarkia askeen bilduma batetik, *nazioa* estatuaren ekintzarako aitzakiatzat hartzen zuten elkarmenpekotasun handiko nazio-estatuen sare batera bideratzean; horren ondorioz, XIX. mendetik aurrera estatuen proposamenak eta egiturak hertsiki uniforme bihurtu ziren. Horrela, masak nazio-hiritar bilakatzea, estatuek zuzenduriko egitate standarizatu izan zen nazio eraikitze prozesuetan. Azkenik, merkatu ekonomia berriak, merkatu trukaketetan zergak ezartzean, estatuaren zerga-boterea handitu zuen; horren ondorioz, aldaketa legalak eta instituzionalak burutu ziren ere. Are gehiago, Europako antolakuntza ekonomikoak bi autoritate mota eman zizkion norbanakoari, bata, euren jarduera produktibo bideratzea ahalbidetzen zuena; bestea, estatua ekonomikoki sustengatzeko ardura. Ekonomikoki integraturiko European zegoen lehiakortasuna kontuan harturik, norbanakoen produktibotasuna eta leialtasuna kezka nagusi bihurtu zen estatuaren autoritateentzat. Horrek ideologia ekonomiko eta sozial bat sorrarazi zuen, zeinak, alde batetik, hezkuntza orokortzeari sustengua ematen baitzion; eta, bestetik,

aurrerapen nazionala bideratzeko estatuak kontrolaturiko eskolatzearen ideologia politikoa osatzen zuen.

Ikusi dugunez, Europako masa hezkuntza eredu honetan estatuak berebiziko garrantzia izan duen bitartean, oso bestelakoa izan da itsasoz handiko, Estatu Batuetan, masa hezkuntzaren sorreran estatuak jokaturiko rola:

*Autoritate zentrala ahula denean, **gizarteko kideak sortuz (creating societal members)** delako ereduaren inguruan eraiki da hezkuntza sistema...Meyer, Tyack, Nagel eta Gordon ikerlariak, aldiz, gizarteko kideak sortuz delako ereduaren harira, ukatu egiten dute EEBBetako masa hezkuntzaren sorreran estatuari egotzitako rola.*

Eredu horretan, masa hezkuntzaren sorrera eta garapen prozesua, nazio eraikuntzarekin bat datozen ideia politiko, erlijioso eta ekonomikoekin harremanetan ipintzen da. Horrela, prozesuaren eragile nagusia gizartearen zenbait sektore suertatzen dira, hain zuzen ere, nekazal sektoreak (the American farmer); hau da, prozesu honetan eragile nagusia estatuaren burokrazia izan beharrean gizarte bera izan da:

..it was not a narrow elite or powerful state that erected schools across the country but rather hundreds of thousands of people who shared a common ideology of nation-building.

Teorilari hauen ekarpena kontuan harturik, honela diosku Mateosek:

Dudaezina da, baieztan da, Estatu Batuetako hezkuntza sistemaren bilakaera historikoa lotuago egon dela naziotasunari estatuaren eraketari baino.

Begi-bistan da, nazio estatu zentralizatuaren eraikuntza ez dela prozesu honen helburu izan; baina, naziotasunarekin lotura hori azpimarratzeak zer esan nahi du masa hezkuntzaren eredu honek hiritartasuna hedatzeari eta masa homogeneotzeari ez diela ekin? Ikerlari honek *autoritate zentrala ahulaz* hitz egiten duen bitartean, Tocquevillek honela diosku:

"Estatu Batuetan zentralizazio administratiborik ez dago, baina bai gobernu-zentralizazio oso handia".

Federalismoaren ezaugarri horrek, ondorengo saihesteko balio du pentsalari honen ustez:

*... zentralizazio administratiboak beraren menpe jartzen diren herriak ahultzeko bakarrik balio duela pentsatzen dut, jendearen artean **izpiritu hiritarra gutxitzen** jotzen baitu etengabe.*

Berba horien atzean hiritartasunaren bestelako kontzeptua dago, naziotasunarekin bat egiten duen hiritartasuna, eta ez estatuaren instituzioekin soilik harremanetan dagoena naziotasuna eta hiritartasuna eremu bereziak eginez. Hortaz, Estatu Batuetan masa hezkuntzaren garapena naziotasunari zein hiritartasunari loturik doa; ezin ahanzi, Europako masa eskolatzeari baino arrakastatsuago suertatu dela bere hedapenean, bere unibertsalizazioan, eta ondorioz, badirudi, eskolatzeari alfabetatzeari unibertsalizazio arrakastatsuago horren bitartez nazio sentimendua piztean ere arrakasta handiago lortu beharko zukeen.

Dena dela, izaera bateko ala besteko estatua daukaten nazioez gain, komunitate politikorik ez duten nazioen nazionalismoek ere alfabetatze unibertsalaren garrantziaz jabetu dira nazio sentimendu hori piztu ahal izateko, nazio bera bizirik irauteko, hau da, komunitate politikoa lortu ahal izateko. Euskal nazionalismoa ez da salbuespen. Honen kultur iratzartze urrats desberdinei buruz, euskaraz eskolatzeari eta alfabetatze unibertsalarekiko kezka eragilearen berri emateaz laster arduratuko gara. Baina, lehenago, ikerketa lan honen subjektu diren eragilearen rola hobeto ulertu ahal izateko beste gai bat jorratzeari ekin behar diogu: genero eta nazioaren arteko hartu emanari.

“ Como ponen de relieve las recientes historias de las mujeres, éstas han tenido casi siempre un importante protagonismo en las revueltas y movimientos sociales. Sin embargo, si la participación de las mujeres no es consciente de la discriminación sexual, no puede considerarse feminista.” Miguel, Ana de (1995). *Feminismos*: 217 orr. 10 palabras clave sobre Mujer. Lizarra, Verbo Divino: 217-255 orr.

Gai honen inguruan ongi ulertuak izatearen beharra sentitzen dugu, ekimen horiek ez ditugu feministatzat jotzen, lehen Ana de Miguelek esanak aipatuz erakutsi dugunez.

Akzin, B. (1968). *Estado y Nación*. Mexico, Fondo de Cultura Económica: 7 orr.

Momentuz gurea egingo dugu terminologia honen erabilera aurreragoko utziz, gure ustez, egin beharreko ñabardurak.

Termino hauen eta hauekin zerikusia daukaten beste askoren esanguren nahasgarritasun egoera, ikus: Deutsch, 1966(1.atala); Rustow, 1967(1. atala); A. D. Smith, 1976(7.atala); Connor, 1978; Connor, 1998 (4. atala).

Smith, A. D. (1976). *Las teorías del nacionalismo*. Bartzelona: Península.

Akzin, B. (1968). *Estado y Nación*. Mexico: Fondo de Cultura Económica.

Llobera, J. R. (1996). El dios de la modernidad. El desarrollo del nacionalismo en Europa occidental. Bartzelona, Anagrama: 11 orr

Mira, J. F. (1984). *Critica de la nació pura*. Valéncia: Edicions Tres i Quatre. Eliseu Climent Editor.

Mira, J. F. (1984). Op. Cit. 43-46 orr.; Adibide hau duela gutxi hizpide izan dugu gure inguruan L. Morenoren eskutik, ikus: Moreno, L. (1998). *Local y Global: la dimensión política de la Identidad Territorial*: 128-129 orr.in *Inguruak*. 20: 117-139.

Smith, A. D. (1996): Op. Cit.

Akzinek eginiko aipua: " Precisamente lo que constituye un grupo étnico no es mucho más claro que lo que constituye una nación. La utilidad del término étnico estriba en que es más neutral y está más libre de asociaciones emocionales de aprobación y desaprobación que el término de nación y sus derivados." in: Op. Cit., 10 orr.

Mirá, J. (1985): Op. Cit. 46-47 orr. Iritzi berakoa da Michael Keating: " Poner a los nacionalismos minoritarios la etiqueta de étnicos refleja otra vez inclinación al orden estatal existente y rechazo de los movimientos minoritarios por juzgarlos exclusivos, divisivos y desorganizadores ." In Keating, M. (1996). *Naciones contra el Estado. El nacionalismo de Cataluña, Quebec y Escocia*.

Atal honen hasieran egin dugun legez.

Conde, F. J. (1951). *Sociología de la sociología. Los supuestos históricos de la sociología*. *Revista de Estudios Políticos*/, 58, 15-29.

Rousseuren pentsamenduaz aritu izan gara 3. Atalean, ikus: 133 eta hur.

Hayes, C. (1928). *Essays on Nationalism*. Mac Millan, New York. 21 orr.

" *Lor tratados sobre* el nacionalismo han reconocido con frecuencia dos tipos ideales: el étnico y el cívico (Greenfeld, 1992; Smith, 1992). Los terminos que se usan varían con frecuencia, pero es en esencia la misma distinción que existe entre el continental o alemán y el liberal (Kohn, 1994; Snyder, 1954); el cultural y el político (De Blas, 1994); el voluntarista y el organicista (Renaut, 1991). Difieren en la cuestión de quién constituye la nación y en la base de legitimidad de las exigencias nacionalistas. Uno presenta la pertenencia a la comunidad nacional como algo que se da o es atribuible; el otro considera que los individuos se constituyen voluntariamente en colectividad." In Keating, M. (1996) *Naciones contra el Estado. El nacionalismo de Cataluña, Quebec y Escocia*. Ariel, Bartzelona. 13 orr.

Renan, E. (1988). *¿Qué es una nación?* Madril: Alianza.

Hezkuntza eta nazionalismoaren arteko erlazioa, hainbat aldiz aipatua izango da atal honen zehar. Atal honen amaieran erlazio horri argitzeari ekingo diogu.

Aipatua in Mirá, J.(1985). Op. Cit: 85 orr.

aipatua in Ginsberg, M. (1961). Nationalism. A Reappraisal.:27 orr.

Deutsch, K. W. (1971). *El nacionalismo y sus alternativas*. Buenos Aires: Paidós.

Snyder, L. S. (1954) *The meaning of Nationalism*. Rutgers Univ. Press, New Brunswick.

Minogue, K. R. (1967). *Nationalism*. B. T. Batsford, London.

Sulzbach, W.(1943). *National Consciousness*. American Council of Public Affairs, Washington.

Esaterako, Irlandaren kasua.

Connor, W. (1998). Etnonacionalismo. Madril, Trama Editorial, S. L.: " (...) *Estado-nación* (...)Esta expresión pretendía denominar una unidad político-territorial (El Estado) cuyas fronteras coinciden plena o aproximadamente con la distribución territorial de un grupo nacional. O, de manera más concisa, es una expresión que describía la situación en que una nación posee su propio Estado. Por desgracia, el término Estado-nación ha llegado a aplicarse indiscriminadamente a todos los Estados." 92 orr.

Connor, W. (1998). Op. Cit., 92 orr; honen inguruan ikusi ere: Tylor, P. J. (1994). *Geografía Política. Economía-mundo, Estado-nación y localidad*. Madril:Trama. 198-200 orr.

Akzin, B. (1968). *Estado y Nación*. Mexico: Fondo de Cultura Económica. 49 orr.

Baina gatazka bai dakarrela, gu geuk lehenago genion bezala. Gai honen inguruan, ikusi: W. Connor (1998). Op Cit. 36 orr.

B. Akzin, (1964). Op. Cit. 50 orr.

B. Akzin.(1964). Op. Cit. 50-51 orr.

B. Akzin, (1964): Op. Cit. 93 orr.

W. Connor(1998): Op. Cit. 105 orr.

W. Connorek aipaturik in: Op. Cit. 105 orr.

Guretzat, bereziki, interesgarria aurrerago ikusiko dugunez.

B.Akzin(1964): Op. Cit. 154 orr.

Azkinen esanetan, guretzat "nazionala".

Azkin, B.(1964); LLobera, J.R. (1996); Keating, M. (1996) eta beste. Nahiz eta protagonismo honen balorazioan bat etorri ez.

Smith, A. D. (1997). *¿Gastronomía o geología? El papel del nacionalismo en la reconstrucción de las naciones*. in *Zona Abierta*, 79: 39-68.

Smith, A. D. (1976: 8. atala); Smith, A. D. (1997: 4. atala); Gellner, E. (1988: 7. atala); Herranz de Rafael, G. (1992: 2.zatian); Breuilly, J. (1990); Snyder (1954); Seton-Watson (1965); Symmons-Symonolewicz (1965) eta (1970).

Symmons-Symonolewicz, K.(1970). *Nationalist Movements: a Comparative View*. Meadville: Maplewood Press, in Nuñez Seixas, X. M.(1998). *Movimientos nacionalistas en Europa. Siglo XX*. Madril: Síntesis. 12orr.

Fishman, J. A.(1973). *Language and Nationalism*, Newbury House, Rowley, Mass, J. Mirak aipatua (1985), Op. Cit.: 156 orr.

Ildo beretik doa Antony Smith lehen aipaturiko azken artikuluko horretan, nazionalistaren zeregina arkeologo baten zerginarekin parekatzen duelarik: "...los nacionalistas tienen un papel vital que desempeñar en la construcción de las naciones, no como artistas culinarios o ingenieros sociales, sino como arqueólogos políticos que redescubren y reinterpretan el pasado comunitario con el fin de regenerar la comunidad." Op.

Cit. 65 orr.

Gure aburuz, A. Smithen definizioa eta planteamendua bat letorke geuk lan honetan defendatzen dugunarekin: " definiré el nacionalismo como *un movimiento ideológico para lograr y mantener la autonomía, unidad e identidad en nombre de un grupo humano que según algunos de sus componentes constituyen de hecho o en potencia una 'nación'*". Smith, A. D. (1997) 67 orr. Smithek helburuen arten identitatea aipatzen du, guk, berriz, ñabardura bat egiten dugu eta identitatearen benekotasunaz ari gara. Batasunari guk egiten diogun ñabardura berak ere egiten du: " *El concepto de unidad tiene además un significado nacionalista más evidente y otro más esotérico . El más sencillo alude a la unificación de la patria o territorio nacional(...) Pero hay otro significado del ideal nacionalista de unidad. En el lenguaje nacionalista "unidad " significa cohesión social, la hermandad (...)* " 69 orr.

Estatuaren instrumento gisa ala "determinismo nazionala" P. J. Taylorrek izendatzen duen moduan: Op. Cit. 193-198 orr.

Egoera hau hedatuena da, aurreko azpiatalean esan dugun legez, ikus: 4.2. Nazioa eta Estatuaren arteko erlazioez. orr.

Ikus, berriro, aurreko azpiatalean 23 orr,

Mirá, J. (1985): 171 orr.

Intelligentsiak nazionalismoen garapenean jokaturiko errolez bibliografia ugari dago, besteak beste: Smith, A. D. (1976); Smith, A. D. (1996); Breuilly, J. (1990); Herranz de Rafael, G. (1992).

Nuñez-Seixas-ek "iratzar kulturalaren urratsaz" hitz egiten digu, Hroch-en ereduari jarraituaz. Op. Cit. 19 orr.

Mirá, J. (1985): 175 orr.

Symmons-Symonolewicz, K.(1970). *Nationalist Movements: A Comparative view*. Maplewood Press, Meadville, Pa.

Durkheim, E. (1968). *las Formas elementales de la vida religiosa*. Buenos Aires: Schapire. B. aipatua in: Miranda de Benito, B. (1988). *La lengua. Representación y práctica*. Madril: Universidad de Complutense de Madrid. 192 orr.

Miranda de Benito, B. (1988). *La lengua. Representación y práctica*. Madril: Universidad Complutense de Madrid. 189 orr.

Estatuaren nazionalismoaz ari ginela, honek nazio kontzientzia eragiteko erabilitako zenbait baliabide aipatu izan ditugu, ikus: 225 orr

Swaan, A. de(1992). *A cargo del Estado*. Bartzelona, Pomarés Corredor.

Smith, A. (1976). *Teorias del Nacionalismo*. Bartzelona, Penintsula: 208 orr.

Bat gatoz Mateosekin zera esaten duenari: " hezkuntza sistema modernoak biztanleriaren eskolatzeko orokortua ekarri dutenak, **Estatu Hezkuntza Sistema** deitu ohi dira, (...) Hala ere, ikerlari ezberdinen ildoko teorikoak baldintzaturik, edota herrialde bakoitzean estatu eraketak erakutsi dituen ezaugarrien arabera, izen diferenteak ematen zaizkio prozesu horri. Horrela, batzuetan nahasia eta, besteetan, diferentziaturik agertzen zaizkigu **estatu hezkuntza, masa hezkuntza, hezkuntza publikoa, hezkuntza nazionala,** eta modu generikoago batez, **hezkuntza modernoa bezalako kontzeptuak**(...) hautaketak adiera lezake, ikertze lerro jakin batez gain, pentsakera politiko eta ikuskera ideologiko jakin batekiko atxikipena..."in op. cit. 89 orr.

Mateos, S. (1999). Op. Cit. 125 orr: 21 oharrean.

Meyer, J.(1977).The effects of education as institution. *American Journal of sociology*, 83: 55-77, eta

Ramirez, F. O. (1987). The political construction of mass schooling: european origins and worldwide institutionalization.*Sociology of Education*, 60:2-17orr.

Meyer, J. (1977). Op. Cit.

Mateos, S. (1998) Op. Cit. 134-135 orr.

Meyer, J. Eta Hannan, M. T.(1979).National development and the world system.Chicago, University of Chicago Press: 601 orr.

Mateos Gonzalez, S. (1998). Op. Cit. :136 orr.

Tocqueville, A. (1995).Amerikar Demokrazia II. Bilbo, Klasikoak S. A. :

Tocqueville, A. (1998). Op. Cit. : 102 orr.

Mateos, S. (1998) Op. Cit. 152 orr.

Arestion aipatu izan dugun legez, nazionalismo historiko batzuen bilakaera historikoa deskribatzen ari ginela, hain zuzen ere, kultur iratzartze urratsei buruz ari ginela.

PAGE 174 Generoa eta Nazioa

Nazioaz eta Nazionalismoaz zenbait ideia

PAGE 175

5. atala: Nazioen eraikitze prozesu generizatuak

Orokorrean, nazionalismoari buruzko literaturan, "ekoizpen" eta "ugalketa" nazionalaz ari direla, emakumeei buruz aipurik ez dago. Berriz, bai intelektualez eta Estatuko burokratez. Alta, nazioen birsorkuntza biologikoa, kulturala eta sinbolikoa, ez da soilik, burokrazia edo *intelligentsiaren* emaitza, emakumeena ere bada. Literatura feministaren eskutik, hutsune nabarmen horren arrazoiak bilatzen hasiz gero, honako azalpenarekin egiten dugu topo: nazioak eta nazionalismoak esparru politikoari datxezkion fenomenoak bezala aztertuak dira, hau da, esparru publikoari atxikituriko errealitateak bezala. Emakumeak esparru publikoan ez direnez agertzen, pribatua baita dagokien esparrua, nazioak eta nazionalismoak aztertzen dituzten teorietan ere ez daude.¹

M. Ugaldek historialariak, auzi honi heltzen diolarik, antzerako zerbait baieztatzen du:

La relación existente entre la diferencia sexual y la construcción nacional hasta fechas muy recientes no ha sido analizada ni traída a la conciencia colectiva, (...) los estudios sobre la construcción de las naciones y el nacionalismo han sufrido un desfase, y sólo muy recientemente se ha empezado a considerar la importancia capital del sexo y el género en los desarrollos históricos nacionales.

A este retraso y a esta consideración, aunque tardía, han contribuido factores diversos. Entre ellos hay que tener en cuenta la atención preferente hacia los aspectos políticos por encima de otras consideraciones. Mientras los investigadores estaban atentos sobre todo a la concepción de las naciones modernas como procesos de construcción de estado moderno, el género tenía menos posibilidades de ser tenido en cuenta, relegado como categoría cuya viabilidad, cuando era reconocida, se concebía fuera de estos procesos.²

Salbuespena dugu, G.L.Mosseren³ lana: *Nationalism and Sexuality*. Idazle honen ikerketak, genero harremanen ezaugarri batera mugatu arren -portaera sexuala-, ezaugarri hau eta nazionalismoaren arteko elkarrerlazioa aztertzerakoan, Levi Strauss⁴ tradizioaren barruan, genero harremanak eta

¹ Yuval-Davis, N. (1993). Gender and Nation. *Ethnic and Racial Studies*, 16- 4zka: 621-622 orr.

² Ugalde, M. (1996). Notas para una historiografía sobre nación y diferencia sexual. *Arenal. Revista de historia de las mujeres*. 3.liburukia, 2zka : 218-219 orr.

³ Mosse, G. L. (1985). *Nationalism and Sexuality: Respectability & Abnormal Sexuality in Modern Europe*. New York, Howard Fertig, Inc.

gizarte kohesioaren arteko erlazio estuez kontziente egiten gaitu. Baina, lan honen ostean isiltasun urteak izan ditugu.

Apurka-apurka isiltasun hori hautsi eta ekarpen "berriez"⁵ hornitu da. Horniketa jarduera honen ardura idazle feminista batzuen eskutik heldu zaigu: N. Yuval-Davis, F. Anthias, S. Walby, B. Aretxaga, C. Enloe, R. Hamilton, M. Barrett, K. Jayawardena, V. Stolcke, M. Ugalde, V. Moghadam.⁶ Nazioa eta generoaren arteko erlazioaren azterketari ekiteko, nazioari buruz abiapuntu teoriko argi bat eskaintzen dutenen artean, (gutxiengo batek), gehienak⁷ nazioari buruzko ideia beratik abiatu dira, B. Andersonek⁸ zabaldutakoa: nazioa komunitate irudikatu gisa ulertzea.

Teoria horren hautaketari garrantzi handia eman diote, generoari zein etniari bezalako desberdintasun kategoriei azterketan parte hartzeko parada eman dielakoan :

⁴ Lévi-Strauss, C. (1979). Antropología estructural. Mexico, siglo veintiuno editores, s.a.

⁵ Hainbat kasutan ez hain berriak horrela badirudi ere, aurrerago ikusiko dugunez.

⁶ Hamilton, R. and M. Barret (1986). The politics of diversity. Norfolk, Thetford. Aretxaga, B. (1988). Los funerales en el nacionalismo radical vasco., Baroja. Yuval-Davis, N. (1988). "Woman/Nation/State: The Demographic Race and National Reproduction in Israel." Stolcke, V. (1989). Una ciudadana sin ciudadanía propia: La naturaleza da la nacionalidad en La Francia, La Alemania, y La Inglaterra del siglo XIX. Hombres y mujeres en la formación del pensamiento occidental. §. Madril, Universidad Autónoma de Madrid. Yuval-Davis, N. A., F. (1989). Woman- Nation- State. London, Macmillan. Yuval-Davis, N. (1991). "The Citizenship Debate: Women, Ethnic processes and the State." Feminist Review nº39: 58-68. Ugalde Solano, M. (1992). El movimiento de las mujeres en la comunidad nacionalista vasca hasta la guerra civil., Primer Congreso de Historia Contemporanea. Ugalde Solano, M. (1992). Identidad Femenina y Nacionalismo Vasco., III Conferencia de ISSEI sobre ' European integration and the european mind'. Walby, S. (1992). "Woman and Nation." International Journal of Comparative Sociology. XXXIII, 1-2: 81- 100. Hall, C. (1993). "Gender, nationalisms and national identities." Feminist review 44. Ugalde, M. (1993). Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza 1906-1936. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea. Yuval-Davis, N. (1993). "Gender and Nation." Ethnic and Racial Studies 16, 4.zbk: 621- 632. Moghadam, V. (1994). Gender and National Identity. London, Zed Books LTD. Walby, S. (1994). "Is citizenship gendered?" Sociology 28: 379-395. Yuval-Davis (1994). Women, Ethnicity and Empowerment. Shifting Identities, Shifting Racism. K. P. Bhavnani, A. London, Sage: 179- 197. Ugalde Solano, M. (1995). "Dinamica de Genero y Nacionalismo: La movilización de vascas y catalanas en el primer tercio de siglo." Ayer. Revista de la Asociación de Historia Contemporanea. 17, 1. hiruilabetekoa. Aretxaga, B. (1996). "¿Tiene sexo la nación? Nación y género en la retórica política sobre Irlanda." Arenal 3, 2.zbk.: 199-216. Ugalde, M. (1996). "Notas para una historiografía sobre nación y diferencia sexual." Arenal. Revista de historia de las mujeres. 3, nº2, julio-diciembre (Genero y construcción nacional.). Aretxaga, B. (1997). "Protesta sucia: sobredeterminación simbólica y género en la violencia étnica de Irlanda del Norte." biTarte 13: 45-67. Yuval-Davis, N. (1997). "Women, Citizenship and Difference." Feminist Review 57: 4-27. Yuval-Davis, N. (1997). Gender & Nation. London, Sage. Hamilton, C. (1998). "Género y Nacionalismo." Inguruak 22: 163-174. Hamilton, C. (1999). The Gender Politics of ETA and Radical Basque Nationalism, 1959-1982., London University.

⁷ N. Yuval-Davis (1997); B. Aretxaga (1996); M. Ugalde (1996);

⁸ Anderson, B. (1993). Comunidades Imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la expansión del nacionalismo. México, FCE.

Los nuevos estudios interpretan el nacionalismo, no sólo como vehículo de unos intereses políticos y económicos objetivos, y de una ideología, sino además como respuesta a una necesidad anímica de pertenencia a una comunidad, la 'comunidad imaginada' de Anderson...; cuya configuración responde a una configuración cultural, y en la que establecen vínculos que son de una naturaleza semejante a los lazos de parentesco. De esta forma, se ha llamado poderosamente la atención sobre los factores culturales y subjetivos de la construcción de naciones; y así el género, como la etnia, ha encontrado su oportunidad, abriéndose camino, por el ámbito de más fácil acceso, el cultural, para poder alcanzar el puesto que le corresponde en el análisis de otros ámbitos de la realidad social menos accesibles, como el político.⁹

Guk, aldiz, eta begirunez ikusi arren idazle hauen hautaketa teorikoa, ez gatzat M. Ugaldek esandakoarekin. Lehenik, ez baitugu uste berririk denik; zerbait ekartzen badu, komunitatea 'irudikatua izatearena da', eta ez faktore kulturalak azpimarratzearena edota senideen lokarriekin parekatzearena.¹⁰ Eta, hala izan balitz ere, zergatik B. Andersonek berak ez zuen generoari buruz aipurik egin?

"(...) Anderson analiza extensivamente la metáfora familiar, sorprendentemente no dedica ni una línea a la metáfora de género. "¹¹

Bigarrenik, nazionalismoari buruzko teoria guztiek nazioa komunitate bezala ikusten dute, komunitate horren nolakotasuna azaltzerakoan euren arteko desberdintasunak ageriz. Gu atal honetan ez gara desberdintasun horien jorrocketaz arduratuko, soilki azpimarratu gura dugu komunitateaz hitz egitea kulturaz eta haren adibide argiena, familiaz, hitz egitea dela¹². Begi-bistakoa da, genero harremanez aritzea ere posiblea dela, eta horrela egin zuten hainbat klasikok, lan honen bigarren atalean erakutsi dugunez.

⁹ *Arenal*. Revista de historia de las mujeres. 3 liburukia, 2 zka: 219 orr; Valentine Moghadam iritzi berakoa da: " I believe a clue is provided by Benedict Anderson in his book 'Imagined Communities'. Despite the fact his book does not deal with issues of gender or sexuality, Anderson makes the simple but profound suggestion that nationalism is best viewed not as ideology but as akin to kinship an religion ". Moghadam, V.(1994). *Gender and National Identity*. London: Zed Books : 4 orr.

¹⁰ Honen inguruan, ikus aurreko atalean nazioaz eginiko jorraketa.

¹¹ B. Aretxaga (1996). "¿Tiene sexo la nación? nación y género en la retórica sobre Irlanda. in *Género y construcción nacional: una perspectiva internacional*. *Arenal*. Revista de historia de las mujeres. 3. liburukia, 2.zka.

¹² Adibide bat ematea arren, Smithen esanak ekarriko ditugu hona: " ¿Cuáles son los sentimientos y aspiraciones soterradas que suscitan la ideología nacionalista y el lenguaje nacionalista? Se relacionan...con trs referentes: el territorio, la historia y la comunidad.(...) los sentimientos más fundamentales...los familiares...la metáfora de la familia es indispensable para el nacionalismo, porque se describe a la nación como una gran familia, en la que sus componentes son hermanos y hermanas de la madre patria o de la patria que utilizan su lengua materna." in Smith, A. D. (1997). *La Identidad Nacional*. Madril: Trama Editorial: 71-72 orr.

Hortaz, gure iritziz, nazioa eta generoaren arteko erlazioari buruzko lanen urritasunaren arrazoiak, beste leku batean bilatu behar dira. Ez da kasualitate handiegia, teoria feministek paradigma liberala kritikatzeko hasi¹³ eta bestelako planteamenduen bila ari direla, literatura horren gabezia sumatzea? Edozelan ere, eta berandu heldu arren, ongi etorriak dira ekarpen berri hauek.¹⁴ Ezagut ditzagun, bada, zeintzuk berritasunak dakarzkigu.

5.1.-Nazioaren auzia feminismoaren eskutik: generoa erdigunean.

Ia lan guztiek, modu inplizitu edo esplizituan, nazioa ikusten dute gorengo identitate eta leialtasun iturri bezala,¹⁵ beste identitate kolektiboen iturriak¹⁶ bere baitan bilduz; bestalde, bere baitan biltzeak ez du esan nahi bigarren maila batean geldituko ez direnik. Beraz, idazle feministen susmoa da, identitateen arteko gatazka suertatzen dela, kasu gehienetan edo guztietan, hau da: identitate nazionala talka egitea identitate feministarekin. Horren arabera, auzia litzateke, nazio eraikitze prozesuetan zenbateraino posible den emakumeen askapena bideratzea.

Aurrekoari erantzuna eman guran, hasierako lanen joera izan da emakumeek jokaturiko rolak identifikatzea, egungo nazionalismoak-batez ere, hirugarren mundukoak edo poskolonialak, zein mendebaldeko nazionalismo aldarrikatzaileak-behatuz. Lan teorikoak berantiarrak, eta oraindik ere, urriak dira. Azken lan hauen berri emango dugu, azken finean, guri gehien

¹³ Esaterako: esparru publiko/pribatu-aren arteko bereizketa, edota herritartasunari buruzko definizio liberala. Berririo ikusi, lan honen hirugarren atalaren ondorioak.

¹⁴ Ia lan guztien bilduma on bat, nazioarte mailan zein Estatu mailan, M. Ugaldek eginikoa da: 217-256 orr.

¹⁵ A. D. Smith, (1996). Op. Cit.:131 orr.

¹⁶ Identitate anitzen inguruan oso atal interesgarri eskaintzen du A. D. Smith, (1996). Op. Cit. 3-4 orr. Azpimarratzekoa da Generoaren inguruan klasiko honek dioskuna: " *Separadas geográficamente, divididas socialmente y fragmentadas étnicamente, las divisiones de género tienen que asociarse con otras identidades, que tengan un mayor poder de cohesión, si quieren inspirar una conciencia y acción colectivas.*; " *oharrean: Normalmente se intentan vincular con las identidades de clase o nación, de modo que los movimientos feministas suelen aliarse con los movimientos socialistas o con los nacionalistas, o con ambos.*

interesatzen zaizkigunak dira-eta; besteak, ekarpen teorikoak argitzeko edo azaltzeko erabiliko ditugu, jakina, ez den-denak.

5.1.1.-Generoa eta nazioaren arteko erlazioa ulertzeko lehenengo saio teorikoak.

Aitzindaritzat jo ditzakegun idazle feminista biren lanarekin hasiko gara, beraiek izan baitira lehenak teorizazioaz arduratzen: Nira Yuval-Davis eta Floya Anthias.¹⁷ Idazle hauek, beraiek bildutako artikuluetan oinarriturik, prozesu etnikoetan eta nazionaletan zein Estatuaren praktiketan emakumeak parte hartzeko bost modu¹⁸ bereizi dituzte:

- 1- Kolektibitate etnikoen kideen sortzaile biologikoak bezala.
- 2- Talde etniko/nazionalen mugen sortzaileak bezala.
- 3- Kolektibitatearen sorkuntza ideologikoan funtsezko partehartzaileak eta kolektibitate horren kulturaren igortzaileak bezala.
- 4- Desberdintasun etniko eta nazionalen "esangurak" bezala, hau da: kategoria etniko edo nazionalen eraketan, eraldaketan edo eraikuntzan erabilitako diskurtso ideologikoetan sinboloak bezala.
- 5.- Borroka nazional, ekonomiko, politiko edo militarretan partehartzaileak bezala.

Testuinguru historiko desberdinek parte hartze modu horiek eraldatzeaz gain, euren pisua ere desberdina izatea eragiten dute- aurrerago sailkapen hau berrartzen dugula ikusiko dugunez, momentuz segituko dugu beste jorraketa batekin-.

¹⁷ Yuval-Davisen lehenengo lana 1980koa da, non emakumeak kolektibitatearen hazitzaileak gisa agertzen baitira Israelgo legedi erlijiosoa aztertzean: "The bearers of the collective: women and religious legislation in Israel". *Feminist Review*, 4.zk.a:15-27; Anthiasena 1981ekoa da: "Ethnicity and Class amongst Greek-Cypriot Migrants" Ph. D. thesis, University of London. Lanen azalpena, plazaratu diren orden kronologikoan egingo da.

¹⁸ Spike Petersonek, Yuval-Davisek bezala, identifikatzen ditu generoak desberdindutako bost dimentsio: oinarrian Yuval-Davisek aipatzen dituenak, baina idazle honek, modu esplizitu batez, partaidetza politikoa eta gizarte desberdintasunak kontuan izan ditu. Spike Peterson, V. (1994). Gendered Nationalism. in *Peace Review* 6:1, 77-83.

Beste ekarpen interesgarri bat dugu S. Walby¹⁹ eginikoa, aurrekoek egindakoaren erantzun gisa ere ikusia izan daitekeena. Nazio proiektuetan emakume eta gizonen arteko integrazio desberdinduaz abiatzen da, esanez nazionalismoari buruzko teorietan halako kezkarik ez dela mahaigaineratu, duela gutxi arte. Auzi horri ekiteko oso baliagarria iruditzen zaio *herritartasunaz* berpiztu den eztabaida; haren iritziz, berpizte hori aprobeztatu beharko genuke, *herritartasun* kontzeptuak proiektu nazionaletan²⁰ integrazio mailak antzematea ahalbidetzen du-eta.

Nazionalismoari buruzko literaturan, genero auziarekiko bost jarrera bereizten ditu:

- 1.-Generoak/herritartasun/etnia/nazio/arraza erlazioen izaera ez du eragiten.
- 2.-Argudio simetrikoa, herritartasunak/etniak/naziok/arrazak genero harremanen izaera ez dute eragiten.
- 3.-Gizarte erlazio sistema hauek elkarri loturik agertzeak emakume beltzen zapalkuntza bikoitzaz, arrazismoa eta sexismoa, hitz egitea ahalbidetzen du.
- 4.-Etnia/nazio/arraza desberdintasunen argudioak, emakume zuriaren zapalkuntzan funtsezkoak diren instituzioak beste etniako, nazioko emakumeentzat ez direla, esan gura du.
- 5.-Genero/etnia/nazio/arraza erlazioak elkarri eragiten diotelako argudioa ere badago, eta genero/etnia/nazio/arraza erlazio moduen azterketa dinamikoak bideratzen dituen; honek dakar, genero/etnia/nazio/arraza desberdintasunen arteko elkarrerlazioen azterketa kausala egin ahal izatea.

Jakina, ikerlari horrek, genero, nazioa eta nazionalismoaren arteko elkarrerlazio lantzeari ekiten dio, Yuval-Davis eta Anthias(1989), Jayawardena (1986) eta Enloe (1989), idazleen lanen berri emanez.

Lehenengoei dagokienez, prozesu etnikoetan eta nazionaletan zein Estatuaren praktiketan emakumeak parte hartzeko identifikaturiko bost moduak bergogoratzen dizkigu -guk arestian aipaturikoak- oso positiboki baloratuaz:

¹⁹ Walby, S. (1992). Woman and Nation. *International Journal of Comparative Sociology*. XXXIII, 1-2, 81- 100orr.

²⁰ Nabaria denez, proiektu nazional hegemonikoaz/meneratzaileaz ari da, halakorik ez esan arren; beraz, Estatuak daukan nazioaren nazionalismoaz.

*They show that gender is important for ethnic/national practices and ethnic/national practices are important for gender relations.*²¹

Baina, balorazio horretan kritikak ere badaude. Alegia, batetik, eskaintako kategorizazioan, bost praktikatik hirutan maila kulturala eta ideologikoa nagusiak izatea; beste biak, bata biologikoa, eta bestea "borroka nazional, ekonomikoa, politikoa eta militarra". Zerrenda horretan lan banaketa ez da ageri, ez bada, biologia edo kulturaren azpian ikusiak izan baitira. Talde etniko edo nazional desberdinetako lan banaketa generizatua garrantzitsua da banaketa etniko eta nazionalentzat maila sinbolikoan soilik? Ala, "sortzaile biologikoak" kategoriak emakumeen lanaren azterketa bat dakar?

Bestetik, Walbyren aburuz, sailkapen horretan talde etniko eta nazionalen arteko gatazka eta mugen iraupena gizarte hierarkien modu desberdinen arteko gatazka ere bada -eta, ez kultura desberdinen artekoa soilik-. Walbyk aipatu ikerlariei gertaera hori aski nabarmendu ez izana kritikatzeko die.

Anthiasen eta Yuval-Davisek proiektu etniko eta nazionaletan emakumeen partaidetza, modu desberdinetan izan arren, azpimarratzen duten bitartean, Walbyk emakumeen inplikazio desberdinduaren auzia azpimarratu nahi du. Azken honek, ez du argi ikusten zenbateraino emakumeak gizonekin batera egon daitezkeen proiektu nazional berdinean. Haren iritziz, proiektu nazional batek nazioaren beharrezko antzemateko estrategia kolektibo multzo bat izaten du, nazionalismo barne eta, baliteke, beste gauza batzuk ere (esaterako, patriarkatua).

Estrategia kolektiboen eduki horien inguruan, sarritan, emakumeen eta gizonen artean desberdintasunak daude. Hauek sumatzeko bi proposamen egiten dizkigu:

1-Kontzeptuen gorputz bat garatzea nazio eta etnia desberdinen arteko genero harremanak alderaketa errazteko.

²¹ Walby, S (1992). Op. Cit. 83 orr.

2- Eztabaida bat burutzea honako gai hauen inguruan: gizonak eta emakumeak proiektu nazionalak dituzten identifikazio desberdinak zein makromailan kokaturiko talde desberdinekiko konpromiso desberdinak izan ditzakete. Walbyren iritziz, eztabaida hori bidera daiteke hiru urratsetan:

- * Zergatik eta zein baldintzapean zer proiektu nazionalak dira aldi berean genero proiektuak, eztabaidatuz.
- * Nazionalismo, militarismo eta generoaren arteko elkarrerlazioak eta desberdintasunak eztabaidatuz.
- * Ia genero harremanek gizarte klase-eta etnia-harremanek arautzen duten espazio bera partekatzen duten, eta ia emakumeak eta gizonak espazio eta maila desberdinetako gizarte fenomenoarekiko konpromisoak dauzkaten, eztabaidatuz.

Lehenengo iradokizunari ekinez, patriarkatuari buruzko bere teoria proposatzen digu.²² Alegia, analisi dual baten beharra aldarrikatzen du. Harentzat patriarkatua ez da inoiz ekoizpen modu bakarra, beste ekoizpen modu bati loturik agertzen baita beti. Horretaz gain, patriarkatua era ezberdinak aztertu beharra ere ikusten du. Walbyren aburuz, gizarte kapitalistetan giltzarri diren harreman patriarkalak, etxeko lanean, ordaindua den lanean, estatuan, gizonen bortizkerian, sexualitatean eta kultur instituzioetan, esaterako, erlijioan, komunikabideetan eta hezkuntzan, aurki ditzakegu ere.

Bigarrenari dagokionez, berriro ere, Walbyk Anthias eta Yuval-Davisen ekarpena dakarkigu: proiektu nazionalak emakumeen partaidetza moduak. Ekarpene horren arabera, emakumeak parte hartzen dute, batzuetan borondatez, bestetan borrokan gogotsuak murgildurik, bestetan derrigortutak, alegia, 'arrazaren' sortzaileak direla, edota, egunero-egunero umeen gizarteratzearen bitartez kulturaren sortzaileak, edo beste batzuetan sinboloak bezala pasiboak izaten. Horrela, bi autore horientzat emakumeak gizonak bezain

²² Lan honen lehenengo atalean jorratu genuena eta, neurri batean, gure proposamen teorikoaren barne sartu ere. Walby, S. (1989). Theorising Patriarchy. *Sociology*, 23 - 2zka : 213-234.

konprometituak daude proiektu nazionalarekin, baina batzuetan modu desberdinetan bideratzen dituzte euren konpromisoak.

Walbyrentzat, batzuetan horrela izan daiteke, eta beste batzuetan ez: emakumeek sostengatzen duten proiektu nazionala ez da zertan gizonek sostengatzen dutena izan, proiektu desberdin bat izan daiteke. Proiektu nazionala zer den zehazteko borroka bat egotekotan, horren inguruan emakumeek diotena gizonek diotena baino gutxiago entzunda suertatzen da orokorrean. Horrela, genero harremanak garrantzitsuak dira ezartzeko zerk osatzen duen proiektu nazionala. Proiektu nazionalaren barne emakumeen interesak egonez gero, emakumeak alde agertzeko probabilitate gehiago dago, idazle horren ustetan.

Yuval-Davisek eta Anthiasek nazioak generoan duen eragina erakutsi dute. Alta, Walbyrentzat elkarrekiko eragina legoke, haren aburuz, proiektu nazionalarekiko emakumeen konpromiso desberdinak proiektu bera eragiten baitu, eta honek dituen erlazioak beste talde nazionalekin edo etnikoekin.

Genero, militarismo eta nazionalismoaren arteko erlazioaz ari delarik, oso zabaldua den ustea birgogoratzen digu, sarritan, emakumeek gizonek baino bakezaleago izateko joera dutela-baiezpen hau unibertsala ez dela errekonozitu arren-. Azken ideia hau azaltzeko erabili duen argumentua: emakumeen bakezaletasuna genero ideologiaren ezaugarri zehatz baten emaitza izatea²³. Baina, azalpen honekin ala hura barik, egitatez, proiektu nazionaletan armadaren aldeko edo kontrako egoeratan emakume eta gizonen artean portaera desberdinak aurkitzen ditugu.²⁴ Egoera honen aurrean, ikerlari honek bere buruari galdetzen dio: emakumeen biolentziaren aurkako jarrerak proiektu

²³ Genero ideologiaren arabera, emakumetasuna bizitza ematearekin estuki erlazonaturik dago, bizitza kentzea ez legokio; more bat haustea litzateke.

²⁴ " Women's role in national liberation struggles, in guerilla warfare or in the military has varied, but generally they are seen to be in a supportive and nurturing relation to men even where they have taken most risks. " in Yuval-Davis, N. & Anthias., F. (1989). *Woman- Nation- State*. London: Macmillan: 10 orr.

nazionalaz duten ikuspegian eraginik al du, eta horrela bada, indarrez lortu beharreko helburu nazionalistak lortzeko gizonek baino gaitasun gutxiago daukate? Honek esan nahi du emakumeak ez direla hain nazionalistak, edo, nazionalismo desberdin bat sostengatzen dutela?

Hark proposaturiko eztabaida-gaiekin segituz, genero erlazioentzat mugen existentziaz ari zaigu. Emakumeen partaidetza politikoa gizonena baino maila desberdinetakoa izan daiteke. Emakumeen partaidetza tokian tokikoa izaten da, eta ez hain nazionalista.

Nazio proiektuetan emakumeen integrazio desberdinuaz aritu ondoren, artikuluaeren hasieran oso baliagarritzat jotzen duen eztabaida batera eramaten gaitu: herritartasunari buruzko eztabaidara. Azken hau, nazioa eta generoaren arteko erlazioaren analisirako proposatuz.

Oso interesgarritzat jo arren Walbyk proposaturiko hiru urratseko eztabaida hori, nazioa eta nazionalismoaren inguruko gorputz teoriko baten falta antzematen dugu. Izan ere, nazioa ikustarazteko irizpideak zein nazionalismoaren egoera desberdinak kontuan hartzea ezinbesteko abiapuntua da nazio zein nazionalismo desberdinen arteko genero harremanak alderatzeko. Gure aburuz, nazioa eta generoaren arteko erlazioaren analisia, herritartasunaren inguruko eztabaidan kokatzean, nazio-estatu-eta honen nazionalismoa-eta generoaren arteko erlazioaz hitz egitea da; hau da, nazioa eta nazionalismoen errealitate ugaria berriro ere murriztea eta, beraz, erlazio horren inguruan ulerkuntza osoa izateko aukera galtzea.

Galera horren kontzientzia, Yuval-Davisek ere baduela, uste dugu, segidan ikusiko dugun legez; egia da ere, herritartasunari buruzko eztabaidaren testuinguruan, berak ere, kokatu duela gai hau argi eta garbi utziz herritartasuna generizatua dela²⁵. Baina, ez da horretan gelditzen, S. Walbyk egin duen bezala.

²⁵ Yuval-Davis, N. (1991). The Citizenship Debate: Women, Ethnic processes and the State. *Feminist Review*, 39 zbk.: 58-68. Eztabaida horretan, oso ekarpen interesgarriak egin ditu gainera, esaterako, T. H. Marshall-en teoria klasikotik abiatuz, herritartasun definizio liberala baztertzen du; azken honek

Bere hurrengo lanean²⁶ aurreko artikuluetan esandakoa biltzen, eta nazionalismo mota desberdinekin harremanetan ezartzen ditu; horrela, nazioa eta generoaren arteko erlazioaren hausnarketari dimentsio osoago bat emanez²⁷. Ikus dezagun nola urratu duen ulerkuntza oso baterako bide hori.

5.2.-Generoaren Teoria eta Nazioaren Teoria uztartuz.

S. Walbyk egindako proposamenaren ildotik, alegia, teoria bat garatzea nazio desberdinen arteko genero harremanak alderatu ahal izateko doa N. Yuval Davis ere. Lehenak, bere patriarkatuaren teoria proposatzen zuen bitartean, besteak, lehenik eta behin, emakumeen azterketei buruz zein genero harremanei buruz jorraketa on bat eskaintzen digu, aipatu helbururako *sexu-genero sistema* kontzeptua hobetsiz; bigarren pauso baterako utziz nazioa eta estatuaren teoriaren inguruko jorraketa.

Lehenengo gaiari heltzen diolarik, hiru eztabaida esparruak identifikatzen ditu:

1. Emakumeen zapalkuntzaren zergatiak argitzeaz arduratzen diren teoriak: patriarkatuaren teoria, sexu/genero sistemaren teoria edo genero erregimenen teoria.
2. Zein da gizon eta emakumeen arteko desberdintasunen oinarri ontologikoa? desberdintasun horiek biologikoki, sozialki edo biek determinaturik daude? Hona hemen, "sexu eta generoari buruzko eztabaida".
3. Hasierako literatura feministan eginiko planteamendu lar sinpleen-etnozentrikoak eta eurozentrikoak- aurkako erreakzioa: emakumeen arteko eta gizonen arteko desberdintasunak, gehi desberdintasun hauen eragina, orokortu diren genero harremanei buruzko ikuskeretan.

identifikatzen baitu herritartasuna Estatuaren herritartasun indibidualarekin, berriz, Marshall-ek "komunitate batean partaidetza osoaz" hitz egiten digu. Honen inguruan aurrerago arituko gara geu ere.

²⁶Yuval-Davis, N. (1993). Gender and Nation. *Ethnic and Racial Studies*, 16, 4.zbk: 621- 632.

²⁷ Yuval-Davis, N. (1997). *Gender & Nation*. London: Sage.

Zapalkuntza azaltzen duten teoriei dagokienez, Yuval-Davisek, gehien erabiltzen diren kontzeptuen azalpena eta balorazioa eskaintzen digu, hala nola, *pribatu/publiko zein naturala/zibilizatua* bereizketa dikotomikoak. Idazle honen planteamenduan, *esparru pribatu eta publikoaren* arteko bereizketa fiktizioa izateaz gain, generoak eta etniak/nazioak ezaugarritua dela, dio; askotan, emakumeak askatasunetik eta eskubideetatik baztertuak izateko erabilia. Harago joanez, nazio poskolonialen gizarte zibilen eraikuntza aztertzeko, publiko eta pribatuaren arteko marra honen desegokitasuna azpimarratzen du; hortaz, bere aburuz, genero harremanen azterketa ez-eurozentrikoak ezin du publiko eta pribatuaren arteko muga emantzat hartu.

Beste dikotomiaz ari dela, *natura/zibilizazioa*, emakumeak "naturarekin" identifikatzeak, diosku, ez du soilik ahalbidetzen euren bazterketa esparru politiko publiko "zibilizatutik" azaltzea, baizik eta, kultura guztietan emakumeak gizonak baino sozialki gutxiago baloratua izatearen azalpena bideratzea ere. Alta, bere ustez, halako orokortasunek gizarte desberdinen aldagarritasuna homogeneizatu eta mesprezatu egiten dute. Horrez gain, orokortasun horiek 'kulturarekiko' naturaren gutxiagotasunaren mendebaldeko balore kulturalak onartzen dituzte, unibertsalak eta gizarte guztiek partekaturik balira bezala. Hau dela bide, gizarte gatazka, menerapena, erresistentzia, eta gizarte aldaketaren garrantzitsuena dena ez dute kontuan izaten. Are gehiago, emakumeen zapalkuntzaren jatorrizko arrazoi unibertsalaren bilaketak, ez du aintzat hartzen zein moduetan, historikoki ezaugarrituak, genero harremanak eraikiak diren eta birsortuak diren gizarte desberdinetan.

Azken kritika hau luzatzen dio ere, literatura feministan hedatuena den kontzeptu bati, patriarkatuari. Gainera, Yuval-Davis, patriarkatua beste sistema sozial motatetik autonomia den sistema sozial desberdindua bezala ulertzeko proposamenarekin ez dator bat, berarentzat:

(...) women's oppression is endemic an integral to social relations with regard to the distribution of power and material resources in the society. Gender, ethnicity and class, although with different ontological bases and separate

*discourses, are intermeshed in each other and articulated by each other in concrete social relations*²⁸

Patriarkatuaren teorizazioan -sofistikatuena barne, Walby 1990- genero harremanak, desberdintasun biologiko sexualen nahitaezko ondorioetan murrizturik eta isolaturik amaitzen dira-gutxienez inplizituki- nabaria denez, ez da beti horrela. Patriarkatuaren kontzeptuak iradokitzen duenaren kontra, emakumeak, genero harremanak ezartzerakoan, ez dira orokorki pasiboak eta ez-partehartzaileak izaten. Oraindik garrantzitsuagoa, emakume guztiak ez dira modu berean zapalduak izaten, gizarte beran edozein unetan barne. Baina, honek ez du esan nahi ere, desberdintasun sexual eta sorkuntza biologikoaren inguruko antolakuntzaz, diskurtso eta praktika hegemonikorik ez dagoela gizarte desberdinetan eta gizarte hauen barruko kokapen desberdinetan. Hauek, Gayle Rubin-en hizkera erabiliz *sexu/genero sistema*', edo Connellen²⁹ ekarpenaren arabera *genero erregimenak* dira.

Emakume eta gizonen arteko desberdintasuna zehaztearen auzia halako desberdintasunen oinarri ontologikoen inguruko eztabaidan erdigunean egon da. Sexu eta generoaren arteko desberdintasunak politika feminista hasieratik baldintzatu du. Lan banaketa sexuala, boterea eta hau izatea ez direla biologikoki eraginak (sexu), sozialki eraikiak baino (genero) esateak, eskola desberdinetako feministek emakumeen kokapen soziala sexu berdintasun baterantz alda daitekeela argumentatu ahal izatea ekarri du.

Argumentazio horren ondorioz, emakume eta gizonen arteko lan banaketaren eta desberdintasun psikologikoen desnaturalizazioa aurreratu eta kultur aldagarritasunaren aldeko lanak biderkatu egin dira. Halarik ere, Delphyk³⁰ esanak hona ekarriz, lan horietako batek ere ez du, geureganatu dugun dikotomia sexual-natural batean oinarrituriko generoa, zalantzan jarri. J. Butlerrek³¹, ildo horri jarraituz, zera dio: kulturak generoa eraikitzen du,

²⁸ Yuval-Davis, N. (1997). Op. Cit.: 7. orr.

²⁹ Connell, R. W. (1990). The state, gender and sexual politics. *Theory and Society*, 19:507-544.

³⁰ Delphy, C. (1993). Rethinking sex and gender. *Women Studies International Forum*, 16(1):1-9.

³¹ Butler, J. (1990). *Gender Trouble: Feminism and the Subversion of Identity*. New York: Routledge.

naturak sexua eraikitzen duen modu berean; beraz, ez biologia, baina, bai kultura bihurtzen dela patua. Beste autore batzuek, sexu/generoaren inguruko eztabaidaren egoera ikusita, kontzeptu biak alboratu beharraz hitz egiten dute, *desberdintasun* kontzeptuan buru-belarri sartzeko premia aldarrikatuz.

Auzi horren inguruan, Yuval-Davisen jarrera argia da. Hark, generoa, emakume eta gizonen arteko desberdintasun "erreal" bat bezala ulertu beharrean, diskurtso bat bezala ikusten du. Diskurtso hau, gizakion desberdintasun biologikoak/naturalak definituriko rol sozialei dagokie. Bestetik, desberdintasun sexualak, diskurtso bat bezala ere ulertuak, horren arabera gizakiak euren osaketa sexualak/biologikoak definiturik daude-eta. Beraz, biak diskurtsoak legez ikusten ditu, baina eduki desberdinekoak.

Hirugarren eztabaida esparruaren adierazleak, 70eko hamarkadan *emakume* kategoriaren alde eta kontrako argudioak ditugu. Katgoria horren aldeko argudioak *ertain klaseko feminista zuriak* defendatzen zituzten, beste motatako desberdintasunak ahantziz. Hortaz, beraientzat emakume guztien egoera oinarrian berdina da. Aldiz, beste motatako desberdintasunak kontuan izan zituztenen artean *emakumeak* katgoria hobetsi zuten. Beste desberdintasunak aintzat izateak, honako eduki zehatza izanik: identitatea beti kokatua dagoela, eta ez soilik genero harremanekiko, gizarte harreman guztiarekiko baino. Horrela, *emakumeak* katgoria, historikoki eta diskurtsiboki eraikitakoa da, beti beste katgoriekin erlazionaturik eta hauekin batera aldatuz.

Emakumeen arteko desberdintasun garrantzitsuenetariko bat euren partaidetza kolektibitate etnikoetan eta nazionaletan ageri da. Emakumeen arteko beste desberdintasunak bezala, euren partaidetza kolektibitate desberdinetan, menerapen sistema baten barruan eta beste gizarte harremanekin erlazionaturik bezala, ulertua izan daiteke. Ikuskera honek, emakume batzuen status eta boterea beste batzuen kontra, kolektibitatearen barne eta kolektibitateen artean, azaltzen du; eta baita, euren partaidetza kolektibitatean 'derrigorturiko

identitatea' dela, ala, identitatearen 'free floating signifier'³² bihurtu daitekeela ere. Yuval-Davisen iritziz, eraikuntza hauetan, zirkunstantzia historiko zehatzetan nazioak eta estatuaren arteko erlazioek funtsezko papera jokatzen dute. Erlazio horiek ulertzeko nazio eta estatuaren teoria lantzeaz ere arduratu da, ondoren, ikusiko dugunez.³³

Nazioaz eta estatuaz hausnarketari ekiten diola, *nazio-estatuaren* kontzeptuari kritika zorrotza eginez abiatzen da.³⁴ Nazio-estatuak, edonon, fikzio bat da. Egon badaude-eta estatu eta gizarte batean bizi diren gizakiak nazio hegemonikoaren kideak bezala ikusiak ez direnak (eta sarritan eurek ez dute euren burua nazio hegemonikoaren kideetzat hartzen), beste estatu batean bizi diren kolektibitate nazionalaren kideak, eta estaturik inoiz izan ez duten nazioak edo, estatu batzuetan barreiaturik bizi diren naziokideak. Alta, fikzio hau ideologi nazionalisteen oinarria izan da. Horren ondorioz, kolektibitate baten hegemonia naturala balitz aurkeztuko da eta, naturaltasun horretan oinarrituz, kolektibitate horrek, estatu eta gizarte zibilaren aparailu ideologikoak eskuratzeko ahalmena izango du. Argudio honetaz baliatuz, idazle honek, estatuaren espezifikotasuna eta heterogeneitatea zein estatuak gizartetik desberdinduriko esparru analitiko bezala teorizatzekeo premia aldarrikatzen du. Alegia, estatuak, gizarte zibila eta familiaren artean bereizketa analitikoa egin, ahantzi barik elkarloturiko esparru politiko eta sozialak direla. Horrela eginez gero, proiektu nazionalen espezifikotasuna definitzera jo genezakeen eta estatuarekiko dituzten erlazioak argitzera ere.

Estatu modernoaren definizio eta teorizazio ezagun batzuen berri eman ondoren, hauek, oro har harturik ere, estatuaren boterea eskuratzeko gizarte zibilan dauden borrokak azaltzeko erakusten duten ezintasuna azpimarratzen du. Yuval-Davisen ustez, estatuak, bere praktiketan, proiektuetan eta ondorioetan

³² Wexler, P. (1990). "Citizenship in a semiotic society", in B. Turner(ed.) *Theories of Modernity and Postmodernity*. London: Sage.

³³ Hona hemen, gai hau jorratu dutenen lanekin alderatuz, funtsezko desberdintasuna.

³⁴ Yuval-Davisen kritika, guk geuk ere aurreko atalean egindakoaren ildotik doa.

ez da unitarioa eta, egitate horri esker, estatuaren kontzeptua mantendu daiteke; baina, hori bai kontzeptua birdefinituz, berak eta Anthiasek egiten duten bezala:

(...) a body of institutions which are centrally organized around the intentionality of control with a given apparatus of enforcement (juridical and repressive) at its command and basis...Different forms of the state will involve different relationships between the control/coercion twin which is the residing characteristic of the state³⁵

Ikerlari hauen iritziz, formulaketa hau erabiliz gero, estatuak bere baliabide juridiko eta errepresiboen bitartez prozesu desberdin anitz bateratu ditzake, ideologikoak barne. Estatu moderno liberal-demokratikoan gizarte instituzio desberdinak, batik bat, eskolatze eta hedabideak ekoizpen ideologikorako erabiliak izan daitezke. Dena dela, instituzio horiek ez dira estatuari datxezkion zatiak, eta sarritan ez dira harenak ere. Horrez gain, eta estatu eta gizarteari buruzko irakurketa eurozentrikoa saihestu guran, feminista honek, estatuaren instituzioak, gizarte zibilaren instituzioak eta senideen arteko erlazioak eta familia esparrua bereizteko beharra azpimarratzen du. Hiru esparru hauek, euren eduki ideologikoak ekoizten dituzte, eta estatu desberdinetan baliabide politiko eta ekonomikoak eskuratzeko bide desberdinak izan ditzakete. Esparru hauetako bat ere ez da inoiz homoginoa, eta estatuaren zati desberdinek beste batzuekin kontra ekin ditzakete -eta, ondorioz, etnia, klase, genero eta beste taldeetan eraginiko ondorioak desberdinak izan daitezke-. Estatu desberdinak, (eta estatu bera zirkunstantzia historiko desberdinetan) euren kontrol botereak estatuko gobernu zentralean ala udal gobernuetan kontzentratu egotearen arabera desberdintzen dira. Horrez gain, gobernu zentral barruan hegemonikoa den proiektuarekin gatazkan dauden beste proiektu politikoarekiko erakusten duten tolerantzia ere desberdindu. Elkarrekotasun-auzi hauek, proiektu politikoetan, zein estatuaren maila eta osagai desberdinetako auziek, proiektu hauek birsortzeko edota aldatzeko; estatuaren kontrola maila batetik bestera igarotzeko; eta, gizarte zibilaren eta

³⁵ Yuval-Davis, N.(1997). Op Cit.: 14.orr.

familia esparruko taldeek estatuaren kontrol boterea eskuratzeko, zeintzuk diren erabiltzen dituzten bideei buruz hainbat argibide dute barne. Aurreko

testuinguru horren barruan aztertu behar dira nazio eta estatuen arteko harremanak; azterketa hau, idazlearen iritziz, aurrebaldintza bat da arestian aipaturiko prozesu horiek emakumeak eragiten dituzten moduak ulertzeko. Azkeneko kezka honi ekin baino lehenago, nazioaren kontzeptua eraikuntza ideologiko eta politiko gisa, eta nazio-estatutik bereizia, aztertzen du. Ikus ditzagun, bada, azterketa horren ezaugarriak.

Lehenik, teorilari *primordialista*³⁶ batzuen nazio-ideia gogora dakar: nazioa familia eta senidetasunaren handitze naturala baino ez da, familia handia, betierekoa eta unibertsala. Nazioaren irudi naturalizatu honen aurrean B. Andersonen³⁷ nazioa, *komunitate irudikatu* gisa eraikia, aurkezten digu. Autore honen eta beste *modernisten*³⁸ iritziz, nazioak ez dira fenomeno betierekoak eta unibertsalak, baizik eta, modernoak eta Europako historiaren garapen zehatzen emaitza zuzenak. Eskola teoriko horren arabera, nazioak, soilik, sor daitezke:

(...) when technological innovations established 'print capitalism', when reading spread from elites into other classes and people started to read mass publications in their own languages rather in classical religious languages, thus establishing linguistic national 'imagined communities'.³⁹

Alta, Andersonek, gizakiok naziokidetza naturalizat, eta ez haututzat, hartzearen garrantziaz ohartarazten digu. Haren aburuz, naziokidetza natural gisa sentitzeak, nazioak, familiak bezala, edozer eskatu ahal izatea azaltzen du, azkeneko eskaintza barne: hiltzea ala hila izatea.

³⁶ Nazionalismo lantzen dutenen eskola teorikoen jorraketa interesgarri bat ikus, in Connor, W. (1998). Etnonacionalismo. Madril: Trama Editorial, S. L.

³⁷ Anderson, B. (1993). Comunidades Imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la expansión del nacionalismo. México, FCE.

³⁸ Nazionalismoaren eskola teoriko honen barruan zeintzuk autoreak dauden eta zeintzuk diren euren proposamenak ikus: Smith, A. (1997). ¿Gastronomía o geología? El papel del nacionalismo en la reconstrucción de las naciones. in *Zona Abierta*, 79: 39-68.

³⁹ Yuval-Davis, N. (1997). Op Cit.: 15 orr.

Nazionalismoaren inguruan aipaturiko hurbilketa gain, beste autore batzuek eginikoak ere aipatzen ditu; hala nola, nazioaren modernotasuna ala antzintasunaren arteko eztabaidaren berri emateko, Gellneren⁴⁰ azalpen

modernista Smithen⁴¹ nazioen jatorri etnikoekin alderatzen du; etniaren homogeneizazioa, estatuak ala beste prozesu sozioekonomiko eta politikoek ekarri dutenaren auzia plazaratzeko, Zubaida eta Balibaren⁴² ekarpenak aipatzen ditu.

Gainera, proiektu nazionalistez ari delarik, hauen diskurtsoen helburu politikoaren desberdintasunez mintzo da. Sarritan, diskurtso horien helburua, kolektibitateko ordezkapen politiko bereizita izatea, lurralde/estatu bereizitaren aldarrikapen gisa agertzen da, baina ez beti.⁴³ Nazionalitate eta estatuaren arteko bereizketaren inguruan ezaugarri desberdinetako adibide ugari aipatzen ditu, eta hauek batzuek Yuval-Davisen lana bideratzen duten kezka nagusiez arrasto batzuk ematen dizkigute, esaterako: mugimendu nazionalista batzuen kasuetan estatua lurralde desberdin batean ezartzea, juduen mugimendu sionista Israelen, mugimendu sionista beltza Liberian; edota, munduko alde askotan etorkinen komunitateak, zeintzuek, kulturaz eta politikaz segitzen dira ama aberrikideak izaten, diasporako komunitateak dira,-bereiztu behar direnak erbesterratu politikoengandik, azken hauek egoera politikoa aldatzean itzultzeko asmoa baitaukat.

Azkenik, nazioa nazio-estatutik bereiztea bere abiapuntua denez gero, nazioak identifikatzeko ia ezaugarri objektiborik dagoen galdetzen dio bere buruari. Erantzuna bilatu guran, makina bat definizio dagoela diosku; eta haietako

⁴⁰ Gellner, E. (1988). *Naciones y nacionalismo*. Madrid: Alianza Universidad.

⁴¹ Smith, A. (1986). "The Ethnic Origin of Nations". Oxford: Basil Blackwell.

⁴² Balibar, Etienne (1990a). "The nation form history and ideology", *New Left Review*, XIII: 329-61; Yuval-Davis-ek aipatua: Zubaida, S. 91989). "Nation: old and new. Comments on Anthony D. Smith's 'The myth of the 'modern nation' and the myths of nations". Paper presented at the Anthropology Seminar Series, University College, London.

⁴³ Nazionalismoaren helburu mailaketaz, ikus: Zabalo, J. (1996). *Euskal nazionalismo eta nazio lurraldea*. Bilbo, UEU.

batzuk "a shopping list" modukoak, adibide modura Stalinekin egindakoa erakutsiz:

A nation is a historically involved, stable community of language, territory, economic life and psychological make-up manifested in a community of culture. ⁴⁴

Dena dela, haren aburuz, definizio horietan guztietan osagai bat falta da: osagai hori, Otto Bauerrek ekarria, *patu komuna* da. Bestalde, nazioen eraikuntzarako funtsezkoa dena, iraganera begira baino geroari begira baitago. *Patu komunak* nazio zehatzen barruan irenste indibidualak zein kolektiboak askoz hobeto azal dezake. Alde batetik, gizarte kolonizatueta edo estatu pos-kolonialeetan, non jatorri komuneko mitorik ez dagoen, jendeak nazioarekiko duen konpromisoaren zentzu subjektiboa ulertzea ahalbidetzen du; bestetik, edozein kolektibitate nazionalak, migrazioa, naturalizazioa, eta antzerako prozesu sozial eta politikoak direla bide, mugen berrikuntzazko amaigabeko prozesua bizi izatea azaltzea ere.

Nazioa definitzerakoan *patu komuneko* osagaia hobetsi ostean⁴⁵, proiektu nazionalisten dimentsio anitzez ari zaigu. Idazle feminista honen iritziz, hiru dimentsio nagusi bereiztu behar dira, eta baiezpen honen azpian honako argudio hauek aurkitzen ditugu: jatorrian oinarrituriko nazioen eraikuntza kulturen oinarritzen direnekin ez nahastea funtsezkoa da eta, hauek biak, estatuaren herritartasunean oinarrituriko nazioen eraikuntzatik analitikoki bereiztea ere. Genero harremanen ezaugarri desberdinek proiektu nazionalisten dimentsio bakoitzean oso rol garrantzitsua jokatzen baitute eta, beraz, genero harremanen ezaugarri horiei buruzko baliozko teorizazioa lantzeko funtsezkoak dira ere. Ezagut ditzagun, bada, berak bereizturiko nazionalismoen hiru dimentsio horiek:

1. Gizakion jatorri (edota arraza) zehatzen gainean eraikitako dimentsio genealogikoa (Volknation). Jatorri komuneko mitoak edo partekaturiko

⁴⁴ Yuval-Davis (1997). Op. Cit.: 19 orr.

⁴⁵ Ea nazioaren ezaugarri objektiborik dagoen galdetuz hasten da definizioen hustuketa; antza berarentzat, modu esplizituan ez esan arren holakorik ez dago, hobesten duen osagaia, 'patu komuna', subjektiboa da-eta.

geneak/odolak nazioaren ikuskera homogeen/baztertzailena eraikitzeke joera erakusten du, ikerlari honen iritziz.

2. Dimentsio kulturala, zeinean, hizkuntzak, edota, erlijioak, edota ohiturek eta tradizioek hornituriko ondasun sinbolikoa nazioaren esentzia gisa eraikia

den (Kulturnation). Halako eraikuntzak asimilazioa aintzat izan arren, aniztasun 'ez organiko'arekiko tolerantzia gutxi izateko joera du.

3. Herritartasunean oinarrituriko proiektu nazionalistak dimentsio zibikoaren barruan kokaturik gelditzen dira. Herritartasunak nazioaren mugak ezarri eta, beraz, estatuaren subiranotasunaren eta lurralde zehatzaren kontzeptuak definitzen ditu.

Genero harremani buruz eta nazio, nazionalismoa eta estatuari buruz jorraketa teoriko bereizia egin ondoren, lanketa biak uztartzeko unea da fenomeno biren ulerkuntza osoago bat erdietsi gura badugu, idazle honen ekarpenaren ildotik.

5.2.1.- Emakumeak eta nazioaren birsorkuntza biologikoa

Birsortze eskubideen aldeko emakumeen borroka feminismoaren borroken erdi-erdian egon da mugimenduaren hasiera-hasieratik. Feminista askok emakumeen eskubidea aukeratzeko umeak izan ala ez; gura izanez gero, zenbat eta noiz, politika feministaren oinarritzko auzi gisa ikusi dute.

Hala ere, auzi horren inguruko eztabaida gehienak, gutxienez igaro den hamarkada arte, emakumeak gizabanako gisa eskubide horiek ez izateak zekarzkien ondorioez arduratu dira. Alta, emakumeek, umeak izateaz ala ez bizituriko presioak ez dira, langile edo emazte, hau da, gizabanako bezala jasandako presioak; baizik eta, kolektibitate nazional zehatz baten kideak gisa jasandakoak. Proiektu nazional desberdinen arabera eta zirkunstantzia historiko zehatzetan, umeak izateko sasoian dauden emakumeei eskatzen zaie ume gehiago edo gutxiago izatea kasu batzuetan, bestetan derrigortu ere egiten zaie.

Nazioen mugak eraikitzeko diskurtso kultural, legal eta politiko anitz erabiltzen dira. Muga horiek eraikitzen dira gizakiok sailkatzeko *gu* eta *haien* artean eta belaunaldiz belaunaldi egitate hau luzatzeko. Emakumeak umeen *sortzaile* biologikoak gisa ikustean, muga horien barruan *kolektibitatearen*

eramaile bihurtzen dira. Nazioen muga eraikitze horretan, funtsezko osagaia *jatorri komuneko* mitoa delarik, emakumeen birsortzaile rolaren garrantzia agerian gelditzen da; osagai horrek kolektibitatearen kidetza bertan jaiotzearekin lotzen du-eta. Kasu batzuetan, bereziki ideologia arrazistak eta nazionalistak estuki elkarrerlazioaturik daudela, bide hau kolektibitatearen kidetza eskuratzeko bide bakarra da, eta bertan jaiotzen ez dena baztertua da. Horrela, ez da kasualitate hutsa, arrazaren purutasunaz arduraturik daudenak, kolektibitate desberdinen kideen arteko harreman sexualez arduratzea ere. Begi-bistakoa da, nazio eraikitze proiektu hauetan populazio politikak eta migrazio politikak funtsezko tresnak bilakatzen direla. Populazioaren kontrolerako politika nazionalistetan hiru diskurtso nagusitu dira: lehena, Yuval-Davisek *People as power*⁴⁶ izendaturikoa; bigarrena, *Eugeniar diskursoa* eta azkenik *Malthusiar diskursoa*.

People as power deituriko diskurtsoan, nazioaren etorkizuna bere etengabeko hazkundera datza. Batzuetan, hazkunde hori migrazioan ere oinarritu daiteke. Bestetan, soil-soilik emakumeen gaitasun birsortzailean oinarritzen da, hauei ume gehiago izatea eskatuz. Gizakion behar hau -askotan, batik bat, gizonezkoen beharra- proposamen nazionalista desberdinek, zibilek eta militarrek, definitzen dute: langileen, kolonizatzaileen edo soldaduen premia izatean. Berak aipaturiko adibideen artean bat aukeratu dugu, hona ekartzeko oso argigarria baita:

In Slovenia (...), in 1991, the platform of the major party Demos explicitly stated that 'women should not have the right to abort future defenders of the nation'.⁴⁷

⁴⁶ Yuval -Davis, N. (1997). Op. Cit. : 29 orr.

⁴⁷ Kasu bakoitzeko adibide historiko ugari eskaintzen dizkigu idazleak , ikus: Yuval-Davis, N. (1997). Op. Cit. : 29 orr eta hur.

Bigarren diskurtsoan, “Eugeniar diskurtsoan”, aldiz, nazioaren tamaina nagusitzen den kezka barik, bere 'kalitatea' da. Diskurtso hau partekatzen dutenak, umeen haziera hobetzeaz arduratu baino nazioaren nolakotasuna aurre-determinatzen saiatzen dira 'bide naturala' erabiliz: haziera aukeratzeko

politikak. Baina, birsorkuntza nazionalaren kezka, hurrengo belaunaldien 'osasun fisikoaz' baino harago doa, 'national stock' eta kultur tradizioen biologizazioa ere euren kezka dira-eta. Diskurtso horren ordezkari ezagunenak, naziak izan dira; alta, idazle honek ohartarazten digunez, egun egon badago adibide gehiago ere.⁴⁸

Oso bestelakoa da garatze bidean dauden herrialdeen egoera. Herrialde hauetan, Malthusiar teoria, populazio politiken irizpide nagusia bilakatu baita. Politika malthusiar hauen ondorioak oso generizatuak suertatuz: umeen kopurua mugatzeaz gain, (legez, eta beraz, askotan indarrez), arrazoi ekonomikoak eta sozialak direla eta, mutikoak hobesten dira aborto praktika masiboek soilik neskatuengana eraginez.

Jorraketa horren ostean, idazle feminista honek, sortze eskubideak, nazioaren birsorkuntza eta politika feministarekin arteko erlazioa birplanteatzeko beharraz ohartarazten digu. Ikusi dugunez, emakumeen partaidetza, euren kolektibitate nazionalan edota etnikoan, izaera bikoitzekoa da, alde batetik: emakumeak, gizonak bezala, kolektibitatearen kideak dira; bestetik, emakume gisa, emakumei zuzenduriko arau zehatzak egoteak esan gura duena. Azken hau, emakumeak nazioaren birsortzaile biologikoa bezala eraikitzearen ondorio politikoaz sumatzeko oso baliagarria. Gainera, gizarte desberdinetako sexu/genero sistemetan gizonak, gehienetan, meneratzaileak izan arren, emakumeak ez dira biktima pasibo hutsak, edota euren birsorkuntza kontrolatzeko politika edo ideologia batzuen objektu hutsak. Aitzitik, sarritan emakumei, batez ere, emakume nagusiei, nazioaren kulturaren birsortzaileen rolak ematen zaizkiela eta portaera eta itxura 'egokia' ezartzeaz gain beste

⁴⁸ Gai hauen inguruko eztabaida 1994an Caira nazio arteko mailan antolatutako jardunaldietan plazaratu zen, Yuval-Davis-ek gogorarazten digunez.

emakumeengan, desbideratzaileak bezala ikusiak direnengan kontrola ezartzea ere baimentzen zaie. Askotan, jardun hori baimentzen zaien gizarte botere iturri bakarra denez gero, emakumeek buru belarri dihardute lan horretan.

Bitartean, emakumeen 'birsortze eskubideei' buruzko diskurtso feministan, emakumeak gizabanakoak gisa ikusiak dira. Alta, halako diskurtso teoriko batek, kontuan izan beharko luke emakumeak ez direla soilik 'gizabanakoak', baizik eta gizarte klasean, sexualitatean eta bizitza zikloan kokapen zehatzea izateaz gain, kolektibitate nazionalako kideak ere. Emakumeak ez dira soilik gizabanako hutsak, ez da kolektibitatearen eragile hutsak ere. "Birsortze eskubideen" aldeko kanpaina batek aintzat hartu beharko luke, egungo gizartearen baitan, identitateen dimentsioan itza; egungo gizartearen baitako kolektibitate eta talde desberdinen botere desberdinduen oharpena galdu barik.

5.2.2.-Kulturaren birsorkuntza eta genero harremanak

Nazioari eta nazionalismoari buruzko azterketa askotan, kultura, erdi-erdian aurkitzen dugu funtsezko papera jokatu. Yuval-Davisek, halako azterketei buruz ari dela, 'diskurtso kulturizatuaz' hitz egiten digu, kulturak daukan kokapen giltzaren aurkakotasuna adierazi guran:

The position developed in this chapter (and the book as a whole) resists 'culturization' _ that is, 'the colonization of the social by the cultural' _...

Proiektu nazional desberdinetan, kulturak eta tradizioak, jatorriak eta odolak duten garrantzia baino gutxiago ala gehiago izan dezakete; idazle horren iritziz, hau ere, nazioaren beste dimentsio esentzialista litzateke. Komunitate irudikatu nazionalaren batasun mitikoa, zeinak mundua *gu* eta *haien* artean banatzen baitu, *muga babesle* sinbolikoek⁴⁹ iraunarazia eta ideologikoki birsortua da. *Muga babesle* horiek kolektibitate zehatz baten kideak direnak eta ez direnak identifikatzen dituzte. Sinbolo hauek, estuki erlazonaturik daude janzkera eta portaera arau kultural zehatzekin eta, ohiturak, erlijioa, literatura eta arte

ekoizteko moduekin, eta jakina, hizkuntzarekin. Genero sinboloek, bereziki esanguratsua den rola jokatzeko dute aurreko prozesu horretan; horrela, gizentasunezko eta emakumetasunezko eraikuntzak zein sexualitatea eta botere

harreman generizatuenak, prozesu horrekin erlazonaturik aztertu behar dira. Eskuarki, prozesu *kulturizatu* horretan, gorputz generizatuak eta sexualitateak, nazioen narratibetan edo kontakizunetan lurraldeen markatzaile eta sortzaile gisa oinarrizko rolak betetzen dituzte; rol horien azterketari ekiteko hasi beharra dago kulturaz zer ulertzen den argitzen, eta horixe bera da idazleak egin duena.

Planteamendu teoriko desberdinak aurkeztu ostean, kulturari buruzko bere ikuskera dinamikoa plazaratzen du, hori bai, kulturaren baitan kontraesanezko osagaiak daudela errekonozituz: alde batetik, egonkortasunezko eta jarraipenezko joera. Bestetik, etengabeko erresistentzia eta aldaketa. Joera biak botere harremanak eta kultur praktikaren arteko erlazio estuaren emaitzak izaki. Kulturak ez dira balore, artefaktu eta portaera moduen bilduma arbitrario hutsa; atzematen dira, neurri handiagoan ala txikiagoan, euren birsorkuntza sozialeko praktikei datzekion 'ondasunak sendotzen'. Birsorkuntza sozialeko praktika hauek, elkarrekintza sozialeko praktikak dira, zeinetan, motibazioak eta nahiak parte hartzen baitute. Hau dela bide, eredu kulturalak, esperientzia subjektiboarekin, gizabanakoen esperientzi modu, euren kolektibitate eta mundu bihurtzen dira.

Kulturaz ulertzen duena azaldu ondoren, erlijio eta kulturaren arteko erlazioaz mintzo da. Erlijioa sakratuaren esparruari dagokio, diosku; gizabanakoaren hiru galdera existentzialei - zein da nor beraren bizitzaren esangura; zer gertatzen da jendea hiltzen delarik; zer da on-gaitza?-, erantzunak eskaintzen baitizkio. Erlijio sakratuaren esparrua eta eguneroko munduaren arteko erlazioa, orokorrean, zeharkakoa da. Luckmanen⁵⁰ esanak hona ekarriz *esangura maila mailakatuaren* bidez, esanguragabekoa, *profanoa* eta biografia edo gizarte

⁴⁹ Yuval-Davis-ek eginiko aipua, Armstrong, J. (1982). Nations before Nationalism. Chapel Hill, N. C.: University of North Carolina Press.

tradizio baten *azkeneko esanguraren* artean bitartekaritza burutzen da. Esangura egitura horiek sozialki objektibaturik gelditzen direlarik, kolektibitate zehatz baten mugen eta kultur tradizioen *muga babesle sinboliko* sendoak bilakatu daitezke. Durkheimek berak, erlijioa gizarte egitate biltzailenetzat jotzen zuen,

eta bertan sinbolikoki gizarteak bere kontzientzia kolektiboa adoratzeko du. Askotan, erlijio bera kolektibitate desberdinetako tradizio hegemonikoen barneratzen dute, esangura kultural zehatzak erdietsiz, jakina kolektibitate horiekin erlazionaturikoak. Aldi berean, harea erlijioso horren definizioak, gizabanakoen identitatearen eraikuntza ideologikoa, beste edozein instituzio eta kode erlijioso formalizatutik autonomo eta libre gisa eraikia, barne izanik. Beste modu batera esanda, eta idazlearen hurbilketa honetan, modernitate eta sekularitasunarekin erlazionaturiko eraikuntza ideologikoak esplizituki erlijiosoak dira.⁵¹

Erljioaren eta kulturaren diskurtsoa, botere erlazioen diskurtsotik bereizten da maila analitikoan, baina historikoki beti dago beraien baitan. Hau horrela da, ez instituzio erlijiosoetako eta kulturaletako botere hierarkietan soilik, irudimen erlijiosoetan eta kulturaletan eta hauen barneraketa eta bazterketa eraikuntzetan ere. Azkeneko honetan, sexualitatea eta generoa erdi-erdian daude. Gainera, kulturarentzat gizarte birsorkuntzak duen garrantzi handia dela eta, sarritan, genero harremanak kulturaren esentziaren osagai gisa, belaunaldiz belaunaldi igarotako bizimodu gisa ikusiak dira. Prozesu horretan bereziki garrantzitsua da *etxearen* eraikuntza, familia barruan helduen eta umeen arteko zein helduen arteko harremanak, jateko eta jakia prestatzeko moduak, etxeke lanak, jolasteko eta lo egiteko abestiak eta ipuinak, barne direlarik; kanpoko mundu osoaren ikuskera, etikoa eta aszetikoa, naturalizatua eta birsortua izan daiteke.

Halarik ere, garrantzitsua da, kultur diskurtsoa, identitate-narratibak eta prozesu etnikoen artean desberdintzea eta euren baterakuntza saihestea.

⁵⁰ Luckman, T. (1967). *The Invisible Religion*. London: Macmillan : 42 orr.

⁵¹ Beraz, nazionalismoa modernitatearen ideologia bezala ulertuz gero, ere bai.

Identitateak, indibidualak eta kolektiboak, kultur-narratiben modu zehatzak dira, zeintzuek gu eta besteen artean komuntasunak eta desberdintasunak eratzen baitituzte, euren gizarte kokapenak interpretatuz. Kultur-narratiba hauek, askotan, jatorri komuneko eta patu komuneko mitoeekin erlazonaturik daude. Identitate-narratibak, eskuarki, proiektu etnikoen funtsezko tresnak dira. Etnizitatea

politikari dagokio, eta *gu* eta *haien* artean mundua banatzeko identitate-narratibak erabiltzen ditu. Etnizitatea, esanaren arabera, batik bat, prozesu politiko bat da. Azken horrek kolektibitatea eta haren nahiak eraikitzen ditu, eta ez soilik gizartearen beste taldekiko berak duen kokapenaren emaitza gisa; baizik eta, kolektibitate etniko barruan arduratzen direnak beste batzuekin dauzkaten erlazio zehatzen emaitza gisa ere. Generoa, gizarte klasea, politika, erlijioa eta beste desberdintasun batzuek *politika etniko zehatzen* eraikuntzan funtsezko rolak jokatzen dituzte; horrela, kolektibitate beraren proiektu etniko desberdinak lehia handiko borroketan sarturik egon daitezke kokapen hegemonikoa erdiesteko. Proiektu etnikoek eskura dituzten funtsezko baliabide guztiak erabiliz, politikoak zein ekonomikoak edota kulturalak, aurrera egiten dute.

Arestion esandakoa kontuan harturik, argi da, ikerlari honen aburuz behintzat, etnizitatea ezin dela kulturara murriztu, kultura ezin baita kategoria esentzialista eta finko gisa ikusia izan. Hala eta guztiz ere, kultura, identitatea eta etnizitatearen arteko desberdintze-eta definitze-jarduerarekin segituz gero, diosku, *benetakotasun* kontzeptuarekin egiten dugu topo. *Benetakotasunak* kulturen, identitateen eta taldeen eraikuntza finko, esentziala eta unitarioa esan gura du. *Benetako ahotsak* euren benetako ordezkatzailleak bezala sumatuak dira, eta proiektu etniko desberdinetan baliabide ekonomiko eta politiko bat bihur daiteke; baina, sor dezakete ere, Kubena Mercerrek *ordezkapenaren zama* deitu duena eta Amrita Chhachhik, testuinguru desberdin batean, *identitate derrigortuak*.⁵²

⁵² Yuval- Davis-ek eginiko aipuak: Mercer, Kubena (1990)"Welcome to the jungle: indentity and diversity in postmodern politics, in Rutherford (ed.), *Identity, Community, Culture, Difference*, University of Greenwich, July; Chhachhi, Amrita (1991)"Forced identities:the state, communalism

Sarritan, emakumeei esleitzen zaie *ordezkapenaren zama* hori, kolektibitatearen identitatearen eta ohorearen eramaile sinbolikoak bezala eraikiak izatean. Emakume baten irudiak, batez ere, amarena, kultura askotan kolektibitatearen

izpiritua sinbolizatzen du. Nekazal gizartetan, *ama lurraren* emankortasunaren beharrak, lurralde kolektiboa, identitate kolektiboa eta emakumetasunaren arteko elkarketa estua, dudarik ez, azaltzen duela. Dena dela, emakumeek kolektibitatea sinbolizatzen dute beste modu batzuetan ere: emakumeak irudimen kolektiboan umeei loturik agertzen dira, beraz kolektiboari, familiari, geroari loturik ere. Emakumeek kolektibitatearen identitatearen eta etorkizuneko patuaren *ordezkapen zama* izateaz gain, askotan, kolektibitatearen ohorearen eramaileak ere izan behar dute, emakumeen portaera “egokiek”, janzkera “egokiek” kolektibitatearen mugak ezartzen dituzte-eta.

Alta, sarritan, emakumeek kolektibitate barruan kokapen anibalente bat izaten dute, alde batetik, kolektibitatearen batasuna, ohorea eta proiektu nazional eta etniko zehatzen *izate arrazoia* sinbolizatzen dituzte; baina, bestetik, gorputz politikoaren *gu* kolektibotik baztertuak dira, subjektu baten kokapena izan barik objektuarena izaten. Emakumetasunaren eraikuntza *besteen* kutsua dauka. Askotan, “emakume egokia” eraikitzen duten arau kultural estuak emakumeak behe maila batean mantentzearen garatuak izaten dira.

Idazle feminista horrek, azaletik bada ere, identitatearen eta desberdintasunaren kultur eraikuntzetan genero harremanek eta sexualitateak duten garrantziaren berri eman digu. Kultura hegemonikoek munduaz eta gizarte ordenaren izaeraz euren ikuskera zehatza aurkezten dute. Halako ikuskeretan emakume eta gizonen arteko erlazioak funtsezkoak dira eta, beraz, gizarte gehienetan gizonen kontrola emakumeengan ere. Emakumeak, askotan,

kolektibitatearen kultur sinboloak bezala, haren mugak, kolektibitatearen “ohorearen” eramaileak eta belaunaldien arteko kulturaren birsortzaileak bezala eraikiak dira. Kolektibitatearen kideen identitateetarako oinarrizko auziak, hala nola, zer/nor da “gizon egoki bat” eta “emakume egoki bat”, definitzen dituzten arauak askotan garatzen dira. Eraikuntza horiek, askotan ere, emakumeen interesen kontra jotzen dute. Horrela, emakumeek euren burua proiektu hegemoniko horiekiko egoera anbibalente batean ikusten dute sarri.

5.2.3.- Herritartasuna eta desberdintasuna

Arestion aipaturiko nazionalismoaren hiru proiektu nagusitik, dagoeneko, proiektu bitan, *volknation eta kulturnation*, dauden genero harreman desberdinez jabetu izan gara, idazle honen eskutik; hirugarren bat jorratzea faltatzen zaigu: *Staatnation* delakoa edo, beste modu batera esanda, estatuan oinarrituriko herritartasuna.

Badirudi, estatuaren herritartasuna kolektibitate nazionalean kide izateko irizpide gisa, kolektibitatearen kidetza osoa⁵³ eskuratzeko modu egokiena dela, printzipioz, edonor kide izan ahal baita. Baina, praktikan egon badaude kidetza oso hori mugatzen dituzten faktore batzuk, hala nola, herritartasuna eskatzen dutenen baliabide sozio-ekonomikoak, migrazioa eta naturalizazioa arautzen dituzten legeak, zeintzuek, gehienetan, lagun talde batzuei besteei baino gehiago errazten baitie bidea. Horrela, nazionalitateari, migrazioari eta errefuxiatu legediari dagokionez, emakumeek gizonetikiko alderatuz araudi desberdina jasan behar izaten dute, esaterako, euren familiaren gizonen menpeko gisa eraikiak direlarik. Beraz, herritartasuna generizatua dela argi gelditu den egitate dugu.⁵⁴

⁵³ "is the most inclusive mode of joining a collectivity" esateko.

⁵⁴ Eztabaida hau oraindik dirau oso ekarpen interesgarri batzuk honako hauek dira; Walby, S. (1994). Is citizenship gendered? *Sociology*, 28, 379-395; Crompton, R. eta Mann., M. (1986). Gender and Stratification. Cambridge: Polity Press; Ramirez, F. O. eta Y.ung-Kiung C. (1990). Citizenship and Gender. *Research in Sociology of Education and Socialization* 9, 153-73; Saraceno, C. (1988). La estructura del género en la ciudadanía. In E. H. Unibertsitatea (Eds.), *Mujer y Realidad Social*. Bilbo; Stolcke, V. (1989). Una ciudadana sin ciudadanía propia: La naturaleza de la nacionalidad en La Francia, La Alemania, y La Inglaterra del siglo XIX. In *Hombres y mujeres en la formación del pensamiento occidental*. Madrid: Universidad Autónoma de Madrid; Yuval-Davis, N. (1991). The Citizenship Debate: Women, Ethnic processes and the State. *Feminist Review*, 39zbk.: 58-68; Yuval-Davies, N. (1997). Women, Citizenship and Difference. *Feminist Review*, 57, 4-27.

Yuval-Davisek egitate hau frogatuzat ematen duenez, herritar teoria egoki baten bidea urratu nahi du, "herritar kategoria" ezberdinetara heltzeko dauden sarrera-bideak aztertuz eta hauek menpekotasun harremanetan dituzten eraginak ere. Hortaz, auzi horri ekiten diolarik, herritartasuna fenomeno zabal gisa hartzeaz gain, esplizituki herritartasunari buruzko definizio liberala errefusatzan

du, T.H. Marshallen⁵⁵ teoria klasikoa hobetsiz. Azken pentsalari horren definizioan, herritartasuna, 'komunitatearen kideza oso gisa' agertzen da, beraz, eskubide eta erantzukizun zibilak, politikoak eta sozialak bat eginik agertzen dira. Hau da, herritartasuna, geruzanitzekoa bailitzan ikusia da eta tokian tokiari, nazioari, estatuari eta, sarritan, estatuen gaineko komunitateei bailegokien. Oso eztabaida interesgarria autore honek plazaratzen duena, baina atal honen xedea gainditzen duena eta, beraz, jorratu ezin duguna.

Yuval-Davisen ekarpenaz honaino esandakoaren inguruan eta hark eginiko jorrocketaren hari eroalearekin bat etorri arren, gehiago sakondu behar duelakoan gaude. Hau da, genero harremanen lanketa teorikotik nazio eta estatuaren arteko erlazioa lantzerantz pasatzea, aldez aurretik, estatua, nazioaz eta nazionalismoaz jorroketa bat eginez, eta, azkenik, bi arlo teoriko horien uztarketa planteatzearekin bat gatoz. Baina, gure aburuz, egon badaude 'makaltasun' batzuk agerian utzi beharrekoak, esaterako: estatuari buruzko jorrocketari azalekoa eta batere argia deritzogu; hainbat aldiz estatuen eta nazioen arteko erlazioak aztertu beharraz ohartarazi arren, horrelakorik ez dugu aurkitu. Agian, lan hori ez agertzeak dakar ez azaltzea nazionalismoaren dimentsio horiek eta berauen baitako genero harremanek har ditzaketela forma desberdinak eta, are garrantzitsuagoa, eragin desberdinak izan ditzaketela emakumeengan (esaterako atxikituriko rolak barneratuak ala errefusatuak izatea). Beraz, Yuval-Davisek, Walby bezala, identitate nazionala eta identitate feministaren arteko gatazka iraunkorra egiten du, argi izpirik eman

⁵⁵ Marshall, T. H. (1950). *Citizenship and Social class*. Cambridge: Cambridge University Press

gabe gatazka hori gainditu ahal izateko. Gu, aldiz, estatuarekiko nazioen egoera kontuan izateak, nazionalismo desberdin horien baitako genero harremanak aldatze bidea urratzeko arrastoak emango dizkigulakoan gaude. Gure azken iritzi hori birbaieztatzera letorke N. Abdok⁵⁶ honakoa dioskularik:

Before adressing the issue of feminist and nationalism, it is important to differentiate between two form of nationalism: the institutionalised, state form of nationalism and the nationalism of a liberation movement. This distinction

is theoretically necessary and politically important. Despite certain commonalities in the place and role women have been given in nationalist policies and national movements, the differences between the two forms of nationalism are fundamental. Unlike official, state nationalism, which historically has used, misused and abused women, national liberation movements provide a space for women's emancipation. By taking an active role in their national liberation, and simultaneously bringing their concerns to the forefront of the agenda, women can contibute substantially to freeing the movement from its patriarchal structure.

5.3.- Estaturik gabeko nazionalismoetan emakumeen askapenaren bideragarritasunaz.

Aipatu idazle palestiniarra, aurreko ondorio horretara heltzen da, *intifadan* emakumeek izandako partaidetza masiboa aztertu ondoren. Bere iritzi *intifada*, Palestiniar gizartearen baitako kontraesanak areagotzeko gizarte indar boteretsu gisa aritu da; gertakizun horretan mugimendu biren proiektuak, nazio askapenerako mugimendua eta emakumeen askapenerako mugimendua, batu dira-eta.

Horrez gain, emakumeek jokaturiko rola berdina izan arren nazionalismo bietan,-esaterako, nazioaren sortzaile biologikoak-, rol horren zereginak modu desberdinetan sumatuak izan daitezke. Horrela, idazle honek aztertzen duen kasuan, Israelgo estatuaren nazionalismoa, emakume arabiarrei abortua eta antisorgailuak eskura uztean eta emakume juduei ukatzean, sexista izateaz gain

⁵⁶ Abdo, N. (1991). Women of the intifada: gender, class and national liberation. *Race & Class*, 32,4, : 22 orr.Azpimarratua guk egina da.

arrazista ere bada⁵⁷. Ordea, nazio askapenerako mugimendua balore desberdinen ganean eraikia da. Amatasuna naziotasunarekin parekatzearen eraikuntza palestiniarrek bizituriko errealitatearen isla da. Ama-lurratik jaurtikiak izateak eta atzerriko lurraldeetan errefuxiatu beharrak ama-nazioa erlazioa oldartzen dute. Errefuxiatuen kanpamenduetan, emakumeek, estatua

eta bere instituzio guztien rola, irakaskuntza barne, bereganatzen dute. Kanpamenduetan itxirik, mugikortasun sozial edo ekonomiko barik, emakume palestiniarrek ume palestiniarrak, nazio identitatearekin, birsortzen eta mantentzen ahalegintzen dira; jakina, errefuxiatuen kanpamenduetan, gizarteratze prozesu osoa sinbolo nazionalista sendoetan oinarritua delarik. Emakume hori, bere kokapenez eta rolaz oso kontziente da. Bera nazioa da, nazio askapenerako beharrezkoa den edozer egiteko prest dago. Nazio askapenerako mugimenduetan, amatasuna, nazio identitatearen eta kulturaren biziraupenarekin erabat identifikaturik dago. Hau dela eta, emakume gehienek, zaharrek zein gazteek, errealitate horretaz jabetzean, ez dute umeak izatean ezer zapaltzailerik ikusten.

Hala ere, emakumeen identitate generizatuak dugu hau ere amak gisa eraikiak izatean, non dago, bada, emakume askearen irudia? Aldaketaren eragileak *intifadaren* testuinguruan emakumeen borroka antolatzeko sorturiko hiru batzorde nagusien kideak ditugu. Batzorde hauek (*utors*), PAE⁵⁸ barruko hiru alderdi marxisten zatiak bezala sortuak, emakumeen militantziarako esparruak ziren. 1970eko hamarkadan antolatuak izan arren, *intifadan utorsek* herrietan, errefuxiatuen kanpamenduetan eta hirietan partaideen kopurua biderkatu eta laguntza masiboa lortu zuten.

Dena dela, aldaketa burutu zuten batzordekideak, neurri handi batean ertain klaseko intelektualak dira, nortzuek nazio literaturaren sexismoaz oharturik

⁵⁷ Estatu mota zehatz batean, N. Abdok , berak, dioskunez: " In a colonial-settler form of state, the reproduction of the 'superior' race has often been accompanied with mechanisms for the control and suppression of the 'inferior' race. In some extreme cases, (...) massive expulsion or 'population transfer', as in the Palestinian case.

In most cases, however, the nation-state resorts to social, economic and political pressures to curb or check the growth of the 'undesired' population.. "in: Op. Cit: 23 orr.

deseraikitzeari ekin zioten; eta ez hori bakarrik, Jerusalemen sorturiko emakumeei buruzko ikerketak burutzeko sorturiko erakundean, familiari buruzko legeen berridaztearen ideia ere lantzen ari dira; batik bat, emakumeen eskubideak, hala nola, ondasunarekiko, ezkontzarekiko, dibortzioarekiko, -gizonezko zaintzaile barik-, bermatzeko. *Utorsen* jarduera ez da horretan gelditzen, oso esparru zabala hartzen du: herri eta errefuxiatu kanpamendu

askotan eguneko osasun zentroak antolatzetik, alfabetatze eta osasun kanpainak eratzeraz; manifestazioen antolakuntza eta gidaritzaz; Israelgo soldaduekin aurrez aurreko borroka; emakumeentzat aukera ekonomikoak sortzen, denda eta kooperatiba txikiak zabaltzeko kanpainak eginez. Emakumeen kooperatiba askok nazio ekonomi buruaskia helburutzat zuten, eta antza, palestiniarren mendetasuna Israelgo produktu eta lan merkatuekiko gutxitzen nahiko arrakasta izan dute.

Halarik ere, *utorsen* jarduera zabal honetan tentsio iturri diren hainbat gauza ere badira, esaterako, emakumeen kooperatibak etxeko esparruan kokatzean, *utorsak* modu ez kontziente batean emakumeak zapaltzen ari dira; edota, borroka zabaltzeko nazio diskurtsotzat erabiltzea bai *um al-Shaheed* patriarkatuaren menerapena, bai *um al-Asirah*, matriarkatuaren menerapena, aldi berean.⁵⁹Bestalde, azken honek gizonezko palestiniarren komunitatearen baitan ere, sexu eta bortxaketa, gizarte tabuak, bersartzen ditu.

Egunero *intifadan* kultura sortzen da; emakumeek, gizonek eta umeek sortzen dute kultura hori, gero beste hedabideek, filmek, bideoek, abestiek, olerkiek, istorioek, ipuinek eta abarrek barneratuko dutena. Emakume eratzailleek kultur adierazpen horietan agertzen direla bermatu behar dute orain eta ez nazioa askatu ostean: "*We can't wait for the state. It is time.*"⁶⁰

⁵⁸ Palestinaren Askapenerako Erakundea.

⁵⁹ "um al-Shaheed, gizonezko preso baten ama; um al-Asirah, emakumezko preso baten ama." Diskurso biak bateratzean kontraesanen existentzia agerian gelditzen da. Abdo, N.(1991): Op Cit.: 30 orr.

⁶⁰ Abdo, N.(1991). Op. Cit: 31 orr.

Dena den, *intifadaren* antolakuntzan eta gidaritzan eskubide berdinak eskuratzea emakumeen askapenerako borrokaren lehengo helburuetariko gisa dirau. Emakumeen *utorsek* lorturiko aldaketa handiena alderdi politiko nazionaletatik euren independentzia lortzea izan da; batik bat, emakumeengan eragina zituzten auzietan independentzia maila nahikoa lortzea.

Intifadaren hasieratik egun arte garaipen batzuk lortu dira, baina aldi berean, arazo mota berriak ere sortzen ari dira. Palestiniarren bizi baldintza eskasak, pobreziak,-batez ere, Gaza aldean-, poligamia eta emakumeen artean ezkontza goiztiarrak bezalako praktika kulturalak birsortuak izatea dakartza. Feminismo eta nazionalismoaren arteko kontraesanak gori-gorian agertzen dira testuinguru horietan.⁶¹

Hortaz, nazio askapenerako mugimenduetan, emakumeek rol aktibo bat izanez gero, eta aldi berean, euren kezkak militantzia esparru horretan plazaratuz gero egitura patriarkalak eraldatzeko pausoak ematea posible dela ikusi dugu. Baina, *intifadarena* ez da adibide bakarra, mendebaldeko Europa zaharrera hurbildu ahala, egiten dugu topo luzaro dirauen beste nazio gatazkarekin eta horren protagonista batekin: Ipar Irlandako askapen mugimenduarekin.

Testuinguru honetan aipatzekoa da IRAko emakumezko presoek espetxeetan, euren gizonezko militantzikideekin batera, buruturiko protesta ekintza 1980an. 1978tik 1981era kartzelako autoritateen eta Britania Handiko gobernuaren kontra IRAkideek harrigarritzko protesta ekintza burutu zuten: garbitzeko zein komunera joateko euren ziegetatik irtetzeari uko egin zioten, euren zikinkeriaz inguraturik bizituz. 1980an emakumezko kideek bat egin zuten militantekideekin protestaren kaka irudi izugarriari hilekoaren odola gehituz.

⁶¹ Idazleak bereziki kezkatua agertzen da Gazako emakumeen egoeraz hitz egitean: Abdo, N.(1991): Op Cit: 31-32 orr.

1981ean IRAkideek burutu zuten baraualdiarekin alderatuz, 'Protesta Zikinak' ez zeukan aurrekaririk egungo kultura politikoan.

B. Aretxaga-k⁶², antropologo feministak, "Protesta Zikinaren" ekintza politikoaz eta, batez ere, ekintza horretan emakumeek izandako eskuartzeaz eginiko interpretazioa ere, birbaieztatzera letorke N. Abdok plazaraturiko tesia, ondoko esanetan ikusten denez:

*Mientras la Protesta Sucia de los hombres estaba encerrada en su propia violencia, la de las mujeres provocó un movimiento de transformación social. El impulso de tal transformación vino de la articulación de la sangre menstrual, como un símbolo de diferencia sexual, con el discurso feminista en curso.*⁶³

Aretxagak dioskunaren arabera, herri kontzientzian, emakumeak ez zegozkion kartzelari, 1972tik ekintza armatuetan euren partaidetza nabarmenki hazi arren, eta, beraz, kartzelan sarrera ere. Nazionalista askok, emakumeak kartzelan egotea, gaztaro idealistaren eta familia arduren gabeziaren emaitzatzat jotzen zituzten. Gizon errepublikanoak, emakumeak ezkondu ondoren heriotza edo espetxeratze arriskua zeramaten ekintza politikoak utziko zituztelakoan zeudela errekonozitzen zuten emakumezko preso ohiek. Nahiz eta, sarritan, horrela izan; ez da, inola ere, beti hala izaten. Bestalde, gizonezko presoen irudiak ez zeukan erreferentzia datarik. Hauek gazteak izan arren, euren artean ezkondua eta seme-alabak izatea ez zen batere arraroa. Gizonezko presokin alderatuz, emakumeak neskatoak gisa ikusiak ziren. Gizarte mailan, ez gizonak ez emakumeak, ez ziren generoarekiko neutroak bezala ikusiak izaten.

Ordea, emakumezko presoek, ez zuten generoa desberdintasunezko osagai esanguratsu legez sumatzen. IRAren emakumezko kideek erakunde honen kideak izateko borrokatzen zuten, ez Cumman na mBan haren emakumezko homologoaren kideak izateko. Hortaz, kontzienteki generoa militantzia politikoan, desberdintasunezko faktore gisa, errefusatu zuten. Gizonezkoen erakunde batean praktika militarerako generoak garrantzirik ez zeukala erakusteak, euren emakumetasuna biguntzea eta gizonezko kultur arauak

⁶² Aretxaga, B. (1995). Protesta sucia: sobredeterminación simbólica y género en la violencia étnica de Irlanda del Norte. in *biTarte* 13: 45-67

barneratzea ekarri zituen. Armagheko⁶⁴ emakumeen ikuspegitik euren "Protesta Zikina" gizonezkoena berbera zen: militante kide berdinek onarturiko borroka bera errekonozimendu politikoa lortzeko. Genero arren presoen identitatean berdintasunezko aldarrikapen sendoa, presoei generoaren arabera ezarritako neurri desberdinek zekarren desberdintasuna saihetsetako saio bat legez ulertu behar da.

Emakumezko presoei ez zitzaaien derrigortzen espetxeko uniforme eramatera eta, horrela, ez zituzten gizonezkoek zituzten bizi baldintza larriak bizitzen; egitate horrek, hasiera-hasieratik, genero desberdintasuna ezarri zuen, zeinak emakumeen irudi politikoaren kontra jokatu baitzuen. Ildo honetan, Armaghko emakumeentzat "Protesta Zikina", kartzelak ezarritako genero desberdintasuna ezabatzeko saio bat izan zen, eta beraz, euren irudi politikoa berrindartzeko ere. Alta, eta ez hala nahita, hilekoaren odolak prozesu honen kontraesanak mahaigaineratu zituen, protestaren esangura aldatuz. Emakumeek, euren bizitza politikoaren beste dimentsioetan ezabaturiko desberdintasuna, hilekoaren odolak objektibatu egin zuen. Hau da, IRAkideak izateak ekarri zuen, lehenengo pauso batean, asexualizazio kultural bat euren identitate politikoan; "Protesta Zikinak" desfeminizazioa bat, eta maila sakonago batean, hilekoaren odola erakusteak prozesu hau irauli egin zuen "neskatoen" gorputz asexuala emakumeen gorputz sexualizatu bihurtuz. Hilekoak, emakume izatearen funtsezko zeinu legez, emakumeen zaurkortasun soziala ere adierazten du-eta.

Aretxagaren iritziz, komunitate nazionalistak ez zuen emakumeen sufrimendua ulertu eta ezin zion sufrimendu horri aurre egin. Ez da amaren sufrimendua, zeinak presoekiko elkertasunean nazionalisten sentimenduak pizten baitu. Ez da atxiloturiko mutilen sufrimendua, hauen irudiak, biluzik eta jipoiturik, Jesusen antza zeukana. Armaghen atxiloturiko emakumeak, gura barik, beste sufrimendu desberdin bat plazaratzen hasi ziren; gizarte bizitzan eta kultur eraikuntzetan sistematikoki ilundua, erlijio katolikoan eta nazionalismoan devaluatua: hilekoa zeinu eta sinbologia den emakumeen sufrimendua.

⁶³ Op. Cit.: 59 orr.

⁶⁴ "Protesta Zikina" burutu zituzten emakume guztiak Armagh kartzelan zeuden.

Protesta Zikinak Britaniar kolonialismoaren kontra aritu bazen Armagheko emakumeek genero politikekin busti zuten protesta hori. Alde batetik, diskurtso nazionalistaren emakumetasunezko eredu meneratzaileak, ama katoliko asexualaren eta Ama Irlandaren inguruan eraikiak, ukatuz. Bestetik, emakumeen Protesta Zikina gizonezkoen biolentziaren aurkakoa izateaz gain, honi estuki loturiko diskurtso eta praktika kolonialaren menerapen politikoaren aurkako ekintza ere izan zen.

Irlandan, Protesta Zikina iraun zuen bitartean, mugimendu feminista oso-oso banaturik hazi zen. Korrante feminista nagusiak oso kritikoak ziren mugimendu errepublikanoaren gizonezko menerapenarekin, eta, batez ere, biolentziaren erabilerarekin, azken honek, euren iritziz, emakumeak banatzen zituen-eta. Ipar Irlandako mugimendu feministen artean nagusienetariko batek⁶⁵ ez zien laguntzarik eman Armagheko emakumeei, euren gizonezko kideak imitatzen ari baitziren. Bestalde, mugimendu errepublikanoak ez zuen begi onez ikusten feminismoa.

Aretxagaren aburuz, Armagheko emakumeen protesta ekintza mimetikoa izan zen, baina, ondorio politiko garrantzitsuak izan zituen; mimesia ez da zertan errepikapen sinple bat izan, baizik eta, bereganatze bat zeinak birdefinizio prozesu bat urratzen baitu. Eta, idazle honen ustetan, modu honetan interpretatu behar dugu protesta hori.

Armagheko emakumeak IRAren partaideak izatea exijitzen ari zirela, euren adar femeninoa errefusatzuz, emakumeak eskumendeko politikoaren egoera batean kokatzen zituen genero sistema bat kritikatzeko ari ziren. Kritika horrek sistemaren terminoak aldatu zituen. Modu berean, Protesta Zikinaren bereganatze mimetikoarekin, hasieran, Armagheko emakumeek genero desberdintasuna ukatu zuten, euren borroka gizonezko kideena bera zela aitortuz. Hileko odolak sexu desberdintasuna objektibatzeak erresistentziaren historia berridaztea ekarri zuen:

⁶⁵ Movimiento por los Derechos de las Mujeres de Irlanda del Norte (NIWRM). Aretxaga, B.(1995):Op. Cit: 63 orr.

*(...) una re-escritura que especificó hacia lo femenino en su forma más transgresiva. Pero también supuso una refiguración de lo femenino en la medida en que fué declarado, no como una esencia compartida, sino existencialmente inseparable de su posición de clase y etnia.*⁶⁶

Protesta Zikinaren bereganatze mimetikoak azaleratu zuen emakumeen sufrimendu espezifikoa, eta Ipar Irlandan estuki loturik, baina ez murrizturik, menerapen kolonialari. Halako lotura, existentzia baten sinbolo gisa hileko odolak adierazia; existentzia, munduan egoteko modu bat, ez feminismo

meneratzaileak ez diskurtso nazionalistek, ezta gutxiago ere legearen diskurtsoak ezin zutena ordezkatu.

Hileko odolaren sinboloa, garai hartako diskurtso politikoekin eta feministekin artikulatzeak sorrarazi zuen eztabaida bat, bai nazionalisten artean bai feministen artean, feminismoaren eta nazionalismoaren benetako kategorien politika zehatzetan; eztabaida horrek ondorio sozial bat izan zuen: 1980 urte amaieran, lehenengoz, mugimendu errepublikanoaren baitan emakumeen eskubideei buruzko dokumentu bat onartu zen. Handik bi urtera, lehenengoz ere bai, Falls Road izeneko langileen *ghetto* nazionalistan, emakumeentzat etxe bat zabaldu zen. Emakumeak, gizon nazionalista askoren protesta eta egonezinaren artean hasi ziren lanean, ordura arte isilpean gordetako gaiekin: tratu txarrak, intzestuak, bortxaketak, pobrezia, beste motatako zikinkeria azalaraziz. Geroztik, komunitate nazionalistak, eta bereziki republikanismoak, ezin izan du genero politikak ahantzi. Modu berean, Ipar Irlandako feministek ere ezin izan dute politika nazionalistak ahantzi.

Atal honetan, nazioarteko literaturan, nazioa eta generoa, identitate iturri biren arteko erlazioaren jorraketa teorikoaren egoera eta edukia ezagutu dugu. Egoeraz aritu garelarik, teorizazio honen heldutasun eza agerian uzteaz gain, edukiaren azaleko izaeraz jabetu gara hainbat errealitateak ulertzeko eta, beraz, aldaketa urratzen hasteko behar beste laguntza ez eskaintzean. Halarik ere, abiapuntutzat hartuz gero, norabide zuzenean eramango gaituelakoan gaude. Beraz, euskal nazioaren eraikitze prozesuan generoak jokaturiko rola

⁶⁶ Op. Cit.: 64 orr.

ezagutzera goazela, Yuval-Davisen ekarpena gehi Abdok eta Aretxagak egindako ekarriak kontuan izango ditugu.

Hirugarren zatia: Euskal nazioa eraikitze prozesu generizatua.

Nik uste dut lehenengo momentu horretan, andereñoak, guk ez gendula gure egoerari buruz hitz egiten. Egiten gendun ikastolatara behar zela. Hori gogoratzen naiz, horretaz bakarrik, hor da, ikastolak irten behar dau nahi eta nahi ez eta aurrera joan behar dau eta jende asko egoten zen soldata, diru ordaindu barik eta holan. Ikastola aurrera joan behar zan eta aurrera egiten gendun. Ez zen berba egiten, ba...ez deuskue ordaintzen ez dakit zer...ez holakoak ez gendun egiten inoiz ere ez, bakarrik egiten zen berba, hori, programazioei buruz, euskara zelan landu neska-mutikoekaz, ba bestearen bidez, jolasaren bidez, udako koloniak prestatzen hasi...andereñoa nik uste dut, hor, momentu hartan, protagonismo hori eraman gendula ondo, nahiz eta hainbat kasutan, familia bat sortu, eta familia baten ardura izan, beste hori, ikastolaren garapen hori eta ikastolaren helburua, azkenean zen euskara zabaltzen eta euskaraz irakaskuntza bat egitea Euskal Herrian, uste dut hori ez dauela ahaztu. Eta gainera, andereño horrek, amak izan direnak eta famili bat sortu eta holan egin dabenak, hori argi eduki dauela eta biak eraman dauz. Sarritan, euren kalterako fisikoki edo jota egonda...borroka baten aurkitzen ginela eta danok gengozan alde baten, esaten dena hori: estás a un lado o en otro de la barricada. Ba, argi zegoen non aurkitzen ginen ez da? eta orduan, hori zen lan bat egin behar zena eta zu zinen bat hor, lan egin behar zenduna, eta horretan nik uste dut argi eduki gendula, gehienok, eta horregatik egiten gendula lan hori helburua lortzeko, nik uste dut (Seber Altube ikastolako andereño ohi baten esanak)

6. atala: Estatu integrazioari jarkiz: foruzaleak

Bigarren zati honen hasierako atalean, nazioaz eta nazionalismoaz ari ginela, eta, batik bat, lehenengoaren esangura argitzen genbiltzalarik, oinarrizko identitate taldearen bilaketari eta honen existentzia unibertsalaren agertzeari eutsi diegu. Ahalegin horren emaitzak izan dira, izaera unibertsaleko *nazio kulturala*, herri, etnia, volk, "tribu kultural" baten zentzuan; *estatu*, lurralde antolakuntza politiko gisa eta *nazio politikoa*, eraginiko kontzientziatzko egitate legez, historiak jaurtikiak, ordea. Hiru kategoria hauen arteko erlazioaz, honakoa ere esaten genuen: gizarte egitate desberdinak diren neurrian, bereziak agertu daitezkeela, bat agertu daitezkeela bestea agertu barik eta are gehiago, historian, hirurak bat eginik agertutako kasuak oso-oso urriak direla; baina, horrek ez du esan nahi fenomeno estatikoak direnik, aitzitik, oso dinamikoak izan daitezke eta, horrez gain, euren garapenetan elkarri eraginduak eta erreferituak agertu ere bai.¹

Europako historiari so eginez, bi bide nabarmentzen dira europar herriek segitu dituztenak nazio politikoa statusera heltzeko, alde batetik, estatuak jorratua; bestetik, mugimendu nazionalistek urratua. Azken hau, euskal nazioak bizitutako esperientzia dugu, eta, hain zuzen ere, honexegatik luzez aritu izan gara estaturik gabeko nazionalismoen ekite moduez. Jorraketa horretan ikusi dugu ere, nazionalismoen helburu eta jardueretan nazioaren egoera, berea ez den estatuarekiko edo estatuerekiko, funtsezko baldintza dela. Horrela, estatu batzuen artean banaturik dagoen nazio baten nazionalismoak batasuna du helburu eta, honen benekotasuna kontzientzia eragiteko. Helburu hau erdietsi guran, nazionalismo askok nazioa komunitate moral gisa² berreraikitzeari ekin diote: hizkuntza antzina, nazio hizkuntza bihurtu; hizkuntzaren irakaskuntza orokortu; eta prozesua geldiarazia ez bada, alfabetatze orokortzetik hezkuntza sistema oso bat eraikitzeira iragaten du ekimenak. Horren guztiaren eragile nagusia elite edo *intelligentsia* izan ohi da. Dagoeneko, eragile gehiago ere

¹ Ikus 4. atala .

² Ikus 4 atala.

badirela esateko modukoan gaude. Zalantzarik ez baitugu, nazioa komunitate moral gisa eraikitze prozesua, gizarte errealitate prozesu guztiak bezala, generizatua dela eta, hortaz, prozesu horren inguruan, emakumeek zer esana badutela.

Euskal nazioa, berehala ikusiko dugunez, bi estaturen artean banaturik dago ere. Ezagutu nahi dugu euskal nazionalismoaren helburu eta jardueretariko batzuen artean, zenbateraino izan da komunitate moral eraikitzearen bideari ekitea,-lehen aipaturiko zentzuan-, eta nola egituratu dituen generoak diskurtso eta praktika desberdinak. Hori dela eta, euskal nazionalismoaren ibilbide historikoari begirada bat emango diogu, begirada arina eta mugatua aurreko lerrootan aipatutakoa baino ez baitugu aintzat hartuko.

Nazio bat gizarte mota bat da, alegia, gizabanakoentzat gizartean bizitzeko modu bat eta nazioaren definizio hori emanez, nazioari prozesu izaera nabarmentzen genion.³ Horrela, nazioa sortzen duen osagaien multzoa sortze egoeran egon daiteke, ala, finkatze-integratze egoeran, ala, desintegratze-desegite egoeran, ala, beste batek irenste eta desagertze egoeran; nazioa existitu daiteke, bete-betean nazioa izan, baina, izaten hasia egon daiteke ere, izateari uzten, ala izatera bueltatzen. Dagoeneko esana dago, Europako historian, nazioa eraikitze prozesuen hasiera eta garapenaren ardura estatuen ala mugimendu nazionalisten esku egon dela.

Euskal Herriari azkena egokitu zaio eta euskal nazionalismoaz hausnartzen goazelarik honako galdera hau datorkigu burura: zeintzuk dira euskal nazionalismoaren sorreran dauden zioak? Gai honen inguruko literaturan asko dira nazionalismoen jatorria azaltzen saiatu diren teoriak, baina, Nuñez Seixasek⁴ dioenez, Europako errealitate historikoak edozein makroteoria soilki aplikatzearen zailtasuna erakusten du. Hori dela eta, hark egiten duen bezala, euskal nazionalismoaren sorrera azaltzeko aukeratu dugu elkarrekikotasunean

³ Ikus 4. Atala.

⁴ Nuñez Seixas, X. M. (1998). *Movimientos nacionalistas en Europa. Siglo XX*. Madril, Editorial Síntesis.

aritzen diren aldagaien eredu bat. Eredu horretan aldagai batzuetan beste batzuek izan dezaketen eragin handia ala txikia tokian tokiko eta testuinguru historikoaren arabera ulertzen da. Gainera, badirudi adostasun maila nahikoa dagoela nazionalismoaren jatorri sozialaren inguruan eta bai haren garapenaren ezinbesteko baldintzaz ere.

Hala, hona eskuharki, mobilizazio nazionalista baten sorreran eta garapenean bildu daitezkeen baldintzak⁵:

1) Aro modernotik identitate kolektibo bereziaren aurrebaldintzen existentzia, ezaugarri etniko edo kulturaletan, esperientzia historiko partekatuetan, autogobernu kolektiboaren instituzioekiko lurralde leialtasunetan (Foruak, Dietak, eta abar) oinarrituak.

2) Orden sozial eta politiko zahar baten aldatze eta desegite testuinguru bat, non, gizarte talde batzuen kokapenak mehatxatuak aurki daitezke, hau da, interes komun batzuk interes kolektibo bezala sumatuak.

3) Aurrekoarekin loturik, gatazka sozioekonomiko edota politikoaren existentzia nazionalismoaren sorreraren eta garapenaren aldekoa suertatzen omen da.

4) Aukera politikorako egituraren izaera, alegia: mugimendu nazionalistak bere jarduera garatzen duelarik, estatuko sistema politikoaren eta nazioarteko sistemaren ezaugarriak. Alde batetik, estatuko sistema politikoari dagokionez, sistema honek maila kulturean begirunez jokatzen badu eta maila politikoan demokratikoa bada, nazionalismoek aukera gehiago izango dituzte; aldiz, zapaltzailea bada maila kulturean eta autoritario/antidemokratiko maila

⁵ Jakina, Nuñez Seixasek eskainiko baldintzen zerrenda ez dugu agortu, soilik, gure aburuz, gure azalpen honetan esanguratsuenak direnak .

politikoan aukera gutxiago izango dituzte.⁶Era berean, Estatuaren lurralde egitura zenbat eta deszentralizatuago izan, are eta handiago izango da lurraldean oinarrituriko interes kolektiboen artikulaziorako eta politizaziorako aukera; aitzitik, zenbat eta zentralizatuagoa izan, are eta zailtasun gehiago orduan. Baina, hori bai, mugimendu nazionalista bat nazio kontzientzia finkatzen eta hedatzen arrakastatsua bada urrats batean, non estatuaren sistema politikoa demokratikoa baita, ondorengo estatuaren zapalkuntzak ez du kontzientzia hori deserrotuko; ostera, kontzientzia horren erradikalizazioa sorrarazi dezake eta, are gehiago, estrategia eta gatazka bortitzak ere bai.

Honaino, edozein nazionalismoren eta, euskal nazionalismoaren sorreran ere, egon daitezkeen zioetariko batzuk aipatuak gelditu dira; goazen bada, arrazoi horiei eutsiz azken honen sorreraz eta bilakaeraz zerbait ezagutzera.

Europako bi nazio estatu handien ezarrerak, Frantziakoa eta Espainakoa, Euskal Herriko lurraldea, egun ulertzen dugun bezala⁷, banatu zuen. Gure ustez, nazio estatu hauen arrakasta desberdinek berebiziko garrantzia izan dute banaturiko lurraldeen populazioengan eragiteko. Frantziako zein Espainako nazio estatuen eraketa hobeto ulertzeko estatu mota honen aurrekariari begirada bat ematea oso argigarria suerta daitekeelakoan, P. Andersonengana⁸ jo dugu laguntza eske.

Historialari honen esanetan, Frantziako estatuaren absolutizazioak segituriko bideak eredu hispanikoarekin alderatuz oso eboluzio desberdina izan zuen. Frantziak ez zuen izan itsasoz handiko inperiorik, beraz, abantailarik ez. Bestalde, erresuma desberdinak, aurkakoak ziren oinordetza politiko eta kulturalekin, batzeak zekartzan egiturazko arazo iraunkorrik ere ez zuen izan.

⁶ Ikus 3. atala.

⁷ Zabalok dioenaren arabera, egun darabilgun zazpi herrialdeen batasun politikoa proposatu zuen lehena Larramendi izan zen. Honek hizkuntza hartzen du oinarritzat eta beraren arabera proposatzen du euskal lurraldeen batasuna, nazio bakarra osatzeko. Zabalok segitzen du esanez, balitekeela Larramendik aukera independentziazale honetan benetan ez sinestea. Hala ere, inportanteena, bere ustez, proposamenaren formulatzea bera da, zentzu politikoa emanaz; in Zabalo, J. (1996). Euskal nazionalismoa eta nazio lurraldea. Bilbo, UEU.

⁸ Anderson, P. (1994). El Estado absolutista. Madril, Siglo XXI editores, s.a.

Erdi aroan Kapetotar monarkiak, apurka-apurka, bere subiranotasun eskubideak hedatu zituen Frantziako Uhartetik kanpora. Sekula ez zuen borrokatu behar izan izaera feudal parekagarrikerik zeukan beste lurraldeko-erresuma baten kontra: Frantziako lurraldeetan erresuma bakar bat baino ez zegoen, Nafar Estatu txikia eta "sasi-iberiarra" salbu. Urrutiko dukerri eta konderriek dinastia zentralarekiko leialtasun nominala, bederen, erakusten zuten. Egoera honek, aurrerago integrazio politikoa erraztuko zukeen hierarkia juridiko bat ahalbidetzen zuen. Horrez gain, iparraldea hegoaldeetik bereizten zituzten hizkuntz desberdintasunak zein sozialak ez ziren inoiz ere izan Espainiako ekialdea mendebaldetik bereizten zituztenak bezain handiak.

Historialari horren azalpenak erakusten du Frantziako estatu absolutuaren izaera oso lagungarri suertatu zitzaiola nazio-estatu eraketa zorrotzari. Eraketa zorrotz honi Euskal Herriko iparraldeak apaltasun handiz erantzun zion, P. Iztuetak⁹ dioskunez:

Iparraldean Frantziako Iraultzarekin burutu zen integrazio prozesua, herri-erreboltarik eman gabe burutu ere, aldez militarki hartua izan zelako eta aldez hiru herrialde historikoek batera erreakzionatzen jakin ez zutelako. Lapurdiko Biltzarrearen izenean Pariseko Biltzarre Nazionallean Dominique eta Joseph Garat anaiak izan ziren neurri berdintzaileen kontra altxatu ziren bakarrak eta, alternatiba gisa, Iparraldeko hiru probintzien antolakuntza federatiboa proposatu zutenak. Harrezkero denbora luzez, hemen euskal kontzientzia nazionalista lotan egon da, hain lotan, ezen Ipar Euskal herriko 1789-1934 epealdia "historiarik gabekoa" izendatzen baitu E. Lopez Adanek.¹⁰

Núñez Seixas ere, iritzi berekoa da honakoa esaten duelarik: Iparraldeko lurraldeek ez zuten izan hegoaldekoek adinako autogobernu aldarrikapenezko aurrekari indartsurik. Hala ere, Frantses Iraultzan, *Kexu koadernetan, forsen*(foruen parekoak) aldarrikapena adierazia izan eta XIX. mendean zehar

⁹ Iztueta, P. (1996). *Intelligentsia kimatuaren orbelak*. Irun, Kutxa Fundazioa: 299 orr.

¹⁰ "Ipar Euskal Herria: 150 urte historiarik gabe", Saioak, 2zka, 1978, 99-135 orr. Irakurgarria da *Jakin*-ek Iraultza Frantsesaz argitaratutako zenbaki monografikoa, 51 zka 1989, Donostia. P. Iztuetak aipatua in Op. Cit.: 299 orr.

antzinako erregimenaren aldekoek aldarrikapen horri eutsi ziotela diosku ere. Ahultasun horren arrazoiak argitu guran, Iparraldearen ezaugarri batzuk deskribatzeari ekiten dio, esaterako:

- Frantziako estatuak, Ipar Euskal Herria, Bearnekin departamentu batean sartu izana. Departamentu honen jarduera ekonomiko nagusia nekazaritza izaten segitzeak ia hiritartze prozesurik bizi ez izatea zekarren, hau da, Donibane Lohizune eta Baiona salbu, hirigune ahulak izatea. Eta honekin loturik, XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran ordezkapen politikoa iraultzailearen kontrako eskumaren esku egotea.

- Euskara eta euskal kulturari buruzko aldarrikapena tokian tokiko apaizteriak burutua, euskara ikusten baitzuten estatuko sekulartasuna, eskolak eta administrazioak igorritako sinesmen errepublikarraren aurkako tresna gisa eta, hortaz, ez ezaugarri bereizgarri gisa. Euskal Herriaren defentsa, euskararen erabilera handiko eskualdeetan, sinesmen katolikoan eta iraultzaren kontrako printzipioetan oinarriturik zegoen.

Hori guztia kontuan harturik, begi bistakoa da gatazkaren protagonistak, alde batetik, Frantziako Estatua eta, bestetik Euskal eliza izan zirela, euren arteko tirabirak mendearen amaieran suertatuz:

*... las restricciones crecientes impuestas por aquella (la administración) al empleo del euskara en la prédica y la catequesis por el clero interior rural. La política laicizante de la III República y la campaña para la supresión de la enseñanza religiosa provocaron una primera movilización clerical-conservadora que utilizó instrumentalmente la defensa de la lengua vasca para penetrar en la población rural de Zuberoa y Baja Navarra: se trató del seminario en euskara Euskalduna, fundado en 1897 por L. Etcheverry, y que apoyó la primera campaña electoral de Ybarnégaray... alcanzó una tirada de 8.700 ejemplares.*¹¹

¹¹ Núñez Seixas, X. (1998) Op. Cit.:197 orr.

Dena dela, Iparraldean, 1930eko hamarkada arte itxaron egin behar da lehenengo ekimen esanguratsuak behatu ahal izateko.¹² Aldiz, Hegoaldean lehenago ageri ziren euskal kontzientziaren aztarnak. Gertaera honetan zerikusi handia izan zuen ere Espainiako nazio estatu eraketa ahulak. Azter dezagun modu arin batez ahultasun horren arrazoi batzuk.

Gorago Frantziako estatuarekin egin bezala, Espainako estatu absolutuaren prozesuari helduko diogu Andersonen eskutik. Azken honek esandakoaren arabera, absolutizazio prozesu orokorrean Espainiar estatuak kokapen kualitatiboki desberdina izan du. Absolutismo espainiarraren indarra, alde batetik, barruan handitze feudalaren oinordetzan, eta, bestetik, kanpoan harrapakinaren kapitalean oinarritzen zen. Horrela, Espainiar monarkiaren eraketa politikoa interes ekonomiko eta sozial zehatz batzuen gainean eraiki zen. Mendebaldeko Europan ez zegoen bera baino aristokraziatzko izaera handiagorik edo garapen burgesaren kontrako izaerarik zeukanik.

Espainiako absolutismoa 1469an sortu zen, Gaztela eta Aragoiren arteko batuketarekin. Itxuraz, oinarri ekonomiko aski irmoarekin hasiz ere. Biko estatu berriaren dinamismo politikoa zein militarra berehala hasi zen kanpoko konkista batzuen bidez: Granadako azken gotorleku suntsitu birkonkista osatuz; Napoles anexionatua eta Nafarroa irentsia; eta, batez ere, Amerikak aurkituak eta meneratuak.

Hala ere, inperio handi hau zuzentzen zuen estatua muntai baldar bat baino ez zen, batasun bakarra erregearen figuran baitzegoen. Espainiako absolutismoaren barneko egituraketan egitatez, apala eta mugatua izan da. Eta barneko loturak izan dira, agian, makalenak. Zalantzarik ez, paradoxa honen arrazoia amerikar inperioa, europar inperioa eta iberiar aberriaren arteko erlazio triangeluarrean bilatu beharra dago.

¹² Halarik ere, ezin ahanzi Agustin Xahoren(1811-1858) ekarpena. Xahok euskal "diferentzia" antropologian, historia eta hizkuntzan oinarriturik landu zuen. Bera izan da Aitorren mitoaren asmatzailea eta gerra karlistak nazio gerratzat interpretatu duen lehena; in, Zabalo, J. Op. Cit.: 53 orr.

Gaztela eta Aragoiren arteko batasunak, XV. mendearen amaieran, desberdintasun politiko eta ekonomiko ugarien oinarria izan zuen espainiar monarkia berri baten eraikuntzarako. Hori dela eta, inoiz ere ez zen planteatu inolako urtze administratiborik Aragoi eta Gaztelaren artean. Ez zuten erresuma baturik sortu, ezta moneta bakarrik ere, are gutxiago sistema fiskal edota juridiko komunik. Instituzio 'espainiar' batu bakarra penintsula osoan Inkisizioa izan zen. Badago beste gertaera bat Espainiar monarkiaren garapenak beste monarkien garapenetatik aldentzea azaltzen duena, alegia: matxinada komuneroaren zapalkuntza(1520-21). Matxinada honen atzean, egitarau federal eta protonazional bat ikusten du Andersonek¹³, beraz, hirugarren estadoaren matxinada; oso errotikoa, absolutismoaren ezarpenean une kritikotzat jotzen dena. Matxinada komuneroaren zapalkuntzak hitzarmenezko konstituzio bat ezartzeko posibilitateekin amaitu zuen. Mendebaldeko gainerako herrialdeetan aristokraziako matxinaden zapalketa gauzatu zen, ez matxinada burges batena, hauek askotan nahasirik egon arren.

XVII. mendean Habsburgoen inperioaren tamaina handiak integrazioarako gaitasuna gainditu eta Espainia barruko zentralizazio administratiboaren prozesua geldiarazi zuen. Mundu zaharraren inperioak, administratiboki beti banatua eta ekonomikoki eutsiezina, mundu berriaren altxorren esker iraungo zuen.

Hurrengo mendean, dinastia frantziar berri bat ezarri zen Espainian: Borbondar monarkia. Honek Habsburgondarrek egin ez zutena burutu zuen, hau da, estatu baturik eta zentralizaturik eratzea. Aragoi, Valentzia eta Kataluniako Estatuaren sistemak suntsituak izan ziren¹⁴ eta, aldi berean, herrialdeen gobernu uniforme

¹³ Anderson, P. (1994). El Estado absolutista. Madril, Siglo XXI editores, s.a.: 63 orr.

¹⁴ Gai honen inguruan, P. Iztuetak honela dio: "...Austriarren Estatu modernoak hasi zituen euskal foruen kontrako lehenengo saioaldiak XVI. mendearen erdi alditik aurrera...Olivares-koak gidatutako gobernu zentralistaren garaian gertatu ziren gatzaren estankoko matxinada Bizkaian (1631) eta Portugal eta Kataluniako gerrak (1640).Borbondarren ekimena gauzatu arren, ...bi mendez inguruz, euskal lurraldea izango da foru-erregimenari eutsiko dion salbuespen politiko-administratibo bakarra monarkiaren barruan." in: Op. Cit.: 204-206 orr.

bideratzeko *intendants* delakoa, frantziar lanabesa, ezarri zuten. Egitatez, mende honetan, azkenik Espainia batu bat hasi zen agertzen. (Garai honetakoa dira bandera eta himnoa).

Halarik ere, Espainiako estatua arrazionalizatu zuen burokraziak ezin izan zuen gizarte espainiarra berpiztu. Zegoeneko, beranduegi zen Frantziak edo Ingalaterrak lorturiko garapenarekin parekotasunik sorrarazteko; kapitala, lehen bezala, lurretara edo errenta publikoetara bideratu zen-eta.

Dena dela, ordena berriaren ekimen politikoa mende amaieran agortzear zegoen:

Los límites del renacimiento del siglo XVIII,..., siempre fueron evidentes en la estructura administrativa de la España Borbónica, porque, incluso tras las reformas carolinas, la autoridad del Estado absolutista sobre vastas zonas del país cesaba en el plano municipal. Hasta la invasión napoleónica, más de la mitad de las ciudades españolas no estaban bajo jurisdicción monárquica, sino bajo jurisdicción señorial o clerical. El régimen de los señoríos, una reliquia medieval que se remontaba a los siglos XII y XIII, tenía más importancia económica que política para los nobles... Estas combinaciones de soberanía y propiedad fueron una reveladora supervivencia de los principios de señorío territorial en la época del absolutismo.¹⁵

Beraz, Borbondarrek Penintsula osoa Gaztelan indarrean zeuden formulen arabera era uniforme batez antolatua utzi arren, Espainia, XIX. mende hasieran katolizismoak eskaintako legitimazio tradizionalen eta leialtasun dinastikoan oinarrituriko komunitate politikoa zen. XV. mendetik tradizio politiko, kode juridiko, hizkuntza eta instituzio desberdinak zituzten erresuma eta lurraldeen batuketaren ondorioz, Espainiaren aniztasun etnikoarekin batera lurralde autogobernu tradizionalen instituzioen iraupena (foruak) edota instituzio galeraren oroimen hurbila (Katalunia 1714), atzerapen ekonomiko erlatiboa eta liberalismoaren ahultasuna kontuan hartu beharreko ezaugarriak ditugu.

¹⁵ Anderson, P. (1994). El Estado absolutista. Madril, Siglo XXI editores, s.a.: 80 orr.

XIX. mendeko Espainiako estatu liberalak, 1833 urtetik artikulatua, mendebaldeko gainerako estatuekin alderatuz, oso eragin eskasa izan zuen jarduera nazionalizatzaileari dagokionez, honako aldagai hauek erakusten dutenez: eraginkortasun gutxiko hezkuntza sistema bat, analfabetismo tasa handietan islatua; soldadutza diskriminatorio eta klasistan oinarrituriko armada nazional bat; sinbologia nazionalista ahula eta hedapen gutxikoa (bandera, himnoa, monumentuak eta abar...); eredu jakobinoan oinarrituriko administrazioa, baina oso eraginkortasun gutxikoa. Arrakasta gutxiko nazionalizazio horri lotu zitzaizkion Estatuaren lurralde desberdinen arteko komunikaziorik eza; lege eta kode juridikoen batasun berantiarra; katolizismoak eskainitako legitimazio tradizionalaren pisua eta Elizaren funtsezko partaidetza hezkuntza sisteman; kanpo harremanetarako politika aktiborik ez izatea, -era berean, kanpo etsairik ez izatea- eta botere politikoaren kokapen geografikoa eta hazkunde ekonomiko eta industrialen kokapenen arteko asimetriak.¹⁶

Aldagai horien guztien biltzearen ondoriotariko bat dugu lurralde desberdinetan ezaugarri kultural desberdinen eta gaztelania besteko hizkuntzen erabileraren iraupena. Egitate honek, erromantizismoaren eraginarekin batera, XIX. mendearen erdialdean intelektualen mugimendu gutxituen sorrera ahalbidetu zuen; mugimendu hauek "erregioetako" kultura eta hizkuntzaren berreskurapena eta garapena izan zuten xedetzat. Gainera, mugimendu hauek, liberalismoan zein karlismoan (foruzaleak Euskal herrien kasuan) kokaturiko zentralismoaren aurkako mugimendu politikoekin hartu eman soziopolitikoak zituzten. Ikus dezagun, gainera bada ere, Hego Euskal Herriaren egoera garai honetan.

Foruak ziren euskal gizarte tradizionalaren bizitza ekonomikoa eta politikoa arautzen zuten instituzioak. XVIII. eta XIX. Mende tartean Foruen ezabaketak gizarte horren funtsa kolokan jarri zuen. Garai hartako bizitza ekonomikoaren

¹⁶ Riquer, B. d. (1994). "La débil nacionalización española del siglo XIX." *Historia Social* 20: 97-114.

zutabeak baserria, burdinolak eta egurraren zein burdinaren esportazioa ziren. Egitura ekonomiko horrek ezin zion eutsi, XIX. mende hasieran, Europako zenbait herrialdek garatutako industrializazioaren lehiari. Horretaz gain desamortizazioen gauzpenak lur komunal askoren salmenta izan zuen ondoriotzat, eta azken horrek lurdunen ondasuna handitzen zuen bitartean baserritarren pobretzea ekarri zuen.

Foruek baserritarren interesak babestu eta funtsezko baliabideen jabetza udalen eskuetan uzten zuten. Hori dela eta, egoera ekonomiko berriak eskatzen zuen industrializatorako zein merkatuaren zabalkunderako oztopo bihurtu zen Foruen araudia. Aldaketa ekonomiko horietan interesatua zegoen burgesiak espainiar estatuarengan jo zuen babes bila. Bestalde, Foruek Espainiaren estatu egituraketa bera eragozten zuten.

Interes desberdin horiek bat egitean, euskal gizartearen banaketa gauzatu zen. Batetik, hirietako burgesiak, industriburuek eta lurdunek liberalismoari eutsi zioten, eta Foruen ezabaketa ahalbidetu zuten, Espainiako Nazio-Estatuaren eraikuntza erraztuz. Bestetik, gizarte tradizionalaren aldeko talde sozialek, baserritarrak, apaizteriaren zenbait sektore eta jabe ertainek karlismoari eutsi zioten. I. Gerra Karlistan (1833-1839) liberalismoa garaile irten zen eta, Foruak espainiar legeriaren menpe gelditu ziren. Karlistek gerra galdu arren, foruzaleatasuna indarturik irten zen eta horrek II. Gerra Karlista (1872-1876) ekarri zuen. Gerra galdu eta, hala ere, euskal gizartearen gehiengoak osterako ere agertu zen Foruen alde, batik bat soldadutza egin beharrik ez eta zergetan abantailak zituztelako. Foruzaleatasun mugimendu hartan burgesiaren gehiengoak ere hartu zuen parte, baina foruen ordezkariak ziren Kontzertu Ekonomikoekin bermatutak ikusi zituzten euren eskakizunak

Gerra karlista bien artean, gizarte tradizionala desagiten hasi eta gizarte modernoaren lehenengo ezaugarriak joan ziren agertzen, Bizkaian eta Gipuzkoan batez ere. Ezaugarri nagusiak industrializazioa, urbanizazioa eta

inmigrazioa izan ziren. Aldaketa ekonomikoek, gainera, gizartearen deseuskalduntze nabaria ekarri zuten¹⁷.

Foruzaleetasunak gizarte sektore zabalen egonezina adierazi zuen. Esan daiteke foruzaleen mugimenduaren helburu politikoa foruen berreskurapena zela, baina, haren esangura bestelakoa da idazle askoren iritziz:

*...la reivindicación fuerista tenía probablemente un carácter sobre todo simbólico. Con la reintegración foral no se pretendía la plena restauración de los organismos forales, la exención de quintas o el traslado de las aduanas al interior', La auténtica significación del fuerismo no es esa, sino posiblemente marcar la pauta para la comprensión de la diferencia en una teoría 'defensiva' del particularismo vasco.*¹⁸

Edozelan ere, foruzaleen ekimenetan estatuaren jardueraren kontrako hainbat elementu ageri-agerian dira. Alegia, hizkuntzarekiko kezka, kultur jarduna mobilizazio politikora zuzendua, nazionalitatearen funtsa historian eta hizkuntzan bilatzea, foruen berreskurapena lau herrialdeen arduratzat hartzea eta, beraz, hauek estrategia politikoaren objektu bilakatzea Espainiako Estatuarekiko haustura eskatzeraino ailegatu ez arren¹⁹.

Hizkuntzarekiko kezka mehatxaturiko euskararen defentsan zehazten da, hau baita nazionalitatearen funtsa.²⁰ Hizkuntza nazio kontzeptuaren ardatza izaki, herri bat nazio bilakatzea ahalbidetzen du. Campionen ekarpen honek, Zabaletaren iritziz, bere helbururik nagusienetara garamatza:

*...mostrar las grandes relaciones que median entre la conservación de las lenguas y la existencia política de los pueblos.*²¹

¹⁷ Mateos Gonzalez, S. (2000). Euskal Nazionalismoa eta Hezkuntza Publikoa: :Ikastolen Publikazioa.. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen zerbitzua.: 220-221 orr. Honen inguruan ikus ere: Beltza (1974): 7-10;Iztueta, P. (1996). Op. Cit.: 303-307 orr.

¹⁸ Gurrutxaga, A. (1985). El código nacionalista vasco durante el franquismo. Bartzelona, Anthropos: 91 orr. :

¹⁹ Gurrutxaga, A. Op. Cit.: 97 orr.

²⁰ Campión A. " De la conservación de la lengua vascongada", I eta II, 1876ko urriaren 25 eta 26an; A. Elorzak aipatua, (1978) "Ideologías del nacionalismo vasco", San Sebastián, Haranburu.

²¹ Zabaleta Imaz, I. (1997). Euskal Nazionalismoa eta Hezkuntza, Euskal Herriko Unibertsitatea.: 171 orr.

Hortaz, euskara euskal identitateren erdigunea zen, baina euskal hizkuntza, gorago esan bezala, mehatxaturik zegoen. Euskarazko arazoa, funtsean, egiturazkoa da; sustrai historikoak dituen egiturazko arazo honi irtenbide bilatu nahirik sortu eta antolatzen da, hain zuzen, Euzko Pizkundera.²²

Egiturazko mehatxu horien artean idazle askok nabarmendu dute: *hezkuntza-sistema espainiarra orokortzeak ereindako gaztelaniaren hazia* dela. Espaniako gobernuak 1857an ebatziriko Moyano Legeak hezkuntza-sistema espainiarra orokortzearen lehenengo neurriak ezarri zituen. Lege honen aurretik, euskal gizartearen hezkuntza antzinako erregimenaren gizarte tradizionalaren isla zen, hots, erlijioari eta familiari lotua.²³ Hezkuntza sistema erdalduna eta osatugabeko²⁴ honetan, hiru hezkuntza esparru bereiz zitezkeen: lehena, aristokraziaren prestakuntza zegokion eta Ilustrazioa eta liberalismoaren eskutik gauzatu zen; bigarrena, batxilerrentzako kolegio kopuru handi batez osaturik; eta hirugarrena, oinarritzko eskolek osatzen zuten. Hirugarren esparru honen egoerari buruz, argi dago, gizarte tradizionalak ez zuela inolako asmorik ezta beharrik ere bera orokortzeko.²⁵ Ikus dezagun, gainera bada ere, garai hartako euskal eskoletan euskarari utzitako eremua.

Ipar Euskal Herrian, Frantzia gertatu zenaren pare, 1670. urte-inguruan hasitako eskola-hedakuntza areagotu zen bizkorki XVIII. mendean. Mende honetan, aurreko beste bi mendeetan ez bezala, euskal doktrina eskola-bidezko

²² Iztuetak honela diosku: "Foruen abolizioarekin (1876) hasi eta gerrate zibilarekin (1936) bukatzen den euskal mugimendu sozio-kulturalari deritza horrela. Euskal Herri osora zabaltzen den mugimendua dugu...euskararen aldeko dinamika Ipar Euskal Herriatik Hegora aldatzen dela edo, ...,alde honetan bizkorragoa dela kultur mugimendua, zalantzarik gabe foruen abolizioak eta deseuskalduntze-erritmo biziak eragina...Euzko Pizkundera bideratzen da mugimendu foruzale eta nazionalismoaren inguruan.", Op. Cit.: 306-313 orr.

²³ Mateos, S. (2000). Op. Cit.:226-230 orr.; Arpal/ Asua /Dávila. (1982). "Educación y Sociedad en el País Vasco". Donostia, Txertoa: 15 eta hur.; oso interesgarria da ere: Azurmendi, J. (1985) "Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herriko historian", in Intxausti, J.: Euskal Herria, Historia eta Gizartea, I, 357-386 orr.; Iztueta, P. (1985)." Hizkuntza, Hezkuntza eta Boterea: Euskal Irakaskuntzaren atarian.": 122-138.in Apalategi, J.; Palacios, X.(eds.) "Identidad Vasca y Nacionalidad". Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua.

²⁴ Iztueta, P. (1996). Op. Cit.: 223-243 orr.

²⁵ Masa hezkuntzaren sorrera eta garapena argitu guran genbiltzalarik Hedapen ideologiko teorilarien eskutik, argi ikusten genuen prozesu integratzaileekin, hots legitimazioarekin bilaketarekin harremanetan ipini behar direla. Ikus, 3. atalean 46 orr.

irakurketa eta idazketan txertatzeko ahalegin sendoak egin ziren. Ordura arte ahoz edo buruz ikasten zen doktrina, gero, partzialki edo osotara, irakurketaren bidez ikasteari ekin zitzaion eskolan. Horrela, doktrinaren erakusketa euskal alfabetakuntzaren iturri bihurtu zen, guztiz garrantzitsua izan zena 1686-1789 urte bitartean.

Oso bestelakoa izan zen Hego Euskal Herrian eskolatzearen lehen hedapen-prozesua, zeren hemen eskolan euskara zigortu egin baitzen eta, ondorioz, doktrinaren erakusketak ahozko transmisiora mugaturik segitu baitzuen.²⁶ Eskolan doktrina irakasteko bakarrik erabil zitekeen euskara, eta hori arrazoi pastoralengatik. Hortik aparte, irakaskuntza osoa zen gaztelaniaz. Zergatik? bizitza politiko administratiboan gaztelaniak agintzen zuen eta hartarako prestatzen zuen hezkuntza-sistemak ere hizkuntza ofizial hari ematen zion lehentasuna. Horrela esplikatzeko da zergatik Udalek ere, lehen mailako irakaskuntza beren eskuetan egonda, ematen zituzten euskararen kontrako arauak. Udalek ezarria da eraztunaren zigorra, maisuak neurri horiek betetzera behartuz.²⁷

Eskolatzearen egoera ez zen batere hobetu Frantziako eta Espainiako estatu-hizkuntzak dekretu-indarrez inposatu zirenean. Hori Ipar Euskal Herrian 1791n gertatu zen "Convention Nationale" delakoak Instrukzio Publikoko Txostena aldarrikatu zuenean, "patois" deituak ezabatu eta frantsesaren erabilera orokortuz. Hego Euskal Herrian, berriz, udalek zeuzkaten eskumenak hezkuntza arloan, euren artean maisu-maistren izendapena, Moyano Legeak indargabetu zituen. Eskolak inposaturiko gaztelaniaren erabilerak euskararen bazterketa areagotu zuen eta berarekin batera euskal izaera bera ere bai. Gaitz guztien ikurra irakaslearen irudian aurkituko dugu: lau herrialdeetako diputazioentzat kanpoko maisu-maistren etorrerak inmoralitatearen hedapena

26 Zalvide, M. (1990) "Euskal Eskola, asmo zahar bide berri", in: Euskal Eskola Publikoaren lehen Kongresua. I, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 212-260 orr.

27 Eizaguirre, L.; Dávila P.(1991) "Alfabetatzea Euskal Herrian: Ikuspegi historikoa", ELE, 8zk., AEK: 33 orr., P. Iztuetak aipatua in: Op. Cit. : 231 orr.

eta euskararen galera ekartzen baitzituen²⁸. Testuinguru honetan ulertu behar dira foruzaleek hizkuntza eta hezkuntzarekiko plazaraturiko aldarrikapenak. Ikus ditzagun, bada, aldarrikapen horiek.

Foruzaleen mugimenduak hezkuntzarekiko egiten duen ekarpena aztertzeraz goazelarik, berriro ere, A. Campionen obra aipatu beharrean aurkitzen gara. Berak, "Asociación Euskara de Nabarra"-rako idatzitako "*Proyecto para la conservación de la lengua euskara*" delakoak argi erakusten baitu irakaskuntza oinarrizko zutabea dela euskararen iraupenerako. Zabaletak²⁹ esandakoaren arabera, proiektu horren ardatz nagusiak, honako hauek dira-eta: euskarazko irakaskuntza, euskal curriculum, euskarazko testuliburuak, irakasleen nahitaezko partehartzea, euskal erakundeen(kasu honetan Nafarroako diputazioaren) boterea eta kontrola ezartzeko gaitasuna.³⁰

Aurreko lerrootan aipaturiko elkarte nafarra, antza, euskarak eskolan bere lekua izan zezan ahalegindu zen. Horretarako, *Fomentoko* ministerioarekin harremanetan ere jarri zen; halarik ere, euskara indarrean zegoen herrietara mugatu zen elkarte nafarrak luzaturiko eskakizuna.³¹ Beraz, ez da ekimen honetan euskararen irakaskuntza orokortzeko asmorik antzematen³². Horrela, euskarari eskolan lekua egitea, eta aldarrikapen honekin batera eraztunaren

28 Mateos, S. (2000). Op. Cit.: 229 orr.

29 Zabaleta, I. (1997). Euskal Nazionalismo eta Hezkuntza(1895-1923). EHU, Doktore tesia:

30 Zabaleta, I. (1997). OP. Cit.: 165 orr. Autore honek euskal curriculumaz honela diosku: proiektuak ez du esplizituki euskal curriculumaz hitz egiten baina bai ikas plan ofizialetatik at dauden eta Euskal Herriarekin zerikusirik duen gaien irakaskuntzaz eta alde horretatik irakasleak behartzeko beharraz. Horrez gain, honakoa ere diosku: *...badirudi elkarteak egiten duen errealitatearen irakurketa asmo hauengandik oso urrun dagoela..*: 165 orr.

31 Zabaleta, I.(1997) Op. Cit.: 166orr.

32 Dena dela, beste dokumentuek kontrakoa mantentzea ere ahalbidetzen dute. Horrela, Garmendiak, Bizkaiko jaurerriaren Instrukzio Publikoak 1875ean idatziriko txosten baten berri ematen digu, non, euskara hizkuntza ofizial bihurtzeko asmoa argi gelditzen baita eta ez hori bakarrik, gizarte klase guztietara hedatzearen asmoa ere bai: "*De suma importancia bajo todos los conceptos es el cultivo del idioma que como el más rico de los tesoros tradicionales nos legaron nuestros mayores. En el honor de Vizcaya está el conservarla, cultivarla y perfeccionarla, generalizándola además por todos los ámbitos de su jurisdicción y haciéndola extensiva a todas las clases sociales, hasta elevarla a idioma oficial, en sustitución o al menos al igual del castellano que ha invadido hasta las últimas aldeas relegando al olvido y aun hasta el desprecio de ciertas gentes, la veneranda lengua euzcara(sic), arrinconada y abandonada al uso rutinario de las últimas clases.*

Por eso la enseñanza simultánea e igualmente esmerada de ambos idiomas entra en las patrióticas miras de esta junta." : Garmendia, V. (1985). La ideología carlista (1868-1876). En los orígenes del nacionalismo vasco. Zarautz, Diputación Foral de Guipuzcoa,: 428 orr. Azpimarratua guk egina.

praktika baztertzea baino ez zen eskatzen; eta proposamen hauek bideratzeko ardura diputazioen esku uzten zen.

Hortaz, laburbilduz, foruzaleen eskakizunak, batetik hezkuntza deszentralizazioa izan zen eta, bestetik, hezkuntza ofizialaren elebitasuna. Euskaran oinarrituriko ekimen paralelorik ez zuten burutu, nahiz eta inoiz mota honetako adierazpenik egin izan zen.³³

Foruzaleek euskal nazioaren ezaugarri nagusien kontrako erasoaren aurrean, Espainiako hezkuntza-sistemaren ezaugarri ziren, zentralizazioa eta homogeneizaioaren aurkako erreakzioak sorrarazi zituen eta ez hezkuntza sistema osoaren kontra. Dena dela, Zabaletak eta Mateosek esandakoarekin bat etorritz, jarrera horrek *zirrikitu bat* zabaldu zion euskal nazionalismoari.

33 Mateos, S.(2000) Op. Cit. : 234 orr. Hala da, baina, bai lortu zutela,Zabaletak diokunez, epe labur batez (1872-1876), euskal erakundeen aldetik irakaskuntzaren erabateko kontrola...karlista ziren zonetan., irakaskuntzaren ardatz nagusiak, euskal erakundeen defentsa, erlijio katolikoa eta euskara izaki; ikus: Op. Cit. :152 orr. Euskarari emandako garrantzia behatu daiteke hurrengo aipuan: " La Diputación de Gipuzkoa...En virtud de una circular enviada el 9 de abril de 1874 a los alcaldes de la provincia, exige que todas las escuelas públicas sean dirigidas por personas que hablen la lengua vasca, y el 2 de Mayo del mismo año pide por mediación de su comisión encargada de la Instrucción Pública que la enseñanza se dé primero en vascuence. Insiste muy en particular en la necesidad de enseñar el catecismo en vascuence. La Junta Provincial de Instrucción Pública pide en su circular del 22 de setiembre de 1875 que la enseñanza de la lectura se haga primero en vascuence y luego en castellano. "Garmendia, V. (1985). Op. Cit.: 428 orr.; J. Canal bat dator Zabaletaren iritziarekin."La gran familia carlista. Estructura e imágenes familiaresn en la cultura política carlista.": 110-123; in Cruz, R.; Pérez Ledesma, M. "Cultura y movilización en la España Contemporanea". Madril, Alianza Universidad; ikus ere:Dávila Balsera, P. (1988) El probelma vasco en educación: conflicto y control de la enseñanza en el Pais Vasco. Poder y Control, 1. Zbk. Bartzelona, 44-47 orr.

7. atala: Foruzaletasunatik nazionalismora

Euskal nazionalismoaren sorrera eraldaketa sakonez ezaugarrituriko testuinguru batean gauzatu zen. Esparru politikoan, foruen ezabapena eta hego euskal lurraldeen integrazioa Espainiako estatuan; ekonomikoan, bestalde, foruen balazta barik, burdin mearen esportazioak industrializazioari ikaragarritzko bultzada handia eman zion eta azken honek, kapitalismoaren garapen geldiezina ahalbidetu zuen. Berehala, aldaketa politiko eta ekonomiko hauen ondorioak agerian gelditu ziren. Gizarte klase berrien eraketak euskal lurraldeen gizarte itxura aldatu zuen. Horrela, oligarkia industrial eta finantzieroa Espainiako estatuaren politikari atxikita sortu zen; honekin batera, burgesia industrial ertaina eta txikia eta hiriko klase ertaina botere politikotik baztertuta; eta aldi berean, estatuko gainerako zonalde pobreetatik etorkinek langileen klasea ikaragarri handitu zuten. Azken hauek, lan baldintzak deitoragarriak zirela eta protesta ekitaldiak zein greba handiak antolatu zituzten sozialismoari bidea zabalduz.

Aipaturiko aldaketen arintasunak, kultur esparruan izandako eragina mingarria izan zen oso: antzinako antolakuntza soziala baliogabetu, euskara baztertu eta mesprezatu, ohiturak, bizimoduak, mundu ikuskerak berriek lehengoak ordezkatu guran...Genero harremanei dagokienez, baserrian oinarrituriko familiaren krisia, mugikortasun soziala eta etxetik kanpo ordainduriko lanaren aukera emakumeentzat irekitzea, emakumeen gizarte funtzioaren aldaketa ahalbidetu zuten baldintzak, kontraesanik gabekoak ez izan arren, garatzen hasi ziren.

Honen guztiaren ondorioz, esparru ideologikoan bi mundu ikuskera handien arteko aurkakotasuna handitu eta garatu egin zen. Mundu ikuskera bi hauek, kapitalismoaren hasieratik Europar herrialde katolikoetan ere elkar aurka aritu zirenak dira: liberalismo laikoa, eta bigarren une batean sozialismoa, eta tradizionalismo katolikoa. Lehenengo ikuskerak antzinako erregimenaren desagerpena aldarrikatzen zuen bitartean, bigarren mantentzearen alde modu irmo batez agertzen zen. Azken honek, Euskal Herrian bere isla izan zuen Foruzaletasunaren mugimenduan. Mugimendu hori politikoki agortu zelarik, foruzaleek jokabide desberdinak erakutsi zituzten herrialdeka. Horrela,

Nafarroan eta Araban gehienek integrismoarekin bat egiten zuten bitartean, Bizkaian eta Gipuzkoan, ordea, nazionalismoarekin. Nazionalismo honen ezaugarriak, besteak beste, Nazio-Estatutik banatzeko borondatea eta nazio komunitatearen kultura bereizgarritasuna azpimarratzea, XIX. mendearen amaieran Europan sortu ziren nazionalismoen testuinguruan ulertu behar dira.

Beherago ikusiko dugunez, Foruzaleen garaian sorturiko Euzko Pizkundearen oinordetza jaso zuen nazionalismo honek. Hau da, euskal nortasunaren eta euskararen galeraren sentimenduak, nazio kontzientzia politikoa sorrarazteko erabili zituen, eta modu horretan foruzaleek egindako irakurketatik aldendu zen. Hasiera batean euskal nazionalismoak hirietako klase ertainaren atxikimendua baino ez zuen izan, baina laster eskuratu zuen burgesia ez monopolistaren sektore batena, nekazariena eta bertako langileriarena ere bai. euskal nazionalismoak izaera interklasista honek elementu tradizionalisten eta liberalen nahasmena izan zuen ondorioztat, gero garapen eta jardueran zer esan handia izan zutenak¹. Bizkaitarra izan zen arrakasta lortu zuen lehenengo nazionalismo politiko hau eta bere sortzailearen izan-abizenak soberan ezagunak: Sabin Arana.

7.1.- Sabin Aranaren nazionalismoa eta genero harremanak.

Aranak, foruzaleengandik oinordetzan harturiko euskal nortasunaren eta euskararen galeraren sentimentuetatik abiatu nazio identitate egituratu bat eskaini zuen eta honen defentsan arrakasta lortu zuen nazionalismoa sortu ere. Hona, labur bilduz, nazionalismo honen ardatzak: historia, nazio-komunitatea eta lurraldea.

Bizkaitarrei lehenengo, eta geroago euskaldun orori, erakutsi behar zitzairen euren benetako historia. Nazio identitatearen kontzientzia sortzeko,

¹ Mateos Gonzalez, S. (2000). Euskal Nazionalismoa eta Hezkuntza Publikoa: Ikastolen Publikazioa.. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen zerbitzua.

euskaldunen oroimen historikoa berpiztu beharra zegoen. Horrela, Corcuerearen esanetan, Aranaren irakurketa historikoak nabarmendu eta, behin eta berriro errepikatu zituen ideia historikoak, honakoak izan ziren:

*...independencia originaria; nacimiento de Vizcaya, antes confederación de repúblicas libres y autónomas, con ocasión de la batalla de Arrigorriaga; nacimiento del señorío y carácter accesorio de la forma señorial; progresivo españolismo del señor y de la nobleza vizcaína y definitiva conquista del Estado vizcaíno por España.*²

Nazio Komunitatearen inguruan euskal nazioaren definizio *objektibo* bat eskaini zuen Aranak³. Hortaz, naziotasun irizpideetat jo zituen, jaiotzarekin bat eskuratzen dugun izaera, arraza desberdina, hizkuntza, lege zaharrak, ohitura eta bizimoduak, betiere moral kristauaren esanetara garatuak. Nazioaren osagai horien guztien artean, jakina denez, gehien nabarmendu zuena *arraz*a izan zen, eta modu honetan, Mateosek dioenez⁴, *naziotasuna biztanleen borondatearen gaineratik ezarri zuen*. Euskal arraza familia bat da, hots jatorri bera duen gizataldea:

Hablamos de raza en el sentido de conjunto de familias que proceden de un mismo origen más o menos remoto. En este sentido concreto, raza es lo mismo que nación, gente o pueblo; designa a una gran familia, y expresa un objeto natural, que existe independientemente de la voluntad de los hombres

Hortaz, arraza -eta ondorioz, nazioa- jatorri komun batetik datorren gizatalde batek osatzen du. Amezagaren esanetan, gizatalde horren jatorri komuna hizkuntzak adierazten du Aranarentzat, eta gizabanakoen abizenen ikus daiteke: euskal abizenak dituztenek soilik froga dezakete beren jatorria, beren arrazaren jatorrasuna. Idazle honen esandakoaren arabera, hizkuntza, alegia, euskara, naziotasun irizpide gisa, bigarren mailako faktorea litzateke⁶, beren funtzioak izaki: batetik, euskal arrazaren existentzia historikoa frogatzea eta, bestetik, euskararen bidez euskaldunek beren iraupenari eutsi ahal izatea

² Corcuera, J.: 334 orr; Gurrutzagak aipatua, Op. Cit.: 107 orr.

³ Amezaga, J.(1994). Herri Kultura: Euskal Kultura eta Kultura popularra, Euskal Herriko Unibertsitatea.

⁴ Mateos, S.(2000). Op. Cit.: 237 eta hur.

⁵ Arana, Fe de erratas de 'La Gaceta del Norte', La Patria , 1903.eko Maiatzak 10; Amezagak aipatua in: Op.Cit. 43-47 orr.

⁶ Mateosek dioskunez, iritzi berakoa da Larronde (1977). Halere, Elorzak(1978) azpimarratu du euskara dela Aranaren idazlanetan leku gehien betetzen duen nazio irizpidea, kuantitatiboki zein kualitatiboki. Mateos S. (2000): Op. Cit., 239 orr.

aurrerantzean, beste arrazekiko kontaktua galeraziz (euskara bultzatuz, arrotzarekiko-*maketoekiko*-kontaktua galerazten du euskaldunak eta horrela bere iraupena ziurtatu). Euskara naziotasun irizpide gisa erabatekoa ez izan arren, P. Iztuetaren aburuz, *euskararen kausara beste edozein euskaltzalek baino jende gehiago erakarri zuen.*⁷

Lurraldearen inguruan, Aranak bi ekarpen funtsezko egingo ditu; bata, zazpi herrialdeen batasuna aldarrikatzea helburu politiko bezala, eta bestea, Espainiarekiko (eta Frantziarekiko) loturak apurtu beharra, hau da, independentziaren beharra. Halere, Aranak ez zion inportantzia handirik ematen lurraldeari:

*Jakina da berarentzat arraza dela euskal herritartasunaren ardatza eta berorrek markatzen duela euskal hiritartasuna eta ez lurraldeak. Lurraldeari baino, Aranak biztanle komunitateari begiratzen dio gehiago*⁸

Begi bistakoa da, *biztanle komunitate horrek*, arrazak eta hizkuntzak ezaugarritua, ez du euskal lurraldeko biztanleria osoa barnehartzen. Izan ere, etorkinak ez ziren ezaugarri horien jabe. Lehen esan bezala, euskarak, euskaldunak atzerritarrekiko kontaktutik aldentzeko funtzioa betetzen zuenez gero, etorkinei ez zitzaien euskara irakatsi behar. Ezin ahantz daiteke, atzerritarrekin izaniko kontatu horrek euskal nortasunaren galera eta euskal herriaren endekatze morala zekartzala. Hala, Aranak euskara arraza bezain eskuraezin bihurtu zuen.

Honaino esandakoa kontuan harturik, ageri-agerian dago, euskal nazionalismoaren lehenengo urrats honetan euskararen irakaskuntza orokortzea ez dela berebiziko garrantzia duen ekimen bat; hori baino inportanteago da nazionalismo horren ideiak lantzea eta zabaltzea arrakasta eskuratu ahal

⁷P. Iztueta(1996):Op. Cit. : 325 orr.

⁸ Zabalo, J. (1996): Op. Cit. : 58orr.

izateko, hau da, masa mugimendu politiko bihurtu ahal izateko. Dena dela, honek ez du esan nahi hezkuntzarekiko kezkarik ez zegoenik. Ikus dezagun, gainera bada ere, Aranak hezkuntzaren inguruan zeuzkan zenbait ideia.

Idea horiek diskurtso mailan baino ez zituen landu bizkaitarrak, eta nagusiak honakoak ziren: hezkuntza katolikoa, euskalduna eta, batik bat, abertzalea. Halere, ezaugarri hauek, hezkuntza sistema nazional batean islatzeko asmorik ez zuela diosku I. Zabaletak⁹ ikerlari horren iritziz, Aranak ez baitzuen nazio ikuspeirik; aitzitik, aipatu asmoaren gabezia bere ikuspegi nazionalaren ondorio baino ez zela dio S. Mateosek:

*Aranaren hezkuntza pentsamendua goitik behera zeharkatzen duena nazio ikuspegia da; hasierako nazionalismoarena, haatik.*¹⁰

Azken idazle honek, gainera, hasierako nazionalismo horrek diseinaturiko hezkuntza estrategiaren zioak ematen dizkigu. Foruzaleengandik, Mateosek dioskunez, Espainiako hezkuntza sistemarekiko kritika jaso eta sakondu zuen Aranak; baina, lehengoek, hezkuntza sistemaren deszentralizazioa eta elebitasunaren ezarrera eskatzen zuten bitartean, bizkaitarrak ez zuen orduko eskola publikoa hobetzeko proposamenik bultzatu, ezta ekimen paralelorik ere. Jarrera honen atzean, nazio identitate irizpideak, integrismo katolikoa, botere politiko falta eta helburu independentzizaleak ikusten ditu gure autoreak. Honek kontziente egiten du Arana hezkuntzak abertzaletasunaren hedapenean bete zezakeen zereginaz; baina aldi berean, azpimarratzen du ere, garai hartan nazionalisten artean nahiko uste hedatua omen zen euskal haurra bere herriaren etsai zen eskola batean hezia zegoela, eta egoera hura kaltegarria zela euskaldunen arraza, hizkuntza eta ohituren biziraupenerako. Horrenbestez, euskal nazionalismoa arrakastatsua izan bitartean, familiak zuen zeregin nagusia haurren heziketan.¹¹

⁹ Zabaleta Imaz, I. (1997). Op. Cit.

¹⁰ Mateos, S.(2000). Op. Cit.

¹¹ Mateos, S.(2000).Op. Cit.: 241 orr.

Bestalde, nazionalismoarekiko atxikimendua eskuratzeko hobetsitako lanabesa, prentsa zen, herri sektore guztietara heltzen baitzen; eta honekin batera, liburuak izan ziren. Aranak, giza pentsaera lantzen zuen literatura honez gain, bere aburuz, sentimentuak igortzeko balio gehien zuen jeneroa, antzerkia, ere landu zuen.

Hasierako nazionalismo honetan, nazio sentimentua pizteko eta hedatzeko aukeraturiko bideetan, prentsan, antzerkian eta familian, emakumeek bazuten zer esana. Hori bai, M. Ugaldek dioenez, emakumeei esleituriko papera euskal nazionalismoaren sortzaileak emakumeari buruz zeuzkan ideietan oinarriturik zegoen. Azken hauek, garaiko gizonezkoen diskurtsoarekin bat etortzeaz gain, doktrina katolikoak eta euskal mitologiak ezaugarriturikoak eta Aranaren proiektu politikoaren zerbitzura ipiniak izan ziren¹². Ikus ditzagun, bada, ideia horiek.

XIX. mende amaieran, Europan, genero harremani buruzko diskurtso nagusia gizonezkoek egindakoa zen. Nagusi izateaz gain, haren funtsezko ezaugarriak bai tradizionalistek, liberalek, edo sozialistek, bai katolikoek, protestanteek, agnostikoek eta ateoek partekatzen zituzten. Garaiko feminismoak planteatutako ideiek oihartzuna lortu zuten liberal eta sozialisten eremuetan, zein mundu protestantean edo laikoan. Ordea, tradizionalismoak eta katolizismoak pentsamendu feministari zeharkaitzak ziren mugarri ideologikoak ezarri zizkioten.

Gizonezkoek egindako diskurtso nagusi horren ardatz nagusiak honako hauek ziren: naturan oinarrituriko diskurtso bat, zeinaren arabera biologiak definitzen baitzuen emakumezkoen funtzio soziala. Alde batetik, emakumeak izaki ahulak ziren eta, beraz, babespen beharra zeukaten; horrela, aita edo senarraren babespean bizi behar zuten euren ahultasuna zela-eta. Bestetik, ordea,

¹² Ugalde, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza 1906-1936*. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.: 35 orr.

amatasunaren bitartez, diskurtsoaren alde baikorra ageri zen: amatasunak, espeziearen birsorkuntza, haurren lehenengo sozializazioa bermatzen du. Are gehiago, gizarte sektore ahulenganako, zahar, gaixo eta pobreenganako, ardura ere bai.

Aranak ere partekatzen zuen emakumeari buruzko diskurtso anibalente hori. Harentzat emakumea, gizabanako bezala, ahula zen. Honen gutxiagotasuna, biologian oinarritzeaz gain, diskurtso katolikotik ere ondorioztatzen zuen. Hala, Genesis liburuan, lehenengo gizonaren eta lehenengo emakumearen sorrerari buruz dauden bi istorio mitologikoak erabili zituen. Lehenengo istoriotik, gizonarentzat jainkotasunaren irudia den ideia hartu zuen; aldiz, emakumeari ez zion ezaugarri hori eman jatorrizko istorio mitologiko horretan egon arren. Bigarren istorioan oinarriturik (Adan eta Eva), emakumeari ukatu zion gizonarekiko berdintasuna, are gehiago, gizonarengandik independientea izatea ere ukatu zion, gizonaren osagarri bihurtuz. Jakina, autoritatea aitaren edo senarraren ardura zen. Horrez gain, emakumeek, euskal gizartearen elementu makalenak izatean, arrotzek -maketoek- dakartzaten ohitura arinak erraztasun handiz bereganatzen dituzte endekatze moralari bidea zabalduz; eurekin maitemintzen eta ezkontzen dira euskal nortasuna arriskuan jarritz.

Diskurtsoaren alde baikorra agertzen da emakumea ama gisa ikustean. Ostera ere, Arana mitologia katolikoari begira dago: mitologia honetan, amatasunaren bitartez emakumea *ongiaren* igortzaile bihurtu zen. Evaren aurka, *gaizkiaren* igortzailea, *AndraMari* agertzen da. Azken honek, horrela erabaki ez arren, ama izatean Evak ekarritako gaizkia(bere ekimenaren ondorioz) uxatu egin zuen. Amatasunaren balorazioaren funtsa, mitologia katolikoan oinarritu ez ezik, euskal gizarte tradizionalan emakumeak zuen garrantzian eta kokapenean ere bilatu zuen Aranak.

Esan bezala, euskal gizarte tradizionalak baserriko familian oinarritzen zuen bere antolaketa. Baserriaren osotasuna eta interesak defendatzeko beharrak lege abantaila batzuk zekartzan emakumeentzat: gizon egokirik edo gizonik ezean

oinordetza jaso ahal izatea; ezkontzarako emandako ondasunekiko eskubide indibidual batzuk izatea; adulterio kasuan lege aurrean trataera berdina izatea. Honen guztiaren ondorioz, etxean erabakitzeke ahalmenik bazuten ere, famili burua eta seme-alabenganako autoritatea aitaren ardura izan arren. Bestalde, babes ekonomiko horri esker errekonozituriko kokapen bitxiaz gain, amatasunari esker ere ondo baloratua zen emakumea: etxearen ondasun garrantzitsuen seme-alabak ziren, etxearen eta abizenaren iraupena bermatzen baitzuten. Euskal gizarte tradizionalan, *amak* zeukan garrantziak, amatasunaren bitartez sinbolo kultural bihurtu zuen emakumea: seme-alabengan birsortzen zen leinuaren sinbolo, mantenua den lurraren sinbolo, aterpe eta bizitza sozialerako bidea den etxearen sinbolo.

Aranak berak ama aberriaren sinbolo bihurtu zuen. Naziotasunaren irizpide nagusia arraza izatean emakumezkoen paperaren garrantzia bistan da. Yuval-Davisen¹³ esanetan, emakumea, umeen sortzaile biologiko gisa ikustean *kolektibitatearen eramaile* bihurtzen da. Jatorri komuneko mitoa, ikusi dugunez, garrantzi handiko osagai da Aranaren nazionalismoan, eta nazio komunitatearen kidetza eskuratzeko bide bakarra. Horrela, bertan jaiotzen ez dena baztertua izango da. Hortaz, ez da kasualitate hutsa arrazaren purutasunaz arduraturik daudenak kolektibitate desberdinen kideen arteko harreman sexualez arduratzea ere. Gorago ikusi bezala, Aranaren kasuan, ezkontza mistoak mesprezatzen dira edota arrotzen ohitura arin bezala salatzen dira:

*Ved un baile bizkaíno...y sentiréis regocijarse en el ánimo al son del txistu, la alboka o la dulzaina y al ver unidos en admirable consorcio al más sencillo candor y la más loca alegría...presenciad un baile español, y si no os causa náuseas el liviano, asqueroso y cínico abrazo de los dos sexos queda acreditada la robustez de vuestro estomago...*¹⁴

Laburbilduz, eta emakumeari buruz aipatutako diskurtso anbibalente horretatik abiatuz, hona, haiek nazionalismoari ekarri behar ziotena:

¹³ Yuval-Davis, N. (1997). *Gender & Nation*. London, Sage.

¹⁴ ¿Qué somos?, Bizkaitarra, 28 zka: 628orr. aipatua in Gurrutxaga, A.Op. Cit. :116 orr.

*En primer lugar, identificadas con su función maternal, les correspondía ser el símbolo de la misma patria; en segundo lugar, debían poner todo su empeño en evitar ser instrumentos de la degeneración de la misma... eludiendo los matrimonios mixtos, y siendo mediadoras ante la divinidad a favor del triunfo de los objetivos nacionalistas... debían ser el apoyo afectivo y el acicate que impulsase a los varones a la lucha tras la consecución de aquellos objetivos.*¹⁵

Borroka nazionalistaren sinboloak, lanabesak, bitartekariak; sekula ez borroka horren subjektuak.¹⁶Hala da, Aranek garaiko biologian eta katolizismoan oinarrituriko sexismotik abiatuak, euskal nazioaren eraikuntza generizatu proposatzen du; eraikuntza horretan emakumeen esparrua murriztu eta gaituzten da, baina ez dugu esango nazioarekiko sentimendua piztea eta hedatzea bigarren mailako jardura denik. Izan ere, nazionalismoa arakastatsua izateko sentimendu horren hedapenaren beharra zeukan.

Dena dela, hurrengo urteetako testuinguru politiko berria jokabide anitz aldatzen hasi ziren. Emakumeen partaidetza esparruari dagokionez ere bai. Euskal nazionalismoak lurraldea gaineratu zuten arraza eta euskara irizpideei, eta kutsu apur bat liberalagoa hartu zuten ere. Helburu politikoak autonomiaren inguruan gorpuzten hasi ziren, eta honen ondorioz, epe laburrez bazen ere, mugimendu nazionalistak botere instituzionala eskuratu zuten eta ekimen

¹⁵ Ugalde, M. (1993). Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza 1906-1936. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.

¹⁶ Hemen M. Ugalde kritika feministaren ildotik doa. Guk, lan honen bigarren atalean, azpimarratzen genuen kritika honek ez zuela komunitatearen ikuskera kontuan hartzen. Azken hau kontuan hartuz gero esparru pribatu eta publikoaren arteko bereizketa hierarkizatua desagitzen da, are gehiago, esparru pribatuak berak berebiziko garrantzia eskuratzen du. Aranaren doktrinan, arraza, hots, nazioaren biziraupena bermatzen dituzten jokabideak funtsezkoak dira, beraz, emakumeenak ere bai. Are gehiago, aberriaren independentzia arriskuan dagoela emakumeek ere, eskuharki 'debekaturik daukaten esparruan, gerratean, biolentziaren esparruan', parte har dezakete. Adibide modura, Arrigorriagako gerratean, izenik gabeko emakume batek, Bibliako Juditek bezala, Asturiaseko eta Leoneko erregeari, Alfonso III.ari lepoa moztu zion. Gauza bera, Mungiko gerratean, non etsaiekin ezkonduak emakume batek, Libek, damuturik bere traizioz eta aberriaren independentzia arriskuan ikusiz Enrique IV.aren aurkako borrokan parte hartzen du zauritua eta hila suertatuz. Euskaldunen oroimen historikoan funtsezko diren gertaera hauetan, Arrigorriaga, Gordexola, Otxandio, Mungia eta abar... jatorrizko independentziari eusteko gerratean emakumea ez da ikusezina, aitzitik, oso ikusgarria da, sinbolo bat, zeinak nazio komunitatea sentiarazten duena. Ugaldek, sinbolo, bitartekari izatea bigarren mailako lan instrumentaltzat jotzen du, aldiz, edozein nazionalismok berak proposatzen duen nazio komunitatearekiko sentimendua piztea du helburu. Jakina, ez gara hemen ari emakumez "subjektu feminista" gisa.

desberdinak burutu zituen.¹⁷Hau guztia, mugimendu nazionalistaren ideien hedapenaren eta gogaideen antolaketaren emaitza izan zen.

7.2. Esparru kultural eta politikoaren antolaketa generizatua

Lehen esan bezala, Aranak bide berriak irekitzen ditu kultur politikan ere:

*La cuestión de la ortografía, el impulso que da al euskara y, sobre todo, al hecho de que al colocar al euskara en el centro de la vida vasca nos ha obligado a tomar decisiones para adaptarla a las nuevas necesidades...*¹⁸

K. Mitxelenaren iritziz, nazionalismoaren sortzaileari zor diogu euskal kulturgintza nazio-proiektuaren baitan uztartzeko lehenengo saio teorikoa. Baina, nazionalismoak ez zuen erdietsi kultur mugimenduaren hedapen bera. Ezin ahantzi, Euzko Pizkundea euskal lurralde osoan ageri zen bitartean, Aranaren nazionalismoak muga apalagoak zituela. Euskaltzaletasunaren mugekin baino, industrializazioak ezarritakoekin bat egin zuen. Horrela, lehenengo Bizkaian eta Gipuzkoan zabaldu zen, geroago Araban eta Nafarroan; Iparraldean, oster, lehenengo urte hauetan, eratu ere ez zen egin aukera politiko gisa¹⁹.

Euskal nazionalismoaren sendotze prozesua, gogaideen antolaketa politikoari esker suertatzen da, hau da: Aranak eraturiko alderdi nazionalistaren, EAJren, jarduerari esker. Alderdi honen bilakaerak, nazionalismoaren pentsamenduaren berri emango digu denbora luzez. Goazen, bada, bilakaera horren gertaera esanguratsu batzuk ezagutzera.

Euskal nazionalismoaren sorreran Euskalerria Elkarteko sektore bat nazionalismora hurbildu zen. Gertaera horrek EAJren jarduna ezaugarritu zuen:

¹⁷ Mateos, S. (2000). Op. Cit.249-250 orr.

¹⁸ Ibarzabal, E.(1977): Koldo Mitxelena, Erein, Donostia. Iztuetak aipatua in: Op. Cit.: 325 orr.; ikus ere: Solano y Agirre, F. (1934). La lucha por la enseñanza nacional. Yakintza.

¹⁹ Iztuetak dioskun legez:" ...lehen sintoma erregionalistak 1934an emango dira Aintzina kultur mugimenduaren eta izen bereko aldizkariaren inguruan. Zentzu politikoan, ordea, Enbata mugimenduarekin sortuko da 1963an lehen plataforma nazionalista. " aipatua in Iztueta, P. (1996).Op. Cit.: 300 orr.

"...hurbilketa horrek hasiera eman zion EAJren jarduera politiko eta ideologikoa ezaugarritu duen bikoiztasun historikoari. Aurrez aurre jarriko dira doktrinaren erradikaltasuna eta posibilismo politikoak, tradizionalismoa eta liberalismoa, independentzialeatasuna eta autonomizaleatasuna"²⁰

Baina, bikoiztasun horrek ekarri zion EAJri talde sozial desberdinak elkartzeko ahalmena eta bai herriaren atxikimendu zabala ere.

Hasieran bateraezinak ziruditen bi alde horiek, Engrazio Aranzadik (*Kizkitza*) bateragarri egin zituen. Nazionalismoaren aitzindari honen proposamen politikoaren muina malgutasunez jokatzea eta marko politikora egokitzea izan zen. *Kizkitzaren* proposamen honek 1915etik aurrera euskal nazionalismoaren jokabide moderatua azaltzen du. Epe horretan, euskal nazioaren biziraupena, euskal kulturaren zabalkuntzaren bidez, alderdiaren lehentasun bihurtu zen. Hori dela bide, espainiar estatuaren baitan euskal nortasuna errespetatua izan zedin, autonomiaren aldeko apustua egin zen, independentziaren errebindikazioa baztertuz.

1916an euskal nazionalistek *Comuni3n Nacionalista Vasca* izenpean, nazioaren eraikuntza soziokulturalari ekin zioten. 1917ko hauteskundeetan euskal nazionalismoak oso emaitza onak izan zituen eta, horren ondorioz, Bizkaiko Diputazioan gehiengoa erdietsi zuen. Urte hartan sortutako Irakaskuntza Publikoko Juntaren Presidente, Sota izan zen. Honek, E. Landeta laguntzarekin, zenbait proiektu bultzatu zituen. Horietako bat Auzo Eskolen antolakuntza izan zen, Bizkaiko nekazal eta industri auzoetan gauzatu zena. 1919-1923 urte bitartean, Diputazioak berrogeita hamar eskola sortu zituen. Eskola elebidunak izan ziren eta euskara ala gaztelaniaren erabilera nagusia umeen ama hizkuntzaren arabera erabakitzen zen. Alabaina, eskola horien garapena ez zen erraza izan, euskal nazionalismoaz besteko indar politiko guztien asaldura jaso zuten-eta. Hori zela eta, Diputazioak aldatu egin zuen eskolen izaera elebiduna, eta euskara irakasgai bezala soilik eskaintzea erabaki zuen.

²⁰ Mateos, S.(2000).Op. Cit.: 251-253 orr.

Auzo Eskolak 1936ra arte aritu baziren ere, Primo de Riveraren diktaduraren ezarpenetik aurrera, estatuaren kontrolaren pean jarri ziren. Hala ere, indarrean egon ziren bitartean, euskal nazionalismoak, bere-beretzat jo zituen.²¹

Bizkaiko Diputazioak Eusko Ikaskuntzaren erakundea sortzeko prozesua bideratu zuen ere. Hego Euskal Herriko lau Diputazioen onarpenarekin, 1918ko Oñatiko Batzarrean hezur-haragizko kultur gertakari bilakatu zena. XX. mendeko lehen bi hamarkadetako euskal kulturgintzan jauzi kualitatiboa gertatzen da, maila instituzionalean bederen. Izan ere, lehen aldiz lortzen da ideologia desberdinetako ordezkariak elkartu eta adostasunean kultur erakunde baten proiektu eta eraikuntzan parte hartzea. Erakunde horren sorreran denak daude batuta: botere zibila bezala erlijiosoa, nazionalistak bezala espainolistak. Indarrok bateratzen dituen gutxieneko programa, autonomiaren lorpena zen.²²

Autonomiaren bideari ekitearen proposamenak arrakasta politikoa handia eskuratu zuen, lehen aipatutako adibidez gain, 1918ko gorteetarako hauteskundeetako emaitzek erakusten zuten bezala. Giro hartan, Hegoaldeko lau diputazioak batuko zituen *Euskal Mankomunitatea* izeneko proiektua plazaratu zen. Alabaina, Nafarroak prozesutik kanpo geratzea erabaki zuen, eta 1919an, beste hiru herrialdeentzako Autonomi Estatutu baten eskakizuna heldu zitzaion gobernu zentralari. Ekimenak ez zuen aurrera egin eta autonomiaren aldeko lortutako atxikimendua apaldu egin zen. Horren isla 1919ko hauteskundeetan nazionalismoaren bozen galeran ikusi zen. Hauteskundeetan

²¹ Mateos, S.(2000).Op. Cit. : 272-273 orr. Gai honen inguruan ikus: Fernandez (1994):36; Arrien, G. (1987). Educación y Escuelas de Barriada de Vizcaya. Escuela y Autonomía. 1898-1936. Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia.; Elkarlanean (1988). Julene Azpeitia ehun urte mugan, 1888-1988. Zumaia, Zumaia-ko udaletxea.; KIMU "Escuelas vascas origen de las ikastolas." KIMU: 23-26.; Larrañaga, P.(1978). Emakume abertzale batza. La mujer en el nacionalismo vasco. Donostia, Auñamendi.

²² Elkarte honen hiru ekarpen aipatzen dizkigu P. Iztuetak: Euskaltzaindiaren sorrera 1919an, euskara jagon eta horri buruz ikerketa zientifikoak egiteko helburuarekin sortu zena (eta gero denborarekin gure hizkuntza minorizatuaren corpus-normalkuntzan hain funtsezkoa suertatu dena). Bestalde, Euskal Unibertsitateak ez izatean, elkarrekin honetako ordezkari izan du gabezia hori, zientziaren sail desberdinei dagozkien euskal gai funtsezkoenak eta larrienak landuz 1919-1936 epealdian egindako zazpi Batzarreetan. hezkuntzaren sailean, jaso eta aztertzeak dira lehenengo hiru Batzarretan aurkeztutako hitzaldiak, garai hartako euskal irakaskuntzari buruzko panorama nolakoa zen ikusteko ezinbesteko kontsulta iturri direnak. 1918ko lehenengo Batzarrean Adelina Mendez de la Torrek "La nueva escuela primaria en el País Vasco" izeneko hitzaldia eman zuen. Azkenik, elkarrekin honetako Euskal Unibertsitateak euskal gizartearen kokatzen egindako gestio-ahaleginak. in Iztueta, P. (1996). Op. Cit. : 329-330 orr.

jasandako bozen galerak piztu zituen nazionalismoaren jardunari bikoiztasuna ematen zioten bi sektoren arteko tirabirak. Gaiztotutako giro horretan, 1921ean, Komunietik kanporatu zituzten alderdiarekin kritikoak agertu ziren gazte batzuk Aberri aldizkari inguruan biltzen zirenak. Kanporaturiko gazte horiek, beste alderdi bat sortu eta lehengo izena eman zioten: EAJ. Horrela, Komunio alderdian autonomiaren aldekoak gelditu ziren, eta EAJan independentziaren aldeko gazteak .

Harrezkero eta 1936ko gerra piztu arte, euskal nazionalismoak aukera zein arrakasta sozial maila desberdinak izan zituen. Eta bai bi aldagai horien arabera helburu politikoen birplanteamendua gauzatu ere. Gorabehera horiek guztiek mugimenduaren baitako aniztasuna zein lorturiko heldutasuna erakusten zuten, erakunde desberdinen agerpenak ongi adierazi zuen bezala

Erakunde politiko horien artean, dagoeneko esanik gelditu den bezala, EAJ aurkitzen da eta alderdi honetan nabarmendu beharreko kidea Eli Gallastegi dugu. Honek, sabindar ortodoxiari eutsi nahi zion, baina zenbait ñabardura garrantzitsurekin²³. Ñabardura horiek honako hauek dira: Lehena gizarte gaieki dagokie. Sozialismoraino ailegatu barik, orduko langileriaren lan-eta bizi-baldintza latzak salatu zituen eta gizarte kapitalistaren antolaketa kritikatu ere. Halarik ere, lehentasun osoa Euskadiren independentziaren aldeko borrokari eman zion. Azken honek arazo sozialak gaindituko zituelakoan zegoen-eta. Bigarren arloa etorkinei dagokie. Gallastegik bere pentsaera humanistan eta kristau maitasunean oinarriturik, kanpokoekiko harremana lantzea proposatu zuen. Harentzat, etorkinek ez zuten-eta euskal herritarren zapalketan inolako erantzukizunik. Horrela, nazionalismoak egin beharrekoa zen Euskal Herriarekiko etorkinen atxikimendua lortzea. Hirugarren arloan inperialismoaren aurkako jarrera ageri da. Marokoko gerraren kontra gogor aritzeaz gain, European garatzen ari ziren nazio borrokak arreta handiz segitzen

23 Mateos, S.(2000). Op. Cit. : 280-281 orr. Gallastegiren pentsamenduaz ikus Lorenzo Espinosa 1992. Gudari: una pasión útil. Eli Gallastegi (1892-1974). Tafalla, Txalaparta. eta Elorza 1978.Op. Cit.: 389 eta hur.

zituen, batik bat, Irlandan garatzen ari zena. Gallastegik, irlandar nazionalismoarekin harreman estuak izan zituen eta horien ondorio aipagarrienetariko bat emakume nazionalisten erakunde baten sorrera izan zen, *Emakume Abertzale Batza*, beherago ikusiko dugunez.

Gallastegiren eskutik gauzatu zen ere, EAJk bultzatu nahi zuen gizartearen nazionalizaziorako bidean ekimen garrantzitsuen, alegia, gizartearen mobilizazioa. Horrela, mota guztietako kultur ekitaldiak burutu ziren: dantza, antzerki eta musika taldeek eskaintako ekitaldiak. Ekitaldi horietan ideia nazionalisten igorpena eta hedapena bideratzen zen. Are gehiago, mobilizazioak nazioa sentitzeko gune garrantzitsu bilakatu ziren. Ekimen horiek guztiak, jakina denez, Primo de Riveraren diktadurak bertan behera utzi zituen.

Euskal nazioa eraikitze soziokulturalak ezaugarritu zuen garai hartan euskal emakumeak ere jarduera horren zeregin desberdinetan aritu ziren.

Emakume nazionalistei mugimenduan parte hartzeko bidea zabaltzearen ideia EAJren gazte erakundetik irten zen 1906an, zehatz-mehatz, Bilboko Euskal Gaztediaren astekaritik, *aberritik*. *Aberrik* astekarian euren idazkietan parte hartzea proposatu zien. Emakumeek *Aberrik* emandako aukera aprobeztatu zuten eta handik egun batzuetara hasi ziren idazten. Hurrengo bi urteetan zehar hogeita hamar artikulu inguru idatzi zituzten. Alabaina, anonimatutik irtetea ez zitzaien batere erraza egiten. Hasiera-hasieratik euren identitatea ezkututzen ahalegindu ziren ezizenen pean zein sinadura kolektibo baten pean. Jarrera honekin parte hartzeko zailtasunak, euren gaitasunari buruzko zalantza eta euren "ausardia" sorrarazi zezakeen errefusapenaren beldurra adierazi zituzten. Idazkien edukiak, modu abstraktu eta anbiguo batez, euskal nazionalismoaren ideia islatzen zuten; horrela, EAJ-ren baitan zeuden bi aldeak, independentzizalea eta autonomizalea, bereizten zituzten gai

gatazkatsuetan ez ziren inplikitzen. Gai horien inguruan aritzeak borroka politikoan parte hartzea zekartzan, eta hori ez zen euren ardura. Artikulu hauen

egileak, batik bat, euskal kulturaren defentsan aritu ziren, halaber, famili jatorriz, eta zenbait kasutan lanbide jardueraz, zegokien gizarte klasearen interesen defentsan ere bai.

Garai honetakoa da, katolizismoak onarturiko "feminismoa" eta doktrina jeltzalearen arteko urtze saio bat, *feminismo nazionalista* gisa plazaratua.²⁴ Feminismo nazionalista honek emakumeen partaidetza jarduera publikoan bultzatzen zuen, baina ez euren eskubideak aldarrikatzeko, mugimendu nazionalistaren hedapenean eta garapenean laguntzeko baino. Azken jarduera honetarako hiru zeregin esleitzen zitzaizkien: zabalkunde lana, euskararen igorpena eta hedapena, eta euskal emakumeen artean nazionalismoa zabaltzea. Helburu horien zerbitzura *Ropero Vasco* delako erakundea, sorospenen eremuan, martxan jarri zen.

Hurrengo urteetan, zio ezberdinengatik, presan agerturiko idazlanak, lehengo edukiei eutsiz, urriago eta apalagoak izan ziren. 1916 arte itxaron behar da emakumeei zuzenduriko gaiak berriro irakurtzeko. Oraingo honetan, kultur aldizkari batean, *Euzko Deya*, "Etxakinek" "Euzkeldun neskatilari" idazten zion. Carmen Erraztik, ezizenez *Etxakin* eta sei urte geroago Bilboko *Emakume Abertzale Batzako* lehendakaria izango zena, neska euskaldunen prestakuntzaz hamabi bat artikulua idatzi zituen, beti euskaraz. Artikulu horien edukietan, alde batetik etxekoandreaken rola nola bete, eta bestetik, neskatilek zer-nolako portaera arauak bete behar zituzten azaltzen zen. Arau horiek, bestalde, nor beraren indibidualtasunari uko egitea zekarten.

Aipatzekoa da ere, I. Mundu Gerratearen ondorioz Europako mapa politikoaren eraldaketak euskal nazionalismoan eragina handia izan zuela,

²⁴ Presan lortutako zirrikitoaren bidez emakumeen partaidetza, mugimendu nazionalistan, bideratzeko hiru proposamen burutu ziren, horietatik aipatzekoa da 1907an Aranari egindako omenaldiaren ostean "Kataliñek" egindakoa, honako arrazoiarengatik eta Ugalderen esanetan: " *Le parecía completamente insuficiente la labor individual y minoritaria de propaganda que habían comenzado a realizar las mujeres nacionalistas a través de la prensa, y pretendía que salieran de sus hogares para reunirse y llevar a cabo una actuación colectiva con objetivos mucho más amplios de colaboración con los varones.* ". Jakina denez, Libek egindako proposamena, gizonezkoen oposizioa izango ez zuelakoan, beraz, pragmatikoago arrakasta lortu zuena izan zen; handik urte batera *Ropero Vasco* delakoa 1908an sortu baitzen, proposamen horien erantzun bezala ikusia izan daitekeen *feminismo nazionalistaren* ildotik. Ugalde, M.(1993). Op. Cit.: 58-90 orr.

istilu eta protesta mobilizazio testuinguru batean euskal emakumeen "bapateko eraketa batek", *Emakume nazionalisten batzordea*,²⁵ izaniko erantzuna:

*...síntoma del despertar de la mujer vasca a una intervención más activa en la cosa pública.*²⁶

Ekimen horretan, emakumeen partaidetza zabala mugimenduan ikusi zen, eta bide egoki bat eskaintzeko beharraz hitz egiten hasi zen ere.

Horrela, Euzko Gaztedien Federazioa eratzeko 1919ko abenduan Gasteizen eginiko asanbladan, beste gai batzuen artean mugimendu nazionalistan emakumeak izan behar zuen partaidetzaz aritu ziren. Partaidetza hori emakumeen berezko erakundeen sorrerarekin bideratu nahi izan zuten. Ekimen horrek, emakumeen erakundeak laguntza eta sorospenetik harago zihoazen helburuak izan zituen. *Umeen hezkuntza nazionalistari buruzko kezka*,²⁷ azaldu ziren, eta amaren zeregina funtsezkotzat jotzen zen bertan, baita emakumeen mobilizazio eta antolaketari buruzko eztabaidaren garrantzia nabarmendu ere. Halere, asanbladaren ondorio idatzietan ez ziren islatzen eztabaidetan esandakoa:

*... Sin embargo... el referido a la mujer, destacado en segundo lugar, quedó redactado escuetamente así: 1º Que se fomente la cultura nacionalista de la mujer. 2º Que ella, con las orientaciones que señale la Federación de juventudes Vascas, trabaje en la esfera que le corresponde...Las discusiones habían ido más lejos...Se hizo hincapié en la necesidad de formación de las mujeres, en la exigencia de que el trabajo para el que se las reclamaba desde la Federación estuviera sometido a los dictados de ésta, y en que nada de esto supusiera la alteración de los roles sexuales.*²⁸

Euskal nazionalismoak, 1921ean bizi izandako zatiketak bertan behera utzi zuen planteamendua. Urte berean, planteamendu horrekin batera, *Euzkadi* egunkariko euskara atalean, emakumeen idazlanek bide bat izan zuten zabalik: *Emakumea eta Aberria* azpiatala. Euskal nazionalismoaren zatiketak azpiatal

²⁵ *Comisión de mujeres nacionalistas* delakoa Getxon, 1919ko irailan sortu zen, Maria Aizpuru getxotarrari, gatazka garai hartan atxilotua, omenaldi bat egiteko asmoz. in Ugalde, M. (1993). Op. Cit. : 93 orr.

²⁶ Ugalde, M. (1993). Op. Cit. : 94 orr.

²⁷ Azpimarratua guk egina da, zeren eta, Euzko Gaztediaren kide den Gallastegiren eskutik emakume nazionalisten erakunde bat, EAB, eratu baitzen eta aipaturiko kezka horrek emakume horien zeregina ezaugarritu zuen, beherago ikusiko dugunez.

honen etena ere ekarri zuen, eta 1923 arte ez zen berriro argitaratuko. Halere, plazaraturiko ideien berri emateko kontuan izango ditugu argitaratu izan zen bi epeak. Azpiatal horretatik, *Tene*,²⁹ emakume nazionalista guztiak ordezkatzeko zituen "Miren Itziar" pertsonai fiktizioari zuzenduriko gutunen bidez, emakumeen partaidetza mugimendu nazionalistan gidatzeaz arduratu zen. Ezagut ditzagun, bada, *Tenek* plazaraturiko diskurtsoaren ardatz nagusiak.

Idazle honek argi eta garbi utzi zuen berak proposatzen zuen partaidetzak abertzaletasunarekin zeukala zer ikusia eta ez politikarekin; hortaz, emakumeek ez zuten zertan euren betiko ardura baztertu. Politika, haren aburuz, pentsamenduaren emaitza izateaz gain, etxetik at gauzatzen den jardura da. Horrela:

*... arazo au emakumioi ez dagokigu, gizasemeai bezin ondo; abek bezin adimen argidunak, edo beintzat agitz ain ikasiak ez geraldako; eta bestetik, senditik kanporako ardura abek, emakumea, bere gizako bearkun ingurutik aldentzen dutelako; eta au, sendiyarentzat kaltegarri izanik, gizartearen galbide litzatekelako.*³⁰

Aldiz, abertzaletasunak, aberriarekiko maitasunak, bihotzean, sentimentuetan du jatorria

*...Baña abertzaletasunak, Miren Itziar, ez du "politika"kin zer ikusirik. Au uste baten ondorea dan bezela; abertzaletasuna biozkada baten ondorea da, maitasun bat da; eta alde ontatik, iya-iy a usartuko nintzateke esatera gizasemeari baño ebeto dagokigula abertzaletasuna emakumiai; adimen argiya ayen ogasuna ba-da, maitasuna gurea dalako, emakumiena dalako.*³¹

Abertzaletasunaren definizio honek, euren famili arduretatik ez aldentzeaz gain, ardura horiek ondo bete beharraren ustea indartzen zuela diosku Ugaldek. Historilari honen iritziz, politika eta abertzaletasunaren arteko aurkakotasun hura ez zela erreal; are gehiago, abertzaletasunari berari buruzko ikuskera

²⁸ Ugalde, M. (1993). Op. Cit.: 95 orr.

²⁹ Robustiana Mujica ospe handiko euskal idazlea, azpiatal honetan idatzi zuela hogeita hamar urte zituen; 1932an Emakume Abertzale Batzako diruzaintzaz arduratu zen. 1975ean ohorezko euskaltzaina izendatu zuten, bere lan literarioak kultur aldizkarietan zein egunkarietan barreiatuak olerkiak, narrazioak eta artikulak barne hartzen ditu. Liburu batzuk ere argitaratu zituen.

³⁰ "TENE": Miren Itziar' i idazkiak eta olerkiak, Zornotza'n, Jaungoiko-Zale'ren irakorlan, 1923, 9-10 orr. M. Ugaldek aipatua (1993): Op. Cit.: 101 orr.

³¹ "TENE": Op. Cit. 10 orr. M. Ugaldek aipatua (1993): Op. Cit.: 101 orr.

bikoitz bat izkutatzen zuela: gizonezkoen abertzaletasuna eta emakumezkoena. Lehenak ez du mugarik eta borroka politikoaren bitartez bideratzen da; bigarrenak, ordea, jarduera mugatuago bat dauka, ezin baitzituen gainditu esleituriko mugarriak. Gure aburuz, ukatu ezina da abertzaletasunaz ikuskera bikoitz hori, halarik ere, *Tenek* familia, -komunitate txikia-, nazioarekin-komunitate handiarekin- harremanetan ipintzen du; zerbait *sendiyarentzat* kaltegarri bada komunitatea handiarentzat, nazioarentzat, ere bai; beraz, emakumeek dituzten mugarri horiek malguak dira.³²Baina, emakumeen jarduera abertzale zertan zetzan?

Abertzaletasunak, bai emakumeei bai gizonei, euren sinesmenarekin bat zetorren portaera eskatzen zien, jakina, eta Eliza Katolikoak ezarritako arauekin bat zetozen ohiturak (janzkera, dantza moduak, sexualitatea eta abar...) gordetzeko ardura nagusia emakumeengan zeuden. Hizkuntzaren erabilera eta garapena amen esku ez ezik, emakume ororen ardura zen; hortaz, lehenengo sozializazioaz gain bigarrena modu formal eta ez formaletan euren ardura ere bazen: euskara erabiliz edozein unetan eta tokitan, batik bat, umeekin eta baita helduekin ere, eurekin gaztelania egiten zutenak barne; jaioberriei euskal izenak ipiniz; abadeak euskaraz elizkizunak egin zituzten presionatuz; eta, orokorrean, eguneroko bizitzaren eremu guztietan euskararen aldeko jarrera zabalduz.

Teneren artikuluei etena eman zien zatiketak beste ondorio batzuk izan zituen ere, euren artean *Emakume Abertzale Batzaren* eraketa 1922an. Erakunde horren sorreran *Euzko Gaztedia* erakundeak eta bere lehendakaria *E.*

Gallastegik zer ikusi handia izan zuten. Gorago esan bezala, erakunde honek, umeen hezkuntza nazionalistaren inguruan adierazitako kezkek emakumeen mobilizazioaz eta antolaketaz hausnartzera bultzatu zituen *Euzko Gaztediako* asanblea hartan bildu zirenak. *Gallastegik*, irlandar nazionalismoarekin zituen

³² Gizartearen antolaketan Familiak duen garrantzia Soziologiako klasikoengan aurkitzen dugun ideia da, eta egungo feminismoak aldarrikatzen duen ideia ere badugu. Zentzu horretan famili ardurak betetzeak eragina du gizartean. Alta, *Tenek* planteamendu honetan sexismo argi batetik abiatzen dela ere onartzen dugu; gauza bera esaten genuen Soziologiako klasikoaren planteamenduez, ikus 3. atala.

harreman estuak zirela eta, *Cumann na mBan* izeneko emakumeen erakundearen berri ekarri zuen. Berri honek *Emakume Abertzale Batzaren* sorrerari behin betiko bultzada eman zion.

Cumann na mBan bi mugimendu indartsuen, -mugimendu sufragista eta irlandar nazionalismoa-, baterakuntzaren emaitza izan zen. Mugimendu sufragistaren sektore batek borrokarako modu baketsuak, -gose grebak, desobedientzia zibila-, aukeratu ez ezik, irlandar nazionalismoaren eraginez modu biolentoak ere, -suteak eta ondasunen hondamena-, erabili zituen. Nazionalistek gertaera hori kontuan izan zuten emakumeak nazio borrokara erakartzeko. *Cumann na mBan* izan zen borroka nazionalistan parte hartzeko irlandar emakumeei eskainitako bidea *Irish Volunteers* erakunde militarren barruan. 1916ko Bazko asteko matxinadan emakumeek erakutsitako kemenak eta, batik bat, ondorengo erresistentzia antolatuan egindako lanak zer pentsatu eman zion mugimendu nazionalistari. 1917an, estrainekez, gizon eta emakumeen arteko eskubide berdintasuna aintzat hartu zen nazionalismoaren aitorpen politiko batean.³³

Irlandako Estatu Askeak, 1923an, nazionalista erradikalen gainean lorturiko garaipena sendotu guran, irlandar emakumeen boto eskubidea zabaldu zuen, horrela, 21 urte gorakoentzat ahalbidetuz.

Cumann na mBan irlandar nazionalismoaren sektore militarren emakumezkoen adar gisa sortua izan bazen ere,-bere funtzioa gudariei laguntza ekonomikoa zein afektiboa ematea izaki-, garai hartako borroka nazionalistaren baldintza bereziak eta mugimendu feministaren presioak ahalbidetu zuten hasieran proposaturiko jarduera esparrua gainditu ahal izatea. Hortaz, *Cumann na mBan*, nazionalisten erakunde militarrekiko osagarritasunezko izaerari inoiz ez utzi arren, beraiekiko nolabaiteko antolatze-autonomia bat defendatzen

³³Bestalde, Ingalaterrako sufragismoak sufragio eskubidea onartua izatea lortu zuen 1918ko otsailean, 30 urte gorako emakumeentzat. Urte berean, emakumeek parte hartu zuten Ingalaterrako legebiltzarreko hauteskundeetan.*Cumann na mBaneko* lehendakaria, Markievicz kontesa, diputatu irten zen. 1923 urte arte hauteskunde desberdinetan emakume nazionalistek lortu zituzten hainbat ordezkari. Ikus, M. Ugalde, (1993).Op. Cit. :127.

saiatu zen, esaterako, instituzioetan zein erakunde publikoetan emakumeen presentzia defendatuz, euren helburu politikoek eskatuz gero borroka politikoan parte hartuz, inoiz bere kideek armak harturik ere. Dena dela, emakumeen rol tradizionala ez zuen modu esplizitu batez zalantzan jarri. Beraz, *Cumann na mBan* erakundearen bidez irlandar nazionalismoak zenbait aldarrikapen feminista aintzat hartu zituen, baina, aldi berean, emakumeen bigarren mailako paper soziala bere horretan iraunarazi zuen.

Irlandan bezala, *Emakume Abertzale Batza Euzko Gaztediaren* adar bezala jaio zen³⁴. Lehen esan bezala, erakunde sortu aurretik emakume nazionalisten artean prensa bezalako esparru berriak betetzearen bildurra somatzen zen:

*...Se discutía si la mujer debía intervenir en las luchas patrióticas. algunas de ellas, Purificación de Gorostiza (Garbiñe), Errazti'tar Karmele"Etxakin", enregistaban o enristraban sus plumas en la prensa, pero se ponía en tela de juicio su atrevimiento. A las mismas veladas y conferencias de "Juventud", acudían contadas mujeres. Habia cierto miedo al feminismo.*³⁵

Beraz, behin eztabaida hasita, ereduaren berri ematea baino ez zen falta. Horrela, Bilboko Euzko Gatediak, *Ambrose V. Martín O'Daily* irlandar independentzizalearen partaidetzarekin, emakumeak gonbidatu zituen ekitaldi literario batera *Cuman na mBan* bezalako erakunde bat sortzeko asmoz. *O'Dailyek* Bazko asteko matxinadan erakunde horretako emakumeek izandako

³⁴ Gertaera honen berri honako modu honetan azaltzen digu I. Fernandezek: "Emakumeak euskal gizartean izan behar zuen paperaren eraikuntzan lehenengo salto kualitatibo nazionalismoaren barruan lehia zeuden joera biren arteko markoan eman zen. "Comunión Nacionalista Vasca"-k ordezkatzan zuen pentsamendu autonomistak eta "Juventud Vasca"-k ordezkatzan zuen belaunaldi independentzizale gazteak emakumearen auzian ere beronen paper sozialari buruzko kontzeptzio ezberdinak gordetzen zituzten, batetik aipatu dugun kontzeptzio tradizionala eta bestetik Irlandako Sinn Féin mugimenduko Cumann na mBan emakume erakundetik hartuko zena. Irlandako ereduarekin emakumearen esparrua zabaldu egin zen." in Fernandez I. (1994). Emakumea, Hezkuntza eta Nazioa Euskal Herrian, Jakin, 83 zk. 32-34. Gure iritiz, (Fernandezekin bat etorri arren pasarte horretan agertzen den azken ideia horrekin, alegia, Irlandako ereduak emakumearen esparrua zabaldu zuelarekin), ez da oso zuzena euskal nazionalismoaren bi joeren artean, emakumearen auzian ere, kontzeptzio ezberdinak gordetzen zituztela esatea; genero harremanei buruz diskurtso antzetsua baitzuten, emakumeen partaidetza berezko dituen esparruetan bultzatzea izan ezik. Horren adibidea da, *Emakume Azarri Bazkuna* sortzeko eginiko saioa, hila jaio aurretik, Komunioneoek ez zutelako bultzatu, honen inguruan ikus Ugalde M. (1993).Op. Cit.: 167 eta hur. Are gehiago, Cumann na mBan erakundeak ere ez zuen zalantzan jartzen emakumeen rol tradizionalak. Irlandar emakumeak hasierako esparrua gainditu zuten, borroka nazionalistaren baldintza bereziei zein mugimendu feministaren presioei esker, dagoeneko argitua gelditu den bezala. EABeko emakumeek ez zuten horrelako mugimendu sufragistaren eraginik izan, "emakume"gutxi salbu, gehienek mesfidantzaz edo beldurrez ikusten zuten feminismoa.

³⁵ Guk azpimarratua. Larrañaga, P. (1978). Emakume Abertzale Batza. La mujer en el nacionalismo vasco. I.Donostia ,Auñamendi: 34 orr.

jokabidea, bai etxeetan, gartzeletan, ospitaletan, bai erizain gisa, mezulari gisa etsaiaren erasopean bai aberriaren askatasunaren alde armak hartu izana goraiatu zuen. Ekitaldi berean, *Paulina Ramosek*, 26 urteko maistra batek, diskurtso bat irakurri zuen, non euskal emakumeak mugimendu nazionalistan parte hartzera animatzen baitzituen, hori bai, gizonaen senideen osagarri gisa. *O'Dailyk berak*, Paulinaren diskurtsoa indartuz, emakume nazionalistak animatu zituen irlandakoen eredia segi zezaten.

Modu apal batez, emakumeak izenak ematen hasi ziren. Apaltasun hori gainditu guran, Gallastegik, *Sara* izenpean *"la mujer no debe meterse en politica"* artikulua idatzi zuen *Aberrin*. Idazlan horretan, lehenago *Tenek* egin zuen bezala, berak ere abertzaletasuna eta politikaren arteko desberdintasuna ezarri zuen.³⁶

Emakume Abertzale Batzari lau jardun eremu esleitu zitzaizkion: nazionalismoaren hedapena; hezkuntza; sorospena; zerbitzu afektiboak. Eremu horietatik, jite politiko gehien zeukan eremuan, ideien zabalkuntzan, *emakumeak* gizonaen ekiteko ahalmenik ez zuten esparruetan aritu behar ziren soilki. Beraz, jarduera honetan ere, eginbehar guztiak partekatu beharrean, gizonaen zein emakumezkoen jardueretan mugak ezarri ziren. *Emakumei* esparru pribatua zegokien. Horrela, nazionalismoa emakumeen artean zabaltzeaz arduratu behar ziren.

Sorospenari eta hezkuntzari dagokienez, ahalbide ekonomikoak zituzten emakumeek, gizarte onarpenaz, aukeratu zitzatekeen lan arloak ziren. 1920ko hamarkadan klase ertaineko emakume batek lan kualifikazio gehien eska zezakeen magisteritza zen bitartean, sorospena goi mailako kokapen sozialeko familiakoentzat nortze bidea zen. Arlo biak, amatasunarekin duten parekotasuna dela eta, gizartean ongi onartuak ziren. Ez zegoen, beraz,

³⁶ Gallastegiren ideiak genero harremanei buruz zein ekimen horren inguruan ikusi, M. Ugalde (1993).Op. Cit. :130-132 ; 134-135 orr.

EABkoak eremu horietan aritzeko eragozpenik, eta bai abantaila anitz, dio M. Ugaldek³⁷. Historialari honek abantailatzat jotzen duena, lan honen zehar erakusten ari garen ikuspegiaren arabera nazionalismoaren funtsezko zeregina da,³⁸

Esta institución se propone cultivar, con todo cariño, la educación cultural del pueblo, estableciendo cuantos organismos sean precisos, para que nuestros hermanos, y especialmente los niños, desarrollen sus facultades en su preparación para el porvenir, dentro de un ambiente patriótico.

*A este efecto, creará clases y fundará escuelas para niños...; creará el amor a su lengua, estableciendo clases de euzkera, y preparará a la mujer patriótica...*³⁹

Hezkuntza herriratu, orokortu, herria etorkizunerako prestatu, baina, 1932 urte arte itxaron behar da esandakoaren eragina errealitatean behatzeko, Primo de Riveraren diktadurak, beste ekimen asko bezala, EABren garapena ere eten zuen-eta.

Giro politikoa gaiztotu arren, zenbait adierazpen kulturelek indar handia erakutsi zuten. Adierazpen horien artean nabarmendu beharrekoa dugu: *Euskaltzaleak* elkarte, Arrasaten 1927an egindako I. Euskara-Egunean sortua.

P. Iztuetaren⁴⁰ iritziz, elkarte hau izan zen euskara herri-dinamikan txertatzen gehien asmatu zuena. Geroztik, elkarte honek deituta, beste hiru Euskara-egun ospatu ziren: Zumarragan (1928), Andoainen (1929) eta Bergaran (1930). Elkarte Zumaiaiko Batzarrean sendotu zen 1930ean. Aitzolek orduan hartu

³⁷ Ugalde, M. (1993). Op. Cit. :133 orr.

³⁸ " *La mujer patriota* " delako manifestuan EAB ren helburuak arlo erlijioso, politiko eta sozialean aipatzen dira. Arlo bakoitzeko famili gizartean, abertzaleen gizartean eta hiritarren gizartean emakumeek eginbeharrekoak zehazten dira. Arlo politikoan honakoa irakur daiteke:

" En la sociedad familiar: Lo principal...no es tanto la actuación directa e inmediata, sino la mediata, la preparación de los futuros patriotas. Debe tener un concepto verdadero e instruir en él a sus familiares, sobre todo a sus hijos, en las nociones de la Patria, en la historia de Euzkadi, de sus características de su derecho, de sus aspiraciones nacionales; Que sus hijos, conserven, fomenten, aprendan el euzkera...En la sociedad patriótica: si es mujer instruida, podrá tomar parte en los actos públicos, mítines etc.. que no desdican de la mujer; ... En la sociedad ciudadana: si sabe el euzkera, fomentarlo, no hablar en erdera sino por necesidad. Hacer ambiente euzkeldun;.Hacerse profesora, a cada momento del euzkera, procurando difundirlo..."

³⁹ Guk azpimarratua. Larrañaga, P.(1978) Op. Cit.: 46-47 orr.

⁴⁰ Iztueta, P.(1996). Op. Cit. : 332 orr.

zuen elkartearen gidaritza eta berak zuzenduko du gerratea bitarteko euskal kultur gintzaren batela.

Bitartean, egoera ekonomikoa gero eta okerragoa zen egonezin soziala sorraraziz. Horrela, 1930eko hamarkadan, faktore bi horiek ahalbidetu zuten indar politiko sozialistek eta errepublikarrek 1931n II. Errepublikaren ezarpena bideratzea. Baina, lehenago euskal nazionalismoaren baitan hainbat aldaketa garrantzitsu suertatu ziren.

Primo de Riveraren diktadura zertxobait leundu zelarik, indar politiko nazionalista biek batzearen beharra ikusi zuten. Batuketa 1930an gauzatu zen. Batze beharraren inguruan adostasuna zabala zen, ez ordea, batuketa hori zer oinarri politikotan gauzatu. Desadostasun horrek, bi estrategia nagusi izan zituen emaitzatzat, batetik, birbatuketa Aranaren pentsamenduan oinarritzea - Komunioko sektore batzuen eta EAJkoena-; bestetik, Aranaren doktrina berrikuspenari ekitearen aldekoek proposatzen zutena: espainiar egoera politikora moldatu beharra nabarmenduz, indar errepublikarrekin aliantzak gauzatzea. Bigarren estrategia honen barruan, sektore minoritario bat zegoen, JEL leloa aldatu eta ezkerrekin aliantzak egitearen aldekoa zena eta azken honen premiaz konbentziturik, sektore minoritario honek, EAE-ANV (Euzko Abertzale Ekintza-Acción Nacionalista Vasca) izeneko alderdi politikoa eratu zuen.⁴¹

1931n, indar errepublikarren garaipena gertatu zela, EAJk autogobernuaren bidea urratzeko aukera ikusi eta autonomia estatu baten aldeko apustu sendoa egin zuen. Lehenik, Lizarrako Estatutua deritzona bultzatu zuen, Eusko

Ikaskuntzak prestatuturiko aurreproiektu batean oinarritua.⁴² Bestalde, estatutuaren aldeko apustuak alderdi politiko nazionalisten indar metaketa ekarri zuen. Halarik ere, Lizarrako Estatutua ezetza jaso zuen Madrilgo

⁴¹ EAEren ezaugarriei buruz ikus: Mateos S. (1998). Op. Cit. : 283-284 orr.

⁴² Lizarrako estatutuaren gorabeherez ikus: Granja Sainz, J. L. (1986). Nacionalismo y II República en el País Vasco. Madril, Centro de Investigaciones sociológicas. : 151 eta hurr. eta osterera ere, Mateos, S.(2000). Op. Cit.: 284-286 orr.

Korteetan, batik bat, estatuaren batasuna eta izaera laikoaren aurka zihoan-eta. Ondoren, auzi horiek zirela eta, Gobernuak estatutu haren ordezkioa egiteko arauak ezarri zituen, baina, bitartean gobernu errepublikarrak ezarritako Gestoren bitartez (eta ez udalen bitartez, Lizarrakoan bezala) ezkerreko indarrek abian ipini zuten proiektu berri bat. Hiru herrialde baino barnehartzen ez zituen Gestorek bultzaturiko estatutu proiektua, Madrilgo Korteetan eskuindarrek zuten nagusitasunak eragotzi zuen. 1936ra arte, gerra hasita zegoela, ez zen aprobaturiko proiektu berririk.

EAJren jarduera politikoa Autonomia Estatutu lortzera bideratzen bazen ere, teorikoki ez zen independentzia alboratzen. A. Elorzaren esanetan, praktika posibilistaren garapen teorikoaren ardura *boterearen inguruneari* zegokion, jarrera erradikalak eta ortodoxia independentziazalearekiko atxikimendua *militantziaren inguruneari* zegokion bitartean⁴³, baina lehenek bigarrenei helarazitako diskurtsoak ortodoxiaren euspina azpimarratzen zuen, pentsamendu lerro bion arteko gatazka ekiditu guran betiere.⁴⁴

Gerra piztu bitartean, EAJ-k burututako ekimen guztiak euskal gizartean nazio sentimendu piztu eta zabaldu guran, gure iritziz, *militantzia ingurune* horretan kokatu beharra dago. Hori dela eta, ez gaitu harritu behar *Emakume Abertzale Batzak* izandako protagonismoa⁴⁵ garai honetako irakaskuntza formaleko saio bakarraren eraketan: *Euzko Ikastola Batzan*.

Euzko Ikastola Batza Bilboko EABren eta Euzko Gaztediaren ekimenez sortu zen. Ekimen honen aldekoak izan ziren, batetik, euskal nazionalismoaren baitan zein nazionalismotik independente zen Euzko Pizkundea kultur

⁴³ " El hecho de que textos como el *Ami Vasco* sean utilizados para el adoctrinamiento de los nuevos adherentes-así en las instrucciones a las *emakumes de junio de 1931*- refuerza la impresión de que el esquematismo y la actitud radical prevalecen en el *círculo de la militancia*. La tensión interior podía mantenerse en la medida que este segundo círculo apenas contaba en la elaboración de la línea política..." azpimarratua gurea, in Elorza A. (1978). Op. Cit. 431orr.

⁴⁴ Elorza A. (1978). Op. Cit. 431orr. aipatua in: Mateos, S.(2000).Op. Cit.: 286-287 orr.

⁴⁵ *Emakumeen* protagonismoa ez zen mugatzen hezkuntza esparrura lehenago ikusi dugun legez. Hala ere, lan honen xedearekin zerikusia zuzena hezkuntza formaleko saioak dauka eta horrexegatik horren inguruan baino ez gara arituko. *Emakumeek* 30eko hamarkadan izandako beste ekimenez, ikus: Larrañaga, P. (1978). Op. Cit.; Ugalde, M. (1993) Op. Cit.: 207 eta hur. Hezkuntzaren esparruan beste ekimenez ikus: Fernandez, I (1994a). Oroimenaren Hitza: Ikastolen historia 1960-1975. Bilbo, UEU: 36-39 orr.; Fernandez, I. (1994b). Emakumea, Hezkuntza eta Nazioa Euskal Herrian. Jakin, 83zk.: 35-36 orr. Hemendik aurrera *Emakume Abertzale Batzaren* aipamena EAB siglen bidez egingo dugu.

mugimenduan zegoen egonezina, euskal nortasuna eta euskararen aurkako izaera erakusten zuen oinarrizko irakaskuntzarekiko.⁴⁶ Bestetik, II. Errepublikaren hezkuntza politikaren ezaugarri nagusitzat jo dezakeguna: laizismo politika.

Hasiera batean, Bilboko EAB zeuden ikastetxe guztietan, bai eskola publikoetan bai kolejio erlijiosoetan, ematen zuten irakaskuntzan eragiten saiatu zen. Horrela, *emakumeek* elebitasunaren ezarpenaren aldeko mugimenduan parte hartzeaz gain, kolejio erlijiosoetara zuzendu ziren euren irakasgaietan euskara sar zezaten eskatuz.

Reconstituida la única Asociación primitiva "E.A.B." de Bilbao, el 23 de junio de 1931, ...sus primeros acuerdos

1º Cursar al Ministro de Instrucción Pública un telegrama, en pro del bilingüismo, en las escuelas públicas. Este telegrama respondía al clamor unánime de las diversas regiones, que demandaban una solución digna a este problema escolar y cultural...

Baina, behin Konstituzioa ebatzirik eta Gobernuaren hezkuntza politika zehazturik, Bilboko elkarteak JEL leloarekin bat zetozen eskolen sare paraleloaren sorrera bultzatzea erabaki zuen⁴⁷. *Emakumeek* proposamena egin eta handik bi hilabetera *Euzko Ikastola Batza* egitate bihurtu zen.

Euzko Ikastola Batzaren antolaketan bi erakunde mota zeuden, bata, Bilbon kokaturiko gobernu batzordea eta, bestea, tokian tokiko batzarrak gobernu batzarraren menpekoak zirenak, baina independentzia administratiboarekin.

Emakumeen partaidetza erakunde horietan erabaki guneetatik aldendua eta eskasa izan zen.⁴⁸

Aurrekoarekin alderatuz, *Euzko Ikastola Batzaren* funtzionamendua bermatzeko beharrezkoak ziren eguneroko lanak *emakumeen* esku gelditu

⁴⁶ Honen inguruan aurreko orrialdetan aritu izan gara. Hala ere, egonezin honen aurrekariak, modu sistematikoago batez- soilki kontuan hartu baititu kultur esparrua eta hezkuntza esparrua- azalduta daude honako lan honetan: Fernandez, I.(1994a). "Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975". Bilbo, UEU: 1-27 orr.

⁴⁷ Ugalde, M. (1993). Op. Cit. : 450 orr.

⁴⁸ Ondarretako batzordea salbuespen dugu, non gizon eta emakumeen partaidetza antzetsua izan baitzen. Ugalde, M. 91993) .Op. Cit. : 451orr.

ziren. Horrela, irakasleria, Elorrioko eskolan izan ezik, maistrez osaturik zegoen⁴⁹. Halaber, Bilboko gobernu batzordearen menpe zeuden Belostikaleko eta Errotatxuetako eskolen administrazioaz *emakumeak* arduratu ziren.

Bestalde, irakaskuntza esperientzia hau *militantzia ingurunean* sortu izanak, lehen esan bezala, sozializazio nazionalistari dagokionez jauzi kualitatiboa agerian uzten du.⁵⁰ Hortaz, euskal eskola hauek naziotasuna, kristautasuna, irakaskuntzaren hizkuntz eredua, elebitasuna, eredu pedagogikoa eta irakasleriaren prestakuntza komunean zituzten arloak ziren bitartean; finantziabideak, azpiegituren antolaketa eta ikastetxe bakoitzaren eguneroko lan administratiboa independenteak ziren.⁵¹

Hezkuntza esperientzia hau apala izan arren -lau urtetan 1179 ikasle lortu zituen 14 eskolatan banatuta- eta geografikoki oso mugatua -14 eskola

horietatik bi izan ezik beste guztiak Bizkaian zeuden-, zenbait idazlek Euskal Hezkuntzaren Sistemaren hazi gisa ikusi dute⁵².

⁴⁹ Informe de la gestión del primer ejercicio presentado por la Junta de Gobierno de Euzko Ikastola Batza.1932-33. delakoak honela dio irakasleriaren prestakuntzari dagokionez: "SELECCION Y PREPARACION DE MAESTRAS"...Esta ligera preparación, y la asistencia personal de los vocales de esta Junta de Gobierno encargados de la función orientadora de la enseñanza, han constituido hasta ahora, la ayuda prestada a nuestra maestra en su misión de educación vasca, para la que no había recibido instrucción alguna en sus años de preparación profesional.

Ha sido gracias a su disposición de ánimo y a su propósito patriótico, que han empezado a encajar su trabajo en la orientación pedagógica que de ellas esperábamos, luchando con su formación profesional de tipo español, y por otra...con la crítica o comentarios de quienes aún se empeñan en tomar como punto de vista posiciones absolutamente opuestas a lo que dicta, en pedagogía, *un criterio integralmente nacionalista*. " in Amurrio, M. (1991). La situación socioprofesional de las andereños de ikastolas de la C.A. P.V. Madril, Actas de la I. Conferencia de Sociología de la Educación: 300 orr.

⁵⁰ " II. La enseñanza será *integralmente vasca*, entendiéndose únicamente por tal aquella que resulte del cultivo y ejemplaridad de las particularidades o valores naturales del pueblo vasco, y que tenga por fin el mantenimiento de la integridad y perfeccionamiento de su personalidad.

III. La designación de "vasca" en la educación, no ha de ser un término ambiguo susceptible de interpretaciones, ni tienen justificación, sino como la concreción del ideal nacional? No basta, por consiguiente la enseñanza del idioma, de la geografía, etc...,para considerarla como enseñanza vasca, sino que es preciso hacer de todas y cada una de sus actividades docentes o instrucción un medio enderezado al logro de las aspiraciones señaladas en el punto anterior." E.I.B. (1933): Informe de la gestión del primer ejercicio presentado por la Junta de Gobierno de Euzko Ikastola Batza.1932-33.Argitaratu gabeko dokumentua aipatua in Fernandez, I. (1994a). Op. Cit. : 26 orr.

⁵¹ Fernandez, I. (1994a).Op. Cit. : 30 orr.

⁵² Fernandezek garaiko presnan agerturiko "Proyecto para la creación de un colegio vasco. Orientaciones generales" artikuluan oinarriturik, oinarritzko hezkuntzaz gain, bigarren hezkuntza eta gero Euskal Unibertsitatearen eraketaren inguruko hausnarketaren berri ematen digu, in Fernandez, I. (1994a). Op. Cit. : 27. Bestalde, EIBrenikastolen hedaketa geografikoaren berri, Hego Euskal Herrian, Ugaldek ematen digu, presnan agerturiko artikuluen bidez berriro ere, in Ugalde, M. (1993). Op. Cit.: 454 orr. Halarik ere, Mateosen esanetan auzo eskolen esperientzia, sozializazio nazionalista esplizituki agertu ez arren, *euskararen eta euskal kulturaren oinarritutako hezkuntzaren zabalkundea, berez, euskal nazioaren mesedean joango zela*. Mateos, S. (2000) Op. cit. : 289orr. Ezin ahantzi esperientzia honetan ere aritu ziren emakume gehienak EABkoak zirela.

Euskal nazionalismoaren sortze eta sendotze prozesuan, aurreko orrietan ikusi izan dugunez, nazionalismoak emakumeei esleituriko funtzio sozialaren aldaketa kualitatibo bat gauzatzen da. Nazionalismoaren sorreran, Yuval-Davisen⁵³ esanetan, *komunitate eramaile* gisa ikusiak ziren, hortaz, komunitate mugak ezartzen zituzten portaera janzkera eta batez ere ezkontza mistorik ez burutzea izan dira, ikuspegi feminista batetik, jokabide zapaltzaileak eta, beraz, kritikatuak izan behar direnak. *Komunitate eramaileak* izateari utzi gabe, nazionalismoaren sendotze prozesuan, apurka-apurka *kultura igortzailearen* funtzioa gailenduz doa. Funtzio honek areagotu zitzakeen aurreko funtzioaren jokabideak *ordezkapen zama* izaten ailegatzeraino. Alta, gure iritziz, *EABren emakumeen* kasuan areagotu baino gutxitu edota bigundu egiten da *ordezkapen zama* hori, eta lorturiko hezkuntza esparru horretan nolabaiteko boterea eta partaidetza garrantzitsua izatera ailegatu ziren euskal nazioaren eraikuntzan.⁵⁴

Egia da, gure ustez berriro ere, *emakumeek* kokapen anbibalente bat dutela, batetik, kolektibitatearen batasuna, ohorea eta proiektu nazionalaren izate arrazoia sinbolizatzen dituztela⁵⁵ bestetik, gorputz politikoaren "gu"

kolektibotik neurri batean baztertuak dira subjektu oso baten kokapena izan barik objektu hutsarena ez, baina, bai bigarren mailako subjektuarena izaten - kultur esparruan, abertzaletasunaren esparruan aritzearen eta ez politikaren esparruan-. Eta anbibalentzia honen adierazle dugu feminismoaren alde agerturiko zenbait ahots, euren artean, Julia Fernandez Zabaletarena:

⁵³Ikusi lan honen 4. atalean 194 orr eta hur. Yuval-Davis, N. (1997). *Gender & Nation*. London, Sage.

⁵⁴ " Al verse limitadas a ésta área de empleo y al abrirse allí un espacio, las mujeres se aferraron a ella como a uno de los pocos ámbitos en que podían ejercer algún poder, aún a costa de un refuerzo de los estereotipos acerca de la esfera de las mujeres. "Acker, S. (1983). "Women and Teaching: A Semi-Detached Sociology of a Semi-Detached Profession", in Stephen Walker eta Len Barton, bil. *Gender, Class and Education*, Barcome, Sussex, Falmer Press, 134 orr. aipatua in Apple, M. W. (1989). *Maestros y Textos*. Bartzelona, Paidós: 76 orr.

⁵⁵ Haydee Agirrerri eginiko elkarrizketa batean: " *¿Qué mitin recuerdas con más cariño?* Todos. Puse todo mi entusiasmo en cada uno de ellos, pero el más hermoso fué el día de la Madre Vasca. Por haber estado en la cárcel quisieron hacernos un homenaje, pero nosotras no creíamos merecer algo semejante, claro que no. Y entonces el Bizkai Buru Batza sugirió a Emakume la idea de un día para la Madre Vasca. Ella era quien mantenía la tradición y quien daba sus hijos a Euzkadi. Ella era la fuente del euskara y la fuente de la vida y la fuente de la continuidad..." aipatua in Amezaga, A. (1980). *La mujer vasca. Euskadi y su historia*. Bilbo, GEU: 193 orr.

*Julia Fernández Zabaleta, ... que censuraba el proceso de ridiculización al que se había sometido la imagen de las feministas, valoraba su lucha, y constataba que uno de los presupuestos básicos defendidos por ellas: la capacidad de las mujeres para realizar cometidos en los que sólo se consideraba competentes a los hombres, habi sido corroborado por los hechos...veía la incorporación de las mujeres al mundo del trabajo asalariado...señalaba que algunas habían sido capaces de realizar un trabajo intelectual a pesar de las condiciones adversas...consideraba que el acceso a cargos públicos y responsabilidades de gobierno mostraban que también el campo de la política estaba dentro de sus posibilidades...*⁵⁶

Bestalde, ezin ahantzi, estaturik gabeko nazionalismo bati buruz ari garela eta, hortaz, beste testuinguru batean 'zapaltzaileetat jo genitzakeen zereginak' - nazio-estatu batek sorturiko nazionalismoan, esaterako- ez dira zertan zapaltzaile bezala *sentituak* izan:

*...muchas mujeres encontraron en Emakume un medio de ser útiles a la patria y a la sociedad. Hoy tiene que ser de otra forma, **mucho más política** desde luego. Hay cada vez más mujeres preparadas que pueden hacer más de lo que nosotras hacíamos, es verdad, pero de algún modo lo que nosotras hicimos cubrió un vacío y no se puede ni debe desdeñar ni burlar.*⁵⁷

Gorago aipatzen genuen faktore subjektiboaz gain, baziren ere gertaera objektibo batzuk *emakumeek* izandako *partaidetza bitxia* azaltzera datozenak, esaterako, garapen sozio-ekonomikoa, *emakume* hauen gogoak beste esparruetan aritzeko, gertaera politikoak eta nazioarteko feminismoaren mugimenduaren zeharkako eragina⁵⁸.

Beraz, deskribaturiko zio subjektiboak zein objektiboak, nazionalismoaren testuingurua zein emakumeen berauen asmoak, faktore hauek guztiek ahalbidetzen digute *emakumeen* partaidetzaz hitz egitea euskal nazioaren eraikuntza prozesuan eta are gehiago, partaidetza horren garrantziaz ere bainahiz eta partaidetza horrek zalantzan ez jarri indarrean zegoen genero

⁵⁶ Ugalde, M.(1993) Op. Cit.: 192 eta hur.

⁵⁷ EABko kide zen Miren Nekane Legorburuk esandakoa elkarrizketa batean aipatua in Amezaga, A(1980). Op. Cit. 207 orr.

⁵⁸ Ugalde, M. (1993). Op. Cit.: 574 orr.

antolaketa-. Badirudi ere, A. Elorza bezalako nazionalismoaren teorilariak⁵⁹, gurekin bat datorrela esaten duelarik *Emakumeek belaunaldi berriak prestatzen eginiko lana*, 50eko hamarkadan nazionalismoaren bersorkuntza azaltzeko, aintzat hartu beharra dagoela.

⁵⁹ Elorza, A. (1978). La mujer en el nacionalismo vasco. *Tiempo de Historia*, 38: 17 orr. aipatua in Fernandez, I. (1994b). *Emakumea, Hezkuntza eta Nazioa Euskal Herrian*, jakin, 83 zk.:37 orr.

8.- Nazionalismo berriaren ekarpenak

Lehen esan bezala, 1936an gerra hasita zegoela, Autonomia Estatutua aprobatu zen. Gertaera hori EAJ eta Frente Popularraren elkarlanak ekarria dugu, gerra piztu zelarik elkarlan horren posibilitatea argi ez bazegoen ere. Ezin ahantzi, desadostasun ideologiko nabariez gain, gerra aurreko urteetan Errepublikak erakutsitako jarrera oztopatzailea estatutu proiektuekiko, zeinak nazionalismoaren baitan Errepublikarekiko mesfidantza sentimendua sorrarazi baitzuen, auzi erlijiosoak arras gaiztoturiko giro politiko batean. Hala ere, uneko gertaerek alde biei erakutsi zieten balizko elkarlan batek ekar zezakeen onura, batetik: Errepublikak, nazionalismoaren atxikimendua jasotzean, estatuan zein nazioarte mailan leporatzen zitzaion kutsu komunista bigundu ahal izatea; bestetik, euskal nazionalismoak argi ikusi zuen, epe hartako giro politikoan Errepublikari loturik baino ez zen posible estatutua eskuratzea. Horrela, urrian Madrileko gorteetan autonomia Estatutua onetsia izan zen, eta berehala Euzko Gobernua eratua ere bai. Gobernu honetan indar politiko guztiak izan ziren, anarkistak salbu, Kontzentrazioko Gobernu bat osatuz.

Gerraren amaierak estatu berri baten hasiera dakar. Gerran oinarrituriko estatu frankistak antzinako erregimenarekin zituen loturak haustu beharrean, aristokrazia finantziero batean oinarritu zen. Aristokrazia finantziero horrek botere politikoa, ekonomikoa eta administratiboa bereganatu zituen.¹Burgesia industrialaren sektore batek, burgesia industrial eta finantziero handiak, bat egin zuen garaileekin, Bizkaiko eta Gipuzkoako burgesia ez oligarkikoak, ordea, garaituekin.

Estatu Frankistak, monolitikoa, zorrotza eta autoritarioa, lurralde osoan erabateko kontrola ezarri zuen, baina erabateko kontrol horren legitimazioa eskuratu beharra zeukan. Estatu berria gerran eta honen legitimazioan

¹ Aristokrazia finantziero honen inguruan honakoa diosku C. Moyak: "se puede decir que, como desarrollo de una nueva clase dominante, todo el desarrollo histórico social que va desde 1856 a 1950 se puede entender, en nuestra sociedad, como reconstrucción progresiva de la vieja aristocracia mediante la incorporación a sus filas de las élites burguesas de nuestra economía." Carlos Moya (1975). El poder económico en España, Madrid, Túcar: 50orr. aipatua in Pérez-Agote, A. (1984). La reproducción del nacionalismo. El caso vasco. Madril, Centro de Investigaciones Sociológicas: 54 orr.

oinarritzen da: legitimazio erlijiosoan. Elizak, gerra gurutzada gisa aurkezteko estalki instituzional eta ideologikoa eskaini zuen estatu berriaren jatorri bortitza ahantzarazi guran. Baina, euskal gizarteari zegokionez ez zen posible halako legitimaziorik eskuratu, batetik, Euskal Herriaren erabateko atxikimenduagatik Errepublikarekiko; bestetik, Euzko Gobernuaren izaera katolikoagatik. Espainiar nazionalismoa, Mateosek² dioskunez, hasiera-hasieratik nabarmendu zen euskal gizarteari zegokionez, ebatzi zen lehen dekretua Kontzertu Ekonomikoak indargabetzeko izan zen-eta. Horrela, lehen urteotan, erregimen frankistak ez zuen euskal herritarren onespena jasotzeko inolako saiorik egin; aitzitik, gerra kode bat aplikatuz, Bizkaia eta Gipuzkoa *probintzia traidoretzat* jo zituen aipatu dekretuan. Garaileek euren garaipena instituzionalizatu nahi izan zuten, adierazpen publikoaren eremua ezabatu, sozializaziorako gune autonomo oro³ zapaldu, desberdintasuna ukatu, desberdintasunezko sinboloak eta erakundeak disolbatu zituzten-eta. Horrela, zapalkuntza bortitza bizi izan zuten garaituek: mugimendu nazionalistak eta indar politiko zein sindikatu ezkertiarrek.⁴

Gerrateondoko lehenengo urteetan, Frankismoaren kontrako oposizio politikoa erbestean kokatzen da, eta honekin batera bai euskal kultura ere. Lehenengoari dagokionez, Euzko Gobernua dugu protagonista nagusia. Nazionalismoak erabateko lehentasuna eman zion nazioarte mailako politikari, II. Mundu Gerraren testuinguruan, Espainia ere gerran sartuko zela uste izan zuen, eta aliatuen garaipenak mapa politikoaren eraldaketa ekarriko zuelakoan aritu ziren. Jakina denez, ez zen horrelakorik gertatu. Beraz, gerraren amaierak

²Mateos, S.(2000): Op. Cit. : 299 orr.

³ Iztuetak honela deskribatzen du garai hartako egoera: " Frankismoak, Burgoseko bere Gobernutik, II. Errepublikako Konstituzioan eta, halaber, Euskal Autonomi Estatutuan zetozen askatasun demokratikoak oro abolitzeko dekretuak aldarrikatu zituen. Neurri juridikoak gizarte-maila guztietara iristen dira 1937-1940 epealdiaren barruan. Zapalkuntza orokorra da. Hezkuntza- sistema susmagarria zen pertsonala uxatu...Ama-hizkuntzan mintzatzea ere espreski debekatu zen...Erabateko hizkuntz zapalkuntza honek lurpean sartu zuen euskarazko kultur adierazpen oro. Gerrateurreko kultur plataforma osoa etenda geratu zen..." in Iztueta, P. : Op. Cit. : 334-335 orr. Hizkuntz-eta Kultur-zapalkuntzaren inguruan ikusi ere: Tejerina, B. (1990). Identidad Colectiva y lengua. Imagenese sociales del euskara en el posfranquismo., Universidad de Deusto. Bilbo.: 98-100 orr.

⁴ A. Gurrutxagaren esanetan, lau herrialdeetako biztanleen % 70ak nozitu zuen mota bateko edo besteko zigorrrik: hilketa, tortura, gartzela, erbestea, lan egozte, isunak...in Gurrutxaga, A. (1985). El código nacionalista vasco durante el franquismo. Bartzelona, Anthropos.: 169-172 orr.

jokabide aldaketa ekarri zuen, eta jokabide horren hari eroale Errepublikarren legezketasunari eustea izan zen. Testuinguru horretan, 1945ean, Baionako Ituna sinatu zen, indar nazionalista, errepublikar, sozialista eta komunisten artean, eta bertan legezketasuna eta 1936ko Euskal Autonomia iraunarazteko konpromisoa hartu zen. Horren ondorioz, 1946an, berregokitu zen ere erbesteko Euzko Gobernua.

Erbesteko euskal kulturaren adierazle ditugu EAJk sorturiko aldizkariak zein apaiz erbestaratuek sorturikoak, den-denek informazio politiko zein erlijiosoaren helburu jakina eramanez. Atzerrian euskal kausaren argigarri izan nahi zuten eta, bide batez, populazio erbesteratuaren lotura-gune. J. M. Barandiaranen *Ikuska*, *Gernika Eusko-Yakintza* eta I. Fagoagaren *Gernika*, hiruok kultur aldizkariak, lehenengo biak etnologian espezializatuak eta hirugarrena gehiago euskal kulturaren. Gerrateondoko eztabaida-lekurik freskoenetako bat, Iztuetaren aburuz, *Gernika* aldizkari elebiduneko orrialdeak dira eta idazle horren esanetan: *orrialde horiek banan-banan eta arretaz irakurri gabe nekez egin daiteke balantze egokirik 1940ko hamarkada-bukaera eta hurrengoaren hasierako euskararen egoeraz.*⁵

Hego Euskal Herrian, bitartean, erregimen berriak ezarritako gerra ekonomia dela eta, bizi baldintzak endekatuz doaz; jarduera politikoa, garaituen erresistentzia pasiboak ezaugarritzen du, mendebaldeko demokraziek gerrak sorturiko erregimena onartu ez zutelako esperoan. Testuinguru horretan kokatu behar da, 1947an sindikatuek konbokaturiko greba orokorra, frankismoaren kontrako oposizio zabal baten lehen mobilizazioa.

1948-1950 epealdiaren ezaugarri nagusiak ditugu, nazioarte mailan, *Gerra Hotza* eta mendebaldeko demokrazien hurbilketa frankismoarekiko. Antikomunismoaren eragina euskal nazionalismoak ere jaso zuen. Eragin

horren adierazle dugu, PSOEn presioa zela medio, Alderdi Komunistaren kanporaketa Euzko Gobernutik. 1953an Estatu Batuak eta Espainiaren artean

⁵ Iztueta, P. (1996). Op. Cit.: 336 orr.

akordio bat sinatu zen eta bi urte geroago, 1955ean, Espainia Nazio Batuen Erakundearen onartua ere izan zen.

1950eko hamarkadan, beraz, nabaria da EAJren jokabide politikoaren porrota. Halarik ere, erbesteak egindako ekarpenek berebiziko garrantzia zuten, horrela: batetik, esparru politikoan legalitate Errepublikarrari eta Autonomia estatutuari eustean oroimen historikoari heldu zioten eta, neurri handi batean, kapital historiko eta sinbolikoaren suntsipena ekiditu ere; bestetik, kultur esparruan, belaunaldi berriei kultur oinordetza igorri, euskararen heriotza saihestuz.⁶

Hego Euskal Herriko gizartean, bitartean, aldaketa ekonomiko, sozial eta kultural anitz gorpuzten hasiak ziren. Gizarte testuinguru berri horrek frankismoaren aurkako erantzun berriak ekarri zituen ere. Baina, testuinguru berri horren ezaugarriarik funtsezkoena dugu esparru ekonomikoan gertaturiko aldaketa sakona: 1950 eta 1960ko hamarkadetan, Hegoaldean, bigarren industrializazioa deritzona eta Beltzaren⁷esanetan euskal gizartearen azken eraldaketa handiari hasiera eman ziona. Hegoaldeko hazkunde ekonomikoak estatu mailako inmigrazioa zein bertako nekazalguneetako biztanleria erakarri zituen industriguneetara. Gertaera horrek populazioaren hazkunde ikaragarri eragin zuen eta, berarekin batera, urbanizazio prozesu arina eta planifikatu gabea. 1910eko hamarkadan gauzaturiko populazio hazkundearekin alderatuz gero, datu esanguratsu bat nabarmentzen da: epe horretako inmigrazio tasa %8 zen bitartean, bigarren industrializazioaren ondorioz suertatzen den populazio hazkundera, biztanle berrien %40 estatuko gainontzeko probintzietatik etorria zela. Langile hauek, epe desberdinetan bada ere, industrializazio ereduaren

⁶ Gurruchaga, A. (1985). Op. Cit.: 187 orr. Erbesteko ekarrien artean kultur esparruan, azpimarratzekoa da Guatemalatik iritsi zena Jokin Zaitegiren eskutik, alegia, *Euzko Gogoia*, euskara hutsezko lehen kultur aldizkaria. Dena euskaraz idatzia eta lan akademikoak lantzen zituena. Lankidetzaren oparora eta kualifikatua bildu zuen, gehienbat erbesteko lumentzat: guztira, 127 idazle. Aldizkari honen lehen eta azken xedea, Pariseko Euskal Batzar Orokorrean (1956) irakurritako txostenean azaldu bezala, hauxe xen: Euskarazko Unibertsitateari atak irekitzeko materiala prestatzea. in Iztueta, P. (1996). Op. Cit. : 336-337 orr.

⁷ Lopez Adan, E. (1977). El nacionalismo vasco en el exilio 1937-1960. Donostia, Txertoa.: 83 eta hur

eraginez kokatu ziren: Bizkaian, etorkin gehien hartu zuena, Bilbo Handia deritzon aldean kontzentratu ziren; Gipuzkoan, aldiz, bailara desberdinetan sakabanaturiko enpresa ertain eta txikien inguruan; Araban, hiriburuan kontzentratzera jo zuten; eta, azkenik, Nafarroan, Araba eta Gipuzkoaren arteko erdibideko ereduaren arabera kokatu ziren. Langileriaren hazkunde honekin batera, lehenengo gizarte mobilizazioen zein langileen erakundeen berragerpena suertatu ziren.⁸ Etorkin-oldeak euskararen egoera latza, gerra osteko zapalkuntza politiko zein sozialaren ondorio,⁹ areagotu zuen: ordura arte euskaldun ziren zonaldeetan ere gaztelania nagusitzen hasia baitzen. Halarik ere, euskararen aldeko susperraldia, 1950eko hamarkadaren zehar bideraturik zegoela diosku Iztuetak.¹⁰ Adibide modura, *Euzko-Gogoa*, *Egan*, eta *Jakin* kultur aldizkarien argitalpenak aipatzeaz gain, euskararen aldeko gogoeta kolektiboen agerpena, maila politikoan zein linguistikoan 1950eko hamarkadaren erditik aurrera, dakarkigu gogora: Euskal Gobernuaren Pariseko Euskal Batzar orokorra eta Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzarra, biak 1956ean eginak. Azken honetan, lehen aldiz biltzen ziren euskaltzaleak leku publiko batean euskararen egoeraz, *batasunaz bereziki*, gogoeta kolektibo bat egiteko xedearekin.¹¹

Baina, Kultur mugimenduen antolatze eta sendotzea hurrengo hamarkadan suertatzen da, aurki ikusiko dugunez. Gertaera horren berri eman aurretik, ikus dezagun 1950eko epe honetan esparru politikoan, eta nazionalismo politikoari dagokionez, suertatutakoa.

Beltzaren aburuz,¹² EAJ izan zitekeen funtsezko indar politiko bat, haren gizarte oinarria, burgesia txikia, modernoa eta urbanoa, hegoaldeko industrializazio eta urbanizazio prozesuak garatu ahala hazi zen-eta.

⁸ Beltza (1977). Op. Cit. 84-91 orr.

⁹ Tejerina, B. (1992). Nacionalismo y lengua. CIS, Madril. 117-118 orr.

¹⁰ Iztueta, P. (1996) Op. Cit. 340 orr. Zuzperraldi horretan berebiziko papera jokatu zuen euskal apezteria, gai honen inguruan ikus: Gurrutxaga, A. (1985). El código nacionalista vasco durante el franquismo. Bartzelona, Anthropos.

¹¹ *Euskara*, I, 1956. Iztuetak aipatua in Op. Cit. 340 orr.

¹² Beltza (1977). Op. Cit. 88-89 orr.

Baina, euskal klase guztien arteko elkartasuna eta batasuna ordezkatzeko nahiak makaldu zuen. Gainera, EAJrentzat oso garai latza zen, batetik, mendebalde demokratikoarekiko konfiantza politikaren porrota zela eta; bestetik, burgesia nazionalak frankismoan lortutako etekinak zirela eta, masen eguneroko borrokekin lotzeko estrategia politiko eta ekintza publiko barik aurkitzen zen.

Euskal nazioaren aldeko jardura politikoan EAJk zeukan protagonismoa ordezkatzeko datorren taldea, *EKIN* dugu, hegoaldean sortua. Talde horren jardura 1952 eta 1956 urte bitartean militanteen prestatze eta bereganatze lanetan zetzan. 1956an, *EKIN*ek ere aldaketa politiko giroan parte hartu zuen, eta EAJko Euzko Gaztediarekin bat egin zuen, *Euzko Gaztedi* sortuz. Elkarbatze honek, EAJko *zaharrekiko* zenbait tirabira agerian utzi zituen, bestalde, areagotu zirenak *Euzko Gaztediaren* baitan eztabaidak sakondu ahala. EAJkiko harremanak gero eta gatazkatsu bihurtu ziren, behin betiko haustura iragarritz. 1959ko uztailaren 31n, aurreko *EKIN* eta *Euzko Gaztediko* batzuek *Euskadi Ta Askatasuna* (ETA) izeneko erakundea sortu zuten.

ETA mugimenduak maila politikoan nahiz kulturean zekarren alternatiba berriekin: *...goitik behera irauli zuen 60ko hamarkadatik aurrerako eremu soziopolitikoak, besteak beste, nazioaren definizio berri baten eskutik.*¹³

8.1.- Kulturazio eta genero diskurtsoa.

Izan ere, ETA mugimenduak euskal hizkuntza nazioaren funtsatzat hartzean, arrazaren kaltetan, mugimendu nazionalista osoa kutsatu zuen. Horren adierazle dugu 1966an EAJk argitaraturiko dokumentua non autodeterminazioaren eskubidea defendatzeaz gain, demokrazia politikoa demokrazia ekonomikoa eta sozial gisa definitu baitzuen etorkinen integrazioa aldarrikatuz¹⁴. Halaber, ekarpen berri horri esker, kulturazioa alorrean 60ko hamarkada horretan, hainbat ekimenek izan zuten beren loraldi beteak,

¹³ Mateos, S.(2000). Op. Cit. 307 orr.

¹⁴ Letamendia Belzunce, F. (1994). Historia del nacionalismo vasco y de E.T.A. Donostia.: 304 orr.

ideologian, kantagintzan, bertsolaritzan, euskararen berreskurapenean eta hezkuntzan, bereziki, aurki ikusiko dugunez.

Naziotasunaren inguruko proposamena ez da, ordea, ekarpen berri bakarra: akonfesionaltasunak eta independentzizaletasunak gerraurreko nazionalismo autonomizaletatik bereizten dute ETA. Jauregiren esanetan¹⁵, berritasunei horiei izaera ekintzailea gehituz gero, hasierako mugimendu horren oinarri ideologikoak izango genituzke. Bestalde, gizarte berriari erantzuteko nahiko ez eta, beraz, egokitu eta osatu beharrekoak zirenak. Egokitze eta osatze jarduera hori, 60ko hamarkadaren testuinguruan gauzatzeak proiektu berriari ererradikaltasuna ekarri zion:

*...izan ere, ziztu bizian pasatu zen euskal gizarteko sektore bat existentzialistotik sozialismo humanistara, eta hemendik marxismo-korronte desberdinetara.*¹⁶

Erradikaltasun horren eskutik genero diskurtso berri baten agerpena ere,-apala izan arren-, somatzen da nazionalismo berriaren gorputz ideologikoaren eraikitze saio horretan. Ikus dezagun, gainera bada ere, nazionalismoaren proiektu berriaren bilakaeran islatzen diren genero diskurtsoen nolakotasunak.

1960ko hamarkadaren hasieran, zehatz-mehatz, 1961eko Zutik baten hitzaurrean¹⁷ eta 1962ko *Moral de resistencia nacional* delako dokumentuan,¹⁸ dagoeneko ezaguna egiten zaigun genero diskurtso batekin egiten dugu topo: euskal emakumeak *amak* ala *etxeakoandreak* dira, eta jarduera kultural zein

¹⁵ Jauregui Bereciartu, G. (1981). Ideología y estrategia política de ETA. Madrid, siglo XXI: 463-464 orr.

¹⁶ Iztueta, P. (1996). Intelligentsia kimatuaren orbelak. Irun, Kutxa Fundazioa.: 341 orr.

¹⁷ “La Resistencia ya es múltiple: pacíficas mujeres dedicadas a labores culturales o humanitarias; hombres violentos que sólo esperan un poco más de fuerza y una orden; sacerdotes íntegros, que elevan sin miedo la voz de la Verdad...” Zutik, 10 (1961) Hordago, E. (1979-1981). Documentos de ETA. Donostia, Lur.

¹⁸ “Frente al concepto tan generalizado de la mujer como promesa placentera, frente a la mentalidad de don Juan, frente al concepto de dama (cosa bella e idealizada, pero despersonalizada), opone el vasco su concepción trascendente de la mujer como madre y etxeakoandre: es decir, como elemento fundamentalmente humano y de primera importancia en la organización social(...) (hay que llevar a cabo) el culto y conservación del hogar vasco, base y refugio de nuestra nacionalidad” *Moral de Resistencia Nacional*, 1962, II alea. Hordago, E. (1979-1981). Documentos de ETA. Donostia, Lur. Hamilton, C. (1998). “Género y Nacionalismo.” *Inguruak* 22: 172 orr.

humanitarioetan aurkitzen ditugu. Aurreko atalean esan bezala, diskurtso hau, feminismoa soilik kontuan hartzen duten ikertzaileek gogor kritikatu izan dute ikuskera generizatu hau zapaltzailatzat eta, askotan, atzerakoitzat ere joz.

Halarik ere, eta lan honetan zehar adierazten ari garen moduan, epe horretako nazionalismoaren nolakotasunak kontuan izanez gero, baliteke bestelako irakurketa egin ahal izatea. Saia gaitezen, bada, idazki horiek beren testuinguru ideologikoan kokatzen.

Aipatu idazkiak ETAREN prestakuntzarako koadernoaren artean aurkitzen dira. Koaderno horiek *EKIN*en idatziekin nolabaiteko *kontinuum* ideologikoa erakusten dute. *EKIN*-ETA taldearen ideologia eratzen zuten osagaiak dira, besteak beste, birsorketa historikoa, euskal historiaren gertakizun garrantzitsuak -Foruak, Nafarroa, Karlismoa, Sabino Arana, Estatutua- nazio askapenaren prozesu luze baten mugari gisa ikustean, oroimen historikoa ekintza abertzalearentzat eragingarri bihurtu zuten eta euskara nazio berreraikuntzarako funtsezko osagai gisa ere bai. Gertaera historiko horiek euskal izaeraren ikuskera mitiko demokratikoa erakusten zuten, alegia, izpiritualtasuna, humanismoa, erlijiotasuna, askatasuna eta demokraziarekin loturiko ikuskera. Elizaren hierarkiarekiko errefusapena erakutsi eta akonfesionaltasunaren aitortzea egin zuten, ordea, Elizaren doktrina sozialarekin bat zetorren programa soziala eskaini arren. Independentziaren aldarrikapena Euskadirentzat plazaratu zuten ere -europar herrien federalismoarekin bateragarria zena-, baina arrazakeria errefusatu eta haren ordeztan etnismoaren planteamendua hobetsi zuten. Nazio erresistentziaren betebeharra bereganatu eta, abertzaletasuna eta politikaren arteko kontraesankortasuna azpimarratuz (abertzaletasunak politikarekiko gailentasuna izanik), euren burua erakunde politikotzat hartu barik mugimendu abertzaletzat jo zuten. Horretaz gain, komunismoaren aurkako jarrera ideologikoa erakutsi zuten, nahiz eta, komunismoarekiko (ekintza modu gisa ulertuta), zuten miresmen handiarekin bateragarria izan aipatu jarrera ideologikoa.¹⁹

¹⁹ Letamendia Belzunce, F. (1994). Historia del nacionalismo vasco y de E.T.A. Donostia.: 255 orr.

EKIN-ETAren lehenengo idazkietan *arrazak* kontzeptu biologiko *hizkuntzak* eta *kulturak* ordezkaten dute, horrela, *arrazak* naziotasunaren funtsezko osagaia izateari utziko dio euskal etniaren beste elementu bat bihurtuz. Hizkuntza naziotasunaren osagai garrantzitsua izateak dakar euskararen aldeko ekimenak maila pertsonalean eragina izateaz gain, izaera politikoa duen ekinbidea marraztea ere:

*...el euskara es la quintaesencia de Euskadi, mientras el euskara viva, vivirá Euskadi.*²⁰

Euskararen heriotza saihesteko modu bakarra Euskadiren independentzia politikoa eskuratzea da. Hortaz, honakoa baiezten zuten:

*...las lenguas hechas nacionales por el autogobierno político subsisten vigorosas. Las otras mueren....*²¹

Horrela, euskara berreskuratze prozesuak betebeharrak publikoak zein pribatuak eskatzen ditu:

*Nuestros quehaceres patrióticos en el plano público se presentan en tres frentes: uno- el euskara, lengua oficial; dos- el euskara lengua actual; tres- el euskara, lengua unificada*²²

Euskara berreskuratze jarduera horren bitartekoak: familia euskalduna, buruzagi abertzale euskalduna eta abertzale euskalduna ziren.

Ikusi bezala, betebeharrak publikoak zein pribatuak abertzaletasunari loturik doaz, ez politikari, aberria askatzeko mugimendu bati dagozkion planteamenduak baitira. Epe horretako ETAk bere burua mugimendu gisa ezaugarritzeak argitzen du bere ekinbidea:

Creemos interesante incluir algunos conceptos sobre lo que es organización y lo que es movimiento. Organización es una institución que recluta gente a su alrededor de un programa y de unas ideas. En toda organización sólo se

desmitifica una selección. Las organizaciones normalmente acaban cerrándose, petrificándose y muriéndose. El movimiento, por el contrario,

²⁰ ETAren Koadernoak "Moral de Resistencia Nacional". Dokumentuak, II. Alea 129-134 orr. Aipatua in Letamendia, F. (1994). Op. Cit. 256 orr. Euskararen aldeko ekinbidez honal diosku Fermi Rubiraltak: " ...la lengua se configura, ..., como el componente más tangible de esta realidad amenazada...la nueva intelectualidad...no dudarán en situar la defensa de la cultura propia diferenciada en el terreno mucho más abierto del combate político...empezarán a repudiar el elitismo de los círculos que han monopolizado en exclusiva el cultivo de la cultura autóctona hasta ese momento, por lo que se extenderá una vocación de apertura y generalización de los canales de difusión cultural." Rubiralta Casa, Fermi.(1997). *El nuevo nacionalismo radical. Los casos catalán, gallego y vasco(1959-73)*. Donostia:Hirugarren Prentsa.

²¹ ETAren Kaderoak. "Euskara y Patriotismo Vasco", Dokumentuetan, II alea 139-144 orr. Aipatua in Letamendia, F. (1994) Op. Cit. 256 orr.

²² ETAren Kaderoak. "Euskara y Patriotismo Vasco", Dokumentuetan, II alea 139-144 orr.

*se podría definir como una fuerza que influye en la masa y la dirige hacia un objetivo dado ...El movimiento no es para unos pocos sino para la masa. El movimiento no saca a las personas de su ambiente, sino que les influye allí donde están, allí donde vivan.*²³

Honaino, gure iritziz, kontuan izan behar dugun ideia multzo, zenbait ikertzaile feministak atzerakoi gisa ezaugarritu duten genero diskurtsoa berrirakurri ahal izateko. Goazen, bada, beste irakurketa hori azaltzera.

Abertzaletasuna politikarekiko gailentzeak eta antolatze modua mugimendua izateak elkarlotzen dituzte esparru publikoa eta pribatua, biak osotasun gisa aurkeztuz. Euskal emakumeei esleituriko zeregina, -kultur jarduera-, zein rolak, -ama eta etxeoandrea-, bete-betean egokitzen dira euskara berreskuratzeko eginbeharrekoetara, euskara gaurkotzeak kultura eta hezkuntzarekin²⁴ zer ikusi handia baitauka. Euskal emakumeak familietan, amak, etxeoandreak euskara irakasten eta igortzen jokabide abertzale izango lirateke, eta edozein emakume euskaraz mintzatzen ere bai.²⁵ Hortaz, sexismo argi batetik abiatu arren, (jarduera esparrua mugatua eta ama ala etxeoandre ez den beste rolik ez baitzitzaien onartzen euskal emakumeei), ezin dugu esan objektu hutsak zirenik ere. Ekintza politikorako subjektu gisa ikusiak ez badira ere, ekintza abertzalerako bai, ordea. Bestalde, hori da une honetan hobesten dena politika egitea ezinezkoa da-eta.²⁶

Aurreko lerrootan plazaraturiko planteamenduak antzekotasun handia erakusten du gerraurreko nazionalista batzuek azaldutakoarekin, *Gallastegi* kasu. Aski frogatua da, ETAREN hastapenetako pentsakerak Aberrikoenarekin

²³ Liburu Zuria, Dokumentuak. “*Métodos de acción (Comunismo-JOC)* “. I. Alea, 183 orr. aipatua in Letamendia, F.(1994) Op. Cit. 257 orr.

²⁴ Gure iritziz, euskara euskal gizarte modernora egokitzea, hau da, gaurkotzea erraz erlazionatu daiteke hurrengo urtetan loratuko zen hezkuntza ekimen berriarekin; non, ezin baita ahantzi, gorago ikusiko dugunez, loraldi hura emakumeek eginiko lanari esker gauzatu zela.

²⁵ 1920ko hamarkadan *Tenek Euzkadi* egunkarian *Emakume eta Aberria* azpiatalean emakumeen partaidetza mugimendu nazionalistan gidatzeaz arduratzen zelarik horrelako jokabideak proposatzen zituen. Ikus aurreko atala.

²⁶ Frankismoak ezarritako mugez gain, honako modu honetan adierazten zuten abertzaletasuna eta politikaren arteko kontraesankortasuna: “*Mientras no tengamos libertad Nacional, lo puramente político no debe dividirnos...el quehacer patriótico corresponde a los pueblos oprimidos; el político a los libres* “ Zutik 10zbk., Caracas, Dokumentuak, I alea, 451-460 orr.

duen antzekotasuna, kontuan hartzen ez badira erlijioa eta arraza faktoreak.²⁷ Ildo horretan, gerraurreko nazionalismoan somatzen genuen eboluzioa genero diskurtsoari dagokionez, euskal emakumeak *komunitate eramaileak* izateari utzi gabe *kultur igortzailearen* funtzioa, arian-arian, agertzeari ematen genion garrantzia²⁸. ETAREN hastapenetako pentsakeran hasiera-hasieratik arraza eta erlijioa baztertzeak euskal emakumei *komunitate eramaile* rola esleitzeak zentzurik ez izatea zekarren. Beraz, *kultur igortzailearen* jokabidea litzateke nagusitu zena.²⁹ Bestalde, ETAREN gorabehera ideologikoetan, auzi honen inguruan berritasunak agertu arren, hasieran nagusituriko jokabide hau tinko mantenduko da hizkuntzari eta kulturari emandako garrantzia, naziotasun irizpide gisa, irmoki ere mantenduko baita ETAREN ibilbidean zehar. Baina, ez gaitezen aurreratu.

ETAREN hastapenetako pentsakera honen osatze eta egokitze jardueran, idazle askoren aburuz, lagungarri oso bilakatu zen *Vasconia* idazlana. Jauregik *Vasconiaren* inguruan ari delarik honela diosku,

*...lo importante en la Historia no son las ideas en sí mismas, ni tampoco las intenciones de sus autores, sino el contexto político y social en el que circulan, y la utilización que hacen de ellas aquellos que las leen y las asimilan, ..., en el caso presente, la intención del autor resulta plenamente coincidente con la utilización de sus ideas por parte de ETA.*³⁰

Eta nor idazle bera baino hobeto azaltzeko zein zen bere asmoa liburua idaztean?

...hau zen Vasconiaren xedea: euskal herriari Nazioaren ideia berri bat aurkeztea, egitate historikoetan oinarriturik egon beharrean, kontzeptu etniko honen gainean oinarritua ...etnia egitate objektiboa da baina, osagai etnikoak intentsitate berdinarekin ez badira ematen gizaki guztiengan, ezta

²⁷ Letamendia Belzunce, F. (1994). Historia del nacionalismo vasco y de E.T.A. Donostia. Jauregui Bereciartu, G. (1981). Ideología y estrategia política de ETA. Madril, siglo XXI. Lopez

Adan, E. B. (1974). El nacionalismo vasco (de 1876 a 1937). Hendaia, Mugalde.

²⁸ Ikus aurreko atala.

²⁹ Arrazoi hori dela eta, argi dago ez gatzela bat del Vallek esandakoarekin: "ETA refleja aquí la herencia directa del nacionalismo sabiniano, respecto a la idea de la mujer." In del Valle, T. (1985). Mujer vasca, imagen y realidad. Bartzelona, Anthropos.:235 orr. Une horretan eta EAJren 1966ko dokumentua argitaratu arte familia nazionalistan elkarrekin biziko direla jokabide biak: komunitate eramailearenak eta kultur igortzailearenak.

³⁰ Jauregi Bereciartu, G. (1981). Op. Cit. 464 orr.

leku guztietan ere, bai eman daitekeela talde horren kide izatearen nazio sentimentua, hau funtsezkoa da, beraz, taldearen biziraupenerako; horrela, nazioa bere buruaz kontzientzia duen etnia bat da... Vasconiaren xedea nazionalismo mota berri batentzako eskema bat eskaintzea zen... Vasconia Berri hau, bereziki, kultura sortzaileei zuzendurik dago, eta ez politikariei.³¹

Nazionalismo berri hori lantzerakoan, idazlan horren ekarpenak azpimarratzerakoan Jauregik³² esandakoarekin bat egiten dugu:

-Garai hartako eraldaketa sozio-ekonomikoekin bat datorren nazionalismo urbano baten beharra aldarrikatzea.

- Elite intelektualek nazionalismoarekin bat egitearen beharra.

- Nazionalismoa ideologia aurrerakoiak eta iraultzaileak zihozten norabide beran joatearen beharra.

-Nazionalismoa etorkizunarekiko ikuskera duen indar dinamikoa bezala agertzearen beharra.

Ekarpen horiek marraztu guran, interesgarria jotzen ditugu Krutwigen nazioaren definizioa eta beste zenbait ideia hona ekartzea:

La Nación es un ente vivo, tiene personalidad. Al igual que todo ser humano, como todo ente viviente, está siempre en un continuo hacerse y deshacerse, destruyéndose y construyéndose...³³

Nazioaren ideia dinamiko honekin bat etorriz, honela diosku nazionalismoaz ari delarik: nazionalismoa, batik bat, jarduera kulturala denez gero, aurrerakoa ere bada. Herri oren funtsezko ezaugarriak, etniaren bizitza ordezkatzeko dute faktore dinamikoak izatean, etengabeko aldatze prozesuan egon behar dute. Beraz, nazionalismoak ezkertiar mugimendu bat izan behar du eta geroari begirako joera erakutsi ere. Etorkizuneko nazionalismoan, hutsegitea litzateke etorkinak ez gureganatzea, ildo horretan nazionalismoak izan behar du humanitarista, euskarista:

la lengua vasca el vehículo de transmisión y conservación de los ideales comunitarios que representan la subestructura de nuestro pueblo.....

³¹ Azpimarratua gurea. *Vasconiaren* lehenengo argitarapena 1963koa da. Guk erabili duguna 1979koa da *Vasconia Berria* izenpean, hortaz, idazlearen iruzkin hori bigarren argitarapen honen hitzaurrean aurkitu dugu, ikus Sarrailh de Ihartza, F. (1979). *La Nueva Vasconia*. Donostia: Ediciones Vascas, CXVII oro.

³² Jauregi Bereciartu, G. (1981) Op. Cit. 185 orr.

³³ Ikus, Sarrailh de Ihartza, F. (1979). Op. Cit. 207

*La lengua vasca es la piedra angular de todo el edificio...Su valor social y su tarea determinan la existencia y supervivencia del conjunto.*³⁴

Beraz, hizkuntza faktoreak besteak ordenatzen ditu eta kultur jarduerak, kontzientzia eragiten, dinamismoa ematen dio nazionalismoari. Dena dela, azken hau ez da ekarpen berri bat, ETAREN hasierako pentsakeraren gaia baino. Hizkuntzari emandako lehentasunaz gain, idazlan honek beste gai batzuk biltzen ditu hasierako pentsakera horretan ere agertzen zirenak, besteak beste, Jagi-Jagiren izpiritu erradikala, *eusteko moralala* eta euskal historiari buruzko ikuskera mitikoa³⁵. Horrela, Krutwigek, berritasunak - komunismoaren aurkako tabuaren hausdura, etnismoaren sistematizazioa eta gerra iraultzailaren printzipioen azalpena- hastapenetako ildo ideologikoarekin lotu zituen.

Mugimenduaren gorputz ideologikoaren eraikuntzan *Vasconiaren* eragina ez zen izan bakarra. Urte haietako langileen mugimendu indartsuan biziki interesaturik baitzeuden ETAREN militante batzuk, batik bat, langileen borroka frankismoari zekarkion desegonkortasuna zela eta. Are gehiago, 1963 urtetik aurrera, mugimenduaren baitan, langileriaren problematikaren inguruan beste jarrera bat nabarmentzen da erradikalizatzeko faktore gisa ikustea baino harago doana eta langileen borroka eta ETARENA, xede komun batzuen pean, batzea ekarri zuena. Alegia, euskal auziari bere osotasunean erantzun global bat emateko saioa, nazio askapena eta giza askapena batzearen eskutik. Erantzun hori 1964an argitaraturiko *La carta a los intelectuales vascos* delako dokumentuan plazaratzen da. Une hartan masei zuzenduriko kanpo ekintza politikoari lehentasuna eman zitzaion barne ekintza politikoaren gainetik, horrela, *hierarkia paralelo zibilak*³⁶ delakoak euskal errealitatearen baldintza zehatzetara egokitzeko lehenengo saioa agertzen da dokumentu horretan: hau da, ETAK nazioa berreraikitze zuzenduriko lehenengo programa. Gutunean, *euskal egiturei buruzko azterketa* estrainekoz ere, esplizituki marxista da. Hortaz, zapalkuntzaren jatorria ustiakuntza kapitalistan dago Euskadiren

³⁴ Ikus, Sarrailh de Ihartza, F. (1979).Op. Cit. 207-263-266-308 orr.

³⁵ Letamendia, F. (1994). Op. Cit.

askapena langileen esku geldituz. Jorratu beharreko bidea haustura iraultzailea izan zen. Proposatutako iraultza oso hori -eta beraz, kulturala ere bai-, besteak beste, euskarari euskal herritar guztien hizkuntza izate izaera itzultzen, Euskal Unibertsitatea eta Estetika Institutua sortzen gauzatuko zen. Gutunean agertu ziren ere, etorkizuneko Euskal Estatuaren izaera akonfesionalaren aldarrikapena eta euskal iraultzaren bide integratzailea etorkinentzat. Berebat, gure intereseko gaiaren gainean ere badago berritasunik idazki horretan, honako pasarte honetan ikus dezakegunez:

*En cuanto a la posición de la mujer en la sociedad vasca, consideramos que debe gozar de idénticos derechos y posibilidades que el hombre en todos los sectores de la vida política, social, económica y cultural. No obstante, conscientes de la especial función que le incumbe en el hogar como esposa y madre, deberá la sociedad prestar la debida atención y facilitar su cumplimiento. Una de las medidas a emprender sería la concesión de un salario a la mujer con hijos en tanto que legítima compensación por su trabajo y educación de los futuros ciudadanos vascos y su consiguiente aportación a la formación de la sociedad.*³⁷

Aurreko pasartearen edukiak alderatuz gero, ETAREN hastapenetako pentsakeran lehenago jorratutako genero diskurtsoarekin, aldaketa esanguratsu batzuekin egiten dugu topo. Alde batetik, emakumezkoei bizitzaren esparru guztietan, gizonzkoei bezala, eskubideen berdintasuna onartzen zitzaaien, lehen ezartzen zitzaizkien mugak haustuz. Mugarik ez izateak leharre emakumezkoek, gura izanez gero, edozein lan edo ardura joka zezaketeela. Dena dela, esplizituki soilki aipatzen dira etxeko esparruan beteriko rolak, amak eta emazteak; baina, hori bai rol horiei beste zentzu berri bat emanez. Etxeko esparrua lan esparru gisa definiturik agertzen zaigu, eta hortaz, balio ekonomikoa duena, soldata baten bitartez adierazi beharrekoa. Etorkizuneko euskal herritarren hezkuntza arduraz ere hitz egiten da, etxeko lanatik bereizita, eta horri ere errekonozitzen zaio balio ekonomiko bera. Hezkuntza ardurari -lehendik ere azpimarratutakoa eta balio sinbolikodun gisa ikusia- balio ekonomikoa gehitzea, nazio askapena eta giza askapena batzearen filosofiaren

³⁶ “La OPA(Organización Paralela), basada en la teoría de la” jerarquías paralelas”, se propone estructura a gentes del pueblo, -simpatizantes, profesionales-...” aipatua in Letamendia, F. (1994). Op. Cit. 292 orr.

³⁷ “Carta a los intelectuales vascos”, Zutik, 25 zka.(1964) In Dokumentuak,Donostia: Hordago.

ondoriotzat jo dezakegu. Izan ere, bizitzaren esparru guztietan, emakumezkoiei zein gizonezkoiei eskubide berdinak onartzea marxismo klasikoaren ekarpena dugu. Bestalde, ekarpen horrek sexu eta genero kontzeptuen arteko bereizketaren hasiera erakusten du. Modu berean, familiaren esangura politikoaren ondoan -sozializazio politikorako ezinbesteko eremu gisa-, esangura ekonomikoa azpimarratzea, berriro ere, marxismoaren eragina dugu. Eragin horren isla aurkitzen dugu hurrengo urtean argitaraturiko artikulu batean, ondorengo pasarte honetan ikusten den bezala:

*De entre los objetivos socialistas que pretendemos hay uno que, por su importancia, conviene que sea destacado: nos referimos a la liberación y promoción social de la mujer.*³⁸

Pasarte horretan, modu esplizitu batez, emakumearengan ezarritako zapalkuntza salatzen da, eta bertan emakumea lantegien eremuan ikusteaz gain emakume langilerik zapalduena ere badela adierazten da. Emakume ezkonduaz aipurik ere bada, eta horren zapalkuntzaren berezitasunak agerian uzten dira, ordutegi gabeko lan jarduera ez ezik, datozen seme-alabez ardura. Azken honekin loturik esplizituki feministatzat jo dezakegun argudioa ere aurkitzen dugu: umeak izan ala ez aukeratzeko eskubidea. Baina ez da hori argudio feminista bakarrik, gizonezkoek bezala emakumezkoek gizartearen arazoetan parte hartu beharra aipatzen da, eta horretarako ukatzen zaizkien *denbora* eta *independentzia* izan behar dituztela ere. Horrela emakume ezkonduak independentzi ekonomikoa izan behar du, hortaz, ordaindua den lanpostua izateko eskubidea ere. Ildo berean, seme-alabak eramateko gizarte egoitzak sortzea, seme-alabak dituen emakume ezkonduarentzat lan jarduera murriztua ezartzea, etxeko lanak egitea arren eta seme-alabak hezitzea arren soldata bat jasotzea dira esplizituki egiten diren proposamenak. Argudio horiek erabiliz, emakumeari luzatzen zaio independentziaren eta langileen ongizatearen aldeko borroka iraultzailean parte hartzeko deia :

E.T.A. no tiene “sección femenina”. En nuestra Organización la mujer puede desempeñar la misma actividad que el hombre. La mujer vasca

³⁸ “La liberación de la mujer”, Zutik 29 zbk. 1965eko apirilean argitaraturikoa in Dokumentuak, Donostia: Hordago. 493 orr.

*encuentra así la igualdad y el respeto a su personalidad de que carece bajo las actuales estructuras opresoras.*³⁹

Gutunean agerturiko ideiekin erkatuz aldaketa nabarmena dago, etxeko esparruaren esangura ekonomikoa politikoarekiko gailentzeak erakusten duen bezala. Gainera, azken hori ez da aipatua ere izan artikulu horretan. Hilabete beranduago, *La carta a los intelectuales vascos* delako dokumentuaren bigarren argitarapena kaleratu zen. Oraingo honetan, honela dio dokumentuak:

*Hemos dicho hombre o mujer, y es que, en efecto, la posición de la mujer en la sociedad ha de sufrir una verdadera revolución que la libere de las cadenas que aún hoy le oprimen. Este tema concreto que ya ha encontrado vivas controversias desde la aparición del Zutik 29 del artículo “ la liberación de la mujer”, lo dejamos en suspenso esperando lleguen hasta nosotros todos los ecos de una polémica que, ya por sí misma, puede suponer para la mujer vasca un principio de liberación.*⁴⁰

Hurrengo urtean, 1966an ETAREN baitan lehenengo kanporaketa komunitarioa⁴¹ suertatzen da. Kanporatuek ETA berri taldea eratu zuten. Dirudienez, ikusitako diskurtso feminista sartzeko saioa talde horretako kideen eskutik gauzatu zen.⁴² Ia hamarkada bat itxaron beharko da feminismo eta euskal nazionalismo erradikalaren arteko gaizki ulertzeak gaindituak izan ahal izateko. Bitartean, ideia feminista hauek izan zitezkeen eragina frogatu ezina bada ere, ezin dugu ahaztu zein testuingurutan plazaratuak izan ziren: masen nazionalismoaren zein kulturgintzaren loraldiaren urtean, 1964an. Bestalde, ideia feminista berriak *kultur igortzailearen* zereginarekin ez ziren zertan elkartezinak izan,⁴³ nabarmena bada ere azkena nagusi izan zela,⁴⁴ aurki ikusiko dugunez.

³⁹ “ *La liberación de la mujer* “, Zutik 29 zbk. Op. Cit. 493 orr.

⁴⁰ “ *La carta a los intelectuales vascos*”, Zutik 30 zka. 1965eko ekainean berrargitaratua. Op. Cit.

⁴¹ “ ...la campaña personal contra los miembros de ETA-berri alcanza su cénit. En pueblos y barrios vascos amistades viejas de años se rompen, y hay cuadrillas que se deshacen y se recomponen. Pero si bien el nuevo grupo no abandona el campo del movimiento obrero vasco si abandona , -o es forzado a abandonar-, el del nacionalismo vasco. ikus, Letamendia, F. Op. Cit.

⁴² Hamilton, C.(1998) Op. Cit. 172orr.

⁴³ Hurrengo zatian, zehatz mehatz 10.atalean agerian geldituko denez, zenbait andereñori egindako elkarriketetan.

⁴⁴ Ez dugu ahantzi behar, ETAREN V. Asanblean, 1966-67 urtetan burutua, 1974 urtera arte iraungo duen Fronteen antolatze egitura onartu zela. Eremita militarren euskal indarrak gutxieneko erresistentzia baino ezin izango du erakutsi. Beraz, borrokak beste eremuetan irabazi beharko dira, Ekonomia, Politika eta Kultura bezalako eremuetan, arlo hauetan nazio askatzeko Frontea etsaia baino indartsuago da. ..Fronte egituraketa honek ez dakar militarismo handitzea, aitzitik, Fronte guztiak kategoria berdina daukate eta nolabaiteko hegemonia izan behar duen **Frontea Kulturala** da. Letamendia, F.(1994). Op. Cit. 307 orr.

Dagoeneko, azalduta dago ETAREN hasierako pentsakerak kultur jarduera eta jokabide abertzalearen artean ezartzen zuen lotura estua, eta baita nola teorizazio horrek emakumeak subjektu abertzale gisa ikustea ahalbidetzen duen ere. Gure aburuz, emakumeek, oraindik subjektu abertzale gisa, nazionalismo osorako nahitaezko ekarpena egin zuten. Gure ideia hau argitzeko marraztu behar dugu 1964-1966 urte bitartean kulturgintzak bizituriko funtsezko aldaketak:

Euskara batuaren lehenengo pausoak, Baionan idazle gazte talde batek eman zituen, ortografia batzeko, deklinabide eta aditz laguntzaileen oinarrizko moduen irizpideak ezarriz. Lau urte beranduago, 1968an Euskaltzaindiaren biltzarrak, zuzenketa gutxiekin, Baionako bileraren proposamenak hobetsi zituen.

1960ko hamarkadan ikastolak sortzeko mugimendua abiatu zen. Iztuetak dioskunez:

*...kultur egitaterik garrantzitsu eta emankorrenetako bat, Ikastolen antolakuntza eta garapena izan da, ikastetxeen kopuru-hazkunderik bizkorrena 1960-70 epealdian eman zelarik 71 ikastetxerekin. Nafarroan eta Araban, 1970-75 epealdian eman zen goraldia: lehenengoan 15 eta bigarrengoan 5 ikastetxerekin.*⁴⁵

Lehendik euskaldun zaharrak alfabetatzen eta erdalduna euskalduntzen baziren ere, alfabetatu eta euskalduntzeko plangintza antolatu eta erakundetu zen 1966an Euskaltzaindiaren zuzendaritzapean. Halaber, euskal literaturak garapen handia bizitu zuen. Literaturaren bidez, pentsamendu korrante asko ezagutarazi ziren. Txillardegik existentzialismoaren tesi nagusiak sartu zituen nobelen

⁴⁵ Iztueta, P. (1996). Op. Cit. 342 orr. Garrantzia horren zioa zera da, hizkuntzaren izaera sinbolikoari ezezik izaera komunikatiboari erantzun izana. A. Larrinagak dionez: “...Hizkuntza komunikazio tresna kontsideratzen den neurrian, euskararen aldeko diskurtsoak belaunaldien arteko transmisio prozesua bultzatu beharraz hitz egiten du eta hizkuntzaren ikasketa eta hobekuntza sustatzeaz...Euskararen minorizatze prozesua aitzina doan garaian azaltzen denez, (Garai honetan belaunaldien arteko transmisio katea dagoeneko hautsita dago, hiztun elebakarrak desagertu egin dira eta hizkuntzaren erabilpen sozialerako aukerak oso eskasak dira) (euskararen aldeko) mugimenduak eremu formaletan hizkuntzaren erreproduzio mekanismoak indartzera zuzenduko ditu bere ahaleginak, sistema politikoak-beranduko frankismoak- zabalik uzten dituen zirrikitoak aprobetxatuz”.Larrinaga, A. (1996). “Diskurtsoaren interpretazio markoak.” Inguruak. 15: 162-163 orr.

bidez. Horien lekuko dira *Leturiaren egunkaria ezkutua*(1957), *Peru Leartzako* (1960) eta *Elsa Scheelen* (1969), saiakeran *Huntaz eta Hartaz* (1965). 1960ko hamarkadaren erditik aurrera, sozialismo humanistaren aldia izan zen, gehienbat eliz mugimenduetan eta *Jakin*eko orrialdeetan. Rikardo Arregiren *Sozialismo modan dago* (1967) artikulua fuere jo zuen ezker berrian. Gabriel Aresti izan zen poesia sozialari atea ireki ziona *Harri eta Herrirekin* (1964). Rikardo Arregiren *Euskaltzaleen jainkoa ill bear dugu* (1967) artikulua jarri zuen auzitan euskal nazionalista historikoen sabindar teokratismoaren herentzia.⁴⁶

Sarasolak dioenez⁴⁷, euskal literaturaren data inportanteenak, 1901 eta 1964, gertaera politikoekin estuki erlazionaturik daude. Lehenengo kasuan EAJren goraldiarekin, bigarreanean, 1964 baino urte batzuk lehenago, nazionalismoaz eta euskal auziaz sortu ziren ideia berrien goraldiarekin. Bai berpizte kulturala bai berrikuntza politiko 1953-54 urtetatik aurrera hasiak ziren:

*Tras un periodo de maduración, va a ser en 1964 cuando se produzca el gran salto, que en el campo cultural, quedará reflejado en la irrupción de la lengua y la cultura vascas en las masa populares, y en el político, en el resurgimiento del nacionalismo de masas.*⁴⁸

Dena dela, bat gatoz Iztuetarekin, kultur egitaterik garrantzitsuena Ikastolen antolakuntza eta garapena izan zela diolarik. Euskara, masa eskolatzearen bidez, euskal gizarte modernora egokitzen da; bestalde, euskaraz eskolatz

⁴⁶ Iztueta, P. (1996). Op. Cit. 359-360 orr.

⁴⁷ Sarasola, I. (1976). 75 orr. Erlazio estu horren inguruan honela dio A. Larrinagak: “...Era harrigarrian, baldintza objektiborik txarretan sortzen den mugimenduak, organizazio arazoak eta baliabide urritasun nabarmenak dituen euskararen aldeko mugimenduak, hain zuzen, hedapen handia eta aipatzeko moduko arrakasta sozialak lortzen ditu garai honetan. Ez mirariaz, haatik, baizik eta, neurri batean, bere diskurtsoa Francoren errejimenaren aurkako diskurtsoarekin, Euskal Herriaren nortasunaren aldeko erreibindikazioarekin eta eskubide demokratikoen defentsarekin bat datorrelako...Mugimenduaren kultur egintza estrategia politikoaren eranskin delarik, Espainiako Estatuaren aurka-zehazkiago, Estatuaren ordezkarietat agertzen den Francoren errejimenaren politikoaren aurka-eratzten dira biak eta, jarrera honetan, euskal gizartearen sektore handi baten adostasuna dute euren alde.” Larrinaga, A. (1996) Op. Cit.: 164 orr. eta J. Axurmendik honela dio: “...No pocos observadores hablan incluso de un renacimiento cultural vasco...Seguramente serán los escritores vascos los últimos en considerar de ese modo éste fenómeno, que en sí es indiscutible. Para ellos no se trata de Renacimiento. Es la *larga marcha*. Ni se trata de un fenómeno específicamente vasco, ni de un fenómeno primordialmente cultural. Se trata, en Euskadi, como en Catalunya y en Galicia y en todas las minorías oprimidas, de un fenómeno radicalmente político, reflejado en el campo cultural. Renacimiento cultural que responde al renacimiento nacional.” In Torrealdeai, J. M. (1977). Euskal idazleak gaur. Aranzazu, Jakin.: 60 orr.

⁴⁸ Jauregi Bereciartu, G. (1981) Op. Cit. 270- 271 orr.

masiboak nazio sentimendua pizteko eta zabaltzeko euskal gizarte moderno horretan

ezinbesteko tresna da. Aipatua da, gerraurreko eskolatze saioetan euskal emakumeek izandako protagonismoa, ikus dezagun orain euskaraz eskolatze esperientzia berri horretan izan dutena.

8.2. Emakumeek nazio-komunitatea sortzen: Ikastoletako andereñoak

Jaxinto F. Setienek 1979an idatzirik artikulu batean honela diosku: Ikastola bere xokotik plazaratu eta Euskadiko Eskola Nazionala bilakatze bidean abiatu zen⁴⁹. Izan ere, ez zen makala izan 1960ko hamarkadako hezkuntza proiektu apalak bizituriko hazkundera:

<i>Ikasturtea</i>	<i>Gipuzkoa</i>	<i>Herrialdeak eta ikasleak</i>				<i>Guztira</i>
		<i>Araba</i>	<i>Nafarroa</i>	<i>Bizkaia</i>	<i>Iparraldea</i>	
<i>1964-65</i>	<i>520</i>	<i>22</i>	<i>-----</i>	<i>54</i>	<i>-----</i>	<i>596</i>
<i>1969-70</i>	<i>5770</i>	<i>171</i>	<i>348</i>	<i>1958</i>	<i>8</i>	<i>8255</i>
<i>1972-73</i>	<i>13.245</i>	<i>486</i>	<i>1.377</i>	<i>3.755</i>	<i>101</i>	<i>18.964</i>
<i>1974-75</i>	<i>17.071</i>	<i>1.026</i>	<i>1.892</i>	<i>5.822</i>	<i>225</i>	<i>26.936</i>
<i>1976-77</i>	<i>25.314</i>	<i>1812</i>	<i>2.621</i>	<i>10.977</i>	<i>341</i>	<i>41.065</i>
<i>1978-79</i>	<i>31.423</i>	<i>3.293</i>	<i>3.744</i>	<i>14.875</i>	<i>390</i>	<i>53.809</i>
<i>1979-80</i>	<i>34.733</i>	<i>4.277</i>	<i>4.909</i>	<i>16.136</i>	<i>474</i>	<i>60.529</i>

Iturria⁵⁰

Ikastolek eskolaturiko umeen kopuruetan, herrialdez herrialde, alde handiak erakutsi arren, zalantzarik ez dugu, ikastolak, eskolatze orokortzeari ekin ziotela nazio lurraldean zehar egotea eta eskolaturiko haurren kopurua ukaezinezko frogak baitira. Eskolatze orokorra ez bazen ere hezkuntza esperientzia honen sorreran aritutako zenbaiten asmoa:

⁴⁹ Setien, J. F. (1979). "Gordailu eta euskal pedagogia." Jakin **11**: 105-110.

⁵⁰ Basurko, F. eta Iztueta P. bil. (1993). Euskal Eskola Berria. Donostia, EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia saila.: 132 orr.

...Euskara genuen helburu, eta euskara **salbatzea** zen, ..., gure konpromezua, lehen orduetan trenea hartu genuenontzat bederen. Besterik

zen baina, geroko orduetan azaldu zirenen jarrera, urteak joan ahala denborak erakutsi duenez.⁵¹

Setienek dioskun legez, 60ko hamarkadaren hasieran, nazionalismo berriaren eskutik datorkigu hezkuntza sistemaren inguruan proposamen iraultzailea⁵² Proposamen hori, 1962ko ETAREN printzipioetan ageri da: etorkizuneko Euskal Estatuan, hamasei urtera arte derrigorrezko eta doako eskolatzea.

Lehen esan bezala, ETAREN printzipioek EKIN ETAREN koadernoetan landutako ideologia labur biltzen dute. Horrela, hezkuntza sistemaren inguruko hausnarketa *La universidad vasca*⁵³ izeneko dokumentuan aurkitzen dugu. Hausnarketa hori apala bada ere, baditu zenbait ideia interesgarri hona ekarri nahi ditugunak. Unibertsitate ez ezik, irakaskuntza eremu zabala kontuan hartzen duen hausnarketa plazaratu zuten egileek, horrela, eskolaurreko beharrak zein alfabetatua ez diren helduen hezkuntza izan zuten hizpide. Hezkuntza sistema propiorik ez izanari leporatu zioten aberriak jasandako lazeriak. Espainako hezkuntza sistemak, maila orokor batekiko zein euskal herritarrekiko zituen hutsuneak agerian utzi ondoren, euskal herritarrei zegozkien hutsuneak asetzeko ideia eta proposamen batzuk bideratu ziren. Horrela, irakaskuntza erakunde ofizialek bete beharrekorik ezean, guk geuk bete beharreko zereginak genituen: euskara irakasteko eskolak antolatzea; euskararen ezagutza hedatzeko asmoz, eskolak antolatzea, zabaltzea eta finantziatzea ere bai; aipaturiko hirugarren zereginak zer ikusia zeukan gure hizkuntzari behin betiko maila kulturala eta zientifikoa ematearekin.

⁵¹Setien, Jaxinto F. (1994) Aintzinsolasa. Fernandez, I. (1994a). Oroimenaren hitza:Ikastolen Historia 1960-1975). Bilbo, UEU.

⁵²Proposamen iraultzailetzat jotzen dugu, Espainako hezkuntza sistemaren eraketan eta jardueran, oinarriko irakaskuntzari zegokienez, utzikeria nabarmendu baitzen. Honen inguruan ikus daitezke, besteak beste, Navarro (1990), Cámara (1984), Puellas (1980), Mateos (1998) eta Aguirre Elustondo,(1969)

⁵³ *La universidad Vasca*. In Hordago, E. (1979-1981). Documentos de ETA. Donostia, Lur.

Zeregin zabal horiez gain, gure irakaskuntza egitarauaren oinarriak ezarri zituzten ere: gizarte klase guztiei irekitako kultura; prestakuntza abertzale alderdikierietan zen politikierietan jausi barik; lehen hezkuntzan umeari igortzea

aberriaren ideia, nazionalitatearen kontzeptua, lan horren ondorio baita; bigarren hezkuntzan Euzkadiren ideia, batasun historiko gisa, aberria bera eta bere benetako historiaren ezagutza on baten bitartez lantzea. Prestakuntza ekonomiko politikoa...baina, hori guztia kontuan harturik ez zutela helburutzat nazionalismo itsu bat, erregimen totalitarioek erakusten duten bezalakoa bultzatzea. Hau benetako abertzaletasuna baino itsukeri hutsa baita.

Hizkuntzari dagokionez horrela dio dokumentuak:

...una de las más enrevesadas cuestiones planteadas a la enseñanza nacional y, por ende, una de las más delicadas.

Baiespen horretatik abiatu irakaskuntzaren eskolen antolaketari ekiteko euskal lurraldearen behin behineko banaketa proposatzen zuten, bi zonaldeetan, bat euskalduna eta bestea erdalduna. Lehenengo zonaldean, euskaraz irakastea proposatzen zen, baina, lau eta zortzi urte bitartean euskalkia erabiliz; bigarren hezkuntzan, euskara batuaren irakaskuntza ezarri. Zonalde erdaldunetan umeei, eskolara joan aurretik, haurtzaindegietan irakatsi beharko zitzaizkien, bigarren hezkuntzan, euskara batua irakasgaia izango zuten, herrialdearen euskalkiaren ikasketa konparatiboarekin bateratuz. Zonalde horietan euskara irakasgaia izatetik euskaraz irakastera doan jauzia lortutako euskalduntze mailaren arabera hartu beharreko erabakiaren ondorio izango zen.

Zer esanik ez, aurreko guztia aurrera eramateko irakasle euskaldunen beharra zegoela eta hauen gabeziaren aurrean honakoa proposatzen zuten: lehenengo epe baten, titulurik gabeko lagunak onartu beharko ziren, euskararen ezagutza onargarri eta kultur maila zehatz bat izanez gero. Gabezia horri irtenbidea eman nahian, honakoa proposatzen zuten: lanean aritzeko gaitasuna bermatuko zuten eskola berezietan ikastaro trinkoak antolatzea.

Beraz, Euskal Estaturik ezean, euskaraz eskolatzearen derrigortasuna eta doakotasuna ezin ezarri-eta euskararen ezagutza orokortzeari ekin behar zioten naziotasun irizpide berria zabalduz eta, horrela, populazioa erakarriz euskaraz

eskolatze proiektu honetara, ikastolara. Hortaz, Mateosekin⁵⁴ bat eginik, guk geuk ere Ikastola nazionalismoaren oldar gisa ulertzen dugu. Halarik ere, horrek ez du esan nahi hezkuntza proiektu horren sorreran eta arrakastan beste ziorik ez dagoenik. Euskarazaletasuna, elizaren babeseta eta hezkuntza sistema bera dira, ikerlari horrek, ikastolaren sorrera azaltzeko aipatzen dituen beste faktoreak.⁵⁵

Halaber, ikastolak sortzeko eta antolatzeko ekimena ez zen ezerezetik abiatu. Hauen aurrekariak ditugu Donostiako *etxe eskolak* Elbire Zipitriak, gerraurreko euskal eskolen andereñoak, sorturiko hezkuntza esperientzia 1946an.⁵⁶ Elbirek, bestalde, Emakume Abertzale Batzako kide gisa, erakunde honek gerraurrean izandako jardunari nolabaiteko jarraipena eman zion. Horretarako, *Emakumeen* sarea erabili izan zuen, frankismoak ezarritako oztopoak gainditu eta egoera politiko horretan gerraurreko hezkuntza esperientzia gauzatu ahal izateko. Fernandezek⁵⁷ dioskunez, etxe eskola hauek, batetik, antolakuntza formari dagokionez, gerraurreko etxe eskolen oinarritzko ezaugarriak bereganatu zituen; bestetik, funtzionamendu eta hezkuntza planteamentuzko ezaugarri berriak ere hartu zituen.

⁵⁴ Mateso, S. (1998).Op. Cit.: 318-328 orr.

⁵⁵ I. Fernandezek bestelako iritzia agertzen du, ordea. Bere aburuz, ikastolaren sorreran faktore erabakitzaileena, euskararen galeraren aurrean, euskarazaletasuna dugu: “...*Kasu hauetan, hizkuntza eta euskal kulturarekin kezka agertzen zaizkigu, ez ordea, euskal nazioa eraikitze erabakia.* Gauzak horrela, ikuspegi nazional batetatik ikastolen sorrera azaltzen duen kontzeptua euskaltzaletasuna dela uste dugu, zeren bere orokortasunean fenomenoaren funtsezko bereiztasuna batzen baitu.” In Fernandez, I. 128 orr. Baina, Mateosek dioenez: “...Bereizi beharra dago, alta, abertzale ez zirenen seme-alabak ikastolara bertaratzeko, eta ikastola sortzeko eta eusteko ekimena...ukaezina da _..._euskararekiko atxikimendua egon izana ikastolaren sorreraren oinarrian, baina, maiz azaldu dugun legez, frankismoaren garaian erabat zaila zen euskarazaletasuna eta nazionalismoa berezitea; azken batez, euskararen aldeko jarrera nazionalismoak lortu baitzuen gizarteratzea.” In Mateso, S.(1998).Op. Cit.: 325 orr. Argi dago, arestian aipatuagatik, Matesoek plazaratzen duen argudiokin bat gatozela.

⁵⁶ Hezkuntza esperientzia honen inguruan ikus: Fernandez, I. (1994 a). Op. Cit.: 41-95 orr.

⁵⁷ Fernandez, I. (1994).Op. Cit. 65 orr.

Horrela, etxe eskoletara hiri horretako jatorri sozio-ekonomiko altuko eta ertaineko familia euskaldun eta nazionalista batzuen seme-alabak joaten ziren bederatzi urte betetzen zituzten arte. Ikasle euskaldun gutxi horiek jasotzen zuten oinarrizko hezkuntzak, erlijioa, aberria eta euskara zituen zutabe. Eskola horien antolaketa magisteritza tituludun maistraren ardura izaten zen, zeinak

etxebizitza bateko gela batean burutzen baitzuen eskola. Zipitriaren antolatze irizpideak oso zehatzak ziren, taldeko hamar ikasle eta eguneko bi orduko eskola. Halarik ere, irizpide hauek haren jarraitzaileek eta hurbilenek baino ez zuten gorde. Esperientzia poliki-poliki handitzean irakasleen premia agertu zen talde berriak antolatzeko. Hasiera batean, *Emakumeen* harreman sarearen bitartez bideratzen zen andereñoen bilaketa hori. Bigarren epe batean, *Ekin* taldearen inguruan bildutako gazteen zirkuluan, zeintzuek eskolarekiko kezka agertzen baitzuten. Hain zuzen ere, Zipitriaren esperientzara bigarren bide horretatik hurbildutako andereño gazteak izango dira *etxe eskolatik ikastolara* doan jauzi kualitatiboa burutuko zutenak. Jauzi hori gauzatzeko, zalantzarik ez, funtsezko izan zela Elbirengandik ikasitakoa, batik bat, gerraurreko mugimendu pedagogikoaren ezagutza eta irakasleria prestatzeko berak erabilitako metodologia. Azken hau, andereño berria berarekin urtebeteko praktikak egitera behartzen zetzan, horrela, *etxe eskola* zabaltzeko, magisteritza titulua eta bere metodologian urtebetez aritzea ezinbesteko baldintzak ziren. *Etxe eskoletara* zein beranduago ikastoletara joango ziren andereñoak denbora luzez esperientziadun andereño batekin ibiltzea arau bihurtu zen euskal hezkuntzan. Praktiken arau hau euskal saio hauetako *metodo* zein *edukiak* homogeneotasun handi batez igortzeko mekanismotzat jotzen du Fernandezek,⁵⁸ horrela, ikerlari beraren esanetan, sistematizazio eta muga batzuen barruan mugitzeko eta euskal hezkuntzari *identitate propioa* emateko ere balio izan zuen. Praktikekin batera, prestakuntzaren beste atal bat izan zen euskaraz alfabetatzea, Zipitriak helduentzako alfabetatze klaseak ere ematen zituen eta praktiketari ziren andereñoak ere saio hauetan alfabetatu ziren.

⁵⁸ Fernandez, I. Op. Cit. 86-87 orr.

Esan bezala, *etxe eskolatik ikastolara* doan jauzi kualitatiboa *Ekin* taldearen inguruko andereñoek burutu zuten.⁵⁹ Hasiera batean, andereño Elbirek ezarritako baldintza batzuk haustuz: denborari zegokiona, alegia, bi ordutako eskola izatetik egun osokoa izatera; eta ikasle kopuruari zegokiona, taldeko

hamar ikasle baino gehiago onartuz, zein ikasleak aukeratzeko prozedura, *emakumeen* sarea, gaindituz. Esperientzia hau, apurka-apurka, zabaldu zen eta herri txikietan ere ikastolak sortzen hasi ziren. Horrenbestez, *herri mugimendu* bilakatu zirela diosku J. M. Torrealdai, ikastola sortzeko eta aurrera ateratzeko ekimenean ez baitzeuden gurasoak, irakasleak eta laguntzaileak bakarrik; herri osoa aritzen zen, ordea, buru-belarri ikastolaren aldeko zereginak betetzen.⁶⁰

*Esan gabe doa, ikastolak goizetik gauera hedatu zirela han hemenka Euskal Herri osora, Nafarroa eta Iparraldea barne... denon buruan zegoen hedadura nazionala izan behar zuten ikastolek eta horretara bideratu behar zirela ahalegin guztiak. Bakoitzarentzat bere herria zen lehenik, herriko lanak eta herriko zeregina, eskualdea gero, herrialdea azkenik, nola andereño hala guraso eta beste edonorentzat...*⁶¹

Ikastolak goizetik gauera hedatu ziren, eta goizetik gauera ere irakasle euskaldunen premia larria sortu zen, *La universidad vasca* delako dokumentuan aurreikusten zen bezala. Hain zuzen ere, dokumentu horretan proposaturiko bideak, titulorik gabeko euskaldunak onartzea eta euskaldun horiek prestatzea eskola berezietan antolatutako ikastaro trinkoetan, abiarazi ziren.

Horrela, herri bakoitzeko gurasoek ikastolako andereñoa izan zitekeen pertsona, tituludun zein titulugabea, aurkituz gero, euskal hezkuntzarako erreziklaia proposatzen zitzaion andereño aritu batekin praktiken bitartez.

Irakasleriaren prestakuntzaren beharrari erantzunez, 1964an, Joxemi Zumalabe, Carlos Santamaria eta, batez ere, Jazinto F. Setienen eskutik *Joanes Etxeberri Hezitzaileen Eskola* edo *Andereñoen Erresidentzia/Eskola* izenarekin

⁵⁹ Jauzi kualitatibo hori gauatzeko orduan EAJeko andereñoak aurkitzen ditugu ere; gainera, aurki ikusiko dugunez, ez nolanhiko lana eginez.

⁶⁰ Torrealdai, J. M. (1977). Aipatua in Mateos, S.(2000). Op. Cit. 327 orr.

⁶¹ Setien, J. F. Aitzinsolasa. In Fernandez, I. (1994) Op. Cit. X orr.

ezagunagoa, sortu zen. Paki Arregi zuzendaritzapean zortzi ikasle abiatu ziren abenturan⁶² lehenengo ikasturte hartan: Mari Karmen Garmendia, Lourdes

Estensoro, Nerea Aranburu, Amaia Lasa, Feli Etxebarria, Nekane Auzmendi, Nekane Iturbe eta Libe Goñi.⁶³

Hastapenetan euskara eskola haietako gai nagusia izan bazen ere, laster ekin zitzaion formazio orokorrari, hainbat arlo desberdinen landuz eta euskal kulturako oinarriak bereganatuz. Euskal historia, geografia, antropologia, pedagogia, psikologia, ekonomia, politika eta abar lantzen ziren Erresidentziako iluntzeetan, lan orduetatik kanpo egiten baitziren ikastaroak, modu horretan magisteritza eskolan ikasten edo ikastoletan lanean zeudenek parte hartzeko aukera izan zezaten. Irakaslegaien prestakuntza osatzen zuten gaiak lau gune nagusitan banatzen ziren: euskara eta euskal literatura; herriaren ezagupidea; eskolaren ingurukoa eta, azkenik, haurra eta bere ingurua, alegia, pedagogia eta metodologia kontuak.

Pedagogiari buruzko kezkek oso handiak ziren andereño gazte haiengan, Catalunyako *Rosa Sensat* erakundeko jendearekin elkartrukuriko esperientziak eta hortik ekarritako irakaspenak balio handikoak izan ziren pedagogia modernoa etxeratzeko:

*Hor, katalanekin, ikasi zuen Jazinto Setienk-dio Paki Arregik- titulu gabeko irakasleek zer paper garrantzitsu joka zezaketen ikastolak herrietara zabaldu behar ziren momentu hartan. Izugarritzko preparazioa zeukan jendea ez zeukan titulorik eta gainera ez zegoen behar genuen aina titulodun, ez behintzat orduan egin behar zen hedapenerako.*⁶⁴

⁶² 1964 urtean oraindik hamaika urte falta ziren Franco diktadorea hil zedin eta Gipuzkoan Oltra Moltó gobernadorea zen jaun eta jabe. Errepresioak eta zapalkuntzak markaturiko gizarte baten magalean hasi ziren lanean lehenengo ikastolak. Giro hartan jaio zen andereñoen eskola ere. Kontxi Beitia andereñoaren esanetan: *eragin handia izan zuen beldur giro horrek, batez ere, hasiera-hasierako andereño batzuegan, ze ez ziren inoiz zabalkunde behar hori onartzera ailegatu, seguru asko, beldurrak eraginda*”, in Basterra, J. (1989-12-15). *Andereñoen Erresidentzia, eredu pedagogiko baten iturburua*. Egin.

⁶³ Basterra, J. (1989). "Andereñoen erresidentzia", eredu pedagogiko baten iturburua. Egin. Hernani: 44.

⁶⁴ Basterra, J. (1989).

Formazio horretaz gain, Zipitriarekin ikasitako andereño batzuk irakaslegaei haren metodoa erakusteaz arduratu ziren ere. Andereño hauek, irizpide zabalagoekin jokatu, herrietako ikastoletarako trebatu behar ziren neskekin praktika egiten zituzten. Modu horretan, metodoa ikasten zuenak zetorren andereño berriarekin praktikak egiten zituen katearen beste maila bat gauzatu,

eta amaraun gisara, *andereño enpirikoen* formazioa poli-poliki zabaldutako fenomeno bihurtu zen, Fernandezek dioskunez.⁶⁵

Andereñoen Eskola bederatzi urtez aritu zen. 1973-74 ikasturterarte mantendu zen zabalik, azken urte hartan 45 ikasle baino ez ziren matrikulatu. Andereñoen formazio honek herrialde guztietako andereñoentzat erreferentzia izan zen, bai bertan trebatzeagatik baita bilgune garrantzitsua izateagatik ere. Erresidentziaren esperientzia irakasleriaren prestakuntzan lehenengo urrats baino ez zen izan, laster ikusiko dugunez.

Dena dela, prestakuntza eza ez zen izan gainditu beharreko oztopo bakarra. Oztopo nagusienetariko bat, gizartean eta guraso askoren artean, zabaldutako ustea eta bildurra zen:

*...Baina momentu hartan batzuk ez zekien zer zan ikastola, eta lehenengoko galdera zan, "aquí se aprende todo en euskara, se enseña todo en euskara? Cómo van a aprender los chavales todo en euskara"! Eta gero," pero, eso ya vale para luego? Luego tienen que hablar en castellano en las escuelas y no se que". Eta beti problema horrekin. Eta problema hori, praktikan, honela ikusten zan, pozik ikastolan " ze ondo". Nik beti esaten dot gauza bardina, umeari eta katua eta txakurrari euskaraz ez da? Baina sei urte egiterakoan, hasi behar ziren egiten EGB, orduan taka! Batzuk, guraso asko eta asko, alde egin ikastolatik eta erdiko kaleko maisuetara, Sagrado Corazonera, edo mojatara, karmelitetara, eta gitxi batzuk Publicasetara"*⁶⁶

Andereñoek aurre egin behar izan zioten euskarak jasaten zuen desprestigio sozialari. Baina, ez hori bakarrik, euskal hezkuntzaren eguneroko jarduerak hizkuntza gaurkotzea ere eskatzen zuen. Ezin ahantzi, lehen esan bezala, une

⁶⁵ Fernandez, I. (1994). Op. Cit. 150 orr.

⁶⁶ Ikerketa honetan egindako sakoneko elkarrizketen artean, aipu hori 2. Elkarrizketari dagokio.

honetan hizkuntza batasunerako lehenengo pausoak emanak zirela- Baionako idazle gazteen bilerak hartutako irizpideak 1968an Euskaltzaindiak ontzat eman zituenak- eta 1966an alfabetatze eta euskalduntze plangintza antolatu eta erakundetu zela R.Arregiren eskutik. Bestalde, euskaraz eskolatzeko orokortzeari ekiteko euskal lurraldean, alegia, Bizkaian zein Zuberoan modu berean

irakasteko, material eta testuliburu berdinak erabili behar ziren. Beraz, hizkuntza estandarizatzeari⁶⁷ ekin behar zion, ezinbestean. Horrela, Fernandezekin bat gatoz esaten duelarik, andereñoak, hizkuntza gaurkotze beharraz jabeturik, euskararen estandarizazio eta modernizazioaren zein alfabetatze eta euskalduntze plangintzaren prozesuetan partaide eta funtsezko eragile bihurtu zirela.⁶⁸

Beste oztopo bat eskola desberdin baten eraikuntzan, alegia, proposamen pedagogiko berrian zetzan. Andereñoek, umeengan jolasek duten balio hezitzaileari eta sormena bultzatzeari emandako garrantziak gurasoen mesfidantza zuen erantzun.

Hortaz, eskolaren egunerokotasunean ikusitako gabeziek eta sorraraziko kezkek bultzaturik, herri desberdinetako andereñoak biltzen hasi ziren euren artean erantzunak bilatzeko. Denborarekin, esperientziak elkartrukatzeko egindako bilerak, komunikazio egitura bat hartzen joan ziren, sarritasunaz gain, zentrua-bailara-herrialdea sekuentziari jarraiki.⁶⁹ Andereñoek, esperientzia elkartrukatzeko eta elkarrengandik ikasteko bilaturiko bide horrek ahalbidetzen digu *andereñoen mugimenduaz* hitz egitea:

Eta gauza jakina, ikastola berriak han hemenka sortu ahala, hasi zirela ere elkarren berri jakin, elkarbestu eta koordinatzeko herri bakoitzeko ordezkarien bilkurak antolatzen. Fenomeno honen parean, oroit baita, nola sortzen den andereñoen mugimendua: ikastola barneko lanaren esperientziak elkarrekin trukatzeko eta ikastaldi zenbait antolatuz beren burua egokiago prestatzeko⁷⁰

⁶⁷ Miranda de Benito, B. (1988). La lengua. Representación y práctica. Madrid, Universidad de Complutense de Madrid.: 280-320 orr.

⁶⁸ Fernandez, I. (1994). Op. Cit. 165 orr.

⁶⁹ Fernandez, I. Op. Cit. 164 orr.

⁷⁰ Setien, J. F. (1979). Op. Cit. 106 orr.

Honaino adierazitakoaren arabera, euskaraz eskolatze orokorraren zimendarri sendoak finkatze lana, batetik, mugimendu nazionalista *osoaren* sustapenari eta, bestetik, andereñoek eginiko lanari esker gauzatu zela esan daiteke eta horren froga gisa hona hemen EAJko gogaide baten esanak:

...Elbirak eta Mari Angeles Esnaolak eta beste batzuek, askoz lehenago jarri zituzten oinarriak, ez da? ...Baina gure garaian gertatu zen, ikastolak orduan herrikoiak egin zirela, popularizatu zirela, eta noski, ...,gu zenbait jendearentzat etsaiak ginen, zergatik? Ba, guk nahi genuelako ikastolak ez elitearentzat bakarrik, baizik eta herriarentzat, eta ez gu bakarrik. Ordurako hasiak ziren zenbait herri eta zenbait ikastola ideia horrekin hasiak ziren. Orduan txokatu egiten genuen, ikastola beste horren parean. Bai zenbait andereño, bai zenbait guraso, bai zenbait...txokatu egin genuen...gure ikuspegia zen militantzia eta orduan, nahi genuen herriarentzat, ez Donostiarentzat edo Bilborentzat, herriarentzat, Amezketarentzat eta Leazpirentzat, eta hori izan zen. Beno, gu hasi ginen beharrak eraginda eta beharragatik...gu sartu ginen mugimendu horretan eta mugimendu hori pixkanaka indartzen joan zen emakumeen inguruan.⁷¹

Ikastolen hedakuntza finkatuz zihoan heinean, legearen babesa bilatze beharra nabarmentzen hasi zen. Lege babesa bilaketa horri ekitean, ikastolaren inguruko desadostasun ideologiko garrantzitsuak azalarazi ziren nazionalismoaren barruan. Hurrengo lerrootan ikusiko dugun bezala, desadostasun horiek eragin zuzena izan zuten, ez soilik ikastola sustengatzen zuen herri mugimenduan, baita andereñoen mugimenduan ere.

1970eko Hezkuntza Lege Orokorra hartzen da aipatu prozesu horren mugarri gisa, naiz eta lehenagokoak izan ikastola izaera legala eskuratzeko lehen saioak. Saio horiek bi bide hartu zituzten, batetik, Ooreretako ikastolak zabaldutakoa 1968an legeztapena lortuaz 1964ko Elkartearen Legearen markoan. Bide hau oztopoz erabat libre ez egotean, Gipuzkoako ikastola gehienek beste bideari ekin zioten Elizaren babesa eskatuz. Oraingo honetan, 1945eko Oinarrizko Hezkuntza Legeari eutsirik, *parrokia ikastolak* sortu ziren.

Baina, eliza katolikoaren babesa ez zen doakoa izan, aitzitik, erlijioaren irakaskuntza eta ikastolen apolitizazioa izan ziren eskatutako ordaina.

⁷¹ Lehenengo elkarrizketatua. Azpimarratua guk egina da, Ikus eranskinean: 15-16 orr.

Emakumeek bideraturiko euskal hezkuntza esperientziak:

<p><i>Republika Garaia</i> <u>Euzko Ikastola Batza</u> 1932-36 urte bitartean</p>	<p><i>Frankismoa</i> <u>Etxe Eskolak</u> 1946-1969</p>	<p><i>Erregimen Frankistaren epe teknokratiko</i> <u>Ikastolak</u> 1964-1970</p>
<p>Ikastolak Bizkaiko 12 herritan eta Gipuzkoako 2tan Ikasle kopurua: 1179 Ikasle euskaldunak Irakasleak andereño gazteak ezkongabeak:26 EABko kideak Tituludunak</p> <p>Euren prestakuntza: erlijioa, euskara eta pedagogia</p> <p>Eskolen ardatzak: erlijioa, euskara eta aberria</p> <p>Ikastola konfesionala</p>	<p>Donostian</p> <p>Ikasleei buruz, elite nazionalistako seme-alabak. Euskaldunak.</p> <p>Irakasleak: andereño Elbirek prestatuturiko EABko andereño tituludunak, eta 50eko hamarkadan, EKIN taldeko andereño tituludun batzuk</p> <p>Prestakuntza praktiken bitartez, pedagogia gerraurrekoa</p> <p>Eskolen ardatzak: erlijioa, euskara eta aberria</p> <p>Izaera konfesionala</p>	<p>Euskal Herriko lurralde guztietan: Ikastolen kopurua 1970ean 103. Ikasle kopurua 1969-70: 8.255 Euskaldunen seme-alabak Irakasleak: andereñoak eta zenbait maisu; Orotara, 300 irakasle Andereño enpirikoak eta tituludunak Nazionalismo berriaren kideak zein nazionalismo tradizionalarenak. Prestakuntza, “Andereñoen erresidentzia”, praktiken bitartez eta “Andereñoen mugimenduaren” bitartez. Gerraurreko pedagogiaz gain erresidentziko pedagogia. Eskolen ardatzak: euskara eta euskal lurraldea Izaera sekularra</p>

Elizaren babesean ere, 1969an, Gipuzkoako Ikastolen Federazioa sortu zen, ikastolek bizituriko hedapen azkarrari beste antolaketa eraginkorragoa emateko xedearekin. Alta, Federazioa, gurasoez soilik osaturik egoteak eta ikastolen izaera konfesionala aldarrikatzeak ikastoletan parte hartzen zuten estamentuen arteko haustura sorrarazi zuten.

Ikastolen legeztatze prozesuaren gertakaririk esanguratsuen dugu lehen aipaturiko 1970eko Hezkuntza Lege Orokorra. Lege horrek, hamalau urtera arteko derrigorrezko irakaskuntza bateratua ezarri zuen. Ikastolak behartuta zeuden Oinarrizko Irakaskuntza orokorreko ikastetxe sailkapena eskuratzeko eta, hartarako, doakotasuna bermatu behar zuten, eta ikastetxe kontzertatu bilakatu. Instituzionalizatze prozesu honen atzean dauden gertakariei gehitu behar zaie, 1970eko hamarkadaren hasieran euskal nazionalismoaren egoera bera ere. Nazionalismoa, frankismoaren azken urteotako giro erabat politizatuan, euskal gizartean sendo agertu arren, barne istilu ugari bizitzen ari zen, eta hauek ikastoletan ere beren isla izan zuten. Istilu horiek zein Hezkuntza Lege Orokorrera egokitu beharrak ekarri zituen arazo ekonomikoek ezaugarrituriko testuinguruan ikastolak *burgesak* ez ote ziren eztabaida piztu zen. Instituzionalizatze prozesu honek agerian utzitako eztabaidagaiei, erlijioaren irakaskuntza, apolitizazioa, ikastolak *norenak?*, ikastolak *burgesak*, gehitu behar diegu euskalgintzaren aspaldiko asmoa abiarazia izana: euskararen estandarizazioa, euskara batua.

Aipatu gai horien inguruko desadostasunek, ikastolari buruzko bi diskurtso ideologiko marraztu zituzten, bata nazionalismo kontserbadoreak bereganatzen zuen bitartean; bestea, berea egiten zuen nazionalismo ezkertiarak. Ikus ditzagun, hurrengo taulan, diskurtso horien eduki nagusiak:

<p>Nazionalismo kontserbadorea:</p> <p>.Ikastolen izaera konfesionala</p> <p>. Haurren heziketa gurasoen ardura</p> <p>.Ikastolaren jarduera apolitikoa</p> <p>.Ikastola <i>euskal giroan</i> sustraiturik ari beharra.</p> <p>.Tokian tokiko euskalkien erabileraren defentsa.</p>	<p>Nazionalismo ezkertiarra:</p> <p>.Ikastolen izaera akonfesionala</p> <p>. Herri osoaren partaidetza</p> <p>.Ustezko neutraltasuna ezinezkoa</p> <p>.Ikastolaren nortasuna herriarengandik jasoa, beraz, <i>herri giroan</i> sustraiturik.</p> <p>.Euskara batuaren erabileraren defentsa.</p>
--	---

Tirabira hauek guztiek, esan bezala, andereñoen mugimenduarengan ere beren eragina izan zuten. Horrela, Gipuzkoako Ikastolen Federazioak Elizaren babesean, erlijioa bai eta euskara batua ez haizearen lau aldetara aldarrikatu zuen giro hartan, andereñoen mugimendua Irakasle Elkarte bilakatu zen eta *Gordailu* deituraz bulegoa antolatu. Lehen aipatu bezala, ordura arte ikastolan ari ziren estamentuen arteko lehen haustura gertatu zen. Geroztik, guraso eta irakasleen arteko etena areagotu egin zen, batik bat, irakasleen klase kontzientziaren sendoketa zela eta.

Irakasleek, Setienek dioskunez, aspaldidanik zituzten euren bilkura edo ikastaldietan erlijioaren irakaskuntzaz kriterioak argiturik:

*...andereñoa ez da katekista, izpiritu-baloreetan finkatu behar da haurraren hezketa, baina fedearen lantzea kristau komunitatearen baitan datza.*⁷²

Bestalde, 1968ko urrian, Euskaltzaindiak Arantzazuko Biltzarra "euskara batuaren arazoaz" burutu eta *Gordailuk* berehalako batean hartu zuela batasunaren bidea diosku berriro aipatu idazleak. Gainera, Gordailu edo Irakasleen Elkarte⁷³ ez zen soilik Gipuzkoara mugatzen: Araba, Bizkaia eta Nafarroa elkarrekin harremanetan, ausarki ari ziren pedagogia eta teknika berriek ikastolarentzat lantzen.

⁷² Setien, J. F. (1979) Op. Cit. 106

⁷³ Gordailuaren ekarpenaz ikus : Fernandez, I. (1994) Op. Cit. 167-182 orr.

Gipuzkoako Federazioaren eraketak sorturiko egonezina, 1970eko Legeak ezarritako baldintzek areagotu zuten. Baldintza horietariko batekin, ikastetxetan aritzeko magisteritza tituluaren beharra, irakasleriaren profesionalizaziorako bidea ireki zen; horrela, andereño *empirikoak* eskolaurrean irakasten gelditu behar izan ziren. Irakasle tituludun behar hori seminarioetatik irtendako gizonezkoen uholdeak asetu zuen⁷⁴. Pedagogiarekin zerikusirik ez zuten abadegaiek, are gutxiago ikastolen mugimenduak hartua zuen heldutasun pedagogikoarekin. Andereñoen eguneroko praktika eta bilatze lanetik forma hartzen doan eredu pedagogiko batetik, ikuspegi tekniko batek gidaturiko eredura igaro bidean kontuan hartzeko da aipatu gertaera⁷⁵. Zer esanik ez, lan banaketa sexualari dagokionez, atzerapauso gisa ere ikusia izan daitekeela. Horrez gain, ikastolaren kudeaketari begira, jasandako bazterketak eta exijentzia profesionalen presioak irakasleen egonezina areagotu zuten. Hauen protestok ez ziren, soilki, lan aldarrikapen hutsak; haatik, gurasoek ikastola enpresa bailitzan kudeatzeak zekarren arriskua, alegia, ikastola ordura arteko herri proiektu izaera galtzearen kezka ere plazaratzen zuten. Beraz, eta Mateosok dioskunez:

*...estamentuen artean gertatu zen hausturak, neurri handi batean, nazionalismo kontserbadore eta ezkertiarren artekoa ere islatzen zuen, nahiz eta estamentu bietako kideak batean zein bestean egon zitezkeen.*⁷⁶

Honaino oso azaletik azaldutakoak, ikastolen zatiketaren testuingurua osatzen du, nahiz eta, askotan arrazoi bat baino ez agertu zatiketa inportanteenetariko baten atzean, alegia, erlijio auzia:

...Ikastola apurtu zenean ere, zatiketa egon zenean eztabaida politikoa direla eta, nire izenean jarraitzen eban ikastolak...Niretzako momenturik txarrena ikastolan, edo larriena izan zen apurketa, ...kalte asko egin zan eta nahaste ikaragarria sortu zan, eta gurasoen artean zatitu...andereño bik alde egin eben...Bueno, uste dot apurketaren oinarria zela politikoa, eta hori denek ikusten eben. Batzuk ziren españolistak eta besteak ziren

⁷⁴ Fernandezek honen inguruan horrela dio: “Sekulartze hau oso tamaina haundikoa izan zen;...eta Garmendiak esandakoa kontutan hartzen badugu, ikastolen hazkundera indizerik haundienean zegoenean irakaslearen iturri garrantzitsuetakoa bat apaizgai hauek izan zirela ikusten dugu.” 159 orr.

⁷⁵ Ikastolan aritzen zen irakasle talde bat Saioka taldean bildurik, liburuxka batzu kaleratzen hasi ziren. Honen inguruan honela diosku I. Fernandezek: “Gordailutik edo Saioka Taldetik bultzatzen ari diren pedagogia ereduak erabat desberdinak...bigarrenak lehenengoarekin konparatuz, eskolari funtzionamendu formaldago eta neurtuago ematen diola, federazioaren asmo instituzionalizatzaileen eremuetan sartuz.” 185 orr.

⁷⁶ Mateos. S. (1998). Op. Cit.339 orr.

abertzaleak eta horregatik etorri zen apurketa...Gertatu zana da, nahiz eta batzuk esan, ba españolista nintzela, zergatik? Ba nire inguruan egoten ziren juntako jendea, ba zelako LKIkua edo, troskistak eta abar...Baina apurketa egin zenean esan behar dena da, nahiz eta sustraian hori egon, batzuk gelditu zirela ikastolan, nahiz eta abertzale aldekoak izan...Hor gauza asko ...taldeka eta klandestinitatea hor 'burbur' egin ziren eta...beste ikastola batzuekin ere egin zan. Eta hori izan zen "La Santa Cruzada" edo holakoren bat.⁷⁷

Garai hartako andereño honek dioenez, irakasle batzuek ere alde egin zuten, eta, badirudi, kaleratu eta alde egin zutenen artean asko eskola publikora abiatu zirela.⁷⁸ Horren guztiaren ondorioz, ikastolaren aldeko lanaren kutsu militantea arinduz joan zen apurka-apurka.

1970eko hamarkada hasiera gatazkatsuen deskribapena egin ostean, ezin esan, alta, euskal nazionalismoak, bere osotasunean hartuta, ikastolari eusten jarraitu ez zionik. Aipatu liskarrek ikastola guztiak *berdinak* ez zirela agerian utzi zuten, eta liskarrak beste etiketa erabil daitezkeela ikastolak "bereizteko". Halarik ere, ikastolaren hazkundera ez zen gelditu, eta nazionalismoak bere-berea sentitzen segitu zuen:

Erljioari eta euskarari buruzko arazoak gora behera (...), ikastolen ereduari tinko eutsi izan dio familia nazionalistak zapalkuntza frankista bizkar gainean erasoka izan duen garaian.⁷⁹

Beraz, eta Mateosekin bat etorritz, nazionalismoa gero eta kontzienteago izan zen ikastola *estatuari irabazitako eremu* bat zela. Eta irabazitako *eremu* horretan nazio komunitate eraikitzen aritutakoak, gehienbat, emakumezkoak izan dira, andereñoak. Egitate honen argibide bilatu guran, Fernandezek⁸⁰, arrazoi legalak, sozioekonomikoak, ideologikoak zein historikoak aipatzen ditu.

Legeari dagokionez, 1945eko Oinarrizko Hezkuntzaren Legeak oinarrizko irakaskuntzarako irakasleria emakumezkoa izan behar zuela agintzen zuela diosku, aipatu idazlea. Arrazoi sozioekonomikoei begira, magisteritza ikasketak

⁷⁷ Bigarren elkarrizketatua.

⁷⁸ Fernandez, I. (1994). Op. Cit. 251-252 orr.

⁷⁹ Iztueta, P.(1995). Hizkuntza, hezkuntza eta boterea: euskal irakaskuntzaren atarian. Identidad vasca y Nacionalidad. J. P. Apalategi, X. Gasteiz, Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua.: 132 orr.

⁸⁰ Fernandez, I. (1994). Op. Cit. 151-152 orr.

lan merkatuan gutxietsia eta gaizki ordaindua izanak, oinarrizko hezkuntzarekiko Estatuak erakutsitako utzikeria zela eta, gizonetzkoek beste ikasketa batzuk aukeratzea zekarren. Horrela, hezkuntza lan eremua libre utzi eta emakumezkoak sartu ahal izan ziren. Azkenik, argudio historiko eta ideologikoak ditugu, euskal hezkuntzaren historiak agerian utzitako emakumezkoen partaidetza handia euskal eskoletan, eta euren arteko lotura ideologikoa, euretariko bostehun *Emakume Abertzale Batzako* kideak ziren-eta. Dena dela, 1960ko hamarkadako ikastolen andereñoen ari garelarik, onartu arren, ikerlari horrek emandako lehenengo bi zio lagungarri suerta zitezkeela, kontuan harturik ikastolaren hastapenetan frankismoak ezarritako zapalkuntza eta honek sorturiko bildur giroa ezinbesteko jotzen dugu hirugarren arrazoi ideologikoari eustea emakume hauen jokabidea ulertzeko. Ikusi, bestela, zer dioskue garai hartako andereño honek:

Nik ez nekien momentu horretan zer zan ikastola...nire amari ez eutson grazia askorik egin, ze nire ama maestra da eta bere ametsa zen oposaketak egitea eta funtzionaria izatea...gainera bai neukan kezka bat izateko zeozer, eta euskararen alde zerbait egiteko, ze...gu egon ginan sartunda Herri Gaztedin eta Herri Gaztedin, ba sentimentu horrek asko Herri Gaztediko erakundetan kezka batzuk sortzen ziran, eta azkenean erabaki nuen baietz, izango nintzela andereño Gernikan... etortzen zenean momentu larria edo zarratzeko, edo goardia zibilaren presentzia edo "Certificado de buena conducta" delako eskatzen zena, urtero-urtero eskatu behar izaten nuen nik eta abar, horrelako gauzak. Eta beti esaten eben "hobeto zagoz oposizioak eginez". Baina, beno horrek ziran momentu puntualetan..."⁸¹

Euskararen alde zerbait egiteko sartu zela ikastolan diosku andereño tituludun honek, ez zen makala berak burututako zerbait hori. Berak bezala beste askok ere izan zuten arrazoi bera ikastoletan aritzeko, euskaltzaletasuna, garai berdineko andereñoak, gerraosteko garaikoak, eta gerraurreko garaikoak ere bai. Izan ere, hau izan baitzen bai nazionalismo tradizionalak bai berriak emakumezkoen utzitako lan eremua subjektu abertzale gisa aritzeko.⁸²Baina subjektu abertzale gisa den-denak aritu baziren ere, emakume desberdinak, andereñoen irudi desberdinetan ordezkatuak, agertzen joan ziren.

⁸¹ Bigarren elkarrizketatua. Euskararekiko kezka, euskaltzaletasuna elkarrizketatuko lehengo andereño guztiek aipatzen dute, Euskaltzaletasuna familiak, eta nazionalismoa tradizionalaren zein berriaren erakunde desberdinek igorria (Herri Gaztedi, Gogor taldea, Anton orfeioa, JOC, EGI).

⁸² Gai honen inguruan ikusi aurreko atala.

Gerraurreko abertzaletasunak erlijioa zuen ardatz nagusi, horrela, abertzaletasun horrek, bai emakumeei bai gizonei euren sinesmenarekin bat zetorren portaera eskatzen zien, alegia, Eliza Katolikoak ezarritako arauekin bat zetozen ohiturak (janzkera, dantza moduak, sexualitatea eta abar...) gordetzeko ardura nagusia emakumeengan egonik. Portaera honen eredu gisa Elbire Zipitria agertzen da, eta berarekin ikasitakoek horrela ikusten zuten:

*Begira, sartu nintzenean sortu zitzaidan, ez dakit, beharbada Elbirengandik ikasita, izugarrizko erresponsabilitatea, izugarria...eta ikusten nuelako Elbira ere ezkongai zela...baina konturatu zaitez, danak zeuden Elbiraren prestigio...baina, jende hasten zena, ba nondik joko duzu ez da? Ez dakizu...lehenengo urteetan batez ere, guraso asko ez zegoen, ba holan ez da? Nolakoa ote da? Zer ote da? Batzuk ez, batzuk ez, beste batzuk bai. Ba, nola jantzi ere bai, nola janzten zuten, holan eskote haundi...txapelketa batera joan eta tiranteekin nola...zer pentsa! Tiranteekin!...gauza horiek danak, pixka bat imajina...eta nik beti esaten dut, irakaskuntza...joateko despanpanante, baina, itxura egokiakin joateko, imajina ona eman behar dugula eta irudimena...izugarrizko inportantzia, jendeak begiratzen zigun alde guztietatik, nola jazten da eta ze lilura zinen.*⁸³

Itxura egokiakin joateko erresponsabilitatea gogoratzen du andereño honek. Beste honek, erresponsabilitateari militantzia deritzo:

*Nere garaian, klaro ez zen hola esplizitoki agertzen, baina inplizitoki bazegoen holakoxe esijentzia edo holako zerbait, ba andereñoa ezin zela ezkondu. Bere bizitza guztia eman behar zuelako. Orduan, nolabait ere, militante bat zen bizi guztirako...ezkontza ez bazen inporta, maitasunean ere ezin zinen arriskatu gehiegi. Klaro, gero inplikazioak ekar zitezkeelako eta horrela. Baina hori, ...ez zen esaten agerian, baina ez dakit erlijioso zerekin zera, nahastuta edo zer, andereñoa, klaro, gero, Andereño Elbire genuen, horixe, birjina eta martira ia ia; ez zen esaten sekulan, baina klaro, militantea beti zen pertsona libre bat, eta nik uste dut inplizitoki bazegoela hori...horrek bai eragin asko izan zuela zeinbaitengan ezkongabe geratzeko. Elbirak eta, egiten zuten holako desprezioak emakume ezkonduarentzat eta*⁸⁴

Andereño hauen oroimenak ikusi eta gero, zalantzarik ez da, Elbirek bere hezkuntza jarduerarekin batera emakumeei buruzko ideologia zehatz bat igortzen zuela. Eta ideologia horrek ezarritako arauak eta jokabideak zapaltzaileetat sentituak izaten zirela, zapalkuntza hori ez adierazi arren:

⁸³ Laugarren elkarrizketatua.

⁸⁴ Lehenengo elkarrizketatua.

Baina hori ez zen, gure generazioan ez zen hainbeste...baina barruan nik uste dut eragiten zuela eta fuerte baita ere, nahiz eta guk manifestoki ez agertu...eta lanak eta horrela, ahal duen bezala andereñoa. Hori izan da emakumearen zera, lexikoan bi bider zapaldua, bi edo hiru...Hori da.⁸⁵

Elbireren, mundu ikuskeran, emakumeak hiru eremutan baino ezin zitezkeen ari:

...Alako batean, argazki bat ere erakutsi zidan: Arantxa mojetara, Pilartxo ezkontzetara, Elbira andereñotara.⁸⁶

Bere ikuskera horretan, badirudi, andereño ona izateko ezinbesteko baldintzak zirela, familiarik ez izateaz gain, alegia, ezkongabe izatea, Eliza katolikoak araututakoaren araberako jokabidea eta irudia izatea. Askok, ezaugarri horiek zirela eta, hasierako andereño horiei, euskararen misiolariak ere deitu izan diete⁸⁷. Zer esanik ez, 1960ko hamarkadatik aurrera hau guztia ziztu bizian aldatzen hasia zela. Lehen aipatu bezala, diskurtso mailan, masen nazionalismoaren zein kulturgintzaren loraldiaren urtean ETAk lehenengo ideia feministak plazaratu zituen marxismoaren eskutik: eskubideen berdintasuna; etxeko esparrua, sozializazio politikorako funtsezko eremutzat jotzeaz gain, lan eremu gisa ere ikustea; lantegietako emakume langileen zapalketa; umeak izan ala ez aukeratzeko eskubidea; emakume ezkonduen independentzi ekonomikoa, beraz, ordaindua den lanpostu bat izateko eskubidea, eta beste izan ziren borborrean zegoen gizarte zibil hartan plazaratu ziren ideiak. Andereñoak, irakinaldi erdian egotean, ideia horiek beste batzuekin batera barneratu eta, nahiz eta, esparru politikora oraindik ez eraman eta generoaren araberako antolaketa zapaltzailea ez salatu, euren eguneroko bizitzan zenbait aldaketa burutzen hasi ziren. Horrela, Elbirek igorritako andereñoaren irudi erlijioso

⁸⁵ Lehenengo elkarrizketatua ikus eranskina.

⁸⁶ Askoren artean,(1985).Zipitria'tar Elbire Andereñoa. Omenaldia. Tolosa, Lopez Mendizabal.Euskarazaintzak.

⁸⁷ Andereño batek esandakoa:” ...oso jende gutxi daki, baina hor hasi ziren apaiz batzuk eta, esaten eta danak ezkongabeak irauteko, eta...orduak..hori ez, hau ez da konparazio bat eta aizu! Ez banaiz ezkontzen, nahi ez dudalako da, ez beste gauza..aizu!...hori nahiko arriskutsua izan zen, batzuk hasi ziren pentsatzen halako , hor, badakizu, Euskal Herriko halako 3. Orden eta San Frantzisko eta ez dakit zer, eta hor, batzuk hasi ziren aizu! Neri inor ez da sartuko nik zer egiteko asmoarekin...” . Laugarren elkarrizketatua.

horrekiko ezplizituki aldentzeko zenbaitek jokabidez aldatu zuten jazkera edo itxura kontuei⁸⁸ zegokionez:

...eta klaro, ez ginen elizkoiak, eta ia hemen zer? Eta gu ba pintatzen ginan, gaur oso progrea da ez pintatzea baino garai hartan las emakumes danak zihoazela aurpegia garbi eta hola, gu “unas tías que nos pintábamos” belarriak eta begiak, eta gainera loreakin eta...jo! Un choque! Badakizu un choque generacional...⁸⁹

Beste askok bizitza zikloari jarraiki elkargarri egin zuten familia ardua eta ikastolako lana:

...ezkondu barik egon nintzen lehenengo, ...Nire etxean, esate baterako, inoiz ez da planteatu ezkondu ezker lana untzi behar dala, lehen esaten zan moduan, eta gero, ezkondu eta gero, ikastolan jarraitu nuen ere bai...⁹⁰

...andereñoa nik uste dut, hor, momentu hartan, protagonismo hori eraman gendula ondo...nahiz eta hainbat kasutan, (ez nirean), familia bat sortu, eta familia baten ardua izan, beste hori, ikastolaren garapen hori eta ikastolaren helburua, azkenean zen euskara zabaltzen eta euskaraz irakaskuntza bat egitea Euskal Herrian, uste dut hori ez dauela ahaztu. Eta gainera andereño horrek, amak izan direnak, eta famili bat sortu eta holan egin dabenak, hori argi eduki dauela eta biak eraman dauz. Sarritan, euren kalterako fisikoki edo jota egonda. Baina, nik uste dut egin dabena eta hor asko dagoz egin dabenak eta borrokatu dabenak, nire lagunak eta holan, hor egon direnak.⁹¹

Hala ere, eta nola oraindik maisu gutxi zeuden honako jokabideak ere ematen ziren:

...Hasieran, ...barre egiten dut behin baino gehiagotan, baina hain gutxi irabazten genuen, esaten gendun jo! Mutilei pixka bat gehiago emozue, porque lotsagarria da mutilak hain gutxi, ez da...Geuk esaten!! Eta gaur egun nik esaten dut, baina nola esaten hori. Klaro, ikusten ziren, 20 urte, 25 urte, amaren kontura bizitzen, irabazten nuena neure poltsikorako, eta igual ikusten zendun ezkontzera zihoan mutila edo ezkontuta eta, ezin zuela bizi diru harekin...⁹²

Ikastolen legeztatze prozesuaren hasiera eman, eta esan bezala, *andereñoen mugimendua* Irakasleen Elkarte bilakatu zen; seminarioetatik irtendako

⁸⁸ Sexualitatearen inguruan elkarrizketetan ez dugu ideia espliziturik jaso. Hala ere, literaturan, zehatz-mehatz, Xabier Gereñoren nobelan: *Andereño*, abortoa bezalako gaiak agertzen dira, ikus: GereñoX. (1982). *Andereño*. Donostia: Kriseilu. 63 orr.

⁸⁹ Fernandez, I. (1994). Op. Cit. 113 orr.

⁹⁰ Bigarren elkarrizketatua.

⁹¹ Bigarren elkarrizketatua.

⁹² Bosgarren elkarrizketatua.

abadegaiek ikastoletako irakasleriaren mistotze prozesuari hasiera eman zitzaion eta, aldi berean, ikastola barruko lan banaketa sexualari ere bai:

...mintegitik ateratzen zirenak, segituan joaten zirela ikastolara. Baina ez nekien zer funtzioa edo izaten zuten. Klaro, horiek noski oso pertsona intelektualak ziren, oso jakintsuak eta klaro funtzioak, hasteko, maisu sartzan ziren eta berehala, suplantatzen zuten emakumea eta erresponsabilitate mailetan sartzan ziren...nere ustez etorri ziren mundu intelektual artifizial batetatik, beno oso artifiziala ere ez dut esan behar, ze historia hor dago eta. Baina, orduan gertatu zen ba hori, gaitzestu egiten ziren beste holako jakintzat, eta jakina guztiek badute beren lekua, eta gure herrian eta gure garaian eta gure mailan, ..., beharbada kultura antropologikoa badu bere leku bat...gizonezkoa, nere ustez, aldaketa batzuk ezarri dituzte, eta bata da hori, teknifikatzea...gero karguak hartzea⁹³

Hasieran zuzendari guztiak, desde luego, mutilak izan ziren. Baina igual, beraiek nahi zutelako eta guk ez genuelako nahi. Ez esaten zigutelako mutilak izan behar zirela. Igual esaten zuten, ba, nork nahi izan eta geuk ematen geniola igual aukera beraiei. Geu ginen, gehiago, ba, ikastola,klaseak, umeen harremanak eta kitto.⁹⁴

Beraz, gizonezkoek botere esparrua bereganatu eta, lehen aipatu bezala, titulorik gabeko andereñoak, *andereño enpirikoak*, beheko mailatan kokaturik gelditu ziren magisteritza titulua eskuratu arte. Gertaera honekin batera, ikastolaren instituzionalizazioa finkatu eta, andereñoengan langile kontzientzia piztu eta zabaldu zen:

...hartzen gendun ikastola, hori, geurea izango balitz bezala. Eta juntakoak ere, horrela ibiltzen ziran gurekin: bueno, ba, behin honetan ez dago dirurik, ba hurrengotan kobrako dozu, eta aurtengo extra igual kobrako dozu hemendik urte bira.Horrela ibiltzen ginan, egia da. Eta seguritate soziala, ez dakit noiz hasi nintzen kotizatzen edo noiz hasi ziren nigatik kotizatzen....aldatu da. Horrela ezin da-eta lanik egin, horrela egiten dozu urte bat edo bi edo ez dakit baina ez. Gainera hori ez dago ondo, ez da? Langile batek hori ezin dau egin.⁹⁵

Idea hauek indartu ziren 1970eko hamarkadan zehar, halarik ere, gure ustez, oraindik elkargarriak ziren burutzen ari ziren hezkuntza jardunarekin, nazio komunitate eraikitzearekin. Askok, lehen aipatu bezala, gurasoen jokabideaz kezkatutik, ikastolak *herri proiektu izaera* galtzeko arriskua ikusten baitzuten.

⁹³ Lehenengo elkarrizketatua.

⁹⁴ Bosgarren elkarrizketatua.

⁹⁵ Seigarren elkarrizketatua.

Garai desberdinetako andereñoek islaturiko emakumearen irudi desberdinak:

<p>Erregimen Frankista:</p> <p>EtxeEscolak</p> <p>1946-1969</p> <p>Irakasleria: Andereñoak</p> <p>Nazionalismo tradizionalaren genero diskurtsoan, emakumeak</p> <ul style="list-style-type: none"> . Komunitate eramaileak . Kultur igortzaileak <p>Andereñoek islatzen zuten emakumea:</p> <p>Eliza katolikoak ezarritako arauen arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> -jokabidea -itxura -ezkongabea, beraz, -birjina, sexu harremanik ez. <p>Ikasle kopuru txikia eta elite nazionalista bateko seme-alabak.</p>	<p>Erregimen frankistaren epe teknokratikoa:</p> <p>Ikastola</p> <p>1964-1970</p> <p>Irakasleria: Andereñoak eta zenbait maisu</p> <p>Nazionalismo berriaren genero diskurtsoan, emakumeak:</p> <ul style="list-style-type: none"> . Kultur igortzaileak . Zenbait ideia feministaren agerpena. <p>Emakume irudi desberdinak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zipitriaren eredua. -Zenbait andereñok islatzen zutena aurreko iruditik alden guran: Itxura aldatu, jokabideak aldatu, ezkondu, familia eta lana elkargarria egin. <p>Ikasle kopurua, 8.255, euskaldunen seme-alabak.</p>	<p>Frankismoaren azken urteak / trantsizio aldiaren hasiera:</p> <p>Ikastola</p> <p>1970-1979</p> <p>Irakas: Andereñoak/maisuek lan banaketa sexuala.</p> <p>Euskal nazionalismo ezkertiarren baitan feminismoa antolatua; euskal nazionalismo tradizionalak mugimendu feministaren zenbait aldarrikapen bereganatu.</p> <p>Beraz, genero diskurtso tradizionala eta genero diskurtso berriak bietan.</p> <p>Emakume irudi desberdinak:</p> <p>Andereño berria, langile kontzientziaren sendotze eta zenbait ideia feministen barnerapena</p> <p>Ikasle kopurua: 60.529, euskaldunen zein erdaldunen seme-alabak.</p>
---	---	---

Laugarren zatia: Generoa eta Euskal Hezkuntza

Arrisku berriak

Askatasunak erraztasun haundiak sortuko dizkiola euskarari, uste dugu. Baina ez dugu engainatu behar. Arriskurik ekarriko diguna, bai, gauza segurua da.

Herstualdian, alienazio gorrien-gorrien eta mingarrien zenean, zanpaturik, ia itorik, desesperazioz geure identitatea bilatzen genuenean, nazio hizkuntza estimatzen ikasi dugu eta prest egon gara, euskeraren alde leherrenak egiteko eta sakrifikatzeko. Aurrerantzean halako izpiriturik izango al den, ikusi egin behar. Hotz aldi edo epel aldi baten arriskua dago; sentitu, identitate arazoa libertatean ez bait da hain larri sentituko, problemak funtsean berdintsu jarraitu arren. Egia esan, euskal Unibertsitatea lehenbailehen iristen ez badugu, nahiko pesimista izan gintezke. Izan ere, gauzak ez doaz gaizki, nahi baduzu; baina gaizki daude oraindik, oso gaizki.

Politikaren abiazarrada bizi-bizi bat ikusiko dugu, duda gabe, hurrengo urteotan. Bistan dago. Hainbeste denboran debekatuta egon den politika hori, guzcion grina eta pasio bihurtuko da. Politikoak, oposizioan, gustora baliatu izan dira euskararen arazoaz. Hori ere bistan dago: zeuden eta ez zeuden problema guztiak aprobetxatu behar zituzten, oposizio absolutuan zebiltzan artean. Orain, ordea, problema eta problema artean aukerak egin beharko dira, bakoitzak bere egiazko interesen arabera. Ikusiko dugu euskararen arazoaz zein zenbat arduratzen den hemendik aurrera. Bestalde, orain artean hizkuntza arloan ematen zion bide gazte askok sozial kezkarri. Orain aukera gehiago egonen dira sozial kezkarri bideratzeko, Alderdi politikan, sindikalismoan; eta hizkuntza lan aspergarria baino erakargarriagoak gazteentzat. Andereño izateak edo baino prestijio gehiago emango dutenak ere bai, agian. Arriskuz arrisku joango dira gure urteak.

Azkenean, guretzat irteera bakarra dago: lana, elkar lana.

JOXE AZURMENDI (*Azurmendi, J. 1977*)

9. atala: Euskal nazioa eraikitze prozesu generizatua trantsizioaldian

Deskribatzen ari garen prozesu honetan eraginik handien izan duen aldaketa politikoa, Euskal Herriaren lurraldea bere osotasunean hartuta, Hegoaldean gauzatzen da, diktadorearen heriotzak irekitzen duen transizio politikoarekin. Iparraldean, euskal gizarteak betikoan jarraitzen du, aldaketa berezirik gabe, Frantses Estatuari lotua.¹

Dena dela, zentralizazio politiko hori biguntzeko saio batzuk bai gauzatu zirela, eragin sozial gutxikoak izan arren. 1953an, Bordeleko euskal ikasleek sorturiko erakundeak, *Enbatak*, *Aitzinaren* diskurso nazionalista zalantzakorra argitu zuen honakoa esanez: borroka indar zentralista eta deszentralizatzaileen artean kokatu behar zela. Erakunde berak, 1963ko aberri egunean eginiko biltzarrean, frantziar estatu marko alboratu, eta Hegoaldeko lau herrialdeekin baturik, Euskal Herrirako autodeterminazio eskubidea eta demokrazia aldarrikatu zuen; moderatuago izan bazen ere, landutako egitasmo politikoa: lehenengo epe batean, Frantzian euskal departamentua sortzea eta bigarreanean, Europa Federal baten barruan Euskal Herrirako autonomia administratibo, politiko eta kulturala erdiestea. 1964ko hauteskundeetan, *Enbatak* arrakasta mugatua lortzen du, 1967an gorenean egon zelarik, bost mila botu baino gehiago lortu zuen, baina, hortik aurrera bozen %5era heldu ezinik ibili zen beti.² Beraz, lehen esan bezala, 60ko hamarkadaren erdialdetik aurrera eragin sozial txikiarekin agertzen zaigu Iparraldeko nazionalismoa.

Hala ere, 1968tik Hegoaldetik ihesian zetozen ETAkideen eraginak zein, 1970ean, Burgoseko epaiketaren inguruan eraturiko mobilizazioek erakunde berrien agerpena ekarri zuten: *Anai Artea* (1969), *Amaia* (1968-1971) azken honen kide zirenek urte berean *Mende Berri* sortu zuten, batik bat, kultur

¹ Iztueta, P. (1996). *Intelligentsia kimatuaren orbelak*. Irun, Kutxa Fundazioa.

jardueran aritzeko asmoz, sozialismo autogestionarioaren kutsua bazuen ere. Azken honen tirabiren emaitza *Ezker Berri (1976-1982)* dugu, zeina *Enbataren*, ETAREN aldeko eta ezkertiar jiteko sektore batekin elkartu baitzen. Bestalde, *Enbata*, frantses gobernuaren aginduz 1974an disolbatu eta, sozialista ez ziren kideak kultur mugimenduan, batez ere, ikastolen mugimenduan murgildu ziren.³

Mende Berriren antimarxistek *Euskal Gogoa* sortu zuten eta azken honetatik, 1973an Iparretarrak jaio zen. Handik urte batera, jite sozialista zuen alderdi berri bat agertu zen, *Herriko Alderdi Sozialista(HAS)*, zeinak *Enbataren* korrante sozialista jasoko baitzuen.

Frankismoaren erorketaren ostean, HAS, Hegoaldeko Euskal Alderdi Sozialistarekin -ETAREN fronte kulturalak sortua-, harremanetan ezarri zen partidu batu bat eratzeko asmoz, Euskal Herriko Alderdi Sozialista (EHAS). EHASEk, 1978an, ekintza politiko bateratuaren aldeko plataforma bat, KAS moduko bat Iparraldean, eratu zuen. Plataforma honek Frantziako hauteskunde legislatiboetan lorturiko emaitza urriek (barne aldean %4,76 eta kosta aldean %3,025) agerian utzi zuten Iparraldeko nazionalismoak zeukan gizarte atxikimendua apala. 1981ean, Frantziako lehendakari- hauteskundeetan, EHAS, Mitterrand sozialistaren alde agertu zen, pentsatuz, bi eskakizun nagusiok lortuko zituztela: herri hizkuntzen aldeko legea eta euskal departamendua. Baina ez zen bietarik bat ere lortu. Urte berean, maiatzean, erakunde hau disolbatu zen.

1978an ere, beste talde nazionalista ezkertiar bat eratu zen, *Herri Taldeak -Iparratarren* adar politikoa-, Iparraldeko ikastolen mugimenduarekin, Seaskarekin, harremanetan zegoenak. Talde hauek, 1985ean antolatutako biltzar baten ostean, Ezkerreko Mugimendu Abertzale, EMA sortu zen.

²Mateos Gonzalez,S.(2000).Euskal Nazionalismoa eta Hezkuntza Publikoa:Ikastolen publikazioa. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen zerbitzua.

³Núñez Seixas, X. M. (1998). Movimientos nacionalistas en Europa. Siglo XX. Madril, Editorial Síntesis, s.a.: 289 orr.

Erakunde hau, 1986ko hauteskundeetara aurkeztu zen, berriro ere, emaitza urriak erdietsiz

(%3,77 legislatiboetan eta %4,21 erregionaletan). 1980eko hamarkadaren amaieran, Hegoaldeko alderdi nazionalistek euren lurraldeko sekzioak eratu zituzten, EAJ, EA eta Euskal Batasuna (EB, HBk eratu), horrela, iparraldeko mugimendu nazionalistaren sakabanaketa areagotu egin zen. Haatik, gizarte sostengua modu apal batez baino ez zen hazi eta honen adierazle dugu EMA, EB eta EA aurkeztutako kandidatura bateratuak, 1988ko hauteskundeetan eskuraturiko emaitzek ez zutela bozen %5era ailegatu oraingo honetan ere. Halarik ere, euskal nazionalismoa, sozialisten eta eskubitarren batasunaren atzetik, hirugarren indar politiko bihurtu da. Testuinguru honetan, frantziar gobernuak emakida apal batzuk egin ditu, alegia, ikastolak estatuko sarean integratzea, euskara titulua zenbait unibertsitatetan eskaintzea, baina, euskal departamenduaren erreibindikazioari entzungor eginez segitzen du⁴

Paulo Iztuetaren aburuz,⁵lurraldetasunaren erreibindikazioa ezinbestekoa da, luzaezina, muga politiko-administratiborik ezak euskal nortasun kolektiboa zalantzan ezartzen baitu; oraintsu arte, Ipar Euskal Herrian, euskara, izan da euskaltasunaren irizpide mugatzaile nagusia, baina, gaur egun erdara ate askotatik sartu da. Frantziako Estatuak, lurraldetasuna ezezik, hizkuntza ofizialtasuna ere ukatzen dio Ipar Euskal Herriari. Europako Kontseiluak 1992ko ekainaren 24an onartu zuen Hizkuntza Gutxituen Ituna, honen 7. Atalean hizkuntza komunitateen aldeko eskubideak aldarrikatzen dira, zeinaren arabera, estatu-mugen gainetik, hizkuntza horiek errespetatu eta bultzatu egin behar baitira administrazio mailan, irakaskuntzan, unibertsitate ikerketan eta, oro har, gizarteko maila pribatuan nahiz publikoan. Itun hori izenpetzeko epea 1992ko azaroan ireki zen eta Parisko gobernuak ezinezkoa zela jakinarazi zion, aipatu Kontseiluari 1995eko urtarrilean, erabaki horrek Konstituzioan finkatutako oinarrien aurka joatea suposatuko omen lukeelako.

⁴Núñez Seixas, X. M. (1998). Movimientos nacionalistas en Europa. Siglo XX. Madril, Editorial Síntesis, s.a. : 293 orr.

⁵Iztueta, P. (1996). Intelligentsia kimatuaren orbelak. Irun, Kutxa Fundazioa.: 383 orr.

Ikusi bezala, Iparraldean, hainbeste urte demokrazian bizi eta gero ere, euskal nazionalismoak ez du oinarritzko eskaerarik lortu.

Iparraldeko nazionalismoa Frantziako demokrazia nazionalaren testuinguruan aritu izan den bitartean, Hegoaldean, lehenengo gerraurreko epean, C. Moyaren esanetan, ⁶Antzinako Erregimenaren azken atalaren testuinguruan aritu zen, nazio-estatuaren gabezia izan baitzen gerra zibilaren eragile; eta gerraosteko epean, Frankok ezarritako nazio-estatuaren testuinguran. Frankoren heriotzaren ostean, zer? Galderari honako modu honetan erantzun zion aipatu soziologoak:

... el cumplimiento institucional del Estado nacional cuyo fundador fue el general Franco: su nacionalización democrática ...Todo Estado nacional, en occidente, se ha fundado y constituido desde la victoria militar que decidió la guerra civil enfrentando a esa sociedad. Todo moderno Estado industrial sólo llega a ser definitivamente Estado nacional cuando en otra forma es la propia organización institucional que hace posible la identificación de un pueblo con el Estado que delimita su propio territorio como nación⁷. Cuando esa identidad se organiza como libertad objetiva es cuando propiamente ese Estado llega a ser plenamente un Estado nacional de derecho y, así, una democracia...la operación institucional que ahora se cataliza y acelera es la propia nacionalización del Estado nacional: su propia democratización nacional como institución objetiva de la libertad de todos los españoles. Lo que ahora llega a su fin definitivamente es la diferencia histórica entre “vencidos” y “vencedores” como condición absoluta de la realización institucional de esa unidad nacional, que es el imperativo categórico que la muerte de Franco impone a sus sucesores.⁸

⁶ Moya Valgañón, C. (1984). Señas de Leviatán: estado y sociedad industrial. España 1936-1980. Madrid, Alianza.

⁷ Espainiako nazio-estatuaren eraketa ulertzeko oso argigarria suerta daiteke J. Rojok esandakoa: “Aunque para muchas personas resulte irritante, el hecho es que este país se ha industrializado, básicamente, entre 1939 y 1959. Lo que suele llamarse el despegue de la industrialización se ha producido, en España, después de la guerra civil, no antes. Ahora bien, este proceso de desarrollo no ha sido un proceso autónomo, sino desde arriba, y arrastrado en condiciones muy desfavorables: clima de autarquía, escasez de materias primas....Llegó un momento en que hubo que establecer un pacto entre los deseos de industrialización y las exigencias de esta industrialización; este fue el Plan de Estabilización de 1959....El periodo 1960-1968 ha significado el primer ciclo industrial moderno en España (con una fase de inflación del 64 al 66 y una fase de recesión del 66-68) y ha significado la consolidación de una estructura industrial, muy deficiente, creada entre los años 39 y 59. Para conseguir, hoy, la transformación deseable, será preciso que existan unas instituciones sociopolíticas que sean algo más que una supervivencia del citado pequeño capitalismo de la fase económica anterior. El problema básico del país es, pues, el de lograr una estructura de su desarrollo económico que esté de acuerdo con las exigencias modernas de la tecnología. Un problema de instituciones que en el fondo remite a un problema de mentalidades...las instituciones sociopolíticas que tenemos responden a una fase económica anterior. Hay, pues, un creciente desfase entre nuestras instituciones sociopolíticas y la realidad económica.” Aipatua in Moya, C. (1972). “Burocracia y Sociedad Industrial”. Madrid:Edicusa: 178 orr.

⁸ Carlos, Moya (1984). Op. Cit. 215 orr.

Beraz, frankismoren ostean ez zen eraketa politiko berririk gauzatu, Espainiako nazio-estatuaren eraketan ezinbestekoa zen azken urratsa baino, alegia, nazionalizazio demokratikoa. Horretarako, behar-beharrezko zen, batetik,

garaile eta *garaituen* arteko bereizketa desagertaraztea; bestetik, gizarte klaseen arteko zein erregio/nazionalitateen arteko desberdintasunak onartu eta integratu euren antolaketa eta adierazpen ideologikoa legeztatuz.

Zentzu honetan guztiz garrantzitsuak dira Moncloan 1977an izenpetutako Gizarte Paktuak, zeinetan gobernuak, enpresariak, eta alderdi-sindikatuak adosten baitute berrikuntza sozio-politikoa. Aministia negoziatu eta alderdiak legeztatu ondoren, nazionalizazio demokratikoari hasiera ematen dion prozesua Konstituzio berriarekin burutzen da 1978an. Aipatu Konstituzioak Autonomien Estatua izenez ezagutzen den Estatu deszentralizatu bat definitzen du, azken honen egitura deszentralizatu 17 komunitate autonomoek osatuz; komunitate hauek bi taldetan banatuak izan ziren, alde batetik, nazionalitate historikoak, gerraurrean erreferendumaren bidez autonomia estatutu bat lortu zutenak: Catalonia, Hegoaldeko Euskal Herria (berriro ere, soilik hiru herrialdez osaturikoa) eta Galiza. Bestetik, beste hamalau komunitateak zeuden.

Konstituzioaren ebazpenak ez zuen biderik eskaini aldarrikapen nazionalistak burutu ahal izateko, espainiar nazioaren batasuna eztabaidaezina zen-eta:

*La Constitución se caracterizó por su ambigüedad respecto a la definición de conceptos clave. Afirmaba que España era la única nación depositaria de la soberanía, pero reconocía la existencia de nacionalidades y regiones, sin que se estableciese una clara diferencia entre ambos conceptos ni tampoco entre el de nacionalidad y región.*⁹

Konstituzioa estatu mailako indar politiko nagusien kontsentsuari esker ebatzi zen, baina euskal nazionalismoa, moderatua zein erradikala, ez zen kontsentsu horren parte izan. Horrela, 1978ko Abenduan Konstituzioari buruzko

9 Núñez Seixas, X. M. (1998). Movimientos nacionalistas en Europa. Siglo XX. Madril, Editorial Síntesis 367 orr.

erreferenduma egin zelarik, abstentzioa edota ezezko bozaren alde agertu zen. Lau herrialdeetako baten ere ez zen heldu %50era baiezko bozen kopurua.

Baiezko bozen portzentairik baxuena Gipuzkoan izan zen, %27,64; eta altuena Nafarroan, %47,15.¹⁰

Autonomia Estatutuaren erreferenduma 1979an izan zen. Estatutuak ezarri zuen, Euskal Autonomia Erkidegoa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herrialdeekin, osatzen zela, baita Nafarroarekin ere, beronek, konstituzioak ezarritako aukera baliatuz gero, halaxe erabakiko balu. 80ko hamarkadaren hasieran ere, Nafarroa eraketa autonomikoaz hornitu zen. Kasu honetan hobetsitako prozedura Foruaren Hobekuntza izan zen eta, hortaz, ez zen erreferendumik gauzatu. Foru Hobekuntzan esplizituki baieztan da Nafarroa espainiar nazioaren zati dela eta ez da inolako aipurik agertzen gainerako hiru herrialdeekin bat egiteko aukeraz.

Horrela, Euskal Herria orotara hartuta, hiru administraziotan zatitua dago eta elkarren arteko harremanak gero eta zailagoak dira eta urriagoak, baita hegoaldean ere. Egoera hori sahiesten ahalegindu da euskal nazionalismoa eta ahalegin horietan zenbait gorabehera bizi izan ditu -indar berrien sorrera, zenbaiten banaketa eta beste batzuen desagerpena ere-, batik bat, Hegoaldean.

9.1. Euskal nazionalismoaren gorabeherak Hego Euskal Herrian. (1975-1995)

Ikusi bezala, Frankoren heriotzaren ostean, nazionalizazio demokratikoari ekin zioten oposiziozko indar politiko gehienek. Indar politiko horiek, aukeratutako bidea abian jartzeko plataformak eratu zituzten, eta beraietan parte hartu zuen EAJ, baina ez ETAREN inguruko sektoreek.

ETAri dagokionez, 1974an, erdibitu egin zen. ETA politiko-militarrak zeregin guztiak bilduko zituen zuzendaritza bakarra bultzatu zuen, ordura arteko frontetan oinarrituriko egituraketa baztertu guran. ETA militarrak, ordea, borroka armatua eta politikoaren antolaketa banatu beharra ikusi zuen, eta

borroka militarra bereganatu zuen soilik, euskal langileen klasearen bermea zelakoan. Banaketaren zioak ideologikoak baino antolaketa mailakoak izan

ziren. Erakunde horiek norgehiagoka aritu arren, biak bildu ziren 1975ean osatutako Koordinadora Abertzale Sozialistan (KAS), beste alderdi batzurekin batera. KASek ezker abertzalearen xedeak ezarri zituen: independentzia, sozialismoa, euskararen ofizialtasuna eta internazionalismoa.

Bitartean, egoera ekonomikoak txarrera egin zuen. Euskal ekonomiaren sektore garrantzitsuak, siderurgia eta untzigintza, krisian sartu eta, hasi egin ziren defizit ekonomikoa eta langabezia. Krisi ekonomikoak sortutako egonezinak eta erregimenaren jardun errepresiboaren kontrako aldarrikapenek euskal gizartea erabat politizatu zuten.¹¹ Mateosen¹² aburuz,

irakidura kolektibo horrek bide eman zien erakunde armatu biei zinez uste izateko euskal gizartearen gehiengoak ez ziola erregimenaren erreforma hutsari oniritziko, eta baikortasun horrekin bat egiten zuten Hego Euskal Herriko ezker muturreko indar politikoei.

Testuinguru horretan, ETA politiko-militarra zeregin politiko eta militarra baturik eramateko erabakia hartu ondoren bikoiztu zen, arlo politikoan aritzeko EIA (Euskadiren Independentziarako Alderdia) sortuz. 1977an, lehen hauteskundeak egin zirela, jokabide desberdinak agertu ziren ezker abertzalearen baitan: batetik, EIA eta EMK alderdiek Euskadiko Ezkerra izeneko hauteskunde koalizioa eratu zuten; bestetik, gainontzeko erakundeek

10 Mateos Gonzalez, S. (2000). Euskal Nazionalismoa eta Hezkuntza Publikoa:Ikastolen publikazioa. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.: 374 orr.

¹¹ Urte haietako giroa honako modu honetan deskribatzen du Nuñez Seixas-ek: "...en el País Vasco, la primera mitad de los años setenta estuvo marcada por la virulencia de la actividad terrorista de ETA y la fuerte represión de la policía franquista, que, tras el juicio de Burgos(1970) y el asesinato del almirante Carrero Blanco en 1973 contribuyó a hacer aparecer a la organización armada como la encarnación de la "heroica resistencia del pueblo vasco contra la dictadura, lo que daño seriamente la legitimidad del Estado español en el País Vasco y preluvió la dificultad posterior en integrar al conjunto del nacionalismo vasco en el contexto constitucional español tras 1975...", Nuñez Seixas, X. Op. Cit. 359 orr. Bestelakoa da C. Moyaren iruzkina: "...la crisis de sucesión del régimen, escindiendo a la vieja clase dominante y multiplicando su masiva contestación. De ahí la inusitada espectacularidad en 1970 del juicio de Burgos contra los etarras- "héroes nacionales" por aquel entonces de toda la oposición radical española..." C. Moya (1984). Op. Cit. 211-212 orr.

¹² Mateos Gonzalez, S. (2000).Op. Cit: 370 orr.

abstentzioa proposatu zuten, oraindik, gutxieneko baldintza, amnistia, bete barik zegoen-eta.

Hauteskunde haien emaitza izan zen Parlamentarioen Asanblea. Asanblea horrek proiektu aurreautonomiko onartu zuen, eta bertan Nafarroa Hegoaldeko gainerako herrialdeekin batera agertzen zen.

Autonomia Estatutuaren erreferenduma egin artean, 1978ko Otsailean Eusko Kontseilu Nagusia eratu zen. Garai aurreautonomikoaren organo goren hura lurralde bakoitzeko hiru ordezkari osatua zegoen. Ezker Abertzaleko alderdiek haren osaketa gaitzetsi zuten, Euskadiko Ezkerrak izan ezik. Gaitzespen horren arrazoi inportanteenetako bat Nafarroa desbinkulatzeari zitzaion beldurra izan zen. Eusko Kontseilu Nagusia eratzeko lege dekretuak Hegoaldeko lau probintziak barnehartzea ahalbidetu zuen, baina parte hartzearen erabakia Nafarroako Foru instituzioen eta gainerako hiru herrialdeetako Batzar Orokorren esku utzi zen. Batzar Orokorretan baino ez zen onartu, ordea, proiektu hartan parte hartzea. Nafarroa Euskadin integratzearen kontra agertu ziren 1977ko hauteskundeetan garaile irten ziren UPN(Nafar Herriaren Batasuna) eta UCD alderdi politikoak. Arian-arian PSOE ere heldu zen integrazioa gaitzestera¹³.

1978an ebatziriko Konstituzioak espainiar estatua erregioez eta nazionalitateez osatua zegoela zioen, horiei guztiei autonomiarako eskubidea onartuz. Esan bezala, euskal nazionalismoa osoa konstituzioaren kontra agertu zen, moderatuak abstentzioa proposatu zuen, ezkertiarak ezezko botua hobetsi zuen bitartean.

¹³ Gertaera horren argigarritzat jotzen dugu Nuñez Seixasen hitz hauek: "...La apropiación y monopolización virtual del discurso nacionalista español por parte del franquismo tuvo una consecuencia adicional: la deslegitimación del discurso nacionalista español de izquierda y liberal, ..., como consecuencia de ello tuvo lugar una conversión más o menos forzada del conjunto de la oposición de la izquierda hacia posiciones federalistas, e incluso una aceptación por parte de las mismas de buena parte

Baina, konstituzioari ezetz esan arren, nazionalismo ezkertiarren baitan gero eta dibergenteago ziren EIA eta KAS en jarrerak. Urte berean, KASren barruko HASI eta LAIA alderdiek, gehi ESBk, EAEk eta euskal gizarteko

zenbait pertsona ezagunek Herri Batasuna izeneko hauteskunde koalizioa sortu zuten, 1978an. Alderdi horien arteko lotura independentziaren helburu politikoa izan zen. Laster aipatu koalizioa nazionalismo ezkertiarren erreferentzia politiko bihurtu zen. 1978 urtearen amaieran, Parlamentarioen Asanbleak Autonomia Estatutu proiektuaren testua hitzartu zuen, EEren aurkako botu bakarrarekin. HB eta KAS, ordea, ez ziren bertan. Azken hauek gerraurreko autonomia estatutuek segitutako bidea, alegia, udaletatik abiatutako prozesua, aldarrikatu zuten-eta.

1979ko hauteskunde deialdi bietan, HB aurkeztu zen lehenengoz. Hauteskunde haien emaitzen ondorioz, EAJ nagusitu zen herrialde guztietan Nafarroan izan ezik. Herrialde horretan, berriro ere, UCD, PSOE eta UPN izan ziren botu gehien lortu zutenak. Autonomia Estatutuaren erreferendumaren aurrean, HBk, EMKk eta LKIk abstentzioa proposatu zuten, gainerako indar politiko guztiak baietzaren alde agertu ziren bitartean. Abstentzioa altua izan zen: hauteseroldaren %41, 15koa; baina botu eman zutenetatik ia %90 baiezkoa izan zen. Estatutuak, beraz, hautesleriaren %53,15aren onospena jaso zuen.¹⁴

Lehen esan bezala, 80ko hamarkadaren hasieran, Nafarroa, Foru Hobekuntzaren prozedura erabiliz, eraketa autonomikoaz hornitu zen.

Urte haietan, nazionalismo ezkertiarrean aldaketa garrantzitsuak gertatzen ari ziren ere. Batetik, EIAren baitan sektore batek ezinbestekoa jotzen zuen EAJren laguntza lortu gabeko erreibindikazioak erdietsi ahal izateko, beste sektore batek alderdi komunistarengana (EPK) hurbildu beharra ikusten zuen

de las reivindicaciones políticas y culturales de los nacionalismos periféricos.” Nuñez seixas, X. (1997). Op. Cit. 358 orr.

¹⁴ Mateos Gonzalez, S. (2000) Op. Cit.: 376 orr.

bitartean. EIAk ospatutako III. Kongresuan disolbatu egin zen. Handik gutxira, partidu komunistaren sektore batekin batera *Euskadiko Ezkerra* alderdi politikoa osatu zuen. Bestetik, denbora berean, HBren eta KASen inguruko erakundeek KAS alternatiba berrezaugarritu zuten

1982an PSOEek gehiengo absolutua lortu zuen hauteskunde orokorretan. Sozialistak boterera heldu ziren krisi ekonomiko basatiaren testuinguru batean. Krisiak Euskal ekonomiaren funtsezko sektoretan -siderurgian eta untzigintzan- eragin zituen kalte gehien, langabeziaren tasak ikaragarri handituz.

F. Letamendiaren esanetan, prezeski, krisi ekonomikoa izan zen arrazoirik inportanteena EAJ eta PSOEn arteko hitzarmen politikoa gauzatzekoan.¹⁵ Aldi berean, PSOEek Europar Merkatu Batuan integratzeko bideratutako politika ekonomikoa zela eta, Autonomien Estatua berrindartzeari ekin zion. Hortaz, autonomia estatutuek espainiar batasuna bermatu behar zuten, bereizketarako ekimenak sahiestuz. Horrela, euskal gizartera etorrira, EAJri eskumen autonomikoak sakontzeko erakusten zuen jarrera anibalentea egozten zion bitartean, Herri Batasunaren kontrako politika sistematikoa burutu zuen alderdi sozialistak, erasoen helburua HB bakartzea zen-eta.

EAJri dagokionez, hauteskundeetan zehar erdietsitako arrakastak indar hegemonikoa bihurtu zuen. Halarik ere, arrakasta horrek ezin izan zuen sahiestu bere baitan gorpuzten ari zen gatazka, zeinak alderdiaren eszisia ekarri baitzuen. Eusko Alkartasuna izena hartu zuen, Garaikoetxearen gidaritzapean, eraturiko alderdi nazionalista berriak.

1986tik 1990era arteko urteetan, EAJ eta PSE-PSOEn arteko gobernu itunak iraun zuen bitartean, adostasunen eta desadostasunen muga ezker abertzalea izan zen. EAJ eta PSOEn arteko ituna gauzatu zenean HB gorenean zegoen, 1987ko Ekainean Europar Parlamenturako hauteskundeetan garaile nabarmena

¹⁵ Letamendia Belzunce, F. (1994c). Historia del Nacionalismo Vasco y de E.T.A. E.T.A. y el gobierno del PSOE(1982-1992). Donostia, R&B Ediciones.

izan baitzen. Hurrengo deialdi elektoraletan eskuratutako botu kopuruaren gorakadari gehitu behar zitzaion ETA eta PSOEn gobernuaren arteko negoziazio prozesuaren hasiera. Prozesu horrek aldaketa politiko garrantzitsuei bidea zabaltzea zekarren ezker abertzalearentzat. Prozesua eragotzia izan zen,

haatik, besteak beste, gainerako alderdi parlamentario guztiak instituzio autonomikoen markotik kanpoko negoziazio politikoaren kontra jarri baitziren.

Krisi ekonomiko latzak ezaugarritutako hamarkada izan zen 1980koa. Horrenbestez, gobernu zentrolean EAJ eta PSOE ren arteko hitzarmena arriskuan jarri zen, lehenak bigarrenari leporatzen baitziren industria berpizteko asmoz egindako aginduak bete ez izana. Berebat, auzi ekonomikoa izan zen, 1990eko EAeko hauteskunde autonomikoen ostean, EAJ eta PSE-PSOEn arteko gobernu hitzarmena gauzatzeko oztopo handiena.¹⁶ Hori zela eta, ez zen aurreko gobernu koalizioa berriro eratu; aldiz, 1991ko Urtarrilean, EAJk EEK eta EAK lehenengo koalizio abertzalea gorpuztu zuten. Iraupen laburrekoa bera, EAko zinegotziak HBk aurkeztu zituen independentziaren aldeko udal mozioekin bat etortzeak koalizioaren apurketa ekarri zuen-eta. Gauzak horrela, lehenengo alternatibara itzuli zen, EAJ-PSE-PSOE gobernu koalizioa, EEren sektore baten laguntzarekin, oraingoan.

EEK, bestenaz, krisi nabaria bizitu zuen 1991n. Hauteskundeetan jasandako porrota eta IV. Kongresu gatazkatsuen ostean, kide batzuk alderditik kanporatuak izan eta gero, EuE -Euskal Ezkerra- izeneko alderdi politiko berria sortu zuten. Euskal Ezkerrak, autodeterminazioa eskubidearen eta Estatutuaren defentsari eutsiz, EAekin osatu zuen hauteskunde koalizioa 1994ko hauteskunde autonomikoetan. Beste alde batetik, EEko sektore ofizialak, PSE-PSOekin elkartu zen. Alderdi sozialistarekin elkartzean,

¹⁶ Letamendia Belzunce, F. (1994c). Historia del Nacionalismo Vasco y de E.T.A. E.T.A. y el gobierno del PSOE(1982-1992). Donostia, R&B Ediciones: 169 eta hur.

Euskadiko Ezkerra eremu nazionalistaren aldarrikapenetatik erabat aldendu zen.

Honaino, euskal nazionalismoak bizi izan duen bilakabide politikoa aipatu epean. Alta, gure lan honen funtsezko gaia ez da deskribatutakoa, baizik eta, euskal nazionalismoak nazio-komunitatea eraikitzeari ekiten diola, ekite horren izaera generizatua agerian uztea. Dударik ez, euskal nazionalismoaren hoge

urteko ibilbide horretan genero diskursoari dagokionez ere desberdintasunak kausitzen direla. Goazen, bada, desberdintasun horien berri ematera, geroko utziz nazioa eraikitze prozesuaren ezaugarri berriak.

9.2. Genero diskurso berrien agerpena euskal nazionalismoan.

Aurreko atalean, ikusi izan dugu zenbait ideia feministaren agerpena nazionalismo erradikalaren baitan. Aipatu izan dugu ere, ideia horiek marxismoren eskutik plazaratuak izan zirela, alta, emakumeek ez zuten mugimendu egituraketarik erdietsi ez da ohiartzun politiko handirik lortu ere, abertzaleek eta langileek ez bezala.¹⁷ Horrela, 1977 urtera arte itxaron behar da mugimendu feministaz hitz egiten hasi ahal izateko -urte horretan, Euskal Herriko I. Jardunaldi Feministak antolatu ziren-eta-. Alegia, mugimendu feminista, Espainian eta baita Euskal Herrian ere, nazionalizazio demokratikoaren testuinguruan sortu eta garatu zen. Bestalde, Elizondok dioskunez, mugimendu feministaren garapenerako ezinbesteko baldintza baita egitura politiko demokratiko baten existentzia.¹⁸

¹⁷ Esandakoak ez du esan nahi emakumeek ez zutela parterik hartu frankismoaren aurkako borroka politikoetan. “ La participación de mujeres en la lucha antifranquista en en Estado Español cobró un nuevo aspecto cuando las organizaciones de oposición al régimen iniciaron una nueva estrategia de lucha, saliendo de la clandestinidad y apostando por la acción de masas; y cuando se centró la lucha por conseguir la amnistía, objetivo unificador y punto de cohesión de la alternativa que se estaba construyendo desde los partidos...en Euskal Herria la acción política colectiva y pública era protagonizada por organizaciones del movimiento obrero y/o nacionalista que posteriormente se denominaría Movimiento de Liberación Nacional Vasco...sin embargo, el criterio de sexo/género que estaba implícito en la diferenciación de acciones y posiciones de poder en las teorizaciones y prácticas de estos movimientos, no se problematizaba políticamente.” Vazquez Anton, Karmele: argitaratugabeko dokumentua.

¹⁸Elizondo Lopetegi, A. (1999). La presencia de las mujeres en los partidos políticos de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Gasteiz, Eusko Jaurlaritz: 78 orr.

Aipatu ikerlariaren esanetan, mugimendu feministaren garapenean, Espainian zein Euskal Herrian, lau epe desberdin kausitu daitezke: lehenengoa, hedatze epea, 1975-1979 urte bitartean; bigarrena, mugimenduaren zatiketa, 1979-1982; hirugarrena, mugimenduaren aldarrikapenen instituzionalizazio unea, 1982-1985 eta, azkenik, 1986an hasten dena, erribindikazioen kudeaketa administratiboa.

Lehenengo epea militantzia feministari buruzko eztabaidak ezaugarritu zuen. Bi izan ziren mahaigaineratu ziren jarrerak: batetik, militantzia bakarraren aldekoa edo jarrera erradikala eta, bestetik, militantzia bikoitzaren aldekoa¹⁹. Garai honetan, desberdintasun ideologiko eta talde anitz egon arren, feministak zenbait aldarrikapenaren inguruan biltzen ziren, alegia, dibortzio, antisorgailuen legeztapena, ordaindua den lan bat izateko eskubidea, hartzaindegien beharra bezalako gaien inguruan.

Euskal Herrira etorrita, esan bezala, Lehenengo Jardunaldi Feministak antolatu ziren 1977an. Jardunaldietan emakumeek jasaten duten zapalkuntzaren azterketa burutu zen. Halaber, jaiotzen ari zen mugimenduari bultzada handia eman zioten ere. Handik urte batera, ezker abertzalearen inguruko emakume talde batek *Fronte* egituraz baliatuz, KAS emakumeak (Emakume Abertzale Sozialista) erakunde sortu zuen 1978an. Erakunde honen diskursoa urte berean idatziriko dokumentu batean landu eta zabaldu zen, batik bat, KAS inguruko sektoreetan bildutako militanteen artean. Emakume Abertzale Sozialisten ardatz ideologiko nagusiak ondorengo pasartean irakur daitezke:

...El definirnos como mujeres abertzales y socialistas no es más que una respuesta a la triple opresión que sufrimos como mujeres, como vascas y como trabajadoras...¿Porqué abertzales? Tan natural como ser mujeres es el hecho de vivir en una comunidad determinada, con unas características específicas que la definen: lengua, territorio, cultura, etc...y asumir todos los problemas que afectan a nuestro entorno...si el objetivo de nuestra lucha como mujeres es

¹⁹Bestalde, nazioarte mailan gertaturikoaren isla baino ez zen izan, ikus: Miguel, A. de (1995) *Feminismos*: 238-241 orr. 10 Palabras claves de Mujer. Lizarra, Verbo Divino.

alcanzar la independencia(económica, afectiva, biológica...) expresión máxima de la libertad, nuestra lucha es inseparable de otro objetivo: la independencia de nuestro pueblo, económica, política, cultural, ...que posibilite nuestro desarrollo integral como mujeres vascas. ¿Porqué socialistas? No concebimos la existencia de un pueblo libre, ni de unas mujeres libres en el marco de una sociedad basada en la opresión, en la propiedad privada, en la división del trabajo por sexos, en la familia patriarcal y autoritaria, en una sexualidad reprimida y destinada a al reproducción...Tenemos conciencia del papel revolucionario de nuestras luchas de cara a la creación de una Euskadi Independiente, Socialista, Reunificada y Euskaldun, a lo que habría que añadir, NO PATRIARCAL...este carácter no patriarcal quiere decir: 1-

abolición de la división del trabajo en función del sexo.2- control del propio cuerpo.3- libre desarrollo de las relaciones afectivas y sexuales.4- participación igualitaria en la gestión económica y política de la sociedad.²⁰

Dagoeneko, Euskal Herrian diskurso feminista agerian dagoelarik, KAS emakumeek plataformako helburuei beste bat gehitu zieten, feminismoak sorturiko funtsezko kontzeptua: Patriarkatua. Alta, azpimarratzekoa da, feminismo eta sozialismoaren arteko jorraketa teorikoa feminismo eta nazionalismoaren artekoa baino sakonagoa eta landuagoa dela. Dena dela, planteamendu horiei eutsiz, emakumeen egoera zehatza kritikatzear gain, emakumeak subjektu politiko gisa ere definituak agertzen dira. Halaber, ekintza politikorako, subjektu kolektibo gisa, emakumeak antolatzeko beharraren erreibindikazio feministaz gain, antolatzeko autonomia ere bereganatu zuten KAS emakumeek:

...El encuadramiento en KAS no significa que vayamos a relegar a un segundo plano la lucha por nuestra liberación como mujeres. Al contrario, componemos un frente más en el proceso de lucha de nuestro pueblo. Por esta razón nos constituimos como grupo autónomo, no insertado en un determinado partido...²¹

Erakunde honen diskursoa ez zen publikoki hedatu. Esan bezala, KAS inguruko militanteen artean baino ez zen eman ezagutzera eta, gainera, KAS emakumeen zenbait proposamenak militante horien artean ere ez zuten eragin handirik izan, zehatz-mehatz, KASen printzipioei eta sinboloiei zegokionez.

²⁰ KAS emakumeek idatzitako koadernoan 1978an.

²¹ KAS emakumeek idatzitako koadernoan 1978an

1981ean, KAS emakumeak desagertu eta Euskal Nazioaren Askapenerako Mugimenduaren barruan AIZAN erakunde feminista sortzen da. Erakunde berri honen emakumeek aurrekoen printzipioak bereak egiten dituzte, alta, ezker abertzalearen barruan diskurso feminista esplizitua egon arren, oraindik ere, emakumeei buruzko irudi eta kontzeptualizazio desberdinak eta kontrajarriak elkarrekin agertzen dira.²² Mugimenduan izandako eragina eskasak dakar

1986an EGIZAN izeneko erakunde feminista eratzea AIZANen ordez. Berriro ere, emakumeen talde honek bereak egiten ditu aurreko erakundearen printzipioak, baina oraingo honetan, mugimenduarekiko lotura handiagoarekin, -lehengo autonomia ahulduz- haren eragiteko asmoz.²³

EGIZAN erakunde feministaz gain, Herri Batasunaren mahai nazionallean *Emakumeen arloa* izeneko sekzioa antolatu zen 1989an. Arlo honen funtzionamendua autonomoa da eta bere lana Herri Batasunaren beste arloko arduradunei aholkularitza ematen datza. Suspertzaileen presentzia erakunde honen herri batzar guztietan bermatzen saiatu da. Suspertzaileak, emakumeen arloko ardura duten militanteak dira eta euren eginkizuna bi mailatan bideratzen da, batetik, barruko egitureei begira, emakumeei dagozkien auziak planteatuz eta landuz (emakumeen partaidetza bultzatuz, prestakuntza

²² K.Vazquezek honela dio: “...los sujetos sociales objetivados en el movimiento político nacionalista y en el movimiento cultural, fueron sujetos generizados tanto en masculino como en femenino. ..Los sujetos generizados en femenino los constituían la madre del gudari en el movimiento político, y la andereño en el movimiento cultural; sujetos ligados a la reproducción de la identidad nacional en el terreno político y cultural; y por lo tanto sujetos reconocidos como específicos en la acción política pero no como sujetos políticos...1987..coexistían por lo menos dos conceptualizaciones..de un lado la que intensifica el rol de madre desde esta perspectiva política antes aludida, y que en sí misma contiene una variante del discurso tradicional, al trascender la acción social de las mujeres el ámbito de la esfera doméstica particularizada...de otro lado, ...la expresada por la organización feminista AIZAN...que hace referencia a una Euskadi libre, socialista y no patriarcal.”Vazquez Anton, Karmele: argitaratugabeko dokumentua; Gudariaren Amaren rolararen inguruan ikus: Aretxaga, B. (1988). Los funerales en el nacionalismo radical vasco, Baroja. Guk, lan honetan, kultur mugimenduaz arduratu garenez, ez dugu irudi politiko horren inguruan jorraketa burutu. ETA erakundearen genero diskursoaren inguruan ikus: Hamilton, Carrie(1999). The Gender Politics of ETA and Radical Basque Nationalism 1959-1982. Doktore tesia, London University.

²³ Gai honen inguruan, Tejerinak, B. jasotako militante baten iritzia oso argigarria dugu:” En opinión de esta activista, el medio político-social en el que se desenvuelve Egizan se caracteriza por su escasa apertura a las reivindicaciones feministas, ya que históricamente su grado de autonomía parece haber ido en sentido inverso a la incidencia del movimiento: a mayor autonomía menor incidencia y viceversa.” 96 orr. Tejerina, B.; Aierdi, X.;Fernandez, J.M. (1995). Sociedad Civil, protesta y Movimientos Sociales en el País Vasco. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

ikastaroak zein eztabaidak antolatuz)²⁴; eta bestetik, kanpora begira, ekimen eta kanpainak proposatuz erakundeak burutu ditzan.

Ezker Abertzaleak bezala, Euskadiko Ezkerra alderdiak, 1982ko hauteskundeetako egitasmoan, patriarkatu kontzeptua bereganatu eta generoen arteko botere egituraren existentzia zein beronen izaera politikoa onartu zuen. Horrela, emakumeen askapenerako bidean proposaturiko lehenengo pausoa,

familia, patriarkatuaren funtsezko instituzioa, aldatzea izan zen. Aldaketak berdintasunean oinarrituriko familia ekarri behar zuen. Ildo horretan, EEk beste aldarrikapen batzuen artean: abortoaren legeztatena doako osasun-laguntzarekin zein gizonezko eta emakumezkoen artean eskubideen berdintasun konstituzionala eskatu zituen.²⁵

Bestalde, EAJekoen urte bereko hauteskunde egitasmoan²⁶, honako diskurso hau aurkitzen dugu: emakumeen diskriminazioa aipatu eta horren ziorik garrantzitsuena tradizioaren eragin handian kausitzen da. Tradizioak, hezkuntzaren eta lan banaketaren bitartez igorria, emakumea etxeko esparruan eta lan eremuan laguntzaile gisa kokatzen du. Planteamendu horretatik abiaturik, familia politika barik sektore politika proposatzen da: hezkidetza sistemaren bitartez eskubideen berdintasuna eskuratu ahal izateko, lan banaketa sexualari amaiera emateko, baita sexuaren araberako soldata desberdintasunari ere; lehentasuna ematea emakumeen kontratazioari lan-jarduera murriztua duten eremuetan; amatasuna eta lana bateragarriak egiteko beharrekoak diren baliabideak erraztea; langabezian emakumeen langabezi tasa jeisten lagunduko duen enplegu politika bat bideratzea.

²⁴ Emakumeen arloa, HBk garaturiko Urrats Berri izeneko eztabaidarekin zer ikusia handia dauka. Elizondok dioskuen arabera, eztabaida horretan emakumeen presentzia handitzeko %30 kuotaren neurria onartu ez eta beste neurri batzuk bideratu ziren partaidetza eta presentzia hori bultzatzeko. Neurri horien artean suspertzailen figura zegoen. 157 orr.

²⁵ Informe FOESSA 1983.

²⁶ Dakigunez, alderdi honek bere emakumeen erakundea izan zuen gerraurrean, EAB. Geroztik holakorik ez du izan. 1977an bere asanblea nazionalen emakumeen diskriminazioa salatu eta gizonezkoarekiko berdintasuna aldarrikatu zuen.

Alta, egitasmo horretan, sexuen arteko botere egiturari buruz ez dago aipurik, lan banaketa sexualari zein familia antolaketa bezalako gaietara ez zaie izaera politikorik ematen. Emakumeak, gai desberdinetan familiarekin loturik agertu arren, etxeko taldeari ez erantsirik eta eskubide subjektu indibidualizatu gisa ikusten dituzte. Horrela, proposaten dituzten politikak indibidualizatuak eta, egiturazko eraldaketa barik, konpongarri diren arazo zehatzei eta partzialei dagozkienak. EAJen genero diskurso honek, bereganatzen ditu feminismoak plazaraturiko zenbait errebindikazio, berarekin erlaziorik izan gabe. Diskurso modernizatzaile honekin batera bizirik dirau emakumezkoen irudi tradizionala, euren emakumezko botu emaileen profilak erakusten duen legez. 1987an

eginiko asanblean emakumearen auziaren inguruan batzorde bat eratzea erabaki zen. Batzorde horren zeregin nagusia alderdian emakumeen partaidetzari buruz hausnartzea izan zen. Horren ondorioz, emakumeen desberdintasun egoera baieztu eta aukeren berdintasuna erdiesteko ekintza positiboaren bidea proposatu zen.²⁷

Aurrekoaren esziziotik sorturiko Euskal Elkartasuna alderdiak, bere hastapenetatik *Emakumearen Idazkaritza* izeneko arlo bat antolatu zuen, emakumeen integrazio osoa bizitza sozialaren esparru guztietan bultzatu nahian. Alta, 1989an hartutako erabaki batek, zeinaren arabera emakumeen arazoak alderdi eremu guztietan beste gaiekin batera jorratua izan behar baitziren, ezereztatu zuen. Aipatzekoa da, gure ustez, alderdi honen estatutuetan esplizituki aitortzen dela, sexu eta adinaren araberrako diskriminaziorik ez dela onartuko.²⁸

Honaino ikusitakoaren arabera, eta nabarmena bada euskal nazionalismo osoan genero diskurso berriak agertu direla, agerian gelditu da ere diskurso horien eragile eta bide desberdinak izan dituztela nazionalismo erradikalak eta

²⁷ Handik urte batera, alderdi hori euskal gobernuan zegoelarik, Emakumearen Euskal Erakundea-EMAKUNDE- sortu zen.

²⁸ Elizondo Lopetegui, A. (1999). La presencia de las mujeres en los partidos políticos de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza: 159 orr.

moderatuak. Lehenaren baitan, erakunde feminista desberdin sortu baitira eta hauek beste erakunde feministekin (Emakumeen asanbleekin) hartu emanetan egonik, zenbaitetan ere aldarrikapen komunen inguruan batu baitira. Bigarren kasuan, aldiz, mugimendu feministarekin erlazio barik, mugimendu horren zenbait erreibindikazio bereganatu eta erabili izan dituzte euren diskurso politikoa modernizatu ahal izateko. Dena dela, modu desberdinez jorraturiko genero diskurso berrien eragina, oraindik ere, gure aburuz, ikusteko dago. Zalantzarik ez, alta, emakume askorengan bai izan dutela eragin handia euren egunerokotasunean laster ikusiko dugunez.

9.3. Hizkuntza, Hezkuntza eta Generoa.

Nazio komunitatea eraikitze prozesuetan, mendebaldeko zenbait herritan, eman ohi diren pausoak: hizkuntza antzina nazio hizkuntza bihurtzea, hizkuntzaren irakaskuntza orokortzea eta alfabetatze orokortzetik hezkuntza sistema oso bat eraikitzea, izan dira ere euskal nazioa eraikitzean kontuan hartu diren urratsak, hirugarrenetik oraindik urrun eta lehenengo bietan euskal lurralde desberdinetan arrakasta maila berdina ez lortu arren. Ikusi bezala, Iparraldean euskarak ez du ofizialtasunik eskuratu; Nafarroan, eremu euskaldunetan baino ez du estatus hori; eta, euskarak lorturiko estatusa baikorragoa bada ere Autonomia Erkidegoan, ez du, oraindik, prozesu honek eskatzen duen estatusa²⁹.

Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 6.2. artikulua, hizkuntza politikari dagokionez, honela dio:

²⁹ Hizkuntzaren ofizialtasunaren inguruan honela dio P. Bourdieuk : “ La lengua oficial es la lengua que ha “triunfado”; y a partir de ahí se ha “beneficiado de las condiciones políticas de institucionales (existencia de un estado, de una burocracia, de un sistema escolar etc.) necesarias para su imposición y su inculcación.”, Bourdieu, P. (1975^a). *Le fetichisme de la langue*. A.R.R.S. 4zka. Paris. eta Mirandak diena: “La lengua oficial es siempre lengua de enseñanza y de administración, y en ello radica su diferencia con las denominaciones “lengua común” o “ lengua nacional”. La lengua oficial es una lengua bien protegida. (Aunque en la práctica se llame a veces lenguas oficiales a algunas que no son lenguas de administración, de toda la administración; ni de todo el sistema escolar o instituciones de enseñanza. P. e. los casos de catalán, euskara y gallego, que son declaradas en sus respectivos “Estatutos de Autonomía” lenguas oficiales, sin que paradójicamente dicha “oficialidad” tenga que ver con lo que normalmente se entiende por “uso oficial” es decir práctica habitual de la “autoridad” y en los actos “autorizados”.) Miranda de Benito, B. (1988). *La lengua. Representación y práctica*. Madrid, Universidad de Complutense de Madrid.: 290-291 orr.

1. El euskera, lengua propia del Pueblo Vasco, tendrá, como el castellano, carácter de lengua oficial en Euskadi, y todos sus habitantes tienen el derecho a conocer y usar ambas lenguas. 2. Las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma, teniendo en cuenta a diversidad sociolingüística del País Vasco, garantizarán el uso de ambas lenguas, regulando su carácter oficial, y arbitrarán y regularán las medidas y medios necesarios para asegurar su conocimiento. 3. Nadie podrá ser discriminado por razón de lengua.

Elebitasun politika abiarazten duen arau horrek anbiguotasun handiak erakusten ditu. Alegia, euskara *euskal lurralde osoaren* hizkuntza dela esaten da, alta, euskara ezagutzeko eta erabiltzeko *herritarren eskubidea* baino ez du onartzen *betebeharrik* ebatzi gabe. Horrela, hizkuntzaren ezagutza eta erabilera

norbanakoen eskubide maila hutsean uzten da. Planteamendu honek, esan bezala, elebitasuna soziala du helburu. Baina, zer ulertzen da gizarte elebitasunaz? Soziologian, gizartea, lurralde zehatz bateko giza taldeen oholta instituzional gisa ulertzen da. Beraz, elebitasun instituzional ezagutzen zaion gizarteari gizarte elebitasunaz hitz egin ahal da. Alegia, gizarte bat elebiduna da bere instituzioak elebidunak badira. Gizarte baten instituzioek bere zerbitzuak bi hizkuntzetan eskaintzen badizkie herritarrei, gizarte hori elebiduna da:

...el Estado no es bilingüe porque sus ciudadanos lo sean; es bilingüe porque como Estado, funciona en más de una lengua: lo cual permite a sus ciudadanos funcionar sólo en una..³⁰

Hortaz, gizarte elebidunaz hitz egin ahal dugu, gizarte horretan elkarrekin bizi diren hizkuntza komunitate desberdinei legeek zein instituzioek elebakarrak izateko eskubidea bermatzen dietelarik.³¹ Hizkuntza auzian, beste auzi askotan bezalaxe, ez dago norbanakoen eskubiderik ez bada kolektibitate edo komunitate eskubideen jariadura gisa. Beraz, elebitasun sozialaren kontzeptuak ez dakar gizabanako elebidunen existentzia maioritarioa gizarte zehatz batean,

30Miranda de Benito, B. (1988). La lengua. Representación y práctica. Madril, Universidad de Complutense de Madrid.: 324 orr.

31 Esaterako, Suitza eta Belgika, non, hizkuntza politika promulgatua izan baita, ez elebitasuna bultzatzeko, baizik eta, batik bat, hizkuntza talde desberdinen identitatea bermatzeko.

honen baitan bi (edo gehiago) hizkuntz komunitate elebakarren existentziaren posibilitatea baino.

Autonomia Erkidegora etorrira, duen botere mugatua dela eta, euskararen ofizialtasuna ez da benetakoa norbanakoen hizkuntz eskubidean sustatzen baita. Horrela, hizkuntza ofizial bakarrak, gaztelaniak³², euskararen ezagutza eta erabilera gutxitu egiten du. Gutxitze prozesu horri, hizkuntzaren soziologian *diglosia* deitzen zaio. Egoera diglosikoa, komunitate batean hizkuntza aldaketa egoera bat da beti, eta gainera, aurreikusitako norabide batean. Hizkuntza bat

orokortzen, zabaltzen, hiztunen kopurua handitzen den bitartean, bestea espazioan eta hiztunen kopuruan atzera egiten du, gutxitu eta hil egiten da.

Euskararen gutxitze prozesu hori geldiarazi guran, EAEko administrazioak aipatu legea aplikatuz, zenbait neurri eta bitarteko bideratu ditu, *euskararen normalizazio* izeneko prozesua³³ abiaraziz; alegia, euskal hiztun kopuruaren hazkuntza eta geografikoki euskararen hedapena prozesu horren xedeak izanik. Xede horiek erdietsi bidean aurrerapauso garrantzitsuak emanak direla ukaezina da Baxokek azaltzen duenez:

Soziolinguistika-ikerketak bi ohar eginarazten dizkigu, bata lazgarria eta bestea itzaropentsua. Ohar lazgarria da Iparraldean euskarazko gaitasuna gain behera doala. Ohar pozgarria da hegoaldean euskara behetik gora doala bizitasun handiz. Hemen zaharrago eta euskaldunago garelarik, han gazteago eta euskaldunago dira. Bigarren egoera honek itzaropen handia ematen digu euskararen geroa.

Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera

	Adinekoak 65 urte eta gehiag	Helduak 35-50	Gazteak 16-24	Gaztetxoak 15 urte eta gutxia	Orotara
Iparralde	37	27	11		26,4

³²Gaztelania ezagutzeko eta erabiltzeko betebeharrak Espainiako estatuak bermatzen baitu. Gai honen inguruan, Baxokek, honela dio: "Euskal Autonomi Elkartearen eskubidezko izaite publikoa dauka, gaztelarekin batean ofizialtasuna baitu. Ez osoki hein berean: herri hizkuntza nahikoa da, estatu hizkuntza beharrezkoa delarik." 21 orr. Baxok, E. (1997). "Soziolinguistikazko inkestaren irakaspene batzu." BAT. Soziolinguistika aldizkaria 22/23 zka.: 15-27.

³³Alta, I. Larrañagak *Normalizazioa ez dela elebitasun soziala* dio 1990ean BAT aldizkarian egin zioten elkarrizketa batean. Uria, I. Z., J. (1990). "Iñaki Larrañagarekin elkar hizketa: "Normalizazioa ez da elebitasun soziala"." BAT. Soziolinguistika eta Glotopolitika aldizkaria 1. zka.: 51-73.

Euskal nazioa eraikitze prozesu generizatua trantsizioaldia
325

EAE	29	21	33	45	25,3
Nafarroa	10	9	11		9,6

Zenbaki hauek irakaspena ematen dizkigute.

Herri hizkuntzaren beherakada ez da ezinbestekoa, ez da fatalitate bat.

Neurri eskasak hartzen direlarik, gauzak doazen bezala utziz, gainbeherak jarraitzen du, Iparraldean gertatzen den bezala.

Hizkuntza politika orokorra antolatzen delarik arriskuan diren hizkuntzen garatzeko, ondorio miresgarriak agertzen dira. Nabari da Euskadi

Autonomoan, 21etik 33ra eta orain 45era igaiten delarik euskaldunen kopurua. Gauza bera Nafarroan neurri txikiagoan...

...Adinak ikusiz, esan dezakegu hegoaldean eskolak eman diola euskarari garapenaren bihurtunea.³⁴

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaria, M. K. Garmendia, baikor agertu zen hamar urteko balantzea egiterakoan³⁵ bat etorriz, oro har, Baxokek, bost urte beranduago egindakorekin. Alta, aurrerapausoak ebaluatzerakoan ez dira danak hain baikor agertzen:

Baina urratsik eman dela eta, hortik baieztatzea jadanik sartuta gaudela euskararen berreskurapena ziurtatuta legokeen normalizazio-prozesuan, esperantzak debalde saltzea dela iruditzen zaigu. Gobernu-arduraduna 1989an berak eginarazitako azterketa demolingüistikokoan oinarritzen da, zeinetan, daturik positiboen gisa, konstatatzen baita, batetik, hamar urteko epealdian (1981-1991) euskaldunen kopurua 100.000ko hazkunde izan duela eta ia euskaldunenak, berriz, 99.000koa eta, bestetik, hazkunde hori gehienbat Araban eman dela eta oro har gazterian. Hemendik datozke ziurtasun esperantzak.³⁶

³⁴ Baxok, E. (1997). "Soziolingüistikazko inkestaren irakaspén batzu." BAT. Soziolingüistika aldizkaria 22/23 zka: 18 orr.

³⁵ Garmendia, M. K. (1992). "Euskal Kultura 1992." JAKIN 73: 45 orr.

³⁶ Iztueta, P. (1996). Intelligentsia kimatuaren orbelak. Irun, Kutxa Fundazioa.: 388 orr.

Ikerlari horrek, optimismo hori gehiegizko ote delakoan frogatu guran, 1991an Euskal Herri osoan eginiko I. Soziolinguistikazko inkestaren emaitzak aurkezten ditu: oraindik, 16 urtetik gorako euskaldun funtzionalak, %22,38 baino ez dira, honela banatuta Bidasoaz alde bietan: Iparraldean %34,22 eta Hegoaldean %21,28. Neurketa horretan nola ez diren zenbatzen 16 urtetik beherakoak, ez dago jakiterik euskaldun kopuru zehatza zein den. Are gehiago, zio hori dela eta, 1970eko datuekin erkatzeko erreferentzia baliokiderik ezean, ezin zehaztu euskal hiztun funtzionalek, beti proportzioan, atzera ala aurrera egin duten.³⁷Hegoaldean, data hartan, %23,63koa izan euskaldungoa eta

Iparraldean %35,97koa. Kopuru absolutuetan ere apalagoa da: 1971n, 632.301 euskaldun, eta 1991n, berriz, 505.190 euskaldun 16 urtetik gorakoak, hots, 127.111 gutxiago.

Bestalde, hau ere esan beharra dago, zenbaketa honetan ez dira sartzen euskaldun hartzaileak, guztira, 174.010 direnak, hots, guztizko kopuruaren %7,71. Hauek ingurune erdaldunetan bizi dira eta erdara erabiltzen dute, baina hamarretik lau kasutan, hots, %38an, beren seme-alabek euskaraz badakite.³⁸ Datu nahasgarritasuna edo erkatze ezintasunaren adierazle dugu honako taula hau aipatu iturriak erabiliz eraiki duguna:

	Biztanleria eta euskaldungoa:1970	Biztanleria eta euskaldungoa, 16 urtetik gorakoa1991	Elebidunak eta ³⁹ (erdal) elebidun hartzaileak, 15 urtetik gorakoa 1996
--	-----------------------------------	--	--

³⁷ Neurketen kontzeptuen arteko baliokidetzaz ezaz, eta horren ondorioz epe desberdinen arteko datuen erkaketaren zailtasunaz, X. Isasik honela dio: "Euskaldunen zenbaketa masiboa eta azterketa estatistiko sakonak egitea Euskal herrian gauza nahiko berria da. Gure ustez, bi argitalpenek markatzen dute aro berri honen hasiera: *Euskararen Liburu Zuria* eta *Euskararen Borroka*. Biak 1978koak. Horien ostean, zentsuak (1981 eta 1991) eta Udal- Erroldak (1986 eta 1996) **egoera soziolinguistikazkoari buruzko datuen iturburu ofizialak** bihurtu dira...Itxuraz, sarri askotan datuak biltzea helburu bihurtu da, zertarako edo nola erabili behar diren jakin gabe. Informaziorik ez izatetik informazio gehiegi izatera heldu gara. Zenbait alferrikako, asko erredundante eta guztia **bateratasun metodologiko eskasarekin.**" in Isasi, X. (1997) Euskarak iraun. In BAT soziolinguistika aldizkaria.22/23 zka. 30-31 orr.4Isasi, X. (1997). "Euskarak iraun." BAT.soziolinguistika aldizkaria 22/23: 30-31.

³⁸ Iztueta, P. (1996).Op. Cit. 389 orr.

³⁹ X. Isasik lehen aipatu artikuluan kategoria horri egindako zuzenketa., ikus Isasi, X. (1997). Op, Cit. 32-33 orr.

Herrialdeak	Biztan./ Euskald.%	Biztan./ Euskald.%	Elebidunak/hartzaile.	
Iparraldea	218.099 /78.453 %35,97 (1968)	192.000/65710 %34,22	%25,7	%9,3
Nafarroa	464,867/53.340 %11,47	400.000/38200 %9,55	%9,4	%9,8
EAE	1.878.636/ 500.508 %26,64	1.665.000/401.280 %24,1	%24,7	%16,3
Euskal Herria	2.561.602/632.301 % 24,68	2.257.000/505.190 %22,38 hartzaile:182.700 %8	% 22	%14,5 352.900 Biztan. 2.428.100

Dena dela, datu hauen aurrean, baikor zein hain baikor agertzen ez direnak bat datoz honako baiezenarekin: orotan euskara gutxiengoan dago. Eta aurreko lerrootan esan bezala, diglosiak hizkuntza indartsua indartzen du eta ahula

ahultzen. Beraz, hizkuntza borrokak jarraitzen du gure herrian eta euskararen garaipena, oraindik, ez dago segurtatua⁴⁰.

EAera etorrira, euskararen aldeko kolektiboek⁴¹aipatu egoera horretaz jabeturik, administrazioaren jarrera epeltzat jo dute. Horrela, administrazio autonomikoen legeriari eta jardupide orokorrari gabezi handiak atzematen zaizkie. Kolektibo horiek indar politiko abertzaleek euskararen defentsaren aldeko jarrera sinbolikoa⁴² baino ez erakustea kritikatu dute ere.

⁴⁰ No hay diglosia sin conflicto...La diglosia es conflictiva porque es una etapa transitoria, en desequilibrio cada vez más acentuado, y por ello más visible y más dramático hacia el monolingüismo en "otra" lengua; y porque son personas reales quienes la sufren...Una situación de "bilingüismo social"no diglósico, sólo es pensable en aquellas sociedades cuyas diferentes comunidades lingüísticas estén bien definidas territorialmente; es decir, cuyas diferentes comunidades lingüísticas ocupen territorios diferentes, y su fuerza, demográfica, económica, política, etc.. dentro de esa organización política sea equilibrada o garantizada legalmente su "integridad". In Miranda, B. (1987). Op. Cit. 309-310 orr.

⁴¹ Euskararen aldeko kolektibo desberdinak egon dira epe desberdinetan.Bai garai batean zein bestean hikuntzaren auziaz, aspalditik arazo gisa identifikatua egon arren, ulermen zehatz bat gizarteratu dute, hau da, hizkuntza arazoaren inguruan definizio bat plazaratu izan dute. Horrela, frankismoaren garaian "Hizkuntzaren arazoa" gatazka marko batean kokatzen zen, gatazka politikoaren testuinguruan. Gai honen inguruan ikus Larrinaga, A. (1996). "Diskurtsoaren interpretazio markoak." Inguruak. 15: 161-164.

⁴² Hizkuntza ikur gisa soilik erabiltzeak ez lioke behar besteko garrantzia emango euskararen belaunaldien arteko transmisioari, hizkuntzaren ikasketari eta hobekuntzari, transmisio hori kolokan jarriz eta horrela hizkuntzaren biziraupena bera.

Izan ere, alderdi politiko nazionalistak, hizkuntza politikoaren inguruan, hizkuntza gatazka saihesten ahalegintzen dira. Horrela, Mateosen esanetan:

...den-denek, salbuespenik gabe, onartzen dute malgutasuna eta gradualtasuna baitezpadako direla euskararen berreskurapenari begira, inor uxatzearen beldurrez. Halako moldez, non, esan bailiteke elebitasuna ala elebakartasuna helburu bezala hobestea dela alderdi politikoaren arteko diferentzia nabarmenena⁴³.

Bestalde, mugimendu euskarazaleak hizkuntzaren problema marko ez politiko batean kokatzeko ahalegina egin du⁴⁴. Egoera berriari egokituriko diskurtso eraberrituaz hitz egiten digu A. Larrinagak⁴⁵. Proiektu politikoetatik at dagoen kultur eremu autonomoa eraiki gura izan da euskara ardatzat hartuta, uste baita beronen inguruan estrategia politikoaren gainetik legokeen adostasun sozial emankorra lor daitekeela normalkuntza bidean. Hizkuntz

normalkuntza aldaketa proiektu sozio-politikoetatik-nazio proiektuetatik-bereiztua dagoen prozesua dela onartuz, hizkuntza eta nazioaren arteko loturaren abstrakzioa egiten da, jarrera alderdikoiak lortu beharreko kontsensu sozialaren kaltetan joan ez daitezten. Makroproiektuetatik egunerokotasunaren mikroesparruetara jaisten den mugimendua dugu oraingoan, hortixek abiatzeko tokian tokiko euskaldungoaren artikulazio eta batasunerantz. Horrela, hizkuntza normalkuntzaren erantzukizuna hizkuntza komunitateari utziz.

Alta, aipatu ikerlariak berak dioskunez, ezin genezake pentsa aktore sozialek gizarte hutsunean dihardutenik. Mugimenduak espazio historiko, gune objektibo batean ari dira egintzan; gune horretako instituzioek osatzen duten eszenatokian, instituzio horiekin eta beste aktore sozialekin izandako harremanetan eta elkarrekintzatan, arituko da mugimendua. Berarekin bat

⁴³ Mateos, S. (2000). Op. Cit. 424 eta hur.

⁴⁴ Arrazoiaren artean, mugimenduak berezkoa duen oinarri sozialaren hau da, mundu nazionalistaren zatiketa eta egitura instituzionalak ezarritako zatiketa administratiboa zein legediaren mugak ditugu.

⁴⁵ Larrinaga, A. (1996). Op. Cit. 164 eta hur.

letozke, boterearen abstrakzioa eginez euskara salbatzetik urrun gabiltzala dioten ahotsek.⁴⁶

*Hizkuntza eskubideen zaintzeko (eta beste eskubide askorentzat), herriak hartzen du bere nortasuna agertuko duen botere politikoa eta arduraren administratiboa. Herritar soilak ahul dira erakunde publikoen aurrean...Alde hortatik ere ulergarri da Euskal Departamenduaren eskaera. Eta hizkuntza eskubideen zaintzeko ez dugu nagusitasun osoaren zain egoterik. Gure herri guztia noiz estatu oso bilakatuko den, hori beste maila bateko auzi politikoa da. Historian zehar, **herri hizkuntza anitz berpiztu dira autonomia pixka bati esker, Finlandian, Quebecen, Katalunian, Flandrian.**⁴⁷*

Baxokek, esandakoaren froga gisa, Hegoaldean eta, batik bat, Euskal Autonomia Erkidegoan eskolak euskararen gainbehera historikoari ezarritako balaztaz hitz egiten digu. Baina, hori guztia berak dioen bezala, trantsizioaldian Espainiako Autonomi Estatuaren egiturak utzitako botere maila desberdinetako zirrikitoen ondorioa izan bada ere, ezin dugu gutxiestu, aurreko hamarkadetan euskal gizarteak buruturiko ekimena: ikastolen mugimendua.

Ezin ahantzi, ikusi bezala, 1970eko hamarkadan ikastolek bizituriko hazkundeak, ikastola oinarrizko irakaskuntza sare paralelo sendo gisa agertzea ekarri zuela. Baina, sare gisa, eraketa aurreautonomikoko Eusko Kontseilu Nagusiak, 1979ko urrian, onetsiriko *Ikastolen Titularitate Publikoaren Arautegiak* eratu zuen. Izan ere, arautegi horri esker, ikastola gehienak zentro publiko bezala aritu ziren -juridikoki, 3. sare bat osatu arren, ikastetxe *publiko ez-estatal* bihurtu ziren-eta-.

Autonomia Estatutua indarrean jarri eta EAEko hezkuntza sistema eraldatzeari ekin zion nagusitasun politikoa zeukan alderdiak, EAJk. Estatutuaren 16. Artikuluak unibertsitetez besteko irakaskuntza arautzeko Jaurlaritzari emandako gaitasunari eutsiz, batetik, eskola publikoa eraberritzeari ekin zion elebitasuna ezarriz, eta, bestetik, ikastolari marko juridiko egokia eskaini

⁴⁶ Iztueta, P. (1993); Odriozola, J. M. (1992b). "Normalizazioaren filosofiaz: euskal pentsakera soziolingustikari ohar kritikoak." Larrun 14: 19-28.

guran, EIKE(Euskal Ikastolen Erakundea)izeneko proiektua bultzatuz. Lehenengoari dagokionez, ezaguna da, 1983ko oinarritzko mailetako euskarazko eta euskararen irakaskuntzaren arauketak, ezarritako elebitasuna euskara eta gaztelania derrigorrezko irakasgai ezarri ziren unibertsitatez besteko hezkuntza maila guztietan, eta irakaskuntza elebiduna A, B eta D ereduaren arabera sailkatu zen. Bigarrenari dagokionez, EIKE lege proiektua, 1983an, EAJren botuekin onartu zen Eusko Legebiltzarrean. Haatik, gobernu zentralak errekurtsioa jarri zion Konstituzioaren aurkakoa zelakoan, eta indargabeturik geratu zen. Handik hiru urtera, 1986an, Epaimahai Konstituzionalak arrazoia eman zion Eusko Jaurlaritzari, baina legea ez zen inoiz praktikan jarri. Bitartean, Espainian 1985ean, ebatzi zen LODE hezkuntza legea. Lege horrek Espainiaren hizkuntza eta kultura ugartasunarekiko begirunean hezi beharra ezarri zuen, eta autonomia estatutuetan hezkuntza eskumenak onarturik zituzten erkidego autonomiei ahalmena eman zien legearen edukiak gara zitzaten. Gobernu zentralari egokitu zitzaizkion, alta, titulu akademikoak ematea eta homologatzea, Ikuskaritza Gorena, eta estatu osoko irakaskuntzaren oinarritzko

ereduak ezartzea. Horrez gain, aipatu legeak hiru ikastetxe mota bereizten zituen: publikoak, pribatuak eta pribatu kontzertatuak (hots, jabetza pribatukoak baina dirulaguntza publikoaz hornitua). Orduetik aurrera, ikastolek lege horrek ezarritako *ikastetxe pribatu kontzertatu* gisa jardun zuten, baina egoera atipikoa bere hartan segitu zuen, nola edo hala, hirugarren sare bat osatzen jarraitzen zuten-eta. Egoera horretan segitu zuten 1987ra arte. Urte berean EAJ eta PSE-PSOEren arteko lehenengo gobernu koalizioa osatu zen. Hezkuntza saila alderdi sozialistaren R. Rekalderen esku gelditu zen, eta honek Ikastolen Elkartarekin hitzarmen bat sinatu zuen. Hitzarmen horren ondorio 1988ko *Ikastolak eta Herri-Eskolak* biltzeko legearen ebazpena izan zen. Azken lege honen bi abiapuntu izan ziren, batetik, orduko hiru hezkuntza sareak kontuan harturik, sare publikoa eta pribatu bakarria osatu beharra; eta, bestetik, ikastola gehienak ikastetxe publiko bilakatu nahia baieztu izana.

⁴⁷Baxok, E. (1997).Op. Cit. 22-23 orr. azpimarratua guk egina, zeren eta, idazleak berpizteaz eta ez salbatzeaz hitz egiten baitu.Baxok, E. (1997). "Soziolinguistikazko inkestaren irakaspen batzu." BAT.

Hezkuntza eremua sare bitan birrantolatzea, hartara, sare publikoak eta ikastola sareak bategiteko prozesuan zetzan, emaitza *Euskal Eskola Publikoa* izaki. EAEko ikastolen %90 bat egokitu zen lege honen esanetara, 1990ean; eta, gainerakoak ikastetxe pribatu edota pribatu kontzertatu bezala aritu ziren handik aurrera. 1992ko agintaldian, berriro ere, EAJ eta PSE-PSOeren arteko gobernu koalizioa gauzatu zen. Aurreko legealdian bezala, Hezkuntza Saila PSE-PSOeren ardurapean gelditu zen. F. Buesak sailburuak eginkizun nagusizat hartu zuen EAEko hezkuntza sistema arautuko zuen legea aurrera ateratzea. Xede horrekin adostu zuten hiru alderdi politikoek *Eskola Itunerako Akordio Politiko* 1992an. Dokumentu horrek iragarritako bidea hurrengo urtea bete zen, 1993ko Otsailaren 19ko *Euskal Eskola Publikoaren Legearen* ebazpenarekin⁴⁸

Nafarroan oso bestelakoa izan da hezkuntza eremuan gertatu den aldaketa. Hango gobernuak 1990ean eskuratu zituen hezkuntza eremua arautzeko eskumen guztiak. Bitartean, alabaina, foru erregimenak aurrekontuak kudeatzeko nolabaiteko ahalmena ematen zion, eta horrek hezkuntza politika

berezia burutzeko aukera ekarri zuen. 80ko hamarkadaren hasierara arte, gehienbat, ikastolei eta gaueskolei dirulaguntzen politika apal bat baino ez zen izan. Horretaz gain, sare publikoan zenbait euskarazko eskolak ematen hasi ziren 1979tik aurrera, baina urriak izan ziren. Gainera, makina bat oztopori aurre eginez garatu behar izan ziren. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren egoera aldatu zuen 1988ko Maiatzean ebatzitako foru dekretu batek, zeinak hiru hizkuntza eredu ezarri baitzituen ikastetxe publikoetan zein pribatuetan. Baina, 1986ko Euskararen Foru Legeak zeharo baldintzatu zuen aipatu araua. Lege horrek nafar lurraldea hizkuntza eremu ezberdinetan sailkatu zuen, eta banaketa hari jarraiki, euskarak irakaskuntzan eduki zezakeen lekua ere arautu zen. Hala, eremu euskaldunean hautazkoa da irakaskuntzaren hizkuntza, eta derrigorrezko ezartzen du euskarazko irakaskuntza jaso duen

Soziolinguistika aldizkaria 22/23 zka.: 15-27.

⁴⁸ EAEko ikastolen publikazioaren inguruko gatazkaz ikus: Mateos, S.(2000). Op. Cit.: 490-589 orr.

ikaslea, oinarrizko eskolatzea amaituta, gaztelaniaz zein euskaraz trebaturik egotea. Ereku mistoan, ordea, ez da argi azaltzen hizkuntza hauturik egin daitekeenik; bai, ordea, euskara apurka-apurka irakaskuntzan hedatu beharra eta, halaxe eskatuz gero, euskarazko lerroak zabaltzea irakaskuntza mota hori eskatzen dutenentzako. Honekin batera, hautazkoa da euskararen irakaskuntza. Ereku erdaldunerako, aldiz, aipatu ere ez da egiten euskarazko irakaskuntza garatzeko aukerarik, eta horrek erakusten du irakaskuntza horrek ez daukala babes ofizialik. Euskara irakastea baino ez da ahalbidetzen, betiere eskariaren arabera.

Urte askotan zehar, ikastolak euskaraz jardun duten ikastetxe bakarrak izan dira. Gaur egun, hiru hizkuntza eremuetan hedaturik daudenez gero, ikastolen gain dago eremu mistoko eta, batez ere, eremu erdalduneko euskarazko irakaskuntzaren ardura. Ikastola eta ikasle kopuruari begira, 70 eta 80ko hamarkadetan zehar hazkuntza esanguratsua erakutsi dute, ikastola kopuruari begira, aldiz, jeitsiera nabarmena izan da. Jeitsiera hau eremu euskaldun eta mistoetan gertatu da eta, badirudi, arazo ekonomikoak izan direla desagerpen horren eragile nagusia. Gertaera horren bigarren fasea ere badago, 1985ean hasten dena, nafar gobernuak ikastolen egoera juridikoa normalizatzeari ekin ziolarik. Gobernuaren proposamenaren funtsa ikastola txikiak eremu euskalduneko hamabost eskola publikoko D ereduarekin bategitea zen, eta

eremu erdalduneko sei ikastola eskola publikoan integratzea, euskara irakasgai bezala bermatuko zitzaaien konpromisoarekin. Horrez gain, hiru ikastola handi - alegia, bideragarri zirenak- eskola publikoarekin bategitea hobesten zen, tokian tokiko euskarazko irakaskuntzaren legeriaren esanetara egokituz. Gainerakoek, azkenik, ikastetxe pribatu kontzertatu gisa aritu behar zuten.

Horrela, eremu euskaldun eta mistoetako egungo ikastolak ikastetxe kontzertatu gisa aritzen dira, irakaskuntza pribatuari dagokion finantziario mota berberekin. Baina eremu erdalduneko ikastolen jarduna latza da. Horren adierazle da beraietako batzuk, dagozkion baldintzak betetzen dituzten arren, oraindik ere, legezatu gabe daudela. Izatez, 1990era arte, laguntza

administratiborik gabe jardun zuten; urte horretan, Nafarroako parlamentuak - Hizkuntza Politika Zuzendaritzaren bidez- urtero eremu erdalduneko ikastolei dirulaguntza bideratzea onartu zuen, sare pribatuko gainerako ikasteetxeekin erabiltzen ziren modulo berberak erantsiz.

Bestalde, Iparraldean, frantsesez besteko hizkuntzen irakaskuntza arauketa 1951ko *Deixonne Legea* ebazpenarekin gauzatu zen. Bertan, ordutegi arruntetik at, ikasleen zein irakasleen borondatetik abiatuak lehenengo euskarazko eskolak antolatu ziren. 1982ra arte, eta berriro ere ikasleen borondatepean, ez zitzaion euskarari-estatuko frantsesez besteko hizkuntzei legez-irakaskuntzaren baitako estatus ofizialik onartu. Lehen esan bezala irakaskuntza euskalduntzeko lehen erreibindikazioak *Ikasen* eskutik etorri ziren. 1959an sorturiko elkarte honek Iparraldeko bestelako kultura erakundeen jaiotza eragin handia izan du, hala nola, Udako Euskal Unibertsitatea eta AEKrean. *Ikasek* euskal irakaskuntzaren alde egindako aldarrikapenak ohiartzun zabala eduki bazuten ere, erakunde horrek ez zuen hezkuntza ekimenik gauzatu. Ahalegin hori *Seaskak* eta geroago *Ikas-Bik* bideratu dute.

Iparraldeko lehen ikastola 1969an sortu zen, izaera legala zuen *Seaska* erakundearen babesean. Ordutik aurrera, zabalduz joan dira ikastetxe berriak, eta unibertsitate aurreko maila guztiak ezarri dira. Iparraldeko haur

eskolatuetatik, ikastolari dagokion portzentaia txikia bada ere, hazkundera etengabea izan da, aurki ikusiko dugunez. Ipar Euskal Herriko ikastolak Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen baitan integraturik daude.

Esan bezala, *Seaskaz* erakunde legal bezala sortu zen, eta ikastola, berriz, legala izan barik, toleratua izan da. Denbora pasatu ahala, irakaskuntza pribatuko estatusa jaso du ikastolak, baina, frantziar hezkuntza sistemaren antolamenduaren ezaugarriak direla eta, estatuaren ardurapean gelditu da, neurri handi batean bederen. Horren ondorioz, irakaslearen lan baldintzez - soldataz, lanaldiaren zehaztapenez eta abarrez- Hezkuntza Nazionaleko

Ministerioa arduratzen da, gainerako ikastetxe pribatuetan bezalaxe. Honekin batera dator ministerioak berak baimendu behar izatea ikasgela berrien -edota ikastola berrien- irekiera, indarrean dagoen irakasle/ikasle *ratioen* arabera. Ikastolako irakasleak, beraz, estatu langile bilakatzen ari dira, apurka-apurka, eta ikastolak ez dauka irakasle lanpostu berririk sortzeko autonomiarik. Hau guztia, Seaska eta Hezkuntza nazionalaren arteko etengabeko negoziazio eta ondorengo Hitzarmenen gauzapeanaren ondorio izan da.

Arestian esan bezala, 1982an euskarak estatus ofiziala jaso zuen Iparraldeko hezkuntza sisteman, eta handik etorri zen, 1986an, Ikas-Bi, eskola publikoetako gurasoen elkarte. Saio hark nahiko arrakasta eskuratuz denbora laburrean: 1989an, esaterako, eskolatutako haurren %2,1ak ikastolan ikasten zuen, eta %2,4ak eskola elebidunetan. 1997/1998 ikasturtean, berriz, lehen hezkuntzako ikasleen %5a ikastolan zegoen, eta %7,8a eskola publiko elebidunetan. Hala ere, Hegoaldean ez bezala, Iparraldean ikastolak baino ez du helarazten euskara hutsezko irakaskuntzarik.⁴⁹

Beraz, ikusitakoaren arabera, ikastolak berebiziko garrantzia du Iparraldean zein Nafarroako eremu misto eta erdaldunetan; Euskal Autonomi Erkidegoan, berriz, eskola publikoetako D eredu bere lehiakide bihurtu da, eta hala ere, ikastolen ikasleen matrikulazioak egonkortasun handia erakusten du, ikastola, hezkuntza ekimen sendo eta finkatu gisa aurkeztuz:

Ikastoletako ikasle kopuruaren bilakaera

	Gipuzkoa	Bizkaia	Nafarroa	Araba	Iparraldea	Euskal Herria
1979/80	34.733	16.136	4.909	4.277	474	60.529
1981/82	39.128	19.107	5.727	5.509	564	70.035
1989/90	35.772	21.296	9.684	4.104	1.632	72.488
1992/93	38.036	23.274	4.939 ⁵⁰	4.498		

Iturria⁵¹

⁴⁹ Mateos, S. (2000). Op. Cit. : 360 orr.

⁵⁰1990/1991 ikasturtean, ikastola txiki batzuk, aurrera jarraitu ezinik, sare publikoan integratu dira(eskualde euskalduneko herri txikiak) Noya, (1993:112orr.)

⁵¹Basurko, F. eta Iztueta. P. bil. (1993). Euskal Eskola Berria. Donostia, EHUko Hezkuntza eta Teoria saila.: 150 orr.eta EUSTAT.Irakaskuntzaren Estatistika. Gasteiz, Eusko jaurlaritz.

EAEko irakaskuntzan ikastolen hazkundera moteltzen bada ere, ez da gelditzen:

Irakaskuntza izaeraren arabera ikasle kopuruaren bilakaera EAEn

	Guztira	Publikoak	Ikastolak	Pribatuak
1987/88 ika	511.188	250.964 %49,09	70.662 %13,82	189.562 %37,08
1992/93 ika	433.550	198.536 %45,79	65.808 %15,17	169.206 %39,02

Iturria:⁵²

Ez da hori Nafarroan gertatzen dena, lehen esan bezala, eta beherago ikus daitekeenez:

Ikastolek eskolatutako ikasleen portzentaiak Euskal Herrian

	EAE	Nafarroa	Iparraldea
1987/88 ikastu	%13,82	%6,8	%2,1
1992/93 ikastu	%15,17	%3,4	%5* (1997/98)

Iturria:⁵³

Kontuan harturik eskola publikoetan buruturiko ekimenak hizkuntza ereduaren bitartez, EAEn; zonaldeka ezarritako hizkuntza ereduak Nafarroan; eta beranduago Iparraldean, Ikas-bik urraturiko elebitasunaren bidea eskola publikoetan, honako hauek dira :

Euskarazko irakaskuntzaren datuak Euskal Herrian

	EAE Euskaraz/Gaztelani D+B A+X ⁵⁴	Nafarroa Euskaraz/Gaztelani	Iparraldea Euskaraz
1992/93 ikastu	177.623/242.361 %42,29/%57,70	13.026/ 86.318 %13,11/ %86,88	
1996/97 ikastu	182.851/ 173.786 %51,27/%48,72	%33 /%67 *	%5 ikastolan %7 elebitan eskolan 4.920/%12

⁵²EUSTAT. Irakaskuntzaren Estatistika. (Hurrengo ikasturteko estatistika irizpide hau, ikastolen publikazioaren ondorioz, desagertuko da).

⁵³ Mateos, S.(2000): 351orr.; Noya, L. M., Etxague, X.; Lukas, F. J. (1993). "Euskararen presentzia Hego Euskal Herriko hezkuntza-sisteman." UZTARO 9: 89-118.

⁵⁴ Hizkuntza ereduaren berkitagorizazioa egin dugu, EAEko A ereduak, frogaturik dagonez gero, ez baitu euskaraz hizkuntza-gaitasunik bermatzen.

Beraz, atal honen hasieran esaten genuen moduan, euskararen irakaskuntzaren orokortzetik oraindik urrun gaude, EAEn bide erdia ibilia bada ere, Nafarroako zein Iparraldeko datuak oso-oso apalak dira. Euskararen irakaskuntza orokortze prozesu horretan, ikastolaren aitzindaritza dela eta, lan honetan haren irakasleriak bizituriko esperientziak ditugu aztergai. Seigarren atalean agerian utzi dugu ikastolen hastapenetan, Bizkaian eta Gipuzkoan, emakumeek izandako protagonismoa nazio-komunitatea sortzen. Protagonismo horren arrazoiak eta ezaugarriak bilatzen eta argitzen saiatu izan gara ere, egungo ikastoletako andereñoen jarduerarekin zenbateraino bat datozen ikusi guran.

Ikastolak, ikusi bezala, Iparraldean, Nafarroan eta Araban beranduago sortu eta zabaldu ziren; horrez gain, zatiketa administratiboak ezarritako hezkuntza politika desberdinek ekarri diote ikastolari lege-babes gehiago ala gutxiago zein estatus juridiko desberdinak. Euskal Autonomi Erkidegoa dugu euskarazko irakaskuntza orokortzen gehien aurreratu den lurraldea ikastolei zein D eta B hizkuntza erduei esker; egoera itxaropentsu honetan ikastoletan dauden andereñoek nola ikusten dute burutzen ari diren lana?

Gaur egun, EAEko irakaskuntza beste sareetan emakumeen kopurua handia bada ere, ikastoletan nabarmen handiagoa da :

Emakumeen kopurua sare desberdinetako irakaslerian:

Irakaskuntz izaera	Irakasle kopurua 1975-76 ikasturtean	Irakasle kopurua 1987-88 ikasturtean	Irakasle kopurua 1992-93 ikasturtea
	Guztira: 943 EAEn (1043 Hegoaldean)	Guztira: 3. 358 EAEn	Guztira: 3.774 EAEn
Ikastolak		Gizon . Emak. 751 2.607/%77,63	Gizon. Emak. 841 2.933/%77,7

⁵⁵EUSTAT; 1996-98ko Nafarroako datuak eta Iparraldeko datu absolutuak Gorostidi, I. (1999). "Euskal Irakaskuntzaren erradiografia." ARGIA 1.699 zka.: 22 orr. Iparraldeko portzentaia Baxok, E. (1997) "Soziolinguistikazko inkestaren irakaspen batzu." BAT. Soziolinguistika aldizkaria 22/23 zka.: 18 orr. ; 1992/1993ko nafarroako datuak: Noya, L. M. Etxague, X. eta Lukas, F, J, (1993).: "Euskararen presentzia Hego Euskal Herriko hezkuntza-sisteman." UZTARO 9: 111 orr. Iparraldeko portzentaia Mateos Gonzalez, 1998. Op. Cit. : 359-466 orr.

Publikoak	Guztira: 16.745		Guztira: 17.935	
	Gizon.	Emak.	Gizo.	Emak.
Pribatuak	6.588	10.157/%60,65	7.082	10.853/%60,5
	Guztira: 8.643		Guztira: 9.052	
	Gizon.	Emak.	Gizon.	Emak.
	3.679	4.964/%57,43	3.819	5.233/%57,81

Iturria: EUSTAT

Nolakoa da 90eko ikastoletako andereñoen lanbide esperientzia?

Aurreko orriootan zenbait aldagetaren berri eman dugu: hizkuntzaren auziaz diskurso aldaketa, alegia, politizazioa saihesteko saioa, Euskal Autonomi Erkidegoko administrazioaren eskuduntzak ekarritako euskararen profesionalizazioa eta lan eremu erakargarria; ikastolen inguruko gatazkak ekarritako dikotomiak: akonfesionala/konfesionala, politikoa/apolitikoa, herriarena/gurasoena, herri giroa/euskal giroa, batuaren erabilera/euskalkien erabilera; genero diskurso berrien agerpena, mugimendu feministaren agerpenari esker emakumeen askatze beharra zabaltzen da, modu desberdinetan ulertuz askatze prozesu hori nola bideratu behar den; feminista abertzaleak agertzen dira, euren buruak emakume langile, abertzale eta feministatzat jotzen beste emakume batzuek, berriz, soilik feministatzat jotzen dute euren burua. Alderdi nazionalistek ere, zer esatea daukate. Euren diskursoak modernizatu egin dituzte eta mugimendu feministaren zenbait erreibindikazio bereganatuz.

Horrek guztiak, gure ustez, zer ikusia handia izan du andereñoen eguneroko lanean. Ikusi, bestela, A. Ugartetxeak⁵⁶, *Andereñoa* izeneko artikuluxka batean plazaraturiko iritzia:

ANDEREÑOIA emakume euskalduna denez euskarak eta Euskadik behar dituen emakume orekatu eta askatuaren eredia beharko luke izan...gure gain hartu dugun ardurak euskara irakastea izan da. Nahiz eta gehiengoak eginkizun kulturaltzat jo, ez dute ikusten ardurak politikotzat...Bestalde, gaur egungo

⁵⁶ Teresa del Vallek idatzitako "Mujer vasca imagen y realidad" liburuaren irakurketak sorraraziko hausnarketa plazaratzen du Arantza Ugartetxeak ISILIK aldizkarian. Ugartetxea, A. (1990). "Andereñoa." Isilik 12: 42-44.

hizkuntzaren une larria da agirian dagoena. Garai batean “andereñoak” sortu zuen giro abertzaleak, ez ote luke gaur egun beste erantzun jatorrago, indartsuago, herrikoiago lortu behar emakume euskaldunongandik?

Pasarte horretan, idazleak, emakumeen askapenaren beharra bereganatu eta testuinguru zabal batean kokatzen du, *Euskadik behar dituen emakume orekatu eta askatuaren ereduaz* hitz egiten baitigu, hau da, egiturazko edota osotasunezko aldaketa batekin lotzen du emakumeen askapen hori modu abstrakto batez bada ere. Horrez gain, euskalduntasunak dakarren hizkuntza igorketa, alegia, euskara irakastea ardura politikotzat jotzen du eta, are gehiago, *andereñoa* gizarte eragile gisa ikusten du bai iragan hurbilean bai egun ere, hortaz, subjektu politiko gisa.

Beraz, guk lehen aipatutako hiru ardatzaren inguruan ari da Ugartetxea, generoaren auzian, feminismoak zabaldutako askapenaren beharra bereganatzen baitu; hizkuntzaren auzian, berorren egoera larria dela eta jarduera politikoa litzateke bere alde egitea; azkenik, irakaskuntza euskaraz ere (ez baitu bereizten ikastola ala eskola publikoa) izaera politikoa duen ardura denez gero, bere eragile nagusiak, *andereñoak*, subjektu politikoak lirateke. Jakina, ez da hau izango 90eko hamarkadako *andereñoen* artean zabaldua dagoen pentsakera bakarra. Aipatu ardatz horien banakoaren inguruan dauden iritzi beste pentsakera egon daiteke. Ikus ditzagun, hurrengo atalean, garai desberdinetako *andereñoekin* izandako elkarriketetan, hasierako zein egungo ikastolen jardueran auzi horiek duten garrantzia eta izan ditzaketen interpretazio desberdinak.

Euskal nazioa eraikitze prozesu generizatua trantsizioaldia
339

10. atala: Ikastoletako Irakasleria

Andereñoen jarduerak, ikastolen bilakabidean, izan zitzakeen ezaugarri desberdinak ezagutu ahal izateko, bilakabide horren une desberdinetan ibilitako andereñoengan hurbildu gara galdezka. Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastolen historiak epekatze berdintsua erakusten duenez gero, lurralde horietako andereñoengana jo dugu.¹

Ikastoletan ibiliak eta dabiltzan andereño² hauen esanak, euskara, ikastola eta generoaren inguruko diskurtsoen gorabeheren berri emateko erabiliko ditugu. Jakina, gorabehera horiek ezin izango ditugu orokortu ez baitugu datu objektiborik nahiko, baina, informazio kualitatibo honetatik abiatuik saiaturik gara gorabehera horien joerez zerbait gehiago argitzen hurrengo azpiatalean. Goazen, bada, elkarrizketatuen esanak ezagutzera.

10.1. Andereñoak ala Irakasleak

Ikusi bezala, 60ko hamarkadan, hizkuntzaren auzia Francoren erregimenaren aurkako diskurtsoarekin, Euskal Herriaren nortasun aldeko errebindikazioarekin eta eskubide demokratikoen defentsarekin bat zetorren. Bateratasun horrek, euskal gizartearen sektore handi baten mobilizazioa ekarri zuen euskararen alde. Testuinguru horretan, ikastola zabaltzea ere, jite bera zeukan eginkizuntzat jotzen zen:

...Ikastolak zergatik? Beno alde batetik, ordurako, kontzientziatua nengoen edo moldatu nintzen, ba herriaren alde egin behar zela zerbait. Ordurako, baita ere, hasi ginen, hasi bakarrik, diktaduraren aurka joan behar genuela, gure herriaren nortasunaren alde egin behar genuela. Eta hor sartu nintzen...

Elkarrizketatu honek, *ordurako kontzientziatua* zegoela diosku eta horren azalpena ere ematen digu:

...parrokian, eta parrokian inguruan edo elizan inguruan izaten ziren aktibitate danak. Hau esaten hasi naiz, ba beno, baita ere, JOC-en edo gaztetxoekin ibiltzen direla, beno, eramaten gintuzten mendira eta, hori dana parroki inguruan egiten zen. Parroki inguru hortan eta baita ere ordurako, baizik eta, hor ibiltzen zen jendea...ba euskaldunak zirenak eta, beno, herriaren ideia bazuten. Eta noski, ni orain konturatzen naiz, orduan ez nintzen konturatzen; gaztetxoak ba, entzuten duen guztia hartzen du, eta klaro, gu oso euskaldunak

¹ Maisu baten esperientzia kontuan izan dugu lagunduko zigulakoan gizartean nagusi den genero diskurtsoaren eragina irakasleen jardueran behatzeko.

² Andereñoen soilik segitu dugu hitz egiten beraien iritziak baitira lan honen ardatza.

ginen etxetik...baita ere ibili nintzen hor Frantziskano batekin, Aita Agirretxek holako ideia bat zuen, herriaren inguruan eta herria, beno, hola emakume...lehenbizi neska talde batekin, beno, herriaren alde edo lana egiteko ez da? Beno, herriaren kultura eta herriko emakumearen promozioa lortzeko eta horrela...bi mugimendu horiek eman zidaten, bakoitzak bere zera...momentu hartan danak ginen, nola esaten da, oso elizkoiak eta oso erlijiosoak, etxetik hasita...Erljioso koordinada batzuetan ikusten zen herria, eta ikusten zen emakumea, eta ikusten zen dena.

Kontzientzia eragile antzetsua den bidea beste elkarrizketatu batek ere aipatzen du:

... Eta horrez gainera, bai neukan kezka bat izateko zeozer, eta euskararen alde zerbait egiteko, ze Muxikan eta, abade batzuk "Gogor" taldeko abade batzuei esker, gu egon ginan sartunda Herri Gaztedin, eta Herri Gaztedin, ba sentimendu horrek asko...Herri Gaztediko erakundeetan kezka batzuk sortzen ziran, eta azkenean erabaki nuen baietz, izango nintzela andereño ...

Oraingo honetan, elizaren inguruko erakundeak badira ere, ezaguna denez talde erradikalagoak dira andereño ohi honek aipatzen dituenak.³ Horrela, Herri Gaztediaren bileretan, *Gaztek*, argitarapen ofizialak zabalduko gaiak- kideen artean eztabaidaturikoak-, 1969tik aurrera, gero eta ideologikoagoak, honako atal hauetan lantzen ziren: filosofia soziala, ekonomia marxistaren oinarriko kontzeptuak, psikologia eta sexualitatea, ekiteko metodologia eta berriak. Oinarriko kontzeptu psikologikoak, familia instituzio gisa edota emakumezkoen berdintasuna lantzeko Freud, L. H. Morgan, Malinowski, Simone de Beauvoir bezalako autoreak erabiltzen zituzten. Mundu mailako berriek Irlandako askapen mugimendua edota Vietnameko gerra zuten hizpide. 1971an *askapenerako pedagogia* gai nagusi bihurtu zen, I. Illich eta P. Freire behin eta berriro aipatuz.⁴

Zalantzarik ez, euskara salbatzeraren beharraren mezua, bestelako ñabardurarik gabe, beste bide askotatik (familia, kultur elkarteak, abesbatzak, lagun taldea...)gizarteratua izan zela; bestalde, ikastolek zeukaten irakasleen premia asetzen lagundu zutenak:

³ Ikusi gai honen inguruan: Iztueta, P. (1981). Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco(1940-1975). Zarauz, Elkar.: 159-180 orr.; Gurrutxaga, A. (1985). El código nacionalista vasco durante el franquismo. Bartzelona, Anthropos.: 352-355 orr. Zulaika, J. (1990). Violencia Vasca. Métafora y Sacramento. Madril, Nerea argitaletxe: 74-85 orr.

⁴ Zulaika, J. (1990). Op. Cit. 79-81 orr.

...gure etxean beti egon da, euskerazko zaletasun haundia...gero andereñoak izan direnak, gu aurretik ibiltzen ginen, gazte denboran Orfeon San Antonen sartutak egoten ginen eta guretzako izaten zan orfeoi hori,ba, “tapadera” baten antzekoa, izaten zan. Apurtxo bat “tapadera”. Baina, izaten zan euskal giroa sortzeko lekutxo bat, izaten zan guretzat.Orduan, nik hor ezagutu dodaz asko eta asko...

..gure etxean euskaraz ez zen besterik egiten. Orduan, kalean eta hori dana, aitakin eta amakin. Aitakin batez ere, gure aita edozein tokitara joaten zen eta beti euskaraz, ez zitzaion batere ajolik, ez zen batere lotsatzen...nola sartu nintzen ikastolan? Ba, lagun batek, baita irakaskuntza egin zuena, Jone..., eta Donostian halako giro bat zegoen koadriletan, mutilak...eta egin zutena zen, mutil horiek bultzatu egin gintuen, iada genuen, magisterio genuen, orduan Elbirarengana, lehenbizi Jone eta gero ni joan nintzen... hori izan zen euskaldunak ginelako, eta gero, mutil horiek ezagutzen gintuzten,...edozein tokitan euskara hitz egiten genuen, erromerian...maistra ginala, entzun genuela nola behar zen hasi irakasten...euskaldunak ginala eta horrela joan ginen. Gu ez ginen joan, EGIko mutil batzuk esanda...gu joan ginen ateajoka, besterik gabe, horrela joan ginen.

Lekuko horiek esandakoak zera pentsarazten digu: euskararen aldeko borrokatzeko beharra nazionalismo osoak gizarteraturiko mezua izan zela 60ko hamarkadan. Bide ezberdinek ezarritako ñabardurek, euskararen aldeko mugimendu zabal horren eraldaketak zein ikastolen geroko gatazkak ulertzeko argi izpiak eskainiko dizkigute, aurki ikusiko dugunez. Baina, ez hori bakarrik, epe horretan andereñoen eginkizuna ere ezaugarritu zuten:

*...guregan, gure generazioa edo nerekin inguruan ibili diren andereñoen...gure herriak zerbait behar du eta orduan egin behar du.Ez zen inporta prestigio eta gainerakoa ezer...Gu ginen oso militanteak, baina osotara. Utziko genuen aita, ama,etxea, dirua eta dena. Jakina gazteak ginen...orduan ez egoen status ez berdin bat, beno, **andereñoaren funtzioa eskola bakarrik ez zelako, garai hartan**. Diotsut 68-70 urteren inguruan, garai hartan...herri ikastola hauek ugaritu ziren asko, eta andereñoa zen “figura garrantzitsu bat”, orduan bazituen gurasokin harremanak, gainera, askotan andereñoak irekitzen zuen eskola; orduan, andereñoa zen nolabait ere status bat zeukan profesional bat eta ez bakarrik esan dizudan bezala ikastolarako, baizik , beno, ba antzerki talde bat egin behar baldin bazuen, edo kanta talde bat egin behar bazen edo hitzaldi batzuk prestatu behar baldin baziren, ba, andereñoa zen, nolabait aholkularia. Orduan, andereñoak bazituen funtzio gehiago, eta funtzio horien inguruan eratutako kategoria edo status hori izan zuen urte horietan⁵*

⁵ 1. Elkarrizketa. Azpimarratua guk egina.

Andereñoen lana, beraz, eskolaz kanpoko orduetan segitzen zuen, hizkuntza normalkuntzaren esparruan: euskararen desprestigioari, euskal gizartean aski zabaldua, aurre eginez; kultur ekitaldiak antolatuz; zenbait gurasok euskarazko irakaskuntzarekiko erakusten zuten beldurra adore bihurtuz :

*...gurasoak beldurra euken. Esaten eben ez zala berdin erderaz klaseak emotea zein euskeraz, eta euskeraz emon ezker, gero zer gertatuko zen...*⁶

*...herrietan lotsatu egiten zan jende asko euskeraz egiten...baserrietako jendea eta erdarara danak jota erdara. Eta nik, nik euskeraz egiteko gogoa beti, eta esaten neutsen: "Baina zergatik egiten duzue hainbest erdera, erdera!"*⁷

...udan klaseak ematen nituen; kolejiotan joaten ziren haurrak, bere gurasoak euskaldunak baina ikastolara ez zituzten bidaltzen. Ba ikastolan, badakizu, oraindik...eta zer ikasiko dute hor? Ez dute ezer ikasten, kantatzen, marrazkiak egiten...batek besteari hola esaten zion: horra bidaltzen duzu? Kantari daude beti. Guztia arrainez eta gereziz eta txalupaz eta ¡Si eso es una guarderia! Eta konata batek besteari hori, eta gero, guregana etorri zen tokia eskatzen ikastolara. Eta konatak esaten zidan: esaiozu horri, nere seme-alabengatik eta...begira nola datorren ikusiz hemen ere zenbat seme-alabak aurrera doazela

Zenbait andereñok hizkuntzaren ezagutza orokortzearen beharraz konbentziturik, ikastola orokortzearen aldeko lana ere burutu zuten :

...guk nahi genuelako ikastolak ez elitearentzat bakarrik, baizik eta herriarentzat, eta ez gu bakarrik, ordurako hasiak ziren zenbait herri eta zenbait ikastola ideia horrekin hasiak ziren...

*...Gurasoen papera ikaragarria izan da hasiera hasieratik. Arrotz gertatzen zen giro batean, gugan jarri zuten konfidantza osoa, jokuan zegoena beraien semealaben hezketa bazen ere. Konfidantza hori beti eskertu behar dugu...Hala ere, gure esfortzua kostatu zitzaigun, horretarako hamaika mitin emanak gara herriz herri. Konbentzitu behar izan genituen gure eskola ereduia zela onena..*⁸

Horrez gain, baziren ikastola ulertzen zutena beste dinamika sozial eta politikoetara irekia, esaterako, Herri Gaztedin egondako andereño hori bezala:

...Batzar pilo bat egiten genduzan. Bai ikastolakoak astero, juntakoak eta gero, ikastolatik kanpo, Herri Gaztediko batzarrak eta alfabetatze eta euskalduntze, AEK izango zena, hor ere egon nintzen, euskerazko klaseak emoten, urtebete...Bai. Gero "Asociación de vecinos" edo hor egon nintzen batzordean.

⁶ 2. Elkarrizketa.

⁷ 3. Elkarrizketa.

⁸ EGINEK argitaratuko elkarrizketa honetan: Basterra, J. "Andereñoen Erresidentzia, eredu pedagogiko berri baten iturburu". Egin 1989ko abenduak 15: 44 orr.

Beti batzarretan. Hori egia da. Beti egoten ginen Gizarte Etxean, behean klaseak emoten eta gero goiko pisuetan batzarretan. Mila batzar egiten genduzan. Denetarikoak gainera...herriaren partizipazioa ikastolan galdu egin da..⁹

60ko hamarkadako andereñoak gizarte eragileak bezala ikusteko aski zio dugu komunean zuten lan-eremua: hizkuntz normalkuntza. Izan ere, garai hartan hizkuntzaren auzia arazo politiko gisa ikustean eremu horretan egindako ahalegin guztiek jite bera zeukaten.¹⁰ Beraz, zalantzarik ez dugu, garai hartako andereñoak subjektu politiko gisa ere aritu zirela. Gainera, zenbait kasutan, lan-eremu horri gehitu behar dizkiogu beste batzuk, alegia, erakunde politiko zein gizarte mugimenduak. Gertaera horrek pentsarazten digu, kolektibo horren jarduera homogenea izatetik urrun zegoela.¹¹ Dena dela, ukaezina da, eremu komun horretan egindako lan militanteak kolektibo bati buruz hitz egiteko beta ematen digula. Beraiek ere, modu horretan ikusten dute euren burua eta:

*...Nire papera hor, andereñoa momentu horretan zan niretzako, nazionalisten mugimendu, hor isilpeko, ...abertzaleen artean aintzat hartzen zan pertsona bat uste dot zala. Eta gainera ondo ikusia, eta nik uste dot prestijio bateko pertsona, ondo ikusia...eta gainera, errespetoz eta baita ere, batzuen aldetik gu pertsona ausartak bezala eta aurpegia emoteko prest ginen **talde bat ginela**, eta holan.Nahiz eta gure artean ere denetarikoak egon; baina nik uste dot, momentu horretan, alde horretatik, prestijio bezala, kontsideratuak eta...¹²*

...Euskadiko andereño guztiak joaten ginen Getarira, eta...han egiten ziren lehenengo kurtsiloak. Eta Euskadiko guztiak etortzen ziren hortik, bai Donostiarrak, Gasteizkoak, Iruñakoak ere bai, Bizkaitarrak...Harremanak, ..., normalean onak; giro sano, ona egoten zan. Zer esango deusut. Orduko denboran ez ziren egoten oraingo problemak, zer orain dagoela beste partidu baten, bestea bestean; orduan, helburu bardinak izan ziren guretzako. Ez zegoen problemarik ez ziren egoten horretaz. Gero, bakoitzak dauko bere izaera edo, baina egoera oso ona eta danak alkartutak...

⁹ 2. Elkarrizketa.

¹⁰ Gai honen inguruan honela diosku J. Arpalek: " Una de las claves de todo el proceso está precisamente en ésta ampliación del propio objeto de la ikastola. La conciencia de estar construyendo-normalizando- una lengua, lleva a la necesaria asunción de todas las implicaciones sociales(ideológicas y educativas) que ello supone." Arpal, J. (1982).50 orr.

¹¹ Datu objektiborik ezean, "datuak poliziak eroanda dagozelez, ez daukotez, ..."ezin dugu zehaztu zenbat andereño aritu zen modu batez ala bestez, datu kualitatiboak dira esku tartean ditugunak eta, beraz, aritzeko modu desberdinez baino ezin dugu hitz egin.

¹² 2. Elkarrizketa.

Irakasleen artean *denetarik egoteak* azalduko luke, 70eko hamarkadaren hasieran nazionalismoaren baitan suertaturiko hausturak talde horrekiko jarrera aldatu izana:

...Horregatikan, gaueko 9ak arte ikastolan, baina oso ondo moldatzen ginen, oso ondo, eta harremanak, gero hasi ziren esaten langile, langileak eta ...marxistak ginala, ez dakit zer ginala. Eta behin, Koldo Mitxelenak esan zigun: andereño batek ere ez du irakurri Marxen "El Capital"...diot arrazoia duzu, arrazoia duzu.

Horrez gain, nazionalismo kontserbadore eta ezkertiarren hausturak beste aldaketa garrantzitsu bat ekarri zuen: euskararen berreskurapenari buruzko diskurtso despolitizatuaren lehenengo saioen agerpena. Saio horiek, nazionalismo kontserbadoreak burutuak, ikastolen jardueran islatu behar ziren. Horrela, aipatu nazionalismoarentzat, haurren heziketa gurasoen ardura baino ez zen, ikastola *euskal giroan* sustraiturik aritu behar zen, beraz, ikastolaren jarduerak apolitikoa izan behar zuen. Nazionalismo ezkertiarrek, ordea, herri osoaren partaidetza ikastolan aldarrikatzen zuen, ikastolaren nortasuna herriarengandik jaso zenez gero, herri giroan sustraiturik aritu behar zen. Horrez gain, ustezko neutraltasuna ezinezkotzat jotzen zuen. Gatazka horrek ikastola askotan zatiketak eta kanporaketak sorrarazi zituen:

..Eta hartuemonak onak. Zergatik? Ba oso gutxi ginelako. Ni egon nintzenean, ikastolan egongo ginen 5,6, 7 gehienak, eta orduan gure artean hartuemonak onak. Egoten ziren tirabirak eta holan, baina momenturik gogorrena niretzat, ikastola apurtu zen momentuan izan zan...gurasoen artean zatitu egin zan, eta horrek ekarri zituen ondorioak ez ziren izan batere onak ikastolarentzat...andereño bik alde egin eben...

...eta gero, ba, bai;urteak pasatu eta ikastola askotan, erlazio mota, ba hori langile eta patronoarena bihurtu zan, baina lehenengotan ez, lehenengotan ez zegoen hori. Gero bai, beranduago bai.

Ikastolen estamentuen arteko erlazio aldaketak ikastolaren izaera bera eragin zuen elkarrizketatu honen iritziz:

Nik uste dut, hori alderdi negatibo bat izan dela, niretzako ... egon dira beti bazkideak. Ez diot nik eurek izatea botu berdina, gurasoak eta irakasleak ez da? Baina partizipazio bat izatea ikastolan eta ikastola inplikatzeari herriko gauzetan inportantea izango zela. Eta hori ez dago. Hori kendu zen...Eta gainera uste dut, bai ikastola, eta bai institutua, aurkitzen naizen lekuan, egon behar dugula herrian eta ez han isla bat legez isolaturik...nik uste dut institutok

egon behar dauela(eta ikastola eta eskola ere bai) herriko errealitatean sartunda...gu egon ginen momentuan, lehen momentuan gutxienez, ikastola zen herriko zati bat, herriko partaide batzuen, ...eta zabalik egoten zen edozein bazkide eta edozein jende parte hartzeko eta hori; eta nik uste dut herria inplikatzeko ondo dagoela, pentsatzen dut.

Iritzi hori baieztatzera letorke J. Gairinek, Ikastolen sinposium batean, ikastolen mugimenduari buruz esan berri duena:

Ikastolak mugimendu gisa sortu ziren, komunitateari oso atxikita, jomuga garrantzitsuak zituztela: euskal hizkuntza eta kulturaren berreskurapena. Ondorioz, inguruan oso errotuta egon dira, eta tresna bizia izan dira Euskal Herrian ahul zeuden hainbat ezaugarri berpizteko. Bide horretan, ikastolak niretzat oinarrizko militantz osaturiko gainerako mugimenduen antzekoak izan dira.¹³

Komunitateari oso atxikituta, inguruan oso errotuta eta, beraz, naziotasunari oso lotuta. Militantez osaturiko mugimendu horretan gatazka gorpuztu eta, aipatutako ezaugarri horiek ahultzen hasi ziren, militante izandako horiek beraiek dioten bezala:

Nik uste dot ikastolak, askok gainera, lehen sortu ziren helburuekin ez dagozela batere ados...

Horrela, testuinguru gatazkatsu horretan, ikastolaren aldeko lan militantea arinduz joan zen apurka-apurka:

...Ba, orduan beti geundelako aurka, zerbaiten aurka lan egiten eta nahiko zapalduta, sentitzen zarenean, ba indar gehiagokin edo borroka baten denbora guztian. Ez zitzaizun inporta ez soldata, ez segurua, ez ezer...gerra baten bezala edo, beno, borroka bat zen, zer guk ez genuen seguritate sozialik ez dakit zenbat urtetan. Soldatak ahal zirenean kobratzen ziren, ...Gero urte batzuk borrokatzen duzu, baina, bizi guztian ere ezin zara borroka batean egon ez?

...gu sartu ginen ikastoletan, lehen esan dautsudan moduan ez da? Apur bat mesedea egiteagatik eta, beno, lanean hastegatik ere bai, baina, hartzen gendun ikastola, hori geurea izango balitz bezala. Eta juntakoak ere, horrela ibiltzen ziran gurekin: 'Bueno, ba behin honetan ez dago dirurik, ba hurrengotan kobrako dozu, eta aurtengo extra igual kobrako dozu hemendik urte bira. Horrela ibiltzen ginan...seguritate soziala ez dakit...noiz hasi ziren nigatik kotizatzen...aldatau da.Horrela ezin da eta lanik egin, horrela egiten dozu urte bat edo bi edo ez dakit, baina ez. Gainera ez dago ondo, ez da? Langile batek hori ezin du egin.

¹³ Iraola, A. (2000). Ikastetxeak ez dira irakasleenak, ez eta gurasoenak ere; gizartearenak dira. Euskaldunon Egunkaria: 17.

Lan militante arintzearen zio gehiagorik ere egon bazeuden:

..Beno, Federazioa sortu zen, organizazioa burokratizatu zen; hierarkia batzuk sortu ziren, beno eta hierarki sortu zen baita ere, lanaren zatiketan. Orduan lanaren zatiketa, hierarkia, hori dena burokratizatu zenean, irakaslea geratu zen berriz instituzioaren menpean, langile bat bezala.

Ikastoletako andereñoen hasierako militantzia horrek, batzuegan bederen, beste ezaugarri batzuk ere bazituen, alegia, genero diskurtso tradizional bati loturiko ezaugarriak:

..Guretzako...misioneras del euskera...

...Nere garaian, klaro ez zen hola esplizitoki agertzen, baina inplizitoki bazegoen holakoxe exijentzia edo holako zerbait, ba, andereñoa ezin zela ezkondu. Bere bizitza guztia eman behar zuelako. Orduan, nolabait ere, militante bat zen bizi guztirako. Nik uste dut hori gaztetasunaren zera, ideia dela. Gaztea zarenean ez duzu pentsatzen sekulan zahartuko zarenik, pentsatzen duzu beti epoka horretan egongo zarela. Orduan, epoka horretan ematen duzu dana. Orduan ez zen inporta ezkontza, ez zen inporta...maitasunean ere ezin zinen arriskatu gehiegi. Klaro, gero inplikazioak ekar zitezkeelako eta horrela. Baina, hori ez zen esaten agerian, baina ez dakit erlijioso zerekin zera, nahastuta edo zer, andereñoa, klaro gero, Andereño Elbire genuen, horixe, birjina eta martira ia ia; ez zen esaten sekulan, baina klaro, militantea beti zen pertsona libre bat...andereñoak egin behar bazuen etxeko lana hor konpon, baina egon behar zuen prest, han eta hemen, eta leku guztietan; baina, klaro, horrek bere arrazoia uste dut militantismoa zuela...militantziaren ikuspegia da, beno, militantzia eta ez zen inporta ez dirua, eta ez geroa eta ez ezer. Eta nik uste dut, horrek bai eragin asko izan zuela zenbaitengan ezkongabe geratzeko.

...Orduan, ikastolaren ondoren ere joaten nintzen Hernanira, Hernanin...neska koxkorrak eta mutiko koxkorrak, eskolatik ateratzen zirenak, han egun batetan kantatzen, beste batzutan irakurtzen, beste batzutan idazten. Han bildu, eta etxean euskeraz hitz egiten zuten haur guztiak etortzen ziren han hara, iluntzetan hala!...sartu zitzaidan erresponsabilitateko... ;halako eskola hau sartu zitzaidan buruan: Eskola eta etxe bat ezin ditut eraman. Orduan, ezkondu eta, ni ez naiz gauza...etxeko lanak egin eta ikastolan lan egiten...ez naiz gauza..orduan, ez dut ezer-ezer- ezer egin, bizitu naiz ikastolatik atera eta...gainera 12 ordu, 13 ordu eta 14 ordu ikastolan pasatuta...handik atera eta hurrengo egunerako preparatzeko...nahiz ibili baita ere antzerki egiten, euskerazko antzerki talde batean, pentsatzen nuelako dirua irabazten nuela ikastolan eta euskeratik bizi nintzala eta, orduan, gero beste gauza batzuk egin behar nituela euskeraren alde. Erresponsabilidadea ...eta ikusten nuelako Elbira ere ezkongai zela eta ikusten nuen zegoela gauza asko...etxera joan eta bazkaria prestatu, afaria egin, erropa garbitu...ez naiz gauza.

...orain jendea jarri da oso legalista...hau ez da nire eginkizuna...gero baita ere esaten dizue, martir: Gu martirek ez dugu izan nahi. Hori da bai. Noski, gero esaten dizue: martirik ez balego, hau ere ez legoke orain eh!.

Eliza katolikoak araututako genero diskurtso ageri-agerian da, gerraurreko nazionalismoak gizarteratua. Genero diskurtso horrek emakumeei zein gizonei, euren sinesmenekin bat etorriz, portaera *egokia* erakustea eskatzen die (janzkera, sexualitatea, ohiturak eta abar...); baina, ohitura horiek gordetzeko ardura nagusia, batik bat, emakumeena da, euren jardun osoa ezaugarrituz. Jakina, kutsu erlijioso zeukan emakumezkoen militantzia horren ondoan beste militantzia motak ere baziren:

...egiten dozu lana, pentsatzen dozula zeure obligazioa dala hori egitea, zer orduan, momentu horretan zenbat bider esaten dozu: “zenbat hobeto zeintekeela, edo nazional baten, gehiago irabazten edo bestean. Baina ez zinen planteatu ere ez hori egitea. Pentsatu ere ez. Alde batetik, pozik egoten ginen gu hori beharra egiten gainera. Gutxiago irabazten baina, ez da diruen gauza, neurea behintzat, ez da izan dirua...Eta pentsatu une bat baino gehiagotan, helduko dira, egunen bat helduko da, behar izana edukiko dodana; gura dot esan oposizio bat eukitzeko, ez pentsatzen lehenengo regimen bategaz jarraituko dogula ez. Geure askatasuna datorrenean ere pentsatzen dozu: “beno, bada, behar izana eukiko dot”, baina, planteatu ere ez, aurrera. Urtero-urtero egiten gendun planteamentua hurrengo urterako eta..urtetan dauena urtengo dau.¹⁴

...nik uste dut lehenengo momentu horretan, andereñoak, guk ez gendula gure egoerari buruz hitz egiten. Egiten gendun ikastolatara behar zela. Hori gogoratzen naiz, horretaz bakarrik, hor da, ikastolak irten behar dau nahitanahiez eta aurrera joan behar dau eta jende asko egoten zen soldata, diru ordaindu barik eta holan. Ikastola aurrera joan behar zan eta aurrera egiten gendun. Ez zen berba egiten, ba “jo pues estos no me pagan, no se que..” ez holakoak ez gendun egiten inoiz ere ez, bakarrik egiten zen berba, hori programazioei buruz, euskera zelan landu, ..ba jolasaren bidez, udako koloniak prestatzen...

*...andereñoak nik uste dot, hor, momentu hartan, protagonismo hori eraman gendula ondo...nahiz eta hainbat kasutan...familia bat sortu, eta familia baten ardura izan, beste hori, ikastolaren garapen hori **eta ikastolaren helburua, azkenean zen euskera zabaltzen eta euskeraz irakaskuntza bat egitea Euskal Herrian, uste dut hori ez dauela ahaztu**...Azkenean da niretzako, borroka baten aurkitzen direlako eta danok gagozen alde baten, esaten dena hori: “estás en un lado o en otro de la barricada”. Ba, argi zegoen non aurkitzen ginen ez da? Eta orduan, hori zen lan bat egin behar zena eta zu zinen bat hor,*

¹⁴ 3.Elkarrizketa.

lan egin behar zenduna, eta horretan nik uste dut argi eduki gendula, gehienok, eta horregatik egiten gendula lan hori helburua lortzeko, nik uste dut.

Bizitza zikloari jarraiki, familia ardura eta ikastolako lana elkargarri egin zituztenak ere egon ziren, eta, beraiek diotenez une hartan ezin zen soldataz, aseguruaz-eta hitz egin lehentasuna *Euskal Herrian euskaraz irakaskuntza bat egitea* baitzen. Baina, proiektua sendotu ahala, lan ordaindua, langile izatearen kontzientzia, zeintzuek emakumeen askapenerako bidean garrantzi handiko ideiak baitira, gero eta aipatuagoak izan ziren lan militante arintze prozesu horretan. Genero diskurtso berrien eduki horiek hasierako militantziarekiko kontrajarriak ageri ziren.

80ko hamarkadan, transizioaldi politikoan sorturiko aldaketa politiko eta sozialetan sozializaturiko andereño eta maisuen belaunaldi berri bat hasten da lanean ikastoletan. Belaunaldi berri honek, frankismo garaiko zapalkuntzaren berri badu, baina, ez du bizipenik¹⁵. Era berean, garai horretan, ikastolak, alegia, euskarazko irakaskuntza zabaltzeko izandako borrokaren bizipenik ere ez, bertan ibilitakoak salbu; zerbait jakitzekotan zenbait pasadizok historia zatikatu bat osatzen dutenak, baino ez, ikastolen mugimenduaren historia oraindik egiteke zegoen-eta.

Aldi berean, aurreko atalean azaldu dugun bezala, hegoaldeko aldaketa politikoen emaitza diren administrazioak, hezkuntzari dagokionez, ekimen desberdinak bideratzen hasi ziren: 1983an, EAEn hizkuntza ereduak ezartzen dira eskola publikoetan, eta eskola horren irakasleria euskalduntzeari eta alfabetatzeari ekiten dio EAEko hezkuntza sailak. Nafarroan, 1988an, zonaldeka ezartzen diren hizkuntza ereduak. Baina, ekimen hauek gauzatu artean, batik bat, EAEko administrazioa, euskal nazionalismoaren eskuetan 1986ra arte, ikastolak legalki babesten aritu zen. Ez Nafarroan bezala, non, hizkuntza ereduaren ezarrera aurretik nafar lurralde osoko ikastolek eta geroago

eremu mistoko zein erdalduneko ikastolek, nafar administrazioak oztopoz josiriko bidea ibili behar izan baitute. Iparraldeko ikastolek, laguntza handirik jaso ez badute ere, bederen, Seaskak eskainitako babes legalari esker toleratuak izan dira. Horrela, esan bezala, euskarazko irakaskuntza orokortze bidean gehien aurreratu duen administrazioa, ikastolen zein eskoletako D eta B hizkuntz ereduen hazkundeari esker, EAEkoa izan da. Hazkunde horrekin batera, euskara, eskola hizkuntza egina, prestigiodun hizkuntza dugu eta, hori dela medio, langabeziak ezaugarrituriko hamarkada batean, ikastola lan eskaintza handia dagoen eremu gisa agertzen da. Eskola ere bai, azken honen kasuan gutxiago bada ere, lehendik irakasleria bazuen-eta; kasu horretan, gainera, irakasleria hori euskalduntzeari izan da azken urte hauetako eutsi beharreko erronka. Horrela, ikastoletan zein D eta B ereduetan arituko diren irakasleak, Magisteritza eskola ofizialetan prestatzen dira. Hau da, Maistra-maisu euskaldunentzat ikasketa-plan espezifikoeekin eta modu ia-ia masiboan: Gipuzkoako hiru magisteritza eskoletan, Bizkaiko bitan eta Arabako batean.¹⁶ Eta maistra-maisu diogu, zeren eta, une horretan langabezia saihestu guran, gizonezko ikasleen kopurua magisteritza eskoletan nabarmen igo baitzen emakumezkoekin parekatzera ailegatu ez arren.

Halaber, euskara berreskuratzearen inguruko diskurtsoa hare politikotik aldentzeko saioak gizarteratzen hasiak dira, batik bat, EAEko administrazioaren ekimenez.¹⁷ Horrela, euskaraz irakastea zein euskara irakastea borondate eta militantzia mailetatik aldendu beharreko jardunak dira, euren profesionalizazioaren beharra nagusituz.

Hamarkada horretan zehar ere, mugimendu feministak arrakastaz gizarteraturiko zenbait ideia instituzionalizatu eta berauen kudeaketa

¹⁵ Gai honen inguruan ikus: Perez Agote, A. (1987). El nacionalismo vasco a la salida del franquismo. Madril, CIS: 147-168 orr.

¹⁶ Arpal, J., B. Asua, et al. (1982). Educación y Sociedad en el País Vasco. Donostia, Txertoa: 52-53 orr.

¹⁷ Perez Agote, A. (1987). El nacionalismo vasco a la salida del franquismo. Madril, CIS: 24 eta hur. Larrinaga, A. (1996). "Diskurtsoaren interpretazio markoak." Inguruak. 15: 155-178: 167-168 orr.

administratiboari ekin zion Emakumeen Euskal Erakundeak 1988an. Erakunde horrek, Emakundek, emakumeak etxeko taldeari ez erantsirik eta eskubide subjeto indibidualizatuak gisa ikustean, politika indibidualizatuak bideratu dituzte gai desberdinen inguruan, besteak beste, lan banaketa sexuala, sexuaren araberako soldata desberdintasuna, eta abar. Emakumeen talde desberdinek, ordea, gai horiei izaera politikoa emanaz, egiturazko eraldaketak aldarrikatu izan dituzte. Dena dela, bai bata bai besteak, ordaindua den lan eremuan dauden emakumei buruz ari direla, eskubideaz eta soldata berdinez hitz egitean, garai bateko militantzia eta borondatezko lanetik urrun dauden emakumeen irudiak gizarteratu dituzte, eskubide berdinak dituen langilea, profesionaltasunez jokatzeko duen langilea, lehen aipatu ezaugarriekin elkarrezinak bailiran. Hau da, lan ordaindua zein ordaindua ez den lanekiko euskal emakumeen jarrera eta jokabidea eraginduz.¹⁸

Aldaketa hauek guztiek, ikastolen zein andereñoen jarduna beste modu batera ezaugarritu dutelakoan gaude. Ikusi besterik ez dago hasieran ibilitako andereñoen zein bertan segitzen dutenen esanak ikastolen inguruan:

...nere ustez eta opinio oso pertsonala da, ikastolak horrek galdu ditu. Lehenengo izpiritu hura gehiago zegoen oinarrituta kultura antropologiko batetan eta orain askoz ere gehiago dago kultura tekniko batetan. Eta horrek eraman du ikastolara aldentzea lehenengo izpiritu hartatik pixka bat...ez

¹⁸ Gai honen inguruan teoria mailan aritu izan gara lan honen bigarren atalean, ikus ere: Baxter, J. (1992). "Las mujeres y el análisis de clase: una perspectiva comparada." *Politica y Sociedad* 11: 85-97. Beechey, V. (1994). *Género y trabajo: replanteamiento de la definición de trabajo. Las mujeres y el trabajo*. Bartzelona, Icaria. Borcelle, G. (1983). *La igualdad de oportunidades para las jóvenes y las mujeres en la enseñanza técnica, la formación profesional y el empleo*. Borderías, C. C., C.; Alemany, C. (1994). *Las mujeres y el trabajo*. (Rupturas conceptuales). Bartzelona, Icaria. Borja, M. (1981). *Carreras y sexos*. Bartzelona, Gráficas Diamante. Bradley, H. (1989). *Men's Work, Women's Work*. Oxford, Blackwell publishers. Crompton, R. (1986). "Credentials and careers: some implications of the increase in professional qualifications amongst women." *Sociology* 20 nº1: 25-42. Crompton, R. (1987). "Gender, Status and Professionalism." *Sociology* 21 nº3: 413-428. Crompton, R. (1993). *Clase y Estratificación*. Madril, Tecnos. Crompton, R. M., M. (1986). *Gender and Stratification*. Cambridge, Polity Press. Durán, M. A. (1972). *El trabajo de la mujer en España*. Madril, Tecnos. Elkarlanean (1982). "Nuevas perspectivas sobre la mujer." *Actas de las primeras jornadas de investigación interdisciplinar*. Elkarlanean (1985). "Mujer y Sociedad." Donostiako Udako IV Ikastaroak. Evetts, J. (1987). "Becoming career ambitious." *Educational review* 39: 15-29. Evetts, J. (1988). "Returning to Teaching." *British Journal of Sociology of Education* 9 nº1: 81-96. Feldberg, R. G., E.N. (1979). "Male and Gomez Barnusell, A. (1972). *El magisterio como profesión*. Barcelona, Ariel. Izquierdo, J. d. R., O.; Rodriguez, A. (1988). *La desigualdad de las mujeres en el uso del tiempo*. Weiler, M. (1977). *Mujeres activas. Sociología de la mujer trabajadora en España*. Madril, Ediciones de la Torre.

litzateke txarra izango itzuli eta ikusi gure erroetatik zer hartu behar litzateke. Zer beste edozein herritara joaten zara eta hemen farre ematen dizuten gauzak entzuten dituzu. ..azken finean norberaren bizia eta ingurua eta herria eta izatea defenditzea da eta hori txarra da edo ez da inportantea?...Esan nahi dut, gizonezkoak, nere ustez, aldaketa batzuk ezarri zituzten, eta bata da hori,teknifikatzea..gero karguak hartzea...

Ikastolen existentzia bera ere, 90eko hamarkadan, zalantzan jartzen dutenak ere badira:

...nik uste dot momentu honetan, esate baterako, ikastolak zertan existiturik ez dagoela, esaten dot hori konbentzituta. Eta uste dot ikastola eta andereñoa eta paper bat jokatu dabela historian, Euskal Herriko historian, eta momentu honetan paper hori bukatuta dagoela. Diskutigarria da eta ez dakit. Baina, uste dot momentu honetan beste bide batzuk egon dira eta beste bide batzuk dagoz zabalik, eta bai ikastola ere, beste bide batzuetatik joan behar dabela...beste bide batzuk ere badagoz momentu honetan ez da?...uste dot bide barriak dagozela eta beste leku batzuetan egin behar dala lan euskararen alde, eta horretarako sortu zan ikastola, euskararen alde, arlo desberdinetan egin behar dala ja; eta hor dagoz instituzio publikoak, eskola publikoak eta beno...

Askok andereñoen lana funtzionarizazio bidean ikusten dute eta, are gehiago, ez dute gustoko:

...Nik uste dut gaur egunean, funtzionario batzuk bezala daude Bestalde, teknifikazioaren ondorio bat da, eta teknifikazioa badakizu zer den azken finean, burokrazia tipo bat da...Hezkuntzaren organizazioan, irakaslea pieza txiki bat besterik ez da. Dena esaten zaiona, esaten zaiona egin behar duena. Ejekutore soil bat besterik ez da, eta alderdi horretatik galdu du prestijioan, galdu du ...nere ustez baita ere profesional kalitatea esatea gehiegizkoa da, baina, profesional exijentzietan denborarik ez du berak sortzeko gauzak, berak egiteko, berak pentsatzeko, dana egina ematen zaio, material didaktikoa ere, programa ematen zaio. Hamabost egunetan hau irakatsi behar du eta hau irakasten du. Orduan, ejekutore sinple bat besterik ez da bilakatzen. Eta hori, pixka bat penagarria da, nik uste dut horri buelta emateko euskal eskolak, ez dakit, ikastolak... beti gauzak ez dira egiten makro zerarekin, makro esparruarekin, baizik eta esparru txikitan. Esparru txikitan hasi beharko litzateke aldaketa baten bat, irakasle igual inportantzia gehiago izaten, protagonista izaten, sortzaile izaten, eta abar...

...lehenengoko urteetan bai egon da hori prestijioa eta ikusirik andereñoa nonor badagoen. Gero...nahiz eta batzuk manendu egin gura hori, nik uste dot, andereñoa d,a gauza guztiak bezala, apur bat debaluatuta dago niretzat.

Aldaketa hori ondo ez ikusteaz gain, arriskutzat jotzen dute zenbaitek eta arrisku horri aurre egiteko bokazioaren beharra aldarrikatu ere bai:

...Denetik ikusten dut, denetik. Agian, gehiago apoltronatuak, lana nahi dena, eta berriz batzuk berriz,... lana ondo...uste dut eskola montatua ikusten dutenean, nahiko patxadan gelditzen direnak...patxada horren azpian, dena antolatua dagoela. Gero liburuak ere, libururik gabe zuk egin behar duzu, zuk asmatu behar duzu nola. Eta orain liburuak daudenez, batzuk, behinik behin, liburuari jarraitzen diote, segi, segi, segi, eta ez dira gauza liburu batetik atera ...eta niretzako liburu askotan esaten da, gidoi bezala da, ...guk hartu genuen ikastola, gauza, gure gauza...osea enpresa bat hartzen duzun bezala, ez da? etxekoa baldin bada...Eta orain berriz, bada, niri pena horrek ematen dit, funtzionario bat bezala bihurtuko garela, eta orduan, nere lantxoak bukatu dut eta egina dago... eta gero beti esaten dugu, toki guztietan daude onak eta ez hain onak, baino zergatik funtzionatzen du zentro batek eta beste batek ez du funtzionatzen? Betiko mojak eta frailek egun guztia eskolari begira daude: haiak ez dute persiana botatzen eta esaten:bagoaz...jartzen bagara: ni banoa, ni banoa, ni banoa; eskola publikan zer gertatzen da? batek bakarrik, bik bakarrikan, hura dana martxan aurrera eraman oso zaila da- **Eta ikastolak ere arrisku hori du. Arrisku hori du...eta nik uste dut ez dela ikastolako,osea baizikan dela bokazioa dela.** Eta pentsatzeko: bihar klasea nola hasiko dut, edo gai hau, atzo esplikatua nuen, danak hartu al zidaten?badirudi baietz, beste batzuk ezetz; berriz, errepikatu beharko ditut...ez baldin baduzu preparatzen...gero eskola horrek ez du funtzionatzen. Zergatik? Batek bakarrik ezin duelako eskola eraman aurrera..

Beste batzuek, ordea, lehengo irudi politikoarekin alderatuz, jarduera despolitizatu gisa aurkeztu gura dute:

...lehen boom bat izan zen eta euskaldunentzat pixka bat ziren, idoloak ez, baina oso ondo ikusiak, pertsona bezala edo, urte batzuetan bai... Gero,nik uste dut beste...hasiera bat zen, borroka bat zegoen, gauza oso positiboa...gero ohitura bat da. Gaur egun da, bada, ohitura bat...gauza berri bat zen, zerbait sortzen ari zen...umeeak, beno esten zuten gurasoei baba zeriela...hori normaldu egin da, beste lantegi bat bezala, gurasoek ikusten dute ikastolan giro bat dagoela baina gauza gehiagorik ez. Normaldu egin da...Beste maestra bat moduan...Era bateko heziketa edo gehiago edo gutxiago zera, euskaldun ideia hori umeei ematen. Normalidde batean, ez da lehenego guzti hori ez. Ba Euskadi eta ikurriña edo ez.Gai bat bezala: gu euskaldunak gara, euskara landu eta euskaldun biziarazi. Baina politika bezala aldean edo, ez dakit, politika, dana da politika ez?, baina egoera normalago batean. Erdaldunek Espainia mailan erakutsiko balute bezala...Nik uste dut hori jada...zer euskaldunak gara, gurea da, geuk ez badogu egiten nork egingo du, oraindik esaten dugu hori ez? Baina patxada gehiagorekin...Holakoak, noiz behinka, botatzen dituzu eta euskera exijitu, eta euskera maila asko igo da.

Beste batentzat, gaurko andereñoak, laguntzaile barik, eskoletan bezala, ikastoletako langileak dira; gainera, egiten ari diren lana, ez da lehen bezain polita baina bai “hobeto daudela lanean”:

...lehen joaten ziren ikastolatara, ez dakit, abertzaleen semeak ez da? orduan, ikastola zan, ez dakit zelan esan, da sentimentu bat barruan dakozuna, ikastola da gurea eta irakasle dauzenak ere bai, ez dakit...orain...denetarik dago...lehengo kutsu ez dauko ikastolak, sentidu horretan, bada, andereño maite eta hori. Andereñoak dira langile batzuk, beste langile bat zara...normalago eta hobeto, eurentzako eta guretzako ere bai. Beno niretzako behintzat, ez dakit...gaur egun langile normalagoak garela...Lehen ginen apur bat...laguntzaileak ere bai ...laguntzen gendun pilo bat ikastolatan eta. Gaur egun langile batzuk gara, ikastolatako langile batzuk. Gure moduan, eskoletan ere, euskeraz emoten dabe...denok gara maistrak baina beno, ez dakit lehengoa politagoa zen...Politagoa baino ez hobea...hobeto oraintxe. Orain gagoz hobeto.

Honaino, 60ko eta 70eko hamarkadetan ikastoletan ibilitako eta, egun, ikastoletan dabilzan andereñoen lekukotasuna gauzatutako aldaketez; baina, ez hori bakarrik, aldaketa horien inguruko iritziak, kasu batzuetan iritzi kontrajarriak, eskaini dizkigute ere. Ikus ditzagun orain, gai berberen inguruan, 80ko hamarkadaren zehar ikastoletan lanean ari direnen bizipenak eta iritziak. Has dezagun, aurreko hamarkadetan ikastolek urraturiko bideaz zer dakiten argitzen.

Etxean entzunda eta ikusitakoagatik, alegia, *euskal giroan* hazitakoak dira guztiak:

...nik hurbilen izan dudan ikastola izan da Deustukoa, eta beno ba, horri buruz, bada, banekien zelan zeuden San Felicesimon, lonja batzuetan, halako baldintza...nahiko eskasetan ez da? eta gero handik zelan pasatu ziren egin zen edificzio berri horretara, eta istiluetan ibili zirela eskolakoekin eta abar...ikastolaren irudiak edo ikastolak izan duen garrantzia, bada, adibidez, transizioan eta transizioa baino lehenago zernolako lanak egiten zituen eta abar, bada, bai. Bada, nahiko hurbil bizi izan naizelako, nahiz eta euskalduna ez izan, ba nire etxean...ba nire gurasoak beti ibili dira sartuta ba horrelako gauzetan eta beno antzinako PNV horretan eta egiten ziren batzar haietan, ..., auzoetan, pixkatxo bat holan nolabait izkutatuta...nire ahizpek, adibidez, nahiko harreman izan dute, ba jesuita batzuekin da horrela ba euskal mundu honetan sartuta zeudenak...ni txikiago naiz...nik uste dut bizi izan dut baina ez bertan egonda ez da? guzti hori nire etxetik pasatzen zen eta hitz egiten zen eta abar...

...ikastolaren mundua? Nik uste dut gehien bat aldizkarietan eta egunkarietan agertu diren, hainbat pertsona, baina pertsona konkretoak ez da? ikastoletan aritu direnak, eta mugimendua beno ba entzunda, ...ikastolaren mugimendua zelan hasi zen noiz eta...ba hori bai ezaguna izan dut beti, gauza berezizat

hartuta ez da?..etxean,etxean bai izan dela beti, nahiz eta gurasoak euskaldunak ez izan, beno aita ez da, ama bai da euskalduna, baina aita ez, baina mundu horretan nahiko sartunda izan gaituzte mundu horretan beti ez da? euskaldun mundu horretan zer beti egon gara,...parrokian egon gara, orduan euskara ikasten egon gara nik ez dakit zazpi urte nituenetik, nik uste dut egon naizela beti euskara ikasten, ba dantzak ikasten, txistua ikasten, horrelako giroan bai.

Ikastolan egondakoak ere badira:

...Ezer gutxi, ezer gutxi, ...ni neu ere jatorriz banator ikastolatik eta ikastolen lehenengo momentutako ikastoletatik, pisuz pisu eta etxez etxe joaten ziren haietatik orduan beno jatorria eta gero anai-arrebak izan ditut ikastolan ere, orduan mundu horretan eta familiaratik bai eduki dut nik erroa edo hor ez da? baina, egia da barrutik funtzionamenduaz eta horretaz pasaitxo bat edo bai, besterik ez.

Etxean ikusitakoa eta entzundakoaz gain, ikastolak herrian izandako ohiartzuna ezagutzen duena egon badago ere:

Beno bai, pixkatxu bat bai, ba nola Lekeition ba beno inguruko jende bat erdi lagunak edo familia eta zegoen hor, ikastolan lanean, nire familian garai hartan nire koinata eta zegoen ikastolan ingeleseko klaseak ematen eta beno pixkatxu bat hurbila izan da ikastolaren mundua ez da? eta gainera han ere bai, Lekeition ikastola sortu zan herriko dirulaguntzarekin ez da? nire etxean, nire familia ere partaidea izan zen, Lekeitioko ikastola aurrera eramateko ez?hor egon zan hamabost mila pezetako bono batzuk atera ziran, ba ikastola berri bat sortzeko ez da? ba beno hau Lekeitioko pilo bat jende ez zeukaguna zer ikusirik irakaskuntza munduarekin proiektu hori aurrera eramateko ba diru bat eman zen ez da? eta nire etxean nire gurasoak ere proiektu horretan parte hartu zuten hainbat jende moduan, eta beno ez da hain urruna ez ?pixkatxu bat hurbiltxuago eta ezaguna...bai herriko esperientzia eta gero ere bai bazeukagun han Lekeition, ba lagun batzuk udatiarrak zirenak eta beno Bilboko lehenengoko esperientzietan parte hartutakoak, ikasleak izandakoak hori etxeetan egiten ziren...ikastola horiek lehenengo ikastolak sortu zirenak ba etxeetan ematen ziren klaseak eta hori ba jende hori parte hartu zuena beno horretan ikasle moduan ba gero gure lagunak izan ziren eta gero pixkatxu bat bazekizun nola sortu zen pixkatxu bat mugimendu hori ez da?.

Ikastolen ibilbideaz antzetsua den ezagutza horretan oinarriturik, honakoa dioskue lehenengo ikastola eta andereñoei buruz:

... pentsatzen dot gaurko ikastolak eta lehenengo ikastolak, guztiz desberdinak direla. Zer lehen momentu batean, sortu ziren momentuan, pentsatzen dut...nahiko kanpo edo gauza berezia, eta andereñoa ez zen bakarrik irakaslea, izan zen beste gauza, askotan ere ideologia mailan, eta beste gauza batetan bada, hor sartuta, eta gaur egun irakasleak gara, baina, beste eskoletan , nahiz eta erderaz emon edo beste modu bateko ikasleak izan...Ba “asunto hori”

Euskal Herriagatik eta euskaragatik eta ez dakit zer, bada, neurri batetan bai, baina ez da jada hainbesterako. Gaur egun eskola publiko askotan ere funtzionatzen dabe horrela...andereñoak...gaur egun, pentsatzen dodalako irakasleak bakarrik direla, ez ikastolako irakasleak, irakasleak “sin más”. Hor dau niretzako desberdintasuna, eta lehen ez. Lehen izan ziren baita ere, momentu askotan, zeozer ideologiaren barruko estalpe bat edo aterpe bat edo ez dakit zer. Eta gaur egun ez. Ideologia aldetik agirian dagoz gauzak, holan edo halan, gustora edo gustora ez, baina agirian dagoz; eta ikastolara doazen umeak ez dira berdinak. Momentu batetan izan ziren bakarrik ideologia konkretu batekoak; gaur egun, guk daukoguzen umeak, batzuk izango dira, baina beste asko ez dira. Asko dira, joaten dira ordutegi ona daukogulako, instalazio onak eta kolejio pribatu bat baino merkeago delako. Orduan hori igarten da. Niregana etorri dira esaten 3. Mailan: “si no puede seguir en euskara, en castellano ¿no? Pues no!”. Euskaraz emango dogu, eta hor barruan zeozer dago eta ez bakarrik euskara egitea, hor meta dago euskara jakitea, euskara menperatzea, euskara maitatzea eta euskaraz bizitzea; eta askotan pentsatzen dot, jada ez dala...neurri batzuetan bai, eta pertsona batzuk bidaltzen dabe ikastola batera horretarako, baina, beste batzuk ez.

Unibertsitatez besteko maila guztiak eskaintzen dituen ikastolan ari den andereño horrek, desberdintasun argia ikusten du lehengo eta gaurko ikastolaren artean, euskaraz irakasteak lehen zeukan izaera politikoa egun ez izateaz gain, andereñoak ez lirateke ikastolako irakasleak baizik eta *irakasleak* “sin más” diosku, parekatu guran beste edozein ikastetxetako erdal zein euskal irakasleriarekin. Zerbait antzerakoa pentsatzen du elkarrizketatu dugun maisu bakarrak, baina, garai hartan euskaraz irakasteari, alegia, andereñoek egindako lanari boluntarismoa baino ez dio onartzen:

...andereñoen lana...beste garai bat zen hori ez da? izan oso gauza guztiz boluntarioa zan ez da? izkutuko lana zen ere, dana egin behar zen ba autoritateak edo jakin barik ez da? administrazioak jakin barik...nik uste dut zeharo ezberdina dela, gaur egun ikastolak dira ba zentro batzuk nik uste dut goitik behera eraturak eta hainbat prolemakin, baina beste eskola batek izan daiten...prolema batzuk berdinak eta gero ba ikastola izatea arren ba beste batzuk guztiz ezberdinak

Honako elkarrizketatu honen aburua ez dator bat, ordea, aurrekoen iritziarekin. Duela gutxi, lehengo andereñoen inplikazioa ez soilik ikastolan bai gizarte arlo desberdinetan ere ezagutu duela aitortu ostean, horrenbesteko militantziarik ez, baina horrelako zerbait bai gelditzen dela oraindik ere diosku:

...antzinako andereñoen lana...ba askorik ez dut ezagutzen, baina, lehenago egunean agertu da egunkarian, ba, antzineko andereño bati buruz elkarrizketa bat edo, eta benetan harrituta gelditu nintzela, jende hori izan da, ...bere bizitza eman du horretan ez da? euskararen alde, jendea euskalduntzeko eta gizartean guztiz sartuta egon dira arlo guztietan, politika mailan, sozial mailan...ea horrelakorik gelditzen den ikastoletan? ...hori esatea nik uste dut gehiegi dela ez da? baina zerbait bai, nik uste dut baietz. ..guztiz ezberdina eh? Zer nik jende horretaz beno bai hartu ditut ez da? jende batzuen ez? Eta gaur egun gertatzen dena, baina nik uste dut zerbait gelditzen dela, bai.

Andereño hauek, hasierako asko ez bezala¹⁹, magisteritzako eskola ofizialetan prestaturikoak dira. Zenbait kasutan ikasketak amaitu eta handik gutxira ikastoletan aritu dira lanean, batetik, Ikastolen egitura beraren bitartez, alegia, Federazioen bitartez; bestetik, ikastolen mugimenduaren inguruan sortutako berrikuntza pedagogikoen ekimenen bidez, esaterako, Adarra²⁰. Aintzat hartzekoa da ere, 1983ra arte ez zirela hizkuntza ereduak ezarri Euskal Autonomi Erkidegoaren eskoletan, hortaz, denbora epe labur horretan ikastolen matrikulaturiko umeen hazkundeak segitu eta irakasle euskaldun gehiagoren beharrea aurkitu ziren:

...Zergatik ikastolako andereñoa? Magisteritza Derion, seminarion egin neban..lana beharrea nengoelako, lehenengo gauza eta errazago izan zan. Gainera, magisteritza amaitu nebanean euskarazko titulurik ere ez neukan, eta gero lehenengo urtea lanean egon nintzela banenbilen egiten Labayruko kurtsiloak eta horrek eta...gero delegazioan apunta ere ez nintzen egin, inoiz ere ez. Justu amaitu ekainean eta irailean, abuzturako baneukan lan hori, eta gero Bizkaiko Ikastolen Federaziogaz eta ibili ginen hor lana topatzen...

...Bada, nirea nahiko berezia izan zen, baina igual aldikada horretan errezagoa zelako edo, nik justu bukatu nuenean, gogoratzen naiz ikastaro bat egiten nengoela, Adarrak emandako ikastaroa batean, orduantxe eskaini zidaten pare bat lan, hau eta beste bat, eta orduan hau hurbilago zegoenez, etxetik hurbilago eta dana, ba, hona etorri nintzen, ...bestea non zan ikastola batean edo...Lauroko ikastolan, bai.

¹⁹ Guk elkarrizketatu guztiak bat izan ezik magisteritza tituludunak dira.

²⁰ Gai honen inguruan honela dio J. Arpalek: "...se han producido movimientos renovadores de lo educativo, muy relacionables con iniciativas semejantes y muy arraigadas en Cataluña, en lo que se atiende a la especificidad cultural y lingüística; el más característico (Adarra) representa una opción de política educativa y de práctica pedagógica más típicamente de "izquierda" y que tiene importante capacidad de convocatoria en distintos ámbitos y niveles de la enseñanza." Arpal, J. (1982). Op. Cit. : 51 orr.

..lau urte daramatzat, justu hasi naizenetik, justu hemen hasi nintzela, ez naiz egon beste toki batean, egin nuen magisteritza eta gero urte bat hartu nuen EGA ateratzeko eta EGA atera ondoren hasi nintzen pedagogia egiten Deustuko Unibertsitatean, eta ba hori ikasten nengoela , ...,ba hemetik deitu zidaten eta hasi nintzela hemen eta orain arte...hasiera batean kasualitate hutsa izan zen, nik suposatzen dut momentu horretan...zerrenda publikotatik deitzen banaute ba berehala noala..

Errazagoa zen hurrengo elkarrizketatuarentzat ere ikastolan sartzea, baina eskola publikoan aukera izanez gero ere, badirudi, ikastolan aritzea zela bere asmoa:

...bada, magisteritza amaitu nuenean, egon nintzen urte bete euskara ikasten, EGA atera nuen, gero beste urte baten ez nuela ezer aurkitzen eta egon nintzen takigrafia eta mekanografia egiten, ...gero lagun baten bidez, deitu zidaten `sustitutio`bat egiteko, hasiera baten izan zen hiru hilabetekoa, baina beno, beste haurdunaldi bat egon zen, eta azkenean egon nintzen urte osoan. Eta momentu horretan, urte horretan izan zen lege berri bat atera zela ikastoletan, bada, 87ko jendea lanean zegoena, bada, lana finkoa izango zuela, geroztik...eta nahiz eta sustituta izan eta lege hori ez zen niretzako ez da? nire kasua ez zen barruan sartzen, baina Zaratamon ikastolan sartu ninduten zerrendetan, eta onartu ninduten, gero hortik amaitu nuenean, bada, Galdakaotik deitu zuten federaziora, pertsona bat behar zutelako eta zerrenda horretan ...zerrenda haietatik eta horrela hasi nintzen...nik uste dut nire bizitza osoan ez dut besterik pentsatu inoiz, ...zera andereñoa izango nintzela. Ez dakit zergatik. ...amaitu zenituenean ikasketak pentsa zenuen delegaritzara joatea zerrendetan apuntatzea, oposaketak egitea edo...Ez, ez, gainera amaitu nuenean ez zegoen aukerarik eh? Ez ziren egon oposaketarik baina ez ziren nire...nik ez dakit zergatik baina pentsatzen nuen sartuko nintzela ikastola batean, eta beno banekien ikastolan sartzeko momentu horretan ez genuela oposaketarik egin behar, orduan ez..

Irakasle euskaldunen premia ez zen ikastolen hazkundearen ondorio bakarra izan; hazkunde horrek, dagoeneko argitua gelditu den bezala, ikastola beraren izaera eta funtzionamendua eraldatu zituen:

...hau da Altos hornos umeeekin; eta hori da ez dakitena, gainera zer askotan, egoten gara gauza laboralak,baina Altos Hornosen egongo baginen moduan eztabaidatzen eta gero, beste alde batetik, askotan eskatzen dauskuez beste erresponsabilitate batzuk ez da?...(gurasoek) batzuek pentsatzen dabe ikastola haiena dela, orduan jaun eta jabe dira.

Hezkuntza komunitatearen estamentuen arteko hasierako loturaren orde, irakasle eta gurasoen arteko urruntze prozesu bat gauzatzen joan da, ez soilik,

unibertsitatez besteko maila guztiak dituzten ikastoletan (goian ikusi bezala) txikietan ere bai:

...nik uste dut horretan egia da ikastoletan eh...gurasoak daukaten ohitura edo da gehiegi, gure lanetan gehiegi sartzea ez da? alde guztietatik eh...exijitzen dizkigute gauzak ez dakit, nik uste dut eh...bada, ez dakit zelan esan ba beharbada klaro beraiek nolabait direlako "patronoak" edo beraiek sortu egin dituztelako ikastolak ez da? baina...beraiek duten ustea hortik doala ez da? eta batzutan nik uste dut gure lana zapaldu, gure "terrenoan" sartu egiten direla ez da? argi dagoena da irakasle eta gurasoen artean harreman bat egon behar duela umearen onerako baina nik oso argi daukat...beraien atetik barrura ez naizela sartzen eta beraiek izan behar dute berdina, ez da bezain argi, eta niri ba ez etortzeko guraso bat esanez, zer egin behar dudan, eta hori horretarako nik behar bada gogorrenena naiz, hori ez dut jasatzen, iritzia ematea bai baina inoiz ere ez zelan egin behar dudan nire lana...

Hasiera batean, ikastolen jomugek, euskal hizkuntza eta kulturaren berreskurapena, ikastola herrian errotu zuten; egun, batzuentzat, ikastola, herriarengandik aldendurik dago:

...ba orain dela oraindik ez da hainbeste urte, aste kulturalak prestatzen zirenean eta gauza horiek ba hor ikastolek parte hartzen zuten garai hartan...ikastolako jendeak pilo bat roilo montatzen zituela kultura inguruan eta gaur egunean beno bakarrik murrizten dela ba lana egin eta barneko giroa...lehengoak izaten ziren..gizarteari begira?...bai hori da gizarteari begira...kontzientziatzeko jendea edo...bai, bai euskalduntasun hori..

Horrela, eskola eredu desberdin gisa, bere ezaugarriak ahultzean, eskoletan ematen hasi diren D ereduaren parekoak agertzen ari zazkiei zenbaiteri, bietan euskaraz irakasten baita:

...Eskola askotan D eredu jarraitzen dabe, guk jarraitzen dogun moduan, eta azken batean nik pentsatzen dot danak berdinak edo berdintsuak izango direla.

*...momentu honetan, ezberdintasuna nik uste dut ez dala hainbestekoa, igual garai batean bai izan dira mundu bi guztiz ezberdinak. Ikastolan geunden jendea, alde batetik, eta eskola publikoko jendea, beste alde batetik ez da? hau orain dela pilo bat urte ez? Igual euskal eredurik ez zegoenean eta horrela ez? igual ziren mundu bi guztiz ezberdinak ba igual zu hasiera batean jarraitzen duzu aintzinako historiarekin ez da? eskola publikoa dela ba azken batean, ni ere eskola publikoan egon naiz eta "nazionala" zenean ez?...orain dira colegio publikoak...daukazu hor pixkatxu bat ee...aparteko gauza bat ez da?esperientzia oso urrunekoa eta nazionala baina ez nazionala euskalduna baizik eta beste aldekoa, eta momentu honetan nik uste dut, ba hurbiltasun gehiago dagoela, gehien bat, ganera euskal eredutan mugitzen dan jendearekin, ez da? ba hainbat bileretan, **hainbat ikastaroetan batzen zara eta***

beno azken batean proiektua jende batzuen artean antzekoa da ez da? daukaguna baina beno hau ez da jenerala ere. Irakasle mailan bai baina beno bestela nik uste dut bai aldatu dela, osea gure burua aldatu da orduko eskola eta ongoa ez da? barruan egon dan jende pila bat lan egin duelako ere bai ez da? piskatxu bat aldatzeko imajen hori.

Elkarrizketatu honentzat, lanari dagokionez desberdintasun handirik ez badago ere, administrazioak ezartzen duen desberdintasun juridikoaz gain, ideologiarekin zer ikusirik daukan zerbaitetan bai ezberdintzen direla:

... Nik uste dut ere bai hemen gertatzen dena dala, hainbat gauza daude hor! Nik uste dut ikastolak erakunde moduan izan duela kriston indarra baina indarra ez bakarrik sozialki, baizik eta politikoki ere izan duela eragina, eta orduan momentu honetan, ba nik uste dut boterearen daudenei, nahize ta horietariko bat PNV izan eta beti...ba beno laguntzen dutenatariko bat izan, nik uste dut nolabait arrisku moduan ikusten dutela ikastolak...oso "ente" inportantea delako eta gero eta inportanteago izan nahi duelako...indarra ez daukal sozialki baizik eta politikoki eta horrekin ez dut esan nahi eh...umeei mezu politikoa transmititzen diogunik, zer oso argi daukat ezetz!, baina bai bizitzen duzu mundu bat, nik uste dut publikoan bizitzen ez duzuna, nazionalismoarekin lotuta dagoena, beharbada, nire ustea da...“ Nik uste dut ezberdina dela, publikoa ez den momentutik argi dago, momentu honetan hiru sare daudela ba hori pribatua, publikoa eta ikastola...dirulaguntzak ez dira berdinak ere, beraz laguntzak ez badira berdinak rekursuak tokietan desberdinak izaten dira ez? Ordun eh..bai ikusten dut ezberdin, beharbada gero sartzen naiz eskola batean eta emateko era edo gauzak irakasteko era berdina izan daiteke eh? Baina bai ikusten dudala desberdina...egia da nik hemen ezin dut konparatu ez dudalako esperientziarik izan ez da? ba hemen ikusten dudala ba, adibidez, lanaren aldetik jendea oso kezkatuta dagoela, oso bildurtuta dagoela bere lanarekin, ba saiatzen direla koordinatzen eta hainbat gauzak , baina horrek ez du esan nahi...ba eskola publikoan ez dela egiten, hor hainbat gauza daude ere, nik suposatzen dut hemen ikastoletan funtzionatzen den moduan, funtzionatu daitekeela, baina, batez ere, desberdintasun hori sortu da nik uste dut hiru sare horretatik eta, batez ere, ekonomiaren asuntua eta ere bai gestio maila...eta ideologia mailan? ...bai, bai, nik uste dut eskola pluralagoa dela, eta hau ez da hain plurala; nik gehiago ikusten dut lehen esan dizudana nazionalismoari lotuago eta eskola publiko bat ez, hori plurala da, han topatu ahal duzu denetarik...

Ikastola eta euskal nazionalismoaren arteko lotura estua agerian utzi ostean, eta aurreko lerrotan umeei mezu politikorik ez dietela igortzen baieztu arren, euskaraz irakasteari nolabaiteko izaera politikoa onartzen dio²¹:

²¹ Badirudi, andereño hau ,modu esplizitu batez, euren hezkuntza jardueraren izaera politikoaz hitz egitearen beldur dela. Baina, berak ondo ederto bereiztu duen bezala, gauza bat da mezu

...ez dakit normalean hizkuntza batean ari bazara eta komunikazio era bat..euskararen inguruan bai da mezu bat, plural ez dena argi dago euskara erabiltzen duzulako, eta esan dezakezu, jolin, baina euskara ez da, ez dakit, bakarrik ikastoletako zera bat ez da? eskolako ere, baina, nahiz eta eskolan eman ere horrekin badoa mezu bat argi dago, ba ez dakit zergatik ba euskararekin kultura bar doalako eta kultura hori azken finean transmititzen zaude, gero norberak hartu dezala nahi duen moduan, baina zuk transmititzen duzuna da euskal mundua edon den dana egoera, egon diren gatazkak edon diren, ba ez dakit gauza guztiak, baina hori zergatik ez lortu eskola publiko baten? Nik uste dut lortu daitekeela, gertatzen dena da ikastoletara jendea, nik uste dut kontzientziatuagoa doala, eta eskola publikora nik uste dut doan hainbat jende euskal eredutara badoa euskara momentu honetan beharrezkoa delako, baina, ez beraiek bizi izan dutelako euskal mundu hori edo gogoa daukatelako mundu hori bizitzeko... gurasoek segitzen dute etortzen kontzientzia hori dutelako... nik suposatzen dut, igual, beharbada gero eta gutxiago izango dela ez da?hasieran jende gutxiago zegoen eta han zegoenak, ba zen benetan hori zeukalako ez da?batez ere, ikastola batean zegoen errekursorik ere ez zeukana eta ezer ez zeukana, beraz, han egoteko izan behar duzu zeozer, esan nahi dut, zure umea da eta umeari beti eskaini nahi diozu ahalik eta hoberen eta han sartzen baduzu ikusitaba, zelan ibili diren ikastola hasieran errekusio falta, toki falta eta dana, argi dago jende horrek izan beharko lukeela zeozer ideologiarekin zeozer ikusirik zeukana, gaur egun beharbada gero eta gutxiago, baina, hala ere lehen esan dizudana, eskola publikoarekin konparatuz nik suposatzen dut bai dagoela hori, beharbada uste hori ikastoletan...

Hurrengo elkarrizketatu honek ere kontzientzia du hizpide, eta hizkuntza ereduaren arteko liskarrak ere bai:

Nik uste dut giroa, euskaldun giro hori, ..giro hori pena ematen dit, ez dakit, nik badakit eh...zera eskola publikoan dauden hainbat jendearekin hitz egiten baduzu, esango dute eta esaten dute, ez da? ea zer pentsatzen dugun ikastoletan gaudenok, baina ez da sortzen hemen sortzen den giroa...beno alde batetik A eta B ereduak daudelako²², eta A ereduaren dagoen irakaslegoa da ...toki

politiko zehatz bat igortzea eta beste gauza bat da onartzea ikastola, hezkuntza proiektu gisa, euskal nazionalismoaren ekimena dela.

²² Eskolan ezarritako hizkuntza ereduaren inguruan Hezkuntza sailak J. Cummins eskatutako lan batean honako gomendioak agertzen dira :“ Modelo A No conozco ningún programa tradicional de enseñanza de idiomas en el que la L2 se enseña como asignatura (como en el modelo A) que pueda reivindicar el éxito en el desarrollo de la competencia en la L2 salvo en unos pocos estudiantes muy inteligentes o muy motivados...los gestores de la enseñanza en los programas de modelo B deberían sentir que es aceptable y deseable que se acerquen a los programas de modelo D ya que sabemos que la competencia en euskara está directamente relacionada con la cantidad de euskara tanto en la docencia como en el ambiente sociolingüístico y que este aumento en la enseñanza en euskara no implica ninguna pérdida en la competencia en español...tanto en casos de centros de modelo B como de modelo D, es deseable, en principio, que toda la escuela esté implicada en el programa bilingüe/de inmersión(es decir, no tener aula alguna del modelo A.) A erdua, nabarmen gutxitu arren , ez da oraindik bere desagertpena

askotan ba euskararen kontrakoa...orduan niri pena ematen dit alde batetik hori galtzea...ikastoletan sartzen den jendea edo sartuta edo nik uste dut askoz ere aktiboagoa dela, nik ez dakit eh...publikotan ...funtzionarioak direlako...nik ez dakit zergati edo beno urte pila bat daramatelako irakaskuntzan eta ..nik uste dut ikastoletako jendea gazteagoa dela, edo behintzat gaztea da ez da? orduan, mugitu egin dela askoz ere gehiago...eta gero zera euskaldun giro hori, nik uste dut nabariagoa dela, eta kaleko ekintzetan parte hartzeko prestuago gaudela, nik uste dut, orduan nik uste dut hori oso inportantea dela.

Zenbaitek eurek bizitutako liskarra ere aipatzen dute:

...beno badakizu hor egon...eduki genuela problema izugarria, bertan egon ginen, bota egin gintuzten irakasleek ere, ..., gurasoek bertako gurasoak hemengo andereñoak jo egin zituzten, ...insultatuak izan ginen...dela eskola bat, ez nuke esango irakasle guztiena baina bai gehiengo batek ez du onartzen inola ere euskara eta euskal mundua eta badago hor behintzat taldetzo bat, guztiz kontra dagoena ...

Baina, oraindik hemen daukagun esperientzia, auzo honetan behintzat daukagun esperientzia ez da, ez da bat ere hurbila, zer hemen eskola honetan, eskola publikoan B eredia dago eta oso harreman gutxi daukagu B ereduko jendearekin, ez dakit eskola oso itxia delako edo erdal ereduko jendeak indar gehiago daukolako edo nik ez dakit zer gertatzen dan baina ez daukagu; beste toki batzuetan badakigu beste esperientzia batzuk dagozela, ba hor harremanak dagozela euskal ereduko publikako jendea eta ikastolako artean baina, auzo honetan ez dago.

Andereño eta maisu hauek, ikastola eta D ereduen arteko antzekotasunaz eta aldeaz hitz egiterakoan zenbaitetan irakasleen jardueraren izaera aritu dira ere, horrela batzuentzat horretan ere desberdintasunak badira, behean ikusten den bezala:

...ikastoletan sartzen den jendea...nik uste dut askoz aktiboagoa dela...kaleko ekintzetan parte hartzeko prestuago gaudela, nik uste dut hori oso inportantea dela...

Militantzia kutsu duen aurreko irudiaren aurrean dugu elkarrizketatu dugun maisuak defendatzen duen irudi profesionala boluntarismotik aldendua,

erabaki nahiz eta euskal gizarteak aspaldi hori aldarrikatu; halaber, oraindik, egon badaude zenbait ikastetxe non A erdia eta B eredia, ala hirurak elkarrekin baitaude Cumminsek emandako gomendioari entzungor eginez. Cummins, J. (1986). Informe sobre Planificación lingüística Educativa en el País Vasco. Eta P. Arregik dioena: ...la inmersión ha sido el modelo más utilizado por las ikastolas y responde a la necesidad de organizar una enseñanza que sirva a la vez de recuperación lingüística eficaz. -en estos centros la transversalidad de la lengua está presente en los modelos D y en muchos de los denominados B. Arregi Goenaga, F.(1998). Socialización y escuela en sociedades bilingües y biculturales. Inguruak 21: 66 orr.

...sarritan, gurasoen partetik ikusten duguna da, irakaslegoa dela euren irakaslegoa, eta ez dela talde profesionalizatu bat...profesionalizazioa bai eskatzen udela urruntasun bat...bestela sarritan saku berdinean sartu nahi gaituzte, eta hori nik uste dut irakaslearentzat txarra da. Txarra dela, izango ditu parte onak,baina orokorrean txarra. ..nik neuk ere sentitzen dut ikastola honetan pila bat lan egin dut, eta pila bat izerdi eta pila bat negar bota dut ere, ez da? eta nirea da ere bai, baina...nik uste dut eskal batean egongo ginатеke 10rean hori defendatzen 'a capa y espada', eta beste batzuk egongo ziren 8an, eta beste batzuk igual 6an, baina nik uste dut aprobadora denok heldu garela, aprobado zentzu horretan, profesionaltasuna da gauza bat mantendu egin behar dena, eta, irakaslegoaren artean desberdintasunak ikusten dira, ba lehengo, hasiera-hasieratik dagoen irakaslegoa eta orain sartu berria dagoen artean ez da?klaro oso ezberdin ikusten dira gauzak, oso desberdin esan nahi dut lehengo, lehendik irakasleak, nahiz eta neu izan adibidez bat asko defendatzen dut profesionaltasun horretan gorengo mailaraino, baina nik neuk ere daukat hasierako kutsu hori ez da? eta besteek, adibidez ba igual ez daukate hainbeste...niri bokazio hitza ez zait inoiz gustatu...Profesio bat niretzako, boluntarismo kontzeptua sartzea...gizarteari begira ematen du, ez dakit hor boluntarismo kutsu bat dakarrena eta iruditzen zait boluntarismo gainetik dagoen gauza bat, lehenengo profesioa, eta gero nahi duena hor boluntario izan dadila...lehenengo ni sentitzen naiz profesional bat honetakoa, honetan nik egin egin naiz, ikasi izan dut pila bat, eta prestatu izan naiz pila bat...beste batek posible izango balu joan egingo zan eta ni ez nintzateke inoiz joango. Beno, horreri bokazio deitzea, ba, igual bai. ..

Beste batzuek, ordea, bokazioa eta profesionaltasuna elkargarri ikusten dute:

...nik uste dut aldi bi direla, bata bestearekin doala, ...profesional ona izateko gustokoa izan behar duela, egiten duena, uste dut oso inportantea dela hortik nolabait datorkizu motibazioa ez bazaizu gustatzen lana ez duzu funtzionatzen, edo minimora zoaz, beti, zer egiten duzu bete behar duzuna baiian ez zara pasatzen 'ile bat ere ez'. Nik uste dut, ba, profesionaltasuna badoala benetan pertsona arduratzen delako ez bada arduratzen ez da profesional bat...

Hala ere, elkargarritasuna horri zerbait faltatzen zaiola deritzo elkarrizketatu honi :

Nik uste dut dana nahiko lotuta doala ez da? profesionaltasuna, bokazioa eta hori dena inportantea, guztiz inportantea da, baina ere bai ikusten dudana da, ba gaur egun igual piskatxu bat faltan ikusten dudana da euskaltasuna, euskarazetasuna hori ikusten dute..., momentu honetan igual horren beharra ikusten dut, gure esperientzian adibidez, gure ikastolan ba beno ba nik daukat 36 urte, eta beno ba...eta beste batzuk daukate ikastolan 25, 26, 27 urtekoak, eta pila bat gauza ba ez dakit ba ez dutenak ezagutzen edo ulertzen , ez dakit zelan azaldu...nik uste dut ikastola batetako, ikastola batean lan egiten baduzu ez da bakarrik euskaraz irakastea, euskaraz erakutsi eta euskaraz erakutsi materia guztiak, baizik eta hor gero beste gauza bat gelditzen da hor eskegita, ba adibidez ba ez dakit, ba hori nik gure ikastolan sarritan ikusten

dudana da, ba zer gertatzen da gure lurraldetasunagaz ez da? ba jende batek ez dauko argi, zazpi, bai zazpi probintzia gara ba beno orain lau gara eta fin, adibide bat ipintzeko, edo orain 20 urte talde bat egon zela kutur mailan abeslariak 'ez dok amairu' ba oso garrantzitsuan izan zena garai hartan ba jende honek ez du ezagutzen...30 urtetik hona gertatutako hainbat mugimendu eta hainbeste historiak, ori galdu egin dela, eta ez dago esperientziarik, oso..dago esperientzia baina barruan gauden jendea ez dugu bizi ez da? ez dugu bizi izan, beno,batzuk piskatxu bat gehiago eta beste batzuk bat ere ez, ba oso gazteak direlako eta igual alde batetik ez dagoelako ardura bat ere jakiteko zer izan zan ba hori ba ez dakit zein kultur taldearen mugimendu bat edo..agian horren ardura inork ez duelako hartu ez..

Profesionaltasuna, bokazioa, militantzia, lanaren ezaugarri gisa deskribatzen ari garelarik, aurreko lerrootan genion bezala, aintzat hartzekoa litzateke, gure aburuz, genero diskurtso desberdinen eragina gizonaekoen zein emakumezkoek lanarekiko erakusten dituzten jarreretan. Esaterako, gizartean nagusi den diskurtsoaren baitako ustea da lehen irakaskuntza emakumezkoen lana dela :

...uste dut etxeko eragina izan zela gehien bat, etxean esaten zidatelako...gutxi zela magisteritza eta kontutuan hartuta...nik ez dakit holan 'berbalizatuta', baina nik neuk bati izan dut nahiko argi amarentzat beti mutil batentzat karrera bat izan daitekeela izan hiru urtekoa, ...ez dakit holan berbalizatu egin didate inoiz, baina zuk zeuk apurtxu bat gehiago behar duzu ez da? nik uste dut azpian dagoela beti mutilenganako egiten den balorazioa eta magisteritza gauza gutxi edo ez dakit eskas bat bezala..bai neska izatekotan ba igual nahiko, baina mutila izateko ba eskatsua eta hobeto únibertsitario izatea ez da? nik uste dut hori egon zan.

Lanbide generizatu²³ izateak azalduko luke jokabide generizatuak aurkitzea eskolako eguneroko hartuemanetan:

...maisú batzukaz bai igartzen da pilo bat, segun zer lanetan. Baina, soinketa ordutan, adibidez, dutxetara doazenean, gu sartzen gara neska eta mutilen dutxetara, berdín, txikiekaz gabiz, botoiak lotzeko, ez dakit zer egiteko...eta mutilak, normalean ez dira sartzen edo gutxitan sartzen dira. Eta, jada, dutxetako giltzak ere gureak dira, haienak ez dira. Eta azkenean esan behar dautsozu:” orain zu gertazen zara eta hartu egizuz zuk eta konpondu zaitez.

..konfiantza gehiago edo zerbait gehiago neskak ume txikiekiko beti daukatela ez dakit ardura gehiago, edo gauza gehiagotaz konturatzen direla, ez dakit halako sensibilitate berezi bat...eta niri konkretuki bai kostatu izan zaidala, hasiera baten ume txikiekin eta egotea, hori dela eta...alde batetik dagoen

²³ Bradley, H. (1989). Men's Work, Women's Work. Oxford, Blackwell publishers.

baloraziogatik eta, mutil bat izaterakoan eta agian ba, gauza gutxiagotaz konturatuko nintzela, edo hori bai dauko pisu txiki edo handi bat ez da? baina bai dauko piska bat..

Gurasoek erakusten dituzten jarreretan ere:

...ni oso-oso gutxitan geratu naiz, ama batek... ez dakit zeinbat ama etortzen dira hitz egiten ez? ez dakit ba niri kontatzea ez dakit, bere bizitza pertsonala, neskei pilo bat aldiz gertatzen zaie, eta adibidez, negarrez hastea andereño baten aurrean, inoiz gertatu zait, baina oso-oso gutxitan..

...lehen eduki genuen zuzendaria zan emakumea eta orain mutil bat dago ez da? eta nik uste dut jende bai gurasoen artean noski, bai eta irakasle batzuen artean ere askoz ere hobeto ikusten dugula mutil bat egotea zuzendaritza postu batean ba adituago dago edo ez dakit gehiago baloratzen da mutilaren lana zein neskarena orain dela bi urte egon zen neska bat, eta nik uste dut momentu honetan berak izugarri, ganera lehenengoko esperientzia zan zuzendaritza egiten zela ikastolan inoiz ez genuen izan zuzendaritzarik, zuzendari bat eta paperetan eta horrela bai, baina paperetik kanpo ezer ez, eta kristoren lana egin zuela eta ez dela baloratu behar zen beste ez da? ba hori bileretara joateko 'karakterra', ez dakit nik zer, ..mutil batena ematen du batzuegan ba beno askoz ere ez dakit nik gaineitk dagoela ez da? neska bat 'pues que se achica', ba txikitu egiten dela... gehien bat gurasoengan izan da ... gurasoentzat zuzendari gizonezkoa esaten duena guztiz desberdina da emakume batena ba beno...beste modu batera ez daukate ziurtasunik ez da? ba pentsatzen dute mutil bat hobeto azaltzen dela ez dakit imajen hori indartsuagoa dela eta hori eta emakumeena ez da...nik uste dut ere bai emakume askok pentsatzen dugu hori, ba nik ez dut balio horrelako lan bat aurrera eramateko, jo, Gasteizera joan behar naiz bilera bat egitera, nik ez daukat hor imajen bat, mutil bat hor askoz hobeto dago eta, eta hori da toki guztietan bai irakasleengan bai gurasoengan, ikastolako junta begiraturaz gero ere gehiengoak gizonezkoa dira eta...gurekin hitz egiten...emakumeak,amak izaten dira aita gutxi...karga hori da emakumeena.

Aurreko elkarrizketatuak, gizartean genero diskurtso tradizional horren nagusitasunaz jabeturik, ikasleekin beste modu batera egin behar dela lana dio, hezkidetza proposatuz aipatu barik:

...jende gazteak hainbat gauza ez daukola batere argi, bai emakumeak lan egin behar dugu, eta berdinak izan behar gara eta hortik aparte hainbat gauza dagoz eta nik uste dut horrek ez direla behar dan beste ikutzen eta 8. mailan eta 7. mailan eta 6. Mailan umeak nahiko nagusiak dira eta hor kriston lana egin behar da eta hor dagoen jendea izan behar da gauza pues argi dituenak eta ez bakarrik berdintasuna, holan, zer..gure ikastolan ba beno arazoak izan ditugu 8. eta 7. mailakoen neska eta mutilen artean, mutilak dira ba denen gainetik

*dagoz eta nik uste dut hor irakasleen aldetik ba indar handiago egin behar dela..beste modu batera egin behar dela lana..*²⁴

Genero diskurtso tradizional zein berria aurki ditzakegu ere andereñoen artean, azken hau nagusitzen bada ere. Horren adibide dugu, lanarekiko duten iritzia:

...ni lau ta erdietan txapa eskegitzen dut eta beste gauzak egin, ahaztu piskatxu bat, bestela, hori gertatzen zaigu afarietan eta holakoetan beti ikastolari buruz, edo umeei buruz, edo jendeari buruz, edo gurasoei buruz ez da? eta batzutan diot nahiko... batzutan beno akabo , ikastola amaitu da eta hemen beste gauza batzuk, bai holan saiatzen gara behintzat ba beno ikastola ez da guztia ez da? behintzat lana ez da nire bizitza, niri beste gauzak ere pilo bat gustatzen zaizkit.

Emakumearen lehengo irudi tradizionalarekin apurto gura duena ere bada:

...gaur egun jendeak esaten du gaurko gazteak berekoiak direla ba, zentzu horretan oso ume gutxi ditugulako eta abar...nik uste dut oso inportantea dela berekoi izatea... eta zaintzea zure pertsona, eta ez izatea ba hori zerbitzari bat, denekin gustora egin behar duzula, denei lagundu behar diezula, eta denei ez dakit zer, eta zuri zer! Nik uste dut hori oso inportantea dela..

Hurrengo elkarrizketatu honentzat, ordea, irakaskuntzan aritzearen ondorioa litzateke, hain zuzen ere, bereizi ezinik ibiltzea lana eta aparteko bizitza:

Ba ez dakit, batzutan iruditzen zait oso lan gogorra, sartzen zarela pertsonen munduan gehiegi, orduan buruz duzu beti lanean sartuta ez da? ematen du batzutan ez duzula desberdintzen lana eta aparteko bizitza, beti zagoz...irakaskuntza da 24 ordu berean...

Lanaren inguruan, badago beste gai esanguratsu bat, alegia, lanbide karrera. Gai horren inguruan aritu diren hiru elkarrizketatuen artean, batek, elkarrizketatu dugun maisu bakarrak, lanbide karrera egiteko ikastolan dituen arazoez hitz egin digu; besteak, aldiz, irakaskuntzan eta batik bat ikastoletan dauden aukerak eskasak aipatu bai, baina, eskasak izan arren gizonezkoei emakumezkoei baino lehenago onartzen dietela diote:

...zure burua ikusten duzu hemendik ez dakit 4,5, 10 urtera bertan ikastolan?...Bertan, nik ez, ez dut ikusten, aspalditik ez dut ikusten gainera, bano egia ez da aspalditik ez dudala ikusten mmm, nik uste dut ikastolan pilo bat ikasi dudala, eta seguraski profesioan lehen egin dut ez da ? pasatzen dena da beste laguntzak izan ditut kanpoan ere, beste taldetan egon naizelako sartuta eta hor ere pilo ikasi izan dudala...Adarra, batez ere izan da eta Adarratik ba pila bat ikastaroak eta emateko izan dut, eta neure burua formatzeko, e...igual ikastolatik oso zaila daukazun proiektu batzutan sartu ahal izateko ere, ikusteko

²⁴ 12. Elkarrizketa.

ere administrazioak zelan funtzionatzen duen, zelan onartzen dituen seminariotan parte hartzea, zelan ematen den dirua, ikastola batetik igual zailago, edo zentro batetik ez nago ikastola ikastola dalako, zentro batetik zailagoa omen dena hori egitea, eta igual ba egia da boluntarismo horrekin, zein azken baten da gauza boluntario bat, beste arlo batzutarara ailegatu ahal izan naiz, eta beste gauza batzuk ikusita hori, eta orduan bide horretatik ere etorri zait beste kuriositate bat eta beste, profesional mailan beste ahalegin bat egiteko gogoia ez da? eta hezkuntza munduan azkenengo urtetan sortu izan diren beste zerbitzuetan eta nahi izan dut aurkeztu, pasatzen dena da beti ostopatuta ikusi dut nire burua hor funtzionarioa ez izan arren, ...eskola publiko ez garenez ba, ez daukagu aukerarik horretan sartzeko, eta saiatu naiz eta aurkeztu egin ditut lanak eta dana baina, ..., nire hasierako pausoak nik argi izan nituen gelan bertan egon behar nituen...zer suposatzen den maisu lan egitea ez da? baina, gero ba hori gogoak edo etorri zaizkit piskatze bat mundu hori ikusita eta ahaleginak egin mundu horretan, ba ere bai beste zerbitzuak ere oso inportanteak iruditzen zaizkit, irakasleari laguntzeko.

...momentu honetan ikastolak oso aukera gutxi ematen dizu zentzu horretan, adibidez, publikoak askoz gehiago zu publiko batean lan egiten baduzu...aukera izan dezakezu, adibidez, ba ez dakit ba irakaskuntzarekin zerikusirik daukaten beste lan batzuetan sartzeko, ba izan daiteke bat, ba ez dakit orientabidea edo irakasle konsultore hori, irudi hori, edo COPetan lan egiteko eta ikastolak momentu honetan ezin dizu hori eman, nik hemen, adibidez, ba bai ikusten dut nire burua piskatze bat zelan, ez dakit, nik sartu baino sartu naute zuzendaritza roiloetan eta abar, baina gauza handirik ez dago adibidez ikastola batean egiteko edo irakaslea edo zuzendaritza lanetan aritzen, baina oso aukera gutxi ematen dizu profesionalki ba aurrera joateko edo aldentzeko.

...maisurik al dago erdi zikloan...Bi. Orain bi. Eskolaurrean dagoz beste bi eta ez dakit zelan dagozen zer normalean andrazkoak hartzen dabez. Gero hasi ziren mutilekaz, horrek sartu ziren. Hasiera zikloan ez dago batere ez eta erdizikloan bi. Orain promozionatzeko edo, errezago daukie mutilak neskak baino. Eta hori argi dago, EGBtik BUPera pasatzeko, hor egon da jendea magisteritza eginda, baina gero beste gauzak egin dabezenak eta beti eduki dabe aukera gehiago mutilak eroateko BUPera, nahiz eta eskatuta eduki.

Honaino elkarrizketatuen bizipen eta iritzi desberdinak, ikastola eta andereñoen jardueraz, euskal hezkuntzaren diskurtsoaren zein genero diskurtsoaren aldaketen argipean. Beraz, badirudi, euskarazaletasunak eta genero antolaketa ulertzeko modu desberdinek bai ikastolaren izaera eta jarduera, bai ikastoletako irakasleriaren lana eragiten dituztela. Atal honen hasieran esan bezala, datu objektiborik ezean gizarte aldaketa azterketarik burutu ezinean gabiltza. Hala

ere, datu subjektibo hauetatik abiatu, eta kontuan hartu oraindik ere ikastoletan ari den irakasleriaren gehiengoa emakumezkoa dela, honako galdera hau datorkigu burura: EAEn 90eko hamarkadako andereñoen kolektiboa *militantez osaturiko talde bat* ez badira ere, ez ote da geldituko eurengan horrelako zerbait ala den-denek, militantziarik onartzen ez duen funtzionarizazio bide horretan dihardute?

Ez dago jakiterik, esan bezala, *militantez osaturiko talde horretan* militantzia maila bera zenbatek erakutsi zuten, agian, gutxi batzuek erakutsitako militantziak kolektibo osoa ezaugarritu zuen. Baina, badago jakitea, 90eko hamarkadako, Euskal Erkidego Autonomiko ikastoletan ari diren andereñoek zer iritzia duten euren jardunaz. Hain zuzen ere, kolektibo horren lagin batengana hurbilduko gara, oraingoan galdekizun batekin, euren iritzi desberdinak egituratu eta orokortu guran. Landa lan horren emaitzen berri eman aurretik, landa lan kuantitatiboa bideratu duten hipotesi zein azpihipotesiak ezagutzera emango ditugu hurrengo eta lan honen azken azpiatalean.

10.2. 1990eko ikastoletako andereñoen kolektiboa Euskal Autonomia Erkidegoan

Aurreko ataletan, erakutsi dugu euskal nazionalismoak, europako beste nazionalismoek bezala, euskal hizkuntzaren irakaskuntza orokortzeari ekin diola nazio-komunitate eraiki guran. Euskararen irakaskuntza orokortze prozesu horretan ikastolaren aitzindaritzaren agerian utzi dugu bere historia jorratzean. Horrela, 1990eko hamarkadara arte, herrialdeko ikastolen kopurua eta hauen irakasleriaren berri emateaz gain, aurreko urtetako aldaketa politikoak direla medio, hauen egoera juridiko desberdina ere hizpide izan dugu¹. Dagoeneko jakina denez, arduratu izan bagara ere euskaraz hezkuntza proiektu horren ezaugarriak eta gorabeherak ezagutzen, batik bat, proiektu horren funtsezko eragileengan ezarri dugu gure arreta: irakasleengan.

Ikastolen hezkuntza proiektuaren hastapenetan, emakumezkoak ditugu irakasle gisa aritu zirenak. Proiektua hasi ahala eta, esan bezala gizarte baldintza desberdinen eraginez, gizonezkoak ere irakasleria horren zati garrantzitsua osatzen hasiak dira. Dena dela, ikastolen irakaslerian osaketa Euskal Autonomia Erkidegoko beste hezkuntza sareen irakasleriaren alderatzen genuela, ageri-agerian gelditu zen, sare guztietan emakumezkoak gehiago baziren ere, ikastoletan gehiago hori nabarmen handiagoa zela²

Halaber, emakume horien irakaste jardunaren zenbait ezaugarri aipatzen genituen, eta ezaugarri horietan, une historiko desberdinetan, eragina izan zitzaketen gizarte aldaketan berri eman ere bai: genero antolaketari zein euskararen berreskuratzeari eta orokortzeari dagozkien diskurso desberdinen agerpena euskal nazionalismoan.

Horrek guztiak ikastoletako andereñoen eguneroko jarduera eragingo zuelakoan, honako galdera hau egiten genion gure buruari: andereño hauek euren irakaste jardunaz zernolako iritzi eta jarrerak izango dituzte?

¹ Ikus 9.3. azpiatala.

Aurreko galderari erantzun egoki bat aurkitu guran eta aipatutako gizarte aldaketen argipean honako hipotesi hauek formulatu ditugu:

1- Ikastolak, hasierako urteetan nazio izaerako proiektu komun gisa ikusiak izan ziren, garai hartan euskararen irakaskuntzan zein zabalkuntzan jarduteak Euskal Herriaren identitate-ezaugarriak berreskuratzea zekarren-eta. Aipatu ideia hori proiektu horretan ari ziren gizarte eragile guztiek partekatzen zuten, hezkuntza komunitatearen baitakoek: gurasoak, irakasleak eta ikasleak, zein euskal gizartearen beste eremuetatik parte hartzen zutenek. Egitate horrek hezkuntza esperientzia horren jarduna kontzientzizatzaile gisa ezaugarritu zuen.³ Gure gizarteak bizituriko aldaketa soziopolitikoek euskal nazionalismoan ere eragin sakona izan zuten, batik bat, 1976-1982 urte bitartean: alderdi politikoen legeztapenak eta garapenak zein Autonomien Estatuaren egituraketak euskal gizartearen errealitatea ulertzeko eta egituratzeko modu desberdinak agerian utzi baitzituzten.⁴

Era berean, euskararen berreskuratze eta orokortzearen inguruko proposamen desberdinak plazaratzen dira. Proposamen horietan ez dira irizpide nazionalak eta kulturalak soilik ageri, bai eta lanbide zein ekonomi irizpideak ere. Izan ere, ikastolen hezkuntza proiektuaren konplexutasuna zein hazkundeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskola publikoetan hizkuntza ereduak ezarri ziren. Baina, ez hori bakarrik, langabeziak ezaugarrituriko hamarkada batean, administrazio berri bat eraiki zen, non, hizkuntza profilen eskakizunak euskara lan mundu erakargarri batekin lotu baitzuen.

Ikastolen hezkuntza komunitatearen kideek, gurasoek zein irakasleek, dagoeneko, ez dute zertan euskararekiko jarrera komuna partekatu. Horrela, euskal hizkuntzarekiko jarrera desberdinak agertzeak irakaste jarduna kontzientzizatzaile horren ahultze bat ekarri du. Lan kontzientzizatzaile hori, orain, beste gizarte eragileei dagokie: familiari, alderdi politikoei eta euskal gizartearen beste instituzioei.

² Ikus, berriro ere, 9.3 azpiatala.

³ Etxebarria, F., *Euskal Curriculum berezia*. Tantak, 1990. 4: p. 73-88.

⁴ Ikus, 9.1. azpiatala.

Zio horiek guztiek, andereñoen gizarteratze lana eragiten dute, lanari buruz duten iritzi eta jarreretan desberdintasun nabarmenak agertaraziz; are gehiago, zenbait kasutan beste hezkuntza sareetako irakasleen lana beraiek egiten dutenarekin parekatzeraino helduz.

2- 1950-60ko hamarkadetan, ikastolen hastapenetan frankismoak ezarritako zapalkuntzak, arazo ekonomikoek zein euskara beraren egoerak andereñoen jarduna ezaugarritu zuten: lan-baldintza eskasak, alegia, soldata baxuak, ez gizarte asegurantzarik, ez ikas-materialik; beldurra, polizia noiz etorriko zain; euskara eskola hizkuntza izan zitekeela zenbait gurasori erakutsiz. Aipatu horri guztiari aurre egin zioten jarrera militante sutsuarekin, *Euskal Herrian euskaraz irakaskuntza bat* egin behar baitzen. Nazionalismo mugimendu osoak subjektu abertzale gisa ikusten zituen, bai nazionalismo tradizionalak bai nazionalismo ezkertiarak. Nazionalismo horien artean, genero diskursoari dagokionez, gero eta desberdintasun handiagoak agertu arren, biek generoaren arabera lan banaketa sexualan eremu komun bat baitzuten emakumeei atxikia: kultura. Emakumeen kultur igortzailearen irudiak, beraz, nazionalismo osoak legitimaturik agertu zen; baina, aldi berean, praktikan kontrajarriak izan zitezkeen beste jokabide eta irudiekin baturik: eliza katolikoak ezarriak zein modernizazio ekonomikoak eta zenbait ideia feministek ekarriak.⁵

Ikastolen mugimenduaren hasierako egoera latz horrek eta bere garapenak, saio pedagogiko gisa, ekarri zuten gizonezko talde esanguratsurik (kuantitatiboki behintzat) ez izatea; horrela, ikastoletan autoritate-egitura formalik ez bazegoen ere, andereñoak izan ziren, irakasteaz gain, erantzunkizun handikoen zereginetan aritu zirenak hezkuntza komunitateari zein gizarte zabalari begira. Ikastolen mugimendua indartu eta hazi ahala, bere barne-antolaketa burokratizatu eta poli-poliki gizonezkoak joan ziren parte hartzen. Zenbait kasutan guxiengoan egon arren, irakaskuntza goi-mailak zein erantzunkizunezko ardurak gizarteari zein administrazioei begira bereganatu zituzten. Irakasleen gehiengoa, andereñoak, irakaskuntza beheko mailatan

⁵ Ikus: 8.2 atala.

geldituz, non ama eta hezitzailearen rola, oraindik ere gizartearen gehiengo batentzat, baturik baitaude. Bitartean, euskal nazionalismoen baitan zenbait errebindikazio feminista agertzen hasiak dira. Egun, andereñoen egoerak berdin antzera segitzen du: gehiengo dira beheko mailatan. *Zaintzaren etikari*⁶ dagozkion zereginak emakumezkoen uztean lan banaketa sexuala berrindartua agertzen da ikastetxean ere. Egitate horrek badu ohiartzunik gizartean, non, lan banaketa sexuala betiketzea baitakar, andereñoen lana gutxietuz. Alabaina, dagoeneko esanik utzi dugun bezala, feminismoek aipatu errealtate horri aurre egiteko diskurso teoriko zein ekimen politiko garrantzitsuak burutu dituzte, ahalbidetuz, emakumei buruzko irudi eta praktika desberdinak. Horrela, gure iritziz, aipatu irudi eta praktika desberdin horiek badute zer esatea, andereñoek euren lanaz dituzten iritzien eta jarreraren inguruan.

Hipotesi horien operazionalizazioak, aurki ikusiko dugunez, lau eremu iradoki zituen galdekizunaren diseinurako⁷, hala nola:

1.-Euskaldunok eraikitako eskola eredu batean irakastea:

- 1.1-Zergatik aukeratu zuten *andereño* izatea.
- 1.2.-Zergatik *ikastola* lan eremu gisa.
- 1.3-Ordaindua den lan bat izatearen balorazioa.
- 1.4-Euren lanbideari buruz egiten duten balorazioa.

2.- Generoa eta irakaskuntza:

- 2.1-Etxeko lana eta lanbidearen arteko elkargarritasuna.
- 2.2-Lanbide-hobetze.
- 2.3-Magisteritza emakumezkoen lana.
- 2.4-Familia antolatzekeo estrategiak eta emandako denbora
- 2.5-Aisialdiaren izaera eta emandako denbora.
- 2.5.-Gure gizartean *emakume izatearen inguruko* jarrerak.

3.- Erljioa eta ideologia politikoa:

- 3.1-Erljioarekiko jarrera eta jokabide erlijiosoak.
- 3.2.- Politikarekiko jarrera eta partehartze politikoa.

4.- Datu soziobiografikoak

⁶ Kymlicka, W., *Filosofia Politica Contemporanea*. 1995.

Aipatu lau eremu horien arabera eraikitako galdekizunarekin behaketa-unitatea, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko andereñoen kolektibo osoa ezin elkarrizketatu eta laginketari ekin behar izan genion.

Laginketa markotzat Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak utzitako 1988-89 ikasturteko andereñoen data-base bat hartu izan genuen. Data-base horri esker jakin izan genuen *unibertsoaren tamaina* 2.717 lagunekoa zela eta eskaintako aldagaien artean, gure ikerketaren helburuetarako funtsezkoa duguna ere, *adina*, aurkitu eta erabili izan genuen *mailaketarako edo estratifikaziorako*, hau da, *laginketa aleatorio mailakatua* bideratzeko. Horrela, jakinik kolektibo horren %81a 40 urte baino gutxiagokoa zela⁸, honako erabakiak hartu izan genituen:

1. Aintzat harturik landa-lanerako geneuzkan giza zein ekonomi baliabide apalak, erabaki genuen laginaren tamaina 220 lagunekoa izango zela. Beraz, unibertso mugatu baterako, $N= 2.717$, $p=\%81$ eta %95,5 konfidantza mailaz, gehienez %4,9 lagin errakuntza izango genuke.
2. Esan bezala, *adina mailaketa aldagaitzat* hartu genuen eta, hortaz, laginaren banaketa *mailak* unibertsoan duen pisuaren arabera izan zen, alegia, *banaketa edo afijazio proportzionala*.
3. Andereñoekin harremanetan ezartzeko ikastoletara jo genuen. Horrela, aldagai interesgarri batzuk kontuan hartu eta gero (*ikastolaren tamaina; kokapen geografikoa eta herrialdea*) zenbait ikastexeren zuzendariari gutun bat bidali genion gure ikerketaren gorabeherak azalduz. Bertaratu aurretik

⁷ Ikus galdekizuna, eranskinean 198-206 orrietan.

⁸ Beraz, %81ak 1970ko hamarkadan hogeitau urte edo gutxiago zeuzkan eta ikastolen legeztapen prozesua hasita zegoela hasiko ziren lanean, ordea, %19a hogeitau urte baino gehiagokoa ziren segurasko lehenago hasiko ziren lanean ikastoletan. Horrez gain, 1970eko hamarkada ikuspegi sozial eta politikotik funtsezkoa izan da: "...desde el punto de vista social y político es el comienzo de esta década de los setenta lo que constituye el punto de inflexión fundamental...el franquismo comienza a entrar en crisis, entre otras cosas porque determinados sectores de los estratos sociales dominantes comienzan a mostrarse partidarios de un cambio político, de la necesidad de un tránsito hacia formas políticas modernas, homologables a las disfrutadas por los países occidentales...lo que es central en el País Vasco:...un nuevo estadio de la dialéctica de enfrentamiento y reforzamiento propia del proceso de extensión e intensificación de la conciencia nacionalista durante el franquismo....Sobre estos fenómenos, la decadencia del franquismo y la gestación de un nacionalismo exultante, sobrevolará progresivamente el fantasma de la crisis económica, cuyas repercusiones en la trama de valores y actitudes de la nueva

telefonoz adosten genituen egunak eta ordu egokienak andereñoekin elkarrizketatzeko. Orotara, Bizkaiko eta Gipuzkoako hogeikastoletara joan ginen. Landa lana 1990-91 ikasturtean burutu zen. Ikastetxetan bertan galdekizunak egiteak lana erraztu eta kosteak gutxitu zituen.

4. Bildutako datuak SPSS programaz prozesatu ziren honako estatistikoak lortuz: maiztasunak eta portzentaiak. Lagina txikia izatean aldagaien arteko elkartze erlazioa portzentaien analisiaren bitartez egin zen.⁹

Gure ikerketaren alde kuantitatibo honen lehenengo urratsak argitu ondoren ikus dezagun hurrengoek zer berri dakarte.

*generación son, obviamente, muy relevantes.”in*Perez Agote, A., *El nacionalismo vasco a la salida del franquismo*. 1987, Madril: CIS: 148-149 orr.

⁹ Sánchez Carrión, J.J., *Manual de análisis de datos*. 1995, Madril: Alianza: 268-269 orr.

10.2.1. Ezaugarri soziodemografikoak

Azpiatal honetan, andereñoen *antzinakotasunari, irakasten duten mailari, adinari, egoera zibilari, seme-alaben kopuruari, magisteritza ikasi zuten ikastetxearen izaerari, beste ikasketei, irakasten duten mailari, aintzinakotasunari, kargu izateari, sinismen erlijiosoari eta ideologia politikoari* dagozkien adierazleak aurkeztuko ditugu, aztergai izango dugun taldearen ezaugarri soziodemografikoen erreferentzia bat izateko.

Zenbat denbora daramazu

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>10 urte arte</i>	<i>100</i>	<i>45,5</i>
<i>11-15 urte</i>	<i>58</i>	<i>26,4</i>
<i>16-19 urte</i>	<i>35</i>	<i>15,9</i>
<i>20 urte edo gehi</i>	<i>27</i>	<i>12,3</i>
<i>GUZTIRA</i>	<i>220</i>	<i>100</i>

1970eko hamarkada baino lehenagoko ikastoletan ibilitakoak 27 baino ez dira, aldiz, ia-ia erdia dira 1980ko hamarkadan, eta beste horrenbeste 1970eko hamarkadaren zehar, lan egiten hasi zirenak.

Irakasten duzun maila

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Eskolaurre</i>	<i>59</i>	<i>26,8</i>
<i>Hasiera zikloa</i>	<i>53</i>	<i>24,1</i>
<i>Erdi zikloa</i>	<i>58</i>	<i>26,4</i>
<i>Goi zikloa</i>	<i>41</i>	<i>18,6</i>
<i>Gela berezia</i>	<i>7</i>	<i>3,2</i>
<i>Ez du erantzuten</i>	<i>2</i>	<i>0,9</i>
<i>GUZTIRA</i>	<i>220</i>	<i>100</i>

Azpimarratzekoa da andereñoen proportzioa antzetsua dela maila guztietan goi zikloan izan ezik, non nabarmenki andereñoen presentzia jeisten baita.

Hiztun mota

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Euskaldunzaharra</i>	<i>34</i>	<i>15,5</i>
<i>Euskaldunberri</i>	<i>61</i>	<i>27,7</i>
<i>Ez du erantzuten</i>	<i>125</i>	<i>56,8</i>
<i>GUZTIRA</i>	<i>220</i>	<i>100</i>

Hiztun motari dagokionez, ez erantzunaren portzentai handiak gure arreta erakarri du, halarik ere, ez dugu jokabi horren argibiderik. Are gutxiago ondoko koadroan agertzen den informazioa ikusirik:

Euskara titulua

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Bai</i>	214	97,3
<i>Ez</i>	5	2,3
<i>Ez du erantzuten</i>	1	0,5
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Gutxi batzuk kenduta andereño guztiek euskarazko titulurik badute.

Adina

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>30 urte edo gutxiago</i>	89	40,5
<i>31-39 arteko urteak</i>	91	41,3
<i>40-56 arteko urteak</i>	40	18,2
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Andereñoen %81 40 urte baino gutxiagokoak dira. Datu horrek, kolektiboaren gaztetetasunak, lanbide bizitza luzea dutela erakusten du, beraiek nahi izanez gero.

Egoera zibila

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Ezkondua</i>	130	59,1
<i>Ezkongabea</i>	69	31,3
<i>Bikotean bizi da</i>	14	6,4
<i>Alarguna</i>	1	0,5
<i>Banandua/dibortzia</i>	4	1,8
<i>Ez du erantzuten</i>	2	0,9
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Ezkongabeko portzentaia garrantzitsua da, baina ez da harrizkeoa ainzat hartzen badugu kolektiboaren gaztetasuna.

Seme-alaben kopurua

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Ez du seme-alabarik</i>	108	49,1
<i>1 edo 2 seme-alabak</i>	98	44,5
<i>3 edo gehiago</i>	14	6,4
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Aldagai honek aztergai dugun kolektibo hau erdibitzen du, bestalde, aurreko aldagaiarekin gertatzen zen bezala, egitate hori ulergarria da andereñoen adinari begiratuz gero.

Jaioterria

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Hiritarra</i>	166	75,5
<i>Ez hiritarra</i>	47	21,4
<i>Ez du erantzuten</i>	7	3,2
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Andereñoen hiru laurdenak jatorriz kalekoak dira. Halaber, beheko koadroan ikusten den bezala, oraindik gehiago dira hirietan bizi direnak.

Bizilekua

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Hiritarra</i>	177	80,5
<i>Ez hiritarra</i>	36	16,4
<i>Ez du erantzuten</i>	7	3,2
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Magisteritza ikasi zuten ikastetxearen izaera

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Ez erlijiosoa</i>	155	70,5
<i>Erljiosoa</i>	54	24,5
<i>Ez du erantzuten</i>	11	5
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Kolektibo honen laurden bat baino ez zen izan eskola erlijiosoetan prestatua, gainerako andereñoek eskola ofizialetan ikasi zuten.

Beste ikasketak

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Litzentziatura</i>	17	7,7
<i>Diplomatura</i>	5	2,3
<i>Ez unibertsitarioa</i>	25	11,4
<i>Ez du erantzuten</i>	173	78,6
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Ehuneko hamarrak beste ikasketa unibertsitarioak dauzka.

Kargu izatea

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Bai</i>	24	10,9
<i>Ez</i>	193	87,7
<i>Ez du erantzuten</i>	3	1,4
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Ikusten den bezala, oso gutxi dira eskolaz bestelako erantzunkizunak dituztenak. Erantzunkizun horiek honakoak izanik:

Zein kargoa?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Koordinatzailea</i>	14	58,3
<i>Delegatu sindikala</i>	5	20,8
<i>Zuzendaritza</i>	3	12,5
<i>Ez du erantzuten</i>	2	8,3
<i>GUZTIRA</i>	24	100

Alegia, eskolekin zuzenean erlaziorik gabeko arduretan, soilik zortzi andereño ari dira: bost sindikatuetan eta beste hirurak ikastolen zuzendaritzatan.

Sinesmen erlijiosoa

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Bai</i>	67	30,5
<i>Ez</i>	135	61,4
<i>Ez du erantzuten</i>	18	8,2
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Andereñoen gehiengo baten bizitzan erlijioak ez du leku garrantzitsurik, hala ere, ez da gutxiesteko kontrakoa adierazten dutenaren kopurua.

Ideologia politikoa

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>EAJ</i>	26	11,8
<i>EA</i>	18	8,2
<i>EE</i>	11	5,0
<i>HB</i>	69	31,4
<i>Inori ez</i>	33	15,0
<i>Ez du erantzuten</i>	63	28,6
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Andereñoen artean gailentzen den indar politikoa Herri Batasuna da, dena dela, ez erantzunen portzentaia ia parekoa da; hirugarren aukera abstentzioa da eta

honen ostean datoz Euzko Alderdi Jeltzalea, Euzko Alkartasuna eta Euskadiko Ezkerra aipatu ordenean.

Labur bildurik, datuen lehenengo irakurketa honen arabera honako modu honetan deskribatu dezakegu andereñoen kolektiboa: erdiak 10 urte baino gehiago darama ikastolan; euskara tituludunak dira eta 40 urte baino gutxiago dauzkate; ezkonduak eta seme-alabekin gehienak, kaletarrak dira eta hirian ere bizi dira; magisteritza ikastetxe sekularretan ikasi zuten, ez dute beste ikasketarik ez da erantzunkizuneko kargurik ere. Ikasketa maila guztietan proportzio berdinean aurkitzen ditugu, goi zikloko mailatan izan ezik, non euren presentzia nabarmenki jeisten baita. Beraien artean gehien bozkaturiko aukera politikoa Herri Batasuna da.

10.2.2. Euskaldunok eraikitako eskola eredu batean irakastea

1990eko hamarkadako andereñoek, berauek buruturiko gizarteratze lanari buruz dituzten iritzi eta jarrerak ezagutu guran genbiltzala, ikusi bezala, hipotesi orokorraren operazionalizazioari ekin genion lau dimentsio marraztuz: zergatik aukeratu zuten *andereño* izatea; zergatik *ikastola* lan eremu gisa; ordaindua den lan bat izatearen garrantzia eta euren lanbideari buruz egiten duten balorazioa. Azal dezagun, bada, dimentsio hauen adierazleak.

Zergatik aukeratu duzu andereño izatea?

Andereño izatearen zioak

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Irakaskuntza atsegin zaidalako</i>	142	64,5
<i>Andereñoen bizimodua eroso</i>	2	0,9
<i>Irakaskuntza euskaraz garrantzits</i>	58	26,4
<i>Eliminazioz</i>	9	4,1
<i>Ez du erantzuten</i>	9	4,1
GUZTIRA	220	100

Andereñoen laurden batek baino ez du *irakaskuntza euskaraz garrantzitsua dela uste dudalako* erantzuna hautatu. Badirudi azken hauentzat andereñoaren irudia euskaraz irakastearekin loturik doala. Ordea, kolektiboaren gehiengoak, *irakaskuntza atsegin zaiela* esatean, ez du inolako bereizketarik ezartzen ikastoletan zein beste ikastetxetan irakastearen artean. Aurreko atalean, lan

kualitatiboaren berri ematen genuela, 60ko hamarkadan ibilitako andereñoen esanen bidez ezagutu izan dugu, eurentzat andereño izateko zio nagusia *euskarazaletasuna* izan zela. Ikus dezagun zenbateraino aztergai dugun kolektibo honentzat *euskarazaletasuna* funtsezkoa izan den:

Euskarazaletasunaren eragina

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Bai, asko.garrantzitsuena</i>	41	18,6
<i>Nahiko, baina ez faktore bakarra</i>	45	20,5
<i>Orain ez da hainbesterako</i>	129	58,6
<i>Ez du erantzuten</i>	5	2,3
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Kolektiboaren laurdenera ere ez da ailegutzen *euskarazaletasuna* faktorik *garrantzitsuentzat* hartzen dutenak andereño izateko erabakia hartzerakoan; *garrantzitsua bai, baina ez faktore bakarra* beste horrenbeste diote, aldiz, gehiengoak, *orain, faktorek horrek hainbeste eraginik ez duela* pentsatzen du. Baina, zer ulertzen dute *euskarazaletasunaz*?

Euskarazaletasunaren definizioa

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Irakaskun euskaraz kalitatezkoa</i>	62	28,2
<i>Euskaraz irakatsi eta aldeko ekintzetan parte hartzea</i>	123	55,9
<i>Euskara bultzatzeko bizi-tza osoa ematea</i>	29	13,2
<i>Ez du erantzuten</i>	6	2,7
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Andereñoen gutxiengo batek baino ez badu *euskarazaletasuna* jarrera militante sutsu batekin lotu, gehiengo bat dira kutsu militantea apal bat atxikitzen diotenak. Dena dela, ez da gutxieteko *euskarazaletasuna* eremu profesionalera mugatzen dutenen portzentaia, horrela militantziari profesionaltasuna kontrajarriz.

Zergatik ikastola lan eremu gisa?

Ikastola aukeratzeko zioak

	Maiztasunak	Portzentaiak
<i>Ez euskaraz ikastetxerik</i>	9	4,1
<i>Lan gehien zegoen lekua</i>	16	7,3
<i>Ikastolen esanahi eta giroagatik</i>	59	26,8
<i>Ikastolan ikasi dudalako</i>	3	1,4
<i>Kasualitateagatik</i>	41	18,6
<i>Nire bila etorri zirelako</i>	37	16,8
<i>Nahi nuelako ikastola irakastea</i>	54	24,5
<i>Ez du erantzuten</i>	1	0,5
GUZTIRA	220	100

Taldekatuz gero euskara eta ikastolaren nolakotasuna kontuan hartzen duten kategoriak alde batetik, eta, bestetik, euskara edo ikastolaren aipurik egiten ez dutenen kategoriak (*lan gehien zegoen lekua, bila etorri eta kasualitateagatik*) honako emaitzak izango genituzke:

	Maiztasunak	Portzentaiak
<i>Lana eta kasualitatea, bila etorri</i>	94	42,7
<i>Euskaraz ikastetxea, ikastolen esanahia, giroa eta nahia, ikasi</i>	125	57,3
<i>Ez du erantzuten</i>	1	0,5
GUZTIRA	220	100

Datuak horrela taldekaturik, ageri-agerian gelditzen da gehiengoaren euskararen zein ikastolaren aldeko jarrera esplizitua, kolektiboaren beste zati handi batek lan gehien zegoen tokia edo bestelako zioak aipatzen dituen bitartean. Zalantzarik ez dago guztientzat garrantzi handikoa dela ordaindua den lan bat izatea, azter dezagun, orain, andereño hauen iritzia gai honen inguruan.

Ordaindua den lan bat izatearen balorazioa

Soldata izatea

	Maiztasunak	Portzentaiak
<i>Garrantzitsua</i>	22	10
<i>Garrantzi gutxikoa</i>	102	46,4
<i>Bat ere ez</i>	83	37,7
<i>Ez du erantzuten</i>	13	5,9
GUZTIRA	220	100

Eskuharki lan ordaindua duten emakumeen inguruko ikerketetan garrantzi handiko aldagaia izaten da soldata¹⁰. Emakumeak ugalketan eta etxeko lanetan txokoraturik daudela, diru sarrerarik ez izatean, gizonekiko menpekotasun egoera batean aurkitzen dira. Hau dela eta, nahiko harrigarria iruditzen zaigu andereño hauen hartean soilik %10ak onartzea soldata izatea garrantzi handiko irizpide izan dela lan horretan jarduteko. Ez bada lan ordaindua baino beste modu batez ikusten baitute egiten ari direna.

Soldata izateak zer dakar

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Askatasun gehiago</i>	112	50,9
<i>Berdintasn gehiago gizonekiko</i>	16	7,3
<i>Etxe ekonomiarako laguntza</i>	53	24,1
<i>Interes berria garatzeko ahalbide</i>	32	14,5
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Baina, soldata ez bazen funtsezko ziorik andereño modura aritzeko, antza, behin edukita bai ahalbidetzen duela norberak nahi duena egitea, behintzat kolektiboaren erdiak modu horretan pentsatzen du. Bada, hala ere, andereño horien ia laurden bat, zeinak *etxe ekonomiarako laguntzat* baino ez baitio onartzen diru sarrera propio izateari.

Erlazioak izatea

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Garrantzi handikoa</i>	49	22,3
<i>Garrantzi gutxikoa</i>	72	32,7
<i>Bat ere ez garrantzitsua</i>	78	35,5
<i>Ez du erantzuten</i>	21	9,5
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Berriro, lehen ikusi bezala *diru sarrera* aldagaiarekin, andereño lana aukeratzeko orduan beste pertsonekin harremanetan jartzeak ez du ea garrantzirik izan. Dena dela, kasu honetan, andereño gehiago izan dira soldatari baino erlazioak izateari garrantzi handia eman izan diotenak.

¹⁰ Weiler, M., *Mujeres activas. Sociología de la mujer trabajadora en España*. 1977, Madril: Ediciones de la Torre.

Erlazio gustukoena

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Ikasleen gurasoekin ditudanak</i>	1	0,5
<i>Irakasleen arteko harremanak</i>	72	32,7
<i>Ikasleekin ditudanak</i>	145	65,9
<i>Ez du erantzuten</i>	2	0,9
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Azpimarratzekoa da garai batean gurasoekin izandako erlazio estuek ez dute islarik goiko emaitzetan. Emakume hauen gehiengo batentzat gustukoena ikasleekin dituztenak dira; halaber, lankideen arteko harremanak kolektibo zati esanguratsu batentzat ere garrantzitsuak dira.

*Andereño lanbideari buruzko balorazioa***Andereño lana errutina**

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Erabat ados</i>	5	2,3
<i>Neurri batean ados</i>	85	38,6
<i>Erabat ez ados</i>	107	48,6
<i>Ez du erantzuten</i>	23	10,5
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Kolektiboaren %41ak, goiko baieztapenarekin bat etorritik, andereñoen lana behararen eremuan kokatzen du euren interes pertsonaletatik bereziak; %49ak, ordea, kontrakoa adierazten du.

Lana zurea balitz bezala

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Erabat ados</i>	53	24,1
<i>Neurri batean ados</i>	109	49,5
<i>Erabat ez ados</i>	24	10,9
<i>Ez du erantzuten</i>	34	15,5
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Kolektiboaren %74ak lana berea balitz bezala ikusten du, beraz, askatasunaren eremu bezala, non, lana eta euren interes pertsonalak bat eginik agertzen baitira. Azken honen kontra, modu esplizitu batez, %11 baino ez da ageri.

Lanak sormen gaitasun bultzatu

	Maiztasunak	Portzentaiak
<i>Erabat ados</i>	68	30,9
<i>Neurri batean ados</i>	116	52,7
<i>Erabat ez ados</i>	11	5,0
<i>Ez du erantzuten</i>	25	11,4
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Berriro ere, eta aurreko adierazlearekin bat etorritz, gehiengo zabal batek, %90ak sortzailatzat du andereñoen lana, bizitasuna emaila eta adierazpen bide bihurturik. Ikusi bestela:

Andereñoen lana bizimodu bat

	Maiztasunak	Portzentaiak
<i>Erabat ados</i>	56	25,5
<i>Neurri batean ados</i>	121	55,0
<i>Erabat ez ados</i>	26	11,8
<i>Ez du erantzuten</i>	17	7,7
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Oraingo honetan proposatutako baieztapenarekin bat datozenen portzentaia jeitsi bada ere(%80) oso esanguratsua izaten segitzen du.

Lana bizitzeko beharra

	Maiztasunak	Portzentaiak
<i>Erabat ados</i>	32	14,5
<i>Neurri batean ados</i>	96	43,6
<i>Erabat ez ados</i>	63	28,6
<i>Ez du erantzuten</i>	29	13,2
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Dena dela, gehiengo batek modu argi batez lana bizitzeko beharrezkoa duela dio, laurden pasatxo batek kontrakoa adierazi arren.

Lana zuretzat behar bat

	Maiztasunak	Portzentaiak
<i>Erabat ados</i>	39	17,7
<i>Neurri batean ados</i>	105	47,7
<i>Erabat ez ados</i>	50	22,7
<i>Ez du erantzuten</i>	26	11,8
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Andereñoen %65ak lana ikusten du eurentzako premia gisa, ez ordea, kolektibo horren %23ak.

Lana zuretzat eginbehar bat

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Erabat ados</i>	57	25,9
<i>Neurri batean ados</i>	109	49,5
<i>Erabat ez ados</i>	24	10,9
<i>Ez du erantzuten</i>	30	13,6
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Baieztapen honekin ez dator bat andereñoen %11 soilik. Beraz, lan honen premiarekin bat letorke gehiengo zabal bat. Ikusi bestela andereñoen lanbidez esandakoa:

Andereñoen lanbide rola

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Oso garrantzitsua</i>	34	15,5
<i>Garrantzitsua</i>	130	59,1
<i>Nahiko garrantzitsua</i>	52	23,6
<i>Bat ere ez garrantzitsua</i>	2	0,9
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Andereño bik baino ez dute uste garrantzi gutxikoa denik beraiek eginiko lana. Labur bilduz, euren lanari buruzko balorazioa, lana adierazpen bide, bizitasun emaile, sortzaile dela ikuskeratik gertuago dago, premia gisa eta biziraupen eremutik baino. Gauzak horrela ikus dezagun, lan baldintza hobek eskainiz gero beste ikastetxe mota batean, ea ikastola utziko luketen.

Ikastola utzi beste ikastetxera joateko

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Bai</i>	87	39,5
<i>Ez</i>	87	39,5
<i>Ez du erantzuten</i>	46	20,9
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Ez dakitenen edo ez dutenen erantzuten kopurua laurdenera ez bada ailegaten ere ez da gutxiestekoa; kolektiboaren beste hiru laurden pasatxoa erdibitu egiten da modu argi batez. 87 andereñoek ez lukete ikastola utziko ikus ditzagun zeintzuk arrazoi ematen dizkigute¹¹:

Zergatik ez?

¹¹ Galdera ireki honen itxiera ikusteko jo eranskinera 209 orrialdean.

	Maiztasunak	Portzentaiak
<i>Ikastola giroa atsegina, ikastoletan lan egitea komeni da, euskalduna sentitzen naizelako.</i>	17	19,5
<i>Oso gustora nagoelako</i>	55	63,2
<i>Ez du erantzuten</i>	15	17,2
<i>GUZTIRA</i>	87	100

Erakutsitako atxikimendua arrazoitzeko kolektibo horren ia laurden batek kutsu militante duten argudioak erabiltzen ditu. Berriz, gustura egotea da gehiengo zabalak ematen duen erantzuna.

Horrela, *euskaldunok sorturiko eskola eredu batean irakasten ari diren andereñoen gehiengoa(%64,5)*, andereñoak dira *irakaskuntza atsegin zaielako eta irakaskuntza euskaraz garrantzitsua dela uste dutenak* kolektiboaren laurden bat baino ez dira(%26,4). Halaber, lanbidea aukeratzeko *euskarazaletasuna faktorerik garrantzitsuena izan zela diotenak(%18,6)* ez dira kolektiboaren laurdenera ere ailegatzen, ez da *garrantzitsua bai, baina ez faktore bakarra diotenak(%20,5)* ere. Berriz, *gehiengoak(%58,6) nahikoa, baina orain faktore horrek ez duela hainbeste eraginik uste du*. Berebat, *gehienek euskarazaletasuna euskaraz irakasteaz gain euskararen aldeko ekintzetan parte hartzea dela uste dute(%55,9)*, laurden pasatxoak(%28,2) *irakaskuntza euskaraz kalitatezkoa lortzea uste duen bitartean*; oso-oso gutxi dira(%13,2) *euskarazaletasunak bizitza osoa ematearekin zer ikusia duela uste dutenak*. Halarik ere, asko dira(%57,3) *euskararen zein ikastolaren aldeko jarrera esplizitua adierazi dutenak ikastoletan andereño izateko*; hainbeste ez izan arren, asko dira ere(%42,7) *bestelako irizpideak, hala nola, lan gehien zegoen tokia, kasualitatea, euren bila joan zirela, aipatzen dituztenak*.

Lan ordaindua izatearen inguruko zenbait iritzi bitxi samarrak aurkitu ditugu, esaterako: *soldata jasotzeak ez du izan garrantzi handirik lan honetan aritzeko(garrantzi gutxikoa%46,4; bat ere ez %37,7)*, euren %10ak baino ez baitu esaten *garrantzitsua izan dela*. Baina, hori bai *soldata izateak gehiengoarentzat(%50,9) askatasun gehiago ekarri zaie*, %24ak *etxe ekonomiarako laguntzat hartzen duen bitartean*. Aipatu beharrekoa da, soilik,

%7ak uste duela *soldatak berdintasun gehiago ekarri diela gizonetikiko*. Orobat, lanak beste pertsonekin zein etxetik kanpoko munduarekin harremanetan jartzeko eskaintzen duen aukera ere ez da oso baloratua izan: soilik %22k uste dute *erlazioak izatea garrantzi handiko* auzia dela, kontrakoa irizten diotenek, berriz, gehiengo zabalak osatzen dute (*garrantzi gutxikoa %32,7; bat ere ez garrantzitsua %35,5*). Horretaz gainera, gehiengo zabalak(%65,9) gustukoak dituen *erlazioak ikasleekin dituztenak* dira, gutxiengo batek irakasleen artekoak hobesten dituzten bitartean. Gutxien baloratzen den harremana gurasoekin dutena da. Ikus dezagun orain euren lanari buruzko balorazioa.

%41a *andereño lana errutina dela* iritzikoa da, kontrakoa adierazten dutenak %49 diren bitartean. %74ak lana euren bailitzan ikusten du, ordea, %11k euren bizitzarekin zer ikusirik ez duen zerbait bezala ulertzen du. Berebat, %90ak sortzailatzat du *andereñoen lana*, %80ak bizimodu bat ere badela dio. Aldi berean, %58ak lana bizitzeko beharrezkoa dela diosku, kontrako iritzikoa %28,6 izanik. Lana eurentzako ea behar bat denaren inguruan %64ak baiezko erantzunarekin bere adostasuna adierazten duen bitartean, %23ak, aldiz, bere erabateko desadostasuna. Azkenik, eginbeharreko zerbait badela diote %79ak, kontrako jarrera, soilik, %11k erakutsiz. Beraz, euren lanari buruzko balorazioa ez badago bokazio, norberaren garapenerako edota adierazpenerako ikuspegi batetik egin ikuspegi horretatik gertuago dago, premia eta biziraupenerako eremutatik baino; non, lana errutina, euren aldendua den zerbait eta euren interesekin bat ez datorren zerbait bezala ikusia baita. Horrela, *andereño bik baino ez dute uste garrantzi gutxikoa denik beraiek eginiko lana*. Hala ere, lan baldintza hobeak eskainiz gero beste ikastexeko batetik %39,5ak alde egingo luke ikastolatik, portzentai bereak, ordea, ez luke ikastola utziko, eta %20ak ez du erantzuten. Baina, ikastolaren eskola proiektuarekiko atxikimendua erakusten dutenen artean, soilik, %19ak euskarazaletasunarekin zer ikusia duten arrazoiak aipatzen dizkigute, gehiengo zabalak oso gustura baitago dioten bitartean.

Eraitza hauek gehiago argitzeko asmoz datuen gurutzaketari ekingo diogu hurrengo lerrootan. Beraz, aintzat harturik aurreko orrialdeetan formulaturiko lehenengo hipotesi orokorra, honako aldagai hauek independentetzat hartuko

ditugu: adina, antzinakotasuna, boto politikoa eta euskarazaletasuna, (azken hau aldagi dikotomiko gisa ulertua, alegia, menpekoa eta independientea). Azalpenezko aldagai horiek, *ikastolan irakastea* definitzen dituzten adierazleen lehengo azalpen horretan sakontzen lagunduko digutelakoan baikaude. Goazen, bada, *adina* azalpenezko aldagaiaren garrantzia gogoratzera.

10.2.2.1.- Adina aldagai independientearen garrantziaz

Esanik gelditu da, dagoeneko, 60ko hamarkadan jaiotako belaunaldia, 80ko hamarkadan lan merkatuan hasia dela. Belaunaldi horrek, transizio garaian gizarteratua, ez du aurreko belaunaldiek bizituriko zapalkuntza: euskara eta euskal identitatearen gainerako osagaien errepresio bortitza ezagutu, eta eurentzat euskararen aldeko borroka iragan hurbileko aztarna baino ez da.

Aipatu lan merkatu horretan, irakaskuntza eremuan, ikastola beste eskaintza bat bezala agertzen da beste edozein hezkuntza sare bezalakoa. Are gehiago, profesional gehien eskatzen duen hezkuntza sarea da 80ko hamarkadaren hasiera-hasieran. Ikastoletan, une horretan, lanean hasten direnen artean egon badaude ikastolen jatorriaz zerbait dakitenek, aurreko belaunaldiek esana, lehendik zebiltzanak kontatuta, baina azken hauekin alderatuz ez dute errepresio bortitz haren bizipenik. Horrela, andereñoen adinaren arabera honako azpihipotesiak formulatu ditugu:

1. *azpihipotesia: Gazteenen artean andereño izateko erabakia hartzerakoan euskara berreskuratze eta zabaltzearen irizpideei nagusitu zaizkie lan, ekonomi edo bestelako irizpideak.*

Ikus dezagun, horren inguruan, datuek zer diote:

Adina

	30 urte edo		31-39 urte		40-56 urte	
	gutxiago		bitartean		bitartean	
	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
<i>Ez du erantzuten</i>	6	%6,7	1	%1,1	2	%5
<i>Irakaskuntza atsegin zait</i>	62	%69,7	62	%68,1	18	%45
<i>Irakaskuntza euskaraz oso garrantzitsua iruditu</i>	16	%18	22	%24,2	20	%50
<i>Erosoa</i>	2	%2,2				
<i>Eliminazioz</i>	3	%3,4	6	%6,6		
GUZTIRA	89	100	91	100	40	100

Aintzat harturik, kolektiboaren gehiengoak aukeratu zuela *irakaskuntza atsegin zaidalako* erantzuna(%64,5) eta, soilik, laurden batek *irakaskuntza euskaraz oso garrantzitsua dela uste dutelako* hautatu zuela, badirudi gure azpihipotesiak marraztutako bidetik doazela gure andereñoek. Hala, 40 urte baino gutxiagokoek, lehenengo bi adin-taldekoak, modu zabal batez bokazio antzekoa zioa hautatzen duten bitartean(%70 eta %68), urte gehiagokoen artean asko izan badira ere aukera bera egin dutenak, ez dute modu zabal horretan egin; zeren eta, azken hauen erdiak *irakaskuntza euskaraz izateari* eman batiote garrantzi gehien. Halaber, 30 urte baino gutxiagokoak izan dira gutxien aukeratu dutenak aipatu erantzun aukera hori, berriz, 31-39 urte bitartekoen artean pixka bat gutxiengo izanik ere gutxiengo hori adin-taldearen laurden bat izan dira. Hortaz, lehenengo bi adin taldeetan erantzuna ematerakoan jokabidea berdin antzera den bitartean, aipatu desberdintasun hori salbu, hirugarren adin taldea erdibitu egiten da bi erantzunaren artean.

Labur bilduz, emakumezko kolektibo honetan, andereño izateko erabakia hartzerakoan euskararen berreskuratze zein zabaltze irizpideei bokazio irizpidea nagusitu zaie, batik bat, gazteenen artean, lehen esan bezala. Ikus dezagun, orain, *euskarazaletasunaren eragina* erabaki bera hartzerakoan:

Adina

	30 urte edo gutxiago		31-39 urte bitartean		40-56 urte bitartean	
	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
	<i>Ez du erantzuten</i>	5	%5,6			
<i>Bai, asko.garrantzitsuena</i>	11	%12,3	20	%22	10	%25
<i>Nahiko, baina ez faktore bakarra</i>	17	%19	20	%22	8	%20
<i>Orain ez da hainbesterako</i>	56	%63	51	%56	22	%55
GUZTIRA	89	100	91	100	40	100

Adin talde guztietan gehiengo argi batek erantzuten du *euskarazaletasuna, nahiko eragina izan zuela, baina orain ez dela hainbesterako*. Dena dela, eta gutxi badira ere, euskarazaletasunari garrantzi handia eman diotenak, adinaren arabera jokabide antzetsua ikuskatzen da 31-39 urte bitartekoak eta 40-56 urte bitartekoen artean. Aldiz, gutxien aukeratutako erantzuna da gazteen artean;

gainera, hauen artean ez erantzunik egon badaude, eta ez, ordea, beste adin-taldetan.

Ikus dezagun, ondoren, adinaren arabera aukeratutako zioak ikastola aukeratzeko lan eremu gisa:

Adina

	30 urte edo gutxiago		31-39 urte bitartean		40-56 urte bitartean	
	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
	<i>Ez du erantzuten</i>	1	%1,12			
<i>Euskaraz ikastetxea, ikastolen esanahia, giroa eta nahia, ikasleak</i>	45	%50,5	56	%61,6	24	%60
<i>Lana eta kasualitatea, bila etorri</i>	43	%48,3	35	%38,4	16	%40
GUZTIRA	89	100	91	100	40	100

Kolektiboaren gehiengoak euskararen eta ikastolaren aldeko jarrera argia erakutsi badu ere, adin-taldee begiratu gero, gehiengo zabalenak 31-39 urteko zein 40-56 urtekoen artean aurkitzen ditugu. 30 urte baino gutxiagoko andereñoen taldea ia-ia erdibitzen den bitartean. Beraz, bai direla andereño gazteenek euskara berreskuratzen bestelako arrazoiak ematen dituztenak proportzio handien, baina proportzio handi hori gazteen erdira izatera ere ez da ailegatzen. Hortaz, gazteen artean ere, proportzio txikiagoan izan arren, egon badago euskararen berreskuratzeaz zein orokortzeaz aldeko jarrera.

2. azpihipotesia: *Gazteenen artean andereño izatea ez da euren bizitzaren zati bat baino, alegia, ez da euren bizitza osoa hartzen duen jarduna. Halaber, euskarazale izateak, soilik eragingo dio euren bizitzaren zati bati: lan jardunari.*

Adina

	30 urte edo gutxiago		31-39 urte bitartean		40-56 urte bitartean	
	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
	<i>Ez du erantzuten</i>			5	%5,49	1
<i>Irakaskuntza euskaraz kalitatezkoa lortzea</i>	22	%24,7	28	%30,7	12	%30
<i>Euskaraz irakasteaz gain, beste ekintzetan parte har</i>	51	%57,3	47	%51,6	25	%62,5
<i>Euskara bultzatzeko bizitza osoa</i>	16	%18	11	%12	2	%5
GUZTIRA	89	100	91	100	40	100

Lehen esan bezala irakasle hauen gutxiengo batek baino ez du *euskarazaletasuna* jarrera militante sutsu batekin identifikatu. Dena dela, nabartu beharrekoa da, gutxiengo honetan pisu gehien ordezkatzan dutenak andereño gazteenak direla gure lehengo hipotesia neurri batean baldintzatuz. Eta baldintzatuz diogu, zeren eta hiru adin taldeetan gehiengo zabal batek *euskarazaletasunari* kutsu militante bat onartzen baitio, gehiengo zabalena nagusien artean dagoelarik. Hala ere, *euskarazaletasuna* eremu profesionalean kokatzen dutenengan jokabide antzetsua behatzen badugu ere, berriro bitxia deritzogu gazteak izatea portzentai txikiena agertu izanari. Baliteke bitxitasun horien atzean beste aldagairen bat egotea, hala nola, *ideologia politikoa*. Goazen, bada, ikustera adin-talde bakoitzean zein aukera politikoa da nagusi:

Adina

	30 urte edo		31-39 urte		40-56 urte	
	gutxiago		bitartean		bitartean	
	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
<i>Ez du erantzuten</i>	27	%30,3	28	%30,7	8	%20
<i>EAJ</i>	4	%4,5	9	%9,8	13	%32,5
<i>EA</i>	6	%6,7	6	%6,5	6	%15
<i>EE</i>	4	%4,5	5	%5,4	2	%5
<i>HB</i>	36	%40,4	25	%27,4	8	%20
<i>Inori ez</i>	12	%13,5	18	%19,7	3	%7,5
GUZTIRA	89	100	91	100	40	100

Andereño gazteen artean nagusitzen den aukera politikoa *Herri Batasuna* da eta honen ostean *ez erantzuna*; *31-39 urte* bitarteko andereñoen artean, lehenik *ez erantzuna* eta gero *Herri Batasuna*; azkenik nagusien artean *Euzko Alderdi Jeltzalea* eta bigarren aukera gisa parekatuak *Herri Batasuna* eta *ez erantzuna*. Baliteke, ikusi bezala, andereño gazteen artean nagusi den aukera politikoak, alegia, *Herri Batasunak* zer ikusia izatea euren jokabide bitxiarekin.. Ondoren, segi dezagun bigarren azpihipotesiaren ildotik jorratuz, zenbateraino lana gazteentzat, batez ere, euren bizitzaren beste interesekin bat datorren ala ez.

Adina

Lana zurea balitz bezala	30 urte edo gutxiago		31-39 urte bitartean		40-56 urte bitartean	
	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
	Erabat ados	16	%18	22	%24,2	15
Neurri batean ados	51	%57,3	46	%50,5	12	%30
Erabat ez ados	11	%12,4	11	%12,1	2	%5
Ez du erantzuten	11	%12,4	12	%13,2	11	%27,5
GUZTIRA	89	100	91	100	40	100

Esan bezala, kolektiboaren gehiengo zabal batek(%74ak) lana berea balitz bezala ikusten du, dena dela baieztapen horrekin *erabateko adostasuna* agertzeko momentuan apaltasun gehiago nabaritzen da gazteen artean(%18); nahiz eta, oraindik, apalagoa izan *ez adostasuna* erakusten dutenen portzentaia. Jokabide antzetsua erakusten dute 31-39 urte bitarteko andereñoek, *erabateko adostasunean* salbu. Bestalde, oso-oso adierazgarria deritzogu nagusien portzentaia *erabateko adostasunaren* erantzun kategorian zein *adostasun ezan*. Bitxia badirudi ere, ez erantzunen portzentai handiena azken andereño hauen artean aurkitzen da. Ikus dezagun, ondoren, *adinak* zer esatea dauka *lana eurentzat eginbehar gisa* ulertzearen inguruan:

Adina

Lana zuretzat eginbehar bat	30 urte edo gutxiago		31-39 urte bitartean		40-56 urte bitartean	
	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
	Erabat ados	23	%25,8	20	%22	14
Neurri batean ados	48	%54	45	%49,5	16	%40
Erabat ez ados	11	%12,4	12	%13,2	1	%2,5
Ez du erantzuten	7	%7,9	14	%15,4	9	%22,5
GUZTIRA	89	100	91	100	40	100

Berrito ere, goiko joerak behatzen ditugu: batetik, nagusiek erakusten dute *erabateko adostasuna* baieztapenarekin zein hauekariko bakar baten *ez adostasuna*. Bestetik, beste bi adin-taldearen erantzunen antzekotasuna, baina, azpimarratuz gazteenek emandako sustengu zabalagoa *adostasuneko* bi kategoriari. Ikusitakoaren arabera, badirudi gazteentzat ere lanak zer ikusia duela euren bizitzarekin.

3.azphipotesia: *andereño gazteenek ikastola hezkuntza proiektuarekiko leialtasun gutxiago izango dute, ezen beste ikastetxe batetik lan eskaintza hobeak eginez gero, besteek baino gehiago utziko bailukete.*

Adina

Ikastola utzi	30 urte edo		31-39 urte		40-56 urte	
	gutxiago		bitartean		bitartean	
	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
Bai	40	%45	40	%44	7	%17,5
Ez	22	%24,7	38	%41,7	27	%67,5
Ez du erantzuten	27	%30,3	13	%14,3	6	%15
GUZTIRA	89	100	91	100	40	100

Bistan dago, azpihipotesiaren ildoan doazela lorturiko datuak. Gazteen artean, soilik laurden bat geldituko litzateke ikastolan modu argi batez; egia da ere, adin talde honetan *ez erantzunaren* portzentaia altuena dela; baina, proportzio handiagoan oraindik erantzuten dute ustezko baldintza hobe horietan alde egingo luketeela. Beste bi adin taldeetan, *ez erantzunen* portzentaiak parekoak badira ere, beste aukeretan desberdintasun nabarmenak ageri dira: nagusiek, modu argi batez, adierazten dute ez luketeela ikastola utziko, ordea, 31-39 urte bitartekoak ia erdibitzen dira erantzuteko orduan, gehiago izanik ikastola utziko luketenak. Beraz, badirudi gure azpihipotesiak marrazturiko bidea zuzena izatea.

Labur bilduz, *adinaren arabera ikastolan irakastea* definitzen dituzten adierazleen azalpena honakoa da:

1. *30urte baino gutxiagoko andereñoak (kolektiboaren%40,5): andereño izateko erabakia hartzerakoan* euskara berreskuratze eta orokortzearen irizpidea baino bokazio irizpidea aipatzen dute. *Euskarazaletasunaren eraginaz* aurreko erabaki horretan gazte hauek dira gehien diotenak *nahiko, baina orain ez dela hainbesterako*, halaber *garrantzitsuena dela* gutxien adierazten dutenak. Berriz, *ikastola lan eremu gisa aukeratzeko* euskara berreskuratzeaz bestelako zioak ematen dituztenak proportzio handien, nahiz eta proportzio hori gazteen erdira izatera ez heldu. *Euskarazale izateari* dagokionez, kutsu militantea apal bat onartzen badiote ere besteek bezala, jarrera militante sutsuarekin identifikatzen duen gutxiengoan pisu

gehien dutenak dira. Ordea, *euskarazaletasuna* eremu profesionalean kokatzen dutenen artean portzentai txikiena beraiena da. Euren artean, aukera politiko nagusia *Herri Batasuna* da eta honen ostean *Ez Erantzuna*. Gehiengoak *lana eurena balitz bezala* ikusten dute eta bai *eginbehar* gisa ere. Azken honen arabera, andereño gazte hauentzat, antza, lanak badu zer ikusia euren bizitzarekin. Hala ere, *beste ikastetxe batetik lan eskaintza hobeak jasoz gero*, ikastolan gutxien geldituko liratekeenak dira, *ez erantzunen* portzentaia altuena erakusten badute ere.

2. *31-39 urte bitarteko andereñoak (%41,4)*: aurrekoak bezala, *bokazioa* hautatzen dute *andereño izateko* ziotzat. Dena dela, azpimarratzekoa dela laurden batek *irakaskuntza euskaraz izateari* eman diola garrantzi gehien. Horrela, *euskarazaletasunaren eraginaz* ari direla, berriro ia laurden batek *bai, asko garrantzitsuena* erantzuna aukeratu du, proportzio berean erantzun dute *nahiko baina ez da izan faktore bakarra*; baina, egia esan behar bada gehiengo zabalak dio *orain(eragin hori) ez dela hainbesterako*. Dena dela, *ikastola lan eremu gisa aukeratzeko* hobetsiriko arrazoia, modu zabal batez, *ikastolen esanahia eta giroa* izan da. *Euskarazale izateari* buruzko definizioari dagokionez, gehienek aukeratu izan badute kutsu militante apala duen erantzun kategoria, ez da gutxiesteko *Irakaskuntza euskaraz kalitatezkoa lortzea* aukeratu dutenen kopurua, are gehiago, andereño hauek dira presentzia handien erakusten dutenak *euskarazaletasunaren* definizio profesionalizatu honetan. Beraien *aukera politikoari* buruz ari garela, lehenik *ez erantzunak* biltzen du aukera gehien, bigarrenik *Herri Batasuna* eta hirugarrenik *Abstentzioa*. Andereño gazteentzat bezala, 31-39 urte bitartekoentzat lanak ba du zerikusia euren bizitzarekin, are gehiago, azken horiek baino modu argiago batez. Baina, *beste ikastetxetik lan eskaintza hobeak eginez gero*, gazteenek bezala berriro ere, ikastolatik alde egingo luketenen portzentaia handiena bada, gelditzen direnena portzentai horretatik gertu dago, ikastolarekiko gazteenak baino leialtasun gehiago erakutsiz; *ez erantzunen* proportzio txikia ere horren adierazlea delakoan.
3. *40-56 urte bitarteko andereñoak(%18)*: talde honen erdia baino gehiagok *andereño izateko erabakia irakaskuntza euskaraz oso garrantzitsua iruditu*

zitzaielako hartu zutela dioskue; beste erdiak, bokazio kutsu duen erantzuna eskaintzen duen bitartean. Dena dela, *euskarazaletasunaren eraginaz* ari direla aurreko erabaki horretan, gehiengo batek, beste adin-taldetan bezala, orain garrantzi gutxiagokoa dela dio; halarik ere, azpimarratzekoa da faktorerik garrantzitsuenentzat jotzen duen gutxiengoa garrantzitsua dela, hain zuzen ere, taldearen laurden bat. Orain, gehiengoak ikastolan aritzeko aipaturiko zioa: ikastolen esanahia eta giroa da, beste zioen artean *euren bila joan zirelako* egonik (%32,5). *Euskarazaletasunaren definizioaz* ari garelarik, aurrekoek erakutsitako jokaeraren antzekoa adierazten duten hauek ere: gehiengoak kutsu militante apala duen erantzuna aukeratuz, eta bai gutxiengo inportante batek *euskarazaletasuna* lan eremuan ere kokatuz. Andereño nagusien artean nagusitzen den *aukera politikoa Euzko Alderdi Jeltzalea* da, bigarren aukera gisa parekatuak agertuz, *Herri Batasuna* eta *ez erantzuna*. Lanaren inguruko balorazioan bitxia deritzogu andereño hauen jokabideari, zeren eta badirudi bere-berea sentitzen baitute lan hau, baina, aldi berean *ez erantzunen* portzentaia altuenak erakusten dituzte. Azkenik, *beste ikastetxetik lan eskaintza hobeak eginez gero* ikastolan geldituko litzateke modu argi batez, ikastolarekiko leialtasun handien erakutsiz.

Beraz, badirudi, hasieran planteaturiko lehenengo eta hirugarren azpihipotesiak berbaieztu ditzakegula, ez, ordea, bigarrena: *Gazteenen artean andereño izatea ez da euren bizitzaren zati bat baino, alegia, ez da euren bizitza osoa hartzen duen jarduna. Halaber, euskarazale izateak, soilik eragingo dio euren bizitzaren zati bati: lan jardunari.*

Ikusi bezala, euskarazale izateari kutsu militante apala onartzen zioten andereño gazteenek ere, are gehiago, burutzen ari diren lana eurena balitz bezala sentitzeaz gain, eginbeharreko zerbait ere iruditzen zaie. Baina, orduan nola ulertu ikastolatik gehien alde egiten beraiek izatea? Auzi honen inguruan gogora ekarri beharra dago *ez erantzunen* portzentai handia. Agian, posible ikusten baitute euskarazale izatea beste hezkuntza eremuetan ere.

Goazen orain, beste aldagi independente baten argipean *ikastola irakastea* zer den ikertzen ari garen kolektiboarentzat: *antzinakotasuna ikastoletan*.

10.2.2.2.- Antzinakotasuna

Ikusi bezala, aurreko ataletan, euskal gizarteak bizituriko aldaketek ikastolen mugimenduan ere euren isla izan zuten. Hori dela eta, ikastolen hasiera-hasierako borroka gogorrean aritutakoen jarrerak, (ikastoletan 15 urte baino gehiago daramatzatenak), legeztapen sasoiari aritutakoen jarrerak, (ikastoletan 11-15 urte daramatzatenak), edota ikastola beste hezkuntza sare bezala agertu zelarik aritu zirenen jarrerak (ikastoletan 10 urte baino gutxiago daramatzatenak) ez dira gure ustez oso-oso antzekoak izango, alderantziz baizik. Horrela, lehen adinarekin egiten genuen bezala honako azpihipotesiak formula ditzakegu:

2. *azpihipotesiak: ikastolan lanean zenbat eta denbora gutxiago eraman, andereño izateko erabakian bokazio, lan edo bestelako zioek hainbat eta eragin handiago izango dute.* Ikus ditzagun gai honen inguruko datuak:

Antzinakotasuna

	Ez daki/ erantzun	10 urtera arte	11-15 urte	15 urte gehiago					
		%	%	%	%	%	%	%	
<i>Ez daki/ ez erantzun</i>		6	6,1	1	1,7	2	3,2	9	
<i>Irakaskuntza atsegin zait</i>	1	50	71	72	37	64	33	53	142
<i>Irakaskuntza euskaraz</i>	1	50	15	15	17	29	25	40	58
<i>Erosoa</i>		2	2					2	
<i>Eliminazioz</i>		4	4	3	5	2	3	9	
GUZTIRA	2	100	98	100	58	100	62	100	220

Kontuan harturik kolektiboaren gehiengoak bokazio kutsu duen erantzuna aukeratu duela eta soilik laurden batek azpimarratu duela irakaskuntza euskaraz izatearen garrantzia, bistakoa da gehiengo horren joera gure hipotesiaren ideiarekin bat datorrela, alegia, zenbat eta denbora gutxien hainbat eta bokazio zioaren eragin handiagoa *andereño izateko erabakia hartzerakoan*. Era berean, gutxiengo horretan zenbat eta denbora gehien hainbat eta euskara berreskuratze eta zabaltze irizpidearen eragin handiagoa aipatu erabakian. Goazen, orain, aztertzeraz *euskarazaletasunaren eragina* erabaki horretan:

Antzinakotasuna

	Ez daki/ erantzun		10 urtera arte		11-15 urte		15 urte gehiago		
		%		%		%		%	
Ez daki/ ez erantzun			5	5					5
Bai, asko..garrantzitsuena			12	12	10	17	19	30	41
Nahiko baina ez faktore bakarra			20	20	12	21	13	21	45
Orain ez da hainbesterako	2		61	62	36	62	30	48	129
GUZTIRA	2	100	98	100	58	100	62	100	220

Berriro ere, aintzat harturik gehiengoaren erantzuna: *euskarazaletasuna nahiko eragina izan zuela, baina, orain ez da hainbesterako*, gehiengo horren barruan ere, antzinenak dira pisu gutxien dutenak; ordea, euskarazaletasunari garrantzi handia eman dion gutxiengoaren barruan kontrako joera ikuskatzen dugu azpihipotesiak urraturiko bidetik, zenbat eta denbora gehiago hainbat eta euskarazaletasunaren eragin handiago. Ondoren, *ikastola lan eremu gisa aukeratzearen zioak*:

Antzinakotasuna

	Ez daki/ erantzun		10 urtera arte		11-15 urte		15 urte gehiago		
		%		%		%		%	
Ez daki/ ez erantzun			1	1					1
Euskaraz ikastetxea, ikastolen esanahia, giroa	2		46	47	34	59	43	69	125
Lana eta kasuakitate, bila etorri			51	52	24	41	19	31	94
GUZTIRA	2	100	98	100	58	100	62	100	220

Kolektiboaren erdia baino gehiagok(%57) *euskara, ikastolako giroa eta holakoak* aipatzen ditu ikastola lantoki aukeratzeko arrazoi gisa, erdia baino gutxiagok(%43) *kasualitate, lan gehien eta euren bila* bezalako zioak aipatzen dituen bitartean. Gehiengo horretan bistan dago zenbat eta denbora gutxiago daramatenek hainbat eta presentzia txikiago dutela, eta alderantziz; beste hautaketa egin duen kolektiboan kontrako joera agertuz, alegia zenbat eta denbora gutxiago hainbat eta pisu handiago eta alderantziz.

2.- *azhipotesia: ikastolan andereño moduan zenbat eta denbora gutxiago eramán, euren jarduna euren bizitzaren zati bat baino ez da izango eta ez bizitza osoa kutsatzen duen ardura. Horrela, euskarazale izateak soilik eragingo dio euren bizitzaren atal bati: lanbideari.*

Antzinakotasuna

	Ez daki/ erantzun		10 urtera arte		11-15 urte		15 urte gehiago		
		%		%		%		%	
Ez daki/ ez erantzun					3	5	3	5	6
Irakaskuntza euskaraz kalitatezkoa lortzea			26	27	15	26	21	34	62
Euskaraz irakasteaz gain, beste ekintzetan parte	2		56	57	32	55	33	53	123
Euskara bultzatzeko bizitza osoa			16	16	8	14	5	8	29
GUZTIRA	2	10°	98	100	58	100	62	100	220

Ikusi bezala, atxikimendu gehien, eta gainera berdin antzerako portzentaiekin, kutsu militante bat duen erantzuna dugu: *Euskaraz irakasteaz gain, euskararen aldeko beste ekintzetan parte hartzea ere*. Baina beste bi kategoriatan antzinakotasunaren araberako desberdinak egon badaude. Esaterako, jarrera militante sutsuarekin identifikatu dezakegun erantzun kategorian, *euskara bultzatzeko bizitza osoa ematea*, denbora gutxien daramatenak presentzia handiago daukatenak dira; eta, alderantziz, denbora gehien daramatenak pisu txikien daukatenak dira. Era berean, *euskarazaletasuna* eremu profesionalean kokatzen dutenengan joera gure hipotesiaren ildoaren kontrakoa da, alegia, denbora gehien daramatenak presentzia handien daukatenak dira. Adinarekin gertatzen zitzaigun bezala, gutxiengo hauen jokabide bitxia azaltzeko, agian, beste faktore batera jo beharko genuke, *ideologia politikoa* kasu.

Goazen, bada, ezagutzera *antzinakotasun-talde bakoitzean* zer aukera politiko da nagusi:

Antzinakotasuna

	10 urtera		11-15 urte		15 urte baino	
	arte		bitartean		gehiago	
	Maiz.	%	Maiz	%	Maiz	%
<i>Ez du erantzuten</i>	30	%31	15	25,8	17	27,4
<i>EAJ</i>	6	%6	5	8,6	15	24,1
<i>EA</i>	6	%6	4	6,8	7	11,2
<i>EE</i>	4	%4	5	8,6	2	3,2
<i>HB</i>	38	%39	17	%29	14	22,5
<i>Inori ez</i>	14	%14	12	%20,6	7	11,2
<i>GUZTIRA</i>	98	100	58	100	62	100

10 urte edo gutxiago daramatzaten andereñoen artean *Herri Batasuna* da nagusitzen den aukera politikoa, ondoren, *ez erantzuna*; 11-15 urte bitartean daramatzateneen artean berriro *Herri Batasuna* da nagusi, gero *ez erantzuna* eta *abstentzioa*; azkenik, 15 urte baino gehiago lanean ari direnen artean portzentai handienak *ez du erantzun*, bigarren portzentaia *Euzko Alderdi Jeltzaleari* dagokio eta hirugarrena *abstentzioari*.

3. *azpihipotesia: zenbat eta denbora gutxiago lanean hainbat eta leialtasun gutxiago ikastolen hezkuntza proiektuarekiko, ezen beste ikastetxe batetik lan eskaintza hobeak eginez gero, besteek baino gehiago utziko bailukete.*

Antzinakotasuna

	Ez daki/ erantzun		10 urtera arte		11-15 urte		15 urte gehiago		
		%		%		%		%	
<i>Ez daki/ ez erantzun</i>			27	28	11	19	8	13	46
<i>Bai</i>	1		45	46	26	45	15	24	87
<i>Ez</i>	1		26	26	21	36	39	63	87
<i>GUZTIRA</i>	2	100	98	100	58	100	62	100	220

Goiko koadroan ikusten den bezala, ikastolan denbora gutxien daramatenak dira gutxien gelditzen direnak, *ez erantzunen* portzentaia beste horrenbeste bada ere; hortaz, azpihipotesiak proposaturiko joera betetzen da, zeren eta zenbat eta denbora gutxiago lanean hainbat eta leialtasun gutxiago erakusten dute gure andereñoek.

Labur bildurik, *antzinakotasunak* gure andereñoen ondorengo profilak ematen dizkigu:

1. Ikastoletan lanean 10 urte baino gutxiago daramatzatenak (kolektiboaren %44,5): ia-ia laginaren erdia dira. Modu zabal batez, andereño izateko emandako arrazoia bokazio kutsu duen erantzuna da euskararen inguruko aipu espliziturik gabekoa. *Euskarazaletasunaren eraginaz* ari direla, aurreko erabaki horretan, berriro modu zabal batez, orain ez dela hainbesterako diote eta garrantzitsuenentzat jotzen duen gutxiengoan pisu gutxien daukatenak dira. Ostera ere, *ikastola lantoki gisa* aukeratzekoan, kasu honetan gehiengoa hain zabala ez bada ere (%52), euskara eta ikastolaren esangurarik kontuan ez dituzten bestelako arrazoiak eskaintzen dituzte. Esan bezala, kasu honetan %47 dira euskara eta ikastolaren giroa aipatzen dituen erantzuna aukeratu dutenak. Andereño hauetatik laurden batek baino ez du identifikatzen *euskarazaletasunak lanbide eremu hutsarekin* eta besteek hobetsitako erantzunarekin bat egiten dute: militantzia kutsu apala duen erantzunarekin. Halarik ere, gehiengo batek alde egingo lukeela ikastolatik beste lan eskaintza hobe bat jasoz gero beste ikastexe batetik, egia bada ere, laurden batek modu argi batez ez lukeela utziko diote eta beste horrenbeste dira erantzuten ez dutenak. Euren artean nagusitzen den aukera politikoa *Herri Batasuna* da eta bigarren aukera *ez erantzuna* dugu.

2. Ikastolan lanean 11-15 urte bitartean daramatzatenak (%26,4): soilik laurden batek ematen du andereño izateko arrazoitzat *irakaskuntza euskaraz garrantzitsua izatea*, horrela, hauen artean ere bokazio argudio hori gehien aukeratutakoa dugu. Aurrekoak bezala, *euskarazaletasunaren eraginaz* ari direla, gehiengo zabalak orain ez dela hainbesterako dio. Dena den, gehiengo zabal bat da, ikastolan aritzeko, esplizituki euskara eta irakaskuntza euskaraz aipatzen dituen zioa aukeratzen duena; nahiz eta, bestelako zioak aukeratzen dituen kopurua inportantea izan. Euskarazaletasuna definitzerakoan, aurrekoek adierazitako joera beratik ere doaz, alegia, laurden batek, soilik, identifikatzen du zaletasun hori lan eremu hutsarekin. Aurrekoek bezala, berriro ere, gehiago dira alde egingo luketeenak ikastolatik gelditzen direnak baino; hala eta guztiz ere, aurrekoak baino gehiago dira gelditzen direnak, hau da, ikastolaren hezkuntza proiektuarekiko, badirudi, leialagoak direla. Hauen artean ere, aukera

politikoa nagusia *Herri Batasuna* da, ondoren, bigarren portzentai handiena *ez erantzunak* jasotzen du eta hirugarrena *abstentzioak*.

3. *Ikastolan lanean 15 urte baino gehiago daramatzatenak*(%28,2): hauen artean, andereño izateko bokazio kutsu duen erantzuna nagusitzen bada ere(%53), *Irakaskuntza euskaraz lortzeko* ziotzat hartzen duen portzentai handiena dago (%40). Era berean, erabaki horretan *euskarazaletasunaren eraginaz* ari direla kolektiboaren gehiengoak aukeratutako zioarekin bat egiten badute ere, besteak baino proportzio txikiago batean da, eta *garrantzitsuenentzat* jotzen duen gutxiengoan portzentai handien ordezkatzan dute(%30). Ildo beretik, ikastola aritzearen zergatiari euskara eta ikastolaren esangura eta giroa modu zabal batez erantzuten diote(%69). *Euskarazaletasunaren* inguruko definizioa, berriro ere kolektiboaren gehiengoarekin bat eginez, militantzi kutsu apala duen erantzuna aukeratu izan dute, baina, eremu profesionalarekin identifikatu duten gutxiengoan, paradoxikoki, presentzia handiena daukate(%34) beraiek dira. Halaber, ikastola gutxien utziko lukeetenak dira lan baldintza hobeak jaso arren. Euren artean nagusitzen den aukera politikoa *Euzko Alderdi Jeltzalea* da, nahiz eta *ez erantzunak* erantzun portzentai handiago izan

Beraz, *adinarekin* gertatzen zitzaigun bezala, badirudi lehenengo bi azpihipotesiak berbaieztu ditzakegula eta, ez bigarrena: *ikastolan andereño moduan zenbat eta denbora gutxiago eraman, euren jarduna euren bizitzaren zati bat baino ez da izango eta ez bizitza osoa kutsatzen duen ardura. Horrela, euskarazale izateak soilik eragingo dio euren bizitzaren atal bati: lanbideari.*

Ikus dezagun, ondoren aukera politikoaren argipean zer den *euskaldunok eraikitako eskola eredu batean irakastea*.

10.2.2.3.- Aukera politikoa

Euskal gizartean euskara eta euskal kultura berreskuratzearen inguruan dauden iritzi eta proposamen desberdinak aukera politiko desberdinen proiektu soziopolitikoek jasotzen dituzte¹². Hori dela eta, gure aztergai den irakasle kolektibo honengan dauden aukera politikoaz gain, zein euren pisua aipatu kolektiboan ere, goian argituriko helburua erdiesteko oso lagungarria suertatuko zaigulakoan gaude. Baina, aurrera jarraitu aurretik, ikus dezagun, *adinak* eta *antzinakotasunak* nola ezaugarritzen dituen aukera politiko bakoitzeko andereñoak:

Aukera politikoa

<i>Adina</i>	<i>Ez erantz</i>	<i>EAJ</i>	<i>EA</i>	<i>EE</i>	<i>HB</i>	<i>Inori ez</i>	<i>Lerro Guzti</i>
30 urte baino gutziago	27 %42,9	4 %15,4	6 %33,3	4 %36,4	36 %52,2	12 %36,4	89 %40,5
31-39 urte bitartean	28 %44,4	9 %34,6	6 %33,3	5 %45,5	25 36,2	18 %54,5	91 %41,4
40-56 urte bitartean	8 %12,7	13 %50	6 %33	2 %18,2	8 %11,6	3 %9,1	40 18,2
Zutabe GUZTIRA	63 %28,6	26 %11,8	18 %8,2	11 %5	69 %31,4	33 %15	220 100

Ez erantzuna hautatu dutenen artean lehenengo bi adin talderen artean banatzen dira, oso gutxi izanik 40 urte baino gehiagokoak.

Euzko Alderdi Jeltzalearen gogaideen gehiengoak 40 urte baino gehiagokoak dira, bigarren adin taldekoak ere portzentai inportante izan arren; gazteak gutxi dira.

Eusko Alkartasunari boza eman diotenek pisu bera daukate hiru adin taldetan.

Euskadiko Ezkerra aukera politiko dutenak, batik bat, 31-39 urte bitartekoak dira, gazteenen portzentaia oso urrun ez egon arren.

¹² Honen inguruan ikus: Mateos Gonzalez, S. (1998). Euskal Nazionalismoa eta Hezkuntza Publikoa: ikastolen publikazioa., Euskal Herriko Unibertsitatea: 510 eta hur.

Herri Batasunaren botuemaileen gehiengoa gaztea da, 31-39 urte bitartekoen portzentaia adierazgarria bada ere.

Inori bozarik eman ez diotenen gehiengoa 31-39 urte bitartekoa da, gazte askotxo ere ageri da.

Aukera politikoa

<i>Antzinakotasuna</i>	<i>Ez erantz</i>	<i>EAJ</i>	<i>EA</i>	<i>EE</i>	<i>HB</i>	<i>Inori ez</i>	<i>Lerro Guzti</i>
<i>10 urte arte</i>	30	6	6	4	38	14	98
	%47,6	%23,1	%33,3	%36,4	%55,1	%42,4	%44,5
<i>11-15 urte bitartean</i>	15	5	4	5	17	12	58
	%23,8	%19,2	%22,2	45,5	%24,6	%36,4	%26,4
<i>15 urte baino gehiago</i>	17	15	7	2	14	7	62
	%27	%57,7	%38,9	%18,2	%20,3	%21,2	%28,2
<i>Zutabe</i>	63	26	18	11	69	33	220
<i>GUZTIRA</i>	%28,6	%11,8	%8,2	%5	%31,4	%15	100

Ez erantzuna hautatu dutenen artean gehiengoak denbora gutxi darama ikastolan; dena dela 15 urte baino gehiago zein 11-15 urte bitartean daramatzatenak ere proportzio adierazgarrian agertzen dira.

Euzko Alderdi Jeltzalearen gogaide gehienak 15 urte baino gehiago daramatzate ikastolan.

Eusko Alkartasunari boza eman diotenek portzentai antzetsuarekin agertzen dira bai lehenengo antzinakotasun kategorian zein hirugarrenean.

Euskadiko Ezkerra aukera politiko dutenek, batik bat, 11-15 urte bitarteko antzinakotasuna daukate, denbora gutxien daramatenak ere proportzio esanguratsuan ageriz.

Herri Batasunaren botuemaileen gehiengoak 10 urte baino gutxiago darama ikastolan beste bi antzinakotasun taldeetan andereño hauen proportzioa antzetsua da.

Inori bozarik eman ez diotenen gehiengoa 10 urteko antzinakotasunik ez dauka, 11-15 urte bitartekoa daukatenak nahikotxo izanik.

Behin ezagututa aukera politiko bakoitzaren gogaideen ezaugarriak goazen azpihipotesiak ezagutzera:

1. azpihipotesia: hautaturiko aukera politikoak zer ikusia dauka andereño izateko erabakia hartzerakoan, argudiatuturiko zioarekin, alegia, euskara berreskuratzea eta zabaltzea izatea ala bokazioa, lana edo bestelako arrazoia.

Aukera politikoa

	<i>Ez</i>	<i>EAJ</i>	<i>EA</i>	<i>EE</i>	<i>HB</i>	<i>Inori ez</i>	<i>Lerro</i>
	<i>erantz</i>				<i>Guzti</i>		
<i>Ez erantzuna</i>	3			1	4	1	9
	%4,8			%9,1	%5,8	%3	%4,1
<i>Irakaskuntza atsegin zait</i>	42	16	12	9	39	24	142
	%66,7	%61,5	%66,7	%81,8	%56,5	%72,2	%64,5
<i>Irakaskuntza euskaraz garran</i>	15	10	5	1	23	4	58
	%23,8	%38,5	%27,8	%9,1	%33,3	%12,2	%26,4
<i>Erosoa</i>	2						2
	%3,2						%0,9
<i>Eliminazioz</i>	1		1		3	4	9
	%0,6		5,6		%4,3	%12,1	%4,1
<i>Zutabe</i>	63	26	18	11	69	33	220
<i>GUZTIRA</i>	%28,6	%11,8	%8,2	%5	%31,4	%15	100

Ikusten denez, aukera politiko guzti-guztien gehiengoak bokazio kutsu duen erantzuna aukeratu izan dute, dena dela aipatzekoa da gehiengo apalena Herri Batasunari boza eman diotenen artean aurkitzen dugula. Halaber, irakaskuntza euskaraz garrantzia handia duela diotenen artean, dagoeneko jakina denez kolektiboaren laurden bat, Euzko Alderdi Jeltzale pisu gehien duen aukera politikoa da eta horren ostean, Herri Batasuna. Azter dezagun orain, euskarazaletasunaren eragina erabaki horretan:

Aukera politikoa

	<i>Ez</i>	<i>EAJ</i>	<i>EA</i>	<i>EE</i>	<i>HB</i>	<i>Inori ez</i>	<i>Lerro</i>
	<i>erantz</i>				<i>Guzti</i>		
<i>Ez erantzuna</i>	2		1		4	1	5
	%3,2		5,6		%1,4	3,0	%2,3
<i>Bai, asko garrantzitsuena</i>	12	6	4		12	7	41
	%19	%23,1	%22,2		%17,4	%21,2	%18,6
<i>Nahiko baina ez faktore bakarra</i>	11	4	4	3	12	11	45
	%17,5	%15,4	%22,2	%27,3	%17,4	%33,3	%20,5
<i>Orain ez da hainbesterako</i>	38	16	9	8	44	14	129
	%60,3	%61,5	%50	%72,7	%63,8	%42,4	%58,6
<i>Zutabe</i>	63	26	18	11	69	33	220
<i>GUZTIRA</i>	%28,6	%11,8	%8,2	%5	%31,4	%15	100

Berriro ere, aukera politiko guztietan gehiengo zabalek, erantzun bera eman dute: *euskarazaletasuna nahiko eragina izan zuela*, baina orain ez dela hainbesterako. Portzentai txikiena inori boto eman ez diotenen artean aurkituz. Badirudi, *euskarazaletasunaren eraginaz* ari direla, aldaketa baten berri eman nahi digutela Ikus ditzagun *ikastolan aritzeko* benetako arrazoiak:

Aukera politikoa

	Ez	EAJ	EA	EE	HB	Inori ez	Lerro
	erantz				Guzti		
Ez erantzuna			1				1
			%5,6				%0,5
Euskaraz ikastetxe, ikastolen giroa	34	17	10	5	46	13	125
	%54	%65,4	%55,6	%45,5	%66,7	%39,4	%56,8
Lana eta kasualitatea	29	9	7	6	23	20	94
	%46	%34,6	%38,8	%54,5	%33	%60,6	%42,7
Zutabe	63	26	18	11	69	33	220
GUZTIRA	%28,6	%11,8	%8,2	%5	%31,4	%15	100

Dagoeneko esana utzi dugunez, kolektibo erdia baino gehiagok(%57) *euskara, ikastolako giroa eta esanahia* bezalako erantzunak aukeratu izan ditu. Kolektibo horren baitan pisu gehien dutenak *Herri Batasunari* boza eman diotenak dira eta gutxien abstenitu direnak. Bestalde, andereñoen erdia baino gutxiagok(%43), *kasualitate, lan gehien zegoen tokia eta euren bila joan zirela* dira aipatu arrazoiak. Talde honen baitan pisu gehien abstenitu direnek ordezkatzan dute(hauen erdiak euren bila joan zirela dio) eta gutxien, ordea, *Herri Batasunari* boza eman ziotenak.

2. *azpihipotesia: aukera politikoak zer ikusia dauka andereñoek ikastolen hezkuntza proiektuarekiko erakusten duten leialtasunarekin.*

Aukera politikoa

	Ez	EAJ	EA	EE	HB	Inori ez	Lerro
	erantz				Guzti		
Ez erantzuna	14	1	2	1	23	5	46
	%22,2	%3,8	%11,1	%9,1	%33,3	%15,2	%20,9
Bai, utziko ikastola	28	5	6	5	25	18	87
	%44,4	%19,2	%33,3	%45,5	%36,2	%54,5	%39,5
Ez luke utziko ikastola	21	20	10	5	21	10	87
	%33,3	%76,9	%55,6	%45,5	%30,4	%30,3	%39,5
Zutabe	63	26	18	11	69	33	220
GUZTIRA	%28,6	%11,8	%8,2	%5	%31,4	%15	100

Azpimarratu beharra dago, andereñoen kolektiboa, auzi honi erantzuterakoan erdibitu egin zela; bestalde, *ez erantzuna* ere oso inportantea izan zen. *Ez erantzun* kategoria aukeratu zutenen artean, portzentai altuen erakusten dutenak *Herri Batasunari* boza eman ziotenak dira. Ikastolatik gehien alde egingo zuketanak, *abstentzioaren* aukerakoak dira eta hauen ostean erantzunik ematen ez dutenak, eta gutxien alde egingo luketenak *Euzko Alderdi Jeltzalekoak* dira. Aurrekoarekin bat etorriz, gehien gelditzen direnak *Euzko Alderdi Jeltzaleei* boza eman diotenak dira. Jokabide bitxia erakusten dute *Herri Batasunaren* bozemaileek, zeren eta berdin antzerako portzentaiak jasotzen dituzte hiru erantzun kategoriek. Badirudi, gai honen inguruan zalantza gehien adierazten direnak beraiek direla.

Ikus dezagun, laburtuz, *aukera politikoak* zer ekarria egin duen andereño hauen profilak zehazteko orduan:

- *Erantzunik eman ez dutenak(%28,6)*, 40 urte baino gutxiagokoak dira eta denbora gutxi daramate ikastolan. Bokazio kutsu duen erantzuna aukeratzen dute euren erabakiaren arrazoitzat. Erabaki horretan onartzen diote *euskarazaletasunari* garrantzi nahikoa baina egun ez dela hainbesterako diote. Halaber, *euskarazaletasun* horrekin zerikusia dauka ikastolan jarduteak, baina asko dira ere bestelako arrazoiak aipatzen dutenak(%46). Azkenik, ez dute ikastolaren hezkuntza proiektuarekiko leialtasun handirik erakusten gehienak alde egingo bailukete.

- *Euzko Alderdi Jeltzaleari boza eman diotenak(%11.8)*: 40 urte baino gehiagokoak dira eta ikastolan denbora gehien daramatenak. Hauen artean, andereñotara joateari bokazio jarrera onartzea nagusi bada ere, aurrekoak baino gehiago dira irakaskuntza euskaraz lortzeari garrantzia eman diotenak(%38,5). Halaber, joate horretan *euskarazaletasunak izandako* garrantzia, nahikoa izan zela baina orain ez dela hainbesterako diote, halarik ere, faktorerik garrantzitsuena dioten artean pisu gehien dutenak beraiek dira(%23). Ikastoletan jardute arrazoiak, duda barik, euskarazaletasunarekin loturik doaz gehiengo zabal batentzat. Ildo beretik, hezkuntza proiektu horrekiko leialtasun gehien erakusten dutenak dira(%77).

- *Eusko Alkartasunari botua eman diotenak(%8)*: andereño hauen jarrerak erantzunik eman ez dutenen antzekoak dira ikastolaren hezkuntza proiektuarekiko izan ezik. Auzi horri dagokionez, gehiengo dira ikastola utziko ez luketenak.

- *Euskadiko Ezkerrari botua eman ziotenak (%5)*: ia-ia denek bokazioa aipatzen dute andereño jarduteko zio gisa, batek ere ez du esaten *euskarazaletasuna* faktorerik garrantzitsuena izan zela aurreko erabaki horretan, berriz, gehiengo zabal batek, nahiko garrantzitsua, baina egun ez dela hainbesterako dio. Talde honetakoak, ikastoletan aritzeko bereizturiko bi erantzun kategorien artean erdibitu egiten dira, gauza bera gertatzen da ikastolaren hezkuntza proiektuaren inguruko auzian.

- *Herri Batasunari botua eman ziotenak (%31,4)*: gehiengoa gaztea da eta ikastolan denbora gutxien daramatenak dira. Kolektiboaren gehiengoa bezala, andereñotara, bokazioz joan baziren ere, hori diotenak portzentai apalena da; halaber, irakaskuntza euskaraz garrantzia handiko erantzuna aukeratzen duen gutxiengoan nahiko pisua daukate(%33; EAJkoekin batera); Horrez gain, andereñotara joate horretan *euskarazaletasunak izandako* garrantzia, nahikoa izan zela baina orain ez dela hainbesterako diote, kolektiboaren gehiengoarekin bat etorritz. Hala eta guztiz ere, ikastoletan aritzeko euskarazaletasunarekin zer ikusia daukan erantzun kategoria aukeratzen dute; baina, ikastolarekiko leialtasunari dagokionez oso jokabide bitxia erakusten dute: *ez erantzunaren* portzentaia beste erantzun aukerek jasotzen duten erantzun portzentai berdina antzerakoa da, hortaz ez dago esaterik leialak diren ala ez kopuru berdina antzera baita alde egingo lukeena zein geldituko lukeena zein erantzuten ez duena.

- *Inori boto eman ez diotenak(%15)*: gehienek 31-39 urte bitartean daukate eta denbora askorik ez daramate ikastolan. *Euskadiko Ezkerrakoekin* batera andereñotara joateko bokazioa gehien hobesten dutenak dira. Horrez gain, aurreko erabaki horretan *euskarazaletasunaren eraginaz* ari direla jokabide bitxiena erakusten dutenak ere badira; horrela, , nahiko garrantzitsua, baina egun ez dela hainbesterako diotenekin gehiengo bat ados egon arren, gehiengo hori portzentaian apalena da; berriz, nahiko garrantzitsua , baina ez faktore bakarra diotenen artean pisu gehien dutenak dira. Aurrera eginez, ikastoletan aritzearen inguruan gehiengo zabal batek ez du euskarazaletasunarekin zer

ikusia daukan arrazoirik aipatzen, kontrakoa baizik. Halaber, ikastola gehien utziko luketenak dira, beste ikastetxetik lan baldintza hobeak jasoz gero, horrela, leialtasun gutxien erakutsiz ikastolaren hezkuntza proiektuarekiko.

Goian esandakoaren ildotik, badirudi, gure lehenengo azpihipotesia: *hautaturiko aukera politikoak zer ikusia dauka andereño izateko erabakia hartzerakoan, argudiatuturiko zioarekin, alegia, euskararen berreskuratze eta zabaltzea izatea ala bokazioa, lana edo bestelako arrazoa, errefusatu behar dugula. Ez, ordea, bigarrena: aukera politikoak zer ikusia dauka andereñoek ikastolen hezkuntza proiektuarekiko erakusten duten leialtasunarekin.*

10.2.2.4.- Euskarazaletasuna

Euskarazaletasunaren ondorengo adierazleek izaera dikotomikoa daukate, alegia, azaldu beharreko aldagaiak izateaz gain(honaino ikusi dugun bezala), azalpenezko aldagaiak ere badira. Lehengo aldagai independenteen adierazleak egitate objektiboen emaitzak diren bitartean, aldagai honen kasuan egitate subjektiboen emaitzak dira, alegia, andereñoek beraiek emandako erantzunak. Erantzun horiek lortzeko planteatutako galderak, dagoeneko jakina denez, honakoak dira: *zergatik aukeratu zuten andereño izatea?; aurreko erabaki horretan euskarazaletasunaren eragina; zer ulertzen zuten euskarazaletasunaz?*. Adierazle horiek, gure aburuz, elkarrizketatutako subjektuek *euskarazaletasunari buruz* dituzten ideiak eskainiko dizkigute, eta ideia horiek, ikastolen proiektuan euren eskuhartze, irakasle gisa, nolakoa den argitzen lagunduko digutelakoan gaude. Horrela, gure uste horretatik abiaturik azpihipotesi batzuk idatzi ditugu, baina azpihipotesien frogaketara iragan aurretik, aurreko adierazleen erantzun-kategoria garrantzitsuen andereñoen zenbait ezaugarri (*adina, antzinakotasuna eta aukera politikoa*) ezagut ditzagun:

- Zergatik andereño?

Adina

	Ez du		Irakaskuntza		Erosoa		Irakaskuntza		Eliminazio	
	ernatzuten		atsegin zait				euskaraz			
	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%
30 urte baino gutxiago	6	66,7	62	43,7	2	100	16	27,6	3	33,3
31-39 urte bitartekoak	1	11,1	62	43,7			22	37,9	6	66,7
40-56 urte bitartekoak	2	22,2	18	12,7			20	34,5		
GUZTIRA	9	100	142	100	2	100	58	100	9	100

Andereño jarduteko *irakaskuntza atsegin zaiela* diotenak, eskuharki gazteak dira, gazteenen portzentai berdina aurkitzen baitugu 31-39 urte bitartekoenen artean, berriz, nagusiak oso gutxi dira. Alabaina, *irakaskuntza euskaraz garrantzizkoa dela* diotenak, nagusiagoak dira, zeren eta 31-39 urte bitartekoek nagusiek duten beste pisu baitaukat, oraingo honetan, gazteenak izanik presentzia gutxien daukatenak.

Antzinakotasuna

	Ez du		Irakaskuntza		Erosoa		Irakaskuntza		Eliminazio	
	ernatzuten		atsegin zait				euskaraz			
	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%
Ez erantzun			1	0,7			1	0,7		
10 urtera arte	6	66,7	71	50	2	100	15	25,9	4	44,4
11-15 urte	1	11,1	37	26,1			17	29,3	3	33,3
15 urte baino ge	2	22,2	33	23,2			25	43,1	2	22,2
GUZTIRA	9	100	142	100	2	100	58	100	9	100

Andereño jarduteko *irakaskuntza atsegin zaiela* diotenak, ikastolan denbora gutxien daramatenak dira gehienbat, besteen presentzia berdin antzerakoa izanik; aldiz, *irakaskuntza euskaraz garrantzizkoa dela* dioten artean, presentzia garrantzitsuen dutenak ikastolan denbora gehien daramatenak dira, 15 urte baino gehiago, besteen pisua berdintsua delarik.

Aukera politikoa

	Ez du		Irakaskuntza		Erosoa		Irakaskuntza		Eliminazio	
	ernatzuten		atsegin zait				euskaraz			
	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%
Ez erantzun	3	33,3	42	29,6	2	100	15	25,9	1	11,1
EAJ			16	11,3			10	17,2		
EA			12	8,5			5	8,6	1	11,1
EE	1	11,1	9	6,3			1	1,7		
HB	4	44,4	39	27,5			23	39,7	3	33,3
Inori ez	1	11,1	24	16,9			4	6,9	4	44,4
GUZTIRA	9	100	142	100	2	100	58	100	9	100

Andereño jarduteko *irakaskuntza atsegin zaiela* diotenen artean, *erantzunik eman ez dutenak* eta *Herri Batasunari* boza eman diotenenak nagusitzen dira, gero *bozarik eman ez dutenak* datoz eta hauen ostean EAJren, EAren eta EEren botuemaileak aipatu ordenean. Berriz, euskarazaleagoa den beste erantzun kategoria horretan, *Herri Batasunaren* botuemaileak nagusitzen dira, gero, *erantzunik ematen ez dutenak* eta jarraian EAJren gogaideak, EArenak, *bozarik eman ez dutenak* eta azkenik EErenak.

Beraz, andereño moduan aritzeko *irakaskuntza atsegin zaiela* diotenenak, gazteak, ikastolan denbora gutxien daramatenak eta aukera politikorik aitortu ez dutenak zein *Herri Batasunaren* gogaideak ditugu. Bestalde, *irakaskuntza euskaraz garrantzizkoa delako* argudioa eman dutenak, nagusiagoak, ikastolan denbora gehien daramatenak eta *Herri Batasunaren* botuemaileak dira. Ikus dezagun orain, adierazle honen kategoriekin eraikitako lan-hipotesia:

1. *azpihipotesia: andereño gisa jarduteko, irakaskuntza euskaraz erdiestea funtsezko arrazoia izateak ikastolen hezkuntza proiektuarekiko leialtasun handiago lekarkeen bestelako arrazoiak baino.*

Euskarazaletasuna

	Ez du erantzuten		Irakaskuntza atsegin zait		Erosoa		Irakaskuntza euskaraz		Eliminazio	
	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%
<i>Ez erantzuna</i>	4	44,4	30	21,1			12	20,7		
<i>Bai ikastola utzi</i>	2	22,2	56	39,4	2	100	21	36,2	6	66,7
<i>Ez ikastola utzi</i>	3	33,3	56	39,4			25	43,1	3	33,3
GUZTIRA	9	100	142	100	2	100	58	100	9	100

Badirudi, bildutako datuak gure azpihipotesiak adierazitako ildoarekin ez datozela bat. Alegia, *irakaskuntza euskaraz erdiestea*, kolektiboaren laurden batek aukeraturiko argumentua (%26,4) dugu, eta laurden horretan gehiengo badira ere ikastola utziko ez luketenak, oso gertu ageri da utziko luketenen portzentaia. Beste argumentua aukeratu duen gehiengo zabalean (%64,5) kopuru berdina osatzen dute alde egingo luketeenak zein geldituko liratekeenak. Ikus ditzagun orain hurrengo adierazlearen kategoria desberdinetan kokatzen diren andereñoen ezaugarriak:

-Euskarazaletasunak eraginik izan al zuen?

Adina

	Ez du		Asko		Nahiko		Nahiko ez		Lerro	
	ernatzuten		garrantzitsuena		orain ez		faktore bakarra		GUZTIRA	
	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%
30 urte baino gutxiago	5	100	11	26,8	56	43,4	17	37,8	89	40,5
31-39 urte bitartekoak			20	48,8	51	39,5	20	44,4	91	41,4
40-56 urte bitartekoak			10	24,4	22	17,1	8	17,8	40	18,2
GUZTIRA	5	100	41	100	129	100	45	100	220	100

Bai asko. Hori izan da garrantzitsuena, erantzun duten andereñoen gehiengoak 31-39 urte bitartekoak dira, beste adin taldekoak presentzi antzetsuarekin agertuz.

Nahiko, baina orain ez da hainbesterako, erantzuna aukeratu dutenen artean, gazteenak zein 31-39 urte bitartekoak nagusitzen dira, nagusiek presentzia gutxien daukatenak izanik.

Nahiko, nahiko garrantzitsua bai, baina ez da izan faktore bakarra, erantzun dutenak, aurreko kategoriako andereñoen ezaugarri berdina agertzen dira.

Antzinakotasuna

	Ez du		Asko		Nahiko		Nahiko ez		Lerro	
	ernatzuten		garrantzitsuena		orain ez		faktore bakarra		GUZTIRA	
	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%
Ez erantzun					2	1,6			2	0,9
10 uretara arte	5	100	12	29,3	61	47,3	20	44,4	98	44,5
11-15 urte			10	24,4	36	27,9	12	26,7	58	26,4
15 urte baino			19	46,3	30	23,3	13	28,9	62	28,2
GUZTIRA	5	100	41	100	129	100	45	100	220	100

Bai asko. Hori izan da garrantzitsuena, erantzun duten andereñoen gehiengoak 15 urte baino gehiago daramatza ikastoletan; beste antzinakotasun-taldeen pisua berdina antzetsua da.

Nahiko, baina orain ez da hainbesterako, erantzuna aukeratu dutenen artean, presentzia handien dutenak ikastolan denbora gutxien daramatenak dira, eta kasu honetan 10 urte baino gehiago zein 15 urte baino gehiago daramatenek portzentai berdintsuak dituzte.

Nahiko, nahiko garrantzitsua bai, baina ez da izan faktore bakarra, erantzun dutenek, lehengo kategorian somaturiko ezaugarri berberak dituzte.

Aukera politikoa

	<i>Ez du</i>		<i>Asko</i>		<i>Nahiko</i>		<i>Nahiko</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>ernatzuten</i>		<i>garrantzitsue</i>		<i>orain ez</i>		<i>faktore bakar</i>		<i>GUZTIRA</i>	
	<i>Mai</i>	<i>%</i>	<i>Mai</i>	<i>%</i>	<i>Mai</i>	<i>%</i>	<i>Mai</i>	<i>%</i>	<i>Mai</i>	<i>%</i>
<i>Ez erantzun</i>	2	40	12	29,3	38	29,5	11	24,4	63	28,6
<i>EAJ</i>			6	14,6	16	12,4	4	8,9	26	11,8
<i>EA</i>	1	20	4	9,8	9	7	4	8,9	18	8,2
<i>EE</i>					8	6,2	3	6,7	11	5
<i>HB</i>	1	20	12	29,3	44	34,1	12	26,7	69	31,4
<i>Inori ez</i>	1	20	7	17,1	14	10,9	11	24,4	33	15
<i>GUZTIRA</i>	5	100	41	100	129	100	45	100	220	100

Bai asko. Hori izan da garrantzitsuena, erantzun duten andereñoen artean nagusi dira, gainera portzentai berdinekin, Herri Batasunari boza eman diotenak zein erantzunik eman ez dutenak, hauen ostean, bozarik eman ez dutenak, Euzko Alderdi Jeltzalearen gogaideak, eta Eusko Alkartasunarenak. Euskadiko Ezkerrakorik ez dago.

Nahiko, baina orain ez da hainbesterako, erantzuna aukeratu dutenen artean, presentzia handien dutenak HBren gogaideak dira, erantzunik eman ez dutenak, EAJren botuemaileak, Inori ez diotenak eman, EAren botuemaileak eta azkenik EErenak.

Nahiko, nahiko garrantzitsua bai, baina ez da izan faktore bakarra, erantzun dutenen artean, HBri botua eman diotenak, boturik eman ez zein erantzunik eman ez dutenak portzentai berdinekin nagusitzen dira. eta portzentai txikiekin, EAJri zein EAri botua eman diotenak, bestalde, parekaturik agertzen direnak eta EEko botuemaileak.

Beraz, *euskarazaletasuna garrantzitsuena izan zela uste dutenak*(%18,6), 31-39 urte bitartekoak dira, 15 urte baino gehiago daramatzate ikastolan, beraz, 70eko hamarkadan lanean hasitakoak dira gehienbat eta aukera politikoari dagokionez, *Herri Batasunari boza eman diotenak zein erantzunik eman ez dutenak portzentai berdinekin agertzen dira. Nahiko, baina orain ez da hainbesterako, erantzuna aukeratu dutenen artean*(%58,6) gazteenak zein 31-39 urte

bitartekoak nagusitzen dira, ikastolan denbora gutxien daramatenak ere badira; azkenik *Herri Batasunaren* botuemaileak presentzia handien dutena dira. *Nahiko, nahiko garrantzisua bai, baina ez da izan faktore bakarra* diotenak(%20,5), 39 urte baino gutxiago daukate eta denbora gutxi daramate ikastolan, aukera politiko nagusiak, *Herri Batasuna, abstentzioa eta erantzunik eza*. Goazen, bada, kategoria hauekin proposatzen dugun lan-hipotesia ezagutzera:

2. *azpihipotesia: euskarazaletasuna garrantzitsuena dela diotenak ikastolaren hezkuntza proiektuarekiko leialtasun handien erakusten dutenak dira.*

	Ez du erantz		Asko garrantzitsu		Nahiko orain ez hainbeste		Nahiko ez faktore bakar		Lerro GUZTIRA	
	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%
Ez du eran	2	40	9	22	23	17,8	12	26,7	46	20,9
Bai utzi ikas	3	60	11	26,8	60	46,5	13	28,9	87	39,5
Ez utzi ikas			21	51,2	46	35,7	20	44,4	87	39,5
GUZTIRA	5	100	41	100	129	100	45	100	220	100

Goiko taulan ikusten den bezala, ikastolarekiko leialtasun handien erakusten dutenak, alegia, gehien gelditzen direnak, *euskarazaletasunari* garrantzi handien onartu diotenak dira eta hauen ostean nahiko garrantzia onartzen diotenak, nabartu arren, ez zela izan faktore bakarra. Hortaz, gehien alde egiten dute, orain euskarazaletasunak ez duela hainbeste garrantzirik argumentatzen dutenak dira. Badirudi, berriro ere, azpihipotesiak marrazturiko bidetik doazela erdietsiriko datuak. Goazen, ondoren, hurrengo adierazlearen kategoriak hustutzera:

- **Zer da zuretzat euskarazaletasuna?**

Adina

	Ez du ernatzuten		Irakaskuntza Kalitatezkoa		Beste ekintzetan		Bizitza osoa ematea		Lerro GUZTIRA	
	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%
30 urte baino gutxiago			22	35,5	51	41,5	16	55,2	89	40,5
31-39 urte bitartekoak	5	83,3	28	45,2	47	38,2	11	37,9	91	41,4
40-56 urte bitartekoak	1	16,7	12	19,4	25	20,3	2	6,9	40	18,2
GUZTIRA	6	100	62	100	123	100	29	100	220	100

Irakaskuntza euskaraz kalitatezkoa lortzea erantzuten dutenen artean, gehiengoa 31-39 urte bitartekoa da, baina 30 urte baino gutxiago dauzkaten presentzia ez da gutxiesteko; *Euskaraz irakatsi ez ezik euskararen aldeko ekintzetan parte hartzea* erantzun kategoría aukeratu dutenak, gehienbat 30 urte baino gutxiagokoak dira eta 31-39 urte bitartekoek ere presentzia handia daukate. Nagusienez portzentai handiena agertzen dute erantzun kategoría honetan; azkenik, *euskara bultzatzeko zure bizitza osoa ematea diotenak*, gazteenak dira.

Antzinakotasuna

	Ez du		Irakaskuntza		Beste		Bizitza		Lerro	
	ernatzuten		Kalitatezkoa		ekintzetan		ematea		GUZTIRA	
	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%
Ez erantzun					2	1,6			2	0,9
30 urtera arte			26	41,9	56	45,5	16	55,2	98	44,5
11-15 urte bitart	3	50	15	24,2	32	26	8	27,6	58	26,4
15 urte baino ge	3	50	21	33,9	33	26,8	5	17,2	62	28,2
GUZTIRA	6	100	62	100	123	100	29	100	220	100

Irakaskuntza euskaraz kalitatezkoa lortzea erantzuten dutenen artean gehiengoa, ikastolan denbora gutxien daramatena da eta hauen ostean portzentai adierazgarri batekin denbora gehien daramatenak agertzen dira. *Euskaraz irakatsi ez ezik euskararen aldeko ekintzetan parte hartzea* dioten gehiengoa berriro ere, denbora gutxien daramana da, beste antzinakotasun taldeko andereñoak portzentai berberarekin ageriz.; azkenik, *euskara bultzatzeko zure bizitza osoa ematea dioten* gehiengoa, berriro ere, ikastolan denbora gutxien daramatenak dira. Aintzat hartzekoa da laginaren ia erdiak ez duela 10 urte baino gehiagoko antzinakotasunik.

Aukera politikoa

	Ez du		Irakaskuntza		Beste		Bizitza		Lerro	
	ernatzuten		Kalitatezkoa		ekintzetan		ematea		GUZTIRA	
	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%	Mai	%
Ez erantzuna	5	83,3	21	33,9	30	24,4	7	24,1	63	28,6
EAJ			6	9,7	17	13,8	3	10,3	26	11,8
EA			6	9,7	7	5,7	5	17,2	18	8,2
EE			3	4,8	8	6,5			11	5
HB	1	16,7	17	27,4	43	35	8	27,6	69	31,4
Inori ez			9	14,5	18	14,6	6	20,7	33	15
GUZTIRA	6	100	62	100	123	100	29	100	220	100

Irakaskuntza euskaraz kalitatezkoa lortzea erantzun kategorian dauden andereño gehienek ez digute esaten nori eman zioten botua hauteskundeetan, gehiengo horrengandik oso gertu *Herri Batasunaren* botuemaileak agertzen dira. *Euskaraz irakatsi ez ezik euskararen aldeko ekintzetan parte hartzea* diotenen gehiengoa, oraingo honetan, *Herri Batasunaren* gogaideak dira eta bigarren portzentai adierazgarria *ez erantzunari* dagokio. Azkenik, *euskara bultzatzeko zure bizi osoa ematea* diotenen artean *ez erantzuna* eta *Herri Batasuna* portzentai antzetsuekin nagusi dira, hauen atzean *abstentzioa* legoke gutxiesteko ez den portzentai batekin. Ikus dezagun hurrengo lan-hipotesiaren frogaketa:

3.azpihipotesia: euskarazale izatea euskara bultzatzeko bizi osoa ematea dela uste dutenek ikastolaren hezkuntza proiektuarekiko leialtasun handien erakusten dute, ezen edozein dela egindako eskaintza ez bailukete ikastola utziko.

Ikastola utzi

	<i>Ez du erantzuten</i>		<i>Irakaskuntza Kalitatezkoa</i>		<i>Beste ekintzetan</i>		<i>Bizitza osoa ematea</i>		<i>Lerro GUZTIRA</i>	
	<i>Mai</i>	<i>%</i>	<i>Mai</i>	<i>%</i>	<i>Mai</i>	<i>%</i>	<i>Mai</i>	<i>%</i>	<i>Mai</i>	<i>%</i>
<i>Ez erantzun</i>	1	16,7	10	16,1	27	22	8	27,6	46	20,9
<i>Bai utzi ikastola</i>	4	66,7	23	37,1	46	37,4	14	48,3	87	39,5
<i>Ez utzi ikastola</i>	1	16,7	29	46,8	50	40,7	7	24,1	87	39,5
<i>GUZTIRA</i>	6	100	62	100	123	100	29	100	220	100

Datuen irakurketak, ordea, bestelako jokabidearen berri ematen digute: ikastola gehien uzten dutenak, hain zuzen ere, hipotesian aipatutakoak dira. Berriz, euskarazaletsuna *irakaskuntza euskaraz kalitatezkoa lortzea dela* uste dutenak dira gehien gelditzen direnak, eurengandik oso gertu geldituz, *euskarazaletsuna euskaraz irakatsi ez ezik euskararen aldeko ekintzetan parte hartzea dela* diotenak. Beraz, oraingo honetan gure hipotesia errefusatu beharrean aurkitzen gara.

Labur bilduz, *euskarazaletsunaren* operazionalizaziorako erabilitako adierazleek ekarritako informazioa honakoa da:

1. Zergatik aukeratu zuten andereño izatea?

1.1.- *Irakaskuntza atsegin zaielako diotenak(%64,5) gazteak eta ikastolan denbora gutxien daramatenak dira. Herri Batasuna gehien aukeratutako indar politikoa da, hala ere, proportzio berean ez diote galdera hori erantzunik ematen. Halaber, ikastolaren hezkuntza proiektuarekiko atxikimenduari dagokionez, kopuru berdinak dira alde egiten dutenak zein gelditzen direnak.*

1.2.- *Irakaskuntza euskaraz garrantzizkoa dela diotenak(%26,4), nagusiagoak eta ikastolan denbora gehien daramatenak dira. Gehiengo garrantzitsu batek Herri Batasunari eman dio boza. Kolektibo zati honetan ikastolari erakutsitako atxikimendua handiagoa da, alde egingo zuketenen kopurua nahiko adierazgarria badaere.*

2.- Aurreko erabakian euskarazaletasunaren eragina:

2.1. *Bai asko. Hori izan da garrantzitsuena, erantzun dutenen (%18,6) gehiengoa 31-39 urte bitartekoak da, 15 urte baino gehiago daramatza ikastolan. Aukera politiko nagusi Herri Batasuna da eta portzentai berdinak ez dio galdera horri erantzunik eman. Horrez gain, Ikastolarekiko leialtasun handien erakusten dutenak dira.*

2.2. *Nahiko, baina orain ez da hainbestera erantzuna hautatu dutenen artean(%58,6) gazteenak zein 31-39 urte bitartekoak dira gehienbat, adinekoak gutxi izanik. Ikastolan denbora gutxien daramatenak eta hezkuntza proiektu horrekiko atxikimendu gutxien erakusten dutenak dira. Aurrekoengan bezala Herri Batasuna da aitorturiko aukera politikoa eta portzentai bereberak ez dio galdera horri erantzunik eman.*

2.3. *Nahiko, nahiko garrantzitsu bai, baina ez da izan faktore bakarra diotenak, adinari dagokionez, gehienbat gazteak dira 40 urte baino gutxiagokoak eta gehienak 10 urte baino gutxiago daramatzate ikastolan. Hala ere, hezkuntza proiektu horrekiko nahiko atxikimendua erakusten dute. Berrero ere, aitorturiko aukera politiko nagusi Herri Batasuna da.*

3. *Zer ulertzen duzu euskarazaletasunaz?*

- 3.1. *Irakaskuntza euskaraz kalitatezkoa lortzea diotenak(%28,2), 31-39 urte bitartekoak dira, 30 urte baino gutxiago dauzkatenen presentzia ez bada gutxiesteko ere. Gehiengo denbora gutxi darama ikastolan, hala ere, denbora gehien daramatenak ere portzentai adierazgarri batekin agertzen dira. Halaber, ikastolaren hezkuntza proiektuarekiko atxikimendu handiena erakusten dute. Gehiengoak ez du esaten zein aukera politikoari eman zion boza.*
- 3.2. *Euskaraz irakatsi ez ezik euskararen aldeko ekintzetan parte hartzea erantzun dutenak(%55,9), 30 urte baino gutxiagokoak dira, denbora gutxi darama ikastolan, eta horrekiko nahiko leialtasuna erakusten dute. Gehiengoak Herri Batasunari eman diola boza dio.*
- 3.3. *Euskara bultzatzeko zure bizitza osoa ematea, erantzun dutenak(%13,2), bitxia badirudi ere, gazteenak dira, ikastolan denbora gutxien daramatenak eta ikastolarekiko atxikimendu gutxi erakusten dute. Berrero ere, portzentai altuen biltzen duen aukera politikoa Herri Batasuna dugu ez erantzunarekin batera.*

Beraz, proposaturiko lan-hipotesietatik azkena errefusatu beharrean aurkitzen gara, alegia: *euskarazale izatea euskara bultzatzeko bizitza osoa ematea dela uste dutenek ikastolaren hezkuntza proiektuarekiko leialtasun handien erakusten dute, ezen edozein dela egindako eskaintza ez bailukete ikastola utziko.*

10.2.2.5 Ikastola utzi?

Landa lan hau burutzen ari giñela, ikastolen publikazioaren auzia gori-gorian zegoen. Ikastolen publikazioaren berri, dagoeneko, emana dago lan honen 9.3 azpiatalean, azaletik bada ere. Auzi horren inguruko eztabaidak hamalau urtez iraun zuen: 1979tik 1993ra. Urte horietan abertzaleen arteko eztabaidan bilduriko gaien ugaritasunean biziki nabarmendu zen ikastolari eta eskolari ematen zitzaien izaera: biak euskararen gordailu, baina, batzuentzat ez modu berean. Batetik, eskola publikoa, euskaldun izatea lorturik eta, aldi berean, herritar guztientzako zabalik, Euskal Autonomia Erkidegoan eskola populazio gehien euskalduntzeko lanabes gisa aurkeztua zena. Beraz, naziogintzak behar duen masa eskolatza gehien urreratzen gintuena. Eta, bestetik, ikastolari, Espainako Estatuari irabazitako eremua, Euskal Herriaren lurralde osoan errotua eta euskara irakasten eta zabaltzen aitzindari zena, nazio proiektuaren aitzindaritzara ere jasotzen zuena. Gauzak horrela, ikastola eta eskolaren arteko osagarritasuna eta bateragarritasuna defendatua izan zen sektore batzuen aldetik; beste sektore batzuek, aldiz, bateragarritasun gabeko osagarritasuna ikusten zuten bitartean. Azken hauek aipatu planteamenduari eusteko ikastola estatuaren kontrolik gabeko eremua izatea zein lurralde irizpideak eskaini zituzten.¹³

Dena dela, euskara irakastea eta zabaltzea jarduera komuna zutelako ideia gizarteratua izan zen argiro. Hori dela eta, ikastetxe biren irakasleen jarduna ere antzetsua izan zitekeelako ustea zenbateraino zabaldua zegoen jakiteko, aztertzen ari garen andereñoen kolektiboan, galdera hau egin genien: *eskeiniko balizkizute lan baldintza hobek edota profesional mailan ahalbide gehiago beste ikastetxe batean, utziko zenuke ikastola?*

Dagoeneko badakigu, atal honen hasieran ikusi bezala, kolektiboa erdibitu egiten dela erabakitzeke orduan, baiezko zein ezezko erantzunak %39,5 erantzun portzentaia eskuratuz, eta badakigu ere, ez erantzunen portzentaia oso-oso esanguratsua izan dela:%21, kolektiboaren ia laurden bat. Erantzun

¹³ Eztabaia horretan parte hartu zutenen indar politiko eta sindikalen inguruan ikus: Mateos Gonzalez, S. (1998). Op. Cit. : 490 eta hur.

horiek marrazturiko taldeen ezaugarriak zehatz-mehatz ezagutaraziko ditugu jarraian, zenbait, dagoeneko, ezagunak badira ere:

Adina

	Bai utzi ikastola		Ez utzi ikastola		Ez du erantzun	
	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
30 edo gutxi	40	46	22	25	27	59
31-39 urte	40	46	38	44	13	28
40 urte gora	7	8	27	31	6	13
GUZTIRA	87	100	87	100	46	100

Ikastola utziko luketenen artean gazteenak zein 31-39 urte bitartekoak proportzio berdinarekin agertzen dira, oso-oso gutxi izanik 40 urte baino gehiago dituztenak.

Ikastolan geldituko liratekeen artean presentzi handiena 31-39 urte bitartekoek erakusten dute eta, ondoren, 40 urte baino gehiagokoak daude, halere gazteen presentzia ez da gutxiestekoa talde horren laurden bat dira-eta.

Erantzunik eman ez dutenen artean erdia baino gehiago 30 urte baino gutxiagokoak dira; laurden pasatxo 31-39 urtekoak diren bitartean. 40 urte baino gehiagokoak gutxi dira.

Aintzinakotasuna

	Bai utzi ikastola		Ez utzi ikastola		Ez du erantzun	
	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
10 urte arte	45	52	26	30	27	59
11-15 urte	26	30	21	24	11	24
15 urte gehi	15	17	39	45	8	17
Ez erantzun	1	1	1	1		
GUZTIRA	87		87	100	46	100

Ikastola utziko luketen artean erdia baino gehiagok ez daramatza ezta 10 urte ikastolan ere. Hurrengo portzentai esanguratsua 11-15 urte bitartean daramatzatenen artean aurkitzen dugu, eta azkenik 15 urte baino gehiago daramatzatenak oso gutxi dira:%17.

Ikastolan geldituko liratekeen artean pisu gehien dutenak, %45, 15 urte baino gehiagoko antzinakotasuna daukatenak dira. Ondoren, denbora gutxien

daramatenak agertzen dira %30 eta, azkenik, 11-15 urte bitarteko aintzinakotasuna daukatenak, %24.

Erantzunik eman ez dutenen artean erdia baino gehiago, %59, dira ikastolan denbora gutxien daramatenak; ia laurden bat dira 11-15 urte bitarteko aintzinakotasuna daukatenak, gutxi izanik ikastolan denbora gehien daramatenak.

Aukera politikoa

	<i>Bai utzi ikastola</i>		<i>Ez utzi ikastola</i>		<i>Ez du erantzuten</i>	
	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>
<i>Ez erantzuna</i>	28	32	21	24	14	30
<i>EAJ</i>	5	6	20	23	1	2
<i>EA</i>	6	7	10	11	2	4
<i>EE</i>	5	6	5	6	1	2
<i>HB</i>	25	29	21	24	23	50
<i>Inori ez</i>	18	21	10	11	5	11
<i>GUZTIRA</i>	87	100	87	100	46	100

Aukera politikoaren arabera, *Ikastola utziko luketenen* artean pisu gehien dutenak dira *erantzunik eman ez dutenak*, *Herri Batasunaren botuemaileak eta abstenitu direnak* aipatu ordenean.

Ikastolan geldituko liratekeen artean pisu berdina dute, *erantzunik eman ez dutenak*. *Euzko Alderdi Jeltzaleen botuemaileak zein Herri Batasunarenak*.

Ikastola uzteari dagokionez *erantzunik eman ez dutenen* artean erdia *herri Batasunaren botuemaileak* dira, ondoren portzentai esanguratsu batekin dugu *ez erantzuna*.

Honaino, ikusi izan dugu nola planteatutako galderari emandako erantzunak modu desberdinez ezaugarritu dituzte erabilitako aldagaiek, alegia, *adina, aintzinakotasuna eta aukera politikoa*. Beraz, badirudi, aldagai horiek nolabaiteko eragina dutela andereñoek hartutako erabakian. Jarraian, euskarazaletasunaren berri ematen duten aldagaiak: *andereño izateko zioak, euskarazaletasunaren eragina eta euskarazaletasunaren definizio subjektiboa* aztertuko ditugu. Aldagai horiek eraginik izanez gero andereñoen erantzunetan frogatuko genuke andereñoek ez dutela berdintsu ikusten euren jarduna ikastolan ala eskolan. Beha ditzagun, bada, datuak:

Andereño izateko zioak

	<i>Bai utzi ikastola</i>		<i>Ez utzi ikastola</i>		<i>Ez du erantzuten</i>	
	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>
<i>Beste batzuk</i>	10	11	6	7	4	9
<i>Irakaskuntza atsegin zait</i>	56	64	56	64	30	65
<i>Irakaskuntza euskaraz</i>	21	24	25	29	12	14
<i>GUZTIRA</i>	87	100	87	100	46	100

Goiko koadroan ikusten den bezala, *Ikastola utziko luketenen* artean zein *geldituko liratekeen* artean antzetsua den portzentaian agertzen dira *Irakaskuntza euskaraz garrantzizkoa delako* andereño izatea erabaki zutenak.

Euskarazaletasunaren eragina

	<i>Bai utzi ikastola</i>		<i>Ez utzi ikastola</i>		<i>Ez du erantzuten</i>	
	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>
<i>Ez erantzuna</i>	3	3			2	4
<i>Asko oso garrantzitsu</i>	11	13	21	24	9	20
<i>Orain ez hainbeste</i>	60	69	46	53	23	50
<i>Nahiko ez faktorebakarra</i>	13	15	20	23	12	26
<i>GUZTIRA</i>	87	100	87	100	46	100

Goikoan zein hurrengoan joera beretsua atzematzen da.

Zer da euskarazaletasuna

	<i>Bai utzi ikastola</i>		<i>Ez utzi ikastola</i>		<i>Ez du erantzuten</i>	
	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>
<i>Ez erantzuna</i>	4	5	1	1	1	2
<i>Irakaskuntza kalitatezkoa</i>	23	26	29	33	10	22
<i>Beste ekintzetan</i>	46	53	50	57	27	59
<i>Bizitza osoa ematea</i>	14	16	7	8	8	17
<i>GUZTIRA</i>	87	100	87	100	46	100

Datu horien arabera ez du ematen *euskarazaletasunak* desberdintasun nabarmenak ezartzen dituenik, alegia, ez duela jokabide bat ala beste hobesten. Beraz, badirudi esan dezakegula andereño hauentzat euren jarduna ikastolan ala eskolan berdintsua litzatekeela. Hortaz, posible da bi eremuetan subjektu abertzale gisa aritzea.

Honaino ikusitakoa bat dator hasierako hipotesi orokorrean planteatutakoarekin, alegia, 90eko hamarkadan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastoletan ari direnen andereñoek iritzi eta jarrera desberdinak izan badituztela, euskaldunok eraikitako eskola eredian irakastearekiko. Iritzi eta jarrera desberdin horiek honako aldagaiek azaltzen dituztela: *adina, aintzinakotasuna eta aukera politikoak*, eta ez, *ordea, euskarazaletasuna*; antza, jokabide euskaltzalea bideragarria baita irakaskuntzaren beste eremu batean. Horrela, *lan baldintza hobek edota profesional mailan ahalbide gehiago eskeiniz gero, beste ikastetxe batean, ikastola utziko luketenak eta geldituko liratekeen artean euskaltzaletasunak ez ditu desberdintasunak ezartzen*. Bai, aldiz, *adinak, aintzinakotasuna eta aukera politikoak*. Horrela, batetik, *Ikastola utziko luketeenak* gazteenak zein 31-39 urte bitartekoak dira eta ez daramatzate ezta 10 urte ere ikastolan. *Aukera politikoari* dagokionez, erantzunik eman ez dutenak, Herri Batasunaren botuemaileak eta abstenitu direnak nagusi dira. Bestetik, *Ikastolan geldituko liratekeenak* 31-39 urte bitartekoak zein 40 urte baino gehiagokoak dira. Ikastolan 15 urte baino gehiago daramatzate eta euren artean nagusi diren *aukera politikoak* Euzko Alderdi Jeltzalea, Herri Batasuna eta erantzunik ez dira.

Azkenik, *erantzunik eman ez dutenen artean* gehiengoa dira 30 urte baino gutxiagokoak, eta bai, ikastolan, 15 urte baino gutxiago daramatzatenak ere; aukera politiko nagusia Herri Batasuna izanik(%50)¹⁴.

¹⁴ Esan bezala, inkesta hauek egiten ari giñela ikastolen publikazioaren auzia gori-gorian zegoen. Testuinguru hartan gertatutakoaren ondoriozariko bat honakoa dugu: "...Ezker Abertzaleak, oro har, izan zen jarrera ugaritasun handiena erakutsi zuena, eta ondorioz, barne urradura sakonena nozitu zuena; haren baitan bildu baitziren, alde batetik, herritar guztientzako eta euskaldun atzematzen zen eskola publikoaren aldeko militante sutsuak; eta, bestetik, ikastola sareak islatzen zuen nazio proiektuaren defendatzaile gartsuak." In Mateos Gonzalez, S.(1998). OP. Cit.: 603 orr.

10.2.3 Genero eta irakaskuntza

Mugimendu feministaren ekimen politikoak emakumeen irudi eta jokabide desberdinen aukera ekarri zuen. Atal honen hasieran planteatutako bigarren hipotesian genion bezala, irudi eta jokabide horiek baliteke zer ikusirik izatea aztertzen ari garen emakumeen kolektiboak dituen iritzi eta jarrerekin, euren eguneroko lanei dagokienez. Horrela, emakumeen irudi eta jokabideen inguruan gehiago ezaguteko asmoz, aipatu hipotesiaren operazionalizazioari ekin genion dimentsio desberdinak bereiztuz: *etxeko lana eta lanbidearen arteko elkargarritasuna; lanbide hobetzea; magisteritza emakumezkoen lana; familia antolatzeako estrategiak eta emandako denbora; gure gizartean emakume izatearen inguruko jarrerak; emakumeen erlijiosotasuna eta partehartze politikoa*. Goazen, bada, dimentsio hauen adierazleak ezagutzera:

Etxeko lana eta lanbidearen arteko elkargarritasuna:

Ordutegitik kanpo zenbat denbora ematen diozu lanari?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehunekoak</i>
<i>Ordu bat</i>	<i>106</i>	<i>48,2</i>
<i>2-3 ordu artean</i>	<i>50</i>	<i>22,7</i>
<i>3 ordu baino gehiago</i>	<i>2</i>	<i>0,9</i>
<i>Bat ere ez</i>	<i>34</i>	<i>15,5</i>
<i>Ez du erantzuten</i>	<i>28</i>	<i>12,7</i>
<i>GUZTIRA</i>	<i>220</i>	<i>100</i>

Lan ordutegitik at gehiengoak ordu bat baino ez dio eskaintzen ordaindutako lanari, ia laurden batek bi edo hiru ordu eskaintzen dizkion bitartean.

Maiztasuna erreziklai ikastaroetan

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehunekoak</i>
<i>Beti</i>	<i>34</i>	<i>15,5</i>
<i>Ea beti</i>	<i>61</i>	<i>27,7</i>
<i>Nohizean behin</i>	<i>109</i>	<i>49,5</i>
<i>Ea inoiz ez</i>	<i>6</i>	<i>2,7</i>
<i>Inoiz ez</i>	<i>9</i>	<i>4,1</i>
<i>GUZTIRA</i>	<i>220</i>	<i>100</i>

Erreziklai ikastaroetan parte hartzeko maiztasuna gehiengoarentzat *nohizean behinkakoa* da, baina gertu, portzentai antzetsu batekin, *beti eta ea beti* partehartzen dutenak leudeke.

Ikastaroek inoiz arazoren bat sortu izan dizute?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehunekoak</i>
<i>Ez inoiz ez</i>	63	28,6
<i>Batzutan bakarrik</i>	114	51,8
<i>Askotan</i>	34	15,5
<i>Ez du erantzuten</i>	9	4,1
GUZTIRA	220	100

Erreziklai ikastaro horietan parte hartzeak arazoak sor dizkie gehiengo bati *batzutan* eta gutxi batzuei *askotan*; kolektiboaren laurden bati, ordea, ez dio arazorik ekarri.

Arazoak zegatik?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehunekoak</i>
<i>Familiarekin egoteko astia kentzen didalako</i>	63	42,6
<i>Nire denbora librearen orduak kentzen dizkidalako</i>	56	37,8
<i>Nire lanari orduak kentzea delako</i>	8	5,4
<i>Besteak</i>	8	5,4
<i>Ez du erantzuten</i>	13	8,8
GUZTIRA	148	100

Arazoak izan dituztela onartzen dutenen artean(%68), %43k familiarekin egoteko denbora kentzen diela dioskun bitartean, %38rentzat aisialdiari denbora kentzea da.

Bizitza pribatua eta lan arteko harremanak tentsio egoera

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehunekoak</i>
<i>Bai</i>	175	79,5
<i>Ez</i>	28	12,7
<i>Ez du erantzuten</i>	17	7,7
GUZTIRA	220	100

Horrela, bizitza pribatua eta ordaindua den lana elkar eramateak, %80rentzat, urduritasun egoera batean bizitzea lekarke. Ikus ditzagun teinka egoera horren zenbait arrazoi:

Zergatik?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehunekoak</i>
<i>Neketsua delako umekin lan egitea. Nekea eta kezka</i>	48	27,4
<i>Ordu gehiegi sartzen direlako. Lan gehiegi</i>	26	14,9
<i>Lanhau erresponsabilitate handikoa delako.</i>	22	12,6
<i>Asko exijitzen zaigu</i>	5	2,9
<i>Etxekoandrea eta andereño izateagatik</i>	36	20,6
<i>Ez du erantzuten</i>	38	21,7
GUZTIRA	175	100

Egoera hori aitortzen dutenen laurden batek *umekin neketsua delako lan egitea, nekea eta kezka* ditu hizpide; %21ak *etxekoandre eta andereño izateagatik* dio gertatzen dela; bestalde, *lan gehiegi* edo *lan hau erresponsabilitate handikoa dela* dira eskainitako beste erantzunak.

Lanbide hobetzea:

...beste gauzaren bat ikasten duzu?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehunekoak</i>
<i>Bai</i>	62	28,2
<i>Ez</i>	147	66,8
<i>Ez du erantzuten</i>	11	5
GUZTIRA	220	100

Goiko koadroan ikusten denez andereñoen %66,7ak ez du beste ikasketarik burutzen. Beste zerbait ikasten dutenak %28 dira, eta beheko koadroan ageri den bezala, gutxiengo horren %39k atzerriko hizkuntzak (ingeleza eta frantsesa) lantzen dituzte, %31k beste motatako ikastaroak eta %27ak goi mailako ikasketak (esaterako, Pedagogia, Historia, Euskal Filologia eta Psikologiako master bat):

Beste gauza bat ikasten dutenak

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehunekoak</i>
<i>Hizkuntzak</i>	24	38,7
<i>Ikastaroak</i>	19	30,6
<i>Litzentziatura</i>	17	27,4
<i>Ez du erantzuten</i>	2	2,7,4
GUZTIRA	62	100

Ikus dezagun orain andereño hauek dituzten arrazoiak beste ikasketa batzuk burutzeko:

Zergatik ikasten duzu?

	Maiztasunak	Ehunekoak
Atsegin zaidalako	37	59,7
Beste mailatan klaseak emateko	1	1,6
Lan hau uzteko	2	3,2
Lan hau aberasteko	10	16,1
Erreformagatik	4	6,5
Ez du erantzuten	8	12,9
GUZTIRA	62	100

Gehiengo zabal batek *ikastea gustukoa duela* dioen bitartean gutxi batzuek (%16), berriro ikasteari ekin diote daukaten lana aberasteko asmoz. Badirudi, azken hauek ikastea lanarekin erlazionatzean lanbide hobetzearekiko nolabaiteko kezka edo asmoa agerian uzten dutela. Ondoren ikasten ez dutenen arrazoiak ditugu:

Zergatik ez?

	Maiztasunak	Ehunekoak
Garaia pasa zait	8	5,4
Astirik ez	94	63,9
Ez dut nahi	17	11,6
Ez dirurik ez astirik	16	10,9
Ez du erantzuten	11	7,5
GUZTIRA	147	100

Andereño horien gehiengoak mahaiganeratzten duen arrazoiak honakoa da: *astirik ez izatea*. Era berean, behean ikusten denez, gehiengo zabal bati gustatuko litzaioke zerbait ikastea.

Gustatuko litzaizuke ikastea?

	Maiztasunak	Ehunekoak
Bai	114	77,6
Ez	13	8,8
Ez du erantzuten	20	13,6
GUZTIRA	147	100

Ikus dezagun ondoren, lanbide hobetzearekin zerikusia daukan beste aukera bat.

Ardura gehiagoko lanpostu bat gustatuko litzaizuke?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehunekoak</i>
<i>Bai</i>	3	1,4
<i>Ez</i>	208	94,5
<i>Ez du erantzuten</i>	9	13,6
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Gehiengo zabal-zabalak(honaino lorturiko gehiengo zabalena)**ardura gehiagoko lanposturik ez duela** nahi dio. Gura ez izan arren, eskainiz gero zenbatek onartuko zukeen?

Eskainiko balizute onartuko zenuke?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehunekoak</i>
<i>Bai</i>	13	5,9
<i>Ez</i>	180	81,8
<i>Ez du erantzuten</i>	27	12,3
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Eskainiz gero ere, %5ak baino ez zukeen onartuko. Andereñoen %82ren ezetz biribilaren zergatiak honako hauek dira:

Zergatik ez?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehunekoak</i>
<i>Ez zait gustatzen</i>	96	53,3
<i>Ardura gehiegi</i>	26	14,4
<i>Ez dut astirik</i>	8	4,4
<i>Ez nago prestatuta</i>	26	14,4
<i>Ez dut balio</i>	21	11,7
<i>Ez du erantzuten</i>	3	1,7
<i>GUZTIRA</i>	180	100

Gehiengo handi batek ez du gustukoa holako lanik; %14ak *ardura gehiegi* dela dio eta beste horrenbeste *ez dagoela prestatuta* edota *ez duela balio* (%12). Baina, beste ikastetxetik lan baldintza hobekak eskainiz gero zenbatek utziko lukete dauden ikastola?

Utziko zenuke ikastola beste ikastetxera joateko?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehunekoak</i>
<i>Bai</i>	87	39,5
<i>Ez</i>	87	39,5
<i>Ez du erantzuten</i>	46	20,9
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Kasu honetan, %21ak erantzunik ez emateaz gain, besteak erdibitu egiten dira, horrela proportzio berean alde egiten dute zein gelditzen dira. Eta zergatik gelditu?

Zergatik ez?

	Maiztasunak	Ehunekoak
<i>Giroa atsegina delako, ikastoletan lan egitea komeni da, euskalduna sentitzen naizelako</i>	17	19,5
<i>Gustora nagoelako</i>	55	63,2
<i>Ez du erantzuten</i>	15	17,2
GUZTIRA	87	100

Gehiengoa gustura dagoelako geldituko litzateke, aldiz, gutxi batzuk, euskarazaletasunarekin zer ikusirik daukaten arrazoiengatik. Eta irakaskuntzarekin zer ikusirik ez daukan beste lan eremu batera lan baldintzak hobetuz, jakina, zenbat joango liriateke?

Utziko zenuke irakaskuntza?

	Maiztasunak	Ehunekoak
<i>Bai</i>	84	38,2
<i>Ez</i>	71	32,3
<i>Ez du erantzuten</i>	65	29,5
GUZTIRA	220	100

Proportzio antzetsu batean utziko lukete irakaskuntza, *ez erantzuna*, kasu honetan, handiagoa bada ere(%29,5); hori dela eta, irakaskuntzan geldituko liriatekeen proportzioa ikastolan geldituko liriatekeenena baino apalagoa da(%32). Eta lan baldintza hobeak eskaintzen badizkiote zergatik gelditu irakaskuntzan?

Zergatik ez?

	Maiztasunak	Ehunekoak
<i>Ez nago prestatuta</i>	6	8,5
<i>Bokazioagatik</i>	55	77,5
<i>Ez du erantzuten</i>	10	14,1
GUZTIRA	71	100

Gehiego zabalak *bokaziogatik*, gutxi, oso gutxi dira *prestaturik ez daudela* (%8,5) argudiatzen dutenak.

Aurreko datuak aintzat harturik, ikus dezagun ondoren irakaskuntzaren feminizazioaren inguruan zer dioskuen.

Magisteritza emakumezkoen lana:

Emakumeentzat magisteritza lanbide ideala

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehunekoak</i>
<i>Erabat ados</i>	<i>4</i>	<i>1,8</i>
<i>Neurri batean ados</i>	<i>54</i>	<i>24,5</i>
<i>Erabat ez ados</i>	<i>151</i>	<i>68,6</i>
<i>Ez erantzun</i>	<i>11</i>	<i>5</i>
<i>GUZTIRA</i>	<i>220</i>	<i>100</i>

Andereñoen laurden bat baino ez dator bat esaldi horrekin. Horrela, galdetzen diogula ia eraginik izan duten aurreko uste bezalakoek euren erabakian andereño gisa jarduteko ezezko erantzunen proportzioa oraindik handiagoa da (%85,5):

Eraginik izan du?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehunekoak</i>
<i>Bai</i>	<i>33</i>	<i>15</i>
<i>Ez</i>	<i>177</i>	<i>80,5</i>
<i>Ez du erantzuten</i>	<i>10</i>	<i>4,5</i>
<i>GUZTIRA</i>	<i>220</i>	<i>100</i>

Hala ere, asko dira irakaskuntzaren ordutegia familia bizitzarekin elkargarria dela diotenak, ikusi bestela beheko taulan agertzen diren datuak:

Ordutegia familia bizitzarekin konpatiblea da

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehunekoak</i>
<i>Erabat ados</i>	<i>37</i>	<i>16,8</i>
<i>Neurri batean ados</i>	<i>141</i>	<i>64,1</i>
<i>Erabat ez ados</i>	<i>37</i>	<i>16,8</i>
<i>Ez du erantzuten</i>	<i>5</i>	<i>2,3</i>
<i>GUZTIRA</i>	<i>220</i>	<i>100</i>

Kolektiboaren %80ak adostasun maila handia erakusten du esaldi horrekiko, berriz, soilik %16 agertzen da kontra.

*Familia antolatzekeo estrategiak:
Nork laguntzen dizu etxeko lanetan?*

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehuneakoak</i>
<i>Inork ez</i>	32	14,5
<i>Nire amak</i>	42	19,1
<i>Senarraren amak</i>	2	0,9
<i>Seme-alabek</i>	3	1,4
<i>Neskameak</i>	60	27,3
<i>Senarrak</i>	63	28,6
<i>Ez du erantzuten</i>	18	8,2
GUZTIRA	220	100

Familiaren beharrei erantzuteko etxeko lanen antolaketan proportzio berarekin *senarraren* laguntza zein *neskamearena* agertzen dira;halaber, ez da gutxiestekoa euren *amaren* laguntza dutenen proportzioa. Azken honek ez du esan nahi beraiek etxeko lanik egiten ez dutenik, ikusi bestela hurrengo taulako datuak:

Egunero zenbat denbora ematen diozu etxeko lanari?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehuneakoak</i>
<i>Bat ere ez</i>	22	10
<i>Bi ordu arte</i>	114	51,8
<i>3-4 ordu artean</i>	48	21,8
<i>4 ordu baino gehiago</i>	33	15
<i>Ez du erantzuten</i>	3	1,4
GUZTIRA	220	100

Gehiengoak aitortzen du egunero-egunero *bi ordu arte* ematen dituela etxeko lanetan; ia laurden batek *3-4 ordu artean* ematen dituen bitartean. Soilik, %10ak ez du *bat ere ez* ematen. Datu hauek aldatzen dira, modu adierazgarri batez, asteburuari dagokionez:

Asteburuetan zenbat denbora ematen diozu etxeko lanari?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehunekoak</i>
<i>Bat ere ez</i>	15	6,8
<i>Bi ordu arte</i>	53	24,1
<i>3-4 ordu artean</i>	60	27,3
<i>4 ordu baino gehiago</i>	89	40,5
<i>Ez du erantzuten</i>	3	1,4
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Oraingo honetan, gehiengoak dio *4 ordu baino gehiago* ematen dituela asteburuetan etxeko lanetan, andereñoen laurden pasatxo batek *3-4 ordu artean*, eta beste laurden batek *bi ordu arte*; horrez gain, gutxiago dira orain *bat ere ez* duena ematen zeregin horretan. Aintzat harturik ordaindua den lanean zenbat denbora ematen duten zein etxean ematen dutena ikusi gura izan dugu zenbatak onartuko luketen lan ordainduaren jardun-murrizpena. Hori dela eta, honako galdera hau egin genien:

Lan egun erdia onartuko zenuke?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Ehunekoak</i>
<i>Bai</i>	82	37,3
<i>Ez</i>	107	48,6
<i>Ez du erantzuten</i>	31	14,1
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Andereñoen gehiengoak ezezko erantzuna aukeratu badu ere, proportzio adierazgarri batean, %37, agertzen dira baiezko erantzuna eman dutenak. Gehiengoaren erantzunak nolabaiteko lehentasuna emango lioke lan produktiboari, alegia, lan produktiboa izateak dakartzan *ondorio* guztiei (soldata osoari, beste erlazio motak izateari eta abar). Dena dela, lan egunaren murriztearen onarpenak ez du zertan aurrekoaren kontrakoa islatu; are gehiago, ordaindua den lana eta etxeko lana bateratzeak sortzen dituen arazoak (batik bat, bizitza zikloaren zenbait unetan, laguntza izan arren) agerian utziko lituzke. Badirudi honaino ikusitakoaren arabera, denbora libre gehiegirik ez daukatela gure andereñoek. Ikus dezagun ea hori horrela den.

Aisialdia:

Astebarruan denbora librean egiten duzun...

	<i>Lehene</i>	<i>Ekintz</i>	<i>2.</i>	<i>Ekintz</i>	<i>3.</i>	<i>Ekintz</i>
	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>
<i>Lagunekin irten</i>	81	36,8				
<i>Egunkaria irakurri</i>	59	26,8	25	11,4	1	0,5
<i>Telebista ikusi</i>	33	15	56	25,5	9	4,1
<i>Liburuak irakurri</i>	16	7,3	58	26,4	28	12,7
<i>Irratia entzun</i>	2	0,9	9	4,1	16	7,3
<i>Kirola egin</i>	3	1,4	18	8,2	19	8,6
<i>Zinemara joan</i>	1	0,5	4	1,8	11	5,
<i>Senarrarekin irten</i>	6	2,7	11	5	35	15,9
<i>Ez dut astirik</i>	12	5,5	5	2,3	9	4,1
<i>Ikasi</i>			1	0,5	4	1,8
<i>Lan egin</i>					3	1,4
<i>Familiarekin egon</i>	1	0,5	1	0,5	10	4,5
<i>Ekintza soziokulturalak</i>	1	0,5	1	0,5	3	1,4
<i>Ez duerantzuten</i>	5	2,3	31	14,1	72	32,7
GUZTIRA	220	100	220	100	220	100

Soilik %5,5ak, modu esplizitu batez, onartzen du astirik ez duenik. Astegunetako denbora librean, batik bat, lagunekin paseoan irtetzen dira eta egunkaria irakurtzen, telebista ikusten, edota liburuak irakurtzen ematen dute denbora hori.

Asteburuan denbora librean egiten duzun...

	<i>Lehene</i>	<i>Ekintz</i>	<i>2.</i>	<i>Ekintz</i>	<i>3.</i>	<i>Ekintz</i>
	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>
<i>Familiarekin paseatzea</i>	106	48,2			2	0,9
<i>Afaltzera senarrarekin</i>	33	15	12	5,5		
<i>Lagunekin irten</i>	69	31,4	47	21,4	3	1,4
<i>Telebista ikusi</i>	2	0,9	59	26,8	21	9,5
<i>Irakurri</i>	5	2,3	46	20,9	49	22,3
<i>Zinera lagunekin</i>			8	3,6	21	9,5
<i>Zinemara senarrarekin</i>			8	3,6	17	7,7
<i>Kirola egin</i>	1	0,5	8	3,6	36	16,4
<i>Ez dut astirik</i>	2	0,9			2	0,9
<i>Ikasi</i>					2	0,9
<i>Lan egin</i>	1	0,5				
<i>Ekintza soziokulturalak</i>						
<i>Ez duerantzuten</i>	1	0,5	32	14,5	67	30,5
GUZTIRA	220	100	220	100	220	100

Asteburuetan familiarekin ematen dute denbora %48k. Astegunetan bezala, lagunekin irten, telebista ikusi eta irakurri gehien aukeratzen diren jarduerak dira, salbuespena kirol egitea izanik.

Gure gizartean emakume izatearen inguruko jarrerak:
Zure bizitzan hartu duzun erabakirik garrantzitsuenak

	Lehene	Erabaki	2.	Erabaki	3.	Erabaki
	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
Ezkontzea	86	39,1				
Seme-alabak izan	42	19,1	55	25		
Lan egitea	47	21,4	27	12,3	21	9,5
Familiatik independente	20	9,1	31	14,1	9	4,1
Maitasunezko harremana	9	4,1	34	15,5	13	5,9
Politikan partehartzea	1	0,5	3	1,4	4	1,8
Ikastea	4	1,8	26	11,8	30	13,6
Abortatzea			2	0,9	3	1,4
Harreman sexualak izatea	1	0,5	4	1,8	2	0,9
Bizilekuz aldatzea	1	0,5	6	2,7	12	5,5
Bikotea haustea	1	0,5	3	1,4	6	2,7
Erljio uztea			3	1,4	7	3,2
Idea politikokoak aldatu	1	0,5	1	0,5	1	0,5
Ez du erantzuten	7	3,2	19	8,6	51	23,2
GUZTIRA	220	100	220	100	220	100

Erabakirik garrantzitsuenak: ezkontzea, lan egitea eta seme-alabak izatea aipatu ordenean dira. Hortaz, emakumeen irudi tradizionalaren arabera, emakumeen bizitza zikloa ezaugarritzen dituzten gertaera garrantzitsuez gain, alegia ezkontza eta seme-alabak izatea irudi horretan onartzen ez den beste ezaugarri bat ere, lan egitea, ageri da bigarren erabaki garrantzitsu bezala. Segi dezagun ezagutzen zeintzuk izan daitezke emakumeen irudi posibleak.

Emakumea definitzen duen ezaugarriak...

	Lehene	ezauga	2.	ezauga	3.	ezauga
	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
Garbia	22	10				
Langilea	84	38,2	7	3,2		
Ekintzailea	36	16,4	21	9,5		
Lagunkoia	15	6,8	191	8,6	2	0,9
Administratzaile ona	5	2,3	20	9,1	4	1,8
Lagunkide	7	3,2	41	18,6	19	8,6
Zintzoa	16	7,3	42	19,1	26	11,8
Azkarra	3	1,4	13	5,9	10	4,5
Diruduna						
Erljiosoa			1	0,5		
Konpetente lanean	1	0,5	11	5	72	32,7
Itxura ona/dotorea					14	6,4
Ez du erantzuten	30	13,6	36	16,4	60	27,3
GUZTIRA	220	100	220	100	220	100

Emakumea definitzerakoan gailentzen den ezaugarria *langile izatearena* da eta horren ostean, *ekintzailea*, *zintzoa*, *lagunkidea* eta *lanerako iaioa* dira aipatzen diren beste ezaugarriak. Jakina, lanarekin zerikusia daukaten ezaugarri horiek ez dute bereizten ordaindua den lana ordaindua ez den beste lan horretatik:

etxeke andrearen lanetik. Ikus dezagun zenbateraino eremu bat edo beste nagusitzen den.

Emakumearen eginkizun garrantzitsurik?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Ama izatea</i>	23	10,5
<i>Familia batasun lotura izatea</i>	27	12,3
<i>Laguna izatea</i>	51	23,2
<i>Etxeko antolatzailea</i>	2	0,9
<i>Hezitzaile izatea</i>	27	12,3
<i>Aukeratzen duena</i>	5	2,3
<i>Pertsona izatea</i>	23	10,5
<i>Gizartean lan egitea</i>	4	1,8
<i>Ez du erantzuten</i>	58	26,4
GUZTIRA	220	100

Kasu honetan, *ez erantzunak* jaso du erantzun proportzio altuen(%26,4), hau da, erantzunak oso-oso sakabanaturik daude. Baina, alde batetik taldekatuz gero *Genero diskurso tradizionala* izenpean, honako kategorია hauek: *ama izatea, familia batasun lotura izatea, etxeke antolatzailea eta hezitzaile izatea*(%36), alegia, familiari eta etxeke eremuari lehentasuna ematen dioten kategoriek; eta, bestetik, *berdintasunezko diskursoaren* izenpean *laguna izatea, aukeratzen duena, pertsona izatea eta gizartean lan egitea*(%37), non eremu batek ere ez bailuke lehentasunik, gure kolektiboa ia berdinak diren bi zatitan banatzen da. Beraz, andereñoen talde batek eremu bati lehentasuna ematen dion bitartean, besteak ez dio ez batari ez besteari nagusitasunik ematen. Goazen, orain, azken dimentsioen datuak aztertzeraz:

Erlijiotasuna:

Erljioak zure bizitzan leku garrantzitsurik al du?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Bai</i>	67	30,5
<i>Ez</i>	135	61,4
<i>Ez du erantzuten</i>	18	8,2
GUZTIRA	220	100

Gehiengo zabalak onartzen du erlijioak ez duela lekurik euren bizitzatan. Eta kontrakoa adierazten dutenen praktika erlijiosoa *mezatara joaten* eta *seme-alabak erlijioan hezitzen* datza.

Zein ekintzetan parte hartzen duzu?

	<i>Miaztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Mezatarra joatea</i>	23	34,3
<i>Katekesi ematea</i>	3	4,5
<i>Seme-alabei erlijioan hezitzea</i>	23	34,5
<i>Elkarte erlijioso baten partaide</i>	5	7,5
<i>Ez du erantzuten</i>	13	19,4
<i>GUZTIRA</i>	67	100

Bestalde, hurrengo taulan dakusagunez, badirudi beste gizarte mailako ekimenetan ere ez dutela parte handirik hartzen(%24), *euskararen aldeko kanpainetan* izan ezik(%22); ez gurasoen elkartetan ezta emakumeen asanbleatan ere.

Partaidetza politikoa:

Ondoren dituzun jardueren artean azpimarratu zuk parte hartzen dituzunetan

	<i>Lehene</i>	<i>aukera</i>	<i>2.</i>	<i>aukera</i>	<i>3.</i>	<i>aukera</i>
	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>
<i>Hitzaldiak</i>	38	17,3	16	7,3	13	5,9
<i>Auzoko elkarteak</i>	5	2,3	6	2,7	5	2,3
<i>Gurasoen elkarteak</i>	4	1,8	7	3,2	5	2,3
<i>Txokoak</i>			3	1,4		
<i>Katekesiak</i>	7	3,2	2	0,9	2	0,9
<i>Gurutze gorria</i>					1	0,5
<i>Cáritas</i>	1	0,5	1	0,5		
<i>Kirol elkartetan</i>	11	5	4	1,8		
<i>Lan elkartetan</i>	9	4,1	12	5,5	5	2,3
<i>AEK</i>	1	0,5	3	1,4	3	1,4
<i>Euskararen aldeko kanpa</i>	48	21,8	31	14,1	7	3,2
<i>Presoen aldeko ekintzetan</i>	7	3,2	5	2,3	8	3,6
<i>Atsedendiko taldetan</i>	2	0,9				
<i>Adarra</i>					1	0,5
<i>Pakearen aldeko taldetan</i>	1	0,5				
<i>Emakumeen asanblean</i>						
<i>Baten ere ez</i>	52	23,6	2	0,9	1	0,5
<i>Ez du erantzuten</i>	34	15,5	128	58,2	170	77,3
<i>GUZTIRA</i>	220	100	220	100	220	100

Parte ez hartzearen arrazoi nagusiak *denbora falta*(%36,4) eta *beste eginbeharrak izatea* (%29)dira.

Zergatik ez duzu baten ere parte hartzen?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Ez zait interesatzen</i>	8	14,5
<i>Ez dut astirik</i>	20	36,4
<i>Ez dut ulertzen</i>	1	1,8
<i>Beste gauzak egin behar</i>	16	29,1
<i>Dezepzionatua nago</i>	3	5,5
<i>Ez du erantzuten</i>	7	12,7
<i>GUZTIRA</i>	55	100

Hala ere, bizitza soziopolitikoan gertatzen denarekiko bai erakusten dutela interesa, gainera, interes maila desberdinak; horrela, Euskal Herrian gertatzen dena da gehien interesatzen zaiena, gero euren herrietan, auzoetan zein mundu mailan. Interes apalena estatu mailako gertaerekiko erakutsiz.

Zein mailatan interesatzen zaizu bizitza sozialean gertatzen dena?

	<i>Auzoan</i>		<i>Herrian</i>		<i>Euskadin</i>		<i>Estatuan</i>		<i>Munduan</i>	
	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>
<i>Bai</i>	164	74,5	192	87,3	200	90,9	154	70	169	76,8
<i>Ez</i>	14	6,4	4	1,8	2	1,8	9	4,1	9	4,1
<i>Ez du eran</i>	42	19,1	24	10,9	18	8,2	57	25,9	42	19,1
<i>GUZTIRA</i>	220	100	220	100	220	100	220	100	220	100

Halaber, gehiengoak politikan parte hartzen dutela diote, kontrakoa adierazten dutenak proportzio adierazgarri bat izan arren.

Politikan parterik hartzen duzu?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Bai</i>	129	58,6
<i>Ez</i>	88	40
<i>Ez du erantzuten</i>	3	1,4
<i>GUZTIRA</i>	220	100

Partaidetza politikoa gehiengo zabal batentzat *boza ematen* datza, militanteen kopurua oso-oso txikia izanik.

Zein mailatan hartzen duzu parte?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Afiliazio mailan</i>	9	7
<i>Militantzia mailan</i>	19	14,7
<i>Hauteskundeetan botua ematen</i>	100	77,5
<i>Ez du erantzuten</i>	1	0,8
<i>GUZTIRA</i>	129	100

Partaidetza horren arrazoi nagusia *gizarte aldatzea* litzateke, nahiz eta *ez erantzuna* handia izan.

Zeintzuk dira zure arrazoiak parte hartzeko?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Gizarte aldaketak</i>	<i>41</i>	<i>31,8</i>
<i>Emakumeen eskubideak</i>	<i>1</i>	<i>0,8</i>
<i>Langileen eskubideak</i>	<i>8</i>	<i>6,2</i>
<i>Eskubide demokratikoak</i>	<i>13</i>	<i>10,1</i>
<i>Bizitza kalitatea lortu</i>	<i>11</i>	<i>8,5</i>
<i>Euskara eta euskal kultura</i>	<i>4</i>	<i>3,1</i>
<i>Ez du erantzuten</i>	<i>51</i>	<i>39,5</i>
<i>GUZTIRA</i>	<i>129</i>	<i>100</i>

Politikan parte hartzen ez dutenen gehiengoak dezepzionaturik dagoela dio beste proportzio esanguratsuak ez zaiola interesatzen dioen bitartean .

Zeintzuk dira zure arrazoiak parte ez hartzeko?

	<i>Maiztasunak</i>	<i>Portzentaiak</i>
<i>Ez zait interesatzen</i>	<i>21</i>	<i>23,9</i>
<i>Ez dut astirik</i>	<i>7</i>	<i>8</i>
<i>Ez dut ulertzen</i>	<i>4</i>	<i>4,5</i>
<i>Beste gauzak egin behar</i>	<i>14</i>	<i>15,9</i>
<i>Dezepzionatua nago</i>	<i>28</i>	<i>31,8</i>
<i>Ez du erantzuten</i>	<i>14</i>	<i>15,9</i>
<i>GUZTIRA</i>	<i>88</i>	<i>100</i>

Labur bildurik, eta ikusi bezala, lanari buruz egindako balorazio baikor egin arren, lanbidea eta etxeko lana bateratzeak neke eta teinka egoera dakarkielako diote. Ez dute astirik beste ikasketa batzuk burutzeko, baina gehiengoari bai gustatuko litzaiokeela zerbait ikastea. Ez dute ardura gehiagoko lanposturik nahi, eta eskainiz gero ez lukete onartuko, euren gustukoa ez baita. Beraz, irakaskuntzak lan baldintzak hobetzeko eskaintzen dituen bideak ez dituzte gogoko. Beste ikastetxe batetik lan baldintza hobeak jasoz gero proportzio berean alde egin zein geldituko lirateke, baina beste lan arlo batetik proposamena etorriz gero gutxiago dira irakaskuntzan geldituko liratekeenak. Ikastolan geldituko lirateke, beste ikastetxetik egindako proposamena errefusatu, gustura baitaude; berriz, irakaskuntzan geldituko lirateke, bokazioz. Hala ere, ez dute uste magisteritza lanbiderik onena denik emakumeentzat, ezta euren lanbidea aukeratzeko horrelako usteak eraginik izango zuenik ere.

Baina, bai onartzen dutela euren lan jarduna familia bizitzarekin bateragarria dela. Horrela egunero bi ordu baino gehiago ematen dute etxeko lanetan. Dena dela, gehienek laguntza dute, neskame, senarra edota amarena. Agian horrexegatik soilik %5,5ak dio ez duela aisialdirik. Bestalde, emakume izateari dagokionez, hiru dira hartutako erabakirik garrantzitsuenak: ezkontzea, lan egitea eta seme-alabak izatea, hortaz emakumeen irudi tradizional eta berriaren urtze bat. Era berean, lanarekin zerikusia daukaten ezaugarriak dira emakumeak definitzeko aukeratu dituztenak: *langilea, ekintzailea, zintzoa, lagunkidea eta lanerako iaioa*, nahiz eta, ezaugarri horiek ez bereiztu ordaindua den lana ordaindua ez denetik. Horrez gain, emakumeen eginkizun garrantzitsuen arteko taldeketa berri bat egin ostean *berdintasuneko diskursoaren aldekoak(lagunkide, pertsona izatea, aukeratzen duena eta gizartean lan egitea) zein tradiziozko diskurso baten aldekoak(ama izatea, familia batasunaren lotura izatea, etxeko antolatzailea eta hezitzailea)* proportzio berdinean agertzen dira. Berebat, gehiengoaren bizitzan erlijioak ez du lekurik. Gizarte mailan antolatzen diren ekimenetan ez dute parterik hartzen, euskararen aldeko kanpainetan izan ezik. Baina, politikan botuemaile gisa bai hartzen dutela parte.

Datuen irakurketa horren arabera, badirudi baieztu dezakegula emakumeen irudi desberdinak egoteaz gain, hauek aipatutako jokabideetan nolabaiteko eragina izan ditzaketeela ere. Hurrengo orrialdeetan datuen gurutzaketari ekingo diogu ustezko eragin horiek argitzeko asmoz.

10.2.3.1.-Genero diskursoak

Andereñoen genero diskursoak azalarazteko aukeratu izan ditugun adierazleak honakoak dira: *euren bizitzatan hartutako hiru erabaki garrantzitsuenak; emakumea definitzen duten ezaugarriak eta emakumearen eginkizun garrantzitsuena*. Azken honen erantzun-kategoriek, gure iritziz, lehengo diskursoa (guk tradizionala deitu duguna) diskurso berrietatik ondoen bereizten lagunduko digutelakoan gaude. Hori dela eta, lehen egin bezala, *diskurso tradizionala* izenpean adierazle hauek bildu ditugu: *ama izatea, familia batasunaren lotura izatea, etxeako antolatzailea eta hezitzailea*; eta diskurso berriek,¹⁵ *berdintasunezko* izenpean, honako hauek: *lagunkide, pertsona izatea, aukeratzeko duena eta gizartean lan egitea*. Aipatu genero diskursoek eraturiko andereñoen taldeen ezaugarriak jorratuko ditugu, gerorako utziz diskurso horien ustezko eragina zenbait iritzi eta jokabideetan

Adina

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradizionala</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>GUZTIRA</i>	
<i>30 urte arte</i>	<i>27</i>	<i>46,4</i>	<i>21</i>	<i>26,5</i>	<i>41</i>	<i>49,3</i>	<i>89</i>	<i>40,5</i>
<i>31-39 urte</i>	<i>24</i>	<i>41,4</i>	<i>35</i>	<i>44,3</i>	<i>32</i>	<i>38,5</i>	<i>91</i>	<i>41,4</i>
<i>40-56 urte</i>	<i>7</i>	<i>12</i>	<i>23</i>	<i>29</i>	<i>10</i>	<i>12</i>	<i>40</i>	<i>18,2</i>
<i>GUZTIRA</i>	<i>58</i>	<i>100</i>	<i>79</i>	<i>100</i>	<i>83</i>	<i>100</i>	<i>220</i>	<i>100</i>

Genero diskurso tradizionala bereganatzen duten andereñoen gehiengoa 31-39 urte bitartekoak da, 30 urte baino gutxiagokoak laurden bat dira, 40-56 urte bitartekoak, berriz, pixka bat gehiago diren bitartean. *Berdintasunezko genero diskursoa* bereganatu dutenen artean, aldiz, 30 urte baino gutxiagokoak pisu gehien dutenak dira eta 31-39 urte bitartekoena ere nahiko adierazgarria, oso gutxi izanik 40-56 urte bitartekoak. Hortaz, gero eta urte gutxiago hainbat eta aukera gehiago *berdintasunezko diskursoaren* ideia eta balorekin topo egiteko.

¹⁵ Genero diskurso berrien agerpenaz aritu izan gara aurreko atalean, baina diskurso berriak ez daude bateratuak ezta edukinetan adostuak ere ez bada gutxieneko printzipioetan. Horrez gain, egon badago desberdintasunezko feminismoak sorturiko beste diskurso bat guk geuk lan honetan landu ez duguna, baina, agian presente egon daitekeena gure subjektuengan, andereñoengan. Lan honen egileen iritziz, diskurso berri batek ere ez du lortu lehengo diskursoak lorturiko sistematizazioa edukien aldetik, hain zuzen ere, horrexegatik errazagoa da diskurso hori identifikatzea eta ez besteak (arrazoi beragatik galdekizunean galdera ireki gisa planteatu izan genuen) Gainera, ausartuko ginatke esatera gure inguruan desberdintasunezko diskursoak oraindik ez duela izan ohiartzun handirik ez erakunde feministetan ezta gizarte zabalean ere; ordea, berdintasunezko feminismoak diskurso zehatza izan ala ez bai izan duela

Agian, *aintzinakotasuna* aldagaiarekin horrelako hipotesi bat plazaratu dezakegu ere:

Antzinakotasuna

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradizionala</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>
							GUZTIRA	
<i>Ez erantzuna</i>			<i>1</i>	<i>1,2</i>	<i>1</i>	<i>1,2</i>	<i>2</i>	<i>0,9</i>
<i>10 urte arte</i>	<i>28</i>	<i>48,3</i>	<i>24</i>	<i>30,37</i>	<i>46</i>	<i>55,42</i>	<i>98</i>	<i>44</i>
<i>11-15 urte</i>	<i>18</i>	<i>31</i>	<i>24</i>	<i>30</i>	<i>16</i>	<i>19</i>	<i>58</i>	<i>26</i>
<i>15 urte baino</i>	<i>12</i>	<i>20,7</i>	<i>30</i>	<i>37,9</i>	<i>20</i>	<i>24</i>	<i>62</i>	<i>28,2</i>
<i>GUZTIRA</i>	<i>58</i>	<i>100</i>	<i>79</i>	<i>100</i>	<i>83</i>	<i>100</i>	<i>220</i>	<i>100</i>

Hala da, *berdintasunezko diskursoari* dagokionez ez, ordea *genero diskurso tradizionalari* dagokionez, non, hiru *antzinakotasun-kategoriatan* antzetsu ordezkatuak baitaude.

Aukera politikoa

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradizionala</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>
							GUZTIRA	
<i>Ez erantzuna</i>	<i>13</i>	<i>22,4</i>	<i>25</i>	<i>31,6</i>	<i>25</i>	<i>30,1</i>	<i>63</i>	<i>28,6</i>
<i>EAJ</i>	<i>3</i>	<i>5,2</i>	<i>17</i>	<i>21,5</i>	<i>6</i>	<i>7,2</i>	<i>26</i>	<i>11,8</i>
<i>EA</i>	<i>6</i>	<i>10,3</i>	<i>7</i>	<i>8,8</i>	<i>4</i>	<i>4,8</i>	<i>18</i>	<i>8,2</i>
<i>EE</i>	<i>3</i>	<i>5,2</i>	<i>3</i>	<i>3,7</i>	<i>5</i>	<i>6</i>	<i>11</i>	<i>5</i>
<i>HB</i>	<i>22</i>	<i>37,9</i>	<i>21</i>	<i>26,5</i>	<i>26</i>	<i>31,3</i>	<i>69</i>	<i>31,4</i>
<i>Inori ez</i>	<i>11</i>	<i>19</i>	<i>6</i>	<i>7,5</i>	<i>16</i>	<i>19</i>	<i>33</i>	<i>15</i>
<i>GUZTIRA</i>	<i>58</i>	<i>100</i>	<i>79</i>	<i>100</i>	<i>83</i>	<i>100</i>	<i>220</i>	<i>100</i>

Genero diskurso tradizionala partekatzen dutenen artean aukera politikoari erantzunik eman ez dutenak, *Herri Batasunari* zein *Euzko Alderdi Jeltzaleari* boza eman dietenak dira portzentai adierazgarrienak dituztenak. Besteengan, *Herri Batasuna* eta *ez erantzuna* dira aukera nagusiak. Bestalde, bitxia iruditu zaigu, *zein da emakumearen eginkizun garrantzitsuena* galderari erantzunik eman ez dutenen artean %38 *Herri Batasunaren* botuemaileak izatea.

Lan honen 8.2 atalean argiturik utzi dugu, eliza katolikoak guk izendatutako *genero diskurso tradizionalaren* joraketan izandako ardura. Hori dela eta,

ohiartzun handia eta horren adierazle dugu feminismo instituzional baten garapena

badirudi halako diskursoa bereganatu dutenengan aurkitu beharko genukeela erlijiotasun handiko jokabidea eta ez, ostera besteengan. Hurrengo taulan agertzen diren datuen arabera, bai baieztu dezakegula *berdintasunezko diskursoaren* aldekoen artean aurreikusitakoa, zeren eta %19 baino ez baitira erlijiosotzat jo ditzakegunak. Aldiz, ezin dugu erabatekotasun berdinarekin baieztu *tradizionalen* artean erlijiotasun handiko jokabidea aurkitu dugunik, proportzio beran erantzuten baitute baietz zein ezetz egindako galderari:

Erljioak badu lekurik zure bizitzan?

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradizionala</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	GUZTIRA							
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>
<i>Ez erantzuna</i>	7	12	6	7,5	7	8,4	20	9
<i>BAI</i>	14	24,1	37	46,8	16	19	67	30,4
<i>EZ</i>	37	63,8	36	45,5	59	71	135	61
<i>GUZTIRA</i>	58	100	79	100	83	100	220	100

Horrez gain, aintzat harturik ordaindua den lan bat izateak duen garrantzia emakumeen menpekotasuna gizonetikiko gainditu ahal izateko, *genero diskurso tradizional* delako horretan gutxiesteko elementua izango litzateke. Ikus dezagun gai honen inguruko datuak:

Soldata izatea

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradizionala</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	GUZTIRA							
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>
<i>Ez erantzuna</i>	8	14	1	1,2	4	4,8	13	5,9
<i>Garrantzitsua</i>	7	12	6	7,5	9	11	22	10
<i>Garrantzi gutxiko</i>	23	39	39	49	40	48	102	46,4
<i>Bat ere ez</i>	20	35	33	42	30	36	83	37,7
<i>GUZTIRA</i>	58	100	79	100	83	100	220	100

Kasu honetan, genero diskursoak ez du inolako desberdintasunik ezartzen, proportzio ia berdintsuak aurkitzen baititugu erantzun-kategoria guztietan. *Soldata zer dakarren* erantzuterakoan, ostera, egon badago desberdintasunik. Horrela, erantzun aukeratuenean, alegia, *askatasun gehiago*, pisu gehien dutenak *berdintasunezko diskursoaren* aldekoak ditugu, berriz, besteak

proportzio berean hautatu dute lehengo erantzun zein *etxe ekonomiarako laguntza*; azken erantzun horretan, pisu gehien dutenak beraiek direlarik.

Soldata izateak zer dakar

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradizionala</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	GUZTIRA	
<i>Ez erantzuna</i>	3	5,2			4	4,8	7	3,2
<i>Askatasun gehi</i>	36	62,1	28	35,4	48	58	112	51
<i>Berdintasun gehi</i>								
<i>gizonekiko</i>	2	3,4	7	8,8	7	8,4	16	7,3
<i>Etxe e konomiara</i>	10	17	28	35,4	15	18	53	24
<i>Interes berriak</i>	7	12	16	20,2	9	11	32	14,5
<i>GUZTIRA</i>	58	100	79	100	83	100	220	100

Soldata izateak askatasun gehiago badakar gehienentzat, zergatik soldata hori igotzeko aukera galdu ardura gehiagoko lanpostu baten proposamenari muzin eginez?

Ardura gehiagoko lanpostua zergatik ez?

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradizionala</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	GUZTIRA	
<i>Ez erantzuna</i>	12	20,7	15	18,9	11	13,2	38	17,3
<i>Ez zait gustatzen</i>	25	43	34	43	38	45,7	97	44
<i>Ardura gehiegi</i>	7	12	11	13,9	10	12	28	12,7
<i>Ez dut astirik</i>	2	3,4	3	3,7	5	6	10	4,5
<i>Ez nago prestatua</i>	5	8,6	7	8,8	14	16,8	26	11,8
<i>Ez dut balio</i>	7	12	9	11,3	5	6	21	9,5
<i>GUZTIRA</i>	58	100	79	100	83	100	220	100

Gehiengoak ez baitu gustuko, eta kasu honetan genero diskursoak, berriro ere ez du desberdintasunik ezartzen. Hezkuntza eta generoaren arteko erlazioa jorratzen ari diren zenbait ikerlarik¹⁶ esan ohi dute irakaskuntza emakumeentzat lanbiderik egokien bezala saldua izan dela. Lehen ikusi bezala andereñoen

¹⁶ Acker, S., *Teachers, Gender & Career*. 1989, London: Falmer Press.

gehiengoa ez zetorren bat ideia horrekin, alabaina, oraingo honetan genero diskursoak badirudi zer esatea daukala:

Emakumeentzat magisteritza lanbide ideala

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradizionala</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	GUZTIRA	
<i>Ez erantzuna</i>	3	5,2	2	2,5	6	7,2	11	5
<i>Erabat ados</i>			3	3,7	1	1,2	4	1,8
<i>Neurri batean ado</i>	8	13,8	32	40,5	14	16,8	54	24,5
<i>Erabat ez ados</i>	47	81	42	53	62	74,6	151	68,6
GUZTIRA	58	100	79	100	83	100	220	100

Goiko taulan agertzen den bezala *berdintasunezko diskurso* barruan kokatu ditugunen hiru laurdenak *erabateko ez adostasuna* adierazi dute; besteen artean gehiengoa(%53) bada ere *erabateko ez adostasun* horrekin bat etortzean, %40,5 aipatu ideiarekin ados legoke. Baina, galdetuz gero ia ideia horrek eraginik izan duen beraiek hartutako erabakian irakaskuntzan jarduteko, ostera ere, gehiengoaren ezetz biribilarekin egiten dugu topo, genero diskursoak desberdintasun adierazgarririk nabarmendu gabe.

Eraginik izan du?

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradizionala</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	GUZTIRA	
<i>Ez erantzuna</i>	2	3,4	4	5	4	4,8	10	4,5
<i>BAI</i>	6	10,3	17	21,5	10	12	33	15
<i>EZ</i>	50	86,2	58	73,4	69	83,1	177	80,5
GUZTIRA	58	100	79	100	83	100	220	100

Ikus dezagun orain ia genero diskursoak zerbait dioskun familia bizitza eta irakasle lana bateragarri egiteari buruz:

Ordutegia familia bizitzarekin konpatiblea da?

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradizionala</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	GUZTIRA	
<i>Ez erantzuna</i>	2	3,4			3	3,6	5	2,3
<i>Erabat ados</i>	4	6,9	20	25,3	13	15,6	37	16,8
<i>Neurri batean</i>	41	70,7	50	63	50	60	141	64
<i>Erabat ez ados</i>	11	19	9	11	17	20	37	16,8
GUZTIRA	58	100	79	100	83	100	220	100

Lehen ikusi bezala, gehiengoak uste du irakasle lan ordutegia neurri batean bateragarria dela familia bizitzarekin eta kasu honetan genero diskursoak ez du desberdintasunik nabarmentzen. Alabaina, muturreko jarreretan bai somatzen direla desberdintasun argiak. Horrela, aipatu ideiarekin *erabateko adostasuna* erakusten dutenen artean *tradizionalen* pisua esanguratsua da %25; besteak, berriz %15 dira. *Erabateko ez adostasuna* erantzun-kategorian kontrako joera ageri da, *berdintasunezko* taldean kokatu ditugunak %20 diren bitartean, besteak soilik %11. Ikus dezagun, orain, beste lan arlo batetik, lan-baldintzak hobetuz, lan proposamen bat eginez gero irakaskuntza utzi zein geldituko liratekeen artean zeintzuk genero diskursoak nagusitzen dira:

Utziko zenuke irakaskuntza?

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradizionala</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	GUZTIRA							
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>
<i>Ez erantzuna</i>	16	27,6	20	25,3	29	34,9	65	29,5
<i>BAI</i>	24	41,4	30	37,9	30	36,1	84	38,2
<i>EZ</i>	18	31	29	34,9	24	28,9	71	32,3
<i>GUZTIRA</i>	58	100	79	100	83	100	220	100

Irakaskuntza utziko luketenen artean, genero diskursoak ez du desberdintasunik ezartzen, baina bai geldituko liratekeen artean. Kasu horretan *genero diskurso tradizionala* bereganatu dutenak besteak baino pixka bat gehiago geldituko lirateke. Genero diskurso bietakoen artean *ez erantzuna* oso-oso adierazgarria da, *berdintasunezko* diskursoaren aldekoen portzentaia altuena delarik(%35). Ondoren ditugu, beste ikastetxera joan ala ikastolan geldituko liratekeen artean zeintzuk genero diskursoak nagusitu dira:

Utziko zenuke ikastola beste ikastetxera joateko?

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradizionala</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	GUZTIRA							
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>
<i>Ez erantzuna</i>	18	31	14	17,7	14	16,8	46	20,9
<i>BAI</i>	25	43,1	26	32,9	36	43,3	87	39,5
<i>EZ</i>	15	25,9	39	49,3	33	39,7	87	39,5
<i>GUZTIRA</i>	58	100	79	100	83	100	220	100

Ikastolan geldituko liratekeen artean nagusi dira *genero diskurso tradizionalaren* aldekoak(%49), asko badira ere beste ikastexe batera joango liratekeenak(%33); kontrako joera agertzen den bitartean besteengan, pixka bat gehiago dira ikastolatik alde egingo luketenak(%43), baina hemen ere asko dira geldituko liratekeenak(%40). Talde bietan *ez erantzuna* irakaskuntza uztearen kasuan baino apalagoa da, badirudi, kasu honetan argiago ikusten dutela aurkeztutako proposamena¹⁷. Baliteke ere, jarrera argi horrekin zerikusia izatea *andereñotara joateko* erabakia hartzearen atzetik dauden zioak:

Andereño izatearen zioak

	Ez erantzuna		Tradizionala		Berdintasuna		Lerro	
	Maiz	%	Maiz	%	Maiz	%	Maiz	%
<i>Ez erantzuna</i>	2	3,4	4	5	3	3,6	9	4
<i>Irakaskuntza</i>								
<i>atsegin zait</i>	38	65,5	45	56,9	59	71	142	64,5
<i>Erosoa</i>			2	2,5			2	0,9
<i>Irakaskuntza</i>								
<i>euskaraz garrantz</i>	14	24	26	32,9	18	21,6	58	26,4
<i>Eliminazioz</i>	4	6,9	2	2,5	3	3,6	9	4,1
GUZTIRA	58	100	79	100	83	100	220	100

Kolektiboaren gehiengoak aukeraturiko erantzun-kategorian, alegia, *irakaskuntza atsegin zait*, pisu gehiena *berdintasunezko diskursoaren* aldekoak dira (%71), besteak ere portzentai garrantzitsua izan arren(%57); bigarren erantzun adierazgarrian, *irakaskuntza euskaraz garrantzitsua dela uste dudalako*, kontrako joera somatzen da *genero diskurso tradizionalaren* aldekoek pisu gehiagoarekin ageriz(%33).

Labur bilduz, genero diskursoek eraturiko andereñoen taldeak honako modu honetan deskriba ditzakegu:

Genero diskurso tradizionala bereganatzen duten andereñoen gehiengoa 31-39 urte bitartekoa da(%44), 30 urte baino gutxiagokoak laurden bat(%26,5) eta 40-

¹⁷ Ezin ahantzi galdekizuna egin genuela ikastolen publikazioaren auzia gori-gorian zegoela. Handik urte bete eta erdira Ikastolen Publikazio legea ebatzi zen, zehatz mehatz 1993ko Otsailaren 19an.

56 urte bitartekoak, aurrekoak baino pixka bat gehiago dira. Ikastoletan emandako denborari dagokionez, guk eraturiko hiru antzinakotasun kategoriatan antzetsu diren proportzioetan ageri dira(%30), proportzioa apur bat altuago izanik *15 urte baino gehiagoko* kategorian(%38). Aukera politikoaren inguruko galderari dagokionez *erantzunik ez* (%32), *Herri Batasuna* (%27) eta *Euzko Alderdi Jeltzalea* (%22) dira aukera nagusiak. Andereño hauen ia erdiak dio erlijioak bai duela garrantzirik euren bizitzatan, beste horrenbeste kontrakoak dioen bitartean. Ordaindua den lan bat izatearen inguruan, soilik %7,5ak onartzen du soldata izatea garrantzi handikoa izan zela lanbidea aukeratzerakoan; bestalde, soldata horrek portzentai adierazgarri batentzat *askatasun gehiago* eman die(%35), beste horrenbeste dira *etxe ekonomiarako laguntza* baino ez dela diona. Irakaskuntza emakumeentzat lanbiderik onena delako ustearekin bat ez datozenak nagusitzen badira ere(%53), uste horrekin bat letozkeen andereñoen portzentaia ere nahiko adierazgarria da (%40). Hala ere, gehienek baieztan dute(%73) uste horrek ez zuela eraginik izan andereño izateko beraiek egindako aukeran, kontrakoak %22k adieraziz. Alabaina, soilik, %11k ez du uste andereño lana familia bizitzarekin bateragarria denik. Dena dela, proportzio beretsuan irakaskuntza utzi (%38) zein bertan geldituko lirake(%35). Aldiz, gehiago dira ikastolan geldituko lirakeenak(%49), alde egingo luketenak baino(%33). Azken honekin erlazionatuz, gehiengoak dio andereñotara joana dela *irakaskuntza atsegin zaielako* (%57), andereño hauen heren batek(%33) *irakaskuntza euskaraz oso garrantzitsua dela uste duelako* dioen bitartean.

Berdintasunezko genero diskursupean taldekaturiko andereñoen artean, gehienak 30 urte baino gutxiagokoak dira(%49), 31-39 urte bitartekoek ere presentzia esanguratsu bat dute(%38), berriz oso gutxi dira 40-56 urte bitartekoak(%12). Ikastoletan ibilitako denboraz ari garela, andereñoen gehiengoak(%55) *10 urte edo gutxiago* daramatzate ikastolan, baina denbora gehien daramatzatenak laurden bat dira (%24) talde honetan; horrela, presentzia gutxien dutenak dira 11-15 urte bitarteko aintzinakotasuna dutenak(%19). Ideologia politikoari dagokionez, *Herri Batasuna* eta *ez erantzuna* dira aukera nagusiak. Andereño hauen gehiengo zabala ez da erlijiosoa(%71). Ordaindua

den lanaren inguruan, soilik, %11k diosku soldata garrantzizkoa izan zela lanbide honen hautaketan. Horrez gain, gehiengo zabalak(%58) dio *soldata izateak askatasun gehiago* ekarri diola. Berrero ere, gehiengo zabal batek ez du onartzen irakaskuntza emakumeentzat lanbiderik onena izatea (%75). Horrela, oraindik zabalagoa den gehiengoak dio horrelako usteak ez zuela eraginik izan beraien lanbide aukeran(%83). Alabaina, andereñoen lana familia bizitzarekin bateragarria dela dio gehiengoak(%60). Irakaskuntza utziko luke gehiengoak(%36), baina proportzio beretsuan ez dute erantzuten(%35), gelditzen direnen portzentaia ere garrantzitsua izanik(%29). Ikastolatik alde egingo luketenak gehiago dira(%43), eta bai geldituko liratekeenak ere(%40), andereño hauen *ez erantzunen* portzentaia jeitsiz. Berriz, *andereño izatearen* arrazoi nagusia *irakaskuntza atsegin zaiela* da (%71), andereño hauen artean soilik %22k argudiatuz *irakaskuntza euskaraz garrantzitsua dela uste* duelako.

10.2.3.2 Genero diskursoak eta ikastolan irakastea

Atal honen hasieran planteatutako bigarren hipotesian, ikastolen hastapenetan ibilitako andereñoak euskal nazionalismo osoak subjektu abertzaletzat jotzen zituela genion. Andereñoak subjektutzat jotzearenak euskara eta euskal kulturaren irakaskuntza zabaltzearekin zer ikusia zeukan. Emakumeen jarduna kultur eremuan kokatzeak ez zekarren kontraesan handirik ordura arteko genero diskurso tradizionalarekin ez sortzen ari zen beste genero diskursoarekin. Horrela, bai nazionalismo tradizionalak bai nazionalismo ezkertiarrek legitimaturiko eta goraipaturiko irudia dugu: hizkuntz zein kultur igortzailea. Alabaina, ikastolen historia hurbilak agerian utzi duen bezala, kultur igortzaile, irakasle, langile, emakume irakasle, emakume langile ez dira balio bereko kategoriak izan bere ondorio praktikoei dagokienez: lan baldintzak, lanbide hobetze, eta abar. Azken hau, gure inguruan genero diskurso berrien gorpuzketa eta hedapenak mahaiganeraturiko auzia dugu. Hori dela eta, behin frogaturik andereñoen artean genero diskurso berriak daudela, hauen ustezko eragina irakaste lanean eta, zehatz-mehatz ikastolako irakaste lanean ikusi guran gabiltza. Horretarako, honako lan-hipotesiak landu ditugu:

1.lan-hipotesia: berdintasunezko genero diskursoa partekatzen dutenen andereñoak dira beste lan arlotik lan proposamen hobe bat jasoz gero irakaskuntza gehien utziko luketenak.

2.lan-hipotesia: berdintasunezko genero diskursoen aldeko andereñoak dira beste ikastetxe batetik lan proposamen hobe bat jasoz gero ikastola gehien utziko luketenak.

Dagoeneko bi hipotesi hauen inguruko informazio orokorra izan badugu, aurreko atalean landuta, eta honakoa da: irakaskuntza utziko luketenen artean, genero diskursoak ez du desberdintasunik ezartzen, alegia, bai genero diskurso tradizionalaren aldekoek bai berdintasunezkoaren aldekoek alde egingo luketeela eta geldituko lirartekeen artean pixka bat gehiago dira lehenengo diskursoaren aldekoak. Beraz, lehenengo lan-hipotesia errefusatu beharrean gaude, baina, errefusatu aurretik ikus dezagun ia aldagaien bat tartean dagoen hipotesian aipaturiko erlazioa kutsatuz.

ADINA:**30 urte edo gutxiago**

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradiziozko</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%
<i>Ez erantzuna</i>	7	26	4	19	15	37	26	29
<i>BAI</i>	14	52	10	48	13	32	37	42
<i>EZ</i>	6	22	7	33	13	32	26	29
<i>GUZTIRA</i>	27	100	21	100	41	100	89	100

Andereño gazteenen artean, *tradiziozko diskursoaren* aldekoek portzentai adierazgarri batean ez badute erantzuten gehiago dira irakaskuntza utziko luketenak geldituko liratekeenak baino. Aldiz, *berdintasunezko genero diskursoaren aldekoek* proportzio berberan alde eta geldituko lirateke *ez erantzuna* oso-oso garrantzitsua izanik.

31-39 urte bitartekoak

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradiziozko</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%
<i>Ez erantzuna</i>	8	33	8	23	9	28	25	28
<i>BAI</i>	9	38	15	43	14	44	38	42
<i>EZ</i>	7	29	12	34	9	28	28	30
<i>GUZTIRA</i>	24	100	35	100	32	100	91	100

31-39 urte bitartekoen artean, gure hipotesia beteko litzateke, gehien alde egiten dutenak *berdintasunezko genero diskursoaren aldekoak* baitira; hala ere, beste taldekoek ere gelditu baino gehiago alde egiten dute irakaskuntzatik.

40-56 urte bitartekoak

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradiziozko</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%
<i>Ez erantzuna</i>	1	14	8	35	5	50	14	35
<i>BAI</i>	1	14	5	22	3	30	9	23
<i>EZ</i>	5	72	10	43	2	20	17	42
<i>GUZTIRA</i>	7	100	23	100	10	100	40	100

Nagusien artean, gure hipotesiaren ondorioa beteko litzateke, alegia, *tradiziozko diskursoaren* aldekoak besteak baino gehiago gelditzen direla irakaskuntza; egia bada ere, besteen artean ez erantzuna oso altua dela.

Beraz, *adinaren* argitan gure hipotesia, soilik beteko litzateke 31-39 urte bitartekoen kasuan.

ANTZINAKOTASUNA

10 urte arte

	Ez erantzuna		Tradiziozko		Berdintasuna		Lerro	
	Maiz	%	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
Ez erantzuna	7	25	4	16,7	17	37	28	28,6
BAI	16	57	11	46	15	33	42	42,8
EZ	5	18	9	37,5	14	30	28	28,6
GUZTIRA	28	100	24	100	46	100	98	100

Denbora gutxien daramatenen artean gazteenen artean somatzen genuen joera bera aurkitzen dugu: irakaskuntzatik gehiago alde egingo luketeela *tradiziozko diskursoaren* aldekoak besteak baino.

Beraz, *antzinakotasun-talde* honetan ezin da baieztu hasierako lan-hipotesia

11-15 urte

	Ez erantzuna		Tradiziozko		Berdintasuna		Lerro	
	Maiz	%	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
Ez erantzuna	6	33	6	25	5	31	17	29,3
BAI	5	27,8	11	45,8	7	43,8	23	39,7
EZ	7	38,9	7	29,2	4	25	18	31
GUZTIRA	18	100	24	100	16	100	58	100

Antzinakotasun talde honetan *genero diskursoak* ez du desberdintasunik ezartzen.

15 urte baino gehiago

	Ez erantzuna		Tradiziozko		Berdintasuna		Lerro	
	Maiz	%	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
Ez erantzuna	3	25	10	33	6	30	19	30,6
BAI	3	25	7	23	8	40	18	29
EZ	6	50	13	43	6	30	25	40
GUZTIRA	12	100	30	100	20	100	62	100

Aldiz, antzinakotasun gehien daukatenen artean, talde bietan *ez erantzuna* garrantzitsua izan arren, badirudi *genero diskursoak* bai ezartzen duela desberdintasunak. Horrela, *tradiziozko diskursoaren* aldekoak gehiago gelditzen dira, beste taldekoen artean uzten duten zein gelditzen direnen arteko aldea oso handia ez bada ere. Hortaz, betetzekotan gure lan-hipotesia antzinakotasun talde honetan izango litzateke.

AUKERA POLITIKOA

Ez du erantzuten

	Ez erantzuna		Tradiziozko		Berdintasuna		Lerro	
	Maiz	%	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
Ez erantzuna	4	30,8	5	20	10	40	19	30
BAI	7	53,8	9	36	8	32	24	38,1
EZ	2	15	11	44	7	28	20	31,7
GUZTIRA	13	100	25	100	25	100	63	100

Boza politikoaren galderari erantzunik eman ez diotenen artean, badirudi *genero diskursoak* nolabaiteko eragina duela. Horrela, *berdintasunezko genero diskursoaren* aldekoen artean, nahiz eta irakaskuntza uzten dutenen zein gelditzen direnen proportzioak antzetsuak izan, beste diskursoa partekatzen dutenak gehiago gelditzen dira. Azpimarratzekoa da, lehenengoen artean *ez erantzunak* jasotzen duen atxikimendu handia.

EAJ

	Ez erantzuna		Tradiziozko		Berdintasuna		Lerro	
	Maiz	%	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
Ez erantzuna			6	35	2	33	8	30,8
BAI	1	33	4	23,5			5	19
EZ	2	66,7	7	41,2	4	66,7	13	50
GUZTIRA	3	100	17	100	6	100	26	100

Euzko Alderdi Jeltzaleen gogaideen artean *genero diskursoak* ez du desberdintasunik ezartzen, gehienak gelditzen baitira irakaskuntzan.

HB

	Ez erantzuna		Tradiziozko		Berdintasuna		Lerro	
	Maiz	%	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
Ez erantzuna	10	45,5	7	33	8	30,8	25	36
BAI	6	27	9	43	11	42,3	26	37,7
EZ	6	27,3	5	23,8	7	26,9	18	26
GUZTIRA	22	100	21	100	26	100	69	100

Herri Batasunaren botuemaileen artean irakaskuntza utziko dutenak zein erantzunik ematen ez dutenak proportzio berean agertzen dira. *Genero diskursoak* ez du desberdintasunik ezartzen.

Inori ez

	Ez erantzuna		Tradiziozko		Berdintasuna		Lerro	
	Maiz	%	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
Ez erantzuna			2	33,3	5	31,3	7	21,2
BAI	7	63,6	3	50	8	50	18	54,5
EZ	4	36,4	1	16,7	3	18,8	8	24,2
GUZTIRA	11	100	6	100	16	100	33	100

Abstenitu egin direnen artean gehiengoak alde egingo luke irakaskuntzatik, gainera gehiengo horretan *genero diskursoak* ez du desberdintasunik ezartzen. Ikus dezagun, ondoren, *genero diskursoak* neutralizatuz gero ia *botu politikoak* edota *andereño izateko arrazoiak* zerbait gehiago azaltzen duten.

GENERO DISKURSOAK**Tradizionala**

	Ez du eran		EAJ		EA		EE		HB		Inori ez	
	Maiz	%	Maiz	%	Maiz	%	Maiz	%	Maiz	%	Maiz	%
Ez erantzun	5	20	6	35					7	33	2	33
BAI	9	36	4	23	3	43	2	67	9	43	3	50
EZ	11	44	7	41	4	57	1	33	5	24	1	17
GUZTIRA	25		17		7		3		21		6	

Tradiziozko genero diskursoaren aldekoen artean irakaskuntza utziko lukete, *Euskadiko Ezkerrakoek*, *Herri Batasunakoek* eta *Inori boza eman ez diotenek*, ordea *erantzunik eman ez dutenak*, *Euzko Alderi Jeltzalekoak* eta *Eusko Alkartasunakoak* gehiago gelditzen dira.

Berdintasunezkoa

	<i>Ez du eran</i>		<i>EAJ</i>		<i>EA</i>		<i>EE</i>		<i>HB</i>		<i>Inori ez</i>	
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz</i>	<i>%</i>
<i>Ez erantzun</i>	10	40	2	33	3	60	1	20	8	31	5	31
<i>BAI</i>	8	32			1	20	2	40	11	42	8	50
<i>EZ</i>	7	28	4	67	1	20	2	40	7	27	3	18
<i>GUZTIRA</i>	25		6		5		5		26		16	

Berdintasunezko genero diskursoen aldekoen artean, Euzko Alderdi Jeltzaleen gogaideak izan ezik beste guztiek gehiago alde egiten dute irakaskuntzatik edo proportzio berean gelditzen eta alde egiten dute, esaterako Eusko Alkartasunakoek eta Euskadiko Ezkerrakoek.

Hortaz, badirudi beste lan arlotik lan proposamen hobe bat jasoz gero nortzuek utziko lukete irakaskuntza, botu politikoak gehiago argitzen duela genero diskursoak baino. Azter dezagun, orain, andereño izateko arrazoiak aldagaia:

Tradizionala

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Irakaskuntza atsegin zait</i>		<i>Irakaskuntza euskaraz</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>
<i>Ez erantzuna</i>	2	25	12	27	6	23	20	25,3
<i>BAI</i>	5	62,5	17	37	8	31	30	38
<i>EZ</i>	1	12,5	16	36	12	46	29	36,7
<i>GUZTIRA</i>	8	100	45	100	26	100	79	100

Tradiziozko genero diskursoaren aldekoen artean proportzio berdinean alde zein geldituko lirakeke irakaskuntzan, eta bai irakaskuntza atsegin zaielako andereño izatea erabaki zutenak; baina irakaskuntza euskaraz garrantzizkoa dela uste dutenen artean gehiago gelditzen dira.

Berdintasunezkoa

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Irakaskuntza atsegin zait</i>		<i>Irakaskuntza euskaraz</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>
<i>Ez erantzuna</i>	3	50	20	34	6	33	29	35
<i>BAI</i>	3	50	20	34	7	39	30	36
<i>EZ</i>			19	32	5	28	24	29
<i>GUZTIRA</i>	6	100	59	100	18	100	83	100

Berdintasunezko genero diskursoaren aldekoen artean gehiago dira irakaskuntzatik alde egingo luketenak andereño izateko bai arrazoi bat zein bestea argudiatzen dutenen artean.

Kasu honetan, soilik, tradiziozko diskursoa partekatzen dutenen artean beste aldagi honek izan zezakeen zer esatea.

Hortaz, *Beste lan arlotik lan hobe baten proposamenaren aurrean irakaskuntza uzteko erabakian*, badirudi genero diskursoak ez duela eragin handirik ez bada, lanean denbora gehien daramatenen artean.

Honaino, lehenengo lan-hipotesiaren inguruko argibideak. Ekin diezaiozun bigarren lan-hipotesiaren argitze lanari, alegia: *ia berdintasunezko genero diskursoen aldeko andereñoak diren beste ikastetxe batetik lan proposamen hobe bat jasoz gero, ikastola gehien utziko luketenak.*

Lehenengo lan-hipotesiarekin egin dugun bezala, aurreko atalean lortutako datuak hona ekarriko ditugu, horrela: *berdintasunezko genero diskursoen* aldekoak ikastolatik alde egingen gehiago dira(%43), baina, aldi berean, hauen artean asko geldituko liriteke ere(%40). Beste diskursoaren aldekoen artean, %33k alde egingo luke ikastolatik eta %49 geldituko litzateke. Talde bietan *ez erantzuna* irakaskuntza uztearen kasuan baino apalagoa da. Hortaz, badirudi formulatutako lan-hipotesia berbaieztu dezakegula. Hala ere, berbaieztu aurretik zenbait aldagai neutralizatuko ditugu somaturiko erlazioa kutsaturik ez dagoela ziurtatzeko.

ADINA:

30 urte edo gutxiago

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradiziozko</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>
<i>Ez erantzuna</i>	12	44,4	5	24	10	24	27	30,3
<i>BAI</i>	12	44,4	13	62	15	37	40	45
<i>EZ</i>	3	11,1	3	14	16	39	22	24,7
<i>GUZTIRA</i>	27	100	21	100	41	100	89	100

Gazteen artean, *berdintasunezko genero diskursoa* nagusi izanik, ezin dugu planteatutako lan-hipotesia baieztu gelditzen direnen proportzioa zein ikastolatik alde egingo luketen proportzioa antzetsua baita; aldiz, beste *genero diskursoaren* aldekoen artean gehiago dira ikastola utziko luketenak.

31-39 urte bitartekoak

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradiziozko</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%
<i>Ez erantzuna</i>	5	21	6	17	2	6	13	14
<i>BAI</i>	12	50	11	31	17	53	40	44
<i>EZ</i>	7	29	18	52	13	41	38	42
<i>GUZTIRA</i>	24	100	35	100	32	100	91	100

Adin-talde honetan, bai baieztu dezakegula planteatutako lan-hipotesia, *berdintasunezko genero diskursoaren* aldekoak ikastolatik gehien alde egiten dutenak baitira. Halaber, *genero diskurso tradizionalaren* aldekoak ikastolan gehien gelditzen direnak ditugu.

40-56 urte bitartekoak

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradiziozko</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%
<i>Ez erantzuna</i>	1	14	3	13	2	20	6	15
<i>BAI</i>	1	14	2	9	4	40	7	17,5
<i>EZ</i>	5	72	18	78	4	40	27	67,5
<i>GUZTIRA</i>	7	100	23	100	10	100	40	100

Aintzat harturik, adin-talde honetan gehiago zabala ikastolan gelditzen dela, eta *genero diskurso tradizionalak* pisu gehien duena dela, baieztu dezakeguna lan-hipotesiaren iruntzia da, alegia: *genero diskurso tradizionalaren* aldekoak ikastolatik gutxien alde egiten dutenak direla.

ANTZINAKOTASUNA**10 urte arte**

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradiziozko</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%
<i>Ez erantzuna</i>	12	43	5	21	10	22	27	27,6
<i>BAI</i>	14	50	13	54	18	39	45	45,9
<i>EZ</i>	2	7	6	25	18	39	26	26,5
<i>GUZTIRA</i>	28	100	24	100	46	100	98	100

Andereño gazteenen artean gertatzen zitzaigun bezala, *berdintasunezko genero diskursopean* taldekatu-erikoko andereñoen artean, ikastolan gelditzen direnen proportzioa zein alde egingo luketenen proportzioa berdintsua da, beraz ezin dugu lan-hipotesia baieztu. Are gehiago, beste diskursopean taldekatu-erikoko andereñoak, egia bada ere gutxiago direla, gehiago dira ikastolatik alde egiten. Hau da, lan-hipotesiaren iruntzia ere ezin dugu baieztu.

11-15 urte

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradiziozko</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%
<i>Ez erantzuna</i>	5	28	5	21	1	6	11	19
<i>BAI</i>	8	44	10	42	8	50	26	45
<i>EZ</i>	5	28	9	37	7	44	21	36
<i>GUZTIRA</i>	18	100	24	100	16	100	58	100

Antzinakotasun kategoria honetan, badirudi, datuak gure lan-hipotesiak marraturiko ildotik doazela. Hala ere, *berdintasunezko genero diskursokoak* gutxi izateak ez gaitu ahalbidetzen erabatekotasunaz hipotesia baiezte, ezta horren iruntzia ere, *genero diskurso tradizionala* partekatzen dutenak proportzio berdintsuan alde egingo zein geldituko bailirateke ikastolan.

15 urte baino gehiago

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradiziozko</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%
<i>Ez erantzuna</i>	1	8	4	13	3	15	8	13
<i>BAI</i>	3	25	2	7	10	50	15	24
<i>EZ</i>	8	67	24	80	7	35	39	63
<i>GUZTIRA</i>	12	100	30	100	20	100	62	100

Alabaina, denbora gehien daramatenen artean bai lan-hipotesia zein bere iruntzia berbaieztu ditzakegula.

AUKERA POLITIKOA

Ez du erantzuten

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradiziozko</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>
<i>Ez erantzuna</i>	4	30,8	4	16	6	24	14	22
<i>BAI</i>	7	53,8	10	40	11	44	28	45
<i>EZ</i>	2	15,4	11	44	8	32	21	33
<i>GUZTIRA</i>	13	100	25	100	25	100	63	100

Botu politikoaren galderari *erantzunik eman ez* dutenen artean, badirudi baieztu dezakegula lan-hipotesia, baina ez bere iruntzia, zeren eta *genero diskurso tradizionalaren* aldekoek proportzio berean geldituko zein alde egingo bailukete.

EAJ

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradiziozko</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>
<i>Ez erantzuna</i>					1	17	1	3,8
<i>BAI</i>	1	33	3	18	1	17	5	19,2
<i>EZ</i>	2	67	14	82	4	66	20	77
<i>GUZTIRA</i>	3	100	17	100	6	100	26	100

Euzko Alderdi Jeltzaleen botuemaileen artean *genero diskursoak* ez du desberdintasunik ezartzen, gehiengo zabala ikastolan geldituz.

EA

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradiziozko</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>	<i>Maiz.</i>	<i>%</i>
<i>Ez erantzuna</i>	1	17	1	14,3			2	11,1
<i>BAI</i>	2	33	1	14,3	3	60	6	33,3
<i>EZ</i>	3	50	5	71,4	2	40	10	55,6
<i>GUZTIRA</i>	6	100	7	100	5	100	18	100

Eusko Alkartasunaren botuemaileak gutxi izatean portzentaien analisiak ere ez gaitu interpretaziorako beta handirik uzten¹⁸. Zerbait esatekotan, soilik lan-hipotesiaren iruntzia betetzen dela esan genezakeen.

EE

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradiziozko</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%
<i>Ez erantzuna</i>					1	20	1	9,1
<i>BAI</i>	2	66,7	2	66,7	1	20	5	45,5
<i>EZ</i>	1	33,3	1	33,3	3	60	5	45,5
<i>GUZTIRA</i>	3	100	3	100	5	100	11	100

Aurreko kasuan bezala, datuen aurrean, ezin dugu erabatekotasunaz ezer esan, ez bada ez hipotesia ez horren iruntzia ez direla betetzen.

HB

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradiziozko</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%
<i>Ez erantzuna</i>	12	54	6	29	5	19	23	33,3
<i>BAI</i>	5	23	8	38	12	46	25	36,2
<i>EZ</i>	5	23	7	33	9	35	21	30,5
<i>GUZTIRA</i>	22	100	21	100	26	100	69	100

Herri Batasunaren botuemaileen kasuan, badirudi lan-hipotesia betetzen dela, baina ez, ordea horren iruntzia, *genero diskurso tradizionalaren* aldekoak proportzio antzetsuan geldituko zein alde egingo lukete-eta. Berebat, hauen *ez erantzuna* nahiko adierazgarria da.

Inori ez

	<i>Ez erantzuna</i>		<i>Tradiziozko</i>		<i>Berdintasuna</i>		<i>Lerro</i>	
	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%	<i>Maiz.</i>	%
<i>Ez erantzuna</i>	1	9	3	50	1	6	5	15
<i>BAI</i>	8	73	2	33	8	50	18	55
<i>EZ</i>	2	18	1	17	7	44	10	30
<i>GUZTIRA</i>	11	100	6	100	16	100	33	100

Abstenitu direnen kasuan ere ez da erreza interpretazio orokorgarri burutzea, kontuan harturik *genero diskurso tradizionalaren* kategoriatan kasu gutxi

¹⁸ Arrazoi beragatik ez genituen Eusko Alkartasuna eta Euskadiko Ezkerraren gogaideen datuak aztertu irakaskuntza uztearen kasuan.

dagoela. Hala ere, badirudi lan hipotesia baieztu genezakeela, alegia *berdintasunezko genero diskursoaren* aldekoek gehiago uzten dutela ikastola. Ondoren, ikus dezagun *genero diskursoak* neutralizatuz, *botu politikoak* edota *andereño izateko arrazoiak* zerbait gehiago argitzen digute.

GENERO DISKURSOAK

Tradizionala

	Ez du eran		EAJ		EA		EE		HB		Inori ez	
	Maiz	%	Maiz	%	Maiz	%	Maiz	%	Maiz	%	Maiz	%
Ez erantzun	4	16			1	14			6	29	3	50
BAI	10	40	3	18	1	14	2	67	8	38	2	33
EZ	11	44	14	82	5	72	33	7	5	33	1	17
GUZTIRA	25		17		7		3		21		6	

Genero diskurso tradizionalaren aldekoen artean *EAJ* eta *EAREN* gogaideak dira gehien gelditzen direnak ikastolan; *erantzunik ematen ez dutenak* eta *HBren* botuemaileek proportzio berean gelditu zein alde egiten duten bitartean.

Berdintasunezkoa

	Ez du eran		EAJ		EA		EE		HB		Inori ez	
	Maiz	%	Maiz	%	Maiz	%	Maiz	%	Maiz	%	Maiz	%
Ez erantzun	6	24	1	17			1	20	5	19	1	6
BAI	11	44	1	17	3	60	1	20	12	46	8	50
EZ	8	32	4	66	2	40	3	60	9	35	7	44
GUZTIRA	25		6		5		5		26		16	

Berdintasunezko genero diskursopean taldekaturiko andereñoen artean, *EAJren* botuemaileak izan ezik beste guztiek gehiago alde egiten dute ikastolatik. Azter dezagun orain, *andereño izateko arrazoiak* aldagaia:

Tradizionala

	Ez erantzuna		Irakaskuntza atsegín zait		Irakaskuntza euskaraz		Lerro	
	Maiz	%	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
Ez erantzuna	1	12	7	16	6	23	14	18
BAI	4	50	17	37	5	19	26	33
EZ	3	38	21	47	15	58	39	49
GUZTIRA	8	100	45	100	26	100	79	100

Genero diskurso tradizionalaren aldekoen artean, edozein izanda andereño izateko arrazoiak, ikastola uzten direnak baino gehiago dira gelditzen direnak.

Berdintasunezkoa

	Ez erantzuna		Irakaskuntza atsegin zait		Irakaskuntza euskaraz		Lerro	
	Maiz	%	Maiz.	%	Maiz.	%	Maiz.	%
Ez erantzuna	1	17	12	20,3	1	5	14	17
BAI	2	33	24	41	10	56	36	43
EZ	3	50	23	39	7	39	33	40
GUZTIRA	6	100	59	100	18	100	83	100

Hauen artean, aldiz, gehiago dira ikastolatik alde egingo luketenak, batik bat, *irakaskuntza euskaraz garrantzizkoa dela* erantzuna aukeratu dutenak. Egia da ere, azken hauek oso gutxi izatean emaitza ez da oso orokorgarria. Era berean, *irakaskuntza atsegin zait* erantzun dutenen artean portzentai antzetsua aurkitzen dugu bi jokabideetan. Horrela, *andereño izateko arrazoiak* aldagaiak ez du ezer gehiagorik argitzen.

Beraz, *beste ikastetxe batetik lan hobea baten proposamenaren aurrean ikastola uzteko erabakian*, antza, *berdintasunezko genero diskursoak* ez du eragin handirik ez gazteenen artean ez ikastolan denbora gutxi daramatenen artean ezta *Euzko Alderdi Jeltzaleen* gogaideen artean ere. Aldiz, badirudi nolabaiteko eragina duela 31 urte baino gehiago dutenengan, bai ikastolan denbora gehien daramatenengan eta bai *Herri Batasunaren* botuemaileengan, *abstenitu* direnengan eta aukera politikoa aitortu ez dutenengan ere.

Horrela, esan bezala, andereño hauen *irakaskuntza uzteko* erabakian **genero diskursoak** ez badu eragin handirik ezartzen, bai ezartzen duela, ordea, *beste ikastetxe batetik lan proposamen hobea bat jasoz gero ikastolatik alde egiteko* erabakian. Alegia, **berdintasunezko genero diskursoak** nolabaiteko eragina du 31 urte baino gehiagoko andereñoengan, ikastolan denbora gehien daramatenengan, Herri Batasunaren botuemaileengan, *abstenitu* direnengan eta aukera politikoa aitortu ez dutenengan.

Bestalde, esana gelditu den bezala, ikastola ez da euskararen gordailu bakarra andereño hautzat¹⁹; hau da, ikastolan bezala beste hezkuntza eremuetan ere euskara irakatsi eta zabaldu daiteke eta, ondorioz, ikastolatik alde egiteak ez dakar, berez, subjektu abertzale izateari uztea. Are gehiago, subjektu izateari, abertzaletasunaren eremuaz gain, gehitzen zaizkio emakume hauek nahi beste eremu.

Alta, goian esandakoak ikastoletan geldituko liratekeenei ez die ukatzen subjektu abertzale izateaz gain subjektu osoa izateko gaitasuna, beraiek horrela gura izanez gero²⁰.

Atal honen hasieran planteatutako bigarren hipotesian zera genion: feminismoek buruturiko diskurso zein ekimen politikoek emakumeei buruzko irudi eta praktika desberdinak ahalbidetu zituzten.; aipatu irudi eta praktika desberdin horiek andereñoek euren lanari buruz dituzten iritzi eta jarreraren inguruan argibide eman zitzaketela. Badirudi, atal honetan zehar landutako datuen irakurketa gure hipotesi horren ildotik doala.

¹⁹ Ikusi aurreko azpiatala.

²⁰ Geldituko liratekeen artean %38ak *berdintasunezko genero diskursoa* partekatzen baitu.

ONDORIOAK

Gure abiapuntua izan da lan honetan zehar darabilgun genero kontzeptua azaltzea, horren esanguraz ez baitago ulerkuntza komunik, ezta ikerlari feministen artean ere. Azalpen horri hasiera eman diogu soziologian burutu diren sexu desberdintasunaren inguruko hausnarketan historia hona ekarriz. Horrela, sexu desberdintasunez zenbait aintzindarik egindako funtsezko ekarpena plazaratu da, alegia, sexu desberdintasunen arazo soziala agerian utzi eta arazo soziologiko bihurtu izana. Sexu desberdintasunak arazo soziologiko bihurtze bide horretan, sexu rolen tentsioak, hezkuntza sistemarekiko kritika, etxeko lana, familia bizitza, lanbide karrera, emakumeen estatusa, gizarteratze prozesuak dira, agertutako gaiak. Gai horien guztien bitartez, ordura arte sexu desberdintasunak azaltzeko erabiltzen zen argudioaren aurrean, hau da, determinismo biologikoaren aurrean, azalpen kulturala lantzen hasi zen.

Aintzindariak irekitako bideari eutsiz, 1960ko hamarkadan ikerlari feministen idazlanak biderkatu ziren. Idazlan horietan, uhin honetako feministek lehengo gaien azterketa sakontzeari zein gai berriak lantzeari ekin zieten. Gaiak, besteak beste, emakumearen egoera instituzio ekonomikoetan, familiarretan, legetan, politikoetan, akademikoetan eta erlijiosoetan; sexualitatea; amatasuna; etxeko-lana; alarguntsa; dibortzioa; emakumeen bizitza zikloko urratsak; emakumeen aurkako bortizkeria eta abar, ziren. Garai hartako ikerketa feministak kritikatu zituen ere emakumezko eta gizonezkoen nortasuna estereotipo tradizionalen eta, hauekin batera, sexu desberdintasunen onarpena eta honen iraupen luzeegia akademian.

Aurreko lerrootan esandako guztiari gehitu behar zaio ikuspegi filosofiko eta metodologiko alternatiboen planteamendua, soziologia korrante nagusiari egindako kritika epistemologiko eta metodologiko sakon batean oinarritutakoa. Soziologiaren garai batean, batik bat, nagusi zen metodologia positibistatik aldentzeko saioak egin ditu ikerkuntza feministak, ikerketak emakumearen askapenarekin nolabaiteko lotura edo kezka izan behar duela esanez. Hortaz,

haientzat ikerketaren abiapuntua objektibitatea izan barik, subjektibitatea izaten da. Hala ere, oraindik, gai horren inguruan eztabaida zabalik dago, eta metodologia feministaz hitz egin ahal izateko aipatu eztabaida horretan parte hartu dutenek komunean dituzten ezaugarrietatik abiatu beharko litzateke.

Dena dela, feminismoak garrantzi handiko ekarpenak egin arren, oraindik, badira soziologian emakumeen esperientzia ezagutzen ez duten paradigmak. Eta badira ere, paradigma horien eraldaketa feminista gelditu duten zioak, hala nola, funtzionalismoak generoaz zabalduko kontzeptualizazioa soziologian nagusitzea; generoa kontzeptu barik aldagai soiltzat hartzea; ikerketa feminista *ghetto* batean sartzea, kasu, soziologia marxista; eta, teoria feministaren jarduna bera.

Teoria feministaren ibilbidea jorratzeak teoria feminista ezberdinak aztertzea ekarri zuen, zehatz-mehatz, feminismo liberal-berritzailea, feminismo marxista, feminismo erradikal-iraultzailea eta sozialista. Azterketa horretan agerian gelditu da teoria horietan, oro har, joera ekintzailea nagusitzen dela, baina osotasun sozialaren erreferentzia ia erabat galdu egiten dela. Azken horrek bistarazten du teoria horien osatugabeko izaera, eta, halaber, gure iritziz, ikuskera desberdin horiek integratzeko beharra ere bai.

Integratzeko saioari ekin aurretik, alabaina, ikuskera desberdinetan izandako eztabaidaz jorraketa sakona burutu da, aintzat harturik, gure diziplinan, eztabaida horiek gertatu diren ikuskerak, ekoizpenaren ikuskera, ugalketaren ikuskera eta ikuskera batua. Eta, halaber, ikuskera horietan eztabaiden ardatzak, patriarkatua ala sexu genero sistema, kapitalismoa *versus* patriarkatua eta ertaineko hurbilketetan agertutakoak, gizarteratze prozesua, lan banaketa eta segmentaturiko lan merkatua.

Aipatu jorraketak argi utzi du ikuskera desberdinen ekarpenak teoria batean integratzeko ekimenak baduela sahiestu beharreko zailtasun bat:

unibertsaltasunean edo gizarte klase azterketara murrizteko joeran, berriro ere, ez erortzea.

Dena den, eta zailtasun horretaz jabetu arren, generoaz egiturazko teoria bat proposatu da, eta bertan sexu bakoitzari datxezkion osagai soziokulturalak adierazteko genero berba erabiltzea erabaki da. Horretaz gain, generoa harreman sozialen osagai eta botere-harreman esanguratsuen era gisa aurkeztean, haren azterketa historikoa eta deseraikitzailea izatea planteatzen da ere. Azterketa horretan, aintzat harturik generoak barnehartzen dituen elkarrerlazioaturiko elementuak, sinboloak, sinbolo horien interpretazioak, instituzioekiko erreferentziak zein ideia politikoak, eta identitate subjektiboak. Hortaz, generoa osotasun sozialaren printzipio antolatzailea denez gero, proposamenaren muina instituzio eta prozesu generizatuez hitz egitea da. Metodologiari dagokionez honakoa da hobetsitako jokabidea, ezagutza ulerkorra eta ezagutza positiboa kontrajarriak ikusi barik, osagarri legez kontsideratzea eta, horrela, ikerketa-teknikak kuantitatiboak zein kualitatiboak batera erabiltzeko aukera izatea.

Goian azaldutakoa gure errealitatera ekarrita honako modu honetan aplikatua izan da: euskal nazioaren eraikitze prozesu generizatuaren azterketa burutuz, eta azterketa horretan bereziki jorratu dira hizkuntza eta hezkuntza eremuetan genero asimetriak egituratu dituen diskurso eta praktika desberdinak.

Aipatu prozesua errealitate gatazkatsua da egun, eta haren oinarrian zein hura bezain gatazkatsuak diren beste errealitateen oinarrian (subiranotasuna, demokrazia, estatua) komunitate soziologikoa aurkitzen da. Feminismoak, duela gutxi arte, ez dio arreta handirik eskaini komunitate ikuskerari, eta eskaini diolarik atzerakoitzat eta, beraz, emakumezkoentzat zapaltzaileetat jotz amaiara eman dio hausnarketari. Azken honek hartaraturik zenbait soziologo klasikorengana jo dugu bestelako gogoeten bila, zehatz-mehatz, J. J. Rousseau, A. Comte eta A. de Tocquevilleren hausnarketetara.

Hiru autore horiek emakumeei esleituriko esparru eta funtzio soziala euren pentsamenduaren muinarekin erlazionatuz, mahaigaineratu dugu, kritika feminista gehienak plazaraturiko irakurketaz gain beste irakurketak ere egin daitezkeela. Eta bestelako irakurketa horien ekarpenen artean hiru dira bereziki interesgarriak teoria feminista berarentzat:

- Emakumeen partaidetzak komunitatean duen garrantzian oinarriturik liberalismoak sorturiko kategoria dikotomikoen ahultasuna agerian uztea: Estatua/familia; pribatua/publikoa.
- Arazo sozio-politikoari, hau da, gizakia eta herritarra bat egiteari irtenbidea, familian, etxeko esparruan/esparru pribatuan gauzatzea, emakumea izanik gauzape horren arduraduna. Beraz, familia ikusitezina izan beharrean, planteamendu teoriko hauetan, funtsezko esparrua da bizitza politikoa eta soziala ahalbidetzeko. Egia da emakumeak etxeko esparruan ere ez duela autoritaterik, baina botere ezaz ere ezin dugu barbarik egin.
- Diskurtso horiek oso tresna teoriko baliotsuak izan daitezke, edozein errealitate sozialetan, non komunitatearen ikuskerari eutsi behar baitiogu, emakume batzuek euren jardunaz, *sujektu* gisa, diotena uler dezagun.

Iradoki bezala, aipatu ekarpenak oso baliotsuak suertatu zaizkigu euskal nazioaren eraikitze prozesu generizatua aztertzen genbiltzala. Ahantzi barik, bai ekarpen horietan bai aztertu dugun prozesu sozialean ere genero asimetria nabarmena dela. Baina, euskal nazioaz eta euskal nazionalismoaz aritu aurretik, nazioa eta nazionalismoari buruzko literatura landu dugu gure errealitate hurbila ahalik eta ondoen aztertzeko. Horrela, nazioa zer den argitzeari ekin diogularik, ikusi ditugu nazioa osa dezaketen elementuak, hala nola, leinua eta jatorria, herria eta *Volk*, kultura eta izaera, kontzientzia eta borondatea, misio eta proiekturen bat, botere eta Estatua lortu ahal bada, historia ekonomikoan, ekoizteko eta antolatzeko moduetan dinamika propio bat. Osagai horien artean edozein gai edo gai batzuen konbinaketa baliagarria izan daiteke nazioa ikustarazteko, ikustarazpen hori osoago eta sendoago agertuz osagaien konbinaketak guztiak bilduz gero.

Goiko lerrootan aipatu ideia horretatik abiatuz, nazioa eta estatuaren arteko erlazioa jorratu dugu, baina, alde aurretik nazio kulturala, nazio politikoa eta estatua errealitate ezberdinak eginez. Hortaz, gizarte egitate desberdinak diren neurrian, bereziak ager daitezke, are gehiago, historian bat eginik agertutako kasuak oso urriak dira. Hori dela eta, nazioa eta estatuaren arteko batasun ezari eman ohi diren irtenbideak ezagutarazi dira, alegia, integrazioa, desberdintasunean oinarrituriko pluralismoa eta berdintasunean oinarrituriko pluralismoa. Irtenbide horien kariaz, nazionalismoa azaltzeari ekin diogu, haren helburuak eta jokabideak zehaztuz. Azalpen horretan ikusi dugu behar-beharrezkoa dela ezagutzea non eta zein egoeratan dauden nazionalismoak, ezen, horren arabera helburu desberdinak eta ekite modu desberdinak erakusten baitituzte. Egoera horiek ondorengoak dira: estatua daukan nazio baten nazionalismoa, estaturik gabeko nazioarena eta naziorik gabeko estatuarena. Aurrekoa aintzat hartuz, Europako nazionalismo desberdinek izan dituzten helburuak eta bideratu dituzten ekimenak aztertu ditugu. Azterketa horretan gure arreta erakarri duen ekimen batekin egin dugu topo: Europako estaturik gabeko nazio batzuen nazionalismoek burututakoa, *nazioa komunitate moral gisa berreraikitzea*. Ekimen horren zutabeak nazio hizkuntza eta horren irakaskuntza orokortua, hots, nazio hezkuntza dira. Hizkuntza eta hezkuntzaren garrantziaz jabetuz, bi instituzio horiek nazionalismoarekin izan dezaketen harremana sakontzeari ekin diogu, kontuan hartuz oraingoan, Europako eta Estatu Batuetako errealitateei buruzko gogoeta teorikoak, hau da, mendebalde osoari dagozkionak.

Gure proposamenak dioten bezala, gizarte errealitatea eraikitzen duten prozesu sozialak eta kulturalak generizatuak daude eta, beraz, bai gorago aipatutakoa ere. Nazionalismoek bideratutako prozesu generizatuen aurrean teoria feministaren ekarpen teorikoak landu dira, euskal nazionalismoak bideratutakoa ikertu aurretik. Ekarpen teoriko horien artean bi, bereziki, azpimarraturik gelditu dira: bata, nazio proiektuetan emakumeen inplikazioa desberdinduaren auzia mahaiganeratzeko duena, eta, bestea, proiektu etniko eta

nazionaletan emakumeen partaidetza, modu desberdinetan bideratu arren, ikertzen duena.

Azken horretan, emakumeak gizonak bezain konprometituak daude proiektu nazionalarekin, baina era desberdinetan bideratzen dituzte euren konpromisoak. Horrela, nazioak genero egituraketan duen eragina agerian uzten da. Lehenengo ekarpenenaren arabera, ordea, emakumeek sostengatzen duten proiektu nazionala ez da zertan gizonak defendatzen dutena izan, proiektu desberdin bat izan daiteke-eta. Hortaz, planteamendu honetan nazioa eta generoaren arteko elkarrekiko eragina legoke. Hots, beste ekarpenak azpimarratutakoaz gain, proiektu nazionalarekiko emakumeen konpromiso desberdinak proiektu bera eragiten duela ere argumentatzen da. Hala ere, azken ildo teorikoak nazioa eta generoaren arteko erlazioaren analisia herritartasunaren inguruko eztabaidan kokatzen du, eta jarrera horrek hartaraturik nazio-estatu eta berorren nazionalismoa eta generoaren arteko erlazioa baino ez du lantzen. Hau da, nazioa eta nazionalismoaren errealitate ugaria murrizten da eta, horrek aipatu erlazioaren inguruko ulerkuntza oso bat erdiesteko aukera galtzea dakar. Beste ekarpenak, ordea, nazioa eta generoaren arteko erlazioaren hausnarketa nazionalismo mota desberdinekin harremanetan ezartzen du, aipatu hausnarketa eremu zabalago batean kokatuz eta, aldi berean, ulerkuntza oso bat ahalbidetuz. Dena den, gai hauek aztertzen ari garelarik, azken teorizazio horrek nazionalismoaren egoera –estatuen eta nazioen arteko erlazioaren arabera– aztertu beharraren aipua egin arren, jarrera horren islarik ez da ageri idazlan baten ere ez. Beraz, ekarpen horrek zein lehen aipatutakoak, nazionalismo eta feminismoaren arteko auziari buruz ari direla, identitate nazionala eta identitate feministaren arteko gatazka iraunkorra egiten dute, argi izpirik eman barik gatazka hori gainditu ahal izateko. Gure aburuz, nazionalismoaren egoera desberdinak aintzat hartzeak laguntzen du ulertzen haien baitako genero egituraketak nola eragiten dituen emakumezko zein gizonzkoen praktika sozialak. Are gehiago, gizonzkoek zein emakumezkoek praktika sozial horiek nola sentitzen dituzten ere argituko luketeelakoan gaude. Ildo horri jarraituz, genero egituraketa aldatu nahi izanez gero, ezinbestekoa dugu ezagutzea ea nazionalismo egoera desberdinetan genero egituraketa berberak sentimendu

desberdinak sorrarazten dituen ala ez, nazio proiektu horietan parte hartu dutenen gizonekoengan zein emakumezkoengan. Adibidez, estatua daukan

nazio baten nazionalismoak bultzatzen duela *ama aberriaren* rola ala estaturik gabeko nazioarenak rol bera bultzatzen duela proiektu bateko emakumeek zein bestekoek modu berean sentitzen dute rol hori? Halaber, nazionalismo mugimenduak balore desberdinen gainean ere eraikiak izaten dira, eta balore mundu horiek genero harremanen egiturarekin eta haren izaera aldagarriarekin zerikusia handia daukate. Aipatu bi ideia horiei eta nazioa eta generoaren arteko erlazioari buruzko ulerkuntza oso bati eutsiz, identitate nazionala eta identitate feministaren arteko gatazka gainditzeko biderik badela esan daiteke.

Euskal nazionalismoaren egoera eta bilakaera aztertzen goazela lehen esandakoari heldu diogu. Horrela, estaturik gabeko euskal nazionalismoak euskal nazioa nazio politikoa estatusera eramateko ardura du. Euskal nazioa eraikitze prozesu horretan naziotasun irizpideak zein eraikuntza horren oinarrian dauden baloreak identifikatzera jo dugu. Ondoren, eraikitako nazioak eratzen duen genero antolaketa eta azken horrek sorturiko diskursoak eta bideraturiko praktika sozialak marraztuz -batik bat, kultur eremuan nazioa komunitate moral gisa eraiki gura izan den unetan-.

Euskal nazioa eraikitze prozesua generizatuaren eraikuntzan bi une historiko garrantzitsuak aipatu ditugu, lehen, aipatu prozesuari hasiera eman zion lehenengo nazionalismoarena; bigarrena, prozesu horretan errotiko aldaketak ekarri zituen nazionalismo *berriarena*. Lehenengo nazionalismoaren ardatzak historia, nazio-komunitatea eta lurraldea ditugu. Haren sortzaileak, Sabin Aranak, nazio-komunitatearen definizio objektibo bat eskaini zuen, eta bertan naziotasun irizpide hauek agertzen dira: jaiotzarekin bat eskuratzen dugun izaera, arraza desberdina, hizkuntza, lege zaharrak, ohitura eta bizimoduak, betiere moral kristauaren esanetara garatuak. Osagai horien guztien artean, jakina denez, *arraz*a gailenduz eta, beraz, naziotasuna biztanleen borondatearen gainetik ezarriz.

Naziotasunaren irizpide nagusia *arraza* izatean emakumezkoen paperaren garrantzia, amatasunaren bitartez, bistan da. Jatorri komuneko mitoa funtsezkoa da Aranaren nazionalismoan, eta nazio komunitatearen kidetza eskuratzeko

bide bakarra, horrela, hark emakumea umeen sortzaile biologiko gisa ikustean, euskal emakumea *kolektibitatearen eramaile* bihurtzen du. Horren ondorioz, euskal emakumeari aberriaren sinbolo bera izatea dagokio, ama aberria; arrotzekin ezkontzea sahiestea eta borroka nazionalistan gizonezkoen euskarri afektiboa izatea. Diskurso horren atzean katolizismoak onartutako *feminismoa* eta dotrina jeltzalea zutabe zituen *feminismo nazionalista* aurkitzen dugu. Feminismo nazionalista horrek emakumeen partaidetza jarduera publikoan bultzatzen zuen, ez euren eskubideak erreibindikatzeko, mugimendu nazionalistaren hedapenean eta garapenean laguntzeko baino. Hori dela eta, euskal emakumeei atxikituriko zereginak honakoak ziren: zabalkunde lana, euskararen igorpena eta hedapena eta euskal emakumeen artean nazionalismoa zabaltzea. Alabaina, Euzko Alderdi Jeltzaleak gizartearen nazionalizazioari lehentasuna eman ziola, emakumeen partaidetza zabalaren onura mugimendurako ikusi zen. Eta partaidetza zabal hori bideratzeko asmoz emakumeen berezko erakundea sortu zen, *Emakume Abertzale Batza*. Aipatu nazionalizazio ekimen horretan erakunde honen helburuak laguntza eta benefitzientzia baino harago zihoazen, esaterako, umeen hezkuntza nazionalista burutzea, hezkuntza herriratu, orokortu, herria etorkizunerako prestatu. Baina, proiektu hori 1932 urte arte ez zen errealitate bihurtu, Primo de Riveraren diktadurak, beste egitasmo asko bezala, *Emakume Abertzale Batzaren* garapena eten zuen-eta. Esan bezala, 1932an *Euzko Ikastola Batza* Bilboko *Emakume Abertzale Batzaren* eta *Euzko Gaztediaren* ekimenez sortu zen. Hezkuntza esperientzia hau apala izan arren, zenbait idazlek Euskal Hezkuntzaren Sistemaren hazi gisa ikusi dute, eta, hortaz, euskal nazionalismoak nazioa komunitate moral gisa eraikitzeke lehenengo saio gisa ere bai.

Euskal nazionalismoaren sortze eta sendotze prozesuan, emakumeei atxikitu zitzairen funtzio sozialaren aldaketa kualitatiboa gertatzen da. Sorrerako nazionalismoak euskal emakumeei atxikituriko *komunitate eramaile* izaera

baztertu barik, *Emakume Abertzaleek* nazionalismoaren sendotze prozesuan *kultura igortzailea* izateari ere eutsi zioten. Azken funtzio horrek areagotu zitzakeen aurreko funtzioaren jokabideak *ordezkapenaren zama* izatera

heltzeraino. Alta, gure iritziz, *Emakume Abertzaleen* kasuan hori baino, arindu egin zen zama hori. Are gehiago, euskal nazioaren eraikuntzan funtsezkoa suertatu zen hezkuntza ekimen batean -gerraurreko ikastolan- partaidetza garrantzitsua eta nolabaiteko boterea ere izatera heldu ziren.

Euzko Alderdi Jeltzalea eta Frente Popularraren elkarlanari esker, 1936an, gerra hasita zegoela, Autonomia Estatutua onartu zen. Epe hartako giro politikoan euskal nazionalismoak argi ikusi zuen errepublikari loturik baino ez zela posible estatutua eskuratzea. Horrela, Autonomia Estatutua onetsi, eta berehala Euzko Gobernua eratu zen.

Gerraren amaierak estatu berri baten hasiera ekarri zuen. Gerran oinarrituriko estatu frankistak, lurralde osoan erabateko kontrola ezarriz, adierazpen publikoaren eremua ezabatu, sozializaziorako gune autonomo oro zapaldu, desberdintasuna ukatu, desberdintasunezko sinboloak eta erakundeak disolbatu zituen. Hortaz, zapalkuntza bortitza bizi izan zuten garaituek.

Gerrateondoko lehenengo urteetan, Frankismoaren kontrako oposizio politikoa erbestean kokatzen da, eta honekin batera bai euskal kultura ere. Erbesteak egindako ekarpenak garrantzi handikoak izan ziren, batetik, esparru politikoan legalitate Errepublikarrari eta autonomia estatutuari eustean oroimen historikoari jarraipena ematea eta neurri handi batean kapital historiko eta sinbolikoaren suntsipena sahiestea; bestetik, kultur esparruan, belaunaldi berriei kultur oinordetza igortzea, euskararen heriotza ekidituz.

Hego Euskal Herrian, bitartean, aldaketa ekonomiko, sozial eta kultural anitz gertatu ziren. Gizarte testuinguru berri horretan bai eremu politikoan bai kultur mugimenduan sakoneko aldaketak gauzatzen hasiak ziren. 1959ko uztailaren 31n, *Ekin* eta *Euzko Gaztediko* batzuek *Euskadi Ta Askatasuna (ETA)* izeneko

erakundea eratu zuten. Mugimendu horrek, euskal nazioaren definizio berri bat plazaratzeari eta zabaltzeari ekin ziola, 60ko hamarkadatik aurrerako eremu soziopolitiko eta kulturala iraulkatu zuen. ETA mugimenduak euskal hizkuntza

nazio irizpide gisa hobesteaz gain, akonfesionaltasuna eta independentziazaletasunaren ekarriak egin zituen. Berritasun horiek eta izaera ekintzailea mugimenduaren oinarri ideologikoak ziren, baina, gizarte arazo berriei erantzuteko ez ziren, nonbait, nahikoak eta haien osatu beharra ikusi zen. Oinarri ideologikoak osatzeko ekimen horretan 60ko hamarkadako beste osagai ideologikoen, politikoen eta kulturek erradikaltasuna gehitu zioten proiektu berriari eta erradikaltasun horren eskutik genero diskurso berri bat ere agertu zen. Halere, generoari dagokionez, gerraurreko nazionalismoan somaturiko jokabidearen atal bat ere ageri da, alegia, *kultur igortzailearen* jokabide abertzalea- *komunitate eramaileak* zekartzen diskursoak eta praktika sozialak bigarren maila batean utziak izan ziren, *arraza* ez baitzen naziokidetzaren funtsa-. Hizkuntzak naziokidetasunaren beste osagaiak ordenatzen ditu eta kultur jarduerak, kontzientzia eragiten, nazio politikoa sortzen, nazionalismo politikoari dinamismoa ematen dio eta, beraz, *kultur igortzaile* gisa aritzeak dakar, berez, *subjektu abertzalea* izatea.

Esan bezala, nazionalismo berriak kultur jarduna, kontzientzia eragile gisa, ezinbestekotzat jotzen zuen. 1960ko hamarkada horretan, idazle guztiok bat datoz kultur egitaterik garrantzitsuena izendatzerakoan: ikastolen antolakuntza eta garapena. Ikastolek euskaraz eskolatze masiboari hasiera eman zioten. Euskal Estaturik ezean, euskaraz eskolatzearen derrigortasuna eta doakotasuna ezin ezarri-eta, euskararen ezagutza orokortzeari ekin behar zitzaion naziotasun irizpide berria zabalduz eta, horrela, populazioa erakarritz aipatu proiektura euskaraz eskolatzeko. Hona hemen euskal nazionalismoaren bigarren saioa nazioa komunitate moral gisa eraikia izan dadin.

Hezkuntza ekimen horren aurrekariak, *etxe eskolak*, *Emakume Abertzale Batzako* emakumeen sarearen bitartez antolatutakoak izan ziren. Ikastoletan aritu ziren andereñoek, aipatu bide horretatik zein beste batzuetatik etorritakoak, nolabaiteko *mugimendu* bat eratu zuten. Andereñoen mugimendu horrek

ikastoletako hasierako eta funtsezko ibilbidea ezaugarritu zuen. Eta, funtsezko ibilbidea diogu, nazionalismo osoak oroimen historikoaren osagai bihurtu baititu bai ikastoletako ibilbidea eta bai andereñoen jarduna ere. Jarduna

abertzalearen kariaz, andereño guztiak subjektu abertzale gisa ikusiak ziren, bestelako ezaugarririk ikustezinak eginez. Baina, den-denak subjektu abertzale gisa aritu arren, emakume desberdinak, andereñoen irudi desberdinetan ordezkatuak, ageri ziren ere.

Euskal nazioaren eraikitze prozesua eraginik handien izan duen aldaketa politikoa euskal Herriko Hegoaldean gertatzen da frankismoaren amaierarekin. Transizio politikoan, 1978an, ebatzi zen konstituzioak Autonomia Estatua izeneko Estatu deszentralizatu bat definitzen du, egitura deszentralizatu horretan hamazazpi komunitate autonomoak ageriz. Komunitate horiek bi taldetan banatuak izan ziren, alde batetik, nazionalitate historikoak, gerraurrean erreferendumaren bidez autonomia estatutu bat lortu zutenak: Catalonia, Hegoaldeko Euskal Herria(berriro ere, hiru herrialdez osatua soilik) eta Galiza. Bestetik, beste hamalau komunitate zeuden. Autonomia Estatutuaren erreferenduma 1979an izan zen. Estatutuak ezarri zuen, Euskal Autonomia Erkidegoa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herrialdeekin, osatzen zela, baita Nafarroarekin ere, beronek, konstituzioak ezarritako aukera baliatuz gero, halaxe erabakiko balu. 80ko hamarkadaren hasieran ere, Nafarroa eraketa autonomikoaz hornitu zen. Kasu honetan hobetsitako prozedura Foruaren Hobekuntza izan zen eta, hortaz, ez zen erreferendumik gauzatu. Foru Hobekuntzan esplizituki baieztatu da Nafarroa espainiar nazioaren zati dela eta ez da inolako aipurik agertzen gainerako hiru herrialdeekin bat egiteko aukeraz. Horrela, Euskal Herria orotara hartuta, hiru administraziotan zatitua dago eta elkarren arteko harremanak gero eta zailagoak dira eta urriagoak, baita hegoaldean ere. Zatiketa administratibo horrekin harremanetan ulertu behar da, euskal lurralde desberdinetan, nazio komunitate eraikitze prozesuaren urratsak eskuratu dituzten arrakasta maila desberdinak. Horrela, lehenengo pausoari, hizkuntza antzina nazio hizkuntza bihurtzeari dagokionez, honako egoera desberdinekin aurkitzen gara: Iparraldean euskarak ez du ofizialtasunik lortu,

Nafarroan eremu euskaldunetan baino ez du estatus hori, eta Autonomia Erkidegoan euskarak lortu duen estatusa baikorragoa bada ere, ez du, oraindik, prozesu honek eskatzen duen estatusa. Bigarren pausoari dagokionez,

euskararen irakaskuntza orokortzetik oraindik urrun gaude, Euskal Autonomia Erkidegoan bide erdia ibilia bada ere, Nafarroako zein Iparraldeko datuak oso apalak dira. Beraz, hirugarren pausotik, nazio hezkuntza sistema osoa izatetik, oraindino, urrun gaude. Euskararen irakaskuntza orokortze prozesu horretan, ikastolaren aitzindaritzza dela eta haren irakasleriak bizi dituen esperientziak aztertuak izan dira. Azterketa horrek agerian utzi du ikastolen hastapenetan, Bizkaian eta Gipuzkoan, emakumeek izandako protagonismoa nazio komunitatea sortzen.

Egun, Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntzaren beste sareetan emakumeen kopurua handia bada ere, ikastoletan, oraindik ere, handiagoa da. Aintzat harturik, transizioaldian gertatutako aldaketa guztiak, 1990eko hamarkadan EAEko ikastoletan lanean ari diren andereñoen iritziak ezagutu nahi izan da. Ezagutza hori eskuratzeko lagungarria izango zelakoan, aurretik, ikastolen bilakabide historikoan andereñoen jardunak izan dituen ezaugarri desberdinen berri izan dugu, une desberdinetan ibilitako andereñoek esanen bitartez.

Horrela, agerian gelditu da 1960ko hamarkadan euskara berreskuratzearen eta orokortzearen aldeko andereñoen jarduna hizkuntzaren auziak zeukan izaera politiko berak ezaugarritzen zuela. Gainera, zenbait kasutan lan eremu horri gehitu behar zitzaizkion erakunde politiko zein gizarte mugimenduen eremuak. Hurrengo hamarkadan gertatuakoak zirela eta, hala nola, hizkuntzaren auziari zein ikastolaren jardunari buruzko diskurtso desberdinen agerpena, ikastolen hazkundeak antolaketa zein funtzionamendu mailetan ekarritako konplexotasuna, ikastolen estamentuen arteko erlazioen aldaketa, militantez osaturiko mugimenduan gatazka gorpuzten eta lan militante hori arintzen joan zen. Militantzia arintze joera hori azkartu zuten transizioaldi politikoan gertatu ziren aldaketa politikoek eta sozialek, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoan ikastolak legalki babestu eta, aldi berean, eskola publikoan

hizkuntza ereduak ezartzea; horrek eskola horren irakasleria euskalduntze eta alfabetatze prozesua ekarri zuen. Halaber, langabeziak ezaugarritutako epe batean, euskara, eskola hizkuntza egina eta, beraz, prestigiodun hizkuntza

izateak, ikastola eta eskola lan eskaintza handia dauden eremu gisa agertzea ekarri zuen. Gertakizun horrekin loturik euskara berreskuratzearen inguruko diskursoa hare politikotik atera eta euskaraz irakastea zein euskara irakastea borondate eta militantzia mailetatik aldendutako jardunak bezala aurkeztuak dira, beren profesionalizazioaren aldeko diskursoa nagusituz. Azken diskurso hori, mugimendu feministak arrakastaz sozializatutako zenbait ideiak indartzen zuen. Horrela, Emakumeen Euskal Erakundeak (Emakundek) eta emakumeen talde desberdinek, ordaindua den lan eremuan dauden emakumeei buruz ari zirela -modu desberdinez ari baziren ere-, eskubideaz eta soldata berdinez hitz egiten zuten, militantzia eta borondatezko lanetik urrun dauden emakumeen irudiak gizarteratuz.

Horren guztiaren kariatz, andereño batzuek -60ko eta 70eko hamarkadan lanean hasitakoak-, euren lana funtzionarizazio bidean ikusten dute, baina beren iritzi, orain ere, euskararen aldeko *militantziaren* beharra dago. Beste batzuek, ordea, euren jarduna despolitizatu gisa aurkeztu guran, andereñoak ikastoletako langileak direla diote, irakasleak beste barik, eskoletan ari diren bezalakoak. Alabaina, ikastoletako andereñoen jardunari, lehen baino gutxiago bada ere, kutsu militante apala onartzen diona ere, badago.

Jakina denez, diskurtso subjektibo horietan jasotakoa ez dago orokortzerik. Bai, ordea, galdekizunaren bitartez erdietsi dugun informazioa. Landa lan horren atal kuantitatiboaren abiapuntua bikoitza izan da: batetik, goian aipatutako arrazoi horiek guztiek andereñoen gizarteratze lana eragiten dute, euren lanaz dituzten iritzi eta jarreretan desberdintasun nabarmenak agertaraziz; bestetik, zio horien artean bereziki feminismoek gizarteratutako emakumeei buruzko irudi eta praktika desberdinek badutela zer esatea andereñoek euren lanaz dituzten iritzi eta jarreretan.

Lehenengoari dagokionez, bildutako datuen argitan baieztu dezakegu, euskaldunok eraikitako eskola ereduan irakastearekiko, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastoletan ari direnen andereñoek iritzi eta jarrera desberdinak izan

badituztela. Iritzi eta jarrera desberdin horiek *adinak, aintzinakotasunak eta aukera politikoak* azalduz eta ez, ordea, *euskaltzaletasunak*. Azken aldagai horren arabera, badirudi jokabide euskaltzalea bideragarria dela ere irakaskuntzaren beste eremu batean. Horrela, lan baldintza hobeak edota profesional mailan ahalbide gehiago eskeiniz gero beste ikastetxe batean, ikastola utziko luketenak eta geldituko liratekeen artean euskaltzaletasunak ez ditu desberdintasunak ezartzen. Bai, aldiz, adinak, aintzinakotasuna eta aukera politikoak.

Bigarrenari dagokionez, behin frogaturik andereñoen artean genero diskurso berriak daudela, *berdintasunezko genero diskurso* izen pean taldekatu ditugunak, azken honen ustezko eragina irakaste lanean eta ikastolako irakaste lanean aztertzeari ekin diogu. Azterketa horretan jasotako datuen arabera, *beste lan arlotik lan hobe baten proposamenaren aurrean irakaskuntza uzteko erabakian* genero diskursoak ez du eraginik handirik ez bada lanean denbora gehien daramatenen artean. Baina, *beste ikastetxe batetik lan hobe baten proposamenaren aurrean ikastola uzteko erabakian, berdintasunezko genero diskursoak* ez du eraginik ez gazteenen artean ez ikastolan denbora gutxi daramatenen artean ezta *Euzko Alderdi jeltzaleen* gogaideen artean ere. Ordea, badirudi nolabaiteko eragina duela 31 urte baino gehiago dutenengan, bai ikastolan denbora gehien daramatenengan eta bai *Herri Batasunaren* botuemaileengan, *abstenitu* direnengan eta aukera politikoa aitortu ez dutenengan ere.

Horrela, esan bezala, andereño hauen *irakaskuntza uzteko* erabakian genero diskursoak ez badu eragin handirik ezartzen, bai ezartzen duela, aldiz, *beste ikastetxe batetik lan proposamen hobe bat jasoz gero ikastolatik alde egiteko* erabakian.

Bestalde, ikusi bezala, andereño batzuentzat(%39,5) ikastola ez da euskararen gordailu bakarra, alegia, ikastolan bezala beste hezkuntza eremuetan ere euskara irakatsi eta zabaldu daiteke eta, ondorioz, ikastolatik alde egiteak ez dakar, berez, subjektu abertzale izateari uztea. Are gehiago, subjektu izateari

abertzaletasunaren eremuaz gain, gehitzen zaizkio emakume hauek nahi beste eremu. Halaber, azken horrek ikastoletan geldituko liratekeenei(%39,5) ez die ukatzen subjektu abertzale izateaz gain subjektu osoa izateko gaitasuna, beraiek horrela gura izanez gero. Ezin ahantzi haien artean ia erdiak berdintasunezko genero diskursoa partekatzen duela. Azken honek erakusten du ere, andereño horiek lan egoera hobetzeari baino, ikastolan irakasteari lehentasuna eman diotela. Antza, ikastolan irakastea ala eskolan irakastea ez da berdina eurentzat.

BIBLIOGRAFIA

- ABBOT, P. eta WALLACE, C. (1990). *An introduction to Sociology*. Feminist perspectives. London, Routledge.
- ABDO, N. (1991). Women of the intifada: gender, class and national liberation. *Race & Class* 32,4: 19-34.
- ACKER, J. (1989). The Problem with Patriarchy. *Sociology* 23, 2.zbk: 235-240.
- ACKER, J. (1992). Gendered Institutions. *A journal of reviews: Contemporary Sociology*. 21: 565-568.
- ACKER, S. (1980). Women the other academics. *British Journal of Sociology of Education* 1: 81-91.
- ACKER, S. (1987). Feminist Theory and the study of Gender and Education. *International Review of Education*: 419-435.
- ACKER, S. (1988). Teachers, gender and Resistance. *British Journal of Sociology of Education* 9 n°3: 307-322.
- ACKER, S. (1989). *Teachers, Gender & Career*. London, Falmer Press.
- AGUIRRE ELUSTONDO, J. A. (1969). *Así está la enseñanza primaria. Hablan los maestros*. Madril, Maribel, Artes Gráficas.
- AKKERMAN, T. (1992). Nationalism and Feminism: The unknown soldier and the new Heloise” *History of European Ideas* 15: 649-654.
- AKZIN, B. (1968). *Estado y Nación. Mexico*, Fondo de Cultura Económica.
- ALCEDO, M. (1996). *Militar en ETA*. Donostia, Haranburu.
- ALVAREZ DORRONSORO, I. (1993). *Diversidad cultural y conflicto nacional*. Madril, Talasa argitaletxea.
- AMEZAGA, A. (1980). *La mujer vasca. Euskadi y su historia*. Bilbo, GEU.
- AMEZAGA, J. (1994). *Herri Kultura: Euskal Kultura eta Kultura popularra*, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- AMOROS, C. (1985). *Hacia una crítica de la razón patriarcal*. Bartzelona, Anthropos.
- AMURRIO, M. (1991). La situación socioprofesional de las andereños de ikastolas de la Comunidad Autónoma del País Vasco. *La sociología de la Educación en España*. J. M. Sánchez. Madril, Gráficas Juma: 300-304.

- AMURRIO, M. (1992). Los discursos de género y las andereños de las ikastolas, IV Congreso Español de Sociología. Area de Sociología del Género.
- ANDERSON, P. (1994). *El Estado absolutista*. Madril, Siglo XXI.
- APALATEGI, J. (1985). *Los vascos de la autonomía a la Independencia*. Donostia, Txertoa.
- APALATEGI, J. eta PALACIOS, X.(1985). *Identidad Vasca y Nacionalidad*. Gasteiz, Nazionalismo Konparatuen Ikasketerako Institutua.
- APAOLAZA, J. M. (1997). Procesos de construcción nacional. Contradicciones en el seno del "nosotros". Género, clase y etnia en los nuevos procesos de globalización. Maquieira V., Vara M. J. Madril, Instituto Universitario de Estudios de la Mujer. Ediciones de la Universidad Autónoma de Madrid.
- APPLE, M. W. (1989). *Maestros y Textos*. Bartzelona, Paidós.
- ARDENER, S. (1975). *Perceiving Women*. London, Malaby Press.
- ARETXAGA, B. (1988). *Los funerales en el nacionalismo radical vasco*. Donostia, Primitiva Casa Baroja.
- ARETXAGA, B. (1996). ¿Tiene sexo la nación? Nación y género en la retórica política sobre Irlanda. Arenal 3, 2.zbk.: 199-216.
- ARETXAGA, B. (1997). Protesta sucia: sobredeterminación simbólica y género en la violencia étnica de Irlanda del Norte. biTarte 13: 45-67.
- ARKOTXA, A. (1987). Emaztearen rola Arestiren narratiban. Jakin 42-43.
- ARON, R. (1987). *Las etapas del pensamiento sociológico*. Buenos Aires, Ediciones siglo veinte.
- ARPAL, J., ASUA, B. eta DAVILA P. (1982). *Educación y Sociedad en el País Vasco*. Donostia, Txertoa.
- ARREGI GOENAGA, F. (1998) Socialización y escuela en sociedades bilingües y biculturales. Inguruak 21: 49-71.
- ARRIEN, G. (1987). *Educación y Escuelas de Barriada de Vizcaya. Escuela y Autonomía. 1898-1936*. Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia.
- ARRIZABALAGA, J. eta CARBONELL, A. (1993). *Emakumea: sexua ala generoa?* Bilbo, UEU.
- ATENCIA, J. M. (1995). *Hombre y Ciencia en A. Comte*. Malaga, Agora.

- AZPIAZU, J. A. (1995). *Mujeres vascas. Sumisión y poder*. Donostia, Haranburu.
- AZURMENDI, J. (1971). *Hizkuntza, etnia eta marxismoa*. Baiona, Euskal Elkargoa.
- AZURMENDI, J. (1977). *Euskaldunari. Euskal idazleak gaur. J. Editorial franciscana de Aranzazu*. Donostia, Lan Kide Aurrezki Kutxa.
- AZURMENDI, J. (1985). Irakaskuntza eta Pentsamendua Euskal Herriko historian. Euskal Herria, Historia eta Gizartea. J. Intxausti. I: 357-386.
- BANASZAK, L. A. eta PLUTZER E. (1993). The social bases of feminism in the european community. *Public Opinion Quarterly* 57: 29-53.
- BARNARD, F. M. (1983). National Culture and Political Legitimacy: Herder and Rousseau. *Journal of the History of Ideas* XLIV, 1zka.: 231-253.
- BARNAVE, A. eta MEILHAN S. (1990). *Dos interpretaciones de la Revolución Francesa*. Madril, Centro de Estudios Constitucionales.
- BARREIRO, H. (1987). La educación como cuestión de Estado. De Platon a la ilustración francesa. *Historia de la educación* 6: 161-169.
- BARREIRO, H. (1988). Reflexiones actuales en torno al antes y el después de la revolución de 1789. La constitución de los sistemas educativos contemporaneos. *Revista interuniversitaria de historia de la educación*. 7: 19-35.
- BARRET, M. (1980). *Women's Oppression Today*. London, Verso.
- BASTERRA, J. (1989). Andereñoen erresidentzia, eredu pedagogiko baten iturburua. *Egin*(1989-12-15). Hernani: 44.
- BASURCO, F. (1989). La normalización de la Ikastola: Breve historia y estado de la cuestión. *Historia de la Educación* 8: 139-165.
- BASURCO, F. (1990). Ikastolaren normalizazioaren historia labor bat. *Tantak* 4: 33-61.
- BASURCO, F. eta IZTUETA P-bil- (1993). *Euskal Eskola Berria*. Donostia, Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Teoria eta Historia saila.
- BAXOK, E. (1997). Soziolinguistikazko inkestaren irakaspen batzu. *BAT. Soziolinguistika aldizkaria* 22/23 zka.: 15-27.

- BAXTER, J. (1992). Las mujeres y el análisis de clase: una perspectiva comparada. *Política y Sociedad* 11: 85-97.
- BEAUVIOR, S. d. (1970). *El segundo sexo*. Buenos Aires, Siglo XXI.
- BEECHEY, V. (1994). *Género y trabajo: replanteamiento de la definición de trabajo. Las mujeres y el trabajo*. Bartzelona, Icaria.
- BEJAR, H. (1988). *El ámbito íntimo. Privacidad, individualismo y modernidad*. Madril, Alianza.
- BENDIX, R. (1964). *Estado nacional y ciudadanía*. Buenos Aires, Amorrortu Editores.
- BENTON, S. (1995). Women Disarmed. *Feminist Review* 50: 148-172.
- BERGER GLUCK, S. (1995). Palestinian women: gender politics and nationalism. *Journal of Palestine Studies* XXIV 3: 5-15.
- BERGER, P. L. (1993). *Soziologiarako gonbitea*. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- BERGER, P. L. eta BERGER B. (1972). *Sociology. A biographical approach*. New York, Penguin Books.
- BERICAT ALASTUEY, E. (1998). *La integración de los métodos cuantitativos y cualitativos en la investigación social*. Bartzelona, Ariel.
- BERNARD, J. (1981). *The Female Word*. New York, Free Press.
- BERNSTEIN, B. (1990). *Poder, Educación y Conciencia. Sociología de la Transmisión Cultural*. Barcelona, El Roure.
- BLAS de GUERRERO, A. (1994). *Nacionalismos y naciones en Europa*. Madril, Alianza.
- BLOOM, A. (1989). *El cierre de la mente moderna*. Bartzelona, Plaza & Janes.
- BLOOM, A. (1990). *Gigantes y Enanos: interpretaciones sobre la historia sociopolítica de occidente*. Bartzelona, Gedisa.
- BORCELLE, G. (1983). *La igualdad de oportunidades para las jóvenes y las mujeres en la enseñanza técnica, la formación profesional y el empleo*. Bartzelona, Unesco.
- BORDERIAS, C., CARRASCO C. eta beste batzuk (1994). *Las mujeres y el trabajo. (Rupturas conceptuales)*. Bartzelona, Icaria.
- BORJA, M. (1981). *Carreras y sexos*. Bartzelona, Gráficas Diamante.

- BOURDIEU, P. (1999). *La dominación masculina*. Barcelona, Anagrama.
- BRADLEY, H. (1989). *Men's Work, Women's Work*. Oxford, Blackwell publishers.
- BREMBECK, C. S. (1977). *Sociología de la Educación*. Buenos Aires, Paidós.
- BREULLY, J. (1990). *Nacionalismo y Estado*. Barcelona, Pomarés-Corredor.
- BRUBAKER, R. (1992). *Citizenship and Nationhood in France and Germany*. Cambridge, Harvard University Press.
- BUTLER, J. (1990). *Gender Trouble*. New York, Routledge, Chapman & Hall, Inc.
- CAMARA VILLAR, G. (1984). *Nacional-Catolicismo y Escuela. La socialización política del franquismo (1936-1951)*. Jaén, Hesperia.
- CAMPO, d. S. (1988). *Tratado de Sociología*. Madrid, Taurus.
- CAMPOS, A. eta MENDEZ, L. (1993). *Teoría feminista: identidad, género y política*. Donostia, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- CANAL, J. (1997). *La gran familia carlista. Estructura e imágenes familiares en la cultura política carlista*. Cultura y movilización en la España Contemporánea. Perez Ledesma, M./Cruz, R. Madrid, Alianza Universidad.
- CANOVAN, M. (1987). *Rousseau's Two Concepts of Citizenship. Women in western political philosophy*. Kennedy E./ Mendus S. Brighton, Praeger.
- CARO BAROJA, J. (1974). *De la vida rural vasca*. Donostia, Txertoa.
- CEA D'ANCONA, M. A. (1996). *Metodología cuantitativa. Estrategias y técnicas de investigación social*. Madrid, Síntesis.
- CHATTERJEE, P. (1989). Colonialism, nationalism, and colonized women: the contest in India. *American ethnologist* 16 (4).
- CHINOY, E. (1969). *La sociedad*. Mexico, Fondo de Cultura Económica.
- CHODOROW, N. (1999). *The reproduction of mothering: psychoanalysis and the sociology of gender*. Berkeley, California, University of California Press.
- CLAVAL, P. (1991). *Els mites fundadors de les ciències socials*. Barcelona, Herder.
- COBO, R. (1995). *Fundamentos del Patriarcado Moderno*. Madrid, Catedra.
- COLLIER, J. F. eta YANAGISAKO, S.J. (1989). Theory in Anthropology since feminist practice. *Critique of Anthropology* 9 nº2: 27-37.

- COMMITTEE, B. S. A. (1986). Teaching gender-struggle and change in Sociology. *Sociology* 20 n°3: 437-361.
- COMTE, A. (1980). *Discurso sobre el espíritu positivo*. Madril, Alianza.
- COMTE, A. (1982). *Catecismo Positivista*. Madril, Editora nacional.
- CONDE, F. J. (1951). Sociología de la sociología. Los supuestos históricos de la sociología. *Revista de Estudios Políticos* 58: 15-29.
- CONDE, F. J. (1952). Sociología de la sociología. La Revolución. *Revista de Estudios Políticos* 65: 15-35.
- CONDE, F. J. (1953). Sociología de la sociología. El teorema político de la concurrencia de Rousseau. *Revista de Estudios Políticos* 68: 2-31.
- CONNELL, R. W. (1990). The state, gender and sexual politics. *Theory and Society* 19: 507-544.
- CONNELL, R. W. (1994). Can sociology make theoretical sense of gender? *A Journal of reviews: Contemporary Sociology* 23, n°1.
- CONNOR, W. (1978). A nation is a nation, is a state, is an ethnic group, is a...., *Ethnic and Racial Studies* 1-4: 377-400.
- CONNOR, W. (1998). *Etnonacionalismo*. Madril, Trama Editorial.
- CORCUERA ATIENZA, J. (1979). *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco, 1876-1904*. Madril, Siglo XXI.
- CORNELL, L. L. (1990). Constructing a Theory of the Family: From Malinowski through the Modern nuclear Family to Production and reproduction." *International Journal of Comparative Sociology* XXXI, 1-2.
- CROMPTON, R. (1986). Credentials and careers: some implications of the increase in professional qualifications amongst women. *Sociology* 20 n°1: 25-42.
- CROMPTON, R. (1987). Gender, Status and Professionalism. *Sociology* 21 n°3: 413-428.
- CROMPTON, R. (1993). *Clase y Estratificación*. Madril, Tecnos.
- CROMPTON, R. eta MANN M. (1986). *Gender and Stratification*. Cambridge, Polity Press.
- CUMMINS, J. (1986). *Informe sobre Planificación lingüística Educativa en el País Vasco*. Argitaratugabea.

- DALLA COSTA, M. eta JAMES S. (1972). *The Power of Women and the Subversion of the Community*. Bristol, Falling Wall Press.
- DAVIES, C. (1993). Women and a Redefinition of Argentinian Nationhood. *Bulletin of Latin America Research* 12, 3.zbk: 333-341.
- DAVILA, P. (1988). El problema vasco en educación: conflicto y control de la enseñanza en el País Vasco. *Poder y control* 1: 43-52.
- DELPHY, C. (1982). *Por un feminismo materialista. El enemigo principal y otros textos*. Cuadernos inacabados 2-3.
- DEUSTSCH, K. W. (1966). *Nationalism and social communication: an inquiry into the foundations of nationality*. Cambridge, MIT Press.
- DEUTSCH, K. W. (1971). *El nacionalismo y sus alternativas*. Buenos Aires, Paidós.
- DIAZ-DIOCARETZ, M. eta ZAVALA I. M. (1993). *Breve historia feminista de la literatura española(en lengua castellana). Teoría feminista: discursos y diferencia*. Madrid, Anthropos.
- DIEZ del CORRAL, L. (1989). *El pensamiento político de Tocqueville*. Madrid, Alianza.
- DUNCAN MITCHELL, G. (1988). *Historia de la Sociología*. Barcelona, Labor.
- DUPLAA, C. (1989). *La figura femenina como un elemento legitimador del poder hegemónico de una cultura nacional. Mujeres y Hombres en la formación del pensamiento occidental: actas de las VII Jornadas de investigación Interdisciplinar*. Madrid, Universidad autónoma de Madrid.
- DURAN, M. A. (1972). *El trabajo de la mujer en España*. Madrid, Tecnos.
- DURAN, M. A. (1977). *Dominación, sexo y cambio social*. Madrid, Artes Graficas Iberoamericanas.
- DURKHEIM, E. (1976). *Educación como socialización*. Salamanca, Sígueme.
- DURKHEIM, E. (1987). *El socialismo*. Madrid, Akal.
- DURKHEIM, E. (1992). L'enseignement de la morale à l'école primaire" *Revue française de sociologie* XXXIII: 609-623.
- DURKHEIM, E. (1993). *Hezkuntza eta soziologia*. Bilbo, Klasikoak.

DURKHEIM, E. (1993). *La división del trabajo social*. Barcelona, Planeta-De Agostini.

EGIDO GALVEZ, I. eta HERNANDEZ BLASI C. (1989). Dinamarca: quince años de reforma educativa. Cuadernos de Pedagogia 176: 77-89.

EHREINREICH, B. eta ENGLISH, D. (1979). *For Her Own Good*. London, Pluto.

EIZAGIRRE, L. eta DAVILA, P. (1991). Alfabetatzea Euskal Herrian: Ikuspegi historikoa. ELE 8.

ELIZONDO LOPETEGI, A. (1999). *La presencia de las mujeres en los partidos políticos de la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

ELKARLANEAN (1932). *Informe de la gestión del primer ejercicio presentado por la junta de gobierno de Euzko Ikastola Batza: 1932-33*.

ELKARLANEAN (1982). "Nuevas perspectivas sobre la mujer." Actas de las primeras jornadas de investigación interdisciplinar.

ELKARLANEAN (1985). "Mujer y Sociedad." Donostiako Udako IV Ikastaroak.

ELKARLANEAN (1985). *Zipitria'tar Elbire Andereñoa. Omenaldia*. Tolosa, Euskarazaintzak.

ELKARLANEAN (1986). *El uso del espacio en la vida cotidiana*. Madrid, Seminario de estudios de la mujer. Universidad Autónoma de Madrid.

ELKARLANEAN (1988). *Julene Azpeitia ehun urte mugan, 1888-1988*. Zumaia, Zumaiaiko udaletxea.

ELKARLANEAN (1988). The social role and evolution of the teaching profession in Historical context. Bulletines of the faculty of Education. University of Joensuu. Conference papers for the History of Education. Volume V.

ELKARLANEAN (1988-91). *Irakaskuntzaren estatistika. 1988-91*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

ELKARLANEAN (1991). *La Sociología de la Educación en España. Actas de la I Conferencia de Sociología de la Educación*. Madrid, Gráficas Juma.

ELKARLANEAN (1991ko uztaila). "Ikastolaren etorkizunaz." Larrun 10 zka.

- ELKARLANEAN (1992). Symposium on Dorothy Smith. *Sociological Theory* 10: 60-88.
- ELKARLANEAN (1993). *Teoría feminista: Identidad, género y política*. Donostia, EHUKO argitarapen zerbitzua.
- ELKARLANEAN (1994). *The Anthropology of Europe*. Oxford/ Providence, Berg.
- ELKARLANEAN (1996). *Genero y construcción nacional: una perspectiva internacional*. Arenal. *Revista de historia de las mujeres*. 3, nº2, julio-diciembre.
- ELKARLANEAN (1996). *Mujeres y Hombres en la formación de la Teoría Sociológica*. Madril, CIS.
- ELKARLANEAN (1996). *Perspectivas feministas en teoría política*. Bartzelona, Paidós.
- ELKARLANEAN (1997). *Filosofía Política I. Ideas Políticas y movimientos sociales*. Madril, Trotta. Consejo Superior de Investigaciones Científicas.
- ELORZA, A. (1978). *Ideologías del nacionalismo vasco*. Donostia, Haranburu.
- ELORZA, A. (1978). La mujer en el nacionalismo vasco. *Tiempo de Historia* 38: 17 orr.
- ELSHTAIN, J. B. (1986). *Meditations on Modern Political Thought*. New York, Praeger.
- ELSHTAIN, J. B. (1987). *Feminist Political Rhetoric and Women's Studies*. The Rhetoric of the Human Sciences. J. Megill/Mclosky.D. Wisconsin, University Press.
- ENGELS, F. (1992). *El origen de la Familia, la Propiedad Privada y el Estado*. Bartzelona, Planeta-De Agostini.
- ERIKSON, E. H. (1989). *Identidad*. Madril, Taurus.
- ETXEARRIA, F. (1990). Euskal Curriculum berezia. *Tantak* 4: 73-88.
- EVETTS, J. (1987). Becoming career ambitious. *Educational review* 39: 15-29.
- EVETTS, J. (1988). Returning to Teaching. *British Journal of Sociology of Education* 9 nº1: 81-96.
- EVETTS, J. (1993). Careers and partnerships: the strategies of secondary headteachers *The Editorial Board of the Sociological Review*(303-327).

- FELDBERG, R. eta GLENN E.N. (1979). Male and female: Job versus Gender models in the Sociology of work. *Social Problems* 26: 524-538.
- FERNANDEZ, I. (1993). Gerraondoaren Historia luzea: euskal eskolagintza. *Uztaro* 9: 59-88.
- FERNANDEZ, I. (1994a). *Oroimenaren hitza: Ikastolen Historia 1960-1975*. Bilbo, UEU.
- FERNANDEZ, I. (1994 b) Emakumea, hezkuntza eta nazioa Euskal Herrian. *Jakin* 83: 29-47.
- FESTINGER, L. eta KATZ D. (1979). *Los métodos de investigación en las ciencias sociales*. Buenos Aires, Paidós.
- FIRESTONE, S. (1974). *The Dialectic of Sex: the case for Feminist Revolution*. New York, Morrow.
- FISHMAN, J. A. (1973). *Language and Nationalism*. Rowley, Newbury House.
- FOX KELLER, E. (1991). *Reflexiones sobre Género y Ciencia*. Valencia, Alfons el Magnànim.
- GADOL, J. K. La doble perspectiva de la teoria feminista. Una apostilla al Congreso sobre "Mujeres y Poder Mientras Tanto: 155-166.
- GARCIA de LEON, M. A. (1990). *Cincuenta años de bibliografía sobre las mujeres en España, 1940-1990.(Análisis sociológico de la constitución de un nuevo campo científico, los "Estudios sobre las mujeres")*. Actas de la I Conferencia de sociología de la educación.Madril, Gráficas JUMA.
- GARCIA GUITIAN, E. (1999). *Ciudadanía y Género: posibilidades de análisis desde la teoria política*. Género y Ciudadanía. Revisiones desde el ámbito privado. Ortega, M Sanchez C. eta Valiente C. Madril, Instituto Universitario de estudios de la mujer.
- GARMENDIA, M. K. (1992). Euskal Kultura 1992. *JAKIN* 73: 45 orr.
- GARMENDIA, V. (1985). *La ideologia Carlista (1868-1876). En los orígenes del nacionalismo vasco*. Zarautz, Gizpuzkoako Foru Aldundia.
- GELLNER, E. (1988). *Naciones y nacionalismo*. Madril, Alianza Universidad.
- GELLNER, E. (1996). Do nations have navels? *Nations and nationalism* 2.
- GELSTHORPE, L. (1992). Response To Martyn Hammersley's paper 'on feminist methodology. *Sociology* 26 n°2: 213-218.

- GEREÑO, X. (1982). *Andereño*. Donostia, Kriseilu-Haranburu editorea.
- GIDDENS, A. (1977). *El capitalismo y la moderna teoría social*. Bartzelona, Labor.
- GILLIGAN, C. (1982). *In a Different Voice*. Cambridge, M. A., Harvard University Press.
- GINER, S. (1992). *Historia del pensamiento social*. Bartzelona, Ariel.
- GINSBERG, M. (1961). *Nationalism. A Reappraisal.*, Leeds University Press.
- GODDARD, V. A., LIOBERA, J. eta beste batzuk (1994). *The Anthropology of Europe*. Oxford, Berg Publishers.
- GOFFMAN, E. (1977). The arrangement between the sexes. *Theory and Society* 4: 301-311.
- GÖLE, N. (1991). *Musulmanas y modernas*. Madril, Talasa.
- GOMEZ BARNUSELL, A. (1972). *El magisterio como profesión*. Barcelona, Ariel.
- GONZALEZ, A. eta MADRID J.M. (1988). El rapport Condorcet y el informe Quintana: estudio básico para un análisis comparativo. *Historia de la Educación* 7: 75-105.
- GOROSTIDI, I. (1999). Euskal Irakaskuntzaren erradiografia. *ARGIA* 1.699 zka.: 16-25.
- GRANJA SAINZ, J. L. (1986). *Nacionalismo y II República en el País Vasco*. Madril, Centro de Investigaciones sociológicas.
- GRANT, R. (1987). A career in teaching: a survey of middle school teachers. *British Educational Research Journal* 13 part 3: 227-239.
- GREENFELD, L. (1992). *Nationalism. Five roads to modernity*. Cambridge, Harvard University Press.
- GUERRERO SERON, A. (1996). *Manual de sociología de la educación*. Madril, Editorial Síntesis.
- GURRUTXAGA, A. (1985). *El código nacionalista vasco durante el franquismo*. Bartzelona, Anthropos.
- HALL, C. (1993). Gender, nationalisms and national identities. *Feminist review* 44:97-103.
- HAMILTON, C. (1998). Género y Nacionalismo. *Inguruak* 22: 163-174.

- HAMILTON, C. (1999). *The Gender Politics of ETA and Radical Basque Nationalism, 1959-1982.*, London University.
- HAMILTON, R. eta BARRET M. (1986). *The politics of diversity.* Norfolk, Thetford.
- HAMMERSLEY, M. (1992). On Feminist Methodology. *Sociology* 26 nº2: 187-206.
- HARDING, S. (1981). *What is the Material Base of Patriarchy and Capitalism? Women in Revolution: The Unhappy Marriage of Marxism and Feminism.* L. Sargent. London, Pluto.
- HARSTOCK, N. (1983a). *The feminist standpoint: developing the ground for a specifically feminist historical materialism.* *Discovering Reality.* S. Harding and M. B. Hintikka. Amsterdam, Reidel Publishing Co: 283- 310.
- HARTMANN, I. H. (1980). Un matrimonio mal avenido: hacia una unión más progresiva entre marxismo y feminismo. *Zona Abierta* 24: 85-113.
- HAUPT, G., LÓWY, M. eta beste batzuk (1980). *Los marxistas y la cuestión nacional.*, Madril, Fontamara.
- HENNIS, W. (1981). La nueva ciencia política de Tocqueville. *Revista de estudios politicos* 22: 7-38.
- HERDER, J. G. (1995). *Hizkuntzaren jatorriari buruzko tratatua.* Donostia, Klasikoak 1991.
- HERRANZ de RAFAEL, G. (1992). *La vigencia del nacionalismo.* Madril, Centro de Investigaciones Sociológicas.
- HOBSBAWM, E. (1996). Language, Culture, and National Identity. *Social Research* 63: 1065-1080.
- HOCHSCHILD, A. R. (1983). *The Managed Heart.*
- HORDAGO, E. (1979-1981). *Documentos de ETA.* Donostia, Lur.
- HROCH, M. (1994). Del movimiento nacional a la nación constituida. *Viento Sur* 13.
- HUBER, J. (1990). Macro-Micro links in Gender Stratification. *American Sociological Review* 55 (February): 1-10.
- IGLESIAS, M. C. (1984). *El pensamiento de Montesquieu.* Madril, Alianza.

- IGLESIAS, M. C., ARAMBARRI, J. R. eta beste batzuk (1980). *Los orígenes de la Teoría Sociológica*. Madril, Akal.
- IRAOLA, A. (2000). *Ikastetxeak ez dira irakasleenak, ez eta gurasoenak ere; gizartearenak dira*. Euskaldunon Egunkaria: 17.
- ISASI, X. (1997). Euskarak irauin. BAT Soziolinguistika aldizkaria 22/23: 30-31.
- IZQUIERDO, J., del RIO, O. eta beste batzuk (1988). *La desigualdad de las mujeres en el uso del tiempo*. Madril, Instituto de la Mujer.
- IZQUIERDO, M. J. (1984). Bases materiales del sistema sexo-género. Langaia 6.
- IZQUIERDO, M. J. (1989). ¿ Son las mujeres objeto de estudio para las ciencias sociales? Papers: Revista de Sociología: 51-65.
- IZTUETA, P. (1981). *Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco(1940-1975)*. Zarauz, Elkar.
- IZTUETA, P. (1993). Hizkuntza eta boterea. BAT Soziolinguistika aldizkaria 9:45-55.
- IZTUETA, P. (1995). *Hizkuntza, hezkuntza eta boterea: euskal irakaskuntzaren atarian*. Identidad vasca y Nacionalidad. J. Apalategi and X. Palacios. Gasteiz, Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua.
- IZTUETA, P. (1996). *Intelligentsia kimatuaren orbelak*. Irun, Kutxa Fundazioa.
- IZTUETA, P. eta APALATEGI J. (1974). *Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian*.
- IZTUETA, P. eta APALATEGI J. (1977). *El marxismo y la cuestión nacional vasca*. Zarauz, Itxaropena.
- JAUREGUI BERECIARTU, G. (1981). *Ideología y estrategia política de ETA*. Madril, siglo XXI.
- JENKINS, R. (1994). Rethinking ethnicity: identity, categorization and power. *Ethnic and Racial Studies* 17, nº 2.
- JOLLY, M. (1994). Motherlands? Some notes on Women and Nationalism in India and Africa. Taja. The Australian Journal of Anthropology 5:1-2: 41-59.
- JULIA, D. (1995). *La mujer. El hombre de la Ilustración*. Alianza. Madril.

- KANE, E. W. eta MACAULAY, L.J. (1993). Interviewer gender and gender attitudes. *Public Opinion Quarterly* 57: 1-28.
- KEATING, M. (1996). *Naciones contra el Estado*. Bartzelona, Ariel, S. A.
- KELLY, C. (1993). "Rousseau on the foundation of national cultures." *History of European Ideas* 16: 521-525.
- KENNEDY, E. eta MENDUS, S. (1987). *Women in Western Political Philosophy. Kant to Nietzsche*. Brighton, St. Martin's Press.
- KIMU (1986). Escuelas vascas origen de las ikastolas. *KIMU*: 23-26.
- KOHN, H. (1984). *Historia del Nacionalismo*. Mexico, Fondo de Cultura Economica.
- KOMAROVSKY, M. (1991). Some Reflections on the Feminist Scholarship in Sociology. *Annual Review of Sociology*. 17: 1-25.
- KON, I. (1989). *Historia de la sociologia del siglo XIX- comienzos del XX*. Madril, Progreso.
- KYMLICKA, W. (1995). *Filosofia Politica Contemporanea*. Bartzelona, Ariel.
- LARRAÑAGA, P. (1978). *Emakume abertzale batza. La mujer en el nacionalismo vasco*. Donostia, Auñamendi.
- LARRINAGA, A. (1996). Diskurtsoaren interpretazio markoak. *Inguruak*. 15: 155-178.
- LARRUN (1991). Ikastolaren etorkizunaz. *Larrun* 10.
- LASA APALATEGI, J. (1971). *Euskal erria eta ikastola*. Zarautz, Itxaropena.
- LASLETT, B. eta BRENNER J. (1989). Gender and Social Reproduction: Historical perspectives. *Annual Review of Sociology*. 15: 381-404.
- LERENA, C. (1985). *Materiales de Sociologia de la Educación y de la Cultura*. Madril, Zero kultur talde.
- LETAMENDIA BELZUNCE, F. (1990). *Euskadi Pueblo y Nación*. Donostia, Kriseilu.
- LETAMENDIA BELZUNCE, F. (1994). *Historia del nacionalismo vasco y de E.T.A.* Donostia, R&B Ediciones
- LETAMENDIA BELZUNCE, F. (1994c). *Historia del Nacionalismo Vasco y de E.T.A. E.T.A. y el gobierno del PSOE(1982-1992)*. Donostia, R&B Ediciones.
- LÉVI-STRAUSS, C. (1979). *Antropologia estructural*. Mexico, sigloXXI.

- LEYDESDORFF, S. (1994). La memoria colectiva y el papel de los relatos que las madres cuentan a sus hijas:revisión de la historia europea de postguerra. *Arenal* 1, 1.zka: 39-48.
- LLOBERA, J. R. (1994). *Anthropological approaches to the Study of Nationalism in Europe. The Work of Van Gennep and Mauss*. The Anthropology of Europe. Goddard, V./ LLobera, J./ Shore, C. Oxford, Berg Publishers.
- LLOBERA, J. R. (1996). *El dios de la modernidad. El desarrollo del nacionalismo en Europa occidental*. Bartzelona, Anagrama.
- LOPEZ ADAN, E. (1977). *El nacionalismo vasco en el exilio 1937-1960*. Donostia, Txertoa.
- LOPEZ ADAN, E. (1994). Nazionalismoaren edukin etikoa atzemangarria da? (Euskal Herrian minoria gara, baina ez nolanhikoa...). *Uztaro* 11: 105-133.
- LOPEZ ADAN, E. B. (1974). *El nacionalismo vasco(de 1876 a 1937)*. Hendaia, Mugalde.
- LYON, J. M. (1994). The Herder syndrome: a comparative study of cultural nationalism. *Ethnic and Racial Studies* 17, nº2.
- MACEWEN SCOTT, A. (1994). *Gender Segregation and social change*. Oxford, Oxford university press.
- MACKINNON, C. A. (1995). *Hacia una teoria feminista del Estado*. Madril, Catedra.
- MANIERI, R. (1978). *Mujer y Capital. Tribuna Feminista*. Madril, Debate.
- MARCH CERDA, M. X. (1985). La sociología de la educación: entre la crisis, el fatalismo, la reproducción y el desencanto. *Cuadernos de Realidades Sociales* 25/26.
- MARION YOUNG, I. (1996). *Vida politica y diferencia de grupo: una crítica del ideal de ciudadanía universal. Perspectivas feministas en teoria política*. C. Castells. Bartzelona, Paidós.
- MARTINDALE, D. (1979). *La teoria sociológica. Naturaleza y escuelas*. Madril, Aguilar.
- MATEOS GONZALEZ, S. (2000). *Euskal Nazionalismoa eta Hezkuntza Publikoa: Ikastolen publifikazioa*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

- MATTHEWS, S. H. (1982). Rethinking Sociology Through a Feminist Perspective. *The American Sociologist* 17 (february): 29-35.
- MAYNARD, M. (1990). The re-shaping of sociology? trends in the study of gender. *Sociology* 24 n°2: 269-290.
- MCCALL, L. (1992). Does gender fit? Bourdieu, feminism, and conceptions of social order. *Theory and Society* 21: 837-867.
- McCLINTOCK, A. (1993). *Family Feuds: Gender, Nationalism and the Family*. Feminist review 44.
- MEAD, M. (1993). *Adolescencia, sexo y cultura en Samoa*. Barcelona, Planeta-De Agostini.
- MEES, L. (1994). Nazionalismoa eta bere Teoria. *Uztaro* 11: 15-27.
- MENDEZ, L. (1989). *Breve historia de los Centros de Investigación sobre la Mujer*, Argitaratugabea.
- MERTON, R. K. (1964). *Teoria y estructuras sociales*. Mexico, Fondo de Cultura Económica.
- MEYER, J. eta RUBINSON R. (1975). Education and political development. *Review of research in education*. 3.
- MEYER, J. W. (1977). The effects of education as an institution. *American journal of Sociology*. 83: 55-77.
- MEYER, J. W. eta RAMIREZ. F.O. (1980). Comparative Education: The social construction of the modern world system. *Annual Review of Sociology* 6.
- MEYER, J. W. eta HANNAN M.T. (1979). *National development and the world system*. Chicago, The University of Chicago Press.
- MEYER, J. W., TYACK, D. eta beste batzuk (1979). Public education as Nation-building in America: Enrollments and bureaucratization in The American States, 1870-1930. *American Journal of Sociology* 85.
- MIGUEL, A. de (1995). *Feminismos. 10 palabras clave sobre Mujer*. Lizarra, Verbo Divino.
- MIGUEL, A. de eta COBO R. (1997). *Implicaciones políticas del feminismo*. Filosofía Política I. Ideas Políticas y movimientos sociales. F. Quesada. Madrid, Trotta. Consejo Superior de Investigaciones Científicas.
- MILLET, K. (1995). *Política sexual*. Madrid, Ediciones Cátedra.

- MINOGUE, K. R. (1967). *Nationalism*. London, B. T. Batsford.
- MIRA, J. F. (1984). *Critica de la nació pura*. València, Edicions Tres i Quatre. Eliseu Climent Editor.
- MIRA, J. F. (1988). *Cultura*. Tratado de Sociología. S. d. Campo. Madril, Taurus.
- MIRANDA de BENITO, B. (1988). *La lengua. Representación y práctica*. Madril, Universidad de Complutense de Madrid.
- MIRANDA de BENITO, B. (1989). *Identidad Colectiva y Reproducción Simbólica*. Sociología del Nacionalismo. A. Perez Agote. Bilbo, EHUKO argitalpen zerbitzua: 247- 251.
- MITCHELL, J. (1974). *La condición de la mujer*. Mexico, Anagrama.
- MOGHADAM, V. (1994). *Gender and National Identity*. London, Zed Books.
- MOLINA PETIT, C. (1992). Hacia un modelo explicativo de la dinámica de los géneros y de la pervivencia del sitio de la mujer. Emakumeari Buruzko Ikerketarako Mintegiak argitaratutako txostena. nº2: 3-22.
- MOLINA PETIT, C. (1994). *Dialéctica feminista de la ilustración*. Barcelona, Anthropos.
- MOLLOY, M. (1995). Imagining(the) Difference: Gender, Ethnicity and Metaphors of Nation. *Feminist review* 51: 94-112.
- MORENO, I. (1991). *Identidades y Rituales. Antropología de los pueblos de España*. Madril, Taurus Universitaria.
- MORENO, L. (1992). *Concurrencia múltiple etnoterritorial: el caso de España*, Consejo Superior de Investigaciones Científicas.
- MORENO, L. (1998). Local y Global: la dimensión política de la Identidad Territorial. *Inguruak* 20: 117-139.
- MORENO SARDA, A. (1989). El discurso académico: ¿sexismo o androcentrismo? *Papers: Revista de Sociología*: 43-49.
- MOSSE, G. L. (1985). *Nationalism and Sexuality: Respectability & Abnormal Sexuality in Modern Europe*. New York, Howard Fertig.
- MOYA, C. (1972). *Burocracia y Sociedad Industrial*. Madril, Edicusa.
- MOYA, C. (1984). *Señas de Leviatán: estado y sociedad industrial. España 1936-1980*. Madril, Alianza.

- MUÑOZ MIRA, J. eta PARRAS CORTES R. (1985). Evolución de la Sociología de la Educación. Cuadernos de Realidades Sociales 25/26.
- MURARO, L. (1992). *Sobre la Autoridad Femenina. Filosofía y género. Identidades femeninas*. Pamiela. Iruña.
- MURILLO, S. (1996). *El mito de la vida privada*. Madril, Siglo XXI.
- NASH, M. (1989). Conceptualización y desarrollo de los estudios en torno a las mujeres: un panorama internacional Papers: Revista de Sociología: 13-31.
- NAVARRO SANDALINAS, R. (1990). *La enseñanza primaria durante el franquismo (1936-1975)*. Bartzelona, PPU.
- NISBET, R. (1969). *La formación del pensamiento sociológico*. Buenos Aires, Amorrortu editores.
- NISBET, R. (1982). *El vínculo social*. Bartzelona, Vicens Universidad.
- NOYA, L. M., ETXAGUE, X. eta beste batzuk (1993). Euskararen presentzia Hego Euskal Herriko hezkuntza-sisteman. UZTARO 9: 89-118.
- NUÑEZ SEIXAS, X. M. (1998). *Movimientos nacionalistas en Europa*. Siglo XX. Madril, Editorial Síntesis.
- O'BRIEN, O. (1994). *Ethnic Identity, Gender and Life Cycle in North Catalonia*. The anthropology of europa. Goddard, V./ LLobera, J.; Shore, Oxford/Providence, Berg: 191-207.
- OACKLEY, A. (1985). *The sociology of housework*. Oxford, Basil Blackwell.
- ODRIOZOLA, J. M. (1992b). Normalizazioaren filosofiaz: euskal pentsakera soziolingustikari ohar kritikoak. Larrun 14: 19-28.
- ORTEGA ESTEBAN, J. (1987). Hacia un modelo historiografico de las historias de la educación nacionales y regionales. Historia de la Educación 6.
- ORTNER, S. (1979). *Es la mujer con respecto al hombre lo que la naturaleza con respecto a la cultura? Antropología y Feminismo*. Bartzelona, Anagrama.
- OSBORNE, R. (1995). *La construcción sexual de la realidad*. Bartzelona, Anthropos.
- PATEMAN, C. (1993). *El contrato sexual*. Bartzelona, Anthropos.
- PEREZ AGOTE, A. (1984). *La reproducción del nacionalismo. El caso vasco*. Madril, Centro de Investigaciones Sociológicas.

- PEREZ AGOTE, A. (1987). *El nacionalismo vasco a la salida del franquismo*. Madril, CIS.
- PEREZ AGOTE, A. (1993). Las paradojas de la nación. *Revista Española de Investigaciones Científicas* 61: 7-21.
- PEREZ AGOTE, A. eta TEJERINA B. (1990). Lengua y actor social. Un enfoque teórico de sus relaciones. *Revista española de investigaciones sociológicas*. 49: 145-159.
- PEREZ DIAZ, V. (1972). *Cambio tecnológico y procesos educativos en España*. Madril, Hora h.
- POPENOE, D. (1989). *Sociology*. New Jersey, Prentice Hall.
- PUELLES BENITEZ, M. (1980). *Educación e ideología en la España contemporánea (1767-1975)*. Bartzelona, Labor.
- PULEO, A. H. (1993). *La Ilustración olvidada. La polémica de los sexos en el siglo XVIII*. Madril, Anthropos.Editorial del hombre.
- RABOTNIKOF, N. (1997). *El espacio público: caracterizaciones teóricas y expectativas políticas*. Filosofía Política I. Ideas políticas y movimientos sociales. F. Quesada. Madril, Trotta. Consejo Superior de Investigaciones Científicas.
- RAMAZANOGLU, C. (1989). Improving on Sociology: The problems of taking a feminist standpoint. *Sociology* 23 n°3: 427-442.
- RAMAZANOGLU, C. (1992). On Feminist methodology: male reason versus female empowerment. *Sociology* 26 n°2: 207-212.
- RAMIREZ, F. O. eta BOLI, J.(1987). The political construction of mass schooling: european origins and worldwide institutionalization. *Sociology of Education* 60 (january): 2-17.
- RAMIREZ, F. O. eta YUN-KYUNG, C. (1990). Citizenship and Gender. *Research in Sociology of Education and Socialization* 9: 153-73.
- RENAN, E. (1988). *¿Qué es una nación?* Madril, Alianza.
- RENAUT, A. (1991). *Logiques de la nation*. Théories du nationalisme. Delannoi, G./ Taguieff. P. A. Paris, Kimé.
- RENZETTI, C. M. eta CURRAN, D. J. (1992). *Women , men and society*. Boston, Allyn & Bacon.

- RIQUER, B. d. (1994). La débil nacionalización española del siglo XIX. *Historia Social* 20: 97-114.
- RITZER, G. (1995). *Teoría sociológica clásica*. Madril, McGraw- Hill.
- RIVERA GARRETAS, M. M. (1994). *Nombrar el mundo en Femenino*. Bartzelona, Icaria, S. A.
- RODRIGEZ, F. (1990). Egungo sistema eskolarraren eraikuntza eta Euskal Eskola Publikoari buruzko Proiektuak direla ta egin beharreko oharpenak. *Tantak* 4: 9-20.
- RODRIGUEZ IBAÑEZ, J. E. (1989). *La perspectiva sociológica. Historia, teoría y método*. Madril, Taurus.
- ROSALDO, M. Z. (1979). *Mujer, cultura y sociedad: una visión teórica. Antropología y feminismo*. Bartzelona, Anagrama.
- ROTH, G. (1990). Durkheim and the Principles of 1789: The Issue of gender Equality. *Telos*.
- ROUSSEAU, J. J. (1978). *Emilio o de la Educación*. Bartzelona, Fontanella.
- ROUSSEAU, J. J. (1980). *Ensayo sobre el origen de la lengua*. Madril, Akal.
- ROUSSEAU, J. J. (1985). *Contribución a la crítica de la Economía Política*, Tecnos.
- ROUSSEAU, J. J. (1988). *Consideraciones sobre el gobierno de Polonia*. Madril, Tecnos.
- ROUSSEAU, J. J. (1991). *Del contrato social. Discurso sobre las ciencias y las artes. Discurso sobre el origen y los fundamentos de la desigualdad entre los hombres*. Madril, Alianza.
- ROUSSEAU, J. J. (1993). *Gizarte-Hitzarmena*. Bilbo, Klasikoak.
- RUBIN, G. (1975). *The traffic in women: Notes on the political economy of sex. Toward an Anthropology of women*. Reitter, R.R. New York.
- RUBIN, G. (1989). *Reflexionando sobre el sexo: notas para una teoría radical de la sexualidad*. Placer y Peligro. Madrid, Revolución.
- RUBIRALTA CASAS, F. (1997). *El nuevo nacionalismo radical. Los casos gallego, catalán y vasco (1959-1973)*. Donostia, Hirugarren Prentsa.
- RUSTOW, D. A. (1967). *A World of Nations: Problems of Political Modernization*. Washington, D. C., Brookings Institute.

- SALCEDO, M. (1997). *Familia antolatzekeo estrategiak*. Gasteiz, Emakunde.
- SALOMON, A. (1935). Tocqueville, moralist and sociologist. *Social Research* 2: 405-438.
- SALTZMAN, J. (1992). *Equidad y Género. Una teoría integrada de estabilidad y cambio*. Madril, Ediciones Cátedra.
- SANCHEZ CARRION, J. J. (1995). *Manual de análisis de datos*. Madril, Alianza.
- SARACENO, C. (1988). *La estructura del género en la ciudadanía*. Mujer y Realidad Social. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- SARASOLA, I. (1976). *Historia social de la literatura vasca*. Madril, Akal.
- SARRAILH de IHARTZA, F. (1979). *La Nueva Vasconia*. Donostia, Ediciones Vascas.
- SCANLON, G. M. (1987). La mujer y la instrucción pública: de la ley Moyano a la II República. *Historia de la Educación* 6.
- SCHWARTZ, J. (1984). *The Sexual politics of Jean-Jaques Rousseau*. Chicago, University of Chicago Press.
- SCOTT, J. W. (1990). *El género: una categoría útil para el análisis histórico*. *Historia y Género: las mujeres en la Europa Moderna y Contemporánea*. J. S. Amelang and M. Nash. Valentzia, Alfons el Magnanim.
- SETIEN, J. F. (1979). Gordailu eta euskal pedagogia. *Jakin* 11: 105-110.
- SETON-WATSON, H. (1977). *Nations and states: an enquiry into the origins of nations and the politics of nationalism*. London, Methuen.
- SHOWSTACK SASSOON, A. (1996). *Las mujeres y el Estado*. Madrid, Vindicación feminista.
- SIERRA BRAVO, R. (1984). *Ciencias Sociales. Epistemología, Lógica y Metodología*. Madril, 1983.
- SKEVINGTON, S. B., D. (1989). *The social identity of women*. London, Sage publications.
- SMELSER, N. J. (1988). *Handbook of Sociology*, Sage Publication.
- SMELSER, N. J. and WARNER R.S. (1990). *Teoría sociológica: análisis histórico y formal*. Madril, Espasa.

SMITH, A. (1996). The resurgence of nationalism? Myth and memory in the renewal of nations. *British Journal of Sociology* 47: 575-598.

SMITH, A. D. (1976). *Las teorías del nacionalismo*. Barcelona, Peninsula.

SMITH, A. D. (1996). "Memory and modernity: reflections on Ernest Gellner's theory of nationalism." *Nations and nationalism* 2.

SMITH, A. D. (1996). "Nations and their pasts." *Nations and nationalism* 2: 359-365.

SMITH, A. D. (1997). ¿Gastronomía o Geología? El papel del nacionalismo en la reconstrucción de las naciones. *Zona Abierta* 79.

SMITH, A. D. (1997). *La Identidad Nacional*. Madrid, Trama Editorial.

SMITH, D. (1978). A peculiar eclipsing: women's exclusion from man's culture. *Women's Studies International Quarterly* 1: 281-295.

SMITH, D. (1979). *A sociology for women*. The Prism of Sex: Essays in the Sociology of Knowledge. J. A. Sherman/ E. T. Beck. Madison, University of Wisconsin Press.

SNYDER, L. S. (1954). *The meaning of Nationalism*. New Brunswick, Rutgers University Press.

SOLANO y AGIRRE, F. (1934). La lucha por la enseñanza nacional. *Yakintza* III: 196-210.

SOLÉ, C. (1991). La mujer en el pensamiento sociológico. *Sistema* 101: 39-49.

SPIKE PETERSON, V. (1994). Gendered Nationalism. *Peace Review* 6:1: 77-83.

STACEY, J. eta THORNE, B. (1985). The Missing Feminist Revolution in Sociology. *Social Problems* 32, 4.zka Apirila.

STANLEY, L. and S. WISE (1983). *Breaking Out*. London, Routledge eta Kegan Paul.

STAROBINSKI, J. (1983). *Jean-Jacques Rousseau. La Transparencia y el obstáculo*. Madrid, Taurus.

STASIULIS, D. and R. JHAPPAN (1995). *The Fractious Politics of a Settler Society: Canada*. Unsettling Settler Societies. (Articulations of Gender, Ethnicity and Class. D. Stasiulis eta N. Yuval-Davis. London, Sage Publications.

- STEWART, A. (1995). Two conceptions of citizenship. *British Journal of Sociology* 46.
- STOLCKE, V. (1989). ¿ Qué revolución feminista en la enseñanza: "estudios de la mujer" o "integración curricular" *Papers: Revista de Sociología*.
- STOLCKE, V. (1989). *Una ciudadana sin ciudadanía propia: La naturaleza de la nacionalidad en La Francia, La Alemania, y La Inglaterra del siglo XIX*. Hombres y mujeres en la formación del pensamiento occidental.§. Madril, Universidad Autónoma de Madrid.
- STRATHERN, M. (1979). *Una perspectiva Antropológica. Antropología y Feminismo*. Bartzelona, Anagrama.
- STRAUSS, L. eta J. CROPSEY (1992). *Historia de la filosofía política*. Mexico, D. F., Fondo de Cultura Económica.
- SULLEROT, E. (1970). *Historia y Sociología del trabajo femenino*. Bartzelona, Ediciones península.
- SULZBACH, W. (1943). *National Consciousness*. Washington, American Council of Public Affairs.
- SWAAN, A. de (1992). *A cargo del Estado*. Bartzelona, Pomarés-Corredor.
- SYMMONS-SYMONOLEWICZ, K. (1970). *Nationalist Movements: a Comparative View*. Meadville, Maplewood Press.
- TAYLOR, P. J. (1994). *Geografía Política: Economía-mundo, Estado-nación y Localidad*. Madril, Trama Editorial, S. L.
- TEJERINA, B. (1990). *Identidad Colectiva y lengua. Imágenes sociales del euskara en el posfranquismo*, Madril, CIS.
- TEJERINA, B., AIERDI, X. eta beste batzuk (1995). *Sociedad Civil, protesta y Movimientos Sociales en el País Vasco*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzza.
- THAPAR, S. (1993). Women as activists; Women as symbols: A study of the Indian nationalist Movement. *Feminist Review* 44.
- TOCQUEVILLE, A. (1984). *Recuerdos de la Revolución*. Madril, Editora nacional.
- TOCQUEVILLE, A. (1995). *Amerikako Demokrazia*. Bilbo, Klasikoak, S. A.
- TÖNNIES, F. (1979). *Comunidad y asociación*. Bartzelona, Península.
- TORREALDAI, J. M. (1977). *Euskal idazleak gaur*. Aranzazu, Jakin.

- TURNER, B. S. (1990). Outline of a Theory of citizenship. *Sociology* 24, nº2: 189-217.
- UGALDE, M. (1992). *Identidad Femenina y Nacionalismo Vasco.*, III Conferencia de ISSEI sobre 'European integration and the european mind'.
- UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza 1906-1936.* Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- UGALDE, M. (1995). Dinamica de Genero y Nacionalismo: La movilización de vascas y catalanas en el primer tercio de siglo. *Ayer. Revista de la Asociación de Historia Contemporanea.* 17, 1. hiruilabetekoa.
- UGALDE, M. (1996). Notas para una historiografía sobre nación y diferencia sexual. *Arenal. Revista de historia de las mujeres.* 3, nº2, julio-diciembre (Genero y construcción nacional.).
- UGARTETXEA, A. (1990). Andereñoa. *Isilik* 12: 42-44.
- URIA, I. eta J. ZUMALABE (1990). Iñaki Larrañagarekin elkar hizketa: "Normalizazioa ez da elebitasun soziala". *BAT. Soziolinguistika eta Glotopolitika aldizkaria* 1. zka.: 51-73.
- VALLE, T. (1985). *Mujer vasca, imagen y realidad.* Barcelona, Anthropos.
- VAZQUEZ, K. (1993). *Las categorías de sexo género y sexualidad: La construcción de las mujeres como sujetos políticos. Teoría Feminista: identidad, género y política.* Donostia, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- VOGEL, L. (1979). Marxismo y Feminismo. *Monthly Review* 31 nº2: 43-69.
- WALBY, S. (1986). *Patriarchy at Work.* Cambridge, Polity.
- WALBY, S. (1988). *Gender Politics and Social Theory.* *Sociology* 22: 215-232.
- WALBY, S. (1989). Theorising Patriarchy. *Sociology* 23 nº2: 213-234.
- WALBY, S. (1992). Woman and Nation. *International Journal of Comparative Sociology.* XXXIII, 1-2: 81- 100.
- WALBY, S. (1994). Is citizenship gendered? *Sociology* 28: 379-395.
- WALDMANN, P. (1997). *Radicalismo Etnico.* Madrid, Akal.
- WALLACE, R. A. (1989). *Feminism and Sociological Theory.* London, Sage publications.

- WARD, M. (1992). Feminism and Nationalism in Ireland: Can we learn from history? *Journal of Gender Studies* 1, 4: 492-499.
- WATERS, M. (1989). Citizenship and the Constitution of Structured Social Inequality. *International Journal of Comparative Sociology* XXX, 3-4: 159-180.
- WATERS, M. (1989). Patriarchy and Viriarchy: an exploration and reconstruction of concepts of masculine domination. *Sociology* 23 n°2: 193-211.
- WEBER, M. (1944). *Dominación Patriarcal y Patrimonial. Economía y Sociedad. F. d. C. Económica*. México, Fondo de Cultura Económica.
- WEILER, M. (1977). *Mujeres activas. Sociología de la mujer trabajadora en España*. Madrid, Ediciones de la Torre.
- WEST, L. A. (1992). Feminist Nationalism Social Movements. Beyond Universalism and Towards a Gendered Cultural Relativism. *Women's Studies Int. Forum* 15, 5/6: 563-579.
- WILLIAMS, C. H. (1982). *National Separatism*. Cardiff, University of Wales Press.
- YUVAL-DAVIES, N. (1988). *Woman/Nation/State: The Demographic Race and National Reproduction in Israel*. .
- YUVAL-DAVIES, N. (1991). The Citizenship Debate: Women, Ethnic processes and the State. *Feminist Review* n°39: 58-68.
- YUVAL-DAVIES, N. (1993). Gender and Nation. *Ethnic and Racial Studies* 16, 4.zbk: 621- 632.
- YUVAL-DAVIES, N. (1994). *Women, Ethnicity and Empowerment*. Shifting Identities, Shifting Racism. K. P. Bhavnani, A. London, Sage: 179- 197.
- YUVAL-DAVIES, N. (1997). *Gender & Nation*. London, Sage.
- YUVAL-DAVIES, N. (1997). Women, Citizenship and Difference. *Feminist Review* 57: 4-27.
- YUVAL-DAVIES, N. eta ANTHIAS, F. (1989). *Woman-Nation-State*. London, Macmillan.
- ZABALETA, I. eta DAVILA, P. (1990). Euskal eskolaren lehen urratsak. *Tantak* 4: 21-32.

ZABALETA IMAZ, I. (1997). *Euskal Nazionalismoa eta Hezkuntza*, Euskal Herriko Unibertsitatea.

ZABALO BILBAO, J. (1996). *Euskal Nazionalismoa eta Nazio Lurraldea*. Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea.

ZALBIDE, M. (1988). *Mende-hasierako euskalgintza: urratsak eta hutsuneak*, Eusko Jaurlaritzako argitalpen zerbitzua.

ZALBIDE, M. (1990). *Euskal Eskola, asmo zahar bide berri*. Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua: 212-271.

ZETTERBAUM, M. (1987). *Alexis de Tocqueville. Historia de la Filosofía Política*. Mexico, Fondo de Cultura Económica.

ZULAIKA, J. (1990). *Violencia Vasca. Métafora y Sacramento*. Madril, Nerea argitaletxea.